



**EUSKAL
EKONOMIA**

2020ko
TXOSTENA



LABORAL
kutxa

Ikerketa Departamentua
Zuzendaria: Joseba Madariaga
Lan taldea: IKEI research & consultancy SA

© Laboral Kutxa

ISBN: 978-84-946432-7-9

1. LABURPEN EXEKUTIBOA	13
2. ESPARRU OROKORRA.....	18
1. COVID-19AREN ERAGINA.....	19
2. INGURUNE EKONOMIKOA (NAZIOARTEKOA ETA ESTATUKOA)	26
2.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA.....	26
2.2 ESPAINIAKO EKONOMIA	34
3. IKUSPEGI OROKORRA	44
3.1 PRODUKZIOA.....	45
3.2 ESKARIA.....	49
3.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK.....	54
3.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA	56
3. INDUSTRIA	64
1. IKUSPEGI OROKORRA	65
2. ENERGIA.....	70
2.1 EAEKO BALANTZE ENERGETIKOA.....	71
2.2 ENERGIA ELEKTRIKOA.....	76
3. SIDERURGIA.....	80
3.1 IKUSPEGI OROKORRA.....	80
3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA.....	83
3.3 EUSKAL SIDERURGIA	86
4. ONTZIGINTZA	95
4.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	95
4.2 ONTZIGINTZA ESPAINIAN.....	97
4.3 ONTZIGINTZA EUSKAL HERRIAN	99
5. AUTOMOBILGINTZA.....	104
5.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	105
5.2 SEKTOREA ESPAINIAN	108
5.3 AUTOMOBILGINTZAKO HORNIDURA-INDUSTRIA EAE-N	113
6. MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK	116
6.1 MAKINA ERREMINTEN EUROPAKO INDUSTRIA	116
6.2 MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK.....	117
6.3 MAKINA-ERREMINTA EUSKAL HERRIAN.....	118
6.4 ESKU-ERREMINTA.....	121
7. PAPERA	123
7.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	123
7.2 SEKTOREA ESPAINIAN	125
7.3 SEKTOREA EUSKAL HERRIAN.....	128
8. KAUTXUA.....	130
8.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	130
8.2 KAUTXUAREN ERALDAKETA-SEKTOREA ESPAINIAN ETA EAE-N.....	130
8.3 PNEUMATIKOEN ETA BIRKAUTXUTATUAREN AZPISEKTOREA	132
9. SEKTORE ELEKTRONIKO-INFORMATIKOA	135
9.1 SEKTOREA ESPAINIAN ETA NAZIOARTEKO JOERAK.....	135
9.2 SEKTOREA EAEN	135
10. ERAIKUNTZA	138
11. SEKTOREEN ANALISI EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA.....	150
11.1 SARRERA.....	150
11.2 METODOLOGIA.....	150

11.3	RATIOEN PIRAMIDEA.....	161
11.4	FUNTSEN ITURRIEN ETA ERABILEREN EGOERA	166
12.	EUSKAL ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA.....	189
12.1	SARRERA.....	189
12.2	BILAKAERA OROKORRA.....	189
12.3	SEKTORE EKONOMIKOAK.....	192
12.4	SOLDATAPEKOEN ESTRATUAK.....	194
4.	LEHEN SEKTOREA.....	198
1.	IKUSPEGI OROKORRA	199
1.1	BILAKAERA ESTATU MAILAN	199
1.2	BILAKAERA EUSKAL HERRIAN.....	201
2.	NEKAZARITZA-AZPISEKTOREA	210
2.1	EKOIZPENAK, AZALERAK ETA ERRENDIMENDUAK.....	210
2.2	EKOIZPENAK, AZALERAK ETA ERRENDIMENDUAK.....	211
2.3	NEKAZARITZAKO PREZIOAK	215
3.	ABELTZAINZA-AZPISEKTOREA.....	217
3.1	ABELTZAINZA-ERROLDA.....	218
3.2	ABERE-EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK.....	220
4.	BASOGINTZAREN AZPISEKTOREA	231
5.	ARRANTZA-SEKTOREA	234
5.1	IKUSPEGI OROKORRA.....	234
5.2	BAXURAKO ARRANTZA.....	236
5.3	ALTURAKO ARRANTZA.....	244
5.	ZERBITZUAK.....	246
1.	IKUSPEGI OROKORRA	247
2.	HEZKUNTZA	248
2.1	UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN IKASLEEN BILAKAERA.....	248
2.2	UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA	257
3.	GARRAIOA.....	266
3.1	TRENBIDE BIDEZKO GARRAIOA.....	266
3.2	ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA	270
3.3	ITSASO BIDEZKO GARRAIOA.....	275
3.4	AIRE BIDEZKO GARRAIOA	284
4.	TURISMOA.....	288
4.1	COVID-19A: AGERTOKI-ALDAKETA	288
4.2	NAZIOARTEKO EGOERA.....	288
4.3	TURISMOA ESPAINIAN	289
4.4	TURISMOA EAEN	296
6.	FINANTZA SEKTOREA.....	306
1.	IKUSPEGI OROKORRA	307
2.	KREDITU-ERAKUNDEAK.....	310
2.1	KREDITUAREN BILAKAERA	310
2.2	GORDAILUEN BILAKAERA	321
3.	INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEAK.....	327
4.	BURTSA-MERKATUA	332
4.1	IKUSPEGI OROKORRA.....	333
4.2	BILBOKO BURTSA.....	338

Koadroen aurkibidea

1. koadroa	Afiliazioaren eta kontratazioaren bilakaera.....	19
2. koadroa	Afiliazioaren banaketa, erregimenen arabera. EAE.....	20
3. koadroa	Afiliazioaren banaketa, jarduera arloen arabera. EAE.....	21
4. koadroa	Erregistratutako langabeziaren eta langabezia-tasaren bilakaera.....	21
5. koadroa	Erakunde ezberdinek egindako aurreikuspen ekonomikoak.....	25
6. koadroa	Barne Produktu Gordinaren bilakaera.....	26
7. koadroa	Kontsumo pribatuaren, kontsumo publikoaren eta inbertsioaren bilakaera.....	27
8. koadroa	Ondasun eta zerbitzuen truke-bolumenaren aldakuntzak.....	28
9. koadroa	Kontsumoaren prezio-indizearen bilakaera.....	28
10. koadroa	Langabezia-tasa.....	29
11. koadroa	Administrazio Publikoen finantzaketa-beharrak (finantzaketa-ahalmena (+) edo finantzaketa-beharra (-), BPG nominalaren ehunekoaren arabera).....	30
12. koadroa	Adierazle nagusiak (EB).....	31
13. koadroa	Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundea (Europar Batasuna).....	32
14. koadroa	Europar Batasuneko per capita BPGa (PPS) 2020.....	33
15. koadroa	Ekonomia-aurreikuspenak (industrializatutako herrialdeak).....	34
16. koadroa	Barne-produktu gordina eta haren osagaiak (Eskaria eta Eskaintza).....	36
17. koadroa	Barne Produktu Gordinaren banaketa (Errenta).....	36
18. koadroa	Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) eta Industriako Prezioen Indizea (IPRI).....	38
19. koadroa	Errenten eta soldata-kostuen adierazleak.....	39
20. koadroa	Lan-magnitude nagusien bilakaera. Urteko batezbestekoak.....	40
21. koadroa	Enplegua, lan-egoeraren eta kontratu-motaren arabera. Urteko batezbestekoak.....	41
22. koadroa	Defizit publikoa.....	42
23. koadroa	Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2021).....	43
24. koadroa	Bilakaera orokorra.....	44
25. koadroa	Barne produktu gordinaren (BPG) bilakaera.....	46
26. koadroa	Industria Sektoreko Adierazleak.....	47
27. koadroa	Eraikuntza Sektoreko Adierazleak.....	48
28. koadroa	Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak.....	49
29. koadroa	Barne-eskariaren adierazleak.....	49
30. koadroa	Kontsumo- eta inbertsio-adierazleak.....	50
31. koadroa	Kanpo-merkataritzaren bilakaera Euskal Herrian.....	51
32. koadroa	EAEko esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sekzioen arabera.....	52
33. koadroa	Nafarroako esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera.....	53
34. koadroa	Prezioen bilakaera EAEn eta Nafarroan.....	54
35. koadroa	Soldata-adierazleak.....	55
36. koadroa	Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia.....	58
37. koadroa	Langabezia-tasa adin-tarteen arabera. Urteko batezbestekoak.....	59
38. koadroa	Enpleguaren bilakaera, sektore ekonomikoen arabera. Urteko batezbestekoak.....	60
39. koadroa	SEPEren bulegoetan erregistratutako kontratuak.....	61
40. koadroa	Hitzarmen kolektiboak eta grebak.....	61
41. koadroa	Biztanleriaren mugimendu naturala. Jaiotza- eta heriotza-tasak, 2019.....	62
42. koadroa	Euskal Herriko biztanleriaren mugimenduaren bilakaera.....	63
43. koadroa	Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera.....	65
44. koadroa	Euskal Herriko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen jomuga ekonomikoaren arabera.....	66
45. koadroa	EAEko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera*.....	67
46. koadroa	Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera.....	67
47. koadroa	Ratio batzuen bilakaera, euskal industria-enpresen lagin baterako.....	68
48. koadroa	Emaitzen kontua. Urte arteko bilakaera (enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko).....	69
49. koadroa	EAEko balantze energetikoa (2019).....	72

50. koadroa	EAEko azken kontsumoa energia moten arabera	72
51. koadroa	EAEko azken kontsumoa sektoreen arabera.....	74
52. koadroa	Energia elektrikoaren ekoizpena eta eskaria Euskal Herrian.....	77
53. koadroa	Energia elektrikoaren kontsumo garbia lurraldearen arabera	78
54. koadroa	Altzairu gordinaren ekoizpena.....	81
55. koadroa	Siderurgia-produktuen kontsumoa	82
56. koadroa	Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak*	83
57. koadroa	Inportatutako lehengaiak	84
58. koadroa	EAEko siderurgia-industriaren kanpo-merkataritza	87
59. koadroa	Siderurgia-jarduerak EAEko industriari egindako ekarpena	88
60. koadroa	Altzairuaren ageriko kontsumoa, produktuen arabera.....	88
61. koadroa	Beroan ijeztutako produktuen ekoizpena*	89
62. koadroa	Soldadurarik gabeko hodien kanpo-merkataritza.....	91
63. koadroa	Soldadurarik gabeko hodien esportazioak, helmugako herrialdeen arabera	91
64. koadroa	Negozio arloak eta enpresa-unitateak. Tubos Reunidos taldea. 2020	94
65. koadroa	Munduko merkataritza-flota.....	95
66. koadroa	Munduko merkataritza-flota, jatorrizko herrialdearen arabera	96
67. koadroa	Munduko merkataritza-flota, itsasontzi motaren arabera.....	97
68. koadroa	Espainiako itsasontzien ekoizpena	98
69. koadroa	Eskarien zorroa urtearen amaieran	98
70. koadroa	Eskarien zorroa itsasontzi motaren arabera, urtearen amaieran. 2020	99
71. koadroa	Ontzigintza Euskal Herrian.....	100
72. koadroa	Ontzigintza Euskal Herrian. Estatuko partaidetza. Tonaje konpentsatua.....	100
73. koadroa	Eskarien zorroa Euskal Herrian	102
74. koadroa	Eskarien zorroa, amaitutako ontziak eta hasitako ontziak, enpresen arabera	102
75. koadroa	Ibilgailuen ekoizpena. Herrialde nagusiak	106
76. koadroa	Ibilgailuen matrikulazioa. Herrialde nagusiak	107
77. koadroa	Espainiako automobil-industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpoko merkataritza.....	108
78. koadroa	Turismoen matrikulazioa marken arabera	109
79. koadroa	Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak.....	110
80. koadroa	Automobilgintza-sektoreko esportazioak eta inportaziok (ibilgailuak gehi osagarriak).....	111
81. koadroa	Automobilgintzako ekipoen eta osagaien Espainiako industriaren zifra nagusiak.....	112
82. koadroa	Automobilgintzako euskal hornidura-sektorearen bilakaera.....	114
83. koadroa	Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologiaren sektorearen ekoizpena.....	117
84. koadroa	Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologiaren sektorearen esportazioa.....	118
85. koadroa	Espainiar Estatuko makina-erreminten sektorearen aldagai nagusien bilakaera.....	119
86. koadroa	Espainiako makina-erreminten esportazioen jomugako herrialde nagusiak	120
87. koadroa	Espainiak inportatutako makina-erreminten jatorrizko herrialde nagusiak	121
88. koadroa	Sektorearen magnitude nagusien bilakaera.....	122
89. koadroa	Paperaren eta kartoiaren ekoizpena (CEPIko kideak)	123
90. koadroa	Paperaren eta kartoiaren ekoizpena, herrialdeka.....	124
91. koadroa	Ore-ekoizpena, herrialdeen arabera.....	125
92. koadroa	Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa. Espainia, guztira.....	126
93. koadroa	Ekoizpena eta kontsumoa, paper motaren arabera.....	127
94. koadroa	Ekoizpena eta kontsumoa, ore motaren arabera	127
95. koadroa	Paperaren eta orearen ekoizpena Euskal Herrian.....	128
96. koadroa	Euskal Herriko paperaren sektoreko enpresa nagusiak	129
97. koadroa	Kautxu naturalaren eta sintetikoaren munduko kontsumoa	130
98. koadroa	Kautxuaren eraldaketa-sektorearen oinarritzko datuak ⁰ Espainian.....	131
99. koadroa	Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza, azpisektore handien arabera	131
100. koadroa	Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza, azpisektore handien arabera.....	132
101. koadroa	Pneumatikoen eta birkautxutatuaren ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkataritza.....	133
102. koadroa	Ibilgailuen ekoizpena eta salmenta Espainian.....	133

103. koadroa	Sektore elektroniko-informatikokoko eta telekomunikazioen sektoreko enpresen bilakaera EAEn.....	136
104. koadroa	Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko ekoizpenaren bilakaera EAEn.....	136
105. koadroa	Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko esportazioen bilakaera EAEn.....	137
106. koadroa	Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko enpleguaren bilakaera EAEn.....	137
107. koadroa	Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera.....	139
108. koadroa	Eraikuntzaren Indize Koiunturala (EAE).....	139
109. koadroa	Administrazio Zentralaren, Autonomikoaren eta Tokikoaren arteko lizitazio ofizialaren banaketa.....	140
110. koadroa	Lizitazio ofizialaren urtetik urterako aldakuntza eta Administrazioen arteko banaketa (2020).....	140
111. koadroa	Lizitazio ofiziala obra motaren arabera (2020).....	141
112. koadroa	Hasitako eta amaitutako etxebizitzak*.....	144
113. koadroa	Birgaitze babestuaren arloko lanak EAEn*.....	146
114. koadroa	Eraikuntzan lanean ari den biztanleria.....	146
115. koadroa	Eraikuntzako lehengaien prezioen bilakaera.....	148
116. koadroa	Eraikuntzako lehengaien-materialen prezioek urtetik urtera izandako igoera (2021eko martxoa-2020ko martxoa), taldearen arabera.....	149
117. koadroa	Eraikuntzako kostuen indizearen bilakaera (EAE).....	149
118. koadroa	Espainiako Bankuko Balantzeen Zentraleko enpresa laguntzaileen kopurua.....	161
119. koadroa	Ondare garbiaren errentagarritasuna Euskal Herriko industria-sektoreetan.....	162
120. koadroa	Aktibo garbiaren errentagarritasuna Euskal Herriko industria-sektoreetan.....	162
121. koadroa	Leverage finantzarioa Euskal Herriko industria-sektoreetan.....	163
122. koadroa	Euskal Herriko eta Estatu osoko industria-sektoreen arteko alderaketa, 2019.....	164
123. koadroa	Funtsen iturrien eta erabileren egoera Euskal Herriko industria-sektoreetan.....	167
124. koadroa	Euskal Herriko eta Estatu osoko industria-sektoreen arteko alderaketa, 2019.....	168
125. koadroa	Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko ratioen piramidea.....	171
126. koadroa	Industria kimikoaren sektoreko ratioen piramidea.....	172
127. koadroa	Kautxu eta plastikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	173
128. koadroa	Metalurgia sektoreko ratioen piramidea (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa).....	174
129. koadroa	Produktu metalikoen sektoreko ratioen piramidea.....	175
130. koadroa	Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea	176
131. koadroa	Beste makineria eta ekipo batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	177
132. koadroa	Ibilgailu motordunen, atoen eta erdi-atoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	178
133. koadroa	Industria osoaren ratioen piramidea.....	179
134. koadroa	Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	180
135. koadroa	Industria kimikoaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	181
136. koadroa	Kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	182
137. koadroa	Metalurgia sektoreko (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa) iturrien eta erabileren egoera.....	183
138. koadroa	Produktu metalikoen fabrikazioaren sektoreko (makineria eta ekipoa izan ezik) iturrien eta erabileren egoera.....	184
139. koadroa	Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	185
140. koadroa	Beste makineria eta ekipo batzuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	186
141. koadroa	Ibilgailu motordunen, atoen eta erdi-atoen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	187

142. koadroa	Industria-sektore osoko iturrien eta erabileren egoera	188
143. koadroa	Enpresak, atal ekonomikoaren arabera. 2014-2020ko konparazioa	194
144. koadroa	Enpresak, soldatapekoen estratuen arabera. 2014-2020ko konparazioa	197
145. koadroa	Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak	200
146. koadroa	EAEko nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak*	202
147. koadroa	Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Euskal Herria	206
148. koadroa	Enplegua lehen sektorean*	208
149. koadroa	Euskal Herriko nekazaritza-ekoizpen adierazgarrienak*	212
150. koadroa	Euskal Herriko produktu esanguratsuenekin landatutako azalera*	213
151. koadroa	Nekazaritza-produktu esanguratsuenek lortutako errendimenduak*	214
152. koadroa	Nekazaritza-produktu esanguratsuenen prezioak(*)	216
153. koadroa	Abeltzaintza-errola (urte bakoitzeko azaroaren 30ean)	219
154. koadroa	Esne-ekoizpena	221
155. koadroa	EAEko ekoiztako esnearen erabilera	222
156. koadroa	Esnea ekoizten duten eliteko behi-ustiategi batzuek osatutako lagin baten emaitzak	223
157. koadroa	ABEREk eta INTIA-ITGk kudeatutako ardi-esne ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak	224
158. koadroa	Abere eta INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden haragitarako behi- eta ardi-ustiategien emaitzak	226
159. koadroa	INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-ustiategien emaitzak	227
160. koadroa	Euskal Herrian hildako azkeneko kanaleko pisua	228
161. koadroa	EAEko egurra mozteko lizentziak	232
162. koadroa	EAEko egurra mozteko lizentziak	233
163. koadroa	Euskal Herriko ontzidiaren egitura	235
164. koadroa	EAEko baxurako ontzidia, portuen arabera (2020)	237
165. koadroa	EAEko baxurako ontzidia, modalitatearen arabera, 2020	238
166. koadroa	Baxurako ontzidiaren bidez lehorreratutako arrantza, guztira	240
167. koadroa	Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantza osoa, portuen arabera, 2020	241
168. koadroa	Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa, portuen arabera, 2020	242
169. koadroa	Antxoaren eta hegaluzearren arrantza-aldien bilakaera	243
170. koadroa	Euskal Herriko alturako ontzidiaren egitura, 2020	245
171. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Haur Hezkuntza	248
172. koadroa	Euskalduntze maila Haur Hezkuntza	249
173. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Lehen Hezkuntza	250
174. koadroa	Euskalduntze maila Lehen Hezkuntza	251
175. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. DBH	252
176. koadroa	Euskalduntze maila DBH	252
177. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa	254
178. koadroa	Euskalduntze maila Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa	255
179. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Batxilergoa	256
180. koadroa	Euskalduntze maila Batxilergoa	256
181. koadroa	Ikasleen eta irakasleen bilakaera Euskal Herriko unibertsitateetan	258
182. koadroa	Ikasleen banaketa UPV/EHU	259
183. koadroa	Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean	261
184. koadroa	Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (UPNA)	262
185. koadroa	Ikasleen banaketa Deustuko Unibertsitatean	263
186. koadroa	Ikasleen banaketa Mondragon Unibertsitatean	264
187. koadroa	Bidaiarien mugimendua*	266
188. koadroa	Bidaiarien mugimendua konpainien arabera	266
189. koadroa	Bidaiarien garraioagatiko diru-bilketa	267
190. koadroa	Jatorria eta/edo helmuga Euskal Herrian duten merkantzien bolumena(*)	267
191. koadroa	Trenbide bidezko garraioan enplegatutako langileak	268
192. koadroa	Bidaiarien mugimendua Bilboko Metroan	269
193. koadroa	Ibilgailuen parkea*	271

194. koadroa	Kamioi, traktore industrial eta autobusen matrikulazio garbia*	271
195. koadroa	Motorizazio-indizeak.....	272
196. koadroa	Garraiatutako merkantziak, autonomia-erkidegoaren arabera. Eskualde barruko garraioa eta eskualde arteko garraioa, jatorri eta/edo helmugako autonomia-erkidegoaren arabera.....	273
197. koadroa	Hiri-garraioa. Sektorearen oinarritzko datuak.....	273
198. koadroa	Hiri-garraioaren bilakaera.....	274
199. koadroa	Itsaso bidezko munduko merkataritza	275
200. koadroa	Espainiako itsas merkataritza	275
201. koadroa	Euskal Herriko portu nagusietako trafikoa.....	276
202. koadroa	Merkantzien guztizko trafikoaren osaera.....	277
203. koadroa	Kanpoko trafikoa eta kabotajea	277
204. koadroa	Bilboko Portuaren kanpoko trafikoaren osaera. 2020	278
205. koadroa	Pasaiaiko Portuaren kanpoko trafikoaren osaera. 2020	279
206. koadroa	Bilboko Portua. Herrialdeen arabeko trafikoa. 2020	280
207. koadroa	Pasaiaiko Portua. Herrialdeen arabeko trafikoa. 2020	280
208. koadroa	Bilboko Portua. Magnitude ekonomikoak.....	281
209. koadroa	Euskal Herriko aire bidezko garraioa*	284
210. koadroa	Aireportuko aireontzien trafikoa*	285
211. koadroa	Merkantzien trafikoa, aireportuen arabera*	285
212. koadroa	Bidaiarien trafikoa, aireportuen arabera*	286
213. koadroa	Aireportuko trafikoaren hazkundera (2020/2019)*	286
214. koadroa	Nazioarteko turistak	289
215. koadroa	Espainiara datozen bidaiariak, jatorriaren arabera.....	291
216. koadroa	Eskari turistikoaren bilakaera Espainian.....	293
217. koadroa	Espainiako eskaintza turistikoaren bilakaera (urteko batez bestekoa).....	294
218. koadroa	Espainiako eskaintza turistikoaren bilakaera (urteko batez bestekoa).....	294
219. koadroa	Okupazio mailaren eta prezio-indizeen bilakaera Espainiako turismo-ostatuaren sareetan (urteko batezbestekoa)	295
220. koadroa	Jasotako bidaiari kopurua, ostatu-gauak eta batezbesteko egonaldia (EAE 2020). Jatorriaren arabera	297
221. koadroa	Eskaera turistikoaren bilakaera EAEn	299
222. koadroa	Hotel-establezimenduen eskaintzaren bilakaera EAEn eta lurraldeka 2018-2020	302
223. koadroa	EAEko eskaintza turistikoaren bilakaera. Urteko batezbestekoa	303
224. koadroa	Batez besteko egonaldia eta okupazio maila, establezimendu motaren eta zonalde geografikoaren arabera	304
225. koadroa	Hileko batez besteko tarifa (ADR) EAEko hotel-establezimenduetan, lurralde historiko eta kategorien arabera. Euroak	305
226. koadroa	Burtsa-indize nagusien bilakaera	308
227. koadroa	Kreditu-erakundeak eta EFC	309
228. koadroa	Gordailu-erakundeak. Bulego kopurua.....	309
229. koadroa	Afiliazioa finantza-jardueretan.....	309
230. koadroa	Kreditu-erakundeen aktiboaren osaera	310
231. koadroa	Kreditu-erakundeak. Kreditua agenteen arabera	311
232. koadroa	Kreditu-erakundeak. Kredituak, motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	312
233. koadroa	Gordailu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	313
234. koadroa	Gordailu-erakundeak. Kreditua, agenteen eta lurraldearen arabera	314
235. koadroa	Etxebizitzaren gaineko hipoteka berrien eraketa.....	316
236. koadroa	Aldaketa notarialak erregistratu dituzten etxebizitzaren gaineko hipotekak.....	317
237. koadroa	Hipoteka-betearazpena hasita duten etxebizitza partikularrak	317
238. koadroa	Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera Turismoak	318
239. koadroa	Gordailu-erakundeak. Zalantzakoen edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	318
240. koadroa	Gordailu-erakundeak. Zalantzakoen edo berankortasun-tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	319
241. koadroa	Gordailu-erakundeak. Zalantzakoen kredituaren bilakaera, helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk	320
242. koadroa	Kreditu-erakundeak. Gordailua, eragileen arabera.....	321

243. koadroa	Kreditu-erakundeak. Gordailua, moten arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	322
244. koadroa	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta administrazio publikoen gordailuak.....	322
245. koadroa	Familien errenta gordin erabilgarria eta aurrezkia.....	324
246. koadroa	Kreditu-erakundeak. Familietarako ⁽²⁾ eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berriei aplikatutako interes-tasak (TEDR) ⁽¹⁾	325
247. koadroa	Finantza arloko Inbertsio Kolektiboko Erakundeen ondarea eta kopurua.....	327
248. koadroa	Higigarrietako inbertsio-sozietateen eta -funtzen ondare-banaketa, balio eraginkorraren arabera.....	329
249. koadroa	Higigarrietako Inbertsio Funtzen (HIF), partaideen eta ondarearen banaketa, zorroaren osaeraren arabera.....	331
250. koadroa	Burtsa-indize nagusien bilakaera.....	332
251. koadroa	Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik. Inbertsio-funtsetako partaidetzak eta akzioak. Jaulkipen garbiak eta salmenta-eskaintza publikoak.....	334
252. koadroa	Burtsa-merkatua. Negoziatutako bolumenen balio efektiboa (akzioak).....	336
253. koadroa	Errenta finko publikoaren bigarren mailako merkatuan negoziatutako bolumenak: Estatuaren zorra ⁽¹⁾	337
254. koadroa	Geroko Finantzarioen eta Aukera Finantzarioen Espainiako Merkatua.....	337
255. koadroa	Bilboko Burtsaren Indize Orokorra (2000 indizea). Azken balioa, maximoa eta minimoa.....	339

Grafikoen aurkibidea


1. grafikoa	Afiliazioaren eta erregistratutako kontratu berrien bilakaera.....	20
2. grafikoa	Sektoreko adierazle nagusien bilakaera. EAE.....	22
3. grafikoa	Euskadiko ekonomiaren termometroa.....	22
4. grafikoa	Kontsumitzaileen konfiantza-indizea. EAE.....	23
5. grafikoa	BPGaren bilakaera. EAE.....	24
6. grafikoa	BPGaren bilakaera eta aurreikuspenak. EAE.....	24
7. grafikoa	Interes-tasen aldakuntza.....	30
8. grafikoa	Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala.....	42
9. grafikoa	BPGaren bilakaera.....	45
10. grafikoa	Industria-errentagarritasuna.....	68
11. grafikoa	EAEko azken kontsumoa energia moten arabera (ktep).....	73
12. grafikoa	Altzairuaren mundu mailako ekoizpena.....	82
13. grafikoa	Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak.....	84
14. grafikoa	Euskal Herriko siderurgia-establezimendu nagusien kokapena.....	86
15. grafikoa	2020ko salmenten banaketa, merkatuen arabera.....	92
16. grafikoa	Ontzigintzako eskaera-zorroaren eta ekoizpen haztatuaren bilakaera (mCGT).....	101
17. grafikoa	Sektoreko fakturazioaren bilakaera.....	114
18. grafikoa	Makina-erreminten sektoreko merkataritza-balantza.....	119
19. grafikoa	Paperaren sektorearen aldagai nagusien bilakaera Espainian.....	126
20. grafikoa	Lizitazio ofiziala.....	143
21. grafikoa	Amaitutako etxebizitza kopurua.....	145
22. grafikoa	Eraikuntzan lanean ari den biztanleria.....	147
23. grafikoa	Ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna eta haren osagaiak (aktibo garbiaren errentagarritasuna eta leverage finantzarioa) Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2019.....	165
24. grafikoa	Euskal Herriko industria-sektoreetako ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1), Estatukoarekin alderatuta, 2019.....	166
25. grafikoa	Funtsen iturrien eta erabileren egoera Euskal Herriko industria- sektoreetan, 2019.....	169
26. grafikoa	Euskal Herriko eta Estatuko industria sektoreen inbertsio-diruzaintzaren (TINV) fluxuaren alderaketa, 2019.....	170
27. grafikoa	Enpresa kopuruaren bilakaera.....	190
28. grafikoa	Enpresa kopuruaren urte arteko aldakuntza.....	191
29. grafikoa	Pisuaren bilakaera Estatuko guztizkoarekiko (Estatua=100).....	191
30. grafikoa	Enpresen bilakaera, sektore ekonomikoaren arabera (indizea 2014=100).....	193
31. grafikoa	Enpresen bilakaera, soldatapekoen tarteen arabera (indizea 2014=100).....	196
32. grafikoa	Ballo erantsi gordinaren bilakaera, nekazaritza-sektoreko faktoreen kostura.....	204
33. grafikoa	Enpleguaren bilakaera lehen sektorean*.....	208
34. grafikoa	Euskal Herriko abere-ekoizpena, espezieen araberako bilakaera.....	229
35. grafikoa	Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa (mila €), espezieen eta portuen arabera, 2020.....	239
36. grafikoa	Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldiak.....	244
37. grafikoa	Unibertsitatekoak ez diren ikasleen matrikulazioen bilakaera Euskal Herrian.....	253
38. grafikoa	Merkantzien eta itsasontzien trafikoa Bilboko Portuan.....	282
39. grafikoa	Merkantzien eta itsasontzien trafikoa Pasaiaiko Portuan.....	283
40. grafikoa	Bidaiari kopuruaren bilakaera, hilabeteka (Espainia, 2018-2020). Hotel- establezimenduak.....	292
41. grafikoa	Bidaiarien eta ostatu-gauen bilakaera, EAEn eta Lurralde Historikoetan 2017-2020.....	298
42. grafikoa	Bidaiariak eta ostatu-gauak, lurraldeen eta merkatu-segmentuen arabera (%) 2020.....	300
43. grafikoa	Bidaiari kopuruaren bilakaera eta ostatu-gauak, hilabeteka (EAE, 2018- 2020).....	301
44. grafikoa	Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra*.....	308



45. grafikoa	Gordailu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	313
46. grafikoa	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuei emandako kredituaren bilakaera.....	315
47. grafikoa	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuen bilakaera	323
48. grafikoa	Birfinantzaketako interes-tasaren bilakaera. Europako Banku Zentrala	325
49. grafikoa	Higigarrietako Inbertsio Funtsen lau taldeak bereizten dituzten hiru aldagaien urte arteko bilakaera.....	331
50. grafikoa	Europako indize nagusien bilakaera (Oinarria 100 = 2019/12/31).....	333
51. grafikoa	VIBEXen lurrunkortasun-indizea.....	336
52. grafikoa	Kotizazio Indize Orokorra Bilboko burtsa.....	338
53. grafikoa	Bilboko Burtsako kontratazio-bolumena. Balio efektiboak*	339



1. LABURPEN EXEKUTIBOA



URTEKO LABURPENA

Zoritxarreko urte gisa pasatuko da historiara 2020a. COVID-19aren krisiak gogoz astindu du planeta osoa, eta ia 4 milioi hildako utzi ditu. Eragindako mina ahaztu gabe, krisiari aurre egiteko neurrien ondorioz, barne-produktu gordinak azken hamarkadetako atzeraldirik handiena izan du. Oro har, atzeraldi ekonomikoa % 3,3koa izan da, Nazioarteko Diru Funtsaren kalkuluen arabera. Eskualde guztiek izan dituzte emaitza negatiboak, baina desberdintasun nabarmenak daude, pandemiaren eragin-mailaren eta tokian tokiko neurrien arabera. Adibidez, AEBn % 3,5ekoa izan da jaitsiera, eta Eurogunean, berriz, ia bikoitza, % 6,7koa.

Gure erreferentziako eremu geografikora etorritz:

- 2020an, EAEko barne-produktu gordinak % 9,5 egin du behera. Nafarroako Foru Erkidegoan eta Estatuan ere antzeko jaitsiera-tasak izan dituzte: % 8,3koa eta % 10,8koa, hurrenez hurren.
- Dena den, lan-merkatuko magnitude nagusien portaera ez dator bat aipatutako barne-produktu gordinaren datuekin, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpeko langileak enplegatutzat hartzen baitira, eta ez langabetzat. Horrenbestez, enpleguaren jaitsiera ekonomiarena baino askoz txikiagoa izan da erreferentziako eremuetan: EAEn % 2 murriztu da, Nafarroako Foru Erkidegoan % 3,6 eta Estatu osoan % 2,9koa.
- Era berean, magnituderik garrantzitsuena, hau da, langabezia-tasa, % 9,5era heldu da EAEn, hiru hamarren bakarrik igo baita 2019koarekin alderatuta. Nafarroan, berriz, % 10,1ekoa da langabezia-tasa, eta Espainian % 15,5ekoa. Langabezia-tasak, azken finean, eskariaren beherakadari lotutako langabezia ziklikoaren igoera islatu du, balio naturaletatik urrunduz.
- Eskaintzaren ikuspegitik, sektore guztietako balio erantsi gordinaren hazkundera negatiboa izan da aztertutako hiru eremu geografikoetan; salbuespen bakarra Estatuko lehen-sektorea da.




Nazioarteko hazkundera

Pandemia hedatu ondoren, munduko ekonomia errotik uzkurto da 2020an, jardueraren murrizketa azken hamarkadetako handiena izan baita, abiadurari eta sinkronikotasunari dagokienez. Horrela, % 3,3ko beherakada izan du, 2010ean hasitako etengabeko hazkundera bertan behera utziz. Dena den, zehaztu beharra dago eragina ez dela izan berbera eremu geografiko guztietan. Hala, atzeraldi bortitzagoa jasan dute turismoaren mendekotasun handia duten herrialdeek, lehengai-esportatzaileek eta politikak aplikatzeko marjina estuagoa dutenek.

BPGd-aren bilakaera	2018	2019	2020
			(%-tan)
Estatu Batuak	3,0	2,2	-3,5
Japonia	0,6	0,0	-4,7
Alemania	1,3	0,6	-5,1
Frantzia	1,8	1,5	-8,2
Italia	0,8	0,3	-8,9
Erresuma Batua	1,3	1,4	-9,8
Kanada	2,4	1,9	-5,4
Eurogunea	1,9	1,3	-6,7
ELGA guztira	2,4	1,6	-4,8

Iturria: ELGA. Aurreikuspen ekonomikoak, 2021ko maitza

BPGd-aren bilakaera
(Urte arteko aldakuntza-tasa)



Iturria: EIN eta Nafarroako Estatistika Institutua

BPGd-aren bilakaera sektoreka	2018	2019	2020
			(%-tan)
EAE			
- Lehen sektorea	1,7	3,2	-9,3
- Industria	2,0	1,3	-11,8
- Eraikuntza	4,0	3,4	-9,5
- Zerbitzuak	3,1	2,5	-8,5
Guztira	3,1	2,2	-9,5
NAFARROA			
- Lehen sektorea	2,0	1,0	-2,2
- Industria	1,8	2,2	-9,5
- Eraikuntza	3,6	3,4	-7,6
- Zerbitzuak	3,8	2,9	-7,9
Guztira	2,9	2,7	-8,3
ESTATUA			
- Lehen sektorea	7,5	-2,3	5,3
- Industria	0,6	1,7	-9,6
- Eraikuntza	4,1	4,3	-14,5
- Zerbitzuak	2,6	2,2	-11,1
Guztira	2,4	2,0	-10,8

Iturria: EIN, Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutua

BPGd-aren bilakaera (Estatua)

Gauzak horrela, Estatuko barne-produktu gordinak % 10,8ko beherakada historikoa izan du 2020an (% 2 egin zuen gora 2019an), eta amaiera eman dio 2014an hasitako etengabeko hazkunderari.

Lan-merkatuari dagokionez, % 2,9 jaitsi da Estatuko biztanle okupatuaren kopurua 2020an (% 2,3 igo zen 2019an), eta enpleguaren beherakada orokorra izan da lau sektore nagusietan.

Sektorekako bilakaera (EAE eta Estatua)

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak % 9,5 egin du behera 2020an, aurreko ekitaldian % 2,2 hazi ondoren. Hemen ere, lau sektore ekonomiko nagusietan eten da hazkunderaren bidea.

Estatuko datuekin alderatuta, EAEko industria-sektorearen beherakada handiagoa izan da, eta eraikuntzarena eta zerbitzuena, berriz, txikiagoa.

Lan-merkatua (EAE eta Estatua)

EAEko langabezia-tasa % 9,2tik (2019an) % 9,5era (2020an) igo da, eta biztanle okupatuaren kopurua 917,6 milara jaitsi da.

Enpleguaren bilakaera sektoreka (milaka pertsona)

EAE	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2019	10,2	190,7	52,9	682,3
2020	8,4	190,0	51,2	668,0
NAFARROA				
2019	10,2	74,9	16,2	187,6
2020	9,4	75,7	15,6	177,8
ESTATUA				
2019	797,3	2.763,1	1.227,9	14.941,0
2020	765,4	2.698,2	1.244,1	14.494,8

Iturria: EIN, Biztanleria Aktiboaren Inkesta (2011ko biztanleria-oinarria)




Datu ekonomikoek berretsi egin dute pertzepzio ezkorra. Bilakaera guztiz ezohikoa izan da, 2020ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako atzeraldiaren eta susperraldiaren nondik norakoak kontuan hartuta (-% 16,4 eta +% 15,5 hurrenez hurren, hiruhilekoen arteko tasetan). Nolanahi ere, pandemiaren bigarren eta hirugarren olatuen ondorioz, hobekuntza moteldu egin da 2020ko laugarren hiruhilekoan eta 2021eko lehenengoan. Horrenbestez, urte arteko datuei erreparatuta, 2020ko beharakada historikoa izan da: % 9,5koa, hain zuzen.

Atzera begirako ikuspegitik, 2020ko ekonomia-uzkurdurak bikoiztu egin du 2008ko krisialdian izandakoa (barne-produktu gordinak % 4,1 egin zuen behera 2009an). Argi dago bi krisiak oso ezberdinak direla, iturburua bera kontuan hartuta: gaur egungoan osagai exogeno bat izan da eragile nagusia (osasun-krisia), 2008koan ez bezala (finantza-krisia). Irtenbideak ere oso bestelakoak dira: 2021erako eta 2022rako aurreikuspenen arabera, EAEko barne-produktu gordinak susperraldi historikoa izango du (V formako profila). Aurreko krisialdian, ordea, hobekuntza ez zen heldu 2014ra arte (W formako profila).

Jarduera ekonomikoaren bilakaerak agerian utzi ditu 2020 urteko zailtasunak: jardueraren uzkurdura bortitza izan da 2020ko bigarren hiruhilekoan, eta hala berretsi dute aintzat hartu ditugun sektore-adierazle guztiek. Hirugarren hiruhilekotik aurrera, berriz, nolabaiteko hobekuntza antzeman dugu. Hala ere, urtetik urterako tasak negatiboak dira oraindik, eta 2019ko mailetatik behera daude. Joera-aldaketa 2021ean etorri da, ordea. Jarduera ekonomikoa suspertzen ari da eta halaxe jarraituko du urte osoan zehar.


Bestalde, euskal kontsumitzaileen konfiantza-indizeak behea jo zuen 2020ko bigarren hiruhilekoan, ekonomia orokorraren eta enpleguaren bilakaera okerrarekin bat. Dena dela, etxeetako ekonomia eta aurrezteko gaitasuna ez ziren horren negatiboak izan. Egoera horrek 2021eko lehen hiruhilekora arte iraun zuen (-32), baina bigarren hiruhilekoan joera bete-betean eraldatu zen, berebiziko gorakada izanik (2, +34 puntu). Beraz, euskal kontsumitzaileek baikortasunez begiratzen diote 2021eko bigarren erdiari, ekonomia orokorra eta enplegua nabarmen suspertzeko aurreikuspenari eta aurrezteko gaitasun sendoari esker (dirua aurreztu dute eta aurrezten jarraitzeko asmoa dute).

BPGd-aren bilakaera. EAE
(%-tan)




Oharra: bolumen-indize kateatua, urtaroen eta egutegiaren arabera zuzendutako datuak oinarri hartuta. Iturria: Hiruhilerako kontu ekonomikoak. Eustat

Sektoreko adierazle nagusien bilakaera. EAE
(Urte arteko aldakuntza-tasa)



Oharra: Industria Ekoizpenaren Indizeari, Zerbitzuen Indize Koiunturalari, Txikizkako Merkataritzaren Indizeari eta Eraikuntzaren Indize Koiunturalari dagozkie adierazleak. Egutegiaren arabera zuzendutako datuak oinarri hartuta. Iturria: Eustat


Kontsumitzaileen konfiantza-indizea. EAE
(Hiruhileko bilakaeraren indizea)



Oharra: honela interpretatu ditugu eskuratutako datuak: indizea positiboa bada (100 arte), egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek; indizea negatiboa bada (-100 arte), berriz, egoerak okerrera egingo duela uste dute familia gehienek. Iturria: Laboral Kutxa

Afiliazioaren eta erregistratutako kontratu berrien bilakaera

(Urte arteko aldakuntza-tasa)



Iturria: Gizarte Segurantzza eta SEPE

Lan-merkatuaren erantzunak argi islatzen du enpleguaren bilakaera: behera egin zuen, batik bat 2020ko martxotik uztaile bitartean, eta, susperraldi txiki baten ondoren, urteko azken hilabeteetan geldialdia iritsi zen. Dena dela, 2021eko lehen zatian enpleguaren dinamismoa nabarmena izan da, eta joera hori urtea amaitu aurretik finkatu egingo dela dirudi. Afiliazioaren eta kontratu berrien bilakaera oso antzekoa da (kontratuetan beharakadak askoz ere handiagoak izan arren) Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Estatu osoan.



2021-2022RAKO AURREIKUSPENAK


2021a susperraldiaren urtea dugu. Normaltasuna itzultzen ari da pixkanaka, txertatze-prozesuak aurrera egin ahala eta murrizketak kendu ahala, eta horrek guztiak hazkunde ekonomikoari eman dio bidea. Herrialde garatuak daude hazkundearen buruan, batez ere Amerikako Estatu Batuak, bertako barne-produktu gordinean % 6,4ko hazkundea espero baita aurten. Eurogunerako aurreikuspenak apalagoak dira, ordea, hemen % 4,4ko hazkunde-tasa espero baitugu. Baina eskariaren hazkundeak eragindako tentsioa antzematen hasi da, bai lehengaien prezioetan, bai bitarteko ondasun batzuen urritasunean. Horrek eragin zuzena du industria jakin batzuetan, hala nola automobilgintzan, oso lotura estua baitute beste industria-arlo batzuekin. Gauzak horrela, berriro piztu da eztabaida, batetik, inflazioari buruz, eta, bestetik, hazkunde-zikloaren hasiera honetan diru-politikaren norabidea aldatzearen balizko ondorio negatiboari buruz. Zalantza horiek zentzuzkoak dirudite Amerikako Estatu Batuetan, non berriki 2 bilioi dolar inguruko neurri fiskalak aurkeztu baitira. Baina Europan ez dute zentzu handirik, oraindik ibilbide luzea egin behar baitugu tentsio horiek prezioen igoera iraunkor bihurtu arte eta, beraz, Europako Banku Zentralak bere politika aldatu behar izan arte. Hortaz, pentsatzekoa da Eurogunean politika monetario eta fiskal moldakorrak izaten jarraituko dugula.

Horrenbestez, txostena ixtean eskura dugun informazio ekonomikoa kontuan hartuta, abian den urterako aurreikuspenak positiboak dira, % 6 inguruko hazkunde-tasa aurreikusten baitugu Espainian, % 6,3koa EAEn eta % 6,4koa Nafarroako Foru Erkidegoan. Eta, estres-egoerarik sortzen ez bada, 2022an % 6,5-% 7 inguruko balioak izango ditugu aztertutako hiru eremu geografikoetan.

Azkenik, arrisku-faktore batzuk aipatu behar dira, 2021-2022 biurtekorako aurreikusitako bilakaeran eragina izan dezaketenak. Lehenik eta behin, txertoen eraginkortasuna birusaren aldaera berriei aurre egiteko. Ezinbestekoa da pandemia atzean uztea eta normaltasunera itzultzea. Bigarrenik, pandemiaren kostu ekonomikoari lotutako ziurgabetasuna. Laguntza ekonomikoaren esparruak ezkutatu egiten du pandemiaren benetako kostua, produkzio-sarearen suntsiketari eta lan-merkatuaren hondamenari dagokienez. Datozen hilabeteotan neurtu ahal izango da kostu hori. Ildo horretan, garrantzi handikoak dira Next Generation funtsak, aukera paregabea izango baitugu produkzio-sarea sortzeko eta gure herrialdeko egitura ekonomikoa modernizatzeko. Hirugarrenik eta azkenik, krisiaren ondoriozko zorra oztopo handia izan daiteke etorkizunean, eta ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea.


BPGd

■ 2021 ■ 2022




Enplegua

■ 2021 ■ 2022



Prezioak (KPI)

■ 2021 ■ 2022



Iturria: Laboral Kutxa



2. ESPARRU OROKORRA

1. COVID-19aren ERAGINA

2020. urtean agertokia goitik behera aldatu zen eta aurrekaririk gabeko egoera bati aurre egin behar izan zion gizarteak: alarma-egoera ezartzea, funtsezkoak ez ziren jarduerak geratzea eta ezarritako neurri murriztaileen deseskalatzea, "normaltasun berrira" itzultzeko. Dena den, uda iritsi zenean argi geratu zen pandemiaren gaineko kontrol falta, eta pertsonen mugikortasunaren eta harreman sozialen gaineko muga berriak jarri behar izan ziren. Muga horiek egokitzen joan dira, une eta eremu geografiko bakoitzaren arabera, 2021ean ere mantentzen direlarik.

Errealitate soziala eta ekonomikoa gogor kaltetu ditu egoera honek eta 2020. urtea ohiz kanpokoa izan da erabat. Gainera, Covid-19ak sortutako krisiak jarduera ekonomikoari eta enpleguari ere eragin die, zeharka. Hori dela eta, sarrerako kapitulu honek testuinguru orokorra deskribatzeko balio du.

Zentzu horretan, pandemiaren eragina erakusten duen lehen adierazlea enplegua da: Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonen kopurua 2019an baino txikiagoa zen 2020aren amaieran (-% 2,2, -% 0,9 eta -% 1,9 EAEn, Nafarroan eta Estatuan), enpleguaren bolumena 2017-2018 biurtekoan erregistratutakoaren antzekoa izanik. Bilakaera honetan, aipatzekoa da ABEEE-n eragina, pertsonen enplegua mantentzea ahalbidetu baitu; bestela, afiliazioa are gehiago kaltetuko zatekeen. Lanbidek emandako datuen arabera, apirilean eta maiatzean 111.974 pertsona zeuden ABEEE egoeran EAEn (batez bestekoa); azken hiruhilekoan 8.485era jaitsi zen zifra¹ hori (hileko batezbestekoa, urritik abendura).

1. koadroa Afiliazioaren eta kontratazioaren bilakaera

	Kopurua			Urte arteko aldakuntza (%)		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020
Afiliazioa						
EAE	962.104	980.593	959.132	1,9	1,9	-2,2
Nafarroa	282.642	289.851	287.099	3,0	2,6	-0,9
Estaturia	19.024.165	19.408.538	19.048.433	3,1	2,0	-1,9
Kontratazioa						
EAE	1.001.181	1.008.175	703.355	4,5	0,7	-30,2
Nafarroa	384.981	398.817	305.030	3,6	3,6	-23,5
Estaturia	22.291.681	22.512.221	15.943.061	3,7	1,0	-29,2

Oharra: urte bakoitzeko abenduko batez besteko afiliatu kopurua (erregimen guztietan) eta urte bakoitzaren itxieran metatutako kontratuak.


Iturria: Gizarte Segurantza eta SEPE. Geuk egina.

Jarduera ekonomikoa martxoan hasi zen okertzen, eta, orokorrean, okerrera egiten jarraitu zuen uztaile arte; apur bat suspertu zen orduan, baina berriro gelditu zen urteko azken hilabeteetan; lan-merkatuaren erantzunak egoera hori islatzen du. Afiliazioaren eta erregistratutako kontratu berrien joera antzekoa izan zen EAEn, Nafarroan eta Estatuan

¹ Gizarte Segurantzak emandako datuekiko alde apur bat dago; iturri honen arabera, 141.647 eta 31.208 pertsona izan ziren, hurrenez hurren.

(kontratu-kopuruaren jaitsiera askoz handiagoa izan zen arren). Azkenik, EAEn kasuan, aipatzekoa da afiliazioaren jaitsiera autonomoen artean baino handiagoa izan zela erregimen orokorrean eta beste erregimen batzuetan. Hala eta guztiz ere, afiliatutako hamar pertsonatik ia zortzi erregimen orokorrari dagokio.

1. grafikoa Afiliazioaren eta erregistratutako kontratu berrien bilakaera



Iturria: Gizarte Segurantzaren eta SEPEren Geuk egina.

2. koadroa Afiliazioaren banaketa, erregimenen arabera. EAE

	2019		2020		Δ% Aldakuntza 20/19
	Afiliazioa		Afiliazioa	%	
Erregimen orokorra	775.296		756.010	78,8	-2,5
Autonomoak	166.792		165.554	17,3	-0,7
Gainerakoak ¹	38.505		37.569	3,9	-2,4
Afiliazioa, guztira	980.593		959.132	100,0	-2,2

¹ Barnean hartzen ditu: Itsasoko Langileen Erregimen Berezia, Etxeko Langileen Sistema Bereziaren Erregimen Orokorra, LAAB, Nekazaritzako Langileen Sistema Berezia, Nekazaritzako Langileen Sistema Bereziaren Erregimen Orokorra.

Oharra: Urte bakoitzeko abenduak batez besteko afiliatu kopurua.

Iturria: Gizarte Segurantzaren Geuk egina.

Bizitako egoera berria izan da guztiz, aurrekaririk gabekoa, globala eta zeharkakoa, eta ia jardura guztiei eragin diena. Atxikitako koadroak erakusten duen moduan, EAEn afiliazioa jaitsi egin zen honako jardura hauetan: manufaktura-industria (-% 3,8), ostalaritza (-% 10,4), jardura artistikoak eta kulturalak eta aisialdiko jarduerak (-% 10,8), beste zerbitzu batzuk (-% 9,0), finantza- eta aseguru-jarduerak (-% 2,5) eta merkataritza eta ibilgailuen salmenta eta konponketa (-% 2,0). Dena den, azken bi arlo hauetan aurretik ere aldatzen ari zen enpleguaren egitura, pandemiarekin zerikusirik ez duten arazoengatik. Bestalde, 2020an gora egin zuen arlo hauetako enpleguak: osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak (+% 2,8), informazioa eta komunikazioa (+% 1,3) eta energiaren hornikuntza (+% 5,0). Hala eta guztiz ere, bilakaera horretan funtsezkoak izan ziren ABEEEak. Eragin

handieneko hilabeteetan, apirilean eta mailatzean, ABEEEn zeuden pertsonen % 59k manufaktura-industrian, merkataritzan eta ostalaritzan lan egiten zuten.

3. koadroa Afiliazioaren banaketa, jarduera arloen arabera. EAE

	2019		2020		Δ% Aldakuntza 20/19
	Afiliazioa	Afiliazioa	%		
Manufaktura-industria	175.063	168.494	17,6		-3,8
Merkataritza eta ibilgailuen konponk.	138.906	136.136	14,2		-2,0
Osasungintza eta gizarte-zerbitzuak	107.646	110.636	11,5		2,8
Hezkuntza	75.999	75.349	7,9		-0,9
Administr.-jard. eta zerb.osagarriak	66.735	66.784	7,0		0,1
Ostalaritza	68.088	61.007	6,4		-10,4
Jard. profesional zientifiko-teknikoak	57.301	57.009	5,9		-0,5
Eraikuntza	57.092	56.624	5,9		-0,8
Admin. publ., defentsa, gizarte-segur.	49.243	48.530	5,1		-1,4
Garraioa eta biltegiatzea	43.145	42.621	4,4		-1,2
Etxeko langileak	29.709	28.876	3,0		-2,8
Beste zerbitzu batzuk	28.709	26.131	2,7		-9,0
Informazioa eta komunikazioa:	23.275	23.571	2,5		1,3
Finantza- eta aseguru-jarduerak	17.795	17.352	1,8		-2,5
Artea, aisia eta entretenimendua	17.517	15.626	1,6		-10,8
Lehen sektorea	11.784	11.721	1,2		-0,5
Ur-hornidura eta hondakinak	6.306	6.346	0,7		0,6
Higiezinen arloko jarduerak	4.157	4.132	0,4		-0,6
Energia-hornidura	1.502	1.577	0,2		5,0
Erauzketa-industriak	566	552	0,1		-2,5
Lurralde kanpoko erakundeak	57	57	0,0		1,1
Afiliazioa, guztira	980.593	959.132	100,0		-2,2

Oharra: Urte bakoitzeko abenduak batez besteko afiliatu kopurua. Erregimen guztiak.

Iturria: Gizarte Segurantza. Geuk egina.

Enplegua suntsitzearekin batera, aurreko urteetako joera hautsi eta langabeziak gora egin zuen berriro EAEn, Nafarroan eta Estatuan (+% 13,2, +% 22,4 eta +% 21,7). Hala, langabezia hiru eremuetan hazi zen, eta 2020ko laugarren hiruhilekoko emaitzak 2018ko eta 2019ko emaitzak baino nabarmen okerragoak dira: % 10,0, % 11,7 eta % 16,1 EAEn, Nafarroan eta Estatuan, hurrenez hurren.

4. koadroa Erregistratutako langabeziaren eta langabezia-tasaren bilakaera


	Urtea			Urte arteko aldakuntza (%)		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020
Erregistratutako langabezia (perts. kop.)						
EAE	119.674	114.162	129.240	-6,2	-4,6	13,2
Nafarroa	32.842	33.198	40.637	-8,1	1,1	22,4
Estatua	3.202.297	3.163.605	3.851.312	-6,2	-1,2	21,7
Langabezia-tasa (%)						
EAE	9,6	9,1	10,0	-1,0	-0,5	0,9
Nafarroa	10,0	9,0	11,7	0,4	-1,0	2,6
Estatua	14,5	13,8	16,1	-2,1	-0,7	2,4

Oharra: urte bakoitzeko abenduan erregistratutako langabezia eta urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoko langabezia-tasa. Langabezia-tasaren aldakuntza ehuneko puntutan adierazi dugu.

Iturria: SEPE eta EIN (BAI, Biztanleria Aktiboaren Inkesta). Geuk egina.

Halaber, jarduera ekonomikoaren gainera adierazleek baieztatu egiten dituzte 2020an izandako zailtasunak. Begirada EAEn jarrita, atxikitako grafikoak honakoen bilakaera erakusten du: Industria Ekoizpenaren Indizea, Zerbitzuen Indizea Koiunturala, Txikizkako Merkataritzaren Indizea eta Eraikuntzaren Indize Koiunturala. Lau indize horiek gogor jaitsi ziren bigarren hiruhilekoan, eta hobera egin zuten laugarrenean. Urtearen amaieran erregistratutako urte arteko tasak, ordea, negatiboa izaten jarraitzen du, urteko jarduera maila 2019koa baino baxuagoa izanik. Emaiza hori argi eta garbi islatzen da EAeko egoera ekonomikoaren adierazlean (termometro ekonomiko¹); martxoan jaitsiera handia izan zuen (37,0 puntu), eta pixkanaka suspertzen joan da, 2021eko apirilko data arte (138,1), hobekuntza izugarria izanik.

2. grafikoa Sectoreko adierazle nagusien bilakaera. EAE



¹ Industria Ekoizpenaren Indizeari, Zerbitzuen Indize Koiunturalari, Txikizkako Merkataritzaren Indizeari eta Eraikuntzaren Indize Koiunturalari dagozkie adierazleak.

² Egutegiaren arabera zuzendutako datuak oinarri hartuta.

Iturria: Eustat. Geuk egina.

3. grafikoa Euskadiko ekonomiaren termometroa




Oharra: hileko ehun aldagai inguru konbinatzen dituen adierazle sintetikoak. Adierazlea 50 baino baxuagoa bada, ekonomiak behera egin duela esan nahi du; 50 eta 100 artean kokatzen bada, apur bat hazi dela; eta 100etik gorakoa bada, ekonomiak hazkunde sendoa izan duela.

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza. Geuk egina.

¹ <https://www.euskadi.eus/ekonomiaren-termometroa/web01-a2ogaeko/eu/>


Halaber, euskal kontsumitzaileen konfiantza-indizea ondoratu egin zen bigarren hiruhilekotik aurrera, eta horrek agerian uzten du pertsonen igurikimenak okertu izana: zehazki, ekonomia orokorraren eta enpleguaren bilakaerarekiko espektatiba negatiboak nabarmentzen dira, aldiz, familien ekonomiaren eta haien aurrezteko gaitasunaren bilakaera ez zen hain negatiboa izan. Egoera hori 2021eko lehen hiruhilekora arte mantendu zen (-32), eta bigarren hiruhilekoan irauli egin zen (2, +34 puntu). Hala, euskal kontsumitzaileek 2021en bigarren zatiari baikor aurre egingo diote, ekonomia orokorrari eta enpleguari buruzko itxaropenek gora egin dutelako eta aurrezteko gaitasuna sendotzen ari delako (bai egindakoa, bai aurrezten jarraitzeko itxaropena).



*Oharra: indizea positiboa bada (100 arte), egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek; indizea negatiboa bada (-100 arte), berriz, egoerak okerrera egingo duela gailentzen da familien artean.
Iturria: Laboral Kutxa. Geuk egina.*

Datu ekonomikoek baieztatu egiten dute pertzepzio ezkor hori, izandako ezohiko bilakaerarekin bat datorrena; hala, bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan erregistratutako atzerakada eta suspertzea (-% 16,4 eta +% 15,5) nabarmentzen dira, nahiz eta pandemiaren bigarren eta hirugarren olatuek moteldu egin zuten hobekuntza (laugarren hiruhilekoan), eta urte arteko beherakada historikoa izan zen (-% 9,5).

5. grafikoa BPGaren bilakaera. EAE




Oharra: bolumen-indize kateatua, urtaroen eta egutegiaren arabera zuzendutako datuak oinarri hartuta. Iturria: Hiru hilez behingo kontu ekonomikoak. Eustat. Geuk egina.

Ikuspegi zabalago batetik begiratuta, 2020an erregistratutako atzerakada ekonomikoak 2008ko krisian izandakoaren (-% 4,1) bikoitza da. Agerikoa da bi krisiak oso ezberdinak direla, jatorritik beretik hasita, izan ere, egungo krisian osagai exogeno bat gailentzen da (osasun-krisia), 2008koan ez bezala (krisi finantzarioa). Baina, irteerari dagokionez ere, desberdintasunak nabarmenak dira: 2021erako eta 2022erako aurreikuspenek iragartzen dutenez, EAEko BPGak suspertze historikoa izango du (V formako profila); aurreko krisia, berriz, ez zen hobetzen hasi 2014ra arte (W formako profila)¹.

6. grafikoa BPGaren bilakaera eta aurreikuspenak. EAE

(Urte arteko aldakuntza-tasa)



Oharra: 2021eko eta 2022ko datuak Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak (Eusko Jaurlaritza) 2021eko martxoan egindako aurreikuspenei dagozkie.

Iturria: Hiru hilez behingo kontu ekonomikoak (Eustat) eta Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza). Geuk egina.

¹ Emaiza horiek Nafarroako eta Estatuko ekonomiara ere estrapola daitezke.

EAEk, Nafarroak eta inguruko ekonomiek ere hobetzeko aurreikuspenak dituzte, horiek betetzeko funtsezkoa izanik osasun-krisiari aurre egitea (txertaketa-planak). Baina, gainera, aurreko krisialditik *ikasitako lezioak* aipatu behar dira. Izan ere, krisi honetan laguntza ekonomiko-finantzarioa eman da lehen unetik bertatik, eta, bereziki, Europako agintarien aldetik (EBZ eta Europako Batzordea), ahalik eta azkarren irteten saiatzeko.

5. koadroa Erakunde ezberdinek egindako aurreikuspen ekonomikoak

(%)

	Europako Batzordea			NDF		
	2020	2021	2022	2020	2021	2022
Eurogunea	-6,8	3,8	3,8	-6,6	4,4	3,8
Alemania	-5,0	3,2	3,1	-4,9	3,6	3,4
Frantzia	-8,3	5,5	4,4	-8,2	5,8	4,2
Italia	-8,8	3,4	3,5	-8,9	4,2	3,6
Espainia	-11,0	5,6	5,3	-11,0	6,4	4,7
Munduko ekonomia	-	-	-	-3,3	6,0	4,4
AEB	-	-	-	-3,5	6,4	3,5
Txina	-	-	-	2,3	8,4	5,6

Iturria: Europako Batzordea (2021eko otsaila) eta NDF (2021eko apirila). Geuk egina.

2. INGURUNE EKONOMIKOA (NAZIOARTEKOA ETA ESTATUKOA)

2.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ezaugarri nagusiak: ekoizpen-jarduera

Pandemiaren eraginez, historiaren azken urteetako atzerakadarik handiena jasan zuen munduko ekonomiak 2020an, abiadurari zein sinkroniari dagokienez. Hala, ekonomiak -% 3,3 egin zuen atzera, eta eten egin zen 2010ean hasitako hazkunde-joera (2009an, finantza-krisiaren ondorioz, munduko BPGak -% 0,1 baino ez zuen egin atzera). Nolanahi ere, kontuan izan behar da atzerakada hori askoz ere handiagoa izan zitekeela (hiru aldiz handiagoa, Nazioarteko Diru Funtsaren arabera), martxan jarritako aparteko politikak aplikatu izan ez balira. Gainera, hasiera batean aurreikusitakoa baino hobea izan zen ekitaldiko bigarren seihilekoko bilakaera, konfinamendua amaitzeari eta ekonomia lan egiteko modu berrietara egokitu izanari esker.

Hala eta guztiz ere, pandemiak ez zien berdin eragin herrialde guztiei. Hala, turismoarekiko eta lehengaien esportazioekiko mendekotasun handiena zuten herrialdeek eta politikak aplikatzeko aukera gutxien zituzten herrialdeek izan zuten atzerakadarik nabarmenena. Testuinguru horretan, ekonomia garatuek -% 4,7ko beherakada izan zuten 2020an (aurreko ekitaldian % 1,6 egin zuten gora). Sortu berri ziren eta garapen-bidean zeuden ekonomiek, berriz, -% 2,2 egin zuten atzera (2019an % 3,6 hazi ziren). Mundu mailan, oro har, pandemiak inpaktu handiagoa izan zuen gazteengan, emakumeengan, hezkuntza maila baxuko pertsonengan eta/edo enplegu informala zuten pertsonengan.

Azterlana herrialde industrializatueta zentratuta, ELGAren maiatzeko aurreikuspenen arabera, 2020an -% 4,8 egin zuten atzera herrialde horiek (aurreko ekitaldian % 1,6 hazi ziren), kontsumo pribatua eta inbertsioa erori egin baitziren (-% 5,7 eta -% 4,4; 2019an, berriz, % 1,7 eta % 1,5 hazi ziren, hurrenez hurren).

6. koadroa Barne Produktu Gordinaren bilakaera

Herrialdea	(% Δ)		
	2018	2019	2020
Estatu Batuak	3,0	2,2	-3,5
Japonia	0,6	0,0	-4,7
Alemania	1,3	0,6	-5,1
Frantzia	1,8	1,5	-8,2
Italia	0,8	0,3	-8,9
Erresuma Batua	1,3	1,4	-9,8
Kanada	2,4	1,9	-5,4
Eurogunea	1,9	1,3	-6,7
ELGA, guztira	2,4	1,6	-4,8

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2021eko ekaina).

Ipar Amerikako ekonomia -% 3,5 erori zen 2020an (aurreko ekitaldian % 2,2 egin zuen aurrera). Halaber, kontsumo pribatuak (-% 3,9) eta inbertsioak ere atzera egin zuten. Dena den, gainerako herrialde industrializatuetan baino gutxiago murriztu zen inbertsioa (-% 0,8). Japoniako ekonomiak, bestalde, beherakada nabarmena izan zuen (-% 4,7), gainerako herrialdeetan baino gehiago murriztu baitziren familien kontsumoa (-% 6) eta inbertsioa (-% 4,2).

Sortu berri diren eta garapen-bidean dauden merkatuen ekonomiari dagokionez, Indiako, Brasilgo eta Errusiako ekonomiak ere atzera egin zuen 2020an (-% 8, -% 4,1 eta -% 3,1; 2019an, berriz, % 4, % 1,4 eta % 2 hazi ziren, hurrenez hurren). Txinan, bestalde, % 2,3ra murriztu zen hazkunde-erritmoa (% 5,8koa izan zen aurreko ekitaldian).

7. koadroa Kontsumo pribatuaren, kontsumo publikoaren eta inbertsioaren bilakaera

Herrialdea	Kontsumo pribatua			Kontsumo publikoa			Inbertsioa		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020
Estatu Batuak	2,7	2,4	-3,9	1,5	1,8	0,3	4,8	2,3	-0,8
Japonia	0,3	-0,3	-6,0	1,0	1,9	2,7	0,2	0,9	-4,2
Alemania	1,5	1,6	-6,3	1,2	2,7	3,3	3,6	2,6	-3,9
Frantzia	0,8	1,5	-7,3	0,9	1,7	-3,0	3,2	4,3	-10,4
Italia	1,0	0,3	-10,7	0,1	-0,8	1,6	2,9	1,1	-9,2
Erresuma Batua	1,4	1,1	-11,0	0,6	4,0	-6,5	0,4	1,5	-8,8
Kanada	2,5	1,7	-6,1	2,9	2,0	-1,1	1,8	0,3	-3,6
Eurogunea	1,5	1,3	-8,0	1,2	1,7	1,2	3,2	5,7	-8,5
ELGA, guztira	2,1	1,7	-5,7	1,9	2,3	1,0	2,9	1,5	-4,4

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2021eko ekaina).

Europako merkatuari dagokionez, Eurogunea -% 6,7 erori zen 2020an (2019an % 1,3 egin zuen aurrera), Alemaniako ekonomiak (Europar Batasunaren traktorea da Alemania) -% 5,1 egin baitzuen atzera (aurreko ekitaldian, % 0,6 soilik, baina aurrera egin zuen). 2018az geroztik apaltzen ari zen Eurogunearen hazkunde-erritmoa, argi eta garbi.

Kanpo-merkataritza

Jarduera modu orokorrean erori zenez, 2020ean -% 10 inguru jaitsi ziren ELGAko herrialdeen esportazioak eta inportazioak (-% 9,8 eta -% 9,3, hurrenez hurren; 2019an % 1,8 eta % 2,1 egin zuten aurrera).

Datuak herrialdeka aztertuta, jarraian ageri den taulan aintzat hartutako herrialde guztiek (ELGAren esparrukoak) atzerakada nabarmenak izan zituzten kanpora egindako salmentetan eta kanpotik egindako erosketetan. Bereziki, Erresuma Batuen inportazioen jaitsiera (-% 17,8) eta Frantziaren esportazioen jaitsiera (-% 16,6) nabarmentzen dira.

8. koadroa Ondasun eta zerbitzuen truke-bolumenaren aldakuntzak

(%Δ)

Herrialdea	Inportazioak			Esportazioak		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020
Estatu Batuak	4,1	1,1	-9,3	3,0	-0,1	-12,9
Japonia	3,8	1,0	-7,3	3,8	-1,5	-11,8
Alemania	3,8	2,6	-9,0	2,5	1,0	-10,2
Frantzia	3,1	2,6	-12,0	4,6	1,8	-16,6
Italia	2,8	-0,5	-13,1	1,6	1,9	-14,5
Erresuma Batua	2,7	2,7	-17,8	3,0	2,7	-15,8
Kanada	3,4	0,4	-11,3	3,7	1,3	-9,8
ELGA, guztira	3,6	2,1	-9,3	3,7	1,8	-9,8

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2021eko ekaina).

Prezioak

Pandemiaren eraginez jarduera murriztu egin zenez, 2020an jaitsi egin zen petrolioaren eskaria. Hori dela eta, petrolioaren prezioa ere jaitsi egin zen (Brent upelaren prezioa, 2019an upeleko 64,8 dolarrekoa izatetik, 2020an 41,5 dolarrekoa izatera pasatu zen), eta horren ondorioz kontsumo-prezioen hazkunde-erritmoa apaldu egin zen aintzat hartutako herrialde guztietan.

Zentzu horretan, ELGaren arabera, kontsumoko prezio-indizearen hazkundera % 1,2ra jaitsi zen 2020an Estatu Batuetan, eta % 0,3ra Eurogunean (aurreko ekitaldian, hurrenez hurren, % 1,8koa eta % 1,2koa izan ziren).

9. koadroa Kontsumoaren prezio-indizearen bilakaera

(%Δ)

Herrialdea	2018	2019	2020
Estatu Batuak	2,4	1,8	1,2
Japonia	1,0	0,5	0,0
Alemania	1,9	1,4	0,4
Frantzia	2,1	1,3	0,5
Italia	1,2	0,6	-0,1
Erresuma Batua	2,5	1,8	0,9
Kanada	2,2	2,0	0,7
Eurogunea	1,8	1,2	0,3

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2021eko ekaina).

Pandemiaren aurrean, neurri pizgarri gisa, Estatu Batuetako Erreserba Federalak % 1,75etik % 0,25era jaitsi zuen haren erreferentzia-tasa 2020ko martxoan. Orduetik, eta ekitaldia itxi arte, maila horretan mantendu zuen. Europako Banku Zentralak, bestalde, % 0an mantendu zuen esku-hartze tasa 2020 osoan zehar.

Lan-merkatua

Jarduerak behera egin zuenez, oro har, langabezia-tasa hazi egin zen 2020an, Frantzia eta Italian izan ezik. Bi herrialde horietan jaitsi egin zen langabezia-tasa 2019tik 2020ra, % 8,4tik % 8ra Frantzia eta % 9,9tik % 9,1era Italian. Estatu Batuetan % 8,1era igo zen langabezia-tasa eta Eurogunean % 7,9ra (aurreko ekitaldian, hurrenez hurren, % 3,7ko eta % 7,5eko tasak izan zituzten).

10. koadroa Langabezia-tasa

Herrialdea	(biztanleria aktiboaren %)		
	2018	2019	2020
Estatu Batuak	3,9	3,7	8,1
Japonia	2,4	2,3	2,8
Alemania	3,4	3,1	4,2
Frantzia	9,0	8,4	8,0
Italia	10,6	9,9	9,1
Erresuma Batua	4,1	3,8	4,5
Kanada	5,9	5,7	9,5
Eurogunea	8,2	7,5	7,9
ELGA, guztira	5,5	5,4	7,1

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2021eko ekaina).

Diru- eta aurrekontu-politika

Pandemiaren testuinguruan, defizit handiak gailendu ziren. Izan ere, gastu publikoaren arloko beharrek gora egin zuten eta, aldi berean, diru-sarrerak murriztu egin ziren. Hala, 2020an -% 10etik gorako defizita izan zuten Estatu Batuetan, Erresuma Batuan, Kanadan eta Japonian (-% 15,8, -% 12,4, -% 10,7 eta -% 10,1, hurrenez hurren). Aztertutako herrialdeen artean, 2020an Alemaniak izan zuen desorekarik txikiena (-% 4,2ko defizita). Dena den, kontuan izan behar da herrialde horrek finantziario-gaitasun positibo argia erakutsi duela tradizionalki.

Eurogunean, 2020an BPG nominalaren -% 7,2ra arte hazi ziren finantzaketa-beharrak; hau da, 2019arekin alderatuta, ehuneko sei puntu baino gehiago okertu zen datua (-% 0,6). Aldi berean, ELGaren defizita -% 10,8ra igo zen; hala, 2019aren alderatua, ehuneko zazpi puntu baino gehiago okertu zen erregistroa (-% 3,1).

11. koadroa Administrazio Publikoen finantzaketa-beharrak
(finantzaketa-ahalmena (+) edo finantzaketa-beharra (-), BPG nominalaren ehunekoaren arabera)


Herraldea	2018	2019	2020
Estatu Batuak	-6,3	-6,7	-15,8
Japonia	-2,5	-2,9	-10,1
Alemania	1,8	1,5	-4,2
Frantzia	-2,3	-3,1	-9,3
Italia	-2,2	-1,6	-9,5
Erresuma Batua	-2,2	-2,4	-12,4
Kanada	0,3	0,5	-10,7
Eurogunea	-0,5	-0,6	-7,2
ELGA, guztira	-2,8	-3,1	-10,8

(BPGaren %)

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2021eko ekaina).

Diru-politikari dagokionez, aurrez ere aipatu dugun moduan, Europako Banku Zentralak % 0an mantendu zuen bere erreferentzia-tasa 2020an zehar. Estatu Batuetako Erreserba Federalak, berriz, ehuneko puntu eta erdi bat murriztu zuen martxoan, eta ordutik % 0,25ean mantendu zuen.

7. grafikoa Interes-tasen aldakuntza



Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2021eko ekaina).

Europar Batasuna

Azterketa Europako esparrura ekarrita, kontuan izan behar da 2020ko otsailaren 1ean Erresuma Batua Europar Batasunetik irten zela azkenean. Hala, amaiera eman zioten herritarren artean "Brexit" gisa ezagutzen den prozesu luzeari.

Europako Batzordearen udaberriko aurreikuspenen arabera, pandemiaren inpaktuaren ondorioz Europar Batasunak -% 6,1 egin zuen atzera 2020an (aurreko ekitaldian % 1,6 hazi

zen). Barne-eskariak $-5,8\%$ egin zuen behera (aurreko ekitaldian 2% igo zen), esportazioek $-8,7\%$ eta inportazioek $-8,3\%$ (2019an $2,8\%$ eta $3,8\%$ hazi ziren, hurrenez hurren).

Barne-eskariari dagokionez, 2020an $-7,4\%$ erori ziren kontsumo pribatua eta inbertsioa (aurreko ekitaldian $1,5\%$ eta $5,4\%$ hazi ziren, hurrenez hurren). Aldi berean, kontsumo publikoaren hazkunde-erritmoa $1,3ra$ jaitsi zen (aurreko ekitaldian $1,9koa$ izan zen).

12. koadroa Adierazle nagusiak (EB)

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2018	2019	2020
Jarduera			
– Kontsumo pribatua	1,8	1,5	-7,4
– Kontsumo publikoa	1,3	1,9	1,3
– Kapital Finkoaren Eraketa Gordina	3,5	5,4	-7,4
– Barne-eskaria	2,2	2,0	-5,8
– Esportazioak	3,8	2,8	-8,7
– Inportazioak	4,1	3,8	-8,3
– BPG	2,1	1,6	-6,1
Prezioak eta soldatak			
– BPGaren deflatorea	1,5	1,9	1,8
– Kontsumo pribatuaren deflatorea	1,6	1,3	0,7
– Banakako lan-kostu errealak	0,5	0,0	2,9

Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2021eko udaberria)

Herrialdeka, Irlanda baino ez zen hazi 2020an ($3,4\%$). Europar Batasuneko gainerako ekonomiek behera egin zuten, neurri ezberdinetan. Zehazki, Lituania eta Luxenburgo jaitsi ziren gutxien ($-0,9\%$ eta $-1,3\%$, hurrenez hurren). Jaitsierarik handienak, berriz, Frantzia, Grezia, Italia eta Espainian erregistratu zituzten ($-8,1\%$, $-8,2\%$, $-8,9\%$ eta $-10,8\%$, hurrenez hurren). Bestetik, Alemaniako ekonomia (Europar Batasuneko traktore ekonomiko nagusia) $-4,9\%$ erori zen. Horrekin lotuta, aipatzekoa da pandemiak eta hark ekarritako murrizketek, batez ere, Mediterraneoko herrialdeak kolpatu zituztela, turismoak pisu handia baitu haien ekonomian.

13. koadroa Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundea
(Europar Batasuna)

Herrialdea	<i>(Urte arteko aldakuntzaren %)</i>		
	2018	2019	2020
Irlanda	8,5	5,6	3,4
Lituania	3,9	4,3	-0,9
Luxenburgo	3,1	2,3	-1,3
Polonia	5,4	4,7	-2,7
Danimarka	2,2	2,8	-2,7
Suedia	2,0	1,4	-2,8
Finlandia	1,3	1,3	-2,8
Estonia	4,4	5,0	-2,9
Letonia	4,0	2,0	-3,6
Herbehereak	2,4	1,7	-3,7
Errumania	4,5	4,1	-3,9
Bulgaria	3,1	3,7	-4,2
Eslovakia	3,7	2,5	-4,8
Alemania	1,3	0,6	-4,9
Hungaria	5,4	4,6	-5,0
Txipre	5,2	3,1	-5,1
Eslovenia	4,4	3,2	-5,5
Txekiar Errepublika	3,2	2,3	-5,6
EB	2,1	1,6	-6,1
Belgika	1,8	1,8	-6,3
Austria	2,6	1,4	-6,6
Malta	5,2	5,5	-7,0
Portugal	2,8	2,5	-7,6
Kroazia	2,8	2,9	-8,0
Frantzia	1,8	1,5	-8,1
Grezia	1,6	1,9	-8,2
Italia	0,9	0,3	-8,9
Espainia	2,4	2,0	-10,8

Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2021eko udaberria)

Per capita BPGari dagokionez, erorketa-ahalmenaren parekotasuna kontuan hartuta, 2020an oraindik ere ezberdintasun nabarmenak zeuden Batasuneko herrialdeen artean. Hala, Luxenburgok izan zuen baliorik altuena (266, EB-27=100 izanik). Baliorik baxuena, berriz, Bulgariak izan zuen (55). Bataren maila bestearna baino 5 aldiz handiagoa da ia-ia. Zehazki, herrialde hauek gainditu zuten Batasuneko batezbestekoa (neurri ezberdinetan): Irlanda (211), Danimarka (136), Herbehereak (133), Austria (124), Suedia (123), Alemania (121), Belgika (117), Finlandia (115) eta Frantzia (103). Gainerako herrialdeak batezbestekotik behera geratu ziren. Horrekin lotuta, aipatzekoa da Europar Batasunean bata bestearen segidan kide berriak sartzearen ondorioz nabarmen jaitsi zela Batasuneko batez besteko per capita BPGa.

14. koadroa Europar Batasuneko per capita
BPGa (PPS) 2020

Herraldea	EB-27=100
Luxenburgo	266
Irlanda	211
Danimarka	136
Herbehereak	133
Austria	124
Suedia	123
Alemania	121
Belgika	117
Finlandia	115
Frantzia	103
EB-27 guztira	100
Malta	97
Italia	94
Txekiar Errepublika	94
Eslovenia	89
Txipre	87
Lituania	87
Espainia	86
Estonia	86
Portugal	77
Polonia	76
Hungaria	74
Letonia	72
Errumania	72
Eslovakia	71
Grezia	64
Kroazia	64
Bulgaria	55

Iturria: Eurostat (2021eko ekaina).

Aurreikuspenak

Etorkizunari begira, osasun-krisiaren dinamikaren arabera izango da egoeraren bilakaera. Hala, esanguratsuak izango dira egungo txertoek birusaren aldaera berrien aurrean duten eraginkortasuna (posible da pandemia luzatzea), kalte ekonomiko iraunkorra mugatzeko hartutako neurri ekonomikoen eraginkortasuna, finantza-baldintzen bilakaera, lehengaien prezioaren bilakaera eta ekonomiaren egokitzapen-gaitasuna.

Testuinguru horretan, nazioarteko erakunde nagusien aurreikuspen ekonomikoen arabera, datozen urteetan suspertzen joango da ekonomia, eta dagoeneko badaude horren zantzuak. NDFren 2021eko apirilko kalkuluen arabera, ekitaldi honetan % 6 haziko da mundu mailako jarduera, eta 2022an % 4,4.

ELGaren maitatzeko aurreikuspenen arabera, herrialde industrializatuek % 5,3ko hazkunde izango dute 2021ean, eta 2022an % 3,8ra jaitsiko da hazkunde-erritmoa. Nolanahi ere, kontuan izan behar da langabezia-tasak altua izaten jarraituko duela eta defizit publikoa handia izango dela (% 6,5 eta -% 10,1 2021ean ELGAN, hurrenez hurren).

Hortaz, ziurgabetasun handiko agertokia dugu aurrean. Izan ere, epe motzeko arriskuak nahiko orekatuta daude, baina denborak aurrera egin ahala handitu egin daitezke arrisku horiek.

15. koadroa		Ekonomia-aurreikuspenak (industrializatutako herrialdeak)	
		(%)	
Kontzeptua	2021	2022	
– BPG erreala (% Δ)			
• Estatu Batuak	6,9	3,6	
• Japonia	2,6	2,0	
• Eurogunea	4,3	4,4	
• ELGA, guztira	5,3	3,8	
– Inflazioa (kontsumoaren prezio-indizea) (%Δ)			
• Estatu Batuak	3,4	2,7	
• Japonia	0,1	0,6	
• Eurogunea	1,8	1,3	
– Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %)			
• Estatu Batuak	5,6	4,3	
• Japonia	3,0	2,9	
• Eurogunea	8,2	7,9	
• ELGA, guztira	6,5	6,0	
– Defizit publikoa (BPGaren %)			
• Estatu Batuak	-15,9	-9,4	
• Japonia	-6,7	-4,0	
• Eurogunea	-7,2	-3,7	
• ELGA, guztira	-10,1	-6,0	

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2021eko ekaina).

2.2 ESPAINIAKO EKONOMIA

Ezaugarri nagusiak

Pandemiaren eraginez, Espainiako ekonomiak aurrekaririk gabeko “shock” egoera bizi izan zuen 2020an, eta -% 10,8ko jaitsiera historikoa izan zuen (2019an % 2ko hazkundea). Hala, 2014an hasitako etenik gabeko hazkunde-joera eten zen.

Biak alderatuz gero, Europako ekonomiak jaitsiera txikiagoa izan zuen Espainiako ekonomiak baino. Ondorioz, Estatuko ekonomia Batasuneko ekonomia nagusiekin bateratzeko prozesuan atzeraldia izan zen 2020an.

Eskariaren ikuspegitik, 2020an mundu mailako hazkunderari ekarpen negatiboa egin zioten barne-ekonomiak zein kanpo-sektoreak. Barne-ekonomia ehuneko -8,8 puntutan kokatu zen (aurreko ekitaldian ehuneko 1,4 puntu positibo), eta kanpo-sektorea ehuneko -2 puntutan (aurreko ekitaldian ehuneko 6 hamarren positibo). Ondorioz, 2020an nabarmen erori zen BPGa.

Lan-merkatuari dagokionez, 2020an -% 2,9 egin zuen behera okupatutako biztanleen kopuruak (2019an % 2,3 hazi zen). Izan ere, enplegua modu orokortuan murriztu zen lau

sektore handietan. Bestetik, langabetuen kopurua asko hazi zen, % 8,7 (2019an -% 6,6 murriztu zen). Hala, 2020an 3.530.900 langabetura iritsi ziren, hau da, langabezia-tasa % 15,5ekoa zen.

Prezioei erreparatuta, 2020aren itxieran (abendutik abendura), KPlaren urte batetik besterako aldakuntza -% 0,5era jaitsi zen (aurreko ekitaldiaren itxieran, % 0,8koa zen). Urteko batezbestekoa, berriz, -% 0,3ra jaitsi zen (2019ko batezbestekoa % 0,7koa izan zen).

Azkenik, aurrekontuen gauzatzeari dagokionez, Administrazio Publikoek BPGaren -% 10,09ko defizita izan zuten 2020an (finantza-erakundeei emandako laguntza kontuan hartu gabe), aurreko ekitaldiko emaitza baino ehuneko zazpi puntu baxuagoa (2019an -% 2,86ko defizita izan zen).

Agregatu makroekonomiko nagusiak

2020an zehar pandemiaren dinamikak eta hartutako neurri murriztaileek baldintzatu zuten jarduera ekonomikoaren bilakaera. Zentzu horretan, BPGaren urte arteko aldakuntzak honakoak izan ziren ondoz ondoko hiru hilabeteetan: -% 4,3, -% 21,6, -% 8,6 eta -% 8,9. Konfinamendu-aldiari dagokio erregistrok okerrera.

Aurreko txostenei jarraipena emanez, jarraian ikuspegi hauen arabera aztertuko dugu jardueraren bilakaera: eskaria (norakoa), eskaintza (jarduera) eta errenta (banaketa).

- 2020an, Estatuko guztizko BPGa 1.121.698 milioi eurokoa¹ izan zen. Azkeneko kontsumoari dagozkio 875.493 milioi (614.637 etxebizitzena, 13.561 etxebizitzentzerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeena eta 247.295 administrazio publikoena), inbertsioari 222.654 (109.572 eraikuntzan, 70.828 ekipondasunetan, 3.279 landatutako baliabide biologikoetan eta 38.975 jabetza intelektualaren produktuetan) eta izakinen aldakuntzari 6.828. Hala, barne-eskaria 1.104.975 milioi eurokoa izan zen. Esportazioak (343.594 milioi euro) eta inportazioak (326.871 milioi euro) ere kontuan izanda, haien arteko aldea kanpo-eskaria izanik, guztizko eskaria kalkulatzeko da.
- Barne-eskariak mundu mailako hazkundeari egindako ehuneko -8,8 puntuko ekarpen negatiboari, kanpo-eskariak egindako ehuneko -2 puntuko ekarpen negatiboa gehitu behar zaio. Etxeko eskariari dagokionez, kontsumo pribatua asko jaitsi zen (-% 12,4 2020an, eta % 0,9 aurreko ekitaldian). Kontsumo publikoaren hazkunde-erritmoak, berriz, gora egin zuen (% 3,8 2020an, eta % 2,3 2019an). Halaber, inbertsioa ere nabarmen jaitsi zen (-% 11,4; aurreko ekitaldian, berriz, % 2,7 hazi zen). Izan ere, behera egin zuten eraikuntza arloko inbertsioak

¹ Prezio korrontekak.

zein ekipo-ondasunen inbertsioak (hurrenez hurren, -% 14ko eta -% 13ko beherakadak 2020an, eta % 1,6ko eta % 4,4ko hazkundeak 2019an).

- Sektorearen arabera banaketari erreparatuta, 35.398 milioi euro egokitu zitzaizkion lehen sektoreari, 166.768 milioi euro industriari, 64.058 milioi euro eraikuntzari eta 757.612 milioi euro zerbitzuei. Zifra horiek zerga garbiei (97.862 milioi euro) gehituta, guztizko ekoizpena kalkulatu da.
- Lehen sektorea % 5,3 hazi zen 2020an, eta gainerako sektoreek behera egin zuten: -% 9,6 industriak, -% 14,5 eraikuntzak eta -% 11,1 zerbitzuek (2019an % 1,7, % 4,3 eta % 2,2ko hazkundeak izan zituzten, hurrenez hurren).

16. koadroa Barne-produktu gordina eta haren osagaiak (Eskaria eta Eskaintza)

(urte arteko tasaren %, bolumen kateatua)

Eragiketak		2019	2020
ESKARIA	Azken kontsumoaren gastua	1,3	-8,2
	– Etxebizitzena	0,9	-12,4
	– EZIAGGE-ena	3,9	-0,2
	– Administrazio publikoena	2,3	3,8
	Kapital finkoaren eraketa gordina	2,7	-11,4
	– Eraikuntza	1,6	-14,0
	– Ekipo-ondasunak eta armamentu-sistemak	4,4	-13,0
	Izakinen aldakuntza*	-0,1	-0,3
	Barne-eskaria*	1,4	-8,8
	Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	2,3	-20,2
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	0,7	-15,8	
Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan	2,0	-10,8	
ESKAINZA	Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	-2,3	5,3
	Industria	1,7	-9,6
	Eraikuntza	4,3	-14,5
	Zerbitzuak	2,2	-11,1
	Produktuen gaineko zerga garbiak	-0,1	-12,9

(*): Merkatuko prezioen BPGaren hazkundeari egindako ekarpena.

Iturria: EIN.

- Errentaren ikuspegitik, guztizko BPGaren % 48,2 hartu zuen soldatapekoen ordainketak, % 42,8 ustiapenaren soberakin gordinak eta, gainerako % 9a, ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiek.

17. koadroa Barne Produktu Gordinaren banaketa (Errenta)

(% Δ nominala)

Eragiketak	2018	2019	2020	2020 (M eurotan)
Soldatapekoen ordainketa ⁽¹⁾	4,0	4,8	-5,4	540.138
Ustiapenaren soberakin gordina ⁽²⁾	2,8	2,5	-12,1	480.363
Ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak ⁽³⁾	5,3	0,9	-20,5	101.197
Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan ⁽⁴⁾	3,6	3,4	-9,9	1.121.698

(4) = (4)+(1)+(3).

Iturria: EIN.

Kanpo-merkataritza

Pandemiak kaltetutako mundu mailako agertoki horretan, Estatuko esportazioek zein inportazioek nabarmen egin zuten behera 2020an (-% 20,2ko eta -% 15,8ko jaitsierak, hurrenez hurren; aurreko ekitaldian % 2,3ko eta % 0,7ko hazkundeak).

Hala, esportazioen joera inportazioena baino okerragoa izan zela kontuan izanda, kanpo-eskariak mundu mailako hazkunderari egindako ekarpena negatiboa izatera pasatu zen (ehuneko -2 puntu negatiboko ekarpena 2020an; 2019an, aldiz, ehuneko 6 hamarren positibokoa). Datuak hiruhilekoen arabera aztertuta, kanpo-eskariak mundu mailako hazkunderari egindako ekarpena negatiboa izan zen ekitaldiko lau hiruhilekoetan, baina intentsitate ezberdinekin.

Laneko prezioak eta kostuak

2020an murriztu egin zen jarduera ekonomikoa eta petrolio-upelaren prezioak behera egin zuen ekitaldiko lau hiruhilekoetan (bereziki, bigarren hiruhilekoan, pandemia lehertu zenean). Agertoki horretan, Estatuko prezioen hazkunde-erritmoa apaldu egin zen ekitaldiko lehen hiruhilekoan, eta apiriletik aurrera prezioek behera egin zuten. Zehazki, KPlaren urte batetik besterako aldakuntza % 1,1ekoa izan zen urtarrilean, %0,7koa otsailean, % 0koa martxoan, -% 0,7koa apirilean, -% 0,9koa maiatzean, -% 0,3koa ekainean, -% 0,6ekoa uztailean, -% 0,5ekoa abuztuan, -% 0,4koa irailean, -% 0,8koa urrian eta azaroan eta -% 0,5ekoa abenduan.

Hala, 2020aren itxieran (abendutik abendurako urte arteko tasa) inflazioa -% 0,5ekoa zen (2019aren itxieran, % 0,8koa). Prezioak, berriz, -% 0,3 jaitsi ziren urtean zehar, batez beste (2019an % 0,7ko igoera izan zen). Bestetik, azpiko inflazioaren hazkunde-erritmoa % 0,7ra murriztu zen (% 0,9koa zen aurreko ekitaldian).

ELGAren arabera 2020an Eurogunearen inflazio-tasa (kontsumoko prezio-indizearen aldakuntzaren bidez adierazita) % 0,3koa izan zela kontuan izanda (2019an % 1,2koa), euroa duten herrialdeen blokea baino ehuneko 6 hamarren beherago kokatu zen Espainiako ekonomia (aurreko ekitaldian, ehuneko bost hamarren negatiboko aldea izan zen).

Ondasun taldeei dagokienez, 2020an elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldeak izan zuen inflaziorik handiena. Hauek izan ziren hurrengoak: beste batzuk (% 1,4), jatetxeak eta hotelak (% 1,1), jantziak eta oinetakoak (% 1), irakaskuntza (% 0,6), alkoholdun edariak eta tabakoa (% 0,5), osasungintza eta etxeko gaiak (% 0,4 azken bien kasuan). Bestetik, honakoen prezioek behera egin zuten: aisialdia eta kultura, komunikazioak eta, bereziki, etxebizitza eta garraioa (-% 0,6, -% 1,2, -% 3,5 eta -% 3,8, hurrenez hurren).

18. koadroa Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) eta Industriako Prezioen Indizea (IPRI)

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2018	2019	2020
KPI			
– Indize Orokorra ⁽¹⁾	1,2	0,8	-0,5
– Indize Orokorra ⁽²⁾	1,7	0,7	-0,3
Elikagaiak	1,7	1,0	2,1
Elikagaiak ez direnak	1,7	0,6	-1,0
• Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	1,6	1,0	2,4
• Alkoholduen edariak, tabakoa	1,9	0,7	0,5
• Jantziak eta oinetakoak	0,9	0,9	1,0
• Etxebizitza	2,4	-1,5	-3,5
• Etxeko tresneria	0,1	0,7	0,4
• Osasuna	0,3	0,8	0,4
• Garraioak	3,6	1,1	-3,8
• Komunikazioak	2,2	0,8	-1,2
• Aisialdia eta Kultura	-0,2	-0,5	-0,6
• Irakaskuntza	0,8	1,0	0,6
• Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,9	2,0	1,1
• Beste batzuk	0,9	1,4	1,4
Azpikoa	0,9	0,9	0,7
IPRI			
– Indize orokorra	3,0	-0,4	-4,3
• Kontsumo-ondasunak	-0,2	0,2	1,1
• Ekipo-ondasunak	0,9	1,0	0,9
• Bitarteko ondasunak	2,6	-0,3	-1,7
• Energia	8,0	-1,7	-13,3

(1): Abendutik abendura.

(2): Urteko batez besteko aldakuntza.

Iturria: EIN.

Industriako prezioei dagokienez, 2020an are gehiago egin zuen behera indize orokorrak, -% 4,3ra arte (-% 0,4koa zen 2019an); izan ere, jaitsi egin ziren energiaren prezioa (-% 13,3) eta, gutxiago bada ere, bitarteko ondasunen prezioa (-% 1,7). Ekipo-ondasunen prezioek aurreko ekitaldiko hazkunde-eritmo ia berdina mantendu zuten (% 0,9ko hazkundea 2020an, eta % 1ekoa 2019an), eta kontsumo-ondasunen hazkunde-eritmoak gora egin zuen (% 1,1 2020an, eta % 0,2 aurreko ekitaldian).

Laneko kostuei dagokienez, produktibitateak -% 3,3ko jaitsiera izan zuen 2020an (KPIaren -% 10,8ko jaitsierak eta lanaldi osoko lanpostu kopuru baliokidearen -% 7,5eko jaitsierak eraginda), eta soldatapeko bakoitzeko ordainketa % 1,3 hazi zen. Ondorioz, lan-kostu unitarioa % 4,6 hazi zen 2020an (2019an % 2,5).

19. koadroa Errenten eta soldata-kostuen adierazleak

Kontzeptua	(% Δ)		
	2018	2019	2020
BPG erreala	2,4	2,0	-10,8
Enplegua guztira*	2,6	2,3	-7,5
Produktibitatea	-0,2	-0,3	-3,3
Soldatapekoen ordainketa	4,0	4,8	-5,4
Soldatapeko enplegua*	3,0	2,6	-6,7
Soldatapeko bakoitzeko ordainketa	1,0	2,2	1,3
Lan-kostu unitarioa	1,2	2,5	4,6

(*): Kontabilitate Nazionalako enpleguaren datuak erabili dira: lanaldi osoko lanpostu baliokideak.

Iturria: Geuk eginiko balioespena, EINen datuetatik abiatuta.

Lan-merkatua

2020an pandemiaren ondorioz Espainiako ekonomiak erregistratutako jardueraren murrizketa historikoaren ildotik (-% 10,8ko jaitsiera izan zuen BPGak), okupazioa zakarki jaitsi zen eta langabezia nabarmen igo. Ondorioz, langabezia-tasak gora egin zuen.

Zentzu horretan, Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) arabera, biztanleria okupatuak -% 2,9 egin zuen behera 2020an; hala, 2014az geroztiko goranzko joera eten zen. Biztanleria aktiboaren guztizkoa, berriz, -% 1,3 jaitsi zen.

Bestetik, 2019an % 58,6koa izatetik 2020an % 57,4koa izatera pasatu zen jarduera-tasa. Gizonezkoen zein emakumezkoen tasek egin zuten behera (% 64,3tik % 62,9ra eta % 53,3tik % 52,2ra, hurrenez hurren).

Sektoreka, aipatu dugun 2020ko enpleguaren -% 2,9ko jaitsiera hori (19.202.400 okupatura iritsi arte) orokorra izan zen sektore guztietan. Hala, -% 4 jaitsi zen lehen sektoreko enplegua, -% 3 zerbitzuekin lotutakoa, -% 2,6 eraikuntzari dagokiona eta -% 2,3 industriakoa. Dena den, termino absolututan, zerbitzuen sektorean jaitsi zen gehien enplegua, alde handiarekin (2019an baino 446.200 okupatu gutxiago). Hain zuzen ere, zerbitzuen sektoreari dagokio 2020an erregistratutako enpleguaren guztizko jaitsieraren % 75 baino gehiago.

20. koadroa Lan-magnitude nagusien bilakaera.
Urteko batezbestekoak

Kontzeptua	2020	2018	(mila pertsona eta %)	
			% Δ	
			2019	2020
Biztanleria aktiboa	22.733,3	0,3	1,0	-1,3
Biztanleria okupatua	19.202,4	2,7	2,3	-2,9
– Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	765,3	-0,8	-1,9	-4,0
– Industria	2.698,2	2,3	2,0	-2,3
– Eraikuntza	1.244,1	8,3	4,6	-2,6
– Zerbitzuak	14.494,8	2,5	2,4	-3,0
Biztanleria langabetua	3.530,9	-11,2	-6,6	8,7
Langabezia-tasa*	15,5	-11,4	-7,5	10,1

(*): Biztanleria aktiboaren %.

Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2021eko otsailako datuak).

Okupatutako biztanleriari dagokionez, soldatapeko langileak zein soldatapekoak ez zirenak gutxitu ziren 2020an, baina soldatapekoak neurri handiagoan (-% 3,4 eta -% 0,5, hurrenez hurren). Kontratu motaren arabera, aldi baterako kontratua zuten soldatapeko langileen hazkundera gehiago jaitsi zen 2020an, kontratu mugagabea zuten soldatapekoen hazkundera baino (-% 11,4ko eta -% 0,5eko murrizketak, hurrenez hurren). Lanaldi motari erreparatuta, 2020an enplegua intentsitate handiagoz murriztu zen lanaldi partzialaren kasuan (-% 6,9; lanaldi osoko okupatuen kasuan, berriz, -% 2,2). Horrekin lotuta, kontuan hartu behar da pandemian ezarritako murrizketek gehien kaltetu zituzten jarduerak aldi baterakoak eta partzialak izaten direla hein handi batean; murrizketa horien ondorioz jarduera horietako enplegu sektoriala suntsitu zen.

Langabetuei dagokienez, 2020an % 8,7 igo zen langabetuen kopurua eta 3.530.900 langabetu erregistratu zituzten. Hala, bertan behera geratu zen 2014an hasitako beheranzko joera. Gauzak hala, langabezia-tasa % 15,5era igo zen 2020an, eta Europako tasarik altuenetakoa izan zen.

Nolanahi ere, 2020an langabeziak izandako hazkunderaz ohartzeko, kontuan izan behar da aurrez adierazitako langabezia-zifrek ez dituztela barne hartzen Aldi Baterako Enplegua Erregulatzeko Espedienteak (ABEEE) dituzten pertsonak. 2020ko apirilaren amaieran hiru milioi eta erdira iritsi ziren egoera horretan zeuden langileak, 2020aren itxierarako kopuru hori 755.000ra jaitsi bazen ere.

21. koadroa Enplegua, lan-egoeraren eta kontratu-motaren arabera. Urteko batezbestekoak

(mila pertsona eta %)

Kontzeptua	2020	% Δ		
		2018	2019	2020
Biztanleria okupatua	19.202,4	2,7	2,3	-2,9
Soldatapekoak	16.109,1	3,3	2,7	-3,4
– Sektore pribatua	12.811,6	3,1	2,8	-4,7
– Sektore publikoa	3.297,5	4,0	2,3	2,3
Soldatapekoak ez direnak*	3.093,3	-0,5	0,5	-0,5
– Enplegu-emaileak	887,7	-0,1	-0,6	-7,0
– Autonomoak	2.104,5	-0,2	0,9	2,9
– Kooperatibistak	22,3	8,8	-1,5	-12,5
– Familia-laguntza	70,2	-15,2	3,4	-6,8
Soldatapekoak, kontratu mugagabea	12.232,3	3,1	3,5	-0,5
Soldatapekoak, aldi baterako kontratua	3.876,9	3,8	0,6	-11,4
Lanaldi osoko okupazioa	16.505,3	3,1	2,3	-2,2
Lanaldi partzialeko okupazioa	2.697,1	0,4	2,3	-6,9

() Batura ez dator bat guztizkoarekin, bertan sailkatu ezin direnak ere sartu baitira.*

Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2021eko otsaileko datuak).

Sektore publikoa eta interes-tasak

2021eko martxoaren amaieran Ogasun Ministerioak argitaratutako informazioaren arabera, Administrazio Publikoek BPGaren -% 10,09ko defizita izan zuten 2020an (finantza-erakundeei emandako laguntza kontuan hartu gabe), aurreko ekitaldiko emaitza baino ehuneko zazpi puntu baxuagoa (2019an -% 2,86ko defizita izan zen). Horrekin lotuta, aipatzekoa da pandemiari aurre egiteko gastu publikoa areagotzea eta familiei, langileei eta enpresei laguntzeko hartutako neurri sozialak izan zirela aurrekontuen desoreka haztea bultzatu zuten faktore nagusiak.

Erakundeen araberrako azterketak erakusten duenez, Tokiko Korporazioen kontuen saldoak baino ez zuen superabita izan (% 0,26). Bereziki, Administrazio Zentrala eta Gizarte Segurantzza nabarmentzen dira, defizit handiak izan baitzituzten (-% 7,49 eta -% 2,65, hurrenez hurren), beste administrazio publiko batzuei egindako transferentzien gastua igo izanak (COVID-19 Funtsak Gizarte Segurantzari, SEPERi eta erkidegoei egindako transferentziak) eta langile, autonomo eta familientzako sortutako segurtasun-sareak eraginda.

Bilakaerari dagokionez, Autonomia Erkidegoen desoreka murriztu egin zen, baina gainerako erakundeen bilakaera beheranzkoa izan zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta, bai haien defizita hazi zelako (Administrazio Zentrala eta Gizarte Segurantzza), bai haien superabita murriztu zelako (Tokiko Korporazioak).


22. koadroa Defizit publikoa

Kontzeptua	(BPGaren %)	
	2019	2020
Administrazio zentrala	-1,32	-7,49
Autonomia-erkidegoak	-0,57	-0,21
Tokiko udalbatzak	0,30	0,26
Gizarte Segurantza	-1,27	-2,65
Administrazio Publikoak guztira	-2,86	-10,09
Finantza-erakundeei laguntzea	0,00	-0,88
Finantza-laguntza duten Administrazio Publikoak guztira	-2,86	-10,97

Iturria: Ogasun Ministerioa (2021eko martxoak 29).

Azkenik, gogoratu behar da 2020aren itxieran Erreserba Federalaren erreferentzia-tasa % 0,25ean finkatuta geratu zela, martxoan ehuneko puntu eta erdi murriztu ondoren. Europako Banku Zentralaren erreferentzia-tasa, berriz, % 0an mantendu zen.

8. grafikoa Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala



Iturria: EBZ, Erreserba Federala.

Aurreikuspenak

Ekonomia eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioak 2021eko apirilaren amaieran argitaratutako agertoki makroekonomikoaren arabera, Espainiako ekonomiaren etorkizuneko bilakaera lau faktore giltzarriren arabera izango da: txertatze-prozesua; kanpo-sektorearen dinamika; pandemiak egiturazko inpaktua izatea galarazteko ekoizpen-ehunari emandako laguntza eta Suspertze Plana martxan jartzea.

Testuinguru honetan, 2021ean % 6,5eko gorakada nabarmena izatea espero da (urtearen hasiera Filomena ekaitzak eta birusaren olatu berriek markatu badute ere), eta suspertze hori 2022an % 7ra igotzea. Ondoren, hazkunde-erritmoa pixkanaka apaltzen joango da, eta 2024an iritsiko da haren maila potentzialera. Bestetik, lanaldi osoko enplegu baliokidea % 4 haziko da 2021ean, baina langabezia-tasa % 15etik gora mantenduko da ekitaldi honetan.

23. koadroa Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2021)

Kontzeptua	Urte batetik besterako aldaketa- tasa
BPG eta ESKARI-AGREGATUAK	
• Nazio mailako azken kontsumo pribatuaren gastua	7,3
• Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua	2,5
• Kapital finkoaren eraketa gordina	10,3
– Barne-eskaria (BPGaren hazkundeari egindako ekarpena)	6,7
– Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	9,2
– Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	10,3
– Kanpo-saldoa (BPGaren hazkundeari egindako ekarpena)	-0,2
– BPG	6,5
LAN MERKATUA	
– Enpleguaren aldakuntza %-tan ^(*)	4,0
– Langabezia-tasa	15,2

(*): Lanaldi osoko enplegua edo baliokidea.

Iturria: Ekonomia eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioa (2021eko apirilak 30).

3. IKUSPEGI OROKORRA

Pandemiaren ondorioz, 2020an erori egin zen mundu mailako jarduera. Testuinguru horretan, EAEko BPGa -% 9,5 murriztu zen (aurreko ekitaldian % 2,2 hazi zen), eta bertan behera geratu zen 2014an hasitako etenik gabeko hazkundera.

Kontzeptua	24. koadroa		Bilakaera orokorra		
	2016	2017	<i>(Urte arteko aldakuntza-tasa)</i>		
	2016	2017	2018	2019	2020
EAE					
– BPG	3,3	2,8	3,1	2,2	-9,5
– Enplegua	2,9	0,3	2,1	1,4	-2,0
– Langabezia-tasa ⁽¹⁾	12,6	11,3	10,0	9,2	9,5
– KPI ⁽²⁾	1,5	1,1	1,0	1,2	-0,3
NAFARROA					
– BPG	2,9	3,2	2,9	2,7	-8,3
– Enplegua	1,2	4,2	1,2	2,4	-3,6
– Langabezia-tasa ⁽¹⁾	12,5	10,2	10,0	8,2	10,1
– KPI ⁽²⁾	1,8	0,6	1,3	1,3	-0,6
ESPAINIA					
– BPG	3,0	3,0	2,4	2,0	-10,8
– Enplegua	2,7	2,6	2,7	2,3	-2,9
– Langabezia-tasa ⁽¹⁾	19,6	17,2	15,3	14,1	15,5
– KPI ⁽²⁾	1,6	1,1	1,2	0,8	-0,5

(1): Biztanleria aktiboaren %.

(2): Aldakuntza abendutik abendura.


Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN (BAI, Biztanleria Oinarria, 2011).

Hala, EAEn gehiago murriztu zen BPGa Eurogunean baino (-% 6,7ko jaitsiera 2020an, ELGaren arabera). Ondorioz, atzerapauso txiki bat izan zen Europako ekonomia nagusiekin bat egiteko prozesuan.

Bestetik, FUNCAS Aurrezki Kutxen Fundazioaren arabera, 2020an Autonomia Erkidego guztietan murriztu zen BPGa, oro har. Balear Uharteetan eta Kanarietan jaitsi zen gehien (-% 20,1 eta -% 16,9, hurrenez hurren). Lurralde horietan mendekotasun handia dute turismoarekiko eta, hortaz, modu berezian eragin zien pandemiak. Katalunia eta Madrilgo Erkidegoa izan ziren hurrengoak; -% 11,9ko jaitsiera izan zuten bi kasuetan. Aitzitik, Murtzian (-% 6,8), Extremaduran (-% 6,9) eta Gaztela Mantxan (-% 7,2) murriztu zen gutxien BPGa, erkidego horietan nekazaritzako elikagaien sektoreak (pandemiak mesede egin zion sektore gutxienetako bat) duen garrantziari esker.

Lan-merkatuari dagokionez, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 2020an -% 2,4 jaitsi zen okupazio-tasa Euskal Herrian (-% 2 EAEn eta -% 3,6 Nafarroan). Estatuan antzekoa izan zen jaitsiera (-% 2,9). Bestalde, langabezia-tasak gora egin zuen modu orokorrean: % 9,5era igo zen EAEn, % 10,1era Nafarroan (% 9,7ra Euskal Herrian) eta % 15,5era Estatuan.

9. grafikoa BPGaren bilakaera



Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.

Petrolio-upelaren prezioa jaitsi egin zen 2020an. Ondorioz, prezioen urte arteko tasak negatiboak izan ziren apiriletik aurrerako ondoko hilabeteetan (Nafarroan martxotik aurrera), eta negatiboak izan ziren ekitaldiaren itxierara arte EAEn, Nafarroan zein Estatuan. Hala, 2020ko inflazio-tasa metatua (abendutik abendura) $-0,3$ koa izan zen EAEn, $-0,6$ koa Nafarroan eta $-0,5$ koa Estatuan ($1,2$ koa, $1,3$ koa eta $0,8$ koa 2019aren amaieran, hurrenez hurren).

Azkenik, 2021eko lehen hiruhilekoan EAEko BPGak urte arteko $-2,9$ ko jaitsiera izan du. Hala, jarraipena eman zaio 2020ko hirugarren hiruhilekoan hasitako urte arteko jaitsieraren erritmoaren apaltze-prozesuari. Etorkizunera begira, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren 2021eko martxoko aurreikuspenen arabera, ekitaldi honetan $6,7$ ko igoera izango da, eta igoera hori $5,7$ ra jaitsiko da 2022an.

3.1 PRODUKZIOA

2020an $-9,5$ murriztu zen EAEko BPGa (aurreko ekitaldian $2,2$ hazi zen), $-8,3$ Nafarroakoa ($2,7$ hazi zen 2019an) eta $-10,8$ Estatukoa (2 ko hazkundera aurreko ekitaldian).

25. koadroa Barne produktu gordinaren (BPG) bilakaera

<i>(Urte arteko aldakuntza-tasa erreala)</i>			
Kontzeptua	2018	2019	2020
EAE ⁽¹⁾			
– Nekazaritza	1,7	3,2	-9,3
– Industria	2,0	1,3	-11,8
– Eraikuntza	4,0	3,4	-9,5
– Zerbitzuak	3,1	2,5	-8,5
– Guztira	3,1	2,2	-9,5
NAFARROA ⁽¹⁾			
– Nekazaritza	2,0	1,0	-2,2
– Industria	1,8	2,2	-9,5
– Eraikuntza	3,6	3,4	-7,6
– Zerbitzuak	3,8	2,9	-7,9
– Guztira	2,9	2,7	-8,3
ESPAINIA ⁽¹⁾			
– Nekazaritza	7,5	-2,3	5,3
– Industria	0,6	1,7	-9,6
– Eraikuntza	4,1	4,3	-14,5
– Zerbitzuak	2,6	2,2	-11,1
– Guztira	2,4	2,0	-10,8

(1): Oinarrizko prezioetarako balio erantsi gordina sektoreen kasuan, merkatu-prezioetarako BPGa guztizkoaren kasuan.

Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.

Hiruhilekoen arabera, honakoa izan zen EAEko urte arteko hazkundearen profila: lehenengo hiruhilekoan jarduerak atzera egin zuen apur bat (-% 3,2), bigarren hiruhilekoan hondamena etorri zen konfinamenduaren ondorioz (-% 19,5) eta azken bi hiruhilekoetan apaldu egin zen jaitsiera-erritmoa (-% 7,5 eta -% 7,6, hurrenez hurren). Era berean, Nafarroako ekonomiaren hiruhilekoko profila ere antzekoa izan zen: lehen hiruhilekoan jarduera apur bat jaitsi zen (-% 2,9), bigarren hiruhilekoan jaitsiera handia izan zuen konfinamenduaren eraginez (-% 18,5) eta azken bi hiruhilekoetan apaldu egin zen jaitsiera-erritmoa (-% 5,9 hirugarren zein laugarren lauhilekoetan).

Eskaintza kontuan hartuta, Estatuko lehen sektoreak izan ezik, oro har, lau sektore nagusiek behera egin zuten 2020an EAEn, Nafarroan eta Estatuan.

EAEn esparruan, 2020an atzera egin zuen lau sektore handien hazkundeak: industria-sektoreak -% 11,8ko jaitsiera izan zuen, eraikuntzak -% 9,5ekoa, lehen sektoreak -% 9,3koa eta zerbitzuek -% 8,5ekoa (aurreko ekitaldian, hurrenez hurren, % 1,3, % 3,4, % 3,2 eta % 2,5eko hazkundeak).

Era berean, Nafarroako industriaren (-% 9,5), zerbitzuen (-% 7,9), eraikuntzaren (-% 7,6) eta lehen sektorearen (-% 2,2) hazkundera ere eten egin zen 2020an (aurreko ekitaldian % 2,2, % 2,9, % 3,4 eta % 1 hazi ziren, hurrenez hurren).

Fokua industria-sektorean jarrita, Industria Produkzioaren Indizeak (IPI) behera egin zuen EAEn zein Nafarroan (-% 13,3 eta -% 10,9 2020an, hurrenez hurren; 2019an % 1,6ko eta % 9,8ko hazkundeak izan zituzten). Industria-enpleguaren kasuan, beheranzko erritmoa

apaldu egin zen EAEn (2019an -% 5koa izatetik 2020an -% 0,4koa izatera, EINen BAren arabera; -% 1,5etik -% 1,3ra Eustaten BJaren arabera). Nafarroan, berriz, gora egin zuen industria-enpleguak (% 1,1eko hazkundera 2020an, eta -% 0,4ko jaitsiera aurreko ekitaldian). Dena den, Nafarroako industria-giroak eta eskariak (egungoek zein aurreikusitakoek) beheranzko bilakaera izan zuten 2019arekin alderatuta, eskarien zifrak positibo mantendu baziren ere.

26. koadroa Industria Sektoreko Adierazleak

Kontzeptua	(Urte arteko aldakuntza-tasa)		
	2018	2019	2020
EAE			
- Industria Produkzioaren Indizea (IPI) ⁽¹⁾	2,2	1,6	-13,3
- Industria-enplegua ⁽²⁾	-3,3	-5,0	-0,4
- Industria-enplegua ⁽³⁾	4,2	-1,5	-1,3
NAFARROA			
- Industria Produkzioaren Indizea (IPI) ⁽¹⁾	-0,5	9,8	-10,9
- Industria-giroa ⁽⁴⁾	3	3	-10
- Egungo eskaerak ⁽⁴⁾	9	10	-22
- Aurreikusitako eskaerak ⁽⁴⁾	13	7	4
- Industria-enplegua ⁽²⁾	0,3	-0,4	1,1

(1): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.

(2): EIN

(3): BJA (Eustat)

(4): Erantzunen saldoak.

Iturria: Eustat, EIN eta Nafarroako Estatistika Institutua.

Eraikuntzaren kasuan, EAEko guztizko ekoizpen-indizea -% 7,3 jaitsi zen 2020an (aurreko ekitaldian % 8,7 igo zen), erori egin baitziren eraikuntza (-% 7,5) eta obra zibila (-% 6). Halaber, lizitazio ofizialak, hasitako etxebizitzek eta amaitutako etxebizitzek ere behera egin zuten 2020an (-% 21, -% 31,3 eta -% 16,9, hurrenez hurren; 2019an % 8,2, % 1,8 eta % 7,5 igo ziren). Hala, sektoreko enplegua -% 3,2 erori zen (Eustaten BJaren arabera, -% 2,9).

Nafarroan lizitazio ofizialaren beheranzko erritmoa indartu egin zen eta -% 44,7ra iritsi zen (aurreko ekitaldian -% 3,2koa izan zen). Hasitako etxebizitzek -% 11,8 egin zuten behera (2019an % 14,4ko hazkundera) eta amaitutako etxebizitzek hazkunde-erritmoa % 14,7ra jaitsi zen (aurreko ekitaldian % 20,8koa izan zen). Hala, sektoreko enplegua -% 3,7 murriztu zen 2020an Nafarroan.

27. koadroa Eraikuntza Sektoreko Adierazleak

Kontzeptua	<i>(Urte arteko aldakuntza-tasa)</i>		
	2018	2019	2020
EAE			
– Ekoizpen-indizea ⁽¹⁾	12,3	8,7	-7,3
– Etxegintza	13,2	9,2	-7,5
– Obra zibila	6,7	5,6	-6,0
– Zementuaren itxurazko kontsumoa*	9,3	9,8	-14,0
– Lizitazio ofiziala ⁽²⁾	-26,4	8,2	-21,0
– Hasitako etxebizitzak ⁽³⁾	51,5	1,8	-31,3
– Amaitutako etxebizitzak ⁽³⁾	18,3	7,5	-16,9
– Enplegua ⁽⁴⁾	4,8	5,2	-3,2
– Enplegua ⁽⁵⁾	4,4	2,6	-2,9
NAFARROA			
– Zementuaren itxurazko kontsumoa*	9,3	9,8	-14,0
– Lizitazio ofiziala ⁽²⁾	82,7	-3,2	-44,7
– Hasitako etxebizitzak ⁽³⁾	-3,2	14,4	-11,8
– Amaitutako etxebizitzak ⁽³⁾	14,9	20,8	14,7
– Enplegua ⁽⁴⁾	19,5	-9,0	-3,7

() Oficemen-eko bazkideen (Ipar Eremua: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) zementuaren itxurazko kontsumoari egiten dio erreferentzia.*

(1): Eraikuntzaren koiunturazko indizea (EUSTAT). Oinarria 2010=100

(2): SEOPAN.

(3): Eustat eta Etxebizitza Ministerioa.

(4): EIN

(5): BJA (Eustat)

Iturria: Eustat, EIN, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Salla eta Nafarroako Gobernua.

Zerbitzuei dagokienez, sektorea heterogeneoa denez, aldeak daude aztertutako azpisektoreetako adierazleen artean. Dena den, 2020an beheranzko bilakaera gailendu zen.

Hala, EAEn 2020an jaitsi egin ziren hoteletako gaualdiak eta aire-trafikoko bidaiariak (-% 59,8 eta -% 71,6; 2019an % 3,3 eta % 8,5 hazi ziren, hurrenez hurren). Txikizkako merkataritzaren salmentak, berriz, -% 4,9 murriztu ziren (% 0,9ko hazkunde txikia izan zuten aurreko ekitaldian). Testuinguru horretan, sektoreko enplegua -% 2,1 murriztu zen 2020an (-% 2,2 Eustaten BJAREN arabera).

Nafarroari dagokionez, aztertutako sektoreko adierazle guztiek tasa negatiboak izan zituzten 2020an: hoteletako gaualdiak -% 63,9 murriztu ziren, aire-trafikoko bidaiariak -% 65,5, autobideetako ibilgailu arinen trafikoa -% 26,3 eta ibilgailu astunena -% 9,4 (% 3, % 18,5, % 4,7 eta % 1,6ko hazkundeak 2019an, hurrenez hurren). Dinamika horren ildotik, Nafarroako sektoreko enplegua -% 5,2 jaitsi zen 2020an.

28. koadroa Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak

Kontzeptua	(Urte arteko aldakuntza-tasa)		
	2018	2019	2020
EAE			
– Hoteletako gaualdiak	7,2	3,3	-59,8
– Aire-trafikoko bidaiariak	10,5	8,5	-71,6
– Txikizkako merkataritzaren salmenten indizea	0,7	0,9	-4,9
– Portuetako salgaiak	4,2	-0,1	-15,8
– Enplegua ⁽¹⁾	4,2	2,9	-2,1
– Enplegua ⁽²⁾	0,7	2,8	-2,2
NAFARROA			
– Hoteletako gaualdiak	2,1	3,0	-63,9
– Aire-trafikoko bidaiariak	24,1	18,5	-65,5
– Ibilgailu arinen trafikoa autobideetatik	2,4	4,7	-26,3
– Ibilgailu astunen trafikoa autobideetatik	10,6	1,6	-9,4
– Enplegua ⁽¹⁾	-0,2	5,7	-5,2

(1): EIN

(2): BJA (Eustat)

Iturria: AENA, EUSTAT, EIN, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Estatistika Institutua.

3.2 ESKARIA

Barne-eskaria

Pandemiaren eraginez jarduerak behera egin zuenez (EAEn -% 9,5 murriztu zen jarduera 2020an; 2019an, berriz, % 2,2 hazi zen), barne-eskaria asko murriztu zen, -% 8,5 (aurreko ekitaldian % 2,2 hazi zen).

Barne-eskariaren osagaiei dagokienez, 2020an kontsumo publikoaren hazkundeak baino ez zuen gora egin (% 4,5eko hazkundera, eta 2019an % 2,2koa). Kontsumo pribatuak eta, batez ere, inbertsioak tasa negatiboak izan zituzten (-% 10,7ko eta -% 11,6ko beherakadak 2020an, eta % 1,8ko eta % 3,3ko hazkundeak aurreko ekitaldian, hurrenez hurren).

29. koadroa Barne-eskariaren adierazleak

Kontzeptua	(Urte arteko aldakuntza-tasa)		
	2018	2019	2020
EAE			
– Kontsumo pribatua	3,0	1,8	-10,7
– Kontsumo publikoa	1,2	2,2	4,5
– Kapital Eraketa Gordina	4,9	3,3	-11,6
– Barne-eskaria	3,2	2,2	-8,5

Iturria: Eustat.

Era berean, Nafarroako ekonomiak ere atzera egin zuen 2020an (-% 8,3; aurreko ekitaldian, % 2,7ko hazkundera). Hala, barne-eskariak ehuneko -7,5 puntu negatibo kendu zizkion

hazkunde globalari (ehuneko 2,1 puntu positibo 2019an). Osagaiei dagokienez, kontsumo pribatua eta, bereziki, inbertsioa murriztu egin ziren (-% 8,9 eta -% 13,2 2020an, eta % 2,1 eta % 1,9 aurreko ekitaldian, hurrenez hurren). Kontsumo publikoaren hazkunde-erritmoak, berriz, gora egin zuen (% 5,1 2020an, eta % 3,4 aurreko ekitaldian).

30. koadroa Kontsumo- eta inbertsio-adierazleak

Kontzeptua	<i>(Urte arteko aldakuntza-tasa)</i>		
	2018	2019	2020
EAE			
– Kontsumo-ondasunen IPIa ⁽¹⁾	4,9	2,8	-6,6
– Ibilgailuen matrikulazioa	4,6	-2,4	-22,0
– Ibilgailu industrialen matrikulazioa	21,7	-16,6	-22,3
– KPI ⁽²⁾	1,0	1,2	-0,3
– Soldata-igoera ⁽³⁾	1,80	1,95	1,57
– Ekipo-ondasunen IPIa ⁽¹⁾	4,1	2,0	-12,5
NAFARROA			
– Ibilgailuen matrikulazioa	2,9	-5,2	-28,5
– KPI ⁽²⁾	1,3	1,3	-0,6
– Soldata-igoera ⁽³⁾	1,48	2,28	1,81
– Ibilgailu industrialen matrikulazioa	25,9	-8,2	-32,1

(1): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.

(2): Aldakuntza-tasa abendutik abendura.

(3): Hitzarmenetan itundua.

Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN eta Enplegu eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa.

Kanpo-merkataritza

2020an, pandemiaren eraginez, EAEko kanpo-merkataritza (atzerrira) nabarmen jaitsi zen; izan ere, modu esanguratsuan murriztu ziren esportazioak (-% 18,1) zein inportazioak (-% 22,1). Gainera, nabarmentzekoa da eragiketa energetikoen zein energetikoen ez zirenek behera egin zutela orokorrean, lehenengoen neurri handiagoan (-% 52,8 energia-esportazioek, -% 15,2 esportazio ez-energetikoen, -% 46,2 energia-inportazioek eta -% 13,3 inportazio ez-energetikoen).

Zehazki, guztizko esportazioak 20.864,5 milioi eurora murriztu ziren (951,4 milioi euro energia-esportazioei dagozkien), hau da, urte arteko -% 18,1eko jaitsiera izan zuten. Guztizko inportazioak, berriz, 15.704,9 milioi eurora jaitsi ziren (horietatik 2.898,2 milioi euro energia-inportazioei dagozkien), hau da, urte arteko -% 22,1eko murrizketa izan zuten.

Hala, 2020an merkataritza-balantzaren saldo positiboa 5.159,6 milioi eurora murriztu zen (aurreko ekitaldian 5.327,2 milioi eurokoa zen). Inportazioen gaineko esportazioen estaldura-tasa igo egin zen (% 132,9 2020an, eta % 126,4 2019an).

31. koadroa Kanpo-merkataritzaren bilakaera Euskal Herrian

				(M euro)
Kontzeptua	2018	2019	2020*	% Δ 20/19
EAE				
- ESPORTAZIOAK, guztira	25.788,3	25.485,8	20.864,5	-18,1
- Energia-esportazioak, guztira	2.767,8	2.014,4	951,4	-52,8
- Esportazio ez-energetikoak, guztira	23.020,4	23.471,4	19.913,2	-15,2
- INPORTAZIOAK, guztira	20.485,1	20.158,7	15.704,9	-22,1
- Energia-inportazioak, guztira	5.729,9	5.383,9	2.898,2	-46,2
- Inportazio ez-energetikoak, guztira	14.755,3	14.774,8	12.806,7	-13,3
- SALDOA, GUZTIRA	5.303,1	5.327,2	5.159,6	-3,1
NAFARROA				
- ESPORTAZIOAK, guztira	9.145,3	10.205,4	8.832,3	-13,5
- INPORTAZIOAK, guztira	4.855,8	5.465,0	4.609,8	-15,6
- SALDOA, GUZTIRA	4.289,5	4.704,4	4.222,5	-10,2

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat (Aduana eta Zerga Berezien Sailaren datuen arabera), eta Nafarroako Estatistika Institutua.

Geografia eremu handiei dagokienez, 2019an Euroguneak jarraitu zuen EAEko kanpo-sektorearen merkataritza-bazkide nagusia izaten. Eurogunera egin ziren esportazioen % 54,8, eta handik egin ziren inportazioen % 47,7. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da Alemaniara eta Frantziara egin zirela kanpo-salmenten guztizkoaren % 32,8, eta handik erosi zela kanpotik egindako erosketen guztizkoaren % 26,2.

2020an salerositako produktuei dagokienez, esportazioen % 49,1 makineria eta garraio-ekipamendua izan zen, eta % 31,5 manufaktura-artikuluak. Inportazioen kasuan ere makineria eta garraio-ekipamendua eta manufaktura-artikuluak nabarmendu ziren, % 27,9ko eta % 24ko parte-hartzeekin, hurrenez hurren. Dena den, kasu honetan erregai eta lubrifikatzaile mineralen pisu erlatiboa ere esanguratsua izan zen (% 18,5).

32. koadroa EAEko esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sekzioen arabera

(M euro)

Kontzeptua	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2018	2019	2020*	%	% Δ 20/19	2018	2019	2020*	%	% Δ 20/19
GUZTIRA (guztizkoak)	25.788,3	25.485,8	20.864,5	100,0	-18,1	20.485,1	20.158,7	15.704,9	100,0	-22,1
HERRIALDEEN ARABERA (guztizkoak)										
– Frantzia	3.948,4	3.961,1	3.232,9	15,5	-18,4	1.931,6	1.779,8	1.560,2	9,9	-12,3
– Alemania	3.840,0	3.873,1	3.607,4	17,3	-6,9	2.939,3	3.039,4	2.562,4	16,3	-15,7
– Italia	1.256,7	1.182,0	1.067,5	5,1	-9,7	1.009,5	970,6	849,8	5,4	-12,4
– Erresuma Batua	1.739,4	2.363,3	1.343,3	6,4	-43,2	768,8	631,6	507,3	3,2	-19,7
– Eurogunea	13.404,0	13.171,0	11.433,2	54,8	-13,2	8.815,3	8.793,4	7.491,7	47,7	-14,8
– ELGA	21.298,4	21.047,7	17.483,3	83,8	-16,9	13.601,8	13.753,8	11.105,0	70,7	-19,3
– Beste helmuga batzuk	4.489,9	4.438,1	3.381,2	16,2	-23,8	6.883,3	6.404,9	4.599,9	29,3	-28,2
SEKZIOEN ARABERA (guztizkoak)										
– Elikagaiak eta animalia biziak	699,3	752,1	718,8	3,4	-4,4	840,2	874,9	765,6	4,9	-12,5
– Edariak eta tabakoak	233,0	227,6	246,3	1,2	8,2	17,2	14,5	20,0	0,1	37,9
– Jateko ez diren erregai gordinak, erregaiak salbu	354,3	292,8	279,0	1,3	-4,7	1.469,9	1.425,7	1.267,8	8,1	-11,1
– Erregaiak eta lubrifikatzailer mineralak eta horiei lotutako produktuak	2.767,8	2.014,4	951,4	4,6	-52,8	5.729,9	5.383,9	2.898,2	18,5	-46,2
– Olioak, koipeak eta argizariak (animalienak eta landareenak)	44,5	141,1	154,5	0,7	9,5	167,2	144,8	184,2	1,2	27,2
– Produktu kimikoak eta haiei lotutako produktuak, beste inon zehaztu gabeak	985,4	919,4	792,2	3,8	-13,8	1.679,5	1.585,3	1.379,3	8,8	-13,0
– Artikulu manufakturatuen, batez ere materialaren arabera sailkatuak	7.998,6	7.639,8	6.566,7	31,5	-14,0	4.667,4	4.500,8	3.762,0	24,0	-16,4
– Makineria eta garraio-ekipamendua	11.827,5	12.571,6	10.244,4	49,1	-18,5	4.877,9	5.153,0	4.383,2	27,9	-14,9
– Hainbat artikulu manufakturatuen	717,8	806,1	717,4	3,4	-11,0	1.025,2	1.061,3	1.010,3	6,4	-4,8
– NMSUren beste kontzeptu batean sailkatu gabeko salgaiak eta elikagaiak	160,0	121,0	193,9	0,9	60,2	10,7	14,6	34,3	0,2	134,9

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat (Aduana eta Zerga Berezien Sailaren datuen arabera).

Nafarroako kanpo-sektorearen kasuan ere, pandemiaren eraginez, kanpo-salmentak eta kanpo-erosketak nabarmen jaitsi ziren 2020an (-% 13,5 eta -% 15,6, hurrenez hurren). Zehazki, 2020an 8.832,3 milioi eurora murriztu ziren esportazioak, hau da, -% 13,5 murriztu ziren aurreko ekitalditik. Inportazioak, berriz, 4.609,8 milioi eurora jaitsi ziren, hau da, urte arteko -% 15,6ko jaitsiera izan zuten. Gauzak hala, merkataritza-balantzaren saldo positiboa 4.222,5 milioi eurora murriztu zen (2019an 4.704,4 milioi eurokoa zen). Inportazioen gaineko esportazioen estaldura-tasa, berriz, % 191,6ra igo zen (% 186,7koa zen aurreko ekitaldian).

EAEren kasuan bezala, Europa (EB-27) izan zen Nafarroarentzat ere kanpo-merkataritzaren jatorri eta helmuga nagusia. 2020an Europara egin zituzten esportazioen % 68,4, eta handik inportatu zuten guztizkoaren % 77,7. Hain zuzen ere, Frantziara eta

Alemaniarara egin ziren kanpo-salmenten % 17,2 eta % 16,4, eta handik egin ziren kanpoko erosketen % 11,3 eta % 24,6, hurrenez hurren.

Muga-zergen partidei dagokienez, 2020an, batez ere, garraio-materiala nabarmendu zen. Izan ere, esportazioen % 40,8 eta inportazioen % 20,4 garraio-materialarekin lotutakoa izan zen. Hala, Nafarroako kanpo-merkataritzaren bilakaera baldintzatu zuen, neurri handi batean.

33. koadroa Nafarroako esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera

(Meuro)

Kontzeptua	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2018	2019	2020*	%	% Δ 20/19	2018	2019	2020*	%	% Δ 20/19
GUZTIRA (guztizkoak)	9.145,3	10.205,4	8.832,3	100,0	-13,5	4.855,8	5.465,0	4.609,8	100,0	-15,6
HERRIALDEEN ARABERA (guztizkoak)										
– Frantzia	1.578,7	1.779,5	1.521,5	17,2	-14,5	642,6	574,7	522,3	11,3	-9,1
– Alemania	1.420,8	1.688,3	1.451,3	16,4	-14,0	1.294,5	1.423,2	1.133,3	24,6	-20,4
– Italia	884,2	999,8	781,1	8,8	-21,9	334,8	326,4	277,4	6,0	-15,0
– Erresuma Batua	446,3	580,5	527,7	6,0	-9,1	119,1	114,2	110,3	2,4	-3,4
– Portugal	429,5	430,3	390,2	4,4	-9,3	237,0	235,2	190,7	4,1	-18,9
– EB-27 guztira	6.551,2	7.193,4	6.045,5	68,4	-16,0	3.717,9	4.130,2	3.583,3	77,7	-13,2
– Europako gainerakoak	465,8	400,9	431,9	4,9	7,7	186,0	192,0	127,8	2,8	-33,4
– Estatu Batuak	381,9	496,2	532,8	6,0	7,4	54,5	172,2	127,0	2,8	-26,2
– Beste helmuga batzuk	1.746,4	2.114,9	1.822,1	20,6	-13,8	897,4	970,6	771,7	16,7	-20,5
SEKTOREEN ARABERA (guztizkoak)										
– Lehen sektorea	656,4	718,7	724,5	8,2	0,8	449,8	443,3	401,8	8,7	-9,4
– Nekazaritzako elikagaien industria	574,6	629,2	631,3	7,1	0,3	238,7	229,9	226,4	4,9	-1,5
– Industria kimikoa	188,1	259,3	208,3	2,4	-19,7	255,1	377,5	385,4	8,4	2,1
– Material plastikoak, kautxua	316,7	341,0	353,1	4,0	3,5	306,1	299,4	253,2	5,5	-15,4
– Metal komunen manufaktura	696,0	745,7	674,1	7,6	-9,6	595,9	539,1	479,9	10,4	-11,0
– Makinak, material elektrikoa	2.172,0	2.167,3	2.031,6	23,0	-6,3	1.320,6	1.737,0	1.391,3	30,2	-19,9
– Garraiorako materiala	3.871,8	4.665,2	3.600,6	40,8	-22,8	1.060,1	1.156,8	942,5	20,4	-18,5
– Gainerakoak	669,7	679,0	608,8	6,9	-10,3	629,5	682,0	529,3	11,5	-22,4

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

3.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK

Pandemiaren ondorioz jarduerak behera egin zuen 2020an, eta, agertoki horretan, Brent petrolio-upelaren prezioa -% 35,9 jaitsi zen urte osoan zehar. Hala, ekitaldiko lehen lau hilabeteetan urte arteko tasa negatiboak izan zituzten prezioek EAEn eta Nafarroan. KPlak urte arteko tasa negatiboak izan zituen EAEn apiriletik abendura; beherakadaren abiadura apur bat moteldu zen ekainean, abuztuan, irailean eta abenduan. Prezioen bilakaera antzekoa izan zen Nafarroan, nahiz eta tasak han hilabete lehenago hasi ziren negatiboak izaten (martxoan), eta beherakada apur bat nabarmenagoa izan zen.

Gauzak hala, 2020an metatutako inflazio-tasa (abendutik abendura) -% 0,3koa izan zen EAEn eta -% 0,6koa Nafarroan (% 1,2 eta % 1,3 aurreko ekitaldiaren itxieran, hurrenez hurren). Ekitaldi osoko urteko batez besteko tasa -% 0,1ekoa izan zen EAEn (% 1ekoa 2019an) eta -% 0,6koa Nafarroan (% 1,2koa aurreko ekitaldian).

34. koadroa Prezioen bilakaera EAEn eta Nafarroan

		<i>(Urte arteko aldakuntza-tasa)</i>					
EAE	2018	2019	2020	NAFARROA	2018	2019	2020
KPI				KPI			
Orokorra ⁽¹⁾	1,6	1,0	-0,1	Orokorra ⁽¹⁾	1,7	1,2	-0,6
Orokorra ⁽²⁾	1,0	1,2	-0,3	Orokorra ⁽²⁾	1,3	1,3	-0,6
Elik. eta alkoh. gabeko edariak	0,6	2,1	1,8	Elik. eta alkoh. gabeko edariak	1,1	3,2	1,5
Alkoholun edariak, tabakoa	1,2	-0,2	-0,1	Alkoholun edariak, tabakoa	1,2	0,7	0,2
Jantziak eta oinetakoak	0,9	0,9	0,7	Jantziak eta oinetakoak	1,0	0,8	0,7
Etxebizitza	2,8	-5,2	0,2	Etxebizitza	3,2	-4,0	-1,7
Etxeko tresneria	0,5	1,1	0,5	Etxeko tresneria	0,8	0,4	0,8
Osasuna	0,3	1,3	0,1	Osasuna	2,1	1,5	0,9
Garraioak	0,1	5,7	-4,1	Garraioak	0,0	5,8	-5,0
Komunikazioak	2,4	0,7	-4,0	Komunikazioak	1,7	0,2	-4,2
Aisialdia eta Kultura	-0,3	0,6	-2,2	Aisialdia eta Kultura	-0,4	0,7	-2,1
Irakaskuntza	0,8	1,4	0,4	Irakaskuntza	1,1	0,2	1,7
Hotelak eta jatetxeak	1,6	1,8	1,0	Hotelak eta jatetxeak	2,9	0,5	0,9
Beste batzuk	0,9	1,5	0,8	Beste batzuk	1,3	1,0	2,0
Industria Prezioen Indizea (IPRI)				Nekazariek Jasotako Prezioen Indizea			
Orokorra	3,2	1,4	-3,1	Orokorra	5,6	-1,0	2,0
Kontsumoa	2,1	-0,3	1,9	Nekazaritza-produktuak	9,5	-0,6	0,0
Ekipamendua	1,9	1,6	0,9	Baso-produktuak	2,9	6,7	7,3
Bitartekoak	2,6	0,0	-0,6	Animalia-produktuak	0,6	-1,8	4,2

(1): Urteko batez besteko aldakuntza.

(2): Abendutik abendura.

Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.

2020ko abenduko urte arteko aldakuntzari eta ondasunen talde ezberdinei erreparatuta, petrolioaren prezioak izandako beherakadaren ildotik, garraioek izan zuten prezioen beherakada handiena EAEn eta Nafarroan (-% 4,1 eta -% 5, hurrenez hurren); hurrengoak komunikazioak (-% 4 eta -% 4,2, hurrenez hurren) eta aisialdia eta kultura (-% 2,2 eta -% 2,1, hurrenez hurren) izan ziren bi eremuetan. Bestetik, EAEn elikagaiek eta alkoholik gabeko edariek (% 1,8) eta hotelek eta jatetxeek (% 1) izan zituzten prezio-igoerarik handienak; Nafarroan, berriz, "beste batzuk" arloak eta irakaskuntzak izan zuten inflaziorik handiena (% 2 eta % 1,7, hurrenez hurren).

Arreta EAEko prezio industrialetan jarrita, 2020an -% 3,1 egin zuen behera indize orokorrak (2019an % 1,4ko hazkundea). Energiaren prezioek nabarmen egin zuten behera (-% 15,1eko beherakada, eta aurreko ekitaldian % 5eko hazkundea) eta bitarteko ondasunek apur bat gutxiago (-% 0,6, eta aurreko ekitaldian ez zen batere hazi). Ekipo-ondasunen prezioen hazkundea moteldu egin zen (% 0,9, eta 2019an % 1,6), eta kontsumo-ondasunen prezioek gora egin zuten (% 1,9; aurreko ekitaldian, aldiz, -% 0,3).

Nafarroako nekazariak jasotako prezioak % 2 hazi ziren 2020an (-% 1 2019an); izan ere, basoko produktuen zein animalia-produktuen prezioak hazi egin ziren (% 7,3ko eta % 4,2ko igoerak; aldiz, aurreko ekitaldian % 6,7 eta -% 1,8, hurrenez hurren), eta nekazaritzako produktuen prezioak mantendu egin ziren (2020an ez zuten ez atzera ez aurrera egin).

35. koadroa Soldata-adierazleak

Kontzeptua	2018	2019	2020
EAE			
Soldata-kostuak (urte arteko aldakuntza-tasa)			
– Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko	2,1	3,4	5,0
– Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko	2,4	1,4	-1,9
Hitzarmenak			
– Hitzarmen kopurua	567	524	410
– Eragina jasandako langileak	222.944	239.064	241.384
– Adostutako soldata-igoera	1,80	1,95	1,57
NAFARROA			
Soldata-kostuak (urte arteko aldakuntza-tasa)			
– Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko	1,7	2,4	5,6
– Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko	1,8	1,9	-0,1
Hitzarmenak			
– Hitzarmen kopurua	226	182	151
– Eragina jasandako langileak	103.345	82.108	91.254
– Adostutako soldata-igoera	1,48	2,28	1,81

Iturria: Lan Kostuaren Hiruhilekoko Inkesta (EIN) eta Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa (2021eko otsailko hitzarmenetako datuak).

Azkenik, lan-kostuei dagokienez, 2020an ordu efektibo bakoitzeko soldata-kostuaren hazkunde-erritmoa % 5era igo zen EAEn eta % 5,6ra Nafarroan (2019an % 3,4koa eta % 2,4koa izan zen, hurrenez hurren). Langile eta hilabete bakoitzeko soldata-kostua, berriz, -% 1,9 jaitsi zen EAEn eta -% 0,1 Foru Erkidegoan (aurreko ekitaldian % 1,4 eta % 1,9 hazi zen, hurrenez hurren).

3.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA

Lan-merkatua Euskal Herrian

Pandemiaren eraginaren ondorioz, 2020an beherakada historikoa izan zuen jarduerak EAEn, Nafarroan eta Estatu osoan. Horren aurrean, okupazioak hazteari utzi zion ekitaldi horretan, eta nabarmen jaitsi zen. Aldi berean, langabezian zeuden biztanleen kopurua nabarmen igo zen aztertutako hiru eremu geografikoetan. Pandemiaren ondoz ondoko olatuen arabera, dinamika ezberdina izan zen hiruhilekotik hiruhilekora; baina, orokorrean, egoerak okerrera egin zuen ekitaldiak aurrera egin ahala.

Lehenik eta behin, biztanleria aktiboari erreparatuko diogu. 2020an -% 1,6 egin zuen behera Euskal Herrian, eta 1.323.900 pertsonatara jaitsi zen. Horietatik 1.196 mila pertsona okupatuak ziren (-% 2,4ko jaitsiera) eta 127,9 mila pertsona langabezian zeuden (aurreko ekitaldian baino % 6,4 gehiago). Era berean, Estatuako biztanleria aktiboak ere behera egin zuen 2020an (-% 1,3); izan ere, okupazioak behera egin zuen (-% 2,9) eta langabetuen kopuruak gora (% 8,7).

Generoari dagokionez, 2020an Euskal Herriko biztanleria okupatuak izandako beherakada antzekoa izan zen gizonen eta emakumeen artean (-% 2,3 eta -% 2,4, hurrenez hurren). Estatuan ere, bi sexuen kasuan egin zuen behera (-% 2,9ko jaitsiera bi kasuetan). Bestetik, 2020an Euskal Herrian izandako langabetuen gorakada handiagoa izan zen emakumeen artean, argi eta garbi (% 9,1; aldiz, gizonen artean % 3,5ko gorakada). Estatuan, berriz, gehiago hazi zen gizonezko langabetuen kopurua emakumezko langabetuena baino (% 9,9 eta % 7,7, hurrenez hurren). Hala, biztanleria aktiboa bi sexuen kasuan jaitsi zen 2020an, bai Euskal Herrian (-% 1,8 eta -% 1,4, hurrenez hurren), bai Estatuan (-% 1,3ko eta -% 1,2ko jaitsierak, hurrenez hurren).

Gauzak hala, jarduera-tasa % 55,5era jaitsi zen 2020an Euskal Herrian (2019an % 56,7koa zen); izan ere, jarduera-tasak behera egin zuen EAEn (% 55,1, eta aurreko ekitaldian % 56,2) zein Nafarroan (% 57,1, eta urtebete lehenago % 58,6). Estatu mailan jarduera-tasa % 58,6tik (2019) % 57,4ra jaitsi zen 2020an. Beraz, Euskal Herriaren eta Estatuaren arteko diferentzialak ehuneko 1,9 puntukoa izaten jarraitu zuen 2020an.

Sexuen arabera, jarduera-tasa modu orokortuan jaitsi zen 2020an, bai Euskal Herrian, bai Estatuan. Datuak konparatuz gero, Nafarroako jarduera-tasa EAEn baino handiagoa izan zen, bai gizonen kasuan, bai emakumeen kasuan. Estatuak, bestalde, gizonen eta emakumeen jarduera-tasa handiagoak erregistratu zituen (% 62,9 eta % 52,2, hurrenez hurren), Euskal Herrikoekin alderatuta (% 59,8 eta % 51,5, hurrenez hurren).

Euskal Herriko langabezia-tasari erreparatuta, 2020an % 6,4 igo zen langabetuen kopurua eta 127,9 mila langabetu erregistratu ziren. Hala, bertan behera geratu zen 2014 eta 2019 artean erregistratutako beheranzko joera. Zehatzago esanda, 2020 langabetuen kopurua

% 2,7 hazi zen EAEn eta % 20,1 Nafarroan. Estatu mailan, langabetuen kopurua % 8,7 igo zen.

Behin puntu honetara iritsita, ohar batzuk eman behar dira 2020ko langabeziaren hazkundera ongi ulertzeko. Horrekin lotuta, kontuan izan behar da aurrez aipatu ditugun langabezia-datuek ez dituztela barne hartzen Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espediente (ABEEE) bat duten pertsonak, Europako arauak gai honi buruz diotenarekin bat. Estatu mailan 2020ko apirilaren amaieran heldu zen langabezia-tasa bere maila gorenera (pandemiaren lehenengo olatua, erabateko konfinamendua). Egun horietan hiru miloi eta erdi pertsona zeuden langabezian, eta 2020ko amaierarako 755.000 pertsonatara jaitsi zen kopurua.

Dinamika hori kontuan hartuta, langabezia-tasak aztertutako geografia-eremu guztietan egin zuen gora 2020an, oro har. Hala, Euskal Herrian 2019an % 8,9koa zen langabezia-tasa, eta 2020an % 9,7ra igo zen. EAEn (2020an % 9,5, eta aurreko ekitaldian % 9,2) zein Nafarroan (%10, eta urtebete lehenago % 8,2) igo zen tasa. Estatu mailan % 15,5era igo zen langabezia-tasa (% 14,1 2019an), Europako erregistrorik altuenetako bat izanik.

36. koadroa Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia

(urteko batezbestekoak, milakotan)

Eremua		2019			2020		
		Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
EAE	Aktiboak izan daitezkeenak	880,4	953,7	1.834,1	884,4	958,2	1.842,6
	Aktiboak	533,1	497,3	1.030,4	521,6	492,7	1.014,4
	Okupatuak	485,7	450,4	936,1	476,3	441,2	917,6
	Langabeak	47,4	46,9	94,3	45,3	51,5	96,8
	Jarduera-tasa	60,6	52,1	56,2	59,0	51,4	55,1
	Langabezia-tasa	8,9	9,4	9,2	8,7	10,5	9,5
	Erregistratutako langabezia*	51,2	63,0	114,2	58,9	70,3	129,2
Nafarroa	Aktiboak izan daitezkeenak	264,2	272,7	536,9	266,6	275,2	541,8
	Aktiboak	167,7	147,1	314,8	166,5	143,0	309,5
	Okupatuak	155,3	133,6	288,9	149,9	128,5	278,4
	Langabeak	12,4	13,6	25,9	16,6	14,5	31,1
	Jarduera-tasa	63,5	53,9	58,6	62,5	52,0	57,1
	Langabezia-tasa	7,4	9,2	8,2	10,0	10,1	10,0
	Erregistratutako langabezia*	14,2	19,0	33,2	17,4	23,2	40,6
Euskal Herria	Aktiboak izan daitezkeenak	1.144,6	1.226,4	2.371,0	1.151,0	1.233,4	2.384,4
	Aktiboak	700,8	644,4	1.345,2	688,1	635,7	1.323,9
	Okupatuak	641,0	584,0	1.225,0	626,2	569,7	1.196,0
	Langabeak	59,8	60,5	120,2	61,9	66,0	127,9
	Jarduera-tasa	61,2	52,5	56,7	59,8	51,5	55,5
	Langabezia-tasa	8,5	9,4	8,9	9,0	10,4	9,7
	Erregistratutako langabezia*	65,4	82,0	147,4	76,3	93,5	169,8
Espainia	Aktiboak izan daitezkeenak	19.094,5	20.174,8	39.269,3	19.241,9	20.336,9	39.578,8
	Aktiboak	12.273,4	10.753,7	23.027,1	12.108,9	10.624,4	22.733,3
	Okupatuak	10.745,6	9.033,7	19.779,3	10.429,7	8.772,7	19.202,4
	Langabeak	1.527,8	1.720,0	3.247,8	1.679,3	1.851,6	3.530,9
	Jarduera-tasa	64,3	53,3	58,6	62,9	52,2	57,4
	Langabezia-tasa	12,4	16,0	14,1	13,9	17,4	15,5
	Erregistratutako langabezia*	1.328,4	1.835,2	3.163,6	1.663,0	2.225,1	3.888,1

(*): Abendua.

Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2021eko otsaileko datuak) eta SEPE.

EAEren esparruan, langabezia-tasak gora egin zuen emakumeen artean (2020an % 10,5, eta 2019an % 9,4), eta behera gizonen artean (2020 % 8,7, eta aurreko ekitaldian % 8,9). Foru Erkidegoan, berriz, gorakada orokorra izan zen bi sexuen kasuan (gizonezkoen tasa % 7,4tik % 10era igo zen, eta emakumezkoena % 9,2tik % 10,1era). Hala, Euskal Herrian gizonen zein emakumeen kasuan egin zuen gora langabezia-tasak (% 8,5etik % 9ra eta % 9,4tik % 10era, hurrenez hurren). Bestetik, Estatuan ere bi kolektiboen langabezia-tasak egin zuen gora; gizonen kasuan % 13,9ra igo zen (2019an % 12,4koa izan zen), eta emakumeen kasuan % 17,4ra (% 16koa zen urtebete lehenago). Edonola ere, aipatzekoa da aintzat hartutako geografia-eremu guztietan emakumeek gizonek baino langabezia-tasa handiagoa zutela.

Txostenaren aurreko edizioetan bezala, jarraian labur aztertuko dugu langabezia, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan (SEPE) erregistratutako langabeziaren ikuspegitik. Horretarako, aintzat hartu beharko da, kasu zehatz honetan, eskainitako informazioa abenduari dagokiola, eta ez ekitaldi osoari. Zentzu horretan, aipatutako iturriaren arabera, SEPEren Euskal Herriko bulegoetan 169,8 mila pertsona langabetu zeuden erregistratuta 2020ko abenduan, hau da, aurreko urtean baino % 15,2 gehiago. Horietatik 129,2 mila pertsona EAEkoak ziren (urte arteko % 13,1eko hazkundera) eta 40,6 mila pertsona Nafarroakoak (urte arteko % 22,3ko hazkundera). Estatuari dagokionez, 2020ko abenduan 3.888,1 mila langabetu zeuden erregistratuta, aurreko urtean baino % 22,9 gehiago.

37. koadroa Langabezia-tasa adin-tarteen arabera. Urteko batezbestekoak

Eremua	Urtea	Langabezia-tasa adin-tarteen arabera (%)					Guztira
		16-19	20-24	25-54	55 eta gehiago		
EAE	2018	30,4	24,9	9,2	8,6	10,0	
	2019	39,1	25,4	7,9	8,9	9,2	
	2020	41,4	32,0	8,7	6,8	9,5	
Nafarroa	2018	42,4	22,9	9,2	7,3	10,0	
	2019	45,5	20,1	7,9	4,9	8,2	
	2020	23,5	26,4	9,6	7,0	10,0	
Euskal Herria	2018	34,3	24,4	9,2	8,3	10,0	
	2019	40,4	24,1	7,9	8,0	8,9	
	2020	37,3	30,5	8,9	6,9	9,7	
Espainia	2018	49,7	31,0	14,0	13,3	15,3	
	2019	45,2	29,8	12,9	12,2	14,1	
	2020	54,3	35,1	14,5	12,1	15,5	

Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2021eko otsaileko datuak).

Biztanleria Aktiboaren Inkesta berriro ere aintzat hartuta (urteko batezbesteko datuak), nabarmentzekoa da langabezia-tasan alde handiak izan zirela adinaren arabera; hala, gazteenek zituzten balio altuenak. Zehazki, Euskal Herriko 16 eta 19 urte artekoen artean langabezia-tasa % 37,3koa zen 2020an. Zerrendan hurrengoak 20 eta 24 urte artekoak izan ziren (% 30,5), ondorengoak 25 eta 54 urte artekoak (% 8,9) eta, azkenik, 55 urte edo gehiago zituztenak (% 6,9).

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, Euskal Herrian gora egin zuten 20 eta 24 urte artekoen eta 25 eta 54 urte artekoen langabezia-tasek (2019an % 24,1ekoa izatetik 2020 % 30,5ekoa izatera, eta % 7,9tik % 8,9ra, hurrenez hurren). Gazteenen eta helduenen artean, berriz, behera egin zuen (2019an % 40,4koa izatetik 2020an % 37,3koa izatera, eta % 8tik % 6,9ra, hurrenez hurren).

Estatu mailan, pertsona helduenen kasuan izan ezik, langabezia-tasak modu orokorrean egin zuen gora, eta gazteenek izan zuten tasarik altuena (% 54,3 2020an).

38. koadroa Enpleguaren bilakaera, sektore ekonomikoen arabera. Urteko batezbestekoak

Eremua	Urtea	<i>(m pertsona)</i>			
		Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
EAE	2018	9,3	200,8	50,3	663,3
	2019	10,2	190,7	52,9	682,3
	2020	8,4	190,0	51,2	668,0
Nafarroa	2018	11,8	75,2	17,8	177,4
	2019	10,2	74,9	16,2	187,6
	2020	9,4	75,7	15,6	177,8
Euskal Herria	2018	21,1	276,0	68,1	840,7
	2019	20,4	265,6	69,1	869,9
	2020	17,8	265,7	66,8	845,8
Espainia	2018	812,6	2.708,3	1.221,8	14.585,1
	2019	797,3	2.763,1	1.277,9	14.941,0
	2020	765,3	2.698,2	1.244,1	14.494,8

Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2021eko otsailera datuak). (EJSN-09).

Biztanleria okupatuaren sektorekako dinamikari dagokionez, Euskal Herrian 2020an industriak baino ez zuen mantendu haren enpleguaren bolumena (ez zuen urte arteko aldakuntzarik izan). Enpleguak behera egin zuen lehenengo sektorean (-% 12,7), eraikuntzan (-% 3,3) eta zerbitzuetan (-% 2,8). Zenbaki absolututan, hirugarren sektorean suntsitu zen gehien enplegua (2019an baino 24.100 okupatu gutxiago). Hain zuzen ere, Euskal Herriko enpleguaren nukleoa biltzen du hirugarren sektorea (guztizkoaren % 70,7, gehienbat, EAEn), eta pandemiaren esparruan hartutako neurri murriztaileen eragina gehien pairatu zuen sektorea izan zen, beste sektoreen aldean interakzio handiagoa baitu gizartearekin. Industria (% 22,2), eraikuntza (% 5,6) eta lehen sektorea (% 1,5) izan ziren hurrengoak.

Estatuan sektore guztietan murriztu zen enplegua 2020an, modu orokorrean (-% 4 lehen sektorean, -% 3 zerbitzuetan, -% 2,6 eraikuntzan eta -% 2,3 industrian). Kasu honetan ere, zenbaki absolututan hirugarren sektorea izan zuen beherakada handiena (446.200 okupatu gutxiago).

SEPEn erregistratutako kontratuak aintzat hartuta, 2020an nabarmen jaitsi ziren, oro har, aztertu ditugun geografia-eremu guztietan. Hala, ekitaldi horretan 1.008.385 kontratu jakinarazi ziren Euskal Herrian; alegia, -% 28,3ko jaitsiera izan zen (-% 30,2 EAEn eta -% 23,5 Nafarroan). Estatuan, berriz, 15.943.061 kontratu jakinarazi ziren, hau da, aurreko urtean baino -% 29,2 gutxiago.

Kontratu motaren arabera, Euskal Herrian eta Estatuan aldi baterako kontratuak (-% 28,3 eta -% 29,3, hurrenez hurren) zein kontratu mugagabeak (-% 28,1 eta -% 28,4, hurrenez hurren) murriztu ziren, eta horrek eragin zuen kontratazio totala ere jaitea. Gainera, kontuan izan behar da erregistratutako kontratu guztien % 90 baino gehiago aldi baterakoak izan zirela.

39. koadroa SEPEren bulegoetan erregistratutako kontratuak

Eremua	Urtea	Mugagabeak			Aldi baterakoak				KONTRATUAK, GUZTIRA
		Mugagabea	Konbertsioak	Guztira	Obra eta Zerbitzua	Behin-behinekoak	Gainerakoak	Guztira	
EAE	2018	56.782	31.843	88.625	276.898	444.299	191.359	912.556	1.001.181
	2019	51.433	32.498	83.931	272.401	471.146	180.697	924.244	1.008.175
	2020	36.502	22.946	59.448	179.023	322.650	142.234	643.907	703.355
Nafarroa	2018	14.430	11.454	25.884	90.283	180.078	88.736	359.097	384.981
	2019	14.009	11.593	25.602	91.337	193.380	88.498	373.215	398.817
	2020	10.446	8.836	19.282	75.109	137.937	72.702	285.748	305.030
Euskal Herria	2018	71.212	43.297	114.509	367.181	624.377	280.095	1.271.653	1.386.162
	2019	65.442	44.091	109.533	363.738	664.526	269.195	1.297.459	1.406.992
	2020	46.948	31.782	78.730	254.132	460.587	214.936	929.655	1.008.385
Espainia	2018	1.446.936	837.988	2.284.924	8.274.521	9.830.653	1.901.583	20.006.757	22.291.681
	2019	1.323.913	835.521	2.159.434	8.193.202	10.341.952	1.817.633	20.352.787	22.512.221
	2020	936.513	609.097	1.545.610	6.241.088	6.777.227	1.379.136	14.397.451	15.943.061

Iturria: SEPE.

Halaber, autonomoen gaineko ohar bat ematea komeni da, kolektibo horri ere eragin baitio pandemiak. Zentzu horretan, BAren eta EINen arabera, norberaren konturako langileen kopuruak -16.200 pertsonako jaitsiera izan zuen Estatuan 2019 eta 2020 artean, eta -9.500 pertsonako jaitsiera Euskal Herrian.

Gizarte- eta lan-giroari dagokionez, aztertutako hiru geografia-eremuetan aurreko ekitaldian baino hitzarmen gutxiago negoziatu zituzten 2020an. Hala, 2020an negoziatutako hitzarmenen jaitsiera hauek izan ziren: EAEn -% 21,8, Nafarroan -% 17 eta Estatu mailan -% 27,1. Bestalde, hitzarmen kolektibo horien eraginpeko langileak % 1 areagotu ziren EAEn, % 11,1 Foru Erkidegoan eta -% 24,9 murriztu ziren Estatuan.

40. koadroa Hitzarmen kolektiboak eta grebak

Eremua	Urtea	Hitzarmen kolektiboak			Grebak*			Lan egin gabeko lanaldiak
		Kopurua	Eragindako langileak	Adostutako soldata-igoera	Kopurua	Langile parte-hartzaileak	Greba bakoitzeko langileak	
EAE	2018	567	222.944	1,80	224	46.630	208	129.709
	2019	524	239.064	1,95	286	77.020	269	388.624
	2020	410	241.384	1,57	178	25.723	145	59.377
Nafarroa	2018	226	103.345	1,48	47	2.481	53	3.407
	2019	182	82.108	2,28	102	5.412	53	18.668
	2020	151	91.254	1,81	37	1.249	34	3.653
Espainia	2018	5.589	11.423.657	1,73	726	338.671	466	907.631
	2019	4.590	10.717.663	2,24	898	264.454	294	858.401
	2020	3.346	8.049.272	1,91	487	151.496	311	540.579

* Ez ditu jasotzen greba orokorretako datuak. 2020ko datuak urtarila-abendua bitarteko aurrerapenari dagozkio.

Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa. 2021eko otsaileko hitzarmenen datuak. 2021eko martxoko greben datuak.

Laneko gatazkei dagokienez, 2020an, oro har, behera egin zuten greben kopuruak, grebek eragindako langileen kopuruak eta lan egin gabeko lanaldiek. Zentzu horretan, grebek -% 37,8 egin zuten behera EAEn, -% 63,7 Nafarroan eta -% 45,8 Estatuan. Bestetik, grebek eragindako langileen kopuruak -% 66,6, -% 76,9 eta -% 42,7 egin zuten behera, hurrenez hurren. Eta lan egin gabeko lanaldiek -% 84,7, -% 80,4 eta -% 37, hurrenez hurren.

Biztanleria

2019an (eskuragarri dagoen azken datua) Euskal Herriko biztanle-kopurua hazi egin zen apur bat (% 0,5), bai EAEn (% 0,4), bai Nafarroan (% 1). Zehazki, 2.861.990 biztanlera iritsi ziren ekitaldi horretan: 2.207.776 biztanle EAEn eta gainerako 654.214ak Foru Erkidegoan. Estatu mailan % 0,6 hazi zen biztanleria, eta 2019an 47.026.208 pertsonatara iritsi ziren.

2019an 20.820 pertsona jaio ziren Euskal Herrian (aurreko ekitaldian baino % 3,2 gutxiago) eta 27.134 pertsona hil (aurreko ekitaldian baino % 1,6 gutxiago). Horrenbestez, saldo begetatibo negatiboa -6.314 pertsonakoa izan zen, jarraipena emanez 2014an hasitako hazkunde begetatibo negatiboen joerari.

41. koadroa Biztanleriaren mugimendu naturala. Jaiotza- eta heriotza-tasak, 2019

Eremua	Jaiotzak	Heriotzak	Hazkunde begetatiboa	Jaiotza-tasa (‰)	Heriotza-tasa (‰)
Araba	2.568	2.738	-170	7,7	8,3
Bizkaia	7.741	11.967	-4.226	6,7	10,4
Gipuzkoa	5.140	6.861	-1.721	7,1	9,5
EAE	15.449	21.566	-6.117	7,0	9,8
Nafarroa	5.371	5.568	-197	8,2	8,5
Euskal Herria	20.820	27.134	-6.314	7,3	9,5
Espainia	360.617	418.703	-58.086	7,7	8,9

Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). 2020ko abenduko datuak.

Hala, jaiotza-tasak eta heriotza-tasak behera egin zuten Euskal Herrian (‰ 7,3 2019an eta ‰ 7,6 2018an; eta ‰ 9,5 eta ‰ 9,7, hurrenez hurren). Estatuko jaiotza-tasa altuagoa izan zen (‰ 7,7) eta heriotza-tasa txikiagoa (‰ 8,9).

Ezkontzei dagokienez, 2019an 9.079 izan ziren Euskal Herrian, aurreko urtean baino -% 1,2 gutxiago. Estatuan, berriz, 161.389 erregistratu zituzten, aurreko ekitaldian baino -% 0,8 gutxiago.

42. koadroa Euskal Herriko biztanleriaren mugimenduaren bilakaera

Urtea	Biztanleria	Ezkontzak	Jaiotzak	Jaiotza-tasa (%)	Heriotzak	Heriotza-tasa (‰)	Hazkunde begetatiboa	Migrazio-saldoa* (autonomia artekoa)
2009	2.802.753	10.985	27.749	9,9	24.761	8,8	2.988	2.554
2010	2.815.263	10.665	27.948	9,9	24.344	8,6	3.064	2.904
2011	2.826.657	10.304	27.902	9,9	24.990	8,8	2.912	4.362
2012	2.837.659	10.171	27.264	9,6	25.657	9,0	1.607	3.875
2013	2.836.159	9.286	25.191	8,9	25.043	8,8	148	2.920
2014	2.829.775	9.595	25.562	9,0	25.677	9,1	-115	4.078
2015	2.829.733	9.861	24.856	8,8	27.191	9,6	-2.335	3.138
2016	2.830.181	9.763	24.141	8,5	26.951	9,5	-2.810	3.305
2017	2.837.392	9.733	22.823	8,0	27.478	9,7	-4.655	1.052
2018	2.846.642	9.187	21.498	7,6	27.582	9,7	-6.084	682
2019	2.861.990	9.079	20.820	7,3	27.134	9,5	-6.314	147

* 2017tik aurrera, 0 adinari eragiten zion barne-migrazioaren akatsa zuzentzen da.

Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). Migrazio-mugimenduak (EIN) 2020ko abenduko datuak.

Azkenik, nabarmendu behar da 2019an Euskal Herriak migrazio-saldo (autonomia artekoa) positiboa izan zuela, 147 pertsonakoa, immigrazio-kopuru handiagoa egon zelako emigrazio-kopurua baino. EAEk -237 pertsonako migrazio-saldo negatiboa izan zuen, eta Nafarroak, berriz, 384 pertsonako migrazio-saldo positiboa.



3. INDUSTRIA

1. IKUSPEGI OROKORRA

Covid-19aren krisiaren eraginez, Euskal Herriko industria-sektorearen jarduera erabat okertu zen, eta bertan behera geratu zen aurreko ekitaldietako joera positiboa.

Geografia eremu ezberdinei dagokienez, pandemiaren eraginez, 2020an nabarmen jaitsi zen sektoreko balio erantsi gordina EAEn, -% 11,8 (2019an % 1,3 hazi zen). Nafarroan antzeko jaitsiera izan zuen, -% 9,5koa (2019an % 2,2 hazi zen).

2020ko hiruhileko ezberdinei erreparatuta, pandemiak bigarren hiruhilekotik aurrera izugarritzko eragina izan zuela ikus daiteke, eta urteak aurrera egin ahala pixkanaka suspertzen joan zela (-% 3,6; -% 26,7; -% 9,5; -% 7,2). Gauza bera gertatu zen Nafarroan, non joera antzekoa izan zen, baina apur bat apalagoa (-% 1,7; -% 24,0; -% 6,3; -% 5,8).

2020an industria-jarduerak EAEn eta Nafarroan izandako jaitsiera Estatukoaren antzekoa izan zen (-% 10,7 2020an eta % 1,2 2019an).

Ekoizpen-indizeak

Era berean, Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera oso negatiboa izan zen EAEn, Nafarroan eta Estatuan. Aipatutako indizea amildu egin zen hiru eremuetan, orain arte ezagutu gabeko mailetara iritsi arte. EAEn -% 13,3ko jaitsiera izan zuen IPIak (2019an % 1,6), Nafarroan -% 10,9koa (2019an % 9,8) eta Estatuan -% 9,2koa (2019an % 0,7).

43. koadroa Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera

Urtea	Indizearen aldaketa (%)		
	EAE IPI(*)	Nafarroa IPI(*)	Estatua IPI(*)
2013	-3,6	-1,6	-1,7
2014	1,5	3,9	1,5
2015	3,3	2,2	3,3
2016	3,0	0,7	1,6
2017	5,7	-2,1	2,9
2018	2,2	-0,5	0,7
2019	1,6	9,8	0,7
2020	-13,3	-10,9	-9,2

(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.

Iturria: Geuk egina, Eustaten, Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI), EINen eta Iberdrolaren datuetatik abiatuta.

44. koadroa Euskal Herriko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen jomuga ekonomikoaren arabera

Urtea	Bitarteko ondasunak		Ekipo-ondasunak		Kontsumo-ondasunak		Energia	
	EAE*	Nafarroa	EAE*	Nafarroa	EAE*	Nafarroa	EAE*	Nafarroa
2013	-3,0	-4,6	-3,9	3,3	-5,0	-0,2	-3,0	-6,8
2014	2,4	10,0	1,8	3,4	0,0	3,2	0,1	-5,9
2015	1,0	-0,8	7,1	4,9	3,1	2,4	1,4	6,9
2016	2,2	0,9	8,6	-0,3	1,4	0,8	-3,6	12,8
2017	7,8	7,4	3,3	-4,5	5,5	-0,5	3,0	2,7
2018	1,0	7,3	4,3	-2,8	5,5	0,9	1,4	-12,1
2019	0,0	-2,1	1,8	18,4	2,4	0,0	5,6	45,5
2020	-15,8	-6,7	-12,6	-18,0	-6,7	-7,6	-11,9	-12,3

(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.

Iturria: Geuk egina Eustaten eta Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI) datuetatik abiatuta.

EAEko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera ondasunen helmuga ekonomikoaren arabera aztertuz gero, helmuga ekonomiko guztien kasuan IPIa murriztu egin zela ikus daiteke, baita energiaren kasuan ere. Zehazki, bitarteko ondasunek -% 15,8ko beherakada izan zuten, ekipamendu-ondasunek -% 12,6koa, kontsumo-ondasunek -% 6,7koa eta energiak -% 11,9koa.

Nafarroaren kasuan antzekoa izan zen joera, eta bereziki nabarmendu zen ekipo-ondasunekin eta energiarekin lotutako produkzio-indizearen jaitsiera handia, zeina -% 18koa izan zen ekipo-ondasunen kasuan (2019an % 18,4) eta -% 12,3koa energiaren kasuan (2019an % 45,5). Halaber, indartu egin zen bitarteko ondasunekin lotutako produkzio-indizearen beheranzko joera: -% 6,7 murriztu zen 2020an, eta -% 2,1 2019an. Kontsumo-ondasunen produkzio-indizeak, berriz, -% 7,6ko jaitsiera izan zuen 2020an (aurreko ekitaldian ez zen mugitu).

Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera EAEko jarduera-adarren arabera aztertuta, ekoizpena sektore guztietan erori zela ikus daiteke, farmaziako produktuen sektorean (% 10,1 hazi zen) eta erauzketa-industrietan (% 2,3 2020an eta -% 2,5 2019an) izan ezik.

Batez ere, sektore hauei eragin zien pandemiak, eta beherakada oso handiak izan zituzten: ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza (-% 20,9); metalurgia (-% 20,1); koke-fabrikak eta petrolio-finketa (-% 15,9); eta garraio-materiala (-% 15,2).

Guztira, 15 jarduera-adarretik 13tan jaitsi zen ekoizpena. Hala, eten egin zen aurreko ekitaldian erregistratutako joera positiboa. Izan ere, aurreko ekitaldian 10 jarduera-adarretan handitu zen ekoizpena.

45. koadroa EAEko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera*

Kontzeptua	2018	2019	2020 (%)
Erauzketa-industriak	13,6	-2,5	2,3
Elikagai, edari eta tabakoaren industriak	7,2	0,1	-7,3
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza	-7,7	2,2	-20,9
Zura, papera eta arte grafikoak	0,5	3,0	-6,6
Koke-fabrikak eta petrolio-finketa	9,7	-15,3	-15,9
Industria kimikoa	0,6	-2,7	-9,6
Farmaziako produktuak	2,5	27,5	10,1
Kautxua eta plastikoak	0,1	1,8	-13,5
Metalurgia	0,0	0,0	-20,1
Informatika- eta elektronika-produktuak	8,3	-3,4	-9,9
Material eta ekipo elektrikoa	6,5	5,6	-9,4
Makineria eta ekipamendua	4,1	1,0	-7,3
Garraiorako materiala	3,9	0,8	-15,2
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	3,3	3,9	-7,1
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-1,6	14,7	-12,0

(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.

Iturria: Eustat.

46. koadroa Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera

Kontzeptua	2018	2019	2020 (%)
Nekazaritzako elikagaien industria	-1,6	3,6	-6,5
Metalurgia eta produktu metalikoak	2,7	6,1	-10,9
Papera, zura eta altzariak	8,8	0,0	-9,5
Garraiorako materiala	0,1	13,3	-22,6
Beste manufaktura-industria batzuk	3,5	-1,2	-2,1

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI).

Nafarroari dagokionez ere, 2020ko eta 2019ko joerak oso ezberdinak izan ziren. Hala, industria-sektoreek izandako okerragotze orokorra nabarmendu zen. Bereziki, sektore hauek izan zuten okerrerako bilakaera: Garraio-materiala, eta Metalurgia eta produktu metalikoak. Horien IPlak, hurrenez hurren, -% 22,6 (2019an % 13,3) eta -% 10,9 (2019an % 6,1) murriztu ziren. Batez ere, osasun-krisiak eragin zuen bilakaera hori.

Beste manufaktura-industria batzuek ere joera negatiboa izan zuten, aurreko ekitaldian bezala. Krisiak indartu baino ez zuen egin beheranzko bilakaera hori, eta -% 2,1koa izan zen jaitsiera (2019an -% 1,2koa).

Azkenik, Nekazaritzako elikagaien industriak eta Papera, zura eta altzarien sektoreak ere murriztu egin zuten ekoizpena, -% 6,5 eta -% 9,5, hurrenez hurren (2019an % 3,6 eta % 0,0).

Enpresen emaitzak

Pandemiaren ondorioz industria-jarduerak 2020an izandako okerragotzeak eragina izan zuten euskal enpresen emaitzen kontuan ere, jarraian ikus daitekeen moduan.


47. koadroa Ratio batzuen bilakaera, euskal industria-enpresen lagin baterako

Ratioak	2016	2017	2018	2019	2020
Bitarteko kontsumoak/salmentak	56,8	55,6	53,8	58,8	59,0
Langileen kostuak/salmentak	20,2	22,0	22,3	19,9	20,0
Finantza-karga garbia/salmentak	1,1	1,1	0,9	0,8	0,7
Mozkinak/salmentak	8,3	5,0	8,0	5,7	-0,2
Mozkinak/berezko funtsak	15,1	7,4	15,6	10,5	-0,4
Cash flow/salmentak	11,0	9,9	12,7	9,7	5,3
Salmentak/langileak (m euro)	204,4	196,3	174,5	230,9	214,4

Iturria: BMBN eta geuk egina.

Azken urteetan zehar aztertutako industriaren sektoreko euskal enpresa nagusien laginari dagokionez, mozkinak/salmentak eta mozkinak/funtsak ratioak (zergen aurretik kalkulatuta) nabarmen jaitsi ziren 2019arekin alderatuta, eta 2020an balio negatiboetan kokatu ziren: -% 0,2 eta -% 0,4, hurrenez hurren. Bitarteko kontsumoen eta langileen kostuen pisu erlatiboa, berriz, apur bat igo zen, eta cash-flowa eta salmentak/langileak ratioa nabarmen jaitsi zen.

10. grafikoa Industria-errentagarritasuna



Iturria: Geuk egina.

Aurrez aipatutako euskal industria-enpresa nagusien laginaren emaitzetan ikusten den bilakaera negatiboak agerian uzten du COVID-19aren krisiak gogor eragin ziela enpresen bilakaera ekonomikoari eta finantzarioari. Espainiako Bankuaren Hiruhilekoko Balantzeen Zentralak emandako emaitzek ere baieztatu egiten dute bilakaera negatibo hori, 2020ko lau hiruhilekoetako datuak bidali zituzten Espainiako 889 enpresa ez-finantzariok

osaturako lagin batek emandako informazioaren arabera. Enpresa-ez finantzarioen sektoreko balio erantsi gordinaren % 11,0 ordezkatzeko 889 enpresa horiek.

Zentzu horretan, jarduera ekonomikoak izandako aurrekaririk gabeko jaitsierak asko baldintzatu zuen enpresen sektoreak 2020an izandako bilakaera. Izan ere, pandemiaren ondorioz asko murriztu zen errentagarritasuna, eta enpresa askoren finantza-posizioa okertu egin zen.

Hala, Balantzeen Zentralaren hiruhilekoko laginaren arabera, enpresen soberakin arruntak eta errentagarritasun maila asko jaitsi ziren. Jaitsiera hori handiagoa izan zen sektore batzuetan, hala nola industrian, merkataritza eta ostalaritzan, edo informazioa eta komunikazioan.

Gainera, 2020an aktiboaren gaineko zorraren ratioa mantendu egin zen orokorrean, baina soberakinekin lotuta kalkulatzen den ratioak gora egin zuen, eta interesak ordaintzera bideratutako ehunekoa ere handitu egin zen. Hala, ratioak azken urteetan izandako beheranzko joera eten egin zen. Ondorioz, nabarmen handitu zen finantza-presio altua duten enpresen ehunekoa.

48. koadroa Emaizten kontua. Urte arteko bilakaera (enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko)

OINARRIAK	Hiruhilekoko Balantzeen Zentrala ^(*)		
	2018 I-IV / 2017 I-IV	2019 I-IV / 2018 I-IV	2020 I-IV / 2019 I-IV
Enpresa kopurua/Nazioko guztizko estaldura	1.032/% 13,0	1.026/% 13,0	889/% 11,0
1. Produzioaren balioa (diru-laguntzak barne)	5,1	0,2	-20,0
Negozio-zifraren zenbateko garbia eta ustiapenaren bestelako diru-sarrerak	6,7	-1,2	-20,4
2. Bitarteko kontsumoak (tributuak barne)	6,5	-0,3	-19,5
Erosketa garbiak	6,6	-2,5	-25,4
Beste ustiapen-gastu batzuk	5,0	4,3	-10,3
S.1. BALIO ERANTSI GORDINA FAKTOREEN KOSTUAREKIKO (1-2)	2,2	1,3	-20,9
3. Langile-gastuak	3,2	3,4	-4,8
S.2. USTIAPENAREN EMAITZA EKONOMIKO GORDINA (S.1.-3)	1,2	-0,8	-36,8
4. Diru-sarrera finantzarioak	15,5	9,5	-13,4
5. Gastu finantzarioak	-5,0	-6,0	-6,4
6. Amortizazioak eta ustiapen-hornidurak	0,6	1,2	-0,2
S.3. OHIKO EMAITZA GARBIA (S.2 + 4 -5 -6)	9,3	3,9	-50,8
7. Besterentzeen eta narriaduraren ondoriozko emaitzak	—	-48,7	—
8. Arrazoizko balioaren aldakuntzak eta gainerako emaitzak	-80,2	-22,9	45,5
9. Mozkinen gaineko zergak	-10,5	-27,7	-38,7
S.4. EKITALDIAREN EMAITZA (S.3 + 7 + 8 -9)	89,6	-12,3	-68,2
EKITALDIAREN EMAITZA / BEG (S.4 / S.1)	43,8	38,3	16,2
ERRENTAGARRITASUNAK	--		
R.1. Aktibo garbiaren ohiko errentagarritasuna (zergen aurretik)	6,6	6,9	4,6
R.2. Jasotako finantzaketa interesak/kostua duten besteren baliabideak	2,2	2,0	1,9
R.3. Baliabide propioen ohiko errentagarritasuna (zergen aurretik)	9,8	10,6	6,5
R.4. Aldea: errentagarritasuna – kostu finantzarioa (R.1. - R.2.)	4,3	4,9	2,7

(*): Zutabe horietako datu guztiak hiruhilekoko datuen batezbesteko haztatu moduan kalkulatu dira.

Iturria: Espainiako Bankua.

2. ENERGIA

2020an Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen biltzarra (COP26) egitekoak ziren Glasgoven, baina urtebete atzeratu behar izan zuten (2021eko azarora) pandemiaren eraginez. Dena den, 2020an, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmena (CMNUCC) osatzen duten 197 aldeek tinko eutsi zioten atmosferan negutegi efektuko gasen kontzentrazioa gutxitzeko helburuari; hain zuzen ere, gero eta helburu irmoagoa da, eta denborari doituagoa. Paradoxikoki, gizakiak klima-sistemari oztopo arriskutsurik ez eragitea da gizakiaren erronkarik handiena. Gainera, Nazio Batuen arabera, ekosistema garrantzitsuetan eta planetako sistema klimatikoan aldaketa konponezinak eragin ditzaketen hainbat inflexio puntutara iritsi garela –edo gainditu ditugula– adierazten duten froga kezkagarriak daude.

Hori dela eta, beharrezkoa da munduko nazio guztiak biltzen dituen Pariseko Akordioaren helburu nagusian aurrera egitea: klima-aldaketaren mehatxuaren aurrean mundu mailako erantzuna indartzea, mende honetan munduko tenperaturaren igoera (industriaren aurreko mailarekiko) 2°C-tik behera mantentzea, eta tenperaturaren igoera 1,5°C-ra mugatzeko ahaleginak egiten jarraitzea.

EBren energia-politikari dagokionez, hiru helburu nagusi izaten jarraitzen du: hornikuntza-segurtasuna, lehiakortasuna eta jasangarritasuna. Horretarako, 2030era bitarteko klima-eta energia-gaietako ekintza-esparruaren baitan, landu beharreko etorkizuneko politiken inguruko eztabaidak hastea proposatzen du EBk, honako kontu hauek aintzat hartuta:

- 2050rako negutegi-efektuko gasen emisioak % 80-95 murriztea, 1990eko mailarekin alderatuta
- energiaren prezio altuak eta etorkizuneko prezio-igoeren aurrean EBren zaugarritasun ekonomikoa, bereziki gasaren eta petrolioaren prezio-igoeren aurrean
- energiaren inportazioari dagokionez EBren mendekotasuna; askotan politikoki ezegonkorak diren lekuetatik inportatzen da energia
- energia-azpiegiturak ordezkatzeko eta hobetzeko beharra, eta inbertitzaile posibleei esparru erregulatzailerako egonkor bat eskaintzeko beharra
- 2030erako negutegi-efektuko gasen emisioak murrizteko helburuaren gainean EBk akordio bat lortzearen beharra, klima-aldaketaren gaineko nazioarteko akordio berrirako hurrengo negoziaketetako ekarpenaren baitan.

Gainera, Europako Itun Berdearen baitan, 2030erako negutegi-efektuko gasen igorpena, gutxienez, 1990eko mailarekiko % 55era murriztea proposatu zuen Batzordeak 2020ko irailean, igorpenak eta xurgapenak barne. Horretarako, NextGenerationEU suspertze-planaren 1,8 bilioi euroko inbertsioen heren bat eta EBren zazpi urteko aurrekontua Europako Itun Berdea finantzatzeko izango dira. Hemendik 2050era EB, klimari

dagokionez, munduko lehenengo bloke neutroa bihurtzea da itunaren helburua. Hala, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismotik jasotako finantziazioaren % 37, gutxienez, klimarekin lotutako helburuak babesten dituzten inbertsioetara eta erreformatara bideratu behar dute EBko herrialdeek.

Hauek dira 2030erako helburu giltzarriak –eta areagotu egin daitezke–:

- negutegi efektuko gasen igorpena, gutxienez, % 40 murriztea (1990arekiko, baina murrizketa hori % 55era areagotzeko aurreikuspenarekin)
- energia berriztagarrien kuota, gutxienez, % 32koa izatea
- energia-efizientzia, gutxienez, % 32,5 hobetzea

Helburu horiek lortzeko beharrezkoa da herrialde eta sektore guztiek laguntzea. Adituen arabera, trantsizioa bideragarria da, eta ekonomikoki posible da.

2.1 EAEKO BALANTZE ENERGETIKOA

EAEko balantze energetikoari dagokionez, aipatu beharrezkoa da 2020ko datuak ez daudela eskuragarri. Hori dela eta, jarraian landuko dugun informazioa 2019ko datuei dagokie (pandemiaren aurreko datuak). Energiaren Euskal Erakundea (EEE) arduratzen da jarraian aurkeztuko dugun balantze energetikoa egiteaz. Eurostaten metodologia erabiltzen du EAEko balantze energetikoa kalkulatzeko. Balantze horretan, energia mota ezberdinen jarraipen xehea azaltzen da: jatorria (erauzketa edo inportazioa), eraldaketa eta kontsumoa. Hala, balantzea bi ataletan bereizten da. Lehenengo atalean (1-5 puntuak) lehen mailako iturrien energia-hornikuntza jasotzen da, erauzketak (1. Lehen mailako energiaren ekoizpena) eta inportazioak (2. Sarrera guztiak) kontuan izanda. Kopuru horien guztizkoa stocken mugimendurekin (3), esportazioekin (4) eta itsas-garraioarekin (5) doitzen du, eta emaitza barne-kontsumorako eskuragarri dagoen energia da (6. $\text{puntu} = 1+2+3-4-5$). Balantzearen bigarren atalak energiaren eraldaketa-prozesuak eta kontsumorako erabilgarri dagoen energia hartzen ditu kontuan ($12=6-7+8+9-10-11$), konbertsio-prozesuen (7 eta 8), trukeen (9), energia-sektorearen kontsumoaren (10) eta galeren (11) ostean. Kontsumorako eskuragarri dagoen energiari (12) azken kontsumo ez-energetikoa (13) kendu ondoren, azken kontsumo energetikoa geratzen zaigu (14).

49. koadroa EAEko balantze energetikoa (2019)

Sektorea	Ikatza eta deribatuak	Petrolio eta deribatuak	Gas naturala	Energia deribatuak	Energia berriztagarriak	Energia elektrikoa	Guztira
1. Lehen mailako energiaren ekoizpena	0	0	0	32	623	0	654
2. Sarrera guztiak	23	8.496	4.976	0	5	625	14.124
3. Stocken mugimendua	0	-216	-396	0	0	0	-611
4. Irteera guztiak	0	5.425	2.186	0	23	0	7.634
5. Bunkerrak (itsas-garraioa)	0	0	0	0	0	0	0
*6. Barne-kontsumo gordin erabilgarria	23	2.855	2.394	32	604	625	6.533
7. Eraldaketara sarrerak	0	8.305	1.198	12	129	0	9.644
7.1. Zentral termoelektrikoak	0	15	807	0	28	0	850
7.2. Kogenerazioa	0	9	298	12	101	0	420
7.3. Koke-fabrikak	0	0	0	0	0	0	0
7.4. Findegiak	0	8.281	93	0	0	0	8.373
8. Eraldaketatik irteerak	0	8.175	0	1	0	674	8.849
8.1. Zentral termoelektrikoak	0	0	0	0	0	440	440
8.2. Kogenerazioa	0	0	0	1	0	233	234
8.3. Koke-fabrikak	0	0	0	0	0	0	0
8.4. Findegiak	0	8.175	0	0	0	0	8.175
9. Trukeak	0	0	0	0	-65	65	0
10. Sektore energetikoaren kontsumoa	0	301	167	0	0	98	566
11. Garraio eta banaketako galerak	0	0	0	0	0	44	44
**12. Azken kontsumorako erabilgarri dagoena	23	2.424	1.030	20	410	1.221	5.128
13. Azken kontsumo ez-energetikoa	0	139	0	0	0	0	139
***14. Azken kontsumo energetikoa	23	2.285	1.030	20	410	1.221	4.989

* $6=1+2+3-4-5$

** $12=6-7+8+9-10-11$

*** $14=12-13$

Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE).

EEEk argitaratutako 2019ko balantze energetikoaren arabera, EAEko energiaren azken kontsumoa 4.989 mila tep-ekoa izan zen, 2018an baino % 1,2 baxuagoa. Barne-kontsumo gordina, berriz, % 1,3 hazi zen eta 6.533 mila tep-ekoa izan zen.

50. koadroa EAEko azken kontsumoa energia moten arabera


Sektorea	2017	2018	2019	% Δ 19/18
Ikatza eta deribatuak	37	24	23	-4,2
Petrolio eta deribatuak	2.323	2.306	2.285	-0,9
Gas naturala	1.326	1.061	1.030	-2,9
Energia deribatuak	16	16	20	25,0
Energia berriztagarriak	342	395	410	3,8
Energia elektrikoa	1.240	1.251	1.221	-2,4
Guztira	5.284	5.051	4.989	-1,2

Iturria: EEE. Geuk egina.

Energia-iturriei dagokienez, aldakuntza oso txikiak izan zituzten gehienek, energia deribatuek izan ezik, % 25 hazi baitziren. Dena den, ordezkari txikiena izaten jarraitu zuten (guztizkoaren % 0,4), ikatza eta deribatuekin batera (% 0,5). Azken horien ekoizpenak behera egin zuen (-% 4,2). Energia-iturri nagusiek ere aldakuntza-tasa

negatiboarekin itxi zuten urtea: petrolioia eta deribatuak (% 45,8ko partaidetza eta -% 0,9), energia elektrikoa (% 24,5 eta -% 2,4) eta gas naturala (% 20,6 eta -% 2,9). Energia berriztagarriak, bestalde, % 8,2ko partaidetzarekin, hazi egin ziren berriro ere (% 3,8).

11. grafikoa EAEko azken kontsumoa energia moten arabera (ktep)



Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE).

Energiaren azken kontsumoari dagokionez, garraioen sektorea (% 43,4) eta industria (% 35,1) dira kontsumoaren zatirik handiena biltzen dutenak, eta sektore horietan ez zen ia aldaketarik izan 2018arekin alderatuta (-% 0,6 bi kasuetan). Etxebizitzeko sektoreak % 11,9ko ordezkaritza du, eta 2020an % 5,9 murriztu zen sektore horretako kontsumoa. Zerbitzuen sektoreak ere, % 8,7ko partaidetza izanik, % 1,1eko beherakada arina izan zuen. Lehen sektoreak baino ez zuen goranzko aldakuntza izan (% 5), kontsumo oso txikia izan arren (% 0,8).

51. koadroa EAEko azken kontsumoa sektoreen arabera

Sektorea	2017	2018	2019	(ktep) % Δ 19/18
Lehen sektorea	72	40	42	5,0
Industria	2.058	1.763	1.753	-0,6
Garraioa	2.130	2.177	2.165	-0,6
Zerbitzuak	442	441	436	-1,1
Etxebizitzak	581	630	593	-5,9
Guztira	5.284	5.051	4.989	-1,2

Iturria: EEE. Geuk egina.

Halaber, eta aurreko txostenetan azaldu bezala, 2030erako Euskadiko Energia Estrategiak zehaztuko du datozen urteetarako euskal politika energetikoa. Hala, EEEK argitaratutako informazioaren arabera, estrategia horren epe luzerako helburua geroz eta jasangarriagoa izango den sistema energetikoa lortzea da: lehiakorragoa, hornidura bermatzen duena eta karbono maila baxukoa.

Horretarako, hauek dira 2050erako finkatutako helburuak:

- Euskadiren negutegi-efektuko gasen emisioak, gutxienez, % 40 murriztea 2030erako, eta % 80 2050erako, 2005eko mailarekin alderatuta.
- 2050erako, amaierako kontsumoaren % 40 energia berriztagarria izatea.
- Euskal Herriaren klima-aldaketarekiko erresilientzia bermatzea.

Klima-aldaketaren arintzea eta negutegi-efektuko gasen emisioen murrizketa hain zuzen ere aurreztearekin, energia-eraginkortasunarekin eta energia berriztagarriekin oso lotuta dagoenez, 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategiak hurrengo jarraibideak ezartzen ditu Estrategia Energetikoaren helburuak lortzeko:

- Energia-eraginkortasuna hobetzea eta eskari energetikoa kudeatzea.
- Energia berriztagarriak sustatzea.
- Hirietan energia-eraginkortasun eta energia berriztagarriekin lotutako irizpideak sustatzea, "emisiorik gabeko eraikuntzara" hurbiltzeko.
- Intermodalitatea eta negutegi-efektuko gas gutxien isurtzen dituzten garraiobideak sustatzea.
- Petrolioaren deribatuen kontsumoa ordezkatzea.
- Karbono baxuko eredu energetiko baten alde egitea.
- Emisiorik gabeko garraiorako aurrerapausoak ematea.
- Lehen sektorearen emisioak murriztea.
- Berrikuntza sustatzea, eta ezagutza zientifikoa hobetzea eta transferitzea.

Halaber, Euskadiko Energia Estrategiaren ildotik eta Europako Itun Berdearekin bat eginez, 2021eko maiatzean Basque Green Deal (BGD) aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak: garapen ekonomiko justu eta jasangarri baterako euskal eredu.

Eusko Jaurlaritzak argitaratutako informazioaren arabera, Basque Green Dealek barne hartzen ditu emisioak murrizteko eta energia berriztagarriak sortzeko helburuak, baina ez da alderdi horietara mugatzen. Izan ere, industria eta teknologia palanka nagusi dituen eredu ekonomiko gisa jaio da. Hortaz, zientzia, teknologia, ekonomia zirkularra, industria, trantsizio energetikoa edo elikagaien katea bera helburu baten bueltan lerrotzen dira: garapen justua eta jasangarria.

Halaber, eredu honek araudi-testuinguru berri bat behar du. Hala, Eusko Jaurlaritza lanean ari da dagoeneko Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Lege berri bat egiteko, Europako zuzentzauekin eta adierazleekin lerrotatuta egongo dena. Legeak aukera emango du emisioak murrizteko eta energia berriztagarriak sortzeko helburuetan aurrera egiteko, eta neutraltasun teknologikoan oinarrituko da.

Hauek dira Europako Itun Berdearen oinarri nagusiekin lerrotatutako lan-ildoak:

- Energia berriztagarrien aldeko apustua:
 - Ekiola, energia fotovoltaiakorako kooperatibak sortzea
 - Energia berriztagarriei buruzko Lurralde Plan Sektoriala
 - Parke eoliko berriak
 - Gauzatu Energia programa, Euskadiko udalerrietan energia berrien arloko inbertsioak finantzatzeko
- Industria jasangarria:
 - Ekonomia Zirkularrari buruzko Hub-a
 - Basque Ecodesign Centre
 - Karbono-aztarna murrizteko tresna
- Mugikortasun jasangarria
 - Hidrogenoaren euskal estrategia
 - Energy Intelligence Center
 - Basquevolt gigafaktoria
 - Mubi, elektromugikortasunaren zentroa
 - Renove plana
- Biodibertsitatea babestea eta kutsadura murriztea
 - Ondare Naturalaren gaineko legea
 - Uraren, lurzorua eta airearen ingurumen-adierazleak hobetzea
 - 2030erako saneamendu-sistemaren % 100 hasita izatea
- “Landatik mahairako” elikadura
 - Nekazaritza ekologikoari eta KM0 produktuei laguntzeko programak
 - Elikagaiak alferrik galtzearen aurkako egitasmoa
 - Landa-garapenari eta kostaldeko garapenari laguntzea
 - Belaunaldien arteko erreleboa lehen sektorean

Egitasmo hauek guztiak mugarri garrantzitsuak izango dira Euskadirentzat, Glasgoven egingo den Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Biltzarraren 26. ediziorako (COP26) bidean.

2.2 ENERGIA ELEKTRIKOA

Kapituluaekin jarraituz eta Estatu mailako energia elektrikoaren eskariaren bilakaerari dagokionez¹, 2020an (atal honetan badaude eguneratutako datuak, behin behinekoak diren arren) pandemia gelditzeko hartutako neurriek, hala nola ekonomiaren aldi baterako geldialdiak, eragina izan zuten energiaren kontsumoan. Energia-eskariak aldakuntza negatiboa izan zuen autonomia-erkidego guztietan, batez ere, turismo-jarduera esanguratsua duten erkidegoetan.

Ondorioz, eskaria jaitsi egin zen bigarren urtez jarraian (-% 5, 2019arekin alderatuta), eta 236.697 GWh-koa izan zen (2019an 249.257 GWh-koa). Bestalde, ekoizpena 2019an (247.117 GWh) nahiko egonkor mantendu bazen ere, 2020an 239.465 GW-ra jaitsi zen (-% 3,1).

Penintsulako sistema elektrikoaren ekoizpenari buruzko datuek erakusten dutenez, energia berriztagarriek² gora egin zuten eta 2007az (urte horretan hasi ziren estatistikak jasotzen) geroztiko daturik onena lortu zuten: 108.933 GWh (% 13,3ko hazkundera). Hala, historiako partaidetzarik handiena izan zuten (% 45,5ekoa, eta 2019an % 38,9koa). Ondorioz, energia ez-berriztagarriek³, 130.532 GWh-ko ekoizpenarekin, pisua galdu zuten (% 54,5, eta 2019an % 61,1).

Zehatzago esanda eta energia berriztagarriei dagokienez, energia eolikoak urte arteko aldakuntza txiki bat izan zuen (% 1,3), eta guztizkoaren gainean izandako pisua nabarmendu zen (ekoiztako guztizkoaren % 22,5). Energia hidraulikoa eta eguzki-energia fotovoltaikoa, berriz, haien bilakaeragatik nabarmendu ziren (% 23,9 eta % 68,5, 2019eko balioekin alderatuta); % 12,8ko eta % 6,2ko partaidetzak izan zituzten, hurrenez hurren. Gainerako energia berdeek, hau da, beste energia berriztagarriek, hondakin berriztagarriek eta eguzki-energia termikoak (% 1,9, % 0,3 eta % 1,9ko partaidetzekin, hurrenez hurren) jokabide ezberdinak izan zituzten: lehenengoak gora egin zuten (% 23,9) eta beste biek behera (-% 18 eta -% 12,2).

¹ 2020ko urteko txostena. Red Eléctrica de España.

² Berriztagarriak: hidraulikoa, eolikoa, eguzki-energia fotovoltaikoa, eguzki-energia termikoa, beste berriztagarri batzuk eta hondakin berriztagarriak.

³ Ez-berriztagarriak: turbina-ponpaketa, nuklearra, ikatza, fuel-olioa/gasa, ziklo konbinatua, kogenerazioa eta hondakin ez-berriztagarriak.

Energia ez-berriztagarriei dagokionez, energia nuklearrak aldakuntza txikia izan zuen (-% 0,1) eta buruan mantendu zen % 23,3ko kuotarekin. Hurrengoa –energia ez-berriztagarrien baitan– ziklo konbinatua izan zen (gutzizkoaren % 16), ekoizpena nabarmen jaitsita (-% 25). Kogenerazioak eta hondakin ez-berriztagarriek antzeko bilakaera izan zuten, baina apalagoa (-% 9 ingurukoa); dena den, partaidetza oso ezberdinak izan zituzten (% 11,3 eta % 0,8 hurrenez hurren). Ikatzak eta turbina-ponpaketak osatu zuten energia ez-berriztagarrien mapa. Bi horiek ordezkartza txikia izan zuten (gutzizkoaren % 2 eta % 1,1), eta bilakaera oso ezberdinak (-% 55 eta % 67, hurrenez hurren).

52. koadroa Energia elektrikoaren ekoizpena eta eskaria Euskal Herrian

(M kWh)

Urtea	Ekoizpena, guztira					Gutzira: (1+2+3+4+5) 6	Kontsumo guztia 7	Auto- sorkun- tzaren % (6/7) x 100
	Hidraulikoa 1	Termikoa 2	Eolikoa 3	Mini hidraulikoa 4	Kogenerazioa 5			
2014	321,0	0	328,5	12,4	350,7	1.012,5	7.583,7	13,35
2015	351,3	0	326,2	10,5	438,0	1.126,2	7.707,5	14,61
2016	306,3	0	319,1	11,8	422,8	1.060,0	7.742,7	13,69
2017	225,5	141,1	311,9	9,0	402,7	1.090,3	7.578,5	14,39
2018	360,9	0	315,7	12,5	457,7	1.146,8	7.930,7	14,46
2019	340,1	106,3	312,8	10,5	459,8	1.229,5	7.189,7	17,10
2020	283,3	664,5*	347,9	23,8	370,0	1.689,6	7.090,5	23,80

* Oharra: Castejoneko zentral termikoak ez zuten ekoizpenik erregistratu 2019an, 2020an ordea bai.
Iturria: Iberdrola. Geuk egina.

Azterketa hori bera Euskal Herrira ekarrita, eta Iberdrolak emandako informazioaren arabera, 2020an erreferentziatzko bi adierazleek 2019ko jokaera bera izan zuten, eta alderantzizko bilakaera izan zuten. Hala, energia elektrikoaren guztizko kontsumoa apur bat murriztu zen Euskal Herrian (-% 1,4), 7.090,5 milioi kWh-ra; ekoizpenak, berriz, nabarmen egin zuen gora (% 37,4), eta 1.689,6 milioi kWh-ra iritsi zen.

Ekoizpenari dagokionez, 2020an Euskal Herrian izugarri igo zen energia termikoaren ekoizpena: 6 aldiz hazi zen eta lehen postuan kokatu zen (gutzizkoaren % 39,3; 2019an % 8,6). Agertoki-aldaketa hori Nafarroan bakarrik gertatu zela nabarmendu behar da. Energia mota hori ez dago Araban eta Gipuzkoan, eta Bizkaian jaitsiera nabarmena izan zuen (-% 74,8). Gainerako energiekin jarraituz, kogenerazioa eta energia eolikoa elkarrengana hurbildu ziren (% 21,9ko eta % 20,6ko partaidetzak). Izan ere, lehenak behera egin zuen (-% 19,5) eta bigarrenak gora (% 11,2); energia eolikoak Nafarroan izandako bilakaerak eragin zuen gorakada hori. Energia hidraulikoari dagokionez, ekoizpena % 16,7 jaitsi zen. Lurralde guztietan egin zuen behera ekoizpenak, eta partaidetza % 16,8ra jaitsi zen (2019an % 27,7koa izan zen). Azkenik, energia minihidraulikoaren presentzia oso txikia izan zen (% 1,4), baina gora egin zuen Araban izandako hazkundeari esker (% 21,7) eta Bizkaiko ekoizpen-mapan txertatu izanari esker.

Kontsumoari dagokionez, aurreko ekitaldian bezala, eskariak behera egin zuen (-% 1,4) eta 7.090 milioi kWh-an kokatu zen. Ondorioz, auto-sorkuntzaren tasa % 23,8ra igo zen (% 17,10koa zen 2019an), Nafarroak bultzada handia eman baitzion energia-sorkuntzari 2020an.

53. koadroa Energia elektrikoaren kontsumo garbia lurraldearen arabera

Lurraldea	2017	2018	2019	2020 ⁽¹⁾	% Δ 20/19
Araba	1.090,9	1.295,2	1.166,3	977,1	-16,2
Bizkaia	2.692,9	2.753,2	2.410,1	2.532,1	5,1
Gipuzkoa	1.851,6	1.912,2	1.710,8	1.661,4	-2,9
EAE	5.635,3	5.960,5	5.287,3	5.170,6	-2,2
Nafarroa	1.943,2	1.970,2	1.902,4	1.919,9	0,9
Euskal Herria ⁽²⁾	7.578,5	7.930,7	7.189,7	7.090,5	-1,4

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Fakturatutako energia elektrikoa. Ez da kontuan hartzen Iberdrola ez den beste hornitzaileerik, ezta Iberdrolaren kontsumoa ere.

Iturria: Iberdrola.

Energia elektrikoaren kontsumoa ikuspegi geografikotik aztertuta, jokaera ezberdinak ikus daitezke lurraldeen arabera. Energiaren kontsumoak behera egin zuen Gipuzkoan (-% 2,9) eta, batez ere, Araban (-% 16,2). Bizkaian, berriz, aurkako bilakaera izan zuen eta % 5,1 hazi zen. Hortaz, Bizkaiak jarraitu zuen kontsumo handieneko lurraldea izaten (% 35,7). Nafarroa (% 27,1) eta Gipuzkoa (% 23,4) izan ziren hurrengoak, eta Araba (% 13,8) azkena.

Kapitulua amaitzeko, Iberdrola Taldearen 2020ko mugarri nagusiak aurkeztuko ditugu jarraian.

Hala, eta enpresak argitaratutako informazioan oinarrituta, 2020an 10.000 milioi eurotik gora kokatu zen EBITDA (2019an baino % 8 gehiago), eta mozkin garbia 3.611 milioi eurokoa izan zen (% 10eko hazkundera, Covid-19aren eragina kontuan hartu gabe). Eraitza on horiek alde batera utzita, 2020aren gisako ezohiko urte horretan inbertsioen alorrean eskuratu zuten zifra errekorra. Inbertsioa 10.000 milioi euro ingurukoa izan zen, eta horrek aukera eman zuen ia 4.500 MW energia berde martxan jartzeko eta beste 8.700 MW eraikitzen hasteko. Gainera, balio-kate osoaren traktore gisa balio izan zuen, eta enplegua mantentzen eta sortzen lagundu zuen hain konplikatuak izan zen ekitaldian. Taldearen zuzendaritzaren arabera: *"2020ko hasieratik 18.000 milioi eurotik gorako eskariak egin dizkiegu gure hornitzaileei, gure ehunka urtetako historian hain denboratarte laburrean egindako eskaririk handiena. Horri esker, gure jarduerak balio-kate osoan sortzen dituen 400.000 lanpostuak mantendu ahal izan ditugu, horietatik 85.000 Espainian. Gainera, aldi horretan, 6.000 profesional berri sartu dira Taldean"*.

Halaber, 2020an zehar, Taldeak hainbat erosketa egin zituen hainbat herrialdetan (AEB, Australia eta Brasilen). Era berean, hazkunde-plataforma berriak sortzen jarraitu zuen

itsasoko merkatu eolikoan (Suedia, Irlanda, Polonia eta Japonia). 2020an aliantza estrategiko berriak ere egin zituen hainbat enpresarekin: Volkswagen, Renault edo Mercedes, automobilgintza-sektorean; Total, BP edo Mitsubishi Power, energia-sektorean; Mapfre, finantzen sektorean; eta hainbat enpresa industrial. Hidrogeno berdea, energia-berriztagarriak eta energia-eraginkortasuna bultzatzea da aliantza horien helburua. Izan ere, Taldearen helburu nagusia neutraltasun klimatikoa 2030erako lortzea da, hau da, Europak helburu duen epemuga baino 20 urte lehenagorako.

3. SIDERURGIA

3.1 IKUSPEGI OROKORRA

Covid-19aren agerpenak eragindako osasun-larrialdiak guztiz irauli zuen mundu mailako agertoki ekonomikoa, eta aurrekaririk gabeko krisi ekonomiko eta soziala ekarri zituen. Gainerako sektoreek bezala, siderurgia-industriak ere jasan zuen egoera horren eragina. Nazioarteko hornidura-kateak aldatu edo eten egin ziren, funtsezkotzat hartu ez ziren jarduera batzuen eskaintza eten egin zen, eta urruntze sozialeko neurrien edo mugikortasuna murrizteko neurrien aurrean mundu mailako eskaria erori egin zen.

Testuinguru horretan, Europako Batzordeak hainbat neurri hartu zituen Europako altzairuaren sektorea babesteko. Zehazki, 2018an hirugarrenen inportazioen hazkunde posibleari eta Estatu Batuek ezarritako muga-zergei aurre egiteko hartutako neurriak hedatu zituen Batzordeak, merkataritza-fluxuen desbideratzea saihesteko. Tokiko horniduraren gabeziaren ondorioz, prezioek gora egin zuten eta epemugak luzatu egin ziren. Egoera horren aurrean segurtasun-aldia adostutako datetatik harago luzatzearen alde egin zuen sektoreak, Europako produktu siderurgikoek kalte ekonomikorik ez jasateko.

Halaber, zirkularrak eta klimatikoki neutroak izango diren produktuen merkatu berriak sortzeko helburua ezartzen duen Europako Itun Berdearekin bat eginez, sektoreko enpresa nagusiek Next Generation EU Suspertze Funtsak eskuratzeko asmoa zuten, 2050ean karbonoan neutroa izango den altzairu-ekoizpena bermatzeko eta negutegi-efektuko gasen igorpena murrizteko helburuz, hala, sektorearen mundu mailako lehiakortasuna handitzeko.

Zentzu horretan, World Auto Steelek automobilgintzako ingeniartza-programa berri bat kaleratu zuen azaroan, "Steel E-Motive programme", etorkizuneko mugikortasunean altzairuaren erabilera ziurtatzera bideratutako egitasmo berria. Azken finean, mugikortasun-ibilgailuen ingurune bat sustatu nahi du programak, ingurumenaren ikuspegitik eskuragarria, segurua eta eraginkorra izango den zerbitzu baten gisa (MaaS).

Covidaren pandemiaren eraginak gorabehera, ekitaldia positiboa izan zen altzairuaren ekoizpenarentzat, pandemiak espero baino eragin txikiagoa izan baitzuen eskarian. Izan ere, urtearen bigarren erdian jarduera berraktibatu egin zen, eta horrek eragina izan zuen, hein batean.

Testuinguru horretan, eta World Steel Associationek argitaratutako datuen arabera, 2020an 1.877,5 milioi tonara igo zen altzairuaren ekoizpena mundu mailan, hau da,

aurreko ekitaldian baino % 0,2 gehiago ekoitzi zuten. Kontsumoa, berriz, 1.771,8 milioi tonakoa izan zen, aurreko urtean baino % 0,2 baxuagoa.

Ekoizpenaren bilakaera geografia eremuen arabera aztertuta, bilakaera beheranzkoa izan zen aztertutako herrialde guztietan, Txinan izan ezik – mundu mailako altzairu-ekoizle nagusia –. Txinan azken urteetako goranzko bilakaera mantendu zuten, eta 2020ko ekitaldian 1.000 milioi tonatik gora ekoitzi zituzten (+% 7,0). Bestetik, tradizioz siderurgikoak izan diren herrialdeek, hala nola AEBk eta Kanadak, Japoniak edo Indiak, bi digituko jaitsierekin amaitu zuten ekitaldia, eta 80-100 milioi tona inguruko ekoizpen-bolumenarekin. Halaber, hurbilagoko merkatuetan % 9,8 eta % 19,4 arteko jaitsierak izan zituzten, hala nola Alemanian (35,7 milioi tona), Italian (20,4 milioi tona), Frantzia (11,6 milioi tona) edo Espainian (11 milioi tona). Azkenik, EB-27 multzoaren (134,7 milioi tona) altzairuaren ekoizpenak % 11,4ko jaitsiera nabarmena izan zuen.

54. koadroa Altzairu gordinaren ekoizpena


Herrialdea	2019			2020		
	M Tm	% Δ	%	M Tm	% Δ	%
AEB eta Kanada	100,7	0,7	5,4	83,7	-16,9	4,5
Japonia	99,3	-4,8	5,3	83,2	-16,2	4,4
Txina	995,4	8,2	53,1	1.064,8	7,0	56,7
India	111,4	1,9	5,9	100,3	-10,0	5,3
Alemania	39,6	-6,6	2,1	35,7	-9,8	1,9
Italia	23,2	-5,3	1,2	20,4	-12,1	1,1
Frantzia	14,4	-6,5	0,8	11,6	-19,4	0,6
Erresuma Batua	7,2	-1,4	0,4	7,1	-1,4	0,4
Espainia	13,6	-4,9	0,7	11,0	-19,1	0,6
EB-27*	152,0	-6,1	8,1	134,7	-11,4	7,2
Mundu osoa	1.874,4	3,4	100,0	1.877,5	0,2	100,0

2020ko otsailaren 1era arte, EB-28.

Iturria: World Steel Association (lehen IISI).

2020ko ekitaldian aldaketa gutxi izan ziren altzairu gordinaren mundu mailako ekoizpen-maparen banaketan, eta Asiako kontinenteak jarraitu zuen munduko jardueraren zatirik handiena hartzen, ia guztizkoaren hiru laurden (% 74,0). Europako ekonomia garatu handien multzoari dagokio munduko altzairu-ekoizpenaren % 12,8, eta Amerikako ekonomiari % 7,4.

12. grafikoa Altzairuaren mundu mailako ekoizpena



Iturria: World Steel Association.

Aurrez aipatu dugun moduan, mundu mailako produktu siderurgikoen kontsumoari dagokionez, ekoizpen-zifrek behera egin zuten apur bat (-% 0,2) 2019arekin alderatuta. Herrialdeka egindako azterketak erakusten duenez, altzairuaren ekoizpenaren kasuan bezala, Txina izan zen goranzko aldakuntza izan zuen herrialde bakarra (+% 9,1). Hala, Asiako erraldoiak ia 1.000 miloi tona kontsumitu zituen (995 milioi tona). Kontuan hartutako gainerako herrialdeetan, berriz, produktu siderurgikoen kontsumoa asko jaitsi zen 2020ko ekitaldian, % 10etik gora kasu guztietan. Nolanahi ere, azken hamarkadako bigarren zifrarik altuena eskuratu zen altzairuaren kontsumoari dagokionez.

55. koadroa Siderurgia-produktuen kontsumoa

	2019			2020		
	M Tm	% Δ	%	M Tm	% Δ	%
AEB eta Kanada	110,6	-2,9	6,2	92,2	-16,6	5,2
Japonia	63,2	-3,4	3,6	52,6	-16,8	3,0
Txina	911,9	9,1	51,4	995,0	9,1	56,2
India	102,6	6,1	5,8	88,5	-13,7	5,0
Alemania	35,1	-11,4	2,0	31,1	-11,4	1,8
Italia	25,0	-1,2	1,4	19,9	-20,4	1,1
Frantzia	13,6	-4,9	0,8	11,6	-14,7	0,7
Erresuma Batua	10,2	-5,6	0,6	9,0	-11,8	0,5
Espainia	13,2	-4,3	0,7	11,7	-11,4	0,7
EB-28	158,6	-5,4	8,9	140,6	-11,3	7,9
Mundu osoa	1.775,1	3,7	100,0	1.771,8	-0,2	100,0

Iturria: World Steel Association.

3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA

2020ko ekitaldian mundu mailako industria siderurgikoak bizi izandako egoera zailak, pandemia ez hedatzeko agintariek hartutako neurriak barne –alarma-egoeraren iragarpena eta, ondorioz, ekonomia guztiz ixtea–, eragina izan zuen Espainiako siderurgia-sektorean ere. Zehazki, Estatuko siderurgiaren magnitude nagusiek erakusten dutenez, sektorearen dinamikotasuna galdu egin zen, behera egin baitzuten ekoizpen-bolumenak (-% 18,0), esportazioak (-% 16,2), inportazioak (-% 13,2) eta ageriko kontsumoak (-% 11,6).

56. koadroa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak*


Urtea	Produkzioa	Esportazioak	Inportazioa	Ageriko kontsumoa	(mila Tm)
2013	14.294	9.978	7.634	11.183	
2014	14.280	9.969	8.307	11.840	
2015	14.888	9.628	8.989	13.043	
2016	13.658	9.415	9.447	12.957	
2017	14.441	9.710	9.972	13.258	
2018	14.320	9.649	10.761	13.838	
2019	13.588	9.494	10.286	13.236	
2020	11.142	7.957	8.926	11.694	

(*): Ekoizpena eta ageriko kontsumoa altzairu gordinari dagozkio, eta kanpo-merkataritza, berriz, siderurgia-produktu guztiei.

Iturria: Unesid.

Balio absolutuei dagokienez, 11.142 mila tona altzairu ekoitzi zituzten, 2019an baino apur bat gutxiago (2.446 mila tona gutxiago), eta 2007ko zifretatik oso urrun (7.857 mila tona gutxiago), urte hartan erregistratu baitzuten altzairuaren inoizko ekoizpen mailarik altuena. Kanpo-merkataritzaren bilakaerari dagokionez, 8.926 mila tona inportatu ziren (2019an baino 1.360 mila tona gutxiago), krisiaren aurreko balioetatik oso urrun (2007an baino 6.112 tona gutxiago). Esportazioek, berriz, aurreko ekitaldiarekin alderatuta behera egin bazuten ere (7.957 mila tona, aurreko urtean baino 1.537 tona gutxiago), krisiaren aurreko urteetako kuota baino apur bat altuagoa eskuratu zuten (2007an baino 153 mila tona gehiago). Azkenik, ageriko kontsumoa asko jaitsi zen krisiaren aurreko aldiarekin alderatuta (-11.707 mila tona). Aldi hartan erregistratu zituzten ageriko kontsumoaren baliorik altuenak.

13. grafikoa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak



Iturria: Unesid.

Inportatutako lehengai nagusien bilakaeraren inguruko informazioak erakusten duenez, gainerako partiden kasuan bezala, kontuan hartutako hiru lehengai moten kontsumoa asko jaitsi zen munduko ekonomia nagusiak itxi izanaren eta lantegi siderurgikoak gelditu izanaren ondorioz. Hala, koke bihur daitekeen harriatzaren kontsumoa nabarmen jaitsi zen 2020an, erdira murriztu baitzen (-% 53,8). Burdin-mea eta pelletaren (-% 35,9) eta txatarren (-% 16,2) kontsumoa ere jaitsi egin zen. Lehengaien prezioek, berriz, portaera ezberdinak izan zituzten. Koke bihur daitekeen harriatzaren prezioa asko jaitsi zen (-% 34,4), eta txatarraren prezioa apur bat (-% 2,0). Burdin-mea eta pelletaren prezioak, ordea, gora egin zuen pixka bat (% 2,2).

57. koadroa Inportatutako lehengaiak

Urtea	Koke bihur daitekeen harriatza		Burdin-mea eta pelleta		Txatarra	
	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)
2011	2.505	218,3	5.144	127,4	4.930	384,0
2012	2.260	174,0	4.506	99,9	4.346	372,9
2013	2.528	128,9	6.259	102,9	4.925	318,1
2014	1.632	105,2	5.699	73,7	4.960	331,7
2015	1.720	102,0	6.288	50,7	5.144	292,2
2016	1.768	107,5	6.010	52,0	4.004	263,5
2017	1.767	207,3	6.572	76,3	4.242	321,0
2018	1.621	191,7	6.556	74,5	4.040	345,1
2019	780	188,2	5.557	91,6	4.024	304,4
2020	360	123,5	3.562	93,6	3.370	298,3
Hazkundera % 19-20	-53,8	-34,4	-35,9	2,2	-16,2	-2,0

Iturria: Unesid.

Espainiako siderurgia-sektoreak 2020an bizi izandako zailtasunek eragina izan zuten sektoreko enpleguan, behera egiten jarraitu baitzuen. Guztira 21.186 langile zuten zituzten UNESID elkarteak enpresek: aurreko urtean baino % 3,8 gutxiago, hau da, 848 lanpostu gutxiago. Pandemiarekin lotutako efektuek eragina izan zuten langile kopuruaren gutxitzean. Pandemiaren ondorioz enpresa askok kaleratze masiboak eraman zituzten aurrera, edo ABEEE espedienteetara jo zuten, lan-karga murriztu egin zelako eta altzairuaren mundu mailako eskaria erori egin zelako. Halaber, deslokalizazioarekin lotutako arazoek, energiaren kostu altuak eta lehiakortasun faltak ere kalte egiten jarraitu zioten sektorearen enplegua sortzeko gaitasunari.

Egoera horren aurrean, kalitatezko enpleguaren, emakumeak bultzatzearen eta prestakuntza dualaren alde egin zuen siderurgia-sektoreak. Horrekin lotuta, Unesid elkarteak Mujeres de Acero (Altzairuzko Emakumeak) egitasmoa bultzatu zuen *“sektoreko talentu femeninoa ezagutzera emateko eta emakumezko profesional berriak industriara erakartzeko; siderurgia-sektorean % 91koa da enplegu finkoaren tasa, eta emakumezkoen batez besteko soldata herrialdeko batezbestekoaren bikoitza da¹”*.

Halaber, Europako Altzairuaren Trebetasunen Programaren (ESSA) lan-esparruaren barruan, prestakuntza profesional dualaren programa garatzeko orduan unibertsitateekin batera lan egiteko beharrari eutsi zion sektoreak, kualifikazio eta prestakuntza maila altuko langileak izateko helburuz.

Ingurumenari dagokionez, jasangarritasunarekiko eta sektorearen deskarbonizazioarekiko konpromisoa indartu zuten, benetako ekonomia zirkular bat ezartzearen bidez. Era berean, sektorean inbertitzea eta sektorea indartzea ahalbidetuko duen araudi-esparru bat txertatzearen alde egin zuten, hala, Estatuko siderurgiaren lehiakortasuna bermatzeko eta 2050erako ekoizpen-prozesuetako neutraltasun-helburuak betetzeko.

Azkenik, eta Suspertze Mekanismoaren funtsak xede izanik, enpresek aurrera jarraitu zuten haien trantsizio ekologikoko eta eraldaketa digitaleko planekin, eta alderdi horretan agintariek duten eragiteko gaitasuna nabarmendu zuten, *“ez daitezten 2022ko bultzada bat bakarrik izan, baizik eta datozen urteetarako egiturazko aldaketa baten motorra”*.

¹ Unesiden 53. Batzar Orokorraren prentsa-oharra:
https://unesid.org/docs/20210617_nprensa_unesid_junta_general.pdf

3.3 EUSKAL SIDERURGIA

Covid-19aren pandemiak eta hark eragindako osasun-larrialdiaren adierazpenak modu bortitzean murriztu zuten altzairu-industriaren eta altzairua kontsumitzen zuten sektoreen jardura maila, bai nazioarteko merkatuan, bai Estatuan. Egoera hori bizi izan zuten euskal siderurgia-sektoreak eta hura osatzen zuten enpresek ere, batez ere, nazioarteko taldeetako parte zirenek.

Hala ere, aurreikuspenen arabera 2023ra arte ez da berreskuratuko 2019ko ekoizpen maila. Horretarako, giltzarriak izango dira herritarren txertaketa-erritmoa eta eskariaren berraktibazioa. Halaber, Europako funtsak –deskarbonizazioa, digitalizazioa eta materialak berrerabiltzea sustatzen duten proiektuei lotutakoak– eta SEPIren laguntzak funtsezkoak izango dira sektoreari likidezia emateko, osasun-krisiak asko kaltetu baitu sektorea.


14. grafikoa Euskal Herriko siderurgia-establezimendu nagusien kokapena

BIZKAIA

- Arcelor Mittal Sestao
- Nervacero (Celsa)
- Befesa Aluminio Bilbao
- Productos Tubulares
- Layde Steel slu
- Metallo
- Aceros Inoxidables Olarra

GIPUZKOA

- Arcelor Mittal Olaberria
- Arcelor Mittal Bergara
- Ampo
- Hijos de Juan de Garay
- Corrugados Lasao
- Victoriano Luzuriaga-Usurbil
- Fagor Arrasate



ARABA

- Sidenor Industrial
- Tubos Reunidos
- Tubacex Tubos Inoxidables
- Celsa Atlantic
- Condesa Fabril
- Inoxidables de Euskadi
- Aratubo

NAFARROA

- Arcelor Mittal Lesaka
- Schmidt-Clemens Spain
- Fagor Ederlan Tafalla
- Arcelor Mittal Construcción España
- Hydro estruded solutions Navarra

Iturria: Geuk egina.

Euskal siderurgia-industriaren kanpo-merkataritzaren bilakaerari dagokionez, sektoreko jarduerari buruz esandakoaren ildotik, esportazioek eta inportazioek geldialdi handia izan zuten. Zehazki, sektoreko enpresek 1.798,1 mila tona esportatu zituzten beste herrialde batzuetara, aurreko urtean baino % 17,8 gutxiago, Estatuan gertatu bezala (-% 16,2). Diru-ikuspegitik, jaitsiera apur bat handiagoa izan zen (-% 23,6).

Inportazioei dagokienez, 2020an 2.763,0 mila tona inportatu zituzten, aurreko ekitaldian baino % 20,9 gutxiago. Diru-ikuspegitik, jaitsiera handiagoa izan zen (-% 26,3); hala, kanpotik egindako erosketen balioa, guztira, 1.425,2 mila eurokoa izan zen.

58. koadroa EAEko siderurgia-industriaren kanpo-merkataritza

Urtea	Inportazioak		Esportazioak	
	m Tm	M euro	m Tm	M euro
2011	4.154,7	2.292,8	2.813,2	2.219,8
2012	3.371,8	1.829,7	2.348,5	1.843,6
2013	4.085,3	1.856,8	2.340,8	1.690,9
2014	4.330,5	1.951,4	2.791,9	1.852,9
2015	4.595,9	1.879,8	2.810,3	1.745,3
2016	3.375,0	1.467,3	2.436,7	1.406,0
2017	3.540,5	1.831,4	2.114,2	1.497,4
2018	3.430,9	2.012,2	2.237,3	1.829,6
2019	3.493,3	1.933,6	2.187,7	1.663,0
2020	2.763,0	1.425,2	1.798,1	1.270,6

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Ogasun eta Ekonomia Saila eta Eustat.

Siderurgia-jardueraren analisia Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) Industria Kontuetan emandako informazioarekin osatu dugu. Aurreko txostenetan bezala, garrantzitsua da kontuan izatea estatistika-sailkapena ezin dela zuzenean alderatu kapitulu honetan jasotakoarekin; izan ere, hau Eustatek merkataritza eta/edo produktuen sailkapen baten aurrean egiten duen A-86 sailkapena da, eta siderurgia integralari, ez-integralari, altzairu bereziei eta soldadurarik gabeko hodiegi dagokie. Horrez gain, beharrezkoa da adieraztea eskuragarri dagoen azkeneko informazioa 2019ko ekitaldiari dagokiola.

Orokorrean, esan daiteke 2019ko ekitaldian baieztatu egin zela 2018ko joera ona, eta osagai ezberdinen bilakaera heterogeneoa izan zen. Eskuragarri dauden azken datuen arabera, galdategien eta forjaketa eta estanzazioaren arloko siderurgia-industriak 1.627 milioi euroko BEGa (Balio Erantsi Gordina) sortu zuen, aurreko ekitaldian (1.739 milioi euro) baino % 6,3 baxuagoa. Ingeniaritza metalikoarekin eta metalezko artikuluekin lotutako jarduerak 2.558 milioi euroko ekarpena egin zuten, aurreko urtean baino % 0,4 altuagoa (2.548 milioi euro). Modu horretan, euskal industriak sortutako BEGaren % 27,4 jarduera siderometalurgikoen multzoaren ekarpena izan zen, eta 69.738 pertsonari eman zien enplegua.

59. koadroa Siderurgia-jarduerak EAEko industriari egindako ekarpena

Kontzeptua	BEG (M euro)			Enplegua (pertsona kopurua)		
	2017	2018	2019	2017	2018	2019
Siderurgia eta burdinarekin egiten ez den metalurgia	752	860	729	9.803	9.799	9.753
Galdaketa	418	408	430	7.003	6.963	6.963
Metalezko eraikuntzak	429	451	487	9.949	9.951	10.016
Forjaketa eta estanzazioa	471	471	468	7.187	7.185	7.057
Ingeniaritza mekanikoa	1.122	1.163	1.154	19.792	20.229	20.610
Metalezko artikulua	932	934	917	15.203	15.408	15.339
Multzo siderometalurgikoa, guztira	4.123	4.286	4.185	68.937	69.535	69.738
Industria	14.443	15.084	15.295	203.497	206.349	207.004
Partaidetza (%)						
– Siderurgia/Industria	5,2	5,7	4,8	4,8	4,7	4,7
– Siderometalurgia/Industria	28,5	28,4	27,4	33,9	33,7	33,7

Iturria: Industria Kontuak (Eustat).

Altzairu arrunta eta altzairu bereziak

2020an altzairu arruntaren mota nagusiek bilakaera negatiboa izan zuten. Altzairuaren ageriko kontsumoa 11.694 mila tonakoa izan zen, 2019an erregistratutakoa baino % 11,6 baxuagoa. Kontuan hartutako produktuen kategorian guztietan erregistratu ziren beherakadak. Jaitsierarik handiena pisu gutxieneko kategoriak izan zuten, lingoteen eta amaitugabeen kategoriak (-% 25,4). Aldi berean, produktu luze beroen (-% 15,4), produktu luze amaituen (-% 11,5) eta produktu luze hotz eta estalien (-% 6,9) kontsumoak behera egin zuten.

60. koadroa Altzairuaren ageriko kontsumoa, produktuen arabera

Produktuak	Ageriko kontsumoa (m Tm)			
	2018	2019	2020	% Δ 20/19
Amaitutako produktu motaren arabera*				
– Lingoteak eta amaitugabeak	419	293	219	-25,4
– Produktu luze amaituak	3.693	3.196	2.829	-11,5
– Produktu luze beroak	5.134	5.007	4.235	-15,4
– Produktu luze hotzak eta estaliak	4.590	4.740	4.411	-6,9

(*): Altzairu arruntak eta bereziak barne.

Iturria: Unesid.

Bestetik, beroan ijeztutako produktuen ekoizpenari dagokionez, egoera oso ahula bizi izan zuten, bi segmentuek beheranzko joera izan baitzuten. Zehazki, beroan ijeztutako produktu luzeen 3.352 mila tona ekoizti ziren, aurreko urtean baino % 23,7 gutxiago. Bestalde, beroan ijeztutako produktu luzeen ekoizpenak 7.643 mila tonarekin itxi zuten urtea % 14,2 erori ondoren, hura osatzen zuten partida guztiek behera egin baitzuten % 6,5 eta % 24,3 artean.

61. koadroa Beroan ijeztutako produktuen ekoizpena*

Produktuak	Produkzioa			
	2018	2019	2020	% Δ 20/19
Beroan ijeztutako produktu luzeak	8.904	8.906	7.643	-14,2
– Trenbideetako materiala	252	273	256	-6,5
– Egiturazko profilak	2.725	2.662	2.360	-11,3
– Alanbre-burdin biribildua	2.951	2.929	2.525	-13,8
– Hormigoirako biribilak	1.405	1.510	1.343	-11,1
– Beste merkataritza-profil batzuk	1.585	1.532	1.159	-24,3
Beroan ijeztutako produktu lauak	4.873	4.391	3.352	-23,7

(*): Bi altzairu-kalitateak barne: altzairu arrunta eta altzairu berezia.
Iturria: Unesid.

CIE Automotive

Euskal Herriko siderurgiako enpresarik garrantzitsuenetakoa da CIE Automotive, eta produktu lauek osatzen duten haren jardueraren ardatz nagusia. 2002an sortu zen, Afora (Acerías y Forjas de Azkoitia) eta Egaña enpresek bat egin zutenean, eta automobilgintzako osagaien eta azpimultzoen fabrikazioan erreferentziatzeko talde bilakatzea zen haren helburua. Konpainiak adierazten duenaren arabera, egungo testuinguru globalizatuan eskaintza multiteknologikoa egitean oinarritzen da haren estrategia, eta honako herrialdeetan presentzia eraginkorra du: Amerika (Brasil, AEB eta Mexiko), Europa (Espainia, Frantzia, Portugal, Alemania, Italia, Txekiar Errepublika, Errumania, Lituania, Errusia, Eslovakia), Asia (India eta Txina) eta Afrika (Maroko). Fabrika horietan banatuta, 25.196 langile ditu.

Taldearen 2020ko memoriaren arabera, industria-jardueren behin behineko itxierak eta automobilgintzaren mundu mailako merkatuan aurrez ikusi gabeko erorketak markatu zuten urtea. Enpresako emaitzen kontuan ere ikus daiteke erregistratutako jardueraren moteltzea. Negozio zifra asko murriztu zen (-% 16,7) eta 2.882,5 milioi eurokoa izan zen. Mozkin garbia, berriz, 185,2 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 35,6 baxuagoa. Ondorioz, 431,2 milioiko EBITDA lortu zuen enpresak, aurreko urtekoa baino % 27,4 baxuagoa.

Taldearen 2020ko erronka nagusien artean, engranajeak ekoizten dituen Italiako Somaschini enpresa eskuratu izana aipatu behar da, engranaje-sistemen merkatu nagusietan (Europa, Ipar Amerika eta Asia) eragile garrantzitsu gisa ezartzeko helburuarekin. Halaber, urtean zehar areagotu egin zuen CIE taldean zuen partaidetza, kapitalaren % 60 gainditu arte. Eskuratzeez gain, ekitaldian zehar hazkunde organikorako eragiketa ezberdinak eraman zituen aurrera CIE Automotivek. Hala, lantegi berriak ireki zituen Mexikon (CIE Plásticos Mexico) eta Indian (AEL Aluminum Pune), ekoizpen-lerro berriak jarri zituen martxan (Autometal Diadema Brasil) eta ekoizpen-gaitasuna handitu zuen.

Halaber, eta egungo egoerak aurrean jarritako erronkei erantzuteko helburuz, urtearen bigarren hiruhilekoan zehar Covid-19 Ekintza Plana jarri zuen martxan, lau funtsezko ardatzetan oinarrituta: *“lan-malgutasuna, herrialde bakoitzeko legediaren eta berezitasunen arabera neurriekin; gerrako ekonomia, zeinak kostu finkoen, inbertsioen eta zirkulatzailaren kontrol zorrotza ekarri zituen; likidezia eta finantzaketa, zeinak kreditu-lerroen luzapena eta kreditu berriak eskuratzea ekarri zituen; eta produkzio-plangintza, zeinak segurtasun-neurri berriak txertatu zituen lantegietan eta taldeak mantendu zituen beharrezko hornidura bermatzeko”¹.*

Ingurumenari dagokionez, klima-aldaketaren aurka borroka egiteko borondatea baieztatu zen, haien prozesuetan pixkanaka deskarbonizazioa txertatuz eta balio-kate osoan zehar ekonomia zirkularra martxan jarriz. Zentzu horretan, eta Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren ildotik, lantegietan eta taldeak lan egiten duen lurraldeetan bete beharreko helburu batzuk ezarri zituzten, Global Reporting Initiative (GRI) estandarretan oinarrituta.

Azkenik, gizarte-egitasmoei dagokienez, komunitateen ongizateari eta garapenari laguntzen die CIEk. 2020an, ohiko ahaleginez gain, pandemiaren aurkako borroka nabarmendu zen. Hori dela eta, hainbat ekintzatan parte hartu du azken urtean: kanpoko ospitaleratze-unitateak martxan jartzea, Elikagaien Bankuari dohaintzak, edo krisiak gehien kaltetutako kolektiboak laguntzea Mexikoko, Errumaniako eta Marokoko eskualdeetan.

Soldadurarik gabeko hodiak

Unesidek soldadurarik gabeko hodian kanpo-merkataritzari buruz emandako informazioaren arabera, sektore horretako produktuen esportazioen eta inportazioen bilakaera negatiboa izan zen 2020ko ekitaldian. Hala, kanpora egindako salmentak % 24,8 murriztu ziren. Kanpotik egindako erosketek, berriz, are gehiago egin zuten behera, % 31,4.

¹ CIE Automotiven 2020ko urteko txostena

62. koadroa Soldadurarik gabeko hodian kanpo-merkataritza

Urtea	(m Tm)	
	Esportazioak	Inportazioa
2011	283	159
2012	260	149
2013	223	106
2014	275	120
2015	226	113
2016	196	117
2017	271	130
2018	280	170
2019	228	159
2020	172	109

Iturria: Unesid.

Europar Batasuna da soldadurarik gabeko hodian salmentaren helmuga nagusia (% 38,6), eta Estatu Batuak (% 22,6) dira hurrengoak, alde apur batekin. 2020an nabarmen jaitsi ziren AEBra egindako salmentak (-% 50,1). Europaren baitan, Herbehereetara egindako esportazioak baino ez ziren ugartu (% 9,1). Bestalde, gogor behera egin zuten herrialde hauetarako esportazioek: Erresuma batua (-% 51,5), Frantzia (-% 46,7), Italia (-% 19) eta Alemania (-% 11).

Asiako merkatuan bilakaera ezberdinak izan ziren. Areagotu egin ziren Bahrainera (% 47,8) eta Txinara (% 3,7) egindako salmentak, baina nabarmen jaitsi ziren herrialde hauekiko merkataritza-fluxuak: India (-% 57,7), Saudi Arabia (-% 37), Arabiar Emirerri Batuak (-% 31,9) edo Hego Korea (-% 19,1).

63. koadroa Soldadurarik gabeko hodian esportazioak, helmugako herrialdeen arabera

Eremua	(m Tm)				
	2018	2019	2020	%	% Δ 20/19
Estatu Batuak	118,2	66,1	33,0	22,6	-50,1
Alemania	18,1	17,2	15,3	10,4	-11,0
Italia	17,0	15,8	12,8	8,8	-19,0
Txina	7,2	8,1	8,4	5,7	3,7
Frantzia	13,8	15,0	8,0	5,5	-46,7
Herbehereak	3,9	6,6	7,2	4,9	9,1
Hego Korea	3,5	6,8	5,5	3,8	-19,1
Arabiar Emirerri Batuak	4,1	6,9	4,7	3,2	-31,9
Qatar	3,7	4,5	3,8	2,6	-15,6
Bahrain	0,3	2,3	3,4	2,4	47,8
Portugal	2,9	3,5	3,4	2,3	-2,9
India	2,9	7,8	3,3	2,3	-57,7
Erresuma Batua	6,0	6,6	3,2	2,2	-51,5
Saudi Arabia	4,1	4,6	2,9	2,0	-37,0
Singapur	0,7	3,0	2,7	1,8	-10,0
Australia	2,7	2,5	2,6	1,8	4,0
EB-28 guztira	72,8	71,2	56,4	38,6	-20,8
Mundua guztira	250,9	200,6	146,2	100,0	-27,1

Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren kanpo-merkataritzako estatistikak.


Tubacex

2020a urte zaila izan zen Tubacex taldearentzat. Haren bezero nagusien (petrolioaren eta gasaren sektorea) gainbeheraren eta sektoreak bizi zuen egiturazko krisialdi sakonaren ondorioz, taldearen inbertsio-plana berrikustea erabaki zuen. Plan estrategikoan jasotako hazkunde-inbertsioen mantentzea eta ekoizpena trantsizio energetikora bideratzea –garraioarekin, hidrogenoarekin edo energia berriztagarriekin lotutako soluzioen garapena barne– giltzarriak dira negozioaren etorkizuneko hazkunderako eta errentagarritasunerako.

Tubacex taldearen emaitzen arabera, enpresaren negozio-zifra 479,6 milioi eurokoa izan zen, 2019ko ekitaldiko salmentak (613,5 milioi euro) baino % 21,8 baxuagoa. Halaber, us-tiapenaren mozkin gordinak (EBITDA) % 43,2ko jaitziera bortitza izan zuen, eta 38,1 milioi euroan kokatu zen (aurreko ekitaldian baino 29 milioi euro gutxiago). Testuinguru horretan, eta jarduera garatu ahal izateko, taldeak 2.499 pertsonari eman zien enplegua mundu osoan (104 langile gutxiago).

Tubacex taldearen salmenten banaketa geografikoak aldaketa handiak izan zituen 2019arekin alderatuta. Testuinguru horretan, Asiak bildu zuen salmenten guztizkoaren % 28, gasarekiko esposizio handiagoa baitu erauzketarekin eta prozesamendurekin lotutako jardueran zein sorkuntza elektrikoan. Europa bigarren lekuan geratu zen % 26ko partaidetzarekin, eta antzeko partaidetza izan zuen Ekialde Ertainak (% 23). AEBren eta Kanadaren ekarpena % 15 murriztu zen, asko eragin baitzien Ipar Amerikako sektore aeroespazialaren martxa negatiboak. Azkenik, munduko gainerako beste % 8a osatu zuten.

15. grafikoa 2020ko salmenten banaketa, merkatuen arabera



Iturria: Tubacex taldea.

Tubos Reunidos

Ezohiko eta salbuespeneko testuinguru horretan, Tubos Reunidos taldeak haren plan estrategikoa berrikusi eta egokitu zuen egungo egoerara egokitzeko eta epe luzeko helburuak berriro zehazteko¹: *“Langileen osasunarekin eta segurtasunarekin lotutako alderdiak alde batera utzi gabe, Plan Estrategikoaren lehentasunak hauek izango dira: ekipoen prestakuntza eta garapena, digitalizazioa produktu berrien eraginkortasuna hobetzeko, eta sektore guztietan gure salmenta-mixa handitzera bideratutako merkataritza-estrategia bat, balio erantsi handiagoko produktuak barne hartuko dituena.”*

Gainera, Taldeak berrikuntza-estrategian aurrera egiten jarraitu zuen *Midstream* eta *Downstream* segmentuetan, balio erantsi eta errentagarritasun-marjina handiagoko eskari-zorro batekin. Horretarako, giltzarria da esperientzia industrial, *know how*-a edo berrikuntza bereizlea, beste faktore batzuen artean.

Testuinguru horretan, 241,6 milioi euroko negozio-zifrarekin itxi zuen ekitaldia Tubos Reunidos taldeak (-% 15,0 2019arekin alderatuta), eta ustiapenaren emaitza -137,5 milioi eurokoa izan zen (2019an -51,3 milioi eurokoa).

Jarduera aurrera eraman ahal izateko, Tubos Reunidosek 5 ekoizpen-lantegi, 2 I+G zentro eta 9 merkataritza-bulego ditu. Horietan 1.290 langile zituen 2020an, aurreko ekitaldian baino % 7,9 gutxiago (111 langile gutxiago), laneko ekoizpen-gaitasun normalaren murrizketara egokitzeko martxan jarritako enpleguaren aldi baterako erregulazio-espeditteen ondorioz.

Enpresaren presentzia geografikoari dagokionez, Taldeak merkataritza-delegazio propioak eta merkataritza-ordezkaritza ditu. 2020an, salmenta guztien % 87 atzerriko merkatura egin zituen (2019an % 89). Europar Batasuna izan zen merkataritza-aliatu garrantzitsuen, salmenten % 47 jaso baitzituen (2019an % 32); Ipar Amerikara egindako salmentak, berriz, % 26ra jaitsi ziren (2019an % 39). Gainerako salmentak honela banatu ziren: Ekialde Urruna (% 17), Ekialde Ertaina eta Afrika (% 8) eta beste merkatu batzuk (% 2).

¹ Tubos Reunidosen 2020ko urteko txostena.

64. koadroa Negozio arloak eta enpresa-unitateak. Tubos Reunidos taldea. 2020

Negozio arloak	Unitateak/establezimenduak
Soldadurarik gabeko altzairuzko hodiak	Tubos Reunidos Industrial (Amurrio, Araba) Productos Tubulares (Trapagaran, Bizkaia) Acecsa (Iruñea, Nafarroa)
Hariztaketa	Tubos Reunidos Premium Threads (Iruña Oka, Araba)
Akabera eta hariztaketa	RDT, Inc (Beasley, Texas)
	Madrid (Madril, Espainia)
	Bilbao (Bilbo, Espainia)
	TR América (Houston, Ameriketako Estatu Batuak)
	TR Beijing Office (Pekin, Txina)
	TR Francia (Metz, Frantzia)
	TR Italia (Milan, Italia)
Banaketa	TR Jakarta (Cilandak-Jakarta, Indonesia)
	TR Dubai Office (Dubai)
	TR Services Prefabricados (Cádiz, Espainia)
	TR Services Projects (Bartzelona, Espainia)
	TR Seúl (Hego Korea)
	TR México (Mexico)
	TR Colombia (Kolonbia)

Iturria: Urteko Txostena-Jardueren Memoria. Tubos Reunidos taldea

4. ONTZIGINTZA

4.1 NAZIOARTEKO EGOERA

2020an, pandemiaren ondorioz, munduko ekonomiak atzera egin zuen. Egoera horren aurrean, mundu mailako itsas-merkataritza -% 3,6 murriztu zen, eta 11.500 milioi tona merkantzia garraiatu zituzten. Kontuan izan behar da murrizketa horrek ez dituela guztiz islatzen sektoreak ekitaldian zehar izandako zailtasun larriak.

Bestalde, itsasontzi berrien mundu mailako beherakada handiagoa izan zen, -% 24,5ekoa, eta 57,8 milioi tonako pisu hila izan zuten. Entregak, berriz, urteko momentu jakin batzuetan ekonomia geldituta egon arren, -% 11,2 "bakarrik" murriztu zen, 88,8 milioi tonako pisu hilerara arte.

65. koadroa Munduko merkataritza-flota

Urtea	Tonak	(MGT)*
		% Δ
2010	840,6	39,7
2011	910,1	8,3
2012	991,2	8,9
2013	1.027,0	3,6
2014	1.067,1	3,9
2015	1.107,8	3,8
2016	1.148,0	3,6
2017	1.182,8	3,0
2018	1.221,3	3,3
2019	1.263,0	3,4
2020	1.324,7	4,9

(*): 1995ra arte, EGT (Erregistro Gordineko Tona); 2000tik aurrera, GT (Erregistroko Tonaje Gordina).

Iturria: ANAVE.

Munduko merkataritzako ontzidiari dagokionez, 2020an 1.324,7 milioi tona gordin eskuratu ziren, hau da, urte arteko hazkundea % 4,9koa izan zen, aurreko ekitaldietako hazkundeak baino apur bat altuagoa (% 3,3 2018an eta % 3,4 2019an).

Aurreko urteetan bezala, Panama izan zen protagonista nagusia, eta hari egokitu zitzaion 2020ko munduko merkataritzako ontzidiaren % 16. Liberia eta Marshall Uharteak izan ziren hurrengoak, distantzia apur batera, % 13ko eta % 11,7ko kuotekin, hurrenez hurren. Europan Malta nabarmendu zen, guztikoaren gaineko % 6ko partaidetzarekin. Kuota txikiagoa egokitu zitzaion Greziari (% 3), Erresuma Batuari (% 1,8) eta Zipreri (% 1,7).

66. koadroa Munduko merkataritza-flota, jatorrizko herrialdearen arabera

Herrialdea	2018		2019		2020		% Δ20/19
	MGT	%	MGT	%	MGT	%	
Panama	210,9	17,3	210,0	16,6	211,4	16,0	0,7
Liberia	140,2	11,5	151,9	12,0	171,6	13,0	13,0
Marshall Uharteak	139,6	11,4	145,1	11,5	155,4	11,7	7,1
Hong Kong	113,1	9,3	124,2	9,8	127,3	9,6	2,5
Singapur	82,0	6,7	82,5	6,5	89,0	6,7	7,8
Malta	71,8	5,9	74,3	5,9	79,9	6,0	7,6
Bahamak	52,9	4,3	54,9	4,3	55,0	4,2	0,3
Txina	44,9	3,7	50,7	4,0	54,1	4,1	6,7
Grezia	40,9	3,3	39,7	3,1	39,5	3,0	-0,5
Japonia	25,6	2,1	27,2	2,2	28,7	2,2	5,4
Erresuma Batua	32,6	2,7	31,7	2,5	24,5	1,8	-22,6
Txipre	21,7	1,8	22,0	1,7	22,5	1,7	2,1
Danimarka	17,0	1,4	20,2	1,6	21,2	1,6	5,2
Indonesia	14,1	1,2	15,4	1,2	16,6	1,3	7,7
Norvegia	15,0	1,2	14,9	1,2	16,3	1,2	9,3
Portugal	15,3	1,3	14,7	1,2	15,5	1,2	5,6
Italia	15,1	1,2	14,1	1,1	14,0	1,1	-0,1
Hego Korea	9,7	0,8	9,4	0,7	10,9	0,8	16,7
Bermuda	10,2	0,8	10,2	0,8	9,7	0,7	-4,2
India	9,9	0,8	9,5	0,7	9,2	0,7	-3,2
Estatu Batuak	8,6	0,7	8,6	0,7	9,0	0,7	4,8
Alemania	9,0	0,7	7,7	0,6	7,7	0,6	0,2
Holanda	6,8	0,6	6,8	0,5	6,5	0,5	-4,5
Frantzia	5,5	0,5	5,8	0,5	6,0	0,5	4,0
Belgika	4,8	0,4	5,9	0,5	5,4	0,4	-7,3
Spainia	2,3	0,2	2,2	0,2	2,4	0,2	9,2
Suedia	2,1	0,2	2,1	0,2	2,0	0,2	-2,8
Finlandia	1,5	0,1	1,6	0,1	1,6	0,1	2,6
Kroazia	1,3	0,1	1,3	0,1	1,2	0,1	-6,5
Beste herrialde batzuk	96,7	7,9	98,8	7,8	110,5	8,3	11,8
EB, guztira	249,9	20,5	251,6	19,9	251,7	19,0	0,0
Mundu osoa	1.221,3	100,0	1.263,0	100,0	1.324,7	100,0	4,9

Iturria: ANAVE.

Itsasontzi mota kontuan artuta, 2020an solteko salgaien itsasontziek mantendu zuten mundu mailako merkataritzaren zatirik handiena, % 35,8. Petrolioa garraiatzeko itsasontziak, edukiontziak garraiatzekoak eta merkataritzako beste ontzi batzuk izan ziren hurrengoak, % 21,7ko, % 18,6ko eta % 12,8ko partaidetzekin, hurrenez hurren.

Urte arteko aldakuntzari dagokionez, gasa garraiatzeko itsasontziek izan zuten hazkunderik handiena, baina kontuan izan behar da munduko merkataritzako ontzidiaren % 6 baino ez dutela osatzen.

67. koadroa Munduko merkataritza-flota, itsasontzi motaren arabera

Itsasontzi mota	(MGT)			
	2017	2018	2019	2020
Petrolio garraiatzekoak	256,8	267,2	271,2	287,5
Gasa garraiatzekoak	67,1	71,2	77,5	82,3
Solteko salgaienak	425,8	438,6	451,9	473,8
Kargaontziak	62,7	62,3	63,5	64,8
Edukiontzia garraiatzekoak	216,4	224,7	237,1	246,9
Beste merkataritzako ontzi batzuk	154,1	157,2	161,8	169,3
Merkataritzako ontziak guztira	1.182,8	1.221,3	1.263,0	1.324,7

Iturria: ANAVE.

Azkenik, aipatzekoa da entregen eta desegiteen maila baxuen ondorioz hazi egin zela merkataritzako ontzidiaren batez besteko adina: 2019an 18,7 urtekoa izatetik 2020an 19,1ekoa izatera. Metanoa garraiatzeko ontziak izan ziren ontzidiko gazteenak (10,5 urte), eta hozkailuak zaharrenak (31,2 urte).

4.2 ONTZIGINTZA ESPAINIAN

Itsasontzi berrien nazioarteko beherakadaren ildo beretik, 2020an -% 36,9ra arte areagotu zen ontzi horien Espainiako ekoizpenaren jaitsiera-erritmoa (2019an -% 20,4koa izan zen), eta 101 mila tona konpentsatura mugatu zen ekoizpena¹. Ekoizpen faseen arabera, 2020an uretaratutako tonajea baino ez zen hazi, oso gutxi izan arren (% 0,8). Hasitako tonajea eta entregatutakoa erori egin ziren (-% 51,1 eta -% 69,1eko jaitsierak, hurrenez hurren).

¹ Atal honetako informazioa tona konpentsatuetan jasotzen da, kontrakoa adierazi ezean.

68. koadroa Espainiako itsasontzien ekoizpena

 (mCGT) ⁽¹⁾

Urtea	Tonaje haztatua ⁽²⁾	Hasitako tonajea	Uretaratutako tonajea	Entregatutako tonajea	Konpentsazio-koefizientea ⁽³⁾
2011	175	121	132	318	0,63
2012	107	86	124	93	0,55
2013	161	153	161	169	0,48
2014	154	181	137	159	0,43
2015	179	280	169	99	0,92
2016	103	84	103	124	0,48
2017	130	142	122	133	0,75
2018	201	136	246	178	0,98
2019	160	188	123	207	0,87
2020	101	92	124	64	0,48

(1): CGT: tona gordin konpentsatuak. Erregistroko tonaje gordin konpentsatuaren neurria, tona gordinekin erlazionatuta, itsasontzi mota eta neurri bakoitzerako koefiziente baten bidez. Koefiziente horrek eraikitze konplexutasuna hartzen du aintzat, itsasontzia egiteko erabilitako lanorduak oinarri hartuta.

(2): Tonaje haztatua = (Hasitako tonajea + 2 Uretaratutako tonajea + Entregatutako tonajea)/4.

(3): Ratioa (tona gordinak/tona gordin konpentsatuak).

Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.

Analisia Espainiako ontziolen eskari-zorrorra bideratuta, 2020an -% 5,6 murriztu zen eskari-zorrorra, 356 mila tonara arte. Izan ere, Estatuko zorroa nabarmen igo zen arren (% 40,7, 2019an -% 78,6 murriztu ondoren), esportazioak asko jaitsi ziren (-% 9,1). Hala, merkatu nazionalak Estatuko guztizko zorroarekiko zuen partaidetza-kuota hazi egin zen (guztizkoaren % 11 2020an, eta % 7 aurreko ekitaldian).

69. koadroa Eskarien zorroa urtearen amaieran

Urtea	Barne-merkatua		Esportazioak		Guztira mCGT
	mCGT	%	mCGT	%	
2011	13	6	222	94	235
2012	15	5	298	95	313
2013	21	8	238	92	259
2014	19	7	271	93	290
2015	171	37	288	63	459
2016	209	45	259	55	468
2017	233	46	273	54	506
2018	126	28	322	72	448
2019	27	7	350	93	377
2020	38	11	318	89	356

Iturria: Geuk egina, Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusiaren datuak oinarri hartuta. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.

Dena den, kontuan izan behar da 2020aren amaieran Estatuko eskaera-zorroa osatzen zuten 44 itsasontzietatik bost baino ez zirela merkatu nazionalera bideratutakoak; gainerako 39ak kanpora bideratutako itsasontziak ziren.

70. koadroa Eskarien zorroa itsasontzi motaren arabera, urtearen amaieran. 2020

Itsasontzi mota	Barne-merkatua		Esportazioak		Guztira	
	Itsasontzi kopurua	CGT	Itsasontzi kopurua	CGT	Itsasontzi kopurua	CGT
Petrolio gordina garraiatzekoak	1	5.948	0	0	1	5.948
Petrolio- eta kimika-produktuak	0	0	1	14.236	1	14.236
Kargaontziak	0	0	3	6.251	3	6.251
Hozkailuak	0	0	0	0	0	0
Ferryak	1	16.482	2	44.395	3	60.877
Bidaiariak	0	0	2	56.391	2	56.391
Arrantza-ontziak	2	13.319	12	70.104	14	83.423
Beste itsasontzi batzuk	1	2.117	19	126.508	20	128.625
Guztira	5	37.866	39	317.885	44	355.751

Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.

Estatuko eskari-zorroa itsasontzi motaren arabera aztertuta, honakoek osatzen zuten barne-merkatua: petrolio-ontzi bat, ferry bat, bi arrantza-ontzi eta beste mota batzeko itsasontzi bat. Kanpo-zorroa, berriz, honakoek osatzen zuten: petrolio- eta kimika-produktuak garraiatzeko ontzi bat, karga orokorreko hiru ontzi, bi ferry, bidaiarientzako bi ontzi, hamabi arrantza-ontzi eta beste mota batzuetako hemeretzi ontzi.

Azkenik, S80 Plus urpeko ontzia aurkeztu zuen Navantiak 2020ko martxoan, "Underwater Defence & Security 2020" hitzaldietan. 36 herrialdetako partaideak izan zituzten hitzaldi horiek. Aurkeztutako urpeko ontzia produktu bakarra da egungo merkatuan, haren tamaina eta gaitasunarengatik, AIP (Air Independent Propulsion) sistemari esker. Sistema hori oso moldakorra eta eraginkorra da, eta abantaila hauek ditu: nazioartean eskuragarri dagoen nekazaritzako bioetanola erabiltzen du erregai gisa, merkatuko mantentze estandarraren erdia behar duten erregai-pilen mintzak ditu, eta haren eraginkortasunak ur azpian 3 astez lan egiteko aukera ematen du. Halaber, 2020ko uztailean Iberdrolak Navantia-Windarri esleitu zion haren historiako itsas-eolikako kontraturik handiena, 350 miloi eurokoa.

4.3 ONTZIGINTZA EUSKAL HERRIAN

Estatuko jaitsieraren ildo beretik, EAeko ontzigintza-sektorearen ekoizpena -% 16,7 murriztu zen 2020an, 15 mila tona gordinera arte. Ekoizpen fase guztien jarduerak egin zuen behera, hasitako tonajeak izan ezik, % 31,3ko hazkundera izan baitzuen (2019an -% 5,9ko murrizketa). Zentzu horretan, uretaratutako tonajea -% 5,9 murriztu zen, eta entregatutako tonajea -% 75.

71. koadroa Ontzigtza Euskal Herrian

Urtea	Tonaje haztatua	Hasitako tonajea	Uretaratutako tonajea	(mGT)
				Entregatutako tonajea
2011	37	51	21	57
2012	35	16	49	23
2013	28	17	19	55
2014	27	36	24	23
2015	42	77	35	19
2016	23	13	26	28
2017	25	15	30	26
2018	23	17	20	35
2019	18	16	17	20
2020	15	21	16	5

Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.

Tonaje konpentsatuari dagokionez ere behera egin zuen EAEko ontzigtza-ekoizpenak 2020an; zehazki, -% 23,7. Hala, EAEko ekoizpenak beherakada txikiagoa izan zuen Estatukoak baino, eta, ondorioz, EAEko ontzigtza-sektorearen partaidetza hazi egin zen (2020an % 29ko partaidetza, eta aurreko ekitaldian % 24koa).

 72. koadroa Ontzigtza Euskal Herrian. Estatuko partaidetza.
Tonaje konpentsatua

Kontzeptua	2019		2020	
	mCGT	Espainiako %	mCGT	Espainiako %
Tonaje haztatua	38	24	29	29
Hasitako tonajea	32	17	41	45
Uretaratutako tonajea	39	32	32	26
Entregatutako tonajea	43	10	12	19

Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.

Tonaje konpentsatuaren arabera azterketarekin jarraituz, 2020an behera egin zuten uretaratutako tonajeak eta, bereziki, entregatutako tonajeak (-% 17,9 eta -% 72,1, hurrenez hurren). Hasitako tonajea, berriz, % 28,1 hazi zen.

Hala, EAEn eta Estatuan izandako bilakaerak kontuan hartuta, EAEk Estatuko guztizkoaren gainean zuen partaidetza hazi egin zen entregatutako tonajearen kasuan (2019an % 10ekoa izatetik 2020an % 19koa izatera) eta, bereziki, hasitako tonajearen kasuan (2019an % 17koa izatetik 2020an % 45ekoa izatera). Uretaratutako tonajearen kasuan, berriz, murriztu egin zen partaidetza (% 26koa 2020an, eta % 32koa aurreko ekitaldian).

16. grafikoa Ontzigtzako eskaera-zorroaren eta ekoizpen haztatuaren bilakaera (mCGT)



Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.

Euskal ontziolen eskari-zorroari dagokionez, 2020ko itxieran % 53,8ko hazkundera izan zuen hark, eta 100 mila tona konpentsatura arte egin zuen gora, 2018an hasitako beheranzko ibilbideari amaiera emanez.

73. koadroa Eskarien zorroa Euskal Herrian

Urtea	mCGT
2011	89
2012	114
2013	100
2014	119
2015	148
2016	161
2017	171
2018	73
2019	65
2020	100

Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.

Arreta EAEko ontzigintza-enpresen egoeran jarrita, eta Sestaoko La Naval dagokionez, ontziola likidazio-prozesuan dago (jarduera amaituta eta desagertzeagatiko enplegu-erregulazioko espedienteak langile guztientzat), eta 2021eko erdialdean Belgikako VGPri esleitu dizkiote behin betiko La Naval ontziola kokatuta dagoen lursailak, 36 milioiko eskaintza aurkeztu ondoren. Horrekin lotuta, lursail horietan parke logistiko bat eraikitzea da aipatutako taldearen asmoa.

74. koadroa Eskarien zorroa, amaitutako ontziak eta hasitako ontziak, enpresen arabera

(CGT unitateak)

Enpresa	Eskarien zorroa		Amaitutako itsasontziak		Hasitako itsasontziak	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020
Astilleros Murueta	30.537	45.536	22.275	1.881	17.795	10.932
Astilleros Balenciaga	17.868	35.384	0	5.987	6.448	15.309
Astilleros Zamakona	17.492	19.254	20.364	4.003	7.342	15.583
CNN Sestao	0	0	0	0	0	0

Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.

Euskal ontziola txikiagoei dagokienez, Astilleros Murueta (PYMARen parte da) aipatu behar da. 2020aren amaieran kontratu bat sinatu zuen Groenlandiako Qaleralik enpresa armadorearekin, arrantza-ontzi izoztaile bat eraikitzeko. Ontzi horrek osagai teknologiko handia izango du, jasangarria izango da ingurumenari dagokionez, eta berariaz diseinatuta egongo da poloetako uretan arraina arrantzatzeko, prozesatzeko eta izozteko.

Astilleros Balenciagari dagokionez, 2020aren amaieran hitzarmen bat iragarri zuen Asturiaseko Gondan ontziolarekin, eraikuntzan eta off-shore parke eolikoan mantentze-lanetan laguntzeko lau itsasontzi berri eraikitzeko. Ontzi horien ezaugarri nagusia hidrogeno bidezko propulzioa izango da. Hala, emisiorik gabeko lehen ontziak izango dira.

Bestalde, Astilleros Zamakonak 2020aren amaieran iragarri zuenez, arrain biziak garraiatzeko itsasontzi bat eraikiko du Norvegiako Intership AS enpresarentzat. Itsasontzi horrek, arrainen osasun ona sustatzeaz gain eta gaixotasunen hedapena saihesteaz gain,

alderantzizko osmosi-sistema bat izango du txertatuta eta ekoizpen-gaitasun handia izango du arrain-deposituen bolumenarekin alderatuta.

Azkenik, Euskal Herriko Itsas Foroaren XXIV. Batzar Orokorraren testuinguruan (2021eko ekainaren amaieran egin zuten), azken urteetan izandako zailtasunak errepasatu ditu kargua uzten duen presidentek. Zailtasun horiek areagotu egin ditu pandemiak. Dena den, gustura agertu da 2021-2024 aldirako Plan Estrategiko berria bideratuta utzi delako. Presidente berria, bestalde, ilusioz agertu da sektorea nazioarteko merkatura itzultzeko prozesuaren buru izango delako, berrikuntzan, digitalizazioan, teknologian eta jasangarritasunean oinarrituta.

5. AUTOMOBILGINTZA

la hamarkada batez etenik gabeko hazkundera izan ondoren, 2018 eta 2019 biurtekoan ibilgailuen mundu mailako matrikulazioa oso gutxi handitu zen, eta 2020an aurrekaririk gabeko krisialdian sartu zen automobilgintza-industria. Sektoreak bizi duen eraldaketa handiak eragindako ziurgabetasun-egoerari pandemiaren eragin kaltegarriak gehitu zitzaizkion 2020an. Hainbat astez mundu osoko egileen eta hornitzaileen jarduera gelditu izanak eragin nabarmena izan zuen sektoreko magnitude nagusietan.

Eta, hori guztia, mugikortasun garbi eta jasangarriaren gaineko presioaren testuinguruan. Egileentzat eta balio-kate osoarentzat erronka ugari dakartzan agertokia osatzen du hainbat faktoreen nahasketak, hala nola CO₂aren igorpenen gainean indarrean sartu diren neurri gero eta zorrotzagoak, egileek energia anitzeko plataforma modularrak txertatu izanak edo ibilgailuen eraldaketa digitalak. Oraingoz, Europar Batasunean, gasolina edo diesela darabilten autoak edo auto hibridoak matrikulazioa ez da baimenduta egongo 2035etik aurrera¹. Ondorioz, askoz lehenago utzi beharko liokete mota horretako autoak fabrikatzeari. Fabrikatzaile gehienek epemuga laburragoan bete nahi dute neurri hori.

Hain ezohikoa izan den urte honetan, laguntzen mobilizazio azkarra izan da sektorearentzako oxigeno-baloi bakarra. Laguntza horiek, marken eta kontzesionarioen merkataritza-ahaleginari batuta, krisiaren eragina apaltzen lagundu dute, apur bat bada ere.

Halaber, 2020a berezia izan arren, ez zuen lortu sektoreko enpresa-kontzentrazioaren dinamika aldatzerik. Hala, automobilgintzako nazioarteko (Italia-Frantzia-AEB) talde berri bat jaio zen, "Stellantis", Fiat, Chrysler eta PSA taldea batuta. Hain zuzen ere 14 marka biltzen ditu taldeak, eta mundu mailako ibilgailuen laugarren fabrikatzaile handiena da². Aldi berean, urtearen hasieran Nissan-Renault aliantzak arriskuan ikusi zuen haren etorkizuna, gobernantzan arazo batzuk izan baitzituzten. Krisialdiak, ordea, bien arteko harmonia sustatu zuen, eta 2025etik aurrera ibilgailuak partekatutako plataformetan ekoitziko dituztela iragarri zuten.

Hala ere, pandemia hasi zenetik urtebete pasa den honetan, mundu mailako automobilgintza industriak egora zailean jarraitzen du, mikrotxipen merkatua erori egin baita mundu mailan, eta horrek ekoizpen-erritmoa moteltzera behartu ditu egile asko. Beste osagai batzuen kasuan ere gerta litezke hornidura-arazoak, eta horrek ekoizpena geldiaraziko luke berriro ere, industria osoarentzako ondorio garrantzitsuekin. Egoera hori zailagoa izango litzateke Europarentzat, autoen elementu giltzarriak –hala nola osagai

¹ 2021eko uztaileko iragarpena: EBren helburuak betetzeko hartutako neurria, hain zuzen ere, 2030erako CO₂aren igorpenak % 55 murriztea eta 2055ean neutraltasun klimatiko osoa lortzea.

² Jeep, Chrysler, Dodge, RAM, Citroën, FIAT, Abarth, Opel, Vauxhall, Peugeot, Alfa Romeo, DS Automobiles, Lancia eta Maserati.

elektronikoak edo bateria elektrikoak– eskuratzeko orduan mendekotasun handia baitu beste herrialde batzuekiko, batez ere, Asiako herrialdeekiko. Hala, erronka horien aurrean, hornidura-katearen plangintzari are garrantzi handiagoa eman behar zaio sektoreak martxan jarrai dezan. Izan ere, testuinguru honetan, oztopo askori egin beharko zaie aurre pandemiaren aurreko mailara itzuli ahal izateko.

5.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Aurrez aipatu dugun moduan, Covid-19aren krisiak gogor kolpatu zuen mundu mailako automobilgintza-industria 2020an. Gertaera horiek ondorio garrantzitsuak izan zituzten ibilgailuen ekoizpenean eta matrikulazioan, eta 2010-2011ko mailara jaitsi ziren. Hala, 78 milioi ibilgailuren mugatik behera kokatu ziren bi balioak.

Ekoizpen-datuekin hasita, mundu osoan 77.621.582 ibilgailu ekoitzi zituzten urte osoan zehar, 2019an (92.175.805) baino % 15,8 gutxiago. Urtetik urtera ekoizpena handitzera ohitutako industria bat izanik, ondoz ondoko hiru urte daramatza jaitsierekin. Hala ere, aurreko biurtekoko jaitsierak apalagoak izan ziren (-% 5,2 eta -% 1,1 2019an eta 2018an).

Fabrikazio-jarduera xeheago aztertuta, argi ikusten da Txina gailentzen dela mundu mailako automobilgintza-industrian. 25 milioi ibilgailutik gorako ekoizpena du Txinak, eta jardueraren jaitsiera txiki batekin amaitu zuen urtea (-% 2, 2019arekin alderatuta). Ondorioz, nabarmen hazi zen herrialde horren partaidetza guztizkoarekiko (% 27,9ko partaidetza 2019an eta % 32,5ekoa 2020an). 2020aren gisako ezohiko urte batean, suspertzeko gaitasun handia erakutsi zuen Txinak. Asiako gainerako herrialdeen ekoizpenak, ordea, modu bortitzean egin zuen behera. Japoniak 8 milioi ibilgailu baino gehiago ekoitzi zituen, Hego Koreak 3,5 milioi, Indiak 3,4 milioi eta Tailandiak ia milioi bat eta erdi ibilgailu; guztiek urte arteko aldakuntza-tasa negatiboak izan zituzten fabrikazio-jarduerari dagokionez (-% 16,7, -% 11,2, -% 25 eta -% 29,1). Hala eta guztiz ere, Asia-Ozeaniak jarraitu zuen munduko lurralde ekoizlerik handiena izaten, munduko ekoizpenaren erdia baino gehiago bildu baitzuen (% 57). Hala, nahiko ongi eutsi zion krisiaren astinduari (-% 10,2), batez ere, Txinari esker.

Europak munduko ekoizpenaren ia % 22 bildu zuen, eta nabarmen jaitsi zen ekoizpen-erritmoa (-% 21,6). Herrialde ekoizle guztiek izan zuten beheranzko joera, eta jaitsiera are handiagoa izan zen egile handien artean: % 39,5eko jaitsiera Frantzian (1.316.371 ibilgailu ekoitzi zituzten urtean), % 24,4ko jaitsiera Alemanian (3.742.454 ibilgailu) eta % 28,5ekoa Erresuma Batuan (987.044 ibilgailu). Espainiari dagokionez, 2.268.185 ibilgailu ekoitzi zituen 2020an, aurreko urtean baino -% 19,6 gutxiago. Dena den, munduko rankingeko zortzigarren postua berreskuratzea lortu zuen, Brasili aurre hartuta.

Amerikan % 22,1 jaitsi zen ekoizpena eta 15,7 milioi unitate ekoitzi zituzten, mundu mailako ekoizpenaren % 20,2. AEBk, munduko bigarren ibilgailu-ekoizleak, % 19 murriztu

zuen ekoizpena, eta 9 milioi ibilgailuren mugara iritsi zen ia (8.822.399). Ekoizpen txikiagoarekin baina antzeko bilakaerarekin itxi zuten ekitaldia Mexikok (3.176.600, -% 20,8), Brasilek (2.014.055, -% 31,6) eta Kanadak (1.376.623, -% 28,2).

Azkenik, Afrikak osatzen du agertokia, ekoizpen oso txikiarekin (munduko guztizkoaren % 0,9); 2020an murrizketa handia izan zuen (-% 35,3).

75. koadroa Ibilgailuen ekoizpena. Herrialde nagusiak

Herrialde nagusiak	2019	2020	(unitateak)
			% Δ 20/19
Alemania	4.947.316	3.742.454	-24,4
Espainia	2.822.632	2.268.185	-19,6
Errusia	1.720.116	1.435.335	-16,6
Frantzia	2.175.350	1.316.371	-39,5
Turkia	1.461.244	1.297.878	-11,2
Txekiar Errepublika	1.433.961	1.159.151	-19,2
Erresuma Batua	1.381.405	987.044	-28,5
Eslovakia	1.107.902	985.000	-11,1
Italia	915.291	777.165	-15,1
EB-14	12.241.372	9.202.743	-24,8
EB-27	18.002.188	13.771.638	-23,5
Europa	21.579.464	16.921.311	-21,6
AEB	10.892.884	8.822.399	-19,0
Mexiko	4.013.137	3.176.600	-20,8
Brasil	2.944.988	2.014.055	-31,6
Kanada	1.916.585	1.376.623	-28,2
Amerika	20.148.849	15.690.215	-22,1
Txina	25.750.650	25.225.242	-2,0
Japonia	9.684.507	8.067.557	-16,7
Hego Korea	3.950.614	3.506.774	-11,2
India	4.524.366	3.394.446	-25,0
Tailandia	2.013.710	1.427.074	-29,1
Asia-Ozeania	49.333.841	44.289.900	-10,2
Afrika	1.113.651	720.156	-35,3
Mundua, guztira	92.175.805	77.621.582	-15,8

Iturria: Anfac.

Matrikulazioei dagokienez, % 13,8ko jaitsierarekin amaitu zen urtea, eta 77,9 milioi unitate saldu ziren mundu mailan. Ekoizpenaren arloan bezala, Txina gailendu zen gainerako herrialdeen artean, ez soilik salmenta kopuruarengatik (25,3 milioi), baita salmenten bilakaeragatik ere, % 1,9 bakarrik murriztu baitziren 2019arekin alderatuta. 2019a urte zaila izan zen Txinarentzat ibilgailuen salmentari dagokionez (-% 8,2). Gainera, munduko gainerako herrialdeei baino lehenago eragin zion Covid-19aren krisiak. Horrek herrialdearen suspertzea aurreratu zuen, eta denbora errekorrean suspertu zen. Asiako beste bi merkatu handietan, Japonian (4.598.611) eta Indian (2.938.653) beheranzko joera erregistratu zen (-% 11,5 eta -% 23). Eta, zalantzarik gabe, Hego Korea izan zen salbuespena, salmentak % 6,2 areagotzea lortu baitzuen 2020an.

Europan oso zorrotzak izan ziren mugikortasunarekin lotutako murrizketak, eta ibilgailuen salmenta erori egin zen (-% 20,2); 16.712.424 unitate saldu ziren. Pandemiak markatu zuen salmenten bilakaera. Urtearen hasiera positiboa izan zen, eta gero matrikulazioak

murritzten joan ziren hilabetez hilabete. Urtearen amaieran apur bat suspertu zen jarduera, baina ez zen nahikoa izan krisialdiaren eraginei aurre egiteko. Espero bezala, Europako ia herrialde guztietan jaitsi ziren salmentak, % 18,7 (Alemanian) eta % 31,3 (Espainian) artean. Dena den, aldakuntza handi horiek ez zuten Europako merkatu nagusien posizionamendua aldatu. Alemaniak (% 19,6), Frantziak (% 12,6), Erresuma Batuak (% 11,8), Italiak (% 9,4) eta Espainiak (% 6,2) jarraitu zuten buruan, eta bost horiek bildu zuten Europako matrikulazioen ia % 60. Testuinguru horretan, beharrezkoa da Turkia nabarmentzea. Izan ere, 2020an alde handiz gainditu zituen aurreko ekitaldiko salmentak, eta 491.947 matrikulazioko merkatu-bolumena izatetik 796.200ra (% 61,8) pasatu zen. Dena den, kontuan izan behar da aurreko bi ekitaldietan beherakada handiak izan zituela.

76. koadroa Ibilgailuen matrikulazioa. Herrialde nagusiak

Herrialde nagusiak	(unitateak)		
	2019	2020	% Δ 20/19
Alemania	4.017.059	3.266.749	-18,7
Frantzia	2.755.695	2.100.021	-23,8
Erresuma Batua	2.742.852	1.967.656	-28,3
Italia	2.132.630	1.564.670	-26,6
Espainia	1.501.244	1.030.744	-31,3
Polonia	656.258	510.153	-22,3
Belgika	644.046	511.107	-20,6
EB 27 + EFTA + Erresuma Batua	18.443.305	14.086.918	-23,6
EB, guztira	20.941.321	16.712.424	-20,2
AEB	17.037.088	14.452.892	-15,2
Brasil	2.787.850	2.058.437	-26,2
Kanada	1.937.218	1.527.580	-21,1
Mexiko	1.359.884	976.373	-28,2
Amerika	24.831.716	20.245.466	-18,5
Txina	25.796.931	25.311.069	-1,9
Japonia	5.195.216	4.598.611	-11,5
India	3.816.858	2.938.653	-23,0
Hego Korea	1.795.134	1.905.972	6,2
Australia	1.062.867	916.968	-13,7
Asia-Ozeania-Ekialde ertaina	43.483.277	40.107.260	-7,8
Errusia	1.778.901	1.631.163	-8,3
Afrika	1.179.925	912.863	-22,6
Mundua, guztira	90.436.239	77.978.013	-13,8

Iturria: Anfac.

Amerikako kontinentean 20,2 milioi ibilgailu matrikulatu zituzten (-% 18,5). AEBk % 15,2 murriztu zituen salmentak, 14,4 milioira arte. Mexikon handiagoa izan zen jaitsiera (-% 28,2), eta milioi bat matrikulaziotik behera kokatu zen merkatua. Brasilen (-% 26,2) eta Kanadan (-% 21,1) ere antzeko bilakaera izan zuten salmentek, baina dimentsio oso ezberdineko merkatuak dira (2.058.437 eta 1.527.580 matrikulazio, hurrenez hurren).

Afrikari dagokionez, ekarpen askoz ere txikiagoa egin zuen (912.863 matrikulazio, munduko salmenten % 1,2). Afrikak ere beheranzko joera izan zuen, eta merkatua asko ahuldu zen 2020an zehar (-% 22,6).

5.2 SEKTOREA ESPAINIAN

Osasun krisiak ekarritako krisi ekonomikoak eragina izan zuen automobilgintzako Estatuko industriaren emaitzetan. Ekoizpen-jardueraren eta merkataritza-jardueraren hilabete eta erdi baino gehiagoko geldialdiak, logikoa den moduan, ondorio latzak izan zituen automobilgintza-industriaren fakturazioan¹. 2020an ia 60.000 milioi fakturatu ziren, 2019an baino % 13 gutxiago. Egoera horrek garrantzi handia du. Izan ere, kontuan izan behar da sektoreak garrantzi ekonomiko handia duela Estatuko ekonomian, BPGaren % 8 eta enpleguaren % 9 baitagozkie.

Pandemiak eragindako ezohiko egoeran, 2020an aurrekaririk gabeko jaitsiera izan zen matrikulazio-datuetan (-% 31,3), eta milioi bat pasatxo unitate matrikulatu ziren. Hala, 2014ko mailara itzuli zen sektorea. 2021eko urtarrilean matrikulazio-zergak garestituko zirela jakinarazteak eta Gobernuak autoak erosteko sustatutako laguntzek ere ez zuten lortu salmentei bultzada bat ematea. Estatuko lurzoruko –hor daude automobilgintzako entseina nagusiak– ekoizpenaren jarduera % 19,6 murriztu zen, eta 2.268.185 ibilgailu ekoitzi zituzten urtean. Horietatik ia % 86 (1.951.448) gure mugetatik kanpo saldu zituzten (-% 15,5). Aipatu beharrekoa da Nissanek Bartzelonako Zona Frankoa industrialdeko lantegia itxiko zuela jakinarazi zuela. Ia 2.500 pertsonak lan egiten zuten lantegi hartan².

77. koadroa Espainiako automobil-industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpoko merkataritza

Azpisektorea	Produkzioa			Esportazioak			Matrikulazioak (*)		
	2019	2020	%Δ	2019	2020	%Δ	2019	2020	%Δ
Turismoak	2.209.769	1.791.570	-18,9	1.867.477	1.580.297	-15,4	1.258.251	851.210	-32,4
Lur orotakoak	38.522	9.094	-76,4	36.834	8.592	-76,7	-	-	-
Merkataritzako ibilgailu arinak	524.504	430.616	-17,9	387.279	335.280	-13,4	214.922	158.120	-26,4
Industria-ibilgailuak	49.837	36.905	-25,9	18.480	27.279	47,6	24.573	19.245	-21,7
Autobusak	-	-	-	-	-	-	3.498	2.171	-37,9
Guztira	2.822.632	2.268.185	-19,6	2.310.070	1.951.448	-15,5	1.501.244	1.030.746	-31,3

(*): Turismoen matrikulazioak barne hartzen ditu lur orotako matrikulazioak ere.

Iturria: Anfac.

Azterketarekin jarraituz eta ibilgailu moten araberako datuetan sakonduz, turismoen ekoizpena % 18,9 murriztu zen eta 1.791.570 unitate ekoitzi zituzten urtean. Hain zuzen ere, turismoei dagokie ekoizpen osoaren ia % 80. Pisu handiena duen hurrengo segmentuak (% 19), merkataritzako ibilgailu arinek, antzeko portaera izan zuten (-% 17,9), eta 430.616 unitate ekoitzi itxi zuten ekitaldia. Ibilgailu industrialek (% 1,6) ere behera

¹ Automobil en eta Kamioien Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte (ANFAC) kideak.

² 2021eko uztaila: Txosten hau egiteko unean Belgikako Punch taldeak eskaintza irmo bat aurkeztu du, Bartzelonako Nissaneko lanpostu gehienak ziurtatuz.

egin zuten (-% 25,9). Lur orotako ibilgailuen kasuan ikusi zen argien jardueraren etena, % 76,4 murriztu baitzen haien ekoizpena 2020an, 10.000 unitate baino gutxiago ekoiztuta.

Agertoki bera bizi izan zuten esportazioek, baina modu apalagoan. Hala, turismoen esportazioa % 15,4 jaitsi zen, eta 1.580.297 unitate saldu zituzten gure mugetatik kanpo. Merkataritzako ibilgailu arinen bilakaera antzekoa izan zen (-% 13,4), eta 335.280 unitate esportatu zituzten. Ibilgailu industrialek, berriz, zifra positiboekin itxi zuten ekitaldia: 27.279 unitate esportatu zituzten, aurreko ekitaldian baino % 47,6 gehiago. Lur orotako esportazioek, bestalde, jaitsiera handia izan zuten (-% 76,7), eta 8.592 ibilgailu esportatu zituzten.

Nolanahi ere, matrikulazioetan islatzen da ongien krisiaren eragina. Turismoen segmen-tuan 851.210 matrikulazio izan ziren, 2019an baino % 32,4 gutxiago. Merkataritzako ibil-gailu arinen matrikulazioa % 26,4 murriztu zen, eta 158.120 unitate matrikulatu zituzten. Bilakaera bera izan zuten ibilgailu industrialek (-% 21,7), baina askoz ere bolumen txikia-goarekin (19.245 matrikulazio). Azkenik, autobusek izan zuten jaitsierarik handiena (-% 37,9), eta 2.000 matrikulazioen muga justu-justu gaituta itxi zuten ekitaldia.

78. koadroa Turismoen matrikulazioa marken arabera

Marka nagusiak	2019	2020	(unitateak) %Δ
Seat	111.982	68.721	-38,6
Volkswagen	94.328	66.817	-29,2
Audi	51.114	37.285	-27,1
Škoda	29.388	22.667	-22,9
<i>Volkswagen taldea</i>	<i>286.812</i>	<i>195.490</i>	<i>-31,8</i>
Peugeot	97.936	65.699	-32,9
Opel	69.101	30.223	-56,3
Citroën	67.149	43.820	-34,7
<i>PSA taldea</i>	<i>234.186</i>	<i>139.742</i>	<i>-40,3</i>
Renault	86.420	56.138	-35,0
Toyota	71.696	57.580	-19,7
Hyundai	62.766	45.405	-27,7
KIA	59.523	47.624	-20,0
Ford	57.168	34.776	-39,2
Dacia	55.692	39.394	-29,3
Mercedes	53.719	42.375	-21,1
Nissan	51.557	34.761	-32,6
Fiat	47.115	28.516	-39,5
BMW	46.887	35.229	-24,9
Gainerako markak	198.432	94.180	-52,5
Guztira	1.258.251	851.210	-32,3

Iturria: Anfac.

Ekoizleek Estatuko merkatuan izandako bilakaerari dagokionez, 2020an mundu mailako merkatuan lidergo-aldaketa gertatu zela nabarmendu behar da. Hala, Toyotak lehenengo postua kendu zion Volkswageni, 9,5 milioi ibilgailu salduta. Egoera hori, ordea, ez zen eman Estatuko merkatuan. Seatek jarraitu zuen zerrendaren buruan, 2020an salmentak asko murriztu arren (-% 38,6). Zehatzago esanda, 68.721 unitate salduta eta % 8,1eko pisu

erlatiboarekin, Seat lehenengo postuan kokatu zen berriro ere. Volkswagen (66.817) eta Peugeot (65.699) izan ziren hurrengoak, % 29,2ko eta % 32,9ko murrizketak izanda, hurrenez hurren. Antzeko salmentekin eta beheranzko joerarekin, Toyota (57.580 matrikulazio; -% 19,7) eta Renault (56.138 matrikulazio; -% 35) kokatu ziren laugarren eta bosgarren postuetan. Dena den, sektoreko merkataritza-jarduerarentzat 2020a oso zaila izan zen arren, badirudi Opel izan zela gehien kaltetutako marketako bat. % 56,3 murriztu ziren Opelen salmentak, eta 6. postutik 15. postura pasatu zen 2020an.

79. koadroa Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak

Herrialdea	2019	2020	(unitateak) %Δ
Frantzia	437.550	397.641	-9,1
Alemania	480.687	386.341	-19,6
Erresuma Batua	327.186	241.848	-26,1
Italia	250.455	225.748	-9,9
Turkia	35.560	71.791	101,9
Belgika	87.695	66.116	-24,6
Herbehereak	53.573	43.989	-17,9
Polonia	55.702	42.129	-24,4
Austria	49.516	38.259	-22,7
Portugal	47.194	36.341	-23,0
10 herrialde nagusiak, guztira	1.825.118	1.550.203	-15,1
Gainerakoak	484.952	401.245	-17,3
Esportazioak, guztira	2.310.070	1.951.448	-15,5

Iturria: Anfac.

Azken urteetan zehar gertatu den moduan, eta 2020a ezohikoa izan zen arren, lau herrialdek jaso zuten Estatuko produktuen esportazioaren zatirik handiena, eta lau horiei dagokie gure mugetatik kanpora egindako salmenten % 64,2. Frantzia (% 20,4ko partaidetza) kokatu zen aurrena, Alemaniari (% 19,8) lehenengo postua kenduta, eta Erresuma Batua (% 12,4) eta Italia (% 11,6) izan ziren hurrengoak. Beherakada handiak izan zituzten guztiek (-% 9,1, -% 19,6, -% 26,1 eta -% 9,9). Halaber, beherakadak orokorrak izan ziren testuinguru horretan, Turkiako merkatuaren hazkundera nabarmendu behar da (+% 101,9 eta 71.791 ibilgailu). Etengabeko eskaria izan zuen 2020 osoan zehar eta 5. postura igo zen (2019an 10. postuan zegoen).

80. koadroa Automobilgintza-sektoreko esportazioak eta inportazioak (ibilgailuak gehi osagarriak)

(M euro)

Kontzeptua	Esportazioak			Inportazioak			Saldoa: Esportazioak - Inportazioak		
	2019	2020	%Δ	2019	2020	%Δ	2019	2020	%Δ
Turismoak eta lur orotakoak	29.355	26.216	-10,7	18.468	11.936	-35,4	10.887	14.281	31,2
Merkataritza-ibilgailuak, industria-ibilgailuak eta autobusak	6.601	5.300	-19,7	3.412	2.415	-29,2	3.189	2.885	-9,5
Zatiak, piezak eta osagarriak	9.304	7.673	-17,5	13.339	11.162	-16,3	-4.035	-3.489	-13,5
Motorrak eta abiadura-kaxak	2.505	1.714	-31,6	4.666	3.901	-16,4	-2.161	-2.187	1,2
Guztira	47.765	40.903	-14,4	39.885	29.414	-26,3	7.880	11.489	45,8

Iturria: Anfac.

Merkataritza-balantzari dagokionez, esportazioak % 14,4 gutxitu ziren, 40.903 milioi eurora arte. Inportazioak, berriz, % 26,3 murriztu ziren, eta 29.414 milioi euroko balioa izan zuten. Hala, 11.489 milioi euroko saldo positiboa izan zuen merkataritza-balantzak (2019an baino % 45,8 handiagoa). Eraitza positibo hori, batez ere, pisu handieneko kategoriaren bilakaeran oinarritu zen, hau da, turismoen eta lur orotakoen bilakaeran, % 31,2ko saldoarekin (14.281 milioi euro). Gainerako ibilgailuak (2.885 milioi euro) batuta, 17.166 milioi eurokoa izango litzateke saldoa.

Azkenik, Espainia pixkanaka elektromugikortasunerantz mugitzen ari bada ere, nabarmentzekoa da Europako azken postuetan jarraitzen duela, Anfacek argitaratutako elektromugikortasunari buruzko barometroaren arabera. Hori dela eta, hiru urte barru, gutxienez, 250.000 ibilgailu elektriko matrikulatuta izatea eta 80.000 eta 110.000 karga-puntu izatea da Gobernuaren helburua.

Anfacen arabera, Espainiak, gutxienez, 700.000 ibilgailu elektriko ekoitzi behar ditu 2030erako Europako merkatu-kuota mantendu nahi badu edo % 15era arte handitu nahi badu. Horretarako, 2020-40 Automobilgintza Planean hamar ekintza proposatzen ditu Anfacek, mugikortasunaren industria berrirako bidean pausoak emateko, deskarbonizazioaren eta digitalizazioaren funtsezko helburuetan oinarrituta. Baterien balio-katearen zati bat herrialdean txertatzea da nabarmendutako ekintzetako bat. Asmo hori azaldu du orain dela gutxi Volkswagenek (2021eko uztaillean), European duen hirugarren bateria-fabrika eraiki nahi baitu Espainian.

Halaber, sektorearen garrantzia kontuan hartuta, Gobernuak Bruselari bidalitako Suspertze eta Eraldaketa Ekonomikorako 6 Proiektu Estrategikoen (PERTE) artean – NextGeneration funtsak jaso ahal izateko–, automobilgintza berdearekin eta konektatuarekin zerikusia duen proiektua da aurreratua. Gobernuak 4.295 milioi euro bideratuko ditu proiektu horretara, auto elektrikoek ekoizpena bultzatzeko.

Hala eta guztiz ere, 2021a konplikatua izango da sektorearentzat. Industriari bide luzea geratzen zaio oraindik ere emisiorik gabeko mugikortasunera heltzeko¹. Hala, aurrez aipatu dugun moduan, erronka berriak ditu aurrean, hala nola mikrotxipen gabezia. Hornidura-falta horrek geldialdiak eragin zituen lantegi batzuen ekoizpen-erritmoan, baita ABEEEak ere. Hori guztia, nazioarteko eta Estatuko eskariaren dinamikotasuna oso txikia zen agertoki batean. Gainera, badirudi Plan Renove berriak ez duela hobetuko Estatuko eskaria; bai, ordea, mugikortasun elektrikorako Plan Moves berriak.

Espero bezala, pandemia eta hark auto-egileen jardueran izandako ondorio larriak erabat islatu ziren automobilgintzarako ekipamenduen eta osagaien Espainiako industrian, 30.200 milioi euroko fakturazioa izan baitzuen industria horrek 2020an (-% 15,7), 2015eko balioetara itzulita.

81. koadroa Automobilgintzako ekipoen eta osagaien Espainiako industriaren zifra nagusiak

Kontzeptua	<i>(M euro)</i>		
	2019	2020	%Δ 20/19
Fakturazioa	35.822	30.200	-15,7
Merkatu nazionaleko salmentak			
- Ekipo originala	15.068	12.300	-18,4
- Ordezkoak	9.798	7.740	-21,0
Esportazioak	5.270	4.560	-13,5
I+G+b inbertsioa	20.754	17.879	-13,9
Enplegua (langile kopurua)	1.458	1.075	-26,3
	225.400	212.500	-5,7

Iturria: Sernauto.

Hortaz, Estatuko hornidura-industriak 1.000 enpresatik gora biltzen ditu, eta 2020an 212.500 langile zituzten guztien artean (-% 5,7). Zifra hori 344.500 pertsonara igotzen da, industriak sortutako enplegu zuzena eta zeharkakoa kontuan hartuz gero.

2020an 1.075 milioi eurokoa izan zen I+G+b inbertsioa, fakturazioaren % 3,6, aurreko urtean baino % 26,3 baxuagoa. Hortaz, nabarmentzekoa da hornidura-industriaren inbertsio-ahalegin handia. Izan ere, industriak badaki garrantzitsua dela inbertitzea, bezeroen behar berrietara egokitzeke eta merkatu konplexu eta zorrotzetan lehiakortasuna bermatzeko.

Estatuko produktuen helmugako merkatuei dagokienez, esportazioak 17.900 milioi eurora hurbildu ziren, hau da, 2019an baino % 14 baxuagoak izan ziren. Hala, esportazioei egokitu zitzairen sektoreko fakturazioaren ia % 60. EBra egindako salmentek 11.881 milioi euroko balioa izan zuten 2020an (-% 11,8). Frantzia eta Alemania kokatu ziren buruan (3.171 milioi euro eta 3.040 milioi euro, hurrenez hurren). Erresuma Batua (1.204 milioi euro; -% 19,4) eta AEB (949 milioi euro; -% 6,6) ere nabarmendu ziren merkataritza-bazkide garrantzitsu gisa.

¹ 2030erako 2021ean erregistratutako CO2 igorpenak % 37,5 murrizteko konpromisoa (WLTP araudiaren baitan).

Estatuko industriarekiko merkataritza-fluxuek behera egin zuten testuinguru horretan, Japoniak (166 milioi euro) erregistratu zuen bilakaera okerrera (-% 37,6). Bi herrialdek, berriz, Txinak eta Eslovakiak, goranzko bilakaera (% 11,5 eta % 5,8) izatea lortu zuten; hala, 492 milioi eurora iritsi zen lehena, eta 325 milioi eurora bigarrena.

Industriaren izaera esportatzaile indartsuari esker, fakturazioaren murrizketa ez zen hain larria izan. Kontuan izan behar da barne-merkatuko salmentak (12.300 milioi euro) gehiago jaitsi zirela (-% 18,4) esportazioak (-% 13,9) baino. Hala, ekipo originalen merkatuak 7.740 milioi euro fakturatu zituen 2020an (-% 21). Ordezkoen merkatua, berriz, beherago kokatu zen 4.560 milioi euroko balioarekin (-% 13,5).

Dena den, nabarmendu beharrekoa da automobilgintza-industriako hornitzaileek ibilgailuen ekoizpenean duten paper garrantzitsua, ekoizpenaren balioaren % 75en erantzuleak baitira. Elektromugikortasunarekin, konektagarritasunarekin eta adimen artifizialarekin lotutako joera berriak erronka handiak dira sektorearentzat, eraikuntza-industriaren kasuan bezala. Automobilgintza-sektorea, ordea, ohituta dago bezeroen aniztasun teknologikora eta kulturalera egokitzea.

5.3 AUTOMOBILGINTZAKO HORNIDURA-INDUSTRIA EAE-N

Pandemiak automobilgintza-industrian izandako eraginak bertan behera utzi zuen automobilgintzako euskal sektore hornitzaileak azken hamarkadan izandako bilakaera ona, eta 2016ko balioetara egin zuen atzera fakturazioak.

Sektorea estrategikoa da euskal ekonomiarentzat, eta nazioartean oso lehiakorak diren ospe handiko enpresek osatzen dute. 100.000 pertsonari baino gehiagori ematen diete enplegua, eta horietatik 39.255 Euskal Herrian kokatzen dira. Atzerriko jarduerari dagokionez, sektoreko 340 ekoizpen-lantegi baino gehiago daude 32 herrialdetan, garapen-bidean dauden merkatuetan zein merkatu tradizionaletan.

300 enpresa inguruk osatutako industria-ehun sendo horri Gasteizko Mercedes (Daimler) enpresaren garrantzia gehitu behar zaio, sektorearen ikurra baita. Urtean 135.000 ibilgailu ekoizten ditu, eta 3.000 langile inguru ditu. Posible da datorren ekitaldian zifra horiek gora egitea. Izan ere, Gasteizko lantegiak –Clase V eta Vito modeloak ekoizten dira han, baita Vito E eta EQV modelo elektrikoak ere– 1.000 milioi euroko inbertsio historikoa jasoko duela dirudi, produktibitatea % 40 hazteko helburuarekin. Nolanahi ere, eta kapituluan zehar aipatu dugun moduan, Gasteizko Mercedes lantegiari ere eragin dio txipen eta erdieroaleen gabeziak. Ondorioz moteldu egin du ekoizpen-erritmoa, eta horrek oztopatu egin dezake urtean 200.000 unitate ekoiztea.

82. koadroa Automobilgintzako euskal hornidura-sektorearen bilakaera


Kontzeptua	2016	2017	2018	2019	2020(*)
Fakturazioa (M euro)	16.454	18.390	19.311	20.375	16.605
Enplegua (pertsona kopurua)	38.019	40.859	40.924	40.488	39.255

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: ACICAE.

Sektorearen fakturazio-datuei dagokienez (Gasteizko Mercedes kontuan hartu gabe), 2019an baino % 18,5 gutxiago fakturatu zuten 2020an. 2019ko fakturazioa errekorra izan zen: 16.605 milioi euro. Enpleguak ere behera egin zuen, proportzio txikiagoan izan arren (-% 3). Hala, ezin izan zen 40.000 langileren muga gainditu, aurreko hiru ekitaldietan ez bezala.

17. grafikoa Sektoreko fakturazioaren bilakaera



Iturria: ACICAE.

Etorkizunari dagokionez, pandemiak sektoreko jarduerari eragin bazion ere, 2020aren amaieran nabarmen berreskuratu zen jarduera. Hori dela eta, 2021erako % 9ko hazkundea espero du ACICAEk, eta 2023rako pandemiaren aurreko zifrak berreskuratzea. Sektorearen salmenten % 90 nazioartekoak direla kontuan hartuta, nazioarteko merkatuak suspertzen ari direla erakusten duen zantzu orok lagun dezake aurreikuspen horiek betetzen.

Bestetik, sektoreko erronka handiei erantzuteko helburuarekin, lehiakorrak izaten jarraitzeko beharrezkoak diren produktu eta teknologia berriak garatzeko Euskal Herriko osagaien enpresak egiten ari diren ahalegina alde batera utzita, industria-proiektu berri bat nabarmentzen da, "Basquevolt", Eusko Jaurlaritzak bultzatua eta Euskadi Next Generation EU planean txertatua. Araban baterien ekoizpen-lantegi bat jartzea da proiektu publiko-pribatu horren helburua, balio-kate oso baten zati izango dena. Nafarroak eta Extremadurak ere parte hartuko dute balio-kate horretan. Inbertsioa 700 milioi eurotik

gorakoa izango litzateke, eta 900 pertsona ingururi emango lioke enplegua; zeharkako lanpostuak kontuan hartuz gero, 10.000 pertsonari.

6. MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK

6.1 MAKINA ERREMINTEN EUROPAKO INDUSTRIA

2020an, pandemiaren eraginaren ondorioz, munduko industria gelditu egin zen, eta geldialdi horrek, ezinbestean, eragina izan zuen makina-erreminten industrian. Gainera, Europako makina-erreminten industriarentzat konplikatu zen une batean iritsi zen krisia. Izan ere, industriak beheranzko joera zuen 2019az geroztik; ekoizpena % 4 murriztu zen urte hartan.

CECIMOK argitaratutako 2020ko datuek argi eta garbi erakusten dutenez, sektoreko jarduera nabarmen erori zen. Lehenengo seihilekoko eskariak 2009ko finantza-krisiaz geroztik erregistratutako mailarik baxuena izan zuten. Urtearen bigarren zatian % 36 hazi ziren eskariak, baina ez zen nahikoa izan ekitaldia balantze positiboarekin amaitzeko.

CECIMOK, Makina-erreminten eta lotutako Fabrikazio Teknologien Industrien Europako Elkarteak, makina-erreminten ekoizleak diren Estatuko 15 elkarte biltzen ditu. Elkarte horiek 1.500 enpresa industrial inguru ordezkatzeko dituzte Europan, eta horietatik % 80 baino gehiago ETEak dira. CECIMOK barne hartzen du Europako makina-erreminten ekoizpen osoaren % 98, eta mundu osoko ekoizpenaren % 33 inguru. 150.000 langile inguru ditu, eta 2020an 20.000 milioi euro inguruko negozio-bolumena izan zuen (-% 13).

Makina-erreminten ekoizpenari dagokionez, CECIMOren bazkideek % 26,7ko jaitsiera nabarmena izan zuten 2020an, eta 19,9 bilioi euro fakturatu zituzten guztien artean. Esportazioek 15 bilioi euroko balioa izan zuten, eta CECIMOKo bazkideen artean antzekoa izan zen bilakaera (-% 27). Beste lurralde batzuek urte arteko aldakuntza handiagoak izan zituzten, esaterako, Asiak (-% 31) eta Afrikak (-% 30,6).

Etorkizunerako aurreikuspenei dagokionez, CECIMOK batzar orokorraren ondoren argitaratutako informazioaren arabera (2021eko ekaina), ziur aski industriak hainbat urte beharko ditu krisiaren aurreko mailara itzultzeko. Dena den, 2021eko lehen hiruhilekoan, dagoeneko, ikus daiteke joera-aldaketa bat. Izan ere, makina-erreminten eskariak % 5 igo dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta 2019ko aldi bereko balioak baino % 7 gorago kokatu dira.

Dena den, jarduera suspertzeko gobernuen laguntza behar dela uste du sektoreak. Marcus Burtonek, CECIMOren Batzorde Ekonomikoko presidentek, honakoa esan zuen batzarrean: *"Erronkaz betetako aldi bat dugu aurrean, baina Europako makina-erreminten industriak are indartsuago irten behar du krisi honetatik, teknologikoki aurreratuago, eta liderra izaten jarraitu behar du mundu mailan. Gure babesaren ematen diegu Europako politikariei hornidura-kate erresistenteagoak eta egonkorragoak eraiki ditzaten, Europako*

manufaktura-enpresak babesteko, eta industria-sektore zaurgarrienen suspertzea babesteko eta azkartzeko eskatzen diegu”.

6.2 MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK

Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologiaren Estatuko industriari dagokionez, eta AFMk¹ argitaratutako informazioaren arabera, 2020an zartada latza jaso zuen industriak pandemiaren ondorioz. Estatuko industriaren bezeroak diren sektore handi asko gogor kaltetu zituen jarduera gelditzeak (automobilgintza, aeronautika, trengintza...). Egoera hori makina-erreminten eta fabrikazio-teknologiaren sektorean ere islatu zen, eta guztien artean 1.324 milioi euro fakturatu zituzten (-% 19,6).

Egia da bost urtez hazi ondoren sektorearen jarduerak joera-aldaketa erakutsi zuela 2019an, baina Covid-19aren krisiak arriskuan jarri zituen sektorearen magnitude nagusiak. Hala, ia adierazle guztietan bi digituko jaitsierak erregistratu zituzten 2020an.

Testuinguru horretan, makina-erreminten ekoizpenak 870,5 milioi euroko balioa izan zuen (guztikoaren % 65,7), 2019an baino nabarmen baxuagoa (-% 19,8). Jaitsiera horretan eragina izan zuten abioen makineriaren (% 42,2ko partaidetza eta -% 18,7ko aldakuntza) eta deformazioaren makineriaren (% 23,5eko ekarpena eta -% 21,8) ekoizpenak izandako jaitsierek. Aldaketek eta ziurgabetasun-egoerak gelditu egin zuten automobilgintza-industriaren jarduera, eta horrek asko kaltetu zuen deformazioaren makineriaren ekoizpena.

83. koadroa Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologiaren sektorearen ekoizpena

Produktzioa	2019	2020	%Δ 20/19
Makina-erremintak	1.085,8	870,5	-19,8
· Abioa	687,9	559,4	-18,7
· Deformazioa	397,9	311,1	-21,8
Osagaiak	194,7	165,3	-15,1
Erremintak	127,6	108,4	-15,0
Osagarriak	65,9	31,1	-52,8
Beste makina batzuk	116,2	95,6	-17,7
Mekanizazioa eta beste zerbitzu batzuk	73,2	66,43	-9,3
Ekoizpenaren guztizkoa^(*)	1.647,9	1.324,1	-19,6

(*): Makina-erreminta nazionaletan txertatutako osagaiak eta osagarriak salbu.

Iturria: AFM.

Osagaien ekoizpenaren balioa 165,3 milioi eurokoa izan zen (guztizkoaren % 12,5) eta erremintena 108,4 milioi eurokoa (% 8,2); antzeko bilakaera izan zuten bietan (-% 15).

¹ AFM, Makina-erreminta, Osagarri, Osagai eta Erreminten Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak. Espainiako makina-erreminten eta fabrikazio-teknologia aurreratuen enpresen % 90 ordezkatzen ditu.

Osagarrien ekoizpena, berriz, erdira jaitsi zen (-% 52,8), eta 31,1 milioi euroko fakturazioarekin (% 2,3) itxi zuen ekitaldia. Beste makina batzuek (-% 17,7) eta mekanizazioa eta beste zerbitzu batzuek osatu zuten ekoizpenaren mapa, azken horiek murrizketa txikiagoarekin (-% 9,3). 95,6 milioi euro eta 66,4 milioi euro fakturatu zituzten, hurrenez hurren (guztizkoaren % 7,2 eta % 5).

84. koadroa Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologiaren sektorearen esportazioa

(M euro)

Esportazioak	2019	2020	%Δ 20/19
Makina-erremintak	922,5	714,7	-22,5
· Abioa	618,6	479,0	-22,6
· Deformazioa	303,9	235,7	-22,4
Osagaiak	125,5	104,3	-16,9
Erremintak	69,7	57,3	-17,8
Osagarriak	47,7	17,9	-62,5
Beste makina batzuk	79,5	72,7	-8,6
Mekanizazioa eta beste zerbitzu batzuk	49,0	39,1	-20,2
Esportazioen guztizkoa	1.293,9	1.006,0	-22,3

Iturria: AFM.

Azterketa hori bera esportazioen jarduerara ekarrita, agertokia ia bera izan zen, Estatuko industriak esportatzeko duen joera handia kontuan hartuta. Hala, 2020an esportazioek gutxiatik gainditu zuten 1.000 milioi euroren muga (ekoizpenaren % 76), jarduera-azpisektore guztien adierazleek behera egin baitzuten. Makina-erreminten azpisektorearenak izan ziren esportazioen % 71. Askok murriztu ziren kanpora egindako salmentak (-% 22,5); horretan eragina izan zuten abioen makineriak (-% 22,6) zein deformazioarenak (-% 22,4). Hala, 714,7 milioi eurokoa izan zen fakturazioa. Osagaiak, % 10,4ko partaidetzarekin, % 16,9ko beherakada izan zuten, eta 104,3 milioi euro fakturatu zituzten. Erreminten azpisektorearen fakturazioa 57,3 milioi eurokoa izan zen, aurreko ekitaldian baino % 17,8 baxuagoa. Osagarrien esportazioak asko jaitsi ziren (-% 62,5), eta beste makina batzuek izan zuten taldeko bilakaerarik "onena" (-% 8,6). Azken bi azpisektore horiek 17,9 eta 72,7 milioi euro fakturatu zituzten, hurrenez hurren.

6.3 MAKINA-ERREMINTA EUSKAL HERRIAN

Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologiaren industria hamargarren postuan dago mundu mailan, eta hirugarren postuan EBn. Aurrez aipatu dugun moduan, 2020an nabarmen jaitsi zen ekoizpena (-% 19,8), eta 2014ko balioetara itzuli zen. Egia da 2019a urte zaila izan zela sektorearentzat, baina 2020an sektore bezero askoren jarduerak izandako geldialdiak, zalantzarik gabe, eragin handia izan zuen industrian.

Dena den, eta 2019an ez bezala, 2020an barne-merkatuaren beheranzko joera (-% 12,3; 252,3 milioi euro) txikiagoa izan zen esportazioena baino, kolpe larria jaso baitzuten esportazioek (-% 22,5; 714,7 milioi euro). Hain gogorra izan zen jasotako kolpea, ezen duela

ia hamarkada batetik ez baitziren hain baxuak izan esportazio-datuak. Hori garrantzitsua da, industriaren ekoizpenaren zati handiena atzerrira bideratuta dagoela kontuan hartuta (% 82,1). Inportazioak, bestalde, ia % 40 murriztu ziren, eta 314,7 milioi euroko balioa izan zuten. Hala, ageriko kontsumoa 480,7 milioi eurokoa izan zen, 2019an baino % 31,1 baxuagoa.

Era berean, aipatu beharrekoa da 2020an eskariak gelditzeaz gain, garraioa ere gelditu egin zela hilabetetan zehar, bai pertsonen garraioa, bai merkantzia. Ondorioz, are gehiago zaildu zen kanporako merkataritza-fluxua.


85. koadroa Espainiar Estatuko makina-erreminten sektorearen aldagai nagusien bilakaera

Kontzeptua	2018	2019	2020	%Δ 20/19
1. Produksioa	1.192,3	1.085,8	870,5	-19,8
2. Barne-salmentak	328,2	287,8	252,3	-12,3
3. Esportazioak	1.004,4	922,5	714,7	-22,5
4. Inportazioak	542,2	520,9	314,7	-39,6
5. Ageriko kontsumoa (*)	745,2	698,0	480,7	-31,1
6. Esportazio-proporzioa = 3/1	% 84,2	% 84,96	% 82,10	-3,4
7. Inportazio-proporzioa = 4/5	% 72,8	% 74,63	% 65,47	-12,3

(*): Ekoizpena – esportazioak (erabilitako makineria salbu) + inportazioak.
Iturria: AFM.

Hala, esportazioen proporzioa (esportazioak/ekoizpena) % 82,1ekoa izan zen (2019an ia % 85ekoa), eta inportazioen proporzioa (inportazioak/ageriko kontsumoa) ez zen % 66ra iritsi (% 74,6 2019an).

18. grafikoa Makina-erreminten sektoreko merkataritza-balantza



Iturria: AFM.

Datuak herrialdeka aztertuta, joera orokorra eskaria murriztea izan zen, baina salbuespenak izan ziren India (% 4,6ko kuota eta % 7,9ko hazkundea), Erresuma Batua (% 3,5 eta % 47,1, hurrenez hurren) eta Errusia (% 2,6 eta % 46,5, hurrenez hurren). Dena

den, gainerako merkatu nagusietan beheranzkoa izan zen bilakaera, hala nola Alemanian, non % 11,4ko partaidetza eta % 31,5eko jaitsiera handia izan zuten. Hurrengoak Estatu Batuak (% 9,9 eta -% 24,3), Frantzia (% 8,8 eta -% 10,2), Italia (% 7,1 eta -% 32,4) eta Txina (% 7 eta -% 27,1) izan ziren, eta, presentzia baxuagoarekin, Mexiko (% 5,5 eta -% 32,3) eta Portugal (% 5,4 eta -% 44,6).

Nabarmendu beharrekoa da Txinaren suspertze-abiadura oso azkarra dela. Hortaz, eremu negatibotik gainerako herrialdeak baino askoz lehenago aterako dela aurreikusten da, eta horrek mesede egin diezaioke Estatuko industriari. Joe Bidenek iragarritako ekonomia bultzatzeko plana ere aldeko beste datu bat da. Ezustekorik ezean, plan horrek mundu mailako suspertze ekonomikoa azkartu beharko luke.

86. koadroa Espainiako makina-erreminten esportazioen jomugako herrialde nagusiak

Herrialdea	2019	2020*	%Δ 20/19
Alemania	118,9	81,4	-31,5
Estatu Batuak	93,5	70,8	-24,3
Frantzia	69,9	62,8	-10,2
Italia	74,6	50,4	-32,4
Txina	68,7	50,1	-27,1
Mexiko	57,6	39,0	-32,3
Portugal	69,7	38,6	-44,6
India	30,3	32,7	7,9
Erresuma Batua	17,0	25,0	47,1
Errusia	12,7	18,6	46,5
Gainerako herrialdeak	309,6	245,2	-20,8
Esportazioak, guztira	922,5	714,7	-22,5

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: AFM.

Inportazioei dagokienez, krisiaren isla argi eta garbi ikusi zen herrialde inportatzaile nagusiekiko merkataritza-jardueraren bilakaeran. Jaitsiera handiak izan ziren herrialde guztien kasuan. Testuinguru horretan, bi herrialdek osatu zuten inportazio-jardueraren zatirik handiena, Alemaniak (% 26,2ko ordezkartza eta -% 43,9) eta Italiak (% 20,9 eta -% 34,2). Txinak eta Japoniak % 8 inguruko partaidetza izan zuten eta hirugarren eta laugarren postuan kokatu ziren % 28,8ko eta % 44,6ko jaitsierak izan ondoren, hurrenez hurren. Izan ere, jaitsiera horien ondorioz, inportatzaileen rankingeko lekuak trukatu zituzten. Herrialde hauek, berriz, oso partaidetza txikia izan zuten, % 6tik beherakoa: Frantzia, Suitza, Turkia eta Erresuma Batua. Horietan asko murriztu zen inportazioen maila.

87. koadroa Espainiak inportatutako makina-erreminten jatorrizko herrialde nagusiak

Herrialdea	2019	2020*	%Δ 20/19
Alemania	146,9	82,4	-43,9
Italia	100,1	65,9	-34,2
Txina	36,1	25,7	-28,8
Japonia	45,7	25,3	-44,6
Frantzia	24,3	16,5	-32,1
Suitza	17,5	12,7	-27,4
Taiwan	24,7	10,3	-58,3
Turkia	16,4	9,7	-40,9
Hego Korea	12,3	9,4	-23,6
Erresuma Batua	16,4	8,5	-48,2
Gainerako herrialdeak	80,5	48,3	-40,0
Inportazioen guztizkoa	520,9	314,7	-39,6

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: AFM.

Estatuko industriaren aurreikuspeni dagokienez, AFMren arabera 2021eko lehen hilabeteetan suspertzea egon da, eta hori denboran mantenduko balitz, krisiaren aurreko ekoizpen mailatik gertu itxi liteke 2021eko ekitaldia. Gainera, 2021eko bigarren seihilekorako makineriaren Renove Plan berri posible bat iragarri dute, eta hori pizgarri handia izango litzateke garai gogor hauetan Estatuko eskaria igotzeko. Nolanahi ere, sektore erabiltzaileei dagokienez, zalantzak daude merkatu nagusienetako baten bilakaeraren inguruan, ibilgailu autopropulstuen industriaren inguruan, hain zuzen ere. Izan ere, industria hori bere krisi propioan barneratuta dago, mugikortasun berri baterako trantsizioak eta lehengaien eta erdieroaleen gabeziak eraginda; egoera horrek zaildu egiten du industriaren suspertzea eta moteldu egiten ditu inbertsioak.

Nolanahi ere, AFMk proiektu estrategiko bat aurkeztu du, "e-Machine, Digital Workshop". Proiektu horrek jarduera eta enplegua babesteko neurriak aurreikusten ditu, baita oinarri industrialak berriro hornitzeko neurriak eta sektorea eraldatzeko anbizio handiko proiektu bat ere, digitalizazioan eta jasangarritasunean oinarrituta.

6.4 ESKU-ERREMINTA

Historia hurbileko ekitaldirik zailenetakoa izan zen 2020koa. Eskuin Burdindegi eta industria-hornikuntzaren klusterreko enpresa ekoizleek 358 milioi euro fakturatu zituzten, 2019an baino % 5,7 gutxiago. Langile kopurua, berriz, 1.900 pertsonakoa izan zen, 2019ko berdina.

Eskuinek argitaratutako informazioaren arabera, 2020an bi portaera oso ezberdin ikusi ahal izan ziren. Lehenengo seihilekoan salmentak asko jaitsi ziren (-% 24), eta emaitzak okerragoak izan ziren barne-merkatuan (-% 30), esportazioen merkatuan baino (-% 19).

Bigarren seihilekoan, berriz, jarduera apur bat suspertu zen, eta 2020ko hirugarren hiruhilekoa azken urteetako onenetakoa izan zen.

Ziurgabetasun handiko testuinguru horretan, barne-merkatuaren fakturazioa 173,3 milioi eurokoa izan zen (-% 12,2), eta ahuldu egin zen guztizkoaren gaineko partaidetza, bezeroen segmentu nagusien urte arteko aldakuntzak negatiboak izan baitziren. Hala, industria-sektorean, % 48ko kuotarekin, salmentak % 13,3 murriztu ziren. Eraikuntza-sektorean, berriz, jaitsiera % 14koa izan zen; salmenten % 43 dagozkio sektore horri. Nekazaritzak, partaidetza txikiagoa izan arren (% 9), ez zion joera orokorrari jarraitu eta goranzko bilakaera izan zuen. Hala, % 8 hazi zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

88. koadroa Sektorearen magnitude nagusien bilakaera.

Kontzeptua	<i>(M euro)</i>		
	2019	2020 ^(*)	% 20/19
Produkzioa	380,5	358,6	-5,7
Barne-salmentak	197,5	173,3	-12,2
-Industria	97,2	84,2	-13,3
-Eraikuntza	87,4	75,1	-14,1
-Nekazaritza	12,9	14,0	8,0
Esportazioak	183,0	185,2	1,3

()*: Behin-behineko datuak.

Iturria: Eskuin –Burdindegia eta industria-hornikuntzaren klusterra–.

Esportazioei dagokienez, urteko balantzea oso positiboa izan zen, 186 milioi euroko fakturazioarekin, 2019ko ekitaldian baino % 1,3 handiagoa. Aurreko urteetan bezala, EB izan zen Estatuko produktuen esportazioen hartzaile nagusia, hara bideratu baitziren kanpo-salmenten % 77,2, batez ere, Frantziara, Alemaniara eta Portugalera.

Gainerako merkatuei dagokienez, Amerikara bideratu ziren esportazioen % 9,3, Ekialde Ertainera % 5,7 eta, azkenik, % 2 eta % 3 artean Afrikara, Errusiara eta Ekialdeko Europara, eta Asia eta Ozeaniara.

Kapitulu honekin amaitzeko, etorkizuneko aurreikuspenak errepatatuko ditugu. Eskuinekin honakoa adierazi du suspertzeari buruz: *“Gure erroñkei dagokienez giltzarriak izango dira gure lantegien eta ekoizpen-prozesuen digitalizazioa, ekoizpen eraginkorreko estrategiak eta lean manufacturing ezartzea, eta salmentarako kanal anitzetan gure posizionamendua hobetzea, bereziki, sarean”*.

7. PAPERERA

7.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Confederation of European Paper Industries-ek (CEPI) emandako datuetatik abiatuta, Paper eta Ore Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak (ASPAPPEL) emandako informazioaren arabera, 2020an 85.100 mila tonara jaitsi zen nazioartean ekoiztutako paper eta kartoi kopurua; hau da, aurreko urtean baino -% 5 gutxiago ekoitzi zen.

89. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena (CEPIko kideak)

Urtea	m Tm	% Δ
2015	90.872	-0,1
2016	90.982	0,1
2017	92.173	1,3
2018	92.200	0,0
2019	89.581	-2,8
2020*	85.100	-5,0

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetan oinarrituta.

Paperaren ekoizpena herrialdeen arabera aztertuta, eta datuak 2019ari dagozkiola kontuan izanda, Txinaren eta Estatu Batuen artean ekoitzi zuten guztizko bolumenaren erdia baino gehiago (% 52,7). Europari dagokionez, Alemania eta Finlandia nabarmendu ziren, baina haien pisu erlatiboak askoz txikiagoak izan ziren (% 6,5 eta % 2,9, hurrenez hurren).

90. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena,
 herrialdeka

Herrialdea	(m tona)	
	2019*	% Δ
Alemania	22.070	-2,7
Austria	4.985	-1,4
Belgika	1.766	-9,2
Bulgaria	215	-8,1
Danimarka	68	3,0
Espainia	6.437	4,5
Finlandia	9.711	-7,9
Frantzia	7.323	-7,0
Grezia	274	6,2
Hungaria	790	4,8
Italia	8.957	-2,0
Holanda	2.895	-2,9
Polonia	4.870	0,3
Portugal	2.249	-1,1
Erresuma Batua	3.851	-1,1
Txekiar Errepublika	882	4,6
Eslovakia	732	-2,5
Suedia	9.616	-5,2
Norvegia	1.055	-7,1
Suitza	1.028	-0,6
Brasil	10.650	1,0
Kanada	9.555	-6,1
Txina	108.666	-1,2
Estatu Batuak	69.125	-4,2
India	15.448	1,5
Japonia	25.390	-2,6
Errusia	9.003	0,6

(*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2019ko informazioa baino ez dago eskuragarri.

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

Arreta orearen ekoizpenean jarrita, 2019an Estatu Batuak, Brasil eta Kanada izan ziren eragile nagusiak; hiruren artean osatu zuten ekoizpen osoaren erdia baino gehiago (% 53,8). Europa mailan, Suediak eta Finlandiak % 8 inguruko partaidetzak erregistratu zituzten.

91. koadroa Ore-ekoizpena, herrialdeen arabera

Herrialdea	(m tona)	
	2019*	% Δ
Alemania	2.326	-5,4
Austria	1.629	0,1
Belgika	500	-0,2
Bulgaria	210	2,4
Danimarka	0	--
Espainia	1.657	-3,3
Finlandia	11.418	0,1
Frantzia	1.600	-0,4
Grezia	0	--
Hungaria	0	--
Italia	325	-11,9
Holanda	34	13,3
Polonia	1.181	2,1
Portugal	2.652	-0,6
Erresuma Batua	220	-2,2
Txekiar Errepublika	534	29,0
Eslovakia	688	-0,7
Suedia	11.666	1,2
Norvegia	828	-6,7
Suitza	91	-9,9
Brasil	19.691	-6,6
Kanada	15.572	-4,5
Txina	12.784	5,5
Estatu Batuak	45.274	-3,9
India	2.050	0,0
Japonia	8.368	-2,9
Errusia	8.385	-1,1

(*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2019ko informazioa baino ez dago eskuragarri.

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

7.2 SEKTOREA ESPAINIAN

ASPAPEL-en Txosten Estatistikoaren arabera, 2020an -% 2,6 murriztu zen paperaren eta kartoiaren ekoizpena Espainian, eta 6.268,5 mila tonakoa izan zen. CEPIren esparruan are gehiago murriztu zen ekoizpena (% 5).


Halaber, paperaren esportazioak eta inportazioak (2.592,9 mila eta 2.877,3 mila tona, hurrenez hurren) ere jaitsi egin ziren 2020an Espainian (hurrenez hurren, -% 2,2ko eta -% 6,8ko jaitsierak), paperaren ageriko kontsumoa -% 5,1 murriztu baitzen (6.522,9 mila tona). Hala, 2020an Estatuko paperaren merkataritza-balantzaren saldo negatiboa -284,4 mila tonara murriztu zen (2019an -437,3 mila tonakoa izan zen saldo negatiboa).

92. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa. Espainia, guztira

Urtea	Produkzioa	Inportazioa	Esportazioak	Ageriko kontsumoa
2011	6.202,6	3.180,4	2.955,3	6.427,7
2012	6.176,7	2.938,2	2.957,0	6.157,9
2013	6.181,5	2.950,8	3.047,4	6.084,9
2014	6.035,7	3.136,7	2.915,1	6.257,4
2015	6.195,2	3.208,3	2.796,2	6.607,3
2016	6.218,6	3.256,0	2.830,1	6.644,5
2017	6.217,8	3.266,6	2.681,4	6.802,9
2018	6.156,6	3.288,4	2.584,9	6.860,1
2019	6.436,6	3.088,4	2.651,1	6.873,9
2020	6.268,5	2.877,3	2.592,9	6.522,9

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

19. grafikoa Paperaren sektorearen aldagai nagusien bilakaera Espainian



Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

Eremu geografiko handien arabera, ohiko joerari jarraituz, 2020an ere EB izan zen Estatuaren merkataritza-bazkide nagusia. EBtik egin ziren ziren kanpo-erosketen % 88, eta EBra egin ziren kanpo-salmenten % 62. Zehatzago esanda, Finlandiatik egin ziren inportazioen % 16 eta Frantziatik beste % 16. Esportazioen kasuan berriz, Portugalera egin ziren esportazioen % 21 eta Frantziara % 20.

Paper mota ezberdinen arabera, 2020an behera egin zuen honakoen ekoizpenak: prentsa eta inprimatzea eta idazketa, beste paper batzuk eta kartoi iztukatua (-% 33,2, -% 9,2 eta -% 0,5, hurrenez hurren). Honakoenak, berriz, gora egin zuen: uhin-kartoiak, higienikoak eta sanitarioak eta beste ontzi eta enbalaje batzuk (% 5,1, % 3,2 eta % 0,5, hurrenez hurren).

93. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa, paper motaren arabera

(m Tm)

Mota	Produkzioa		Inportazioa		Esportazioak		Ageriko kontsumoa	
	2020	% Δ 20/19	2020	% Δ 20/19	2020	% Δ 20/19	2020	% Δ 20/19
Prentsa eta inprimatzea eta idazketa	638,8	-33,2	852,5	-17,8	777,3	-16,6	714,0	-32,7
Higienikoak eta sanitarioak	802,5	3,2	150,4	-2,3	209,7	10,9	743,1	0,1
Uhin-kartoirako	3.516,6	5,1	917,9	-2,1	956,1	6,7	3.478,4	2,7
– Uhinetarako	1.548,4	2,5	274,0	-12,6	347,4	6,6	1.475,0	-1,6
– Test Liner eta Kraft Liner	1.551,1	12,2	623,2	3,4	528,7	7,8	1.645,5	10,1
– Bikoak eta larruak	417,1	-7,9	20,8	-1,7	80,0	0,4	357,9	-9,2
Kartoi iztukatua	320,0	-0,5	480,3	-10,1	174,2	1,6	626,2	-8,5
Beste ontzi eta enbalaje batzuk	528,5	0,5	345,7	-5,8	412,9	2,6	461,3	-5,8
Beste paper batzuk	462,0	-9,2	130,6	121,5	62,7	3,7	529,9	4,4
Papera eta kartoia, guztira	6.268,5	-2,6	2.877,3	-6,8	2.592,9	-2,2	6.552,9	-4,7

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

Paper-orearen azpisektoreari dagokionez, 2020an 1.650,1 mila tona ekoitzi ziren, aurreko urtean baino -% 0,4 gutxiago. Era berean, jaitsi egin ziren orearen inportazioa (1.091 mila tona, -% 1eko jaitsierara) eta ageriko kontsumoa (1.713,9 mila tona, aurreko ekitaldiko bolumena baino -% 5,9 gutxiago). Esportazioak, berriz, % 9,6 hazi ziren, eta 1.027,1 mila tonara iritsi ziren.

Hala, orearen Estatuko merkataritza-balantzaren saldo negatiboa -63,9 mila tonara murriztu zen 2020an (-165,4 mila tonako saldo negatiboa izan zuen 2019an), eta estaldura-tasa % 85ekoa izan zen (aurreko ekitaldian % 85ekoa).

Berreskuratutako paperaren ageriko kontsumoa -% 0,4 murriztu zen 2020an eta 5.130,4 mila tonatan kokatu zen.

94. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa, ore motaren arabera

(m Tm)

Mota	Produkzioa		Inportazioa		Esportazioak		Ageriko kontsumoa	
	2020	% Δ 20/19	2020	% Δ 20/19	2020	% Δ 20/19	2020	% Δ 20/19
Ore birjinak, guztira	1.650,1	-0,4	1.091,0	-1,0	1.027,1	9,6	1.713,9	-5,9
Paper zaharra (ageriko bilketa)	4.384,7	-0,7	1.467,8	3,5	722,0	5,6	5.130,4	-0,4

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

Txosten honen aurreko edizioetan egindako lanari jarraipena emate aldera, berreskuratutako paperaren erabilera aztertuko dugu jarraian, adierazle hauen arabera: ageriko bilketa-tasa, erabilera-tasa eta birziklapen-tasa. Ageriko bilketa-tasa (paper zaharraren ekoizpena/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): 2020an % 66,9 (2019an % 64,3). Erabilera-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren ekoizpena): 2020an % 81,8 (aurreko ekitaldian % 80). Birziklapen-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): 2020an % 78,3 (aurreko ekitaldian % 75).

7.3 SEKTOREA EUSKAL HERRIAN

CEPIren eremuan (-% 5) eta Estatuan (-% 2,6) erregistratutako jaitsieren ildotik, Euskal Herrian ere behera egin zuen paperaren sektoreko paperaren eta kartoiaren ekoizpenak 2020an. -% 4,8ko jaitsiera erregistratu zen; hala, 1.383,9 mila tonara egin zuen atzera ekoizpenak. Hala, termino erlatiboan, Euskal Herriko beherakada handiagoa izan zen Estatukoa baino eta, ondorioz, Euskal Herriko paperaren sektorearen partaidetza-kuota apur bat jaitsi zen (2020an Espainiako ekoizpenaren % 22,1, eta aurreko ekitaldian, % 22,6).

95. koadroa Paperaren eta orearen ekoizpena Euskal Herrian

Kontzeptua	<i>(m Tm)</i>			
	2018	2019	2020	% Δ 20/19
Papera eta kartoia, guztira	1.431,0	1.453,5	1.383,9	-4,8
Orea, guztira	485,0	490,9	446,3	-9,1

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

Oreari dagokionez, Estatuko jaitsierarekin bat (-% 0,4), Euskal Herrian -% 9,1 jaitsi zen orearen ekoizpena 2020an, hau da, 446,3 mila tonara murriztu zen. Ondorioz, Estatuko ekoizpenaren gaineko kuota txikitu egin zen: % 27 2020an eta % 29,6 2019an.

Azterketaren fokua kanpoaldearekin egindako merkataritza-trukeetan jarrita, eta kontuan izanda kasu honetan zifrak monetarioak direla, 2020an -% 13 murriztu zen paperaren eta orearen esportazioa Euskal Herrian, 797.631 mila eurora arte. Inportazioak, berriz, -% 10,8 murriztu ziren, eta 523.463 mila euroan kokatu ziren. Hala, merkataritza-balantzaren saldo positiboa 274.168 mila eurora jaitsi zen (330.296 mila eurokoa izan zen 2019an).

Azkenik, paperaren sektoreko Euskal Herriko enpresa nagusiak jasotzen dira jarraian, modu sintetikoan, eta bakoitza non dagoen eta zer paper mota ekoizten duten adierazten da.

96. koadroa Euskal Herriko paperaren sektoreko enpresa nagusiak

Enpresak	Kokapena	Produkzioa
Papresa	Erreterria	Prentsarako papera
Smurfit Kappa Nervión	Iurreta	Orea, kraft papera
Smurfit Kappa Navarra	Zangoza, Cordovilla	Orea, kraft papera, uhin-kartoia eta zakuak
Sca Hygiene Spain (Essity Operations Allo)	Allo	Tisu papera
Papelera Guipuzcoana de Zikuñaga (Iberpapel)	Hernani	Inprimatzeko eta idazteko oreka eta papera
Munksjö Paper DECOR (Ahlstrom-Munksjö Paper)	Berastegi	Laminatuetarako oinarri-papera
Papelera del Oria	Zizurkil	Inprimatzeko eta idazteko papera
Papelera del Ebro	Viana	Uhin-papera eta -kartoia
Bertako	Uharte	Uhin-papera eta -kartoia
Newark San Andrés (Solidus Solutions San Andrés)	Atarrabia	Uhin-kartoia

Iturria: Fomento de la Producción. "Las 2.500 mayores empresas españolas", eta enpresen memoriak.

8. KAUTXUA

8.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Pandemiaren eraginez murriztu egin zen jarduera nazioartean. Testuinguru horretan, International Rubber Study Groupen arabera, kautxuaren kontsumoa -% 6,5 murriztu zen mundu mailan 2020an, eta 26.925 mila tonatan kokatu zen.

Kautxu mota guztiek egin zuten behera. 2020an kautxu naturalaren kontsumoa -% 6,9 murriztu zen mundu mailan, 12.702 mila tonara arte, eta kautxu sintetikoaren kontsumoa -% 6,1 murriztu zen, 14.223 mila tonara arte.

97. koadroa Kautxu naturalaren eta sintetikoaren munduko kontsumoa

Kontzeptua	Kautxu naturala			Kautxu sintetikoa			Guztira		
	2019	2020	% Δ 20/19	2019	2020	% Δ 20/19	2019	2020	% Δ 20/19
Guztira	13.640	12.702	-6,9	15.155	14.223	-6,1	28.795	26.925	-6,5

(m Tm)

Iturria: International Rubber Study Group.

8.2 KAUTXUAREN ERALDAKETA-SEKTOREA ESPAINIAN ETA EAE-N

2020ean jaitsiera gogorra izan zuten kautxuaren eraldatuen ekoizpenak eta haien ageriko kontsumoak Espainian. Jaitsiera hori lotuta dago pandemiaren ondorioz autogintzaren eta oinetakogintzaren sektoreetako jarduera erori izanarekin.

Hala, Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionalak emandako informazioaren arabera, 2020ean 737.392 tonara jaitsi zen Estatuko ekoizpena, hortaz, urte arteko -% 15,2ko jaitsiera izan zuen. Ageriko kontsumoa, berriz, -% 18,7 murriztu zen, 543.996 tonara arte.

Era berean, sektorearen fakturazioa -% 14,6 murriztu zen, 4.324,8 milioi eurora arte. Izan ere, pneumatikoen eta birkautxutatuaren azpisektorearen salmentak murriztu egin ziren (-% 15,5), baita pieza teknikoaren salmentak ere (-% 12,7).

Nolanahi ere, kontuan izan behar da pieza teknikoaren jarduerak, orokorrean, beheranzko bilakaera izan bazuen ere, latexaren eraldatuek goranzko joera argia izan zutela osasun-jardueraren azpisektoreari egindako ekarpenaren ondorioz.

Berrero ere kautxuaren eraldaketa-sektore osoa kontuan hartuta, sektorearen ekoizpen maila -% 15,2 murriztu zenez, eta sektoreko enplegua -% 2,5 jaitsi zenez, 2020an Estatuko kautxuaren sektorearen produktibitatea -% 13,1 jaitsi zen, langileko 34,8 tonakoa izateraino.

Automobilgintza-sektoreak kautxuaren eraldaketa-industrian duen garrantzi nabarmena kontuan izanik, aipatzekoa da kapitulu honen amaieran (pneumatikoen eta birkautxutatuaren azpisektorearen gaineko epigrafean) sektore horren azterketa labur bat egingo dugula.

98. koadroa Kautxuaren eraldaketa-sektorearen oinarritzko datuak ⁽¹⁾ Espainian

Kontzeptua	(Tm)		
	2019	2020	% Δ 20/19
1. Produksioa	869.672	737.392	-% 15,2
2. Ageriko kontsumoa	668.778	543.996	-% 18,7
3. Esportazioak	837.347	734.834	-% 12,2
4. Inportazioa	636.453	541.438	-% 14,9
5. Saldo komertziala	200.894	193.396	-% 3,7
6. Esportazioaren batez besteko prezioa ⁽²⁾	3,90	4,03	% 3,2
7. Inportazioaren batez besteko prezioa ⁽²⁾	4,20	4,80	% 14,5
8. Esportazioa/Ekoizpena (%)	96,3	% 99,7	% 3,5
9. Inportazioa/Ageriko kontsumoa (%)	95,2	% 99,5	% 4,6
10. Enplegua	21.737	21.204	-% 2,5
11. Produktibitatea (1/10) ⁽³⁾	40,0	34,8	-% 13,1

(1): Honako hauek barne: EJSN 22.11 (pneumatikoak eta birkautxutatuak) eta EJSN 22.19 (kautxuzko beste produktu batzuk: kautxuzko eta latexezko pieza teknikoak).

(2): Euro/kg.

(3): Tm/Enplegatu/urte.

Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.

Kanpo-merkataritzari dagokionez, kautxuaren eraldatuen esportazioen zein inportazioen bolumenek behera egin zuten 2020an (734.834 eta 541.438 tona, hurrenez hurren; bolumenaren -% 12,2ko eta -% 14,9ko jaitsierak, hurrenez hurrenez). Hala, merkataritzaz superabita 193.396 tonakoa izan zen, -% 3,7 baxuagoa.

Azpisektoreetan arreta jarrita, jaitsiera orokorra izan zen. Pneumatikoen eta birkautxutatuaren esportazioak -% 11,5 jaitsi ziren, eta pieza teknikoak, -% 15,1. Inportazioen kasuan, jaitsierak -% 19,9 eta -% 0,5ekoak izan ziren, hurrenez hurren.

99. koadroa Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritzaz, azpisektore handien arabera

Produktua	Esportazioak			Inportazioa			Saldoa		
	2019	2020	% Δ 20/19	2019	2020	% Δ 20/19	2019	2020	% Δ 20/19
Pneumatikoak eta birkautxutatuak	671.182	593.818	-% 11,5	473.953	379.734	-% 19,9	197.229	214.084	% 8,5
Pieza teknikoak	166.165	141.016	-% 15,1	162.500	161.704	-% 0,5	3.665	-20.688	-% 664,5
Guztira	837.347	734.834	-% 12,2	636.453	541.438	-% 14,9	200.894	193.396	-% 3,7

Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.

Aitzitik, termino monetariotan, pieza teknikoak kanpo-erosketak % 15,8 hazi ziren. Termino fiduziarioran, ordea, behera egin zuten esportazioek zein inportazioek (-% 9,5 eta -% 2,6, hurrenez hurren).

100. koadroa Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza, azpisektore handien arabera

(M euro)

Produktua	Esportazioak			Inportazioa			Saldoa		
	2019	2020	% Δ 20/19	2019	2020	% Δ 20/19	2019	2020	% Δ 20/19
Pneumatikoak eta birkautxutatua	2.220,8	2.011,1	-% 9,4	1.597,6	1.358,6	-% 15,0	623,2	652,5	% 4,7
Pieza teknikoa	1.048,5	948,6	-% 9,5	1.073,2	1.242,9	% 15,8	-24,7	-294,3	% 1.092,3
Guztira	3.269,3	2.959,8	-% 9,5	2.670,8	2.601,5	-% 2,6	598,6	358,3	-% 40,1

Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.

Azterketa EAEko kautxuaren eraldatze-sektorerara ekarrita, eta kautxuari eta plastikoari buruzko Eustaten Industria Ekoizpenaren Indizea (IPI) kontuan hartuta, 2020an -% 13,5 egin zuen behera IPlak (2019an % 1,8 hazi zen), pandemiaren eraginez erori egin baitzen jarduera.

Era berean, kanpoko trukeei dagokienez, EAEko kautxuaren eta manufakturen inportazioak eta esportazioak (1.159.182 eta 425.234 mila euro, hurrenez hurren) ere nabarmen jaitsi ziren 2020an (-% 7,5eko eta -% 12ko jaitsierak, hurrenez hurren). Hala, kautxuaren eta manufakturen merkataritza-balantzaren saldo positiboa -% 4,7 murriztu zen.

Datu horiek Estatuko datuekin alderatuta, ikuspegi monetariotik, Estatuko guztizkoaren gaineko EAEko kanpo-merkataritzaren partaidetza igo egin zen esportazioen kasuan (guztizkoaren % 39,2 2020an, eta % 38,3 aurreko ekitaldian), eta murriztu egin zen inportazioen kasuan (guztizkoaren % 16,3 2020an, eta % 18,1 2019an).

8.3 PNEUMATIKOEN ETA BIRKAUTXUTATUAREN AZPISEKTOREA

Azterketa pneumatikoen eta birkautxutatuaren azpisektorean zentratuta, Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionalaren arabera, 2020an -% 15 egin zuen behera sektoreko ekoizpenak, 557.077 tonara arte. Ageriko kontsumoa, berriz, -% 25,2 murriztu zen eta 342.993 tonatan kokatu zen.

Kanpo-merkataritzak ere behera egin zuen: pneumatikoen eta birkautxutatuaren esportazioak -% 11,5 murriztu ziren, 593.818 tonara arte, eta inportazioak -% 19,9 jaitsi ziren, 379.734 tonara arte. Hala, joera esportatzailea % 106,6koa izan zen, eta joera inportatzailea % 110,7koa.

Horrekin lotuta, gogoratzekoa da pandemiaren ondorioz okerrerako bilakaera izan zuela automobilgintza-sektoreak (pneumatikoen eta birkautxutatuaren bezeroa), kapitulu honen hasieran aipatu dugun moduan.

101. koadroa Pneumatikoen eta birkautxutatuaren ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkataritza

Kontzeptua	(Tm)		
	2019	2020	% Δ 20/19
1. Produksioa	655.511	557.077	-% 15,0
2. Esportazioak	671.182	593.818	-% 11,5
3. Inportazioa	473.953	379.734	-% 19,9
4. Ageriko kontsumoa	458.282	342.993	-% 25,2
5. 2/1 x 100	% 102,4	% 106,6	% 4,1
6. 3/4 x 100	% 103,4	% 110,7	% 7,1

Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.

Kautxuaren sektorearen eta automobilgintza-sektorearen arteko lotura estua kontuan izanda, azken horren bilakaera aztertuko dugu jarraian, labur. Zentzu horretan, Automobilen eta Kamioien Fabrikatzaileen Espainiako Elkartearen (ANFAC) arabera, 2020an 1.030.746 ibilgailu matrikulatu zituzten, aurreko urtean baino -% 31,3 gutxiago. Ibilgailuen ekoizpenak eta esportazioek ere nabarmen egin zuten behera: -% 19,6 eta -% 15,5, 2.268.185 eta 1.951.448 unitatera iritsi arte, hurrenez hurren.

102. koadroa Ibilgailuen ekoizpena eta salmenta Espainian

Kontzeptua	(unitateak)								
	Produksioa			Esportazioak			Matrikulazioak ⁽¹⁾		
	2019	2020	% Δ 20/19	2019	2020	% Δ 20/19	2019	2020	% Δ 20/19
Turismoak	2.248.291	1.800.664	-19,9	1.904.311	1.588.889	-16,6	1.258.251	851.210	-32,3
Industria-ibilgailuak ⁽²⁾	574.341	467.521	-18,6	405.759	362.559	-10,6	239.495	177.365	-25,9
Autobusak eta autokarrak	0	0	-	0	0	-	3.498	2.171	-37,9
Guztira	2.822.632	2.268.185	-19,6	2.310.070	1.951.448	-15,5	1.501.244	1.030.746	-31,3

(1): Matrikulazioen kontzeptua barne-salmentena baino zabalagoa da; saldu gabe edo stockean dauden ibilgailuak ere barne hartzen ditu. Turismoen matrikulazioen zifrak lur orotako ibilgailuen matrikulazioak ere aintzat hartzen ditu.

(2): Honako hauek barne hartzen ditu: pick-upa, traktokamioiak, industria-ibilgailu arinak eta astunak, furgonetak eta merkataritza-ibilgailu arinak.

Iturria: ANFAC.

Azkenik, txosten honen aurreko edizioetan egindako lanari jarraipena emateko, Euskal Herrian kokatzen diren pneumatikoen fabrikatzaile nagusien inguruko aipamen labur bat egingo dugu: Michelin eta Bridgestone.

Michelinen Euskal Herriko fabrikak Gasteizen, Araian (Araban; izatez, logistika-zentro bat da), eta Lasarten (Gipuzkoan) daude, eta haietan garatzen du jarduera. Enpresa multzoak 625 milioi euroko irabazi garbia izan zuen 2020an, aurreko ekitaldian baino -% 63,8 baxuagoa. Izan ere, pandemiaren eta mundu osoko gobernuak birusaren hedapena saihesteko hartutako neurrien ondorioz aurrekaririk gabeko desazelerazioa izan zuen jarduera ekonomikoak 2020ko lehen erdian, eta gogor kaltetu zen pneumatikoen eskaera. Euskal Herriari dagokionez, aipatzekoa da 2020an zehar Michelinek enplegua erregulatzeko aldi baterako bi espediente jarri zituela martxan: lehenengoak

(konfinamenduan zehar) Lasarteko eta Gasteizko lantegiei eragin zien (eta Estatuko beste batzuei), eta bigarrenak Gasteizekoari baino ez.

Arreta Bridgestonen jarrita, Euskal Herriari dagokionez, Basaurin eta Usansolon ditu lantegiak. 2020an bi lantegiek izan zuten enplegua erregulatzeko aldi baterako espedientea, maiatzaren 22tik irailaren 30era.

9. SEKTORE ELEKTRONIKO-INFORMATIKOA

9.1 SEKTOREA ESPAINIAN ETA NAZIOARTEKO JOERAK¹

Telekomunikazioen eta Informazioaren Gizartearen Behatoki Nazionalak (ONTSI) 2021eko otsailean argitaratutako "Espainiako IKT sektorearen, hedabideen eta ikus-entzunezko zerbitzuen gaineko 2020. urteko txostenaren" arabera, Estatuan bilakaera positiboa izan zuen sektore horrek 2019an. Enpresen bolumena % 2,2 hazi zen, eta 35.884 enpresa izatera iritsi ziren; fakturazioa % 4,7 hazi zen, 120.566 milioi eurora arte; sektoreko enpleguak % 4,6 egin zuen gora, 557.504 pertsona okupatura iritsi arte; eta inbertsioa % 7,2 handitu zen, 18.429 milioi eurora arte.

Nazioartean, aipatutako txostenaren arabera, pandemiaren eraginez 2020an izandako sektorearen esperotako beherakadaren ostean, 2021erako jarduerak gora egitea aurreikusten dute herrialde gehienetan. Zehazki, 2019 eta 2024 urteen artean IKTen sektoreak mundu mailan urtean % 2,8ko hazkunde konposatua izatea aurreikusten dute. (Aipatutako azterlanak 2019-2024 aldirako aurreikuspenak egiten ditu). Latinoamerika eta Txina izango dira lurralde dinamikoenak (urteko % 5,7ko eta % 5,1eko hazkunde konposatua, hurrenez hurren). AEBren (% 3,1) eta Mendebaldeko Europaren (% 1,9) hazkundeak, berriz, apalagoak izango dira. Bestetik, Espainiak % 0,7ko urteko hazkunde konposatu txiki bat izango du aldi horretan.

9.2 SEKTOREA EAEN²

Komeni da gogoratzea Euskal Herriko Ezagutzaren eta Teknologia Aplikatuaren Industrien Elkarteak (GAIA) berrantolatu egin zutela 2019an. Jarduera-sektoreetara bideratutako ikuspegi tradizionala alde batera utzi, eta lehentasunezko teknologia bideratzaileetan jarri zuten fokua. Hala, ikuspegi berri horretan hainbat azpisektore bereizten dira, eta azpisektore horietako lidergoa honako teknologietan espezialistak diren enpresei dagokie: Adimen Bisuala, Zibersegurtasuna, Gauzen Internet (IoT) eta Adimen Artifiziala.

2020an 311 enpresak osatzen zuten GAIA, 2019an baino 44 gehiagok. Hala, aurreko ekitaldian erregistratutako gorakada baieztatu zen (267 enpresa ziren 2019an, eta 254, 2018an).

¹ Atal honetan IKTen sektorea aztertuko dugu: Ondasun eta zerbitzu digitalen ekoizpena: HW fabrikazioa, SW fabrikazioa, IT zerbitzuak, informazio- eta telekomunikazio-zerbitzuak.

² Euskal Herriko Ezagutzaren eta Teknologia Aplikatuaren Industrien Elkarteak (GAIA) emandako informazioarekin osatu dugu atal hau. Elkarteko kide diren eta EAeko sektorearen egoera orokorra azaltzen duten enpresei dagokie atal honetako informazioa.

103. koadroa Sektore eletroniko-informatikokoko eta telekomunikazioen sektoreko enpresen bilakaera EAEn

Urtea	Enpresak
2011	267
2012	260
2013	265
2014	245
2015	243
2016	254
2016*	279
2017*	258
2018*	254
2019*	267
2020*	311

(*): GAIA+AVIC.

Iturria: GAIA. Geuk egina.

Sektoreko ekoizpenari dagokionez, 2020an ekoizpena egonkor mantendu zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta 5.350 milioi eurotan kokatu zen. Horrekin lotuta, aipatzekoa da GAIK positibotzat jotzen duela bilakaera hori, izandako testuinguru asaldatua kontuan hartuta. Familien arabera, bilakaera hori ezberdina izan zen. Izan ere, IKTen eta Elektronikaren arloetako enpresek gorakada txiki bat izan zuten. Aholkularitza eta Ingeniaritza arloetako enpresen negozio-zifrak, berriz, behera egin zuten apur bat (nazioarteko proiektu estrategikoak gelditu edo atzeratu egin zirelako, batez ere).

104. koadroa Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko ekoizpenaren bilakaera EAEn

Urtea	Produktzioa M eurotan	% Δ
2011	2.911,0	-2,8
2012	2.742,0	-5,8
2013	2.702,1	-1,5
2014	2.768,0	2,4
2015	2.909,0	5,1
2016	3.530,0	21,3
2016*	4.742,0	--
2017*	4.958,0	4,6
2018*	5.171,0	4,3
2019*	5.352,0	3,5
2020*	5.350,0	0,0

(*): GAIA+AVIC.

Iturria: GAIA. Geuk egina.

2020an, non mundu mallako eskaria artatzeko eta kudeatzeko mugak egon ziren, sektorearen esportazioek -% 5,4 egin zuten behera, eta 2.223 milioi eurotan kokatu ziren.

105. koadroa Sektore elektronikoinformatikoko eta telekomunikazioen sektoreko esportazioen bilakaera EAEn

Urtea	Esportazioak (M euro)	% Δ	Esportazioak/ Ekoizpena
2011	943,0	10,9	32,4
2012	1.053,0	11,7	38,4
2013	1.076,8	2,3	39,8
2014	1.084,2	0,7	39,2
2015	1.117,0	3,0	38,4
2016	1.179,6	5,6	33,4
2016*	1.966,0	--	41,5
2017*	2.045,4	4,0	41,3
2018*	2.164,0	5,8	41,8
2019*	2.350,0	8,6	43,9
2020*	2.223,0	-5,4	41,6

(*): GAIA+AVIC.

Iturria: GAIA. Geuk egina.

Testuinguru horretan, sektoreko enplegua % 1 hazi zen 2020an, eta 20.732 pertsona okupatu izatera iritsi ziren. Hala, jarraipena eman zitzaion 2018an hasitako hazkunde-erritmoaren geldotzeari.

106. koadroa Sektore elektronikoinformatikoko eta telekomunikazioen sektoreko enpleguaren bilakaera EAEn

Urtea	Langileak	% Δ
2011	11.410	0,1
2012	10.807	-5,3
2013	10.797	-0,1
2014	10.564	-2,2
2015	11.007	4,2
2016	11.447	4,0
2016*	18.517	--
2017*	19.276	4,1
2018*	20.030	3,9
2019*	20.528	2,5
2020*	20.732	1,0

(*): GAIA+AVIC.

Iturria: GAIA. Geuk egina.

2020an GAIako enpresek 144 milioi euro inbertitu zituzten I+G arloan, aurreko urtean baino % 7 gehiago. Gainera, aurreikuspenen arabera, argi dago arlo hau hazi egingo dela. Izan ere, une honetan garrantzi handia hartzen ari da teknologia, eta mota guztietako erakundeetan teknologia digitalak txertatzeko beharra dute.

Etorkizunari begira, nabarmentzekoa da 2020aren amaieran “2021-2027 aldirako Plan Estrategikoa” eta “Sektorea Berraktibatze Bide Orria 2021-2023” aurkeztu zituztela. Sektorea indartzea eta digitalki aurreratuak, jasangarriak eta lehiakorak izango diren industria eta lurralde bateranzko trantsizioan laguntzea da planaren helburua. Sektorea Berraktibatze Bide Orriak, berriz, epe laburreko dinamikak, proiektuak eta operazioak identifikatzen ditu hiru trantsizio-eremutan: energia eta klima, arlo soziosanitarioa eta arlo teknologiko-digitala.

10. ERAIKUNTZA

2020an bizitako egoerak eragin handia ekarri dio eraikuntza-jarduerari ere, eta izandako inpaktua bi unetan sailkatu daiteke. Batetik, pandemiaren eragina kontrolatzeko hartutako neurri murriztaileek eragindako inpaktua, funtsezko jardueren kategorian sailkatuta ez egoteagatik kontratu publikoak etetea eta obrak, oro har, gelditzea ekarri zuten neurrien inpaktua, hain zuzen¹. Bestetik, pandemia-egora luzatzeak izandako inpaktua, baldintzatu egin baititu ekoizpenaren berrantolaketa eta eragileen igurikimenak eta erabakiak, eta horren ondorioak ikusgarriagoak izango dira, batez ere, 2021ean. Azken finean, 2020a kolpe gogorra izan da sektorearentzat, hain justu, 2008an hasitako krisiaren ostean doitze-aldi luze bat izan eta orain suspertze-zantzuak izaten hasia zegoen sektorearentzat.

Eraikuntzako industriaren adierazle nagusiek erakusten dute Estatuan eta Euskal Herrian sektoreko jardueran izan den inpaktu negatibo hori. Estatuan, zehazki, aztertu diren bost jarduera-adierazleetatik lauk (honi atxikitako taulan daude jasota) datu negatiboekin itxi dute ekitaldia, eta salbuespen bakarra amaitutako etxebizitzaren kopuruak urtetik urtera izandako igoera izan da (% 10,3). Aldiz, hasitako etxebizitzaren bolumenari dagozkion adierazleek (-% 20,2) eta lizitazio-jarduerari (-% 20,1) dagozkion adierazleek beherakada handiak izan dituzte, jarduera gelditu egin delako, ekoizpeneko lehentasunak berrantolatu direlako eta/edo telelanerako sistemak Administrazioaren prozedurara doitu dira, beste faktore batzuen artean. Ondorioz, Estatuan, zementuaren ageriko kontsumoak ere behera egin zuen (-% 9,7), batez ere martxoan eta apirilean jarduerak izandako geldialdiagatik (Oficemen²). Azkenik, enpleguak jasandako inpaktua txikiagoa izan zen (-% 2,6) eta ABEEE-ek murriztu egin zuten, aukera eman baitzuten jardueraren gelditze behartua izan arren, enpleguari eusteko; hala eta guztiz ere, 2020an eten egin da enpleguaren berreskurapenak azken bost urteetan izandako joera.

Azkenik, Seopan³ elkartetik gaur egungo ziurgabetasun-egoera nabarmendu dute, jarduera berrezartzeko garrantzitsuak diren askotariko faktoreek baldintzatutako egoera, hain zuzen, eta faktore horien artean daude, pandemia eta haren osasun-ondorioak eraginkortasunez kontrolatzeaz gain, krisi-ekonomikoaren eta enplegu-krisiaren lehengoratzeko eraginkorra, eragileen igurikimenak hobetzea eta inbertsio-erabakien dinamizazioa. Alegia, ziurgabetasun orokorra arinduko duen egoera batera, jarduera normalizatuaren erritmoak berreskuratuko dituen egoerara, itzultzea. Bestalde, eta aurreko krisietan ez bezala, ekintza publikoak krisi honen ondorioen euspenean izandako zeregina aitortu da; hor nabarmentzen dira EBren NEXT Generation funtsak, eta bereziki nabarmentzen da funts horiek eraginkortasunez erabiltzea. Funtsak 35.000 milioi ingurukoak dira eta honako helburu hauek sustatzera daude zuzenduta, besteak beste:

¹ SND/340/2020 Agindua, apirilaren 12koa.

² Espainiako zementu-fabrikatzaileen elkarteak.

³ Enpresa eraikitzaileen eta azpiegituren lizitatzailen elkarteak.

etxebizitza eskuratzea eta etxegintza sustatzea, energia-trantsizioa eta ekonomia zirkularraren estrategia. Hala ere, eta 2021ean gauden honetan, kezka sortu dute, bereziki, lehengaien horniketean sortutako zailtasunek eta mundu mailako berraktibazioak lehengaien prezioari ekarritako igoera nabarmenak. Aldi berean izan da berraktibazio hori, eta merkatuaren¹ segmentu guztiei eragiten die.

107. koadroa Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera

Kontzeptua	Euskal Herria		Espainia	
	2019	2020	2019	2020
Enplegua	5,2	-3,2	4,6	-2,6
Zementuaren ageriko kontsumoa (*)	9,8	-14,0	9,3	-9,7
Amaitutako etxebizitzak	10,8	-8,2	22,1	10,3
Hasitako etxebizitzak	5,4	-25,2	5,3	-20,2
Lizitazio ofiziala	5,0	-27,0	9,1	-20,1

(*): *Oficemen-eko Ipar Eremuko (Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) bazkideen zementuaren itxurazko kontsumoari egiten dio erreferentzia.*

Iturria: Geuk egina, EIN, Seopan eta Oficemen datuetatik abiatuta.

Euskal Herriaren ikuspegitik begiratuta, eraikuntzaren sektoreko jarduerari dagozkion bost adierazleek urtetik urterako balantze negatiboa izan dute, eta aipagarriak dira hasitako etxebizitzetan eta lizitazio ofizialean izandako atzerakadak (-% 25,2koa eta -% 27,0koa, hurrenez hurren). Era berean, negatiboak dira, baina pixka bat apalagoak amaitutako etxebizitzetan balantzea (-% 8,2) eta zementuaren kontsumoarena (-% 14,0). Amaitzeko, enplegu-adierazleak ere emaitza negatiboa izan du (-% 3,2), baina aztertutako bost adierazleetatik txikiena da. Azken finean, balantze negatiboa izan du sektoreko jarduerak, eta aipagarria da Euskal Herrian pixka bat okerragoa dela Estatuan baino.

108. koadroa Eraikuntzaren Indize Koiunturala (EAE)

Kontzeptua	2018	2019	(% Δ)
			2020(*)
Okupatutako langileen indizea	4,5	3,1	-2,0
ekoizpen-indizea	12,3	8,7	-7,3
Etxegintza	13,2	9,2	-7,5
Obra zibila	6,7	5,6	6,0

(*): *Behin-behineko datuak.*

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Indize Koiunturala (EIK) (2010eko oinarria).

EAEko Eraikuntzaren Indize Koiunturalak emandako informazioak baieztatu egin du 2020an sektorean izandako ziurgabetasun- eta dezelerazio-giroa, datu negatiboak izan baitira aztertutako lau adierazleetatik hirutan. Ekitaldia datu positiboekin amaitu du Obra Zibilak (% 6,0), eta jarraipena eman dio, hala, aurreko ekitaldian izandako gorakadari (2019an % 5,6). Aintzat hartu diren gainerako adierazleek, ordea, bizi izan dugun egoeraren

¹ Eta oso litekeena izango litzateke jada lizitatuta dauden eta gauzatzeko luzekoak diren obren esleipen-prezioetan desbideratze nabarmenak izatea.

inpaktua erakusten duten. Urtetik urterako tasak negatiboak izan dira sektoreko ekoizpenaren indize orokorrean (-% 7,3) eta Etxegintzaren segmentuan (-% 7,5), eta jaitsiera leunena okupatutako langileek izan dute (-% 2,0).

109. koadroa Administrazio Zentralaren, Autonomikoaren eta Tokikoaren arteko lizitazio ofizialaren banaketa

(M euro)

Eremua	2019				2020			
	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira
Araba	106	43,5	70,6	220,1	23,7	80,3	55,9	159,9
Bizkaia	213,9	191,8	232,4	638,1	39,6	86,8	450,3	576,8
Gipuzkoa	19,9	167,1	250,6	437,6	55,6	35,3	196,3	287,2
EAE	339,8	402,5	553,6	1.295,8	118,9	202,3	702,6	1.023,8
Nafarroa	5,4	337,7	96,3	439,5	7,2	140,6	95,5	243,2
Euskal Herria	345,2	740,2	649,9	1.735,3	126,1	342,9	798,1	1.267,1
Espainia	6.334,5	5.990,2	5.863,8	18.188,5	3.315,0	5.012,3	6.213,9	14.541,1

Iturria: Seopan.

Lizitazio-jardueraren azterketak erakusten du atzerakada (ia) orokortua izan dutela agente lizitatzailleek, eta aztertutako eremu geografiko guztietan gertatu dela hori. Estatuan, lizitatutako bolumen osoa 14.541,1 milioi eurokoa izan zen; hau da, 2019an baino 3.647,4 milioi euro gutxiago (-% 20,1). Atzerakada hori Euskal Herrian ere gertatu da: 1.267,1 milioi euro lizitatuta, 468,2 milioi euro galdu ditu, eta urtetik urtera Estatuan baino atzerakada handixeagoa (-% 27,0) izan du. Jaitsiera horretan parte hartu dute, gehiago edo gutxiago, aztertutako ia lurralde guztiek, eta aipagarriak dira Arabak, Gipuzkoak eta Nafarroak izandako atzerakadak (hurrenez hurren, -% 27,4, -% 34,4 eta -% 44,7). Bizkaiak txikixeagoa izan du (-% 9,6). Hala, azken emaitza gisa, 2019tik 2020ra, aldatu egin da partaidetza-egitura lurraldeen lizitazioan: Bizkaian indartu egin da (% 36,8tik % 45,5era), eta pisua galdu du Gipuzkoan (% 25,2tik % 22,7ra) eta Nafarroan (% 25,2tik % 19,2ra). Araban egonkor dago (% 12,7 eta % 12,6).

110. koadroa. Lizitazio ofizialaren urtetik urterako aldakuntza eta Administrazioen arteko banaketa (2020)

Eremua	%				% Δ 20/19			
	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira
Araba	14,8	50,2	35,0	100,0	-77,7	84,3	-20,8	-27,4
Bizkaia	6,9	15,0	78,1	100,0	-81,5	-54,8	93,8	-9,6
Gipuzkoa	19,4	12,3	68,3	100,0	180,2	-78,9	-21,7	-34,4
EAE	11,6	19,8	68,6	100,0	-65,0	-49,7	26,9	-21,0
Nafarroa	3,0	57,8	39,3	100,0	32,2	-58,4	-0,8	-44,7
Euskal Herria	9,9	27,1	63,0	100,0	-63,5	-53,7	22,8	-27,0
Espainia	22,8	34,5	42,7	100,0	-47,7	-16,3	6,0	-20,1

Iturria: Seopan.

Estatuan agente lizitatzaillearen arabera eginiko lizitazioaren azterketa xeheak erakusten du Tokiko Administrazioak bakarrik izan duela bilakaera positiboa (% 6,0), eta Administrazio Autonomikoak eta, batez ere, Administrazio Orokorrak jaitsiera izan dutela

jarduera-bolumenean (-% 16,3 eta -% 47,7, hurrenez hurren). Euskal Herriak ere izan du bilakaera zehaztu hori: Tokiko Administrazioak jarduera-datu hobekak izan ditu lizitazio-jardueran (% 22,8) Administrazio Autonomikoak eta Zentralak izandako atzerakada handien aurrean (-% 53,7 eta -% 63,5, hurrenez hurren). Azken emaitza gisa, Estatuan, Administrazio Zentralak, Autonomikoak eta Tokikoak % 22,8ko, % 34,5eko eta % 42,7ko ekarpena egin diote, hurrenez hurren, lizitazioari, eta Euskal Herrian, berriz, % 9,9koa Administrazio Zentralak, % 27,1koa Autonomikoak eta % 63,0koa Tokikoak.

2020an Euskal Herriko lurralde bakoitzean izandako lizitazio-jarduerak atzerakada partekatzen du negozioaren guztizkoan, baina Administrazio eta Lurraldearen arabera, aldatu egiten dira emaitzak. Hala, Araban Administrazio Autonomikoak bakarrik izan du igoera (% 84,3), eta aldiz, jaitsiera izan dute Administrazio Zentralak (-% 77,7) eta Tokikoak (-% 20,8). Bizkaian, Tokikoak izan du gorakada (% 93,8) eta atzera egin dute Zentralak (-% 81,5) eta Autonomikoak (-% 54,8). Gipuzkoan Zentralak egin du gora (% 180,2), eta bolumena galdu dute lizitazio-jardueran Administrazio Autonomikoak (-% 78,9) eta Tokikoak (-% 21,7). Azkenik, Nafarroan, atzera egin du Administrazio Autonomikoaren lizitatzeko gaitasunak (-% 58,4), gelditu egin da Tokiko Administrazioaren (-% 0,8) eta igo egin da Administrazio Zentralarena (% 32,2).

Hala, 2020ko lizitazio-jardueraren laburpen gisa esan daiteke, Bizkaian egin duela Tokiko Administrazioak inbertitzeko ahalegin handiena (% 78,1). Horren osagarri, Administrazio Autonomikoaren ekarpena % 15,0koa eta Zentralaren % 6,9koa izan da. Gipuzkoak ere Tokiko Administrazioa du eragile lizitatzailer nagusia (guztizkoaren % 68,3), eta atzetik ditu Administrazio Zentrala (% 19,4) eta Administrazio Autonomikoa (% 12,3). Araban oso egoera desberdina dute EAEko beste lurraldeekin alderatuta. Administrazio Autonomikoak pisu handiagoa du (% 50,2) Tokikoak (% 35,0) baino, eta are txikiago du Administrazio Zentralak (% 14,8). Nafarroan errepikatu egiten da egoera hori: Administrazio Autonomikoa besteen gainetik dago (% 57,8), eta atzetik ditu Tokiko Administrazioa (% 39,3) eta oso atzetik Administrazio Zentrala (% 3,0).

111. koadroa Lizitazio ofiziala obra motaren arabera (2020)

Obra mota	Euskal Herria			España		
	M euro	% Δ 20/19	%	M euro	% Δ 20/19	%
Etxebizitzak	140,3	2,4	11,1	700,4	35,9	4,8
Gizarte-ekipamendua	126,8	-46,2	10,0	3.122,2	-5,7	21,5
Gainerako etxegintza	214,9	-24,9	17,0	1.922,5	-37,3	13,2
Etxegintza, guztira	482,1	-26,9	38,0	5.745,0	-16,6	39,5
Garraioak	445,5	-24,5	35,2	4.192,4	-36,6	28,8
Urbanizazioak	217,1	-16,6	17,1	2.161,6	4,6	14,9
Hidraulikoak	98,5	-50,1	7,8	2.045,6	-9,9	14,1
Ingurumena	23,9	-15,5	1,9	396,6	13,8	2,7
Obra zibila, guztira	785,0	-27,1	62,0	8.796,1	-22,1	60,5
GUZTIRA	1.267,1	-27,0	100,0	14.541,1	-20,1	100,0

Iturria: Seopan.

Lizitazio ofizialak negozio-segmentuka izan duen bilakaerari begiratuta ekitaldian izandako zailtasunak ikusten dira: gelditze partekatua gertatu da, eta beraz, ez da egon sektorearen jarduera orekatzeko “babes-jarduerarik”. Azken finean, Euskal Herrian eta Estatuan urtetik urterako bilakaera negatiboa gailendu da, eta atzerakadak partekatua izan dira Etxegintzan (-% 26,9 eta -% 16,6) eta Obra Zibilean (-% 27,1 eta -% 22,1) lizitatutako bolumenen gutzitza.

Aztertutako segmentuen emaitzei erreparatuta ikusten da urtetik urterako bilakaera Etxebizitzetako jardueran bakarrik izan dela positiboa eta partekatua (% 2,4 Euskal Herrian eta % 35,9 Estatuan). Gainerako segmentuetan, aipagarriak dira Euskal Herrian eta Nafarroan urtetik urterako atzerakaden neurrietan batetik bestera dauden aldeak: Gizarte-ekipamenduetan (-% 46,2 eta -% 5,7, hurrenez hurren), Hidraulikoetan (-% 50,1 eta -% 9,9); aldiz, Ingurumenean (-% 15,5 eta % 13,8) eta Urbanizazioetan (-% 16,6 eta % 4,6) kontrako bilakaerak izan dira.

Hala, Etxegintzaren azpisektoreak lizitazio ofizialaren herena baino gehixeagoko ekarpena egin du bi eremuetan (% 38,0 eta % 39,5), eta bi heren inguru Obra Zibilari dagozkio (% 62,0 eta % 60,5). Alde txikiak daude segmentu bakoitzak eremuetako bakoitzean egindako ekarpenean.

Hurrengo grafikoetan ikusten da lizitazio-jarduerak aztertutako eremu bakoitzean eginiko ibilbidea, denbora-ikuspegi zabalago batetik. Garrantzitsua da aintzat hartzea krisi igaro berriak (2008-2013) nabarmen baldintzatuta egon den aldi batean administrazio bakoitzak izandako beharren eta gaitasunen (finantzaketa) emaitza direla. Horregatik izan du lizitazio-jarduerak 2014tik gorakada (joeran¹) eremu guztietan, eta hobetze hori 2019ra iritsi ondoren, kolpetik eten da 2020an. Uzkurtze hori unean unekoa izatea eta 2021ean aurreko ekitaldietatik zetorren hobekuntzarako bidea berreskuratzea espero da, nahiz eta balio globaletan urruti jarraituko duten 2008a baino lehen lizitatutako bolumenetatik.

Hala, sektorearen² arabera, eraikuntza-jarduerak izaera eragile eta berraktibatzaile garrantzitsua du, beste jarduera ekonomiko batzuk atzerantz eta aurrerantz berekin eramateko gaitasuna baitu, eta lotuta dago energia-eraginkortasuneko eta ekonomia zirkularreko estrategiekin, garapen jasangarria eta erresilientea lortzeko bidean urratsak egiten ari den gizartean. Hori horrela, honako hau adierazi dute, hitzez hitz: “eraikuntzak, gainerako sektore ekonomikoak eredu berrira igarotzea sustatzeaz gain, parte-hartze zuzena du eraldaketa horretan, eraikuntza-jasangarriagoaren eta eraginkoragoaren bidez”.

¹ Salbuespena da aintzat hartutako eremuaren neurria zenbat eta txikiagoa izan, aldakortasuna orduan eta handiagoa izatea, eta kasu horretan, emaitza unean uneko eragiketek gehiago baldintzatuko lukete.

² <https://www.youtube.com/watch?v=-z9aZXwrr1s&t=7s> (txostenaren bideoa)



Iturria: Seopan.

Etxebizitzaren eraikuntza-jarduerari 2020an sortutako egoeraren inpaktua nabaritzen zaio, eta 2021era eta 2022ra ere luzatuko da. Hala, etxebizitzaren hasiera-lanak jaitsi egin dira Euskal Herrian (-% 25,2) eta Estatuan (-% 20,2), eta bi eremuetan atzerakada handiagoa izan dute arlo librean (-% 27,6 eta -% 21,3) babestuan (-% 18,4 eta -% 11,4) baino. Ondorioz, 2020an 86.896 etxebizitzaren lanei ekin zitzaizkien Estatuan (babeestuak % 12,7

eta libreak % 87,3), eta 7.002 etxebizitza hasi ziren eraikitzen Euskal Herrian (% 27,5 babestuak eta % 72,5 libreak). Balio horiek amaitutako etxebizitzaren balioak baldintzatuko dituzte (beheraka) epe laburrean.

Euskal lurri begiratuta, aipagarria da hasitako etxebizitzek Bizkaian izandako atzerakada handia (-% 42,2), segmentu libreak atzerakada handiagoa izan baitu (-% 54,6) babestuak baino (-% 7,0). Aldiz, Araban eta Gipuzkoan, hasitako etxebizitza babestuen bolumena txikiagoa da (-% 58,7 eta -% 68,8), eta gora egin dute, aldiz, hasitako etxebizitza libreek (% 39,5 eta % 14,4). Hala, EAE osoan, eta Bizkaiaren emaitzak baldintzatuta, 2020an, hasitako etxebizitzaren bolumena atzerakadarekin itxi da bi sektoreetan (-% 38,3 babestuetan eta -% 27,8 libreetan). Azkenik, Nafarroak igoera nabarmena izan du hasitako etxebizitza babestuetan (% 176,3), eta jaitsi egin dira segmentu librekoak (-% 27,2).

112. koadroa Hasitako eta amaitutako etxebizitzak*

(etxebizitza kopurua)

Eremua	Kontzeptua	Hasitako etxebizitzak			Amaitutako etxebizitzak		
		2018	2019	2020	2018	2019	2020
Araba	Babestuak	307	463	191	40	121	122
	Libreak	508	352	491	396	444	327
Bizkaia	Babestuak	936	980	911	665	1106	218
	Libreak	2.567	2772	1.258	1.621	1373	1.709
Gipuzkoa	Babestuak	489	696	217	154	117	222
	Libreak	1542	1202	1375	1.545	1592	1.354
EAE	Babestuak	1.732	2.139	1.319	859	1.344	562
	Libreak	4.617	4.326	3.124	3.562	3.409	3.390
Nafarroa	Babestuak	366	219	605	490	327	558
	Libreak	2.170	2.683	1.954	994	1.465	1.498
Euskal Herria	Babestuak	2.098	2.358	1.924	1.349	1.671	1.120
	Libreak	6.787	7.009	5.078	4.556	4.874	4.888
Espainia	Babestuak	11.903	12.496	11.076	5.191	6.615	8.732
	Libreak	91.477	96.353	75.820	58.853	71.562	77.531


(*): Behin-behineko datuak. 2021eko maiatzeko datuak.

Iturria: Sustapen Ministerioa. Espainiako Gobernuak. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzak. Sustapen eta Etxebizitza Saila. Nafarroako Gobernuak. EIN.

Estatuan, 86.273 etxebizitza amaitu ziren 2020an, eta urtetik urterako gorakada % 32,0koa izan zen babestuen segmentuan, eta % 8,3koa libreenean. Euskal Herrian, berriz, 6.008 etxebizitza amaitu ziren, eta balantza globala negatiboa izan zen (-% 8,2), babestuen segmentuak atzerakada izan zuelako (-% 33,0), eta libreen segmentuak izandako % 0,3ko igoera txikia ez zelako nahikoa izan atzerakada hori konpentsatzeko. Jokabideetan dauden desberdintasun horiek handiagoak dira eremuaren eta etxebizitza-segmentuaren arabera. Hala, batetik, Bizkaian igo egin ziren amaitutako etxebizitza libreak (% 24,5), baina babestuak jaitsi egin ziren (-% 80,3). Araban eta Gipuzkoan, berriz, babestutako etxebizitza amaituek gorakada izan zuten (% 0,8 eta % 89,7), eta segmentu librekoek, beherakada (-% 26,4 eta -% 14,9). Hala, EAEk, etxebizitza amaituetan, urtetik

urterako saldo negatiboarekin itxi zuen 2020a, batez ere, babestuen segmentuak izandako atzerakada handiagatik (-% 58,2) eta neurri txikiagoan, etxebizitza libreek ere izandako atzerakadagatik (-% 0,6). Azkenik, aipatu behar dugu Nafarroak, Estatu osoak bezalaxe, 2020ko amaieran, 2019an baino bolumen handiagoa zuela etxebizitza amaituetan (% 14,7), babestutakoen segmentuak, librearekin alderatuta (babestuak % 70,6 eta libreak % 2,3) datu hobeak lortu zituelako (biek gora egin zuten).

21. grafikoa Amaitutako etxebizitza kopurua



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamendua. Nafarroako Gobernuaren E.I.N.

113. koadroa Birgaitze babestuaren arloko lanak EAEn*

Urtea	Birgaitutako etxebizitza kopurua	Emandako diru-laguntzak (eurotan)
2019	8.920	19.733.330
2020	5.853	14.376.773
% Δ 20/19	-34,4	-27,1

(*): Dirulaguntza jaso duten etxebizitzaren eta birgaitutako lokalen kopurua. Behin-behineko datuak.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Ekitaldiko geldialdiak erakusten du EAEko etxebizitzaren birgaitze-jarduerak¹ izandako bilakaerak. Hala, aztertuko bi irizpideek okerrera egin dute aurreko ekitalditik, eta jaitsierak izan dituzte birgaitutako etxebizitzaren kopuruan (-% 34,4) eta emandako dirulaguntzen zenbatekoan² (-% 27,1). Bi aldagai horien bilakaeraren emaitza gisa, birgaitutako etxebizitza bakoitzeko emandako dirulaguntzaren batez besteko zenbatekoa 2.456,31 eurokoa izan da (+% 11,0).

114. koadroa Eraikuntzan lanean ari den biztanleria

Eremua	(m pertsona)			
	2018	2019	2020	% Δ 20/19
Araba	6,9	6,7	4,9	-26,9
Bizkaia	25,0	30,6	31,9	4,2
Gipuzkoa	18,4	15,6	14,4	-7,7
EAE	50,3	52,9	51,2	-3,2
Nafarroa	17,8	16,2	15,6	-3,7
Euskal Herria	68,1	69,1	66,8	-3,3
Espainia	1.221,8	1.277,9	1.244,1	-2,6


Iturria: EIN Biztanleria Aktiboaren Inkesta (2011ko oinarria).

Enpleguari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkestak erakusten du galdu egin direla sektorean lanean ari ziren pertsona batzuk, eta galera hori arindu dutela Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteek (ABEEE). Hala eta guztiz ere, aztertutako eremuen arteko aldeak handiak dira: Bizkaian areagotu egin da sektoreko enplegua (% 4,2), eta murriztu, aldiz, Gipuzkoan (-% 7,7), Nafarroan (-% 3,7) eta Araban (-% 26,9). Hala, eraikuntzaren sektoreko enpleguak, Euskal Herrian, urtetik urterako saldo negatiboa du (-% 3,3), Estatukoa (-% 2,6) baino pixka bat handiagoa, eta bilakaera hori bat dator sektoreko jardueraren gainerako adierazleetan jasotako inpaktu negatibo handiagoa izatearekin. Azkenik, aipagarria da 2014ra arte sektoreko enplegua galdu egin zela, eta urte hartatik aurrera susperraldia hasi zela, baina 2014tik 2019ra arteko hobekuntza handiagoa izan zela Estatuan (% 25,2) Euskal Herrian (% 4,2) baino.

¹ Jarduera bereziki aipagarria da sektorearen garapenaren eragile gisa eta hiri-espazioak eta, zehazki, etxebizitzak birgaitzearen aldeko apustua egin duen gizarte baten zerbitzura dagoen jarduera gisa, hala, etxebizitzak jasangarritasunari eta irisgarritasunari lotutako behar eta eskakizun berrietara egokituz.

² Aurreikus daiteke, emaitza honek igoera jarraitua izango duela energia-eraginkortasunari lotutako esku-hartzei (adibidez, fatxada aireztatuak) modu orokorragoan heltzen zaien neurrian, beste irtenbide batzuek baino kostu handiagoa baitute.

22. grafikoa Eraikuntzan lanean ari den biztanleria



Iturria: EIN Biztanleria Aktiboaren Inkesta (2011ko oinarria).

Sektoreko aurreikuspenak baldintzatu ditu 2020an bizitako ziurgabetasunak, eta aurreikuspen horiek honako faktore hauen mende daude: jarduera ekonomikoaren eta Administrazioaren jardueraren (lizitazioa) berraktibazioa, baieztapena (zenbatekoak),

Europako funtsetatik sektorera datozen dirulaguntzak kudeatzea eta bideratzea (inplikaturako prozedurak eta administrazioak). Hala ere, une honetan kezka sortzen du, halaber, lehengaien merkatuen jokabideak; izan ere, luzatu egin dira hornigaiak entregatzeko epeak eta prezioen igoera¹, batez ere, munduko jarduera ekonomikoa suspertu delako eta inbertsiorako zenbait plan nazional hedatu direlako (azpiegiturak).

115. koadroa Eraikuntzako lehengaien prezioen bilakaera

	1. taldea	2. taldea	3. taldea	4. taldea	5. taldea
Urteko indizeak					
2019	102,5	106,6	102,3	103,6	102,9
2020	103,2	105,5	102,7	104,3	102,8
% Δ, urtetik urterakoa	0,6	-1,0	0,4	0,7	-0,1
Hileko indizea					
2021eko martxoa	103,5	109,9	104,3	104,0	109,5
% Δ, honi dagokiona:					
21eko martxoa/20ko martxoa	0,1	3,6	1,9	-0,7	8,1
21eko martxoa/20ko abendua	0,8	3,6	0,9	0,2	4,1

1. taldea: agregatuak, zementua, karea, hormigoia, morteroa, zeramika, aurrefabrikatuak, igeltsua eta igeltsutik eratorritakoak;

2. taldea: altzairua, egurra, sintetikoak, asfaltikoak, kautxua, beira laua, beira zapala, beira barnehutsa, egur-arotzeria, metal-arotzeria, burdineria

3. taldea: balbulak eta txorrotak, erradiadoreak eta galdarak, klimatizazioa eta aireztapena, etxetresna elektrikoak, elektrikoak ez diren etxetresnak, gailu eta osagarri elektrikoak, kable elektrikoak

4. taldea: beira-zuntza, zuntz optikoa, argiztapenerako gailuak, su-itxalgailu eta maukak, detektagailu eta alarmak, igogailuak, atezainak eta antenak, megafonia, elektronika, lehegailuak

5. taldea: pinturak, berniz eta mastikak, lauza zeramikoak, harri apaingarria, sukaldeko altzariak, kobrezko hodiak, plastikozko hodiak, zuntz-zementuzko hodiak, zeramikazko komun-ontziak

Iturria: EIN, Eraikuntzako prezioen eta askotariko materialen indizea (oinarria 100=2015eko urtarrila).

Honi atxikitako informazioak –eraikuntzako kostuei eta lehengaien prezioari buruzkoa (2021erako egongo direnak)– baieztatu egiten du kezka hori. Bi kasuetan, 2020an moteldu egin zen prezioen igoera, eskari-faltaren eta jarduera gelditzearen ondorioz, baina 2020ko laugarren hiruhilekotik aurrera izan den berraktibazioa jada baldintzatzen ari da, oro har eta salbuespenak salbuespen, igotzeko joera izaten duten sektoreko prezioak.

Materialei multzoka begiratuta, aipagarria da altzairuaren igoera; berak bakarrik izan du bi digituko igoera (% 16,7). Aipagarriak dira, halaber, zuntz optikoaren, sintetikoaren, berniz eta mastiken eta kable elektrikoaren prezioen igoerak ere, % 8 ingurukoak. Beste muturrean daude detektagailuak eta alarmak eta sukaldeko altzariak; horien prezioak % 11,8 jaitsi dira.

¹ Seopan elkarteak honako hauetan izandako urtetik urterako igoerak aipatu ditu: altzairu korrugatuetan (21eko maiatza/20ko uztaila, % 70,1), metalezko profiletan (21eko apirila/20ko abuztua, % 45,1), kobreak (21eko maiatza/20ko apirila, % 92,2), aluminioan (21eko ekaina/20ko ekaina, % 56,2), petrolioan (21eko ekaina/20ko ekaina, % 106) eta prezio industrialen indizean (21eko apirila/20ko apirila, % 12,8). Adierazi du, gainera, haien igurikimenean arabera, igoera jarraitua izango dutela prezio horiek, merkatuak metalezko lehengaietan duen bilakaeraren arabera (London Metal Exchange), eta horri gehitu behar zaio "edukiontzien itsasoko nazioarteko garraioaren prezioak igoera historikoa izan duela – Bloomberg-en DREWRY World Container Index delakoak, azken urtean % 485eko igoera izan du Shanghai-Rotterdam ibilbidean eta % 293koa 40 oineko edukiontzien zirkulazio handiena duten 8 ibilbide euroasiarren multzoan–". 2021eko ekainak 21.

116. koadroa Eraikuntzako lehengaien-materialen prezioek urtetik urtera izandako igoera (2021eko martxoa-2020ko martxoa), taldearen arabera

1. taldea		2. taldea		3. taldea		Δ %
Agregatuak	0,4	Altzairua	16,7	Balbulak eta txorrotak		1,3
Zementua	-0,3	Egurra	1,6	Erradiadoreak eta galdarak		0,0
Karea	-0,5	Sinetikoak	7,3	Klimatizazioa eta aireztapena		-0,3
Hormigoia	1,5	Asfaltikoak	-0,6	Etxetresna elektrikoak		-0,2
Morteroa	1,8	Kautxua	0,0	Etxetresna ez-elektrikoak		0,5
Zeramika	-0,2	Beira zapala	4,9	Gailu eta osagarri elektrikoak		4,8
Aurrefabrikatuak	0,4	Beira barnehutsa	-0,7	Kable elektrikoak		7,8
Igeltua	-0,5	Egur-arotzeria	1,6			
Igeltutik eratorritakoak	-1,9	Metal-arotzeria	1,8			
		Burdineria	2,2			
4. taldea		5. taldea				
Beira-zuntza	-0,6	Pinturak	-0,6			
Zuntz optikoa	7,8	Bernizak eta mastikak	7,8			
Argiztapenerako gailuak	-0,7	Lauza zeramikoak	-0,7			
Su-itzalgailuak-mahukak	0,0	Harri apaingarria	0,0			
Detektagailuak eta alarmak	-11,8	Sukaldeko altzariak	-11,8			
Atezainak eta megafonia-antenak	0,4	Kobrezko hodiak	0,4			
Igogailuak	0,7	Plastikozko hodiak	0,7			
Elektronika	0,5	Zuntz-zementuzko hodiak	0,5			
Lehergailuak	-1,4	Zeramikazko komun-ontziak	-1,4			

Iturria: EIN, Eraikuntzako prezioen eta askotariko materialen indizea (oinarria 100=2015eko urtarrila).

EAEn, eraikuntzako kostuen indizeak izandako bilakaerak erakusten du hazkunde orokortua izan dela, eta joera horrek baldintzatuko ditu amaierako prezioak sektoreko eskaintzan, merkatu librean eta lizitazio publikoan eginiko obretan: obrak egiteko behar izaten den denbora aintzat hartuta, kalkulatu da estimatutako prezioen (salmentako edo lizitazioko prezioa) eta benetako prezioen arteko aldea handia izango dela

117. koadroa Eraikuntzako kostuen indizearen bilakaera (EAE)

	Indizea			% Δ		
	2019ko abe.	2020ko abe.	2021eko mai.	2019ko abe./ 2018ko abe.	20 abe./19 abe.	21 mai./20 abe.
Kostuak, guztira	105,2	106,3	108,4	2,1	1,0	2,0
- Etxegintzako kostuak	105,1	106,4	108,5	2,0	1,2	2,0
- Obra zibileko kostuak	105,9	105,6	107,9	2,9	-0,3	2,2
Lehengaien prezioa, guztira	104,9	105,7	107,8	2,1	0,8	2,0
Etxegintzako lehengaien prezioa	104,7	105,9	108,0	1,9	1,1	2,0
Obra zibileko lehengaien prezioa	105,8	104,8	107,2	3,0	-0,9	2,3
Esku-lanaren kostua	106,2	108,2	110,2	2,2	1,9	1,8

Iturria: EUSTAT, Eraikuntzako kostuen indizea (oinarria 100=2015eko urtarrila).

11. SEKTOREEN ANALISI EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA

11.1 SARRERA

Kapitulu honetan Euskal Herriko industria-sektoreak aztertuko ditugu, analisi finantzariorako erabili ohi diren bi tresnaren bidez: ratio bidezko analisia eta funtsen iturrien eta erabileren egoera. Horretarako, sektore bakoitzeko kontabilitate-egoerari buruzko informazioa –balantzeak eta emaitzen kontuak– bildu dugu.

Sarreraz gain, kapitulu honek hiru atal nagusi ditu. Lehenengo atala metodologikoa da. Oinarri gisa erabilitako informazioa zehazten du, eta analisirako bi tresnak aplikatzeko erabilitako irizpideak azaltzen ditu. Bigarren atalean, ratioen piramidearen aplikazioa azaltzen da, eta, hirugarrenean, funtsen iturrien eta erabileren egoera. Hala, Euskal Herriko industria-sektoreen azterketa ekonomiko-finantzariora egingo dugu; sektoreen arteko alderaketa egingo dugu, baita Estatuako egoerarekiko alderaketa ere. Horretarako, piramideko ratio nagusiak eta batez besteko inbertsio-diruzaintzak (cash-flow libreak) hartuko ditugu kontuan. Dena den, sektore bakoitzaren ratioen piramideak eta funtsen iturrien eta erabileren egoerak ere gehituko ditugu, bai Euskal Herrikoak, bai Estatu osokoak.

11.2 METODOLOGIA

Datu-bankua

Piramidea egiteko, kontabilitate-egoerari buruzko oinarrizko datuak behar dira: aztertu beharreko sektore bakoitzaren balantzeak eta emaitzen kontuak. Horretarako, Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak galdetegi bidez jasotako informazioa hartu dugu oinarritzat, tratatu beharreko informazioa homogenea izan zedin. Galdetegi horiek enpresa kolaboratzaileek erantzun dituzte, bai Euskal Herrikoek (eskaera zehatza egin zaie egoitza soziala EAEn edo Nafarroan duten enpresei), bai Estatu osokoek (Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak egindako urteroko txostenetako informazioa erabili dugu).

Kontuan izan behar da Balantzeen Zentralaren azken informazio-basea t-2 urtekoa dela (gainera, datu-base bakoitzak dagokion urteko eta aurreko urteko informazioa izaten du). Ondorioz, oinarritzat hartu dugun informazioak urtebeteko atzerapena du txosten honi dagokion urtearekiko. Zehazki, txosten hau egiteko erabilgarri dagoen azken basea 2019koa da, eta 2018ari eta 2019ari dagokien informazioa eskaintzen du.

Industria-jardueraren sektorekako banaketari dagokionez, Balantzeen Zentralaren CB-52 sailkapen berria erabili dugu industria-sektoreen informazio-eskaera egiteko. Sailkapen hori, bestalde, 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) kontuan hartuta eguneratu dute. Sailkapen horrek honako sektore hauek bereizten ditu (19 sektore):

- Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak
- Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
- Zuraren eta kortxoaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik
- Papergintza
- Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa
- Koke-fabrikak eta petrolio-finketa
- Industria kimikoa
- Farmazia-produktuen fabrikazioa
- Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa
- Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa
- Metalurgia; burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa
- Produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoen izan ezik
- Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa
- Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa
- Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa
- Ibilgailu motordunen, atoen eta erdi-atoien fabrikazioa
- Bestelako garraio-materialen fabrikazioa
- Altzarien fabrikazioa eta beste manufaktura-industria batzuk
- Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa

Euskal Herriari dagokionez, 2019ko datu-basean aipatutako 19 sektore horietatik 8 sektoreen inguruko informazioa dago eskuragarri. Honako sektoreen inguruko informazioa ez dago eskuragarri: ehungintza, jantzigintza eta larrugintza; zuraren eta kortxoaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik; paperaren industria; arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa; koke-fabrikak eta petrolio-finketa; farmazia-produktuen fabrikazioa; beste produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa; produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa; bestelako garraio-materialen fabrikazioa; altzarien fabrikazioa eta beste manufaktura-industria batzuk; eta makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa. Sektore horietan 5 enpresa kolaboratzaile baino gutxiago daudenez, datuak ez daude eskuragarri estatistika-sekretua dela-eta. 2018an 13 sektoreen gaineko informazioa zegoen eskuragarri; 2019koetz gain, beste hauek: paperaren industria; beste produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa; bestelako garraio-materialen fabrikazioa; altzarien fabrikazioa eta beste manufaktura-industria batzuk; eta makineriaren eta ekipoen konponketa eta

instalazioa. Hala, dagokion urtean eskuragarri dauden sektoreak batuta kalkulatu da industria-sektore osoaren guztizkoa (bai Euskal Herrian, bai Estatuan).

Azkenik, kontuan izan behar da enpresek beren borondatez ematen dituztela sektore bakoitzaren azterketa egiteko erabiltzen diren datuak. Hori dela eta, ezerk ez du bermatzen datu-baseak denboran zehar irautea, ezta egindako azterketak sektorean inferentziaren bat egiteko balio estatistikoa duenik ere.

Ratioen piramidea¹

Abiapuntuko datuak: balantzea eta emaitzen kontua

Piramidea egiteko abiapuntuko informazio gisa, oinarritzko kontabilitate-egoerak erabili ditugu: emaitzen kontua eta balantzea. Informazio hori oso modu sinplean azaldu dugu. Izan ere, aztertutako sektoreen inguruko ikuspegi orokorra eskaintzea da helburua. Azterketa sakonagoa egin ahal izateko eta ondorio sakonagoa ateratzeko, gehiago xehatutako informazioa behar da, eta edukietan aberatsagoa.

Emaitzen kontuari dagokionez, honako taula honetan ageri den egitura erabiliko dugu:

+ Ustiapeneko ohiko diru-sarrerak	V
- Kostu aldakor operatiboak, ordainketarekin	CV
- Kostu finko operatiboak, ordainketarekin	CF
- Amortizazioak (eta, oro har, ordainketarik gabeko kostu operatiboak)	AM
- Interesak	I
± Ezohiko emaitzak	RE
- Sozietateen gaineko zerga	IS
= Mozkin garbia	BN

Balantzearen pasiboari dagokionez, kostu esplizitua duten kanpoko funtsak eta ondare garbia bereiziko ditugu (2007 KPO kontabilitate-plan berriaren arabera). Aktiboari dagokionez, berriz, aktibo finkoa (aktibo ez-korrentea) eta aktibo zirkulatzailerik gabeko (aktibo korrante garbia) hartuko ditugu kontuan. Aktibo zirkulatzailerik gabeko (aktibo korrante garbia) kalkulatzeko, aktibo zirkulatzailerik gabeko pasiboak (negozioaren jardunak berak sortutako pasiboak, hala nola administrazioarekin amortizatzeko geratzen diren saldoak) eta kostu inplizitua duten pasiboak (hala nola hornitzaileekin amortizatzeko geratzen diren saldoak; saldo horien kostua ordainketa bizkorragatik deskontu gisa kalkula liteke finantzaketari uko eginez gero). Honako taula honetan ikus daiteke hori guztia:

¹ Gómez-Bezares, F., J. A. Madariaga eta Javier Santibáñez (1999): "Algunas reflexiones y novedades acerca de la pirámide de ratios", *Boletín de Estudios Económicos*, 167.zenbakia, 1999ko abuztua; 329--359 orrialdeak.

AKTIBO ZIRKULATZAILE GARBIA	EPE LABURREKO KANPOKO FUNTSAK KOSTU ESPLIZITUAREKIN
	EPE LUZEKO KANPOKO FUNTSAK
AKTIBO FINKOA	ONDARE GARBIA

Proposatutako ratioen piramidea aurkeztu aurretik, kontzeptu interesgarri batzuk azalduko ditugu.

Leverage operatiboa

Mozkin operatiboaren (finantza-kostuak eta zergak kontuan hartu gabe) eta "saldutako euro bakoitzeko marjina gordinaren" arteko erlazioa jasotzen du. Erabiliko den formulaziora iristeko, nomenklatura gehigarri batzuk behar dira:

MB = Marjina gordina. Ohiko diru-sarreraren eta kostu aldakorren arteko diferentzia (amortizazioa kostu finkotzat hartuko dugu):

$$MB = V - CV$$

MBP = Saldutako euro bakoitzeko marjina gordina. Marjina gordinaren eta salmenten zifraren arteko zatidura. Saldutako euro bakoitzak uzten duen marjina adierazten du, kostu aldakorrak soilik ordaindu ondoren:

$$MBP = \frac{MB}{V}$$

BAll = Interesen eta zergen aurreko mozkin. Ohiko diru-sarreraren eta kostu operatiboaren (aldakorrak eta finkoak, ordainketarekin eta ordainketarik gabe) diferentzia konparatzearen emaitza da:

$$BAll = V - CV - CF - AM = MB - (CF + AM)$$

VPM = Itopuntuko salmentak. Kostu operatiboak (aldakorrak eta finkoak, ordainketarekin eta ordainketarik gabe) estaltzeko beharrezkoa den salmenta-zifra da, eta bat dator BAll = 0 egiten duen salmenta kantitatearekin. Kostu aldakorrak salmentekiko linealak direla pentsatuz gero (MBP salmenta-mailarekiko independentea izanik), honako hau dugu:

$$BAll = 0 = MB - (CF + AM)$$

$$MB = (CF + AM)$$

$$\frac{MB}{V} \cdot V = MBP \cdot V = (CF + AM)$$

$$V = VPM = \frac{CF + AM}{MBP}$$

Eta, era horretan, leverage operatiboaren formulaziora iritsiko ginateke:

$$BAII = MB - (CF + AM) = \frac{MB}{V} \cdot V - MBP \cdot VPM = MBP \cdot V - MBP \cdot VPM$$

$$BAII = MBP \cdot (V - VPM)$$

Hortaz, saldutako euro bakoitzeko marjina gordina handitzea lortzen bada (kostu finkoak konstante mantenduz), interesen eta zergen aurreko mozkin handitzea lortzen da (apalankamendu-efektua).

Leverage finantzarioa

Funts Propioetan inbertitutako euro bakoitzeko errentagarritasunaren, aktiboaren errendimenduaren, kanpoko funtsen kostuaren eta zorpetzearen arteko erlazioa neurtzen du. Formulazio matematikoa lortzeko, kontzeptu batzuk definitu behar dira:

t = Zerga-tasa

BAIdI = Interesen aurreko eta zergen ondorengo mozkin.

$$BAIdI = BAII \cdot (1 - t) = (V - CV - CF - AM) \cdot (1 - t)$$

Bestalde, ekitaldian ezohiko emaitzarik ez dagoela aintzat hartuta¹, BAIdI-i zergen interes garbiak kenduz lortzen da mozkin garbia:

$$BN = BAIdI - I \cdot (1 - t)$$

Jarraian, leverage finantzarioaren formulazioan agertuko diren hiru ratio definituko ditugu:

r = Errendimendu operatiboa. Aktiboan inbertitutako euro bakoitzeko lortutako errentagarritasun garbia da, berau nola finantzatzen den kontuan hartu gabe. Kontuan hartu behar da aktiboaren zenbatekoa bat datorrela aktibo zirkulatzaile garbiaren eta aktibo finkoaren baturarekin:

$$r = \frac{BAIdI}{ACN + AF}$$

¹ Aurrerago jorratuko dugu ezohiko emaitzek sorrarazten duten arazoa.

$i =$ Kanpoko finantzaketaren kostu garbia, kostu esplizituarekin. Kanpoko funtsen hornitzaileek eskatutako errendimendua da, dagozkion interesen ordainketak sozietateen gaineko zergan eragiten duen zerga-aurrezkoa kenduta:

$$i = \frac{I(1-t)}{FACP + FALP} = \frac{I(1-t)}{FA} \quad 1$$

$e =$ Ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko lortutako errendimendu ekonomikoa.

$$e = \frac{BN}{PN}$$


Aurrekoa abiapuntutzat hartuta, leverage finantzarioaren formulazioa osa daiteke. Hona hemen adierazpena:

$$e = r + (r - i) \frac{FACP + FALP}{PN} = r + (r - i) \frac{FA}{PN}$$

$e =$ Errendimendu operatiboa + Leverage finantzarioa

Ondorengo taulan, sektore bakoitzerako aplikazio praktikoan erabiliko dugun ratioen oinarritzko piramidea ikus daiteke.

¹ FA izena erabiliko dugu FACP eta FALPen batura laburtzeko. Nolanahi ere, gogoratu FACPn kostu esplizitudun epe laburreko kanpoko funtsei egiten diela erreferentzia, eta ez epe laburreko kanpoko funts guztiei.



Goi-erpinen, ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko errentagarritasuna ageri da, eta aktiboaren errendimenduen eta leverage finantzarioaren batura gisa deskonposatuta dago. Ondoren, batugai horiek nola osatzen diren azaltzen du adar bakoitzak. Ikus daitekeenez, aktiboa eta pasiboa, hots, inbertsioa eta finantzaketa bereizten ditu piramideak. Azken batean, "r" ratioak aktiboaren errendimendua neurtzen du, finantzatzeko modua edo finantza-egitura kontuan hartu gabe. Eskuineko adarrak, berriz, leverage finantzarioaren bidez finantzaketak ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko errendimenduari egiten dion ekarpena kalkulatu du.


Beste kontu bat ere aipatu beharra dago: piramidearen analisisan ezohiko emaitzak nola tratatu ditugun. Normalean, emaitza horiek errepikatzen diren ala ez aztertzen da enpresetan aplikatutako analisisan. Emaitzak errepikakorak eta, beraz, aurreikusteko

modukoak badira, piramidearen "r" mailan txerta daitezke, aktiboaren errendimendu bakarra kalkulatuta edo bi kalkulatuta: ohiko errendimendua eta ezohiko errendimendua.

Dena den, emaitzak errepikakorrak diren ala ez zehazteko ezintasunaren aurrean, sektorekako azterketa egiteko garaian, atal honen amaieran jasotako irudian agertzen den soluzioa erabiliko dugu sektore bakoitzerako. Hau da, "e" mailan txertatuko ditugu, eta ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko hiru errentagarritasun mota bereiziko ditugu: ohikoa -e1-, berezko ezohikoa -e2- eta zerga-eraginari lotutako ezohikoa -e3-. Arrazoi sendo bat dugu azken adar hori erabiltzeko: zerga sektorialen (T) zifren agregatuak e1 ratioa distortsiona dezake. Sektorearen berezko negozioari lotutako errentagarritasuna jasotzen du e1 ratioak. Horregatik, % 28,5eko batez besteko zerga-tasa komuna ezarri diegu sektore guztiei, eta tasa horrekiko diferentziak e3 adarrera eraman ditugu.

Kapituluaeren amaieran, aztertutako industria-sektore guztietako ratioen piramideak erantsi ditugu, Euskal Herrikoak zein Estatu osokoak, 2018. eta 2019. urteei dagozkienak. Dena den, eraginkortasun-arrazoiak direla-eta, piramideko ratioerik garrantzitsuenak baino ez ditugu aukeratu hurrengo atalean azalduko dugun ekonomia- eta finantza-azterketa sektoriala egiteko.

Zehazki, ondare garbiaren errentagarritasun-ratioak (e) hautatu ditugu Euskal Herriko industria-sektoreen analisirako, ohikoak (e1) zein ezohikoak (e2 eta e3). Ondoren, ondare garbiaren ohiko errentagarritasunaren osagaien azterketa xehea egin dugu, hau da, aktibo garbiaren errentagarritasunarena (r, eta haren osagaiak: BAIdI/V eta V/(AF+ACN)) eta leverage finantzarioarena ((r-i) x (FA/PN)) eta haren osagaiena: (r-i) eta FA/PN). Azkenik, Euskal Herriko eta Estatuako industria-sektoreen arteko alderaketa egiteko, ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1) eta horren osagaiak hartu ditugu kontuan: aktibo garbiaren errentagarritasuna (r) eta leverage finantzarioa ((r-i) x (FA/PN)).



Funtsen iturrien era erabileren egoera¹

Analisirako bigarren tresna alderdi finantzarioan oinarritzen da. Hau da, funtsen kutxa edo fluxuak hartzen ditu kontuan, ratioen piramideak ez bezala. Ratioen piramideak mozkiean oinarritutako azterketa ekonomikoa egiten du. Ondorengo taulan, funtsen iturri eta erabileren egoeraren aurkezpen orokorra ageri da. Ikus daitekeenez, funtsen iturri eta erabileren egoera hiru kontzepturen kalkuluan oinarrituta dago:

- TINV: t urteko Inbertsio Diruzaintza, sektoreko aktiboak liberatzen duen euro kopuruarekin bat datorrena –haren premiei erantzun ondoren, eta nola finantzatzen den kontuan hartu gabe-. “Free cash-flow” izen anglosaxoiaz ezagunagoa da. Erraz kalkulatu da: ohiko eragiketetan (GFO) sortutako euroei ezohiko eragiketetan (GFE) sortutakoak gehitu behar zaizkie, eta, ondoren, aktibo zirkulatzaille garbian eta ibilgetuan egindako inbertsioak kendu.
- TFA: t urteko Kanpoko Funtsen Diruzaintza, sektorearen eta kanpoko funtsen hornitzaileen arteko erlazioaren ondorioz sortzen diren funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duena.
- TPN: t urteko Ondare Garbiaren Diruzaintza; aurrekoaren kontzeptu berdina da, baina ondare garbiari aplikatua.

Hiru kontzeptuen baturak –urte jakin baterako– zero izan behar du. Azken batean, aktiboak euroak liberatzen baditu ($TINV > 0$), kanpoko funtsen eta/edo ondare garbiaren hornitzaileek eraman dutelako da. Aktiboak bere kabuz bere premiei erantzuterik izan ez badu, kanpoko funtsen eta/edo ondare garbiaren hornitzaileek dagokien diru kopurua jarri beharko dute. Laburtuz, balioa zero izateak finantza-egoera orekatua dela esan nahi du, baina inola ere ez du esan nahi sektorea osasuntsu dagoenik.

Jarduera-sektoreetarako proposatutako eskema orokorra aplikatzeko garaian, kontuan hartu behar da ratioen piramidean zerga agregatuen zifrak nola tratatu diren. Hala, % 28,5eko tasa orokorra ezarriko dugu, eta jasandakoarekiko diferentziak aldi horretan izandako funtsen ezohiko sorkuntzara (GFE) eramango ditugu. Aipatzekoa da, halaber, TPNa diferentziaren bidez kalkulatu dela, abiapuntuko informazioak ez baitu aukerarik ematen beste era batera egiteko.

¹ Gómez-Bezares, F., J. A. Madariaga eta Javier Santibáñez (2002): “El estado de fuentes y empleos de fondos: una herramienta imprescindible en el análisis financiero”, *Harvard – Deusto Finanzas & Contabilidad*, 49. zk., iraila-urria, 2002, 18-28 or..

	+ V_t	Ohiko salmentak
	- C_t	Kostu operatiiboak, ordainketarekin
	- AM_t	Amortizazioa
	= $BAll_t$	Interesen eta zergen aurreko mozkina
	* $(1-t)$	Zerga-eragina ($t = \text{zerga-tasa} = 0,285$)
	= $BAlId_t$	Interesen aurreko eta zergen ondorengo mozkina
	+ AM_t	Amortizazioa
	- IF_t	Alegiazko diru-sarrerak (ustiapenen + ibilget. lanen dirulaguntzak)
	+ GFO_t	Funts operatiiboak sortzea
	+ RE_t	Ezohiko emaitzak
	* $(1-t)$	Zerga-eragina ($t = 0,285$)
	= $REdI_t$	Ezohiko emaitzak, zergen ondoren
	+ EF_t	Zerga-ondorioa: $(0,285 - t \text{ efektiboa}) * \text{Zergen aurreko mozkina}$
	+ GFE_t	Ezohiko funtsak sortzea
	+ ACN_{t-1}	Hasierako aktibo zirkulatzaille garbia
	- ACN_t	Amaierako aktibo zirkulatzaille garbia
	- ΔACN_t	Aktibo zirkulatzaille garbia areagotzea
	- INV_t	Aktibo finkoan inbertitzea (ΔAF garbia + AM - Ibilget. lanak)
	+ $TINV_t$	Diruzaintzaren fluxua, inbertsio-erabakiak
	+ $EFA_t - AFA_t$	Jaulkipena den kanpoko funtsen amortizazioa, kostuarekin
	+ I_t	Kanpoko funtsen interesak
	* $(1-t)$	Zerga-eragina ($t = 0,285$)
	- $(1-t) * I_t$	Funtsak kentzea, interesengatik
	+ TFA_t	Diruzaintzaren fluxua, finantzaketa-erabakiak kanpoko funtsekin
	+ TPN_t	Diruzaintzaren fluxua, finantzaketa-erabakiak ondare garbiarekin ($\Delta PN - BN + \text{ustiap. dirulaguntzak}$)
	= 0	= 0

Bestalde, aurrez aipatu dugun moduan, sektore baten inguruko informazioa ematen duen enpresen laginak ez du zertan denboran zehar berbera izan. Hortaz, urte ezberdinetarako multzo homogeen bat eratze aldera, sektore bakoitzeko funtsen iturrien era erabileren batez besteko egoera azalduko dugu. Batezbestekoa kalkulatzeko, kontzeptu bakoitzaren eta lagina osatzen duten enpresa kopuruaren arteko zatiketa egin dugu.

Kasu honetan ere, kapituluaren amaieran, aztertutako industria-sektore guztietako funtsen iturrien era erabileren egoerak erantsi ditugu, Euskal Herrikoak zein Estatu osokoak, 2018. eta 2019. urteei dagozkienak. Dena den, funtsen iturrien eta erabileren egoeraren analisi sektorialari eskainitako azken atalean, eraginkortasun-arrazoiengatik, baliorik esanguratsuenak baino ez ditugu kontuan hartu: $TINV$, TFA eta TPN .

118. koadroa Espainiako Bankuko Balantzeen Zentraleko enpresa laguntzaileen kopurua

SEKTOREA	Euskal Herria	Estatua
	2019	2019
Nekazaritzako elikagaiak	10	270
Kimika	7	102
Kautxua eta plastikoa	7	72
Metalurgia	10	58
Produktu metalikoak	19	143
Material eta ekipo elektrikoa	5	29
Makineria eta ekipamendua	19	107
Ibilgailu motordunak	9	62
Industria, guztira	86	843

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

11.3 RATIOEN PIRAMIDEA

2019ko ekitaldiaren gainean eskuragarri dauden azken datuen arabera, eta ondare garbiaren errentagarritasunari (e) dagokionez, Euskal Herriko industria-sektoreen artean dauden alde hauek nabarmendu behar dira:

- 2019an honako sektore hauek izan zuten ondare garbiaren errentagarritasunik handiena: Kautxua eta plastikoa (% 17,2), Ibilgailu motordunak (% 12,2) eta Makineria eta ekipamendua (% 12,1).
- Sektore hauetako ondare garbiaren errentagarritasuna ere industriako batezbestekoa (% 6,1) baino altuagoa izan zen, baina ez aurrekoena bezain altua: Produktu metalikoak (% 9,7) eta Kimika (% 7,5).
- Gainerako sektoreen ondare garbiaren errentagarritasuna batezbestekoa baino baxuagoa izan zen honako sektore hauetan: Nekazaritzako elikagaiak (% 1,1), Metalurgia (-% 2,7), eta Materialen eta ekipamendu elektrikoaren sektorea, zeina -% 18,8ko ondare garbiaren errentagarritasuna izateagatik nabarmendu zen.

Ondare garbiaren errentagarritasun horren analisia eginez gero, ohikoa (e1), berezko ezohikoa (e2) eta zerga-eraginari lotutako ezohikoa (e3) berezita, 2019 ekitaldiko honako alderdi hauek azpimarra daitezke:

- Esperotako moduan, ondare garbiaren errentagarritasuna, batez ere, ohiko errentagarritasunean (e1) oinarritzen da. Ezohikoek (e2 eta e3), berriz, osagarri gisa jokatzeko dute.
- Batetik, aipatzekoa da honako sektoreek ondare garbiaren ohiko errentagarritasun (e1) maila positiboa eskuratu zutela: Kautxua eta plastikoa (% 13,9), Ibilgailu motordunak (% 10,6), eta Makineria eta ekipamendua (% 9,5); sektore horiek industriaren batezbestekotik (% 7,4) gora geratu ziren, modu argian. Bestetik, Material eta ekipamendu elektrikoaren sektoreak (-% 8,1) maila negatiboa eskuratu zuen, industriaren batezbestekotik oso urrun.

- Ondare garbiaren ezohiko errentagarritasunari (e2) dagokionez, sektore hauek eskuratutako errentagarritasun maila baxua nabarmentzen da: Metalurgia (-% 5,3), Material eta ekipamendu elektrikoa (-% 1,9) eta Kautxua eta plastikoa (-% 1,6); sektore horiek industriaren batezbestekotik (-% 1,1) behera geratu ziren. Aurkako aldean kokatu zen Produktu metalikoen sektorea, zeinaren errentagarritasuna batezbestekoa baino askoz ere altuagoa izan baitzen, % 5,3koa. Gainerako sektoreen errentagarritasuna industriaren batezbestekoa baino altuagoa izan zen, baina negatiboa.
- Azkenik, zerga-eraginari lotutako ondare garbiaren ezohiko errentagarritasuna (e3) nabarmendu behar da. Sektore hauek batezbestekotik (-% 0,1) gora geratu ziren: Kautxua eta plastikoa (% 4,9), Makineria eta ekipamendua (% 2,9), Ibilgailu motordunak (% 1,8), Nekazaritzako elikagaiak (% 1,2), Produktu metalikoak (% 0,8) eta Kimika (% 0,6). Material eta ekipamendu elektrikoen sektoreak (-% 8,8) eta Metalurgiaren sektoreak (-% 4,9), berriz, errentagarritasun negatiboa izan zuten.

119. koadroa Ondare garbiaren errentagarritasuna Euskal Herriko industria-sektoreetan

SEKTOREA	e (%)		e1 (%)		e2 (%)		e3 (%)	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Nekazaritzako elikagaiak	3,4	1,1	4,9	0,5	-1,7	-0,5	0,2	1,2
Kimika	12,2	7,5	11,4	6,9	0,2	0,0	0,5	0,6
Kautxua eta plastikoa	15,1	17,2	11,6	13,9	-0,6	-1,6	4,0	4,9
Metalurgia	6,9	-2,7	7,1	7,6	0,3	-5,3	-0,5	-4,9
Produktu metalikoak	7,1	9,7	6,2	3,7	-1,5	5,3	2,4	0,8
Material eta ekipo elektrikoa	-4,3	-18,8	1,1	-8,1	-4,0	-1,9	-1,4	-8,8
Makineria eta ekipamendua	9,7	12,1	8,9	9,5	-1,3	-0,3	2,1	2,9
Ibilgailu motordunak	6,8	12,2	8,3	10,6	-1,4	-0,2	-0,1	1,8
Industria, guztira	5,4	6,1	6,7	7,4	-1,8	-1,1	0,5	-0,1

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

Ondare garbiaren errentagarritasuna (e) aztertu ondoren (ohikoa –e1– zein ezohikoa –e2 eta e3–), ondare garbiaren ohiko errentagarritasunaren (e1) osagaien analisi zehatzagoa egingo dugu: aktibo garbiaren errentagarritasuna (r) eta leverage finantzarioa ((r-i) x (FA/PN)).

120. koadroa Aktibo garbiaren errentagarritasuna Euskal Herriko industria-sektoreetan

SEKTOREA	r (%)		BAIdI / V (%)		V / (AF + ACN)	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Nekazaritzako elikagaiak	4,1	1,2	3,6	7,0	1,159	1,814
Kimika	10,6	6,6	8,2	6,6	1,291	1,005
Kautxua eta plastikoa	8,5	10,0	6,8	9,0	1,248	1,117
Metalurgia	4,5	5,1	2,3	2,4	1,900	2,169
Produktu metalikoak	4,1	3,1	3,9	1,9	1,041	1,602
Material eta ekipo elektrikoa	1,2	-2,4	1,4	-2,5	0,871	0,980
Makineria eta ekipamendua	7,5	8,1	5,7	7,1	1,312	1,145
Ibilgailu motordunak	7,0	8,4	2,3	2,4	3,073	3,500
Industria, guztira	4,7	4,8	3,7	2,8	1,250	1,733

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

Lehenik eta behin, aktibo garbiaren errentagarritasunari (r) dagokionez, Euskal Herrian 2019 aztertutako industria-sektoreei buruzko alderdi hauek aipatu behar dira:

- Orokorrean, 2019an funts propioen errentagarritasunaren osagai nagusia aktibo garbiaren errentagarritasuna zen oraindik ere. Izan ere, leverage finantzarioaren garrantzia txikiagoa zen (aurrerago sakonago aztertuko dugu alderdi hori, osagai horri dagokion atalean). 2019ko ekitaldian leverage finantzarioak negatiboa izaten jarraitzen zuen sektore batzuetan.
- 2019an hauek izan ziren aktibo garbiaren errentagarritasun handiena eskuratu zuten sektoreak: Kautxua eta plastikoa (% 10,0), Ibilgailu motordunak (% 8,4), Makineria eta ekipamendua (% 8,1), Kimika (% 6,6) eta Metalurgia (% 5,1). Hiru sektore baino ez ziren kokatu batez besteko aktibo garbiaren errentagarritasunetik (% 4,8) behera: Produktu metalikoak (% 3,1), Nekazaritzako elikagaiak (% 1,2) eta Material eta ekipamendu elektrikoa, azken hau errentagarritasun negatiboarekin (-% 2,4).
- Aktibo garbiaren errentagarritasuna osatzen duten elementuei dagokienez, BDIdl/V ratioa (irabaziaren pisua interesen aurretik eta zergen ondoren, ustiapeneko ohiko diru-sarreraren gainean) aztertuko dugu lehenik eta behin. Hala, sektore hauek eskuratutako maila altua nabarmendu behar da: Kautxua eta plastikoa (% 9,0), Makineria eta ekipamendua (% 7,1), Nekazaritzako elikagaiak (% 7,0) eta Kimika (% 6,6), batezbestekotik (% 2,8) oso gora. Bestetik, batezbestekotik behera kokatu ziren Metalurgia eta Ibilgailu motordunak (biek % 2,4), Produktu metalikoak (% 1,9) eta Material eta ekipamendu elektrikoa (-% 2,5).
- Ustiapeneko ohiko diru-sarreraren eta aktibo garbiaren arteko erlazioa neurtzen duen $V/(AF+ACN)$ ratioari dagokionez, nabarmentzekoa da honako sektore hauek lortu zuten maila altua: Ibilgailu motordunak (3,500), Metalurgia (2,169) eta Nekazaritzako elikagaiak (1,814). Batezbestekoaren (1,733) gainetik kokatu ziren hirurak. Gainerako sektore gehienak beste muturrean kokatu ziren. Horien artean, Kimika (1,005) eta Material eta ekipamendu elektrikoa (0,980) nabarmendu behar dira.

121. koadroa Leverage finantzarioa Euskal Herriko industria-sektoreetan

SEKTOREA	$(r - i) \times (FA / PN) (\%)$		$(r - i)$		FA / PN (%)	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Nekazaritzako elikagaiak	0,8	-0,7	0,021	0,003	36,0	-254,1
Kimika	0,8	0,3	0,098	0,058	8,5	4,6
Kautxua eta plastikoa	3,1	3,8	0,078	0,095	39,6	40,4
Metalurgia	2,6	2,5	0,021	0,027	124,2	91,4
Produktu metalikoak	2,1	0,6	0,028	0,011	74,7	55,9
Material eta ekipo elektrikoa	-0,1	-5,7	-0,001	-0,035	167,4	160,6
Makineria eta ekipamendua	1,3	1,4	0,061	0,071	21,6	19,9
Ibilgailu motordunak	1,3	2,1	0,054	0,069	23,1	30,6
Industria, guztira	2,0	2,5	0,029	0,069	70,4	71,4

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

Leverage finantzarioaren analisiari dagokionez $((r - i) \times (FA / PN))$, 2019. urtean honako alderdi hauek azpimarra daitezke Euskal Herriko industria-sektoreetan:

- Leverage finantzarioak, oro har, pisu txikia du aktibo garbiaren errentagarritasunean, ondare garbiaren errentagarritasuna zehazteko orduan. Testuinguru horretan, Kautxuaren eta plastikoaren sektoreak (% 3,8) eskuratutako maila nabarmendu zen, industriaren batezbestekoa (% 2,5) baino altuagoa izan baitzen, argi eta garbi. Batezbesteko mailatik behera kokatu ziren eta balio negatiboa izan zuten Nekazaritzako elikagaien sektoreak (-% 0,7) eta, bereziki, Material eta ekipo elektrikoaren sektoreak (-% 5,7).
- Leverage finantzarioaren osagaiak kontuan izanda, eta aktibo garbiaren errentagarritasunaren eta kostu esplizitua duen kanpoko finantzaketaren kostu garbiaren $(r-i)$ arteko ezberdintasuna aztertuta, azpimarratzekoa da sektore hauek lortutako maila: Kautxua eta plastikoa (0,095) eta Makineria eta ekipamendua (0,071). Industria-sektoreko batez besteko mailatik (0,069) gora kokatu ziren biak. Material eta ekipo elektrikoaren (-0,035) sektorea, berriz, batezbestekoaren azpitik kokatu zen, eta balio negatiboa izan zuen; balio negatiboa eskuratu zuen sektore bakarra izan zen.
- Azkenik, zorpetze maila neurtzen duen FA/PN ratioari dagokionez (kanpoko funtsek ondare garbian duten eragina), bereziki, Material eta ekipamendu elektrikoaren (% 160,6) sektoreak eskuratutako maila altua nabarmendu zen, batezbestekoa (% 71,4) baino askoz altuagoa izan baitzen. Aitzitik, Nekazaritzako elikagaien sektorea kontrako aldean kokatu zen -254,1eko ratioarekin. Nolanahi ere, aipatzekoa da sektore gehienak (5) batez besteko zorpetze mailatik behera kokatu zirela.

122. koadroa Euskal Herriko eta Estatu osoko industria-sektoreen arteko alderaketa, 2019


SEKTOREA	e1 (%)		r (%)		(r - i) x (FA / PN) (%)	
	Euskal Herria	Estatua	Euskal Herria	Estatua	Euskal Herria	Estatua
Nekazaritzako elikagaiak	0,5	9,1	1,2	6,2	-0,7	2,9
Kimika	6,9	12,1	6,6	9,6	0,3	2,6
Kautxua eta plastikoa	13,9	24,2	10,0	13,5	3,8	10,8
Metalurgia	7,6	2,1	5,1	2,3	2,5	-0,2
Produktu metalikoak	3,7	12,5	3,1	7,4	0,6	5,1
Material eta ekipo elektrikoak	-8,1	4,3	-2,4	3,1	-5,7	1,3
Makineria eta ekipamendua	9,5	17,5	8,1	13,9	1,4	3,6
Ibilgailu motordunak	10,6	11,4	8,4	7,1	2,1	4,3
Industria, guztira	7,4	10,2	4,8	6,9	2,5	3,3

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

Azkenik, Euskal Herriko industria-sektoreen egoera ekonomiko-finantzarioa Estatuaren egoerarekin alderatuta, pare bat alderdi aipatu behar dira:


- Funts propioen ohiko errentagarritasunari (e1) dagokionez, 2019an Metalurgia (% 7,6) sektoreak baino ez zuen izan Estatukoa (% 2,1) baino altuagoa. Gainerako sektoreetan alderantziz gertatu zen.
- Aktibo garbiaren errentagarritasunaren kasuan ere Estatuko maila gainditu zuten Metalurgia sektoreak eta Ibilgailu motordunen sektoreak; bi sektore horien kasuan, funts propioen ohiko errentagarritasuna Estatukoa baino altuagoa izan zen. Leverage finantzarioa ere Metalurgia sektorean bakarrik izan zen altuagoa Euskal Herrian.

23. grafikoa Ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna eta haren osagaiak (aktibo garbiaren errentagarritasuna eta leverage finantzarioa) Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2019



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

24. grafikoa Euskal Herriko industria-sektoreetako ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1), Estatuarekin alderatuta, 2019



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

11.4 FUNTSEN ITURRIEN ETA ERABILEREN EGOERA

Azterketa egiteko, eskuragarri dauden 2019 ekitaldiko azken datuak izan ditugu kontuan, baita inbertsio-diruzaintza (TINV) ere. Inbertsio diruzaintza bat dator aktiboak liberatzen duen euro kopuruarekin, haren premiei erantzun ondoren eta nola finantzatzen den kontuan hartu gabe (free cash-flow). Hala, desberdintasun esanguratsuak topatu ditugu Euskal Herriko industria-sektoreen artean. Zehazki, aipatzekoak dira alderdi hauek:

- 2019an inbertsio-diruzaintza handiena izan zuen sektorea Material eta ekipamendu elektrikoaren sektorea izan zen (43,88 milioi euro enpresako). Hurrengo sektoreak Ibilgailu motordunak (20,33) eta Metalurgia (8,99) izan ziren, denak ere industria-sektorearen batezbestekotik (6,61) gora.
- Sektore hauek batezbestekotik behera kokatu ziren, baina balio positiboekin: Makineria eta ekipamendua (4,72), Kautxua eta plastikoa (3,70) eta Kimika (0,52). Hauek, berriz, balio negatiboak izan zituzten eta industriako batezbestekotik oso behera kokatu ziren: Nekazaritzako elikagaiak (-3,31) eta Produktu metalikoak (-0,51).

123. koadroa Funtsen iturrien eta erabileren egoera Euskal Herriko industria-sektoreetan

(M euro)*

SEKTOREA	TINV		TFA		TPN	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Nekazaritzako elikagaiak	-8,57	-3,31	5,24	2,29	3,33	1,02
Kimika	1,30	0,52	0,73	-0,16	-2,03	-0,35
Kautxua eta plastikoa	11,13	3,70	2,11	7,52	-13,24	-11,23
Metalurgia	3,27	8,99	1,09	-5,53	-4,36	-3,45
Produktu metalikoak	-7,01	-0,51	7,36	-0,18	-0,34	0,69
Material eta ekipo elektrikoa	-31,51	43,88	31,70	-45,05	-0,20	1,17
Makineria eta ekipamendua	3,26	4,72	0,06	1,69	-3,32	-6,41
Ibilgailu motordunak	6,27	20,33	0,76	-3,05	-7,03	-17,29
Industria, guztira	-2,33	6,61	4,93	-2,38	-2,60	-4,23

(*): *Sektoreko batezbestekoak.*

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

Sektorearen eta kanpoko funtsen hornitzaileen arteko erlazioaren ondorioz sortzen diren funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duen kanpoko funtsen diruzaintzari (TFA) erreparatuz gero, ondorengo hauek aipatu behar dira:

- Sektore hauek izan zuten saldorik altuena: Kautxua eta plastikoa (7,52), Nekazaritzako elikagaiak (2,29) eta Makineria eta ekipamendua (1,69). Hirurak industriako batezbestekotik oso gora kokatu ziren, industriako batezbestekoa negatiboa izan baitzen: -2,38 milioi euro enpresako. Gainerako sektoreek saldo negatiboa izan zuen eta, bereziki, Material eta ekipamendu elektrikoen sektorea (-45,05) nabarmendu zen.

Azkenik, sektorearen eta ondare garbiaren hornitzaileen arteko erlazioaren ondoriozko funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duen ondare garbiaren diruzaintzari (TPN) dagokionez, honakoak aipatu behar dira 2019ari buruz:

- Material eta ekipamendu elektrikoen sektoreak izan zuen saldorik altuena, enpresako 1,17 milioi eurokoa. Hala, gainerako sektoreetatik urrun kokatu zen, eta industriaren batezbestekotik (-4,23 milioi euro enpresako) oso gora.
- Nabarmentzekoa da Material eta ekipamendu elektrikoen sektoreaz gain beste bi sektorek baino ez zutela saldo positiboa izan: Nekazaritzako elikagaiak (1,02) eta Produktu metalikoak (0,69). Gainerakoek saldo negatiboa izan zuten eta, bereziki, hauek nabarmendu ziren: Ibilgailu motordunak (-17,29), Kautxua eta plastikoa (-11,23) eta Makineria eta ekipamendua (-6,41).

124. koadroa Euskal Herriko eta Estatu osoko industria-sektoreen arteko alderaketa, 2019

*(M euro)**

SEKTOREA	TINV		TFA		TPN	
	Euskal Herria	Estatua	Euskal Herria	Estatua	Euskal Herria	Estatua
Nekazaritzako elikagaiak	-3,31	2,80	2,29	-2,27	1,02	-0,53
Kimika	0,52	8,78	-0,16	2,38	-0,35	-11,16
Kautxua eta plastikoa	3,70	4,75	7,52	0,27	-11,23	-5,02
Metalurgia	8,99	-7,35	-5,53	6,40	-3,45	0,94
Produktu metalikoak	-0,51	0,50	-0,18	0,34	0,69	-0,84
Material eta ekipo elektrikoa	43,88	16,28	-45,05	-13,62	1,17	-2,66
Makineria eta ekipamendua	4,72	3,88	1,69	-0,06	-6,41	-3,82
Ibilgailu motordunak	20,33	5,37	-3,05	1,78	-17,29	-7,15
Industria, guztira	6,61	3,39	-2,38	-0,26	-4,23	-3,13

()*: *Sektoreko batezbestekoak.*


Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

Azkenik, Euskal Herriko industria-sektoreetako funtsen iturri eta erabileren egoeraren eta Estatukoaren arteko alderaketari dagokionez, honako alderdi hauek aipatu behar dira 2019. urtean:

- 2019an, sektore hauek inbertsio-diruzaintza handiagoa izan zuten Euskal Herrian Estatuan baino: Metalurgia, Material eta ekipo elektrikoak, Makineria eta ekipamendua eta Ibilgailu motordunak. Aztertutako gainerako sektoreen kasuan alderantziz gertatu zen.
- Kanpoko funtsen diruzaintzari (TFA) dagokionez, Euskal Herriko sektore gehienek (Nekazaritzako elikagaiak, Kautxua eta plastikoa, eta Makineria eta ekipamendua sektoreek izan ezik) diruzaintza txikiagoa izan zuten Estatukoek baino; bereziki, Material eta ekipamendu elektrikoaren sektorea nabarmendu zen.
- Ondare garbiaren diruzaintzari (TPN) dagokionez, Euskal Herriko lau sektorek izan zuten Estatuko sektoreek baino ondare garbiaren diruzaintza handiagoa: Nekazaritzako elikagaiak, Kimika, Produktu metalikoak eta Material eta ekipamendu elektrikoa.

25. grafikoa Funtzen iturrien eta erabileren egoera Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2019

(Meuro)*




(*): Sektoreko batezbestekoak.

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

26. grafikoa Euskal Herriko eta Estatuko industria sektoreen inbertsio-diruzaintzaren (TINV) fluxuaren alderaketa, 2019


(Meuro)*



(*): Sektoreko batezbestekoak.


Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

125. koadroa Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko ratioen piramidea




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

126. koadroa Industria kimikoaren sektoreko ratioen piramidea




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

127. koadroa Kautxu eta plastikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

128. koadroa Metalurgia sektoreko ratioen piramidea (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa)




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

129. koadroa Produktu metalikoen sektoreko ratioen piramidea




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

130. koadroa Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

131. koadroa Beste makineria eta ekipo batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

132. koadroa Ibilgailu motordunen, atoi en eta erdi-atoi en fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

133. koadroa Industria osoaren ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

134. koadroa Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2018	2019	2018	2019
+ V _t	104,38	51,52	91,18	104,84
- C _t	95,77	48,93	82,17	92,97
- AM _t	3,42	2,12	2,53	3,23
= BAII _t	5,18	0,47	6,48	8,64
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BAIdI _t	3,71	0,34	4,64	6,18
+ AM _t	3,42	2,12	2,53	3,23
- IF _t	0,22	0,47	0,19	0,18
+ GFOT	6,90	1,99	6,97	9,22
+ RE _t	-1,54	0,13	-0,21	-0,74
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= REdI _t	-1,10	0,09	-0,15	-0,53
+EF _t	0,16	-0,22	0,56	0,77
+ GFET	-0,94	-0,13	0,42	0,25
+ ACN _{t-1}	27,61	10,89	18,80	19,84
- ACN _t	29,22	12,69	17,99	23,14
- ΔACN _t	1,61	1,80	-0,81	3,30
- INV _t	12,93	3,38	4,88	3,37
+ TINV _t	-8,57	-3,31	3,32	2,80
+ EFAT - AFAT	5,73	2,72	-1,00	-1,86
+ It	0,67	0,59	0,57	0,57
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * It	0,48	0,42	0,41	0,41
+ TFAT	5,24	2,29	-1,41	-2,27
+ TPNT	3,33	1,02	-1,91	-0,53
= 0	0,00	51,52	0,00	104,84

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

135. koadroa Industria kimikoaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2018	2019	2018	2019
+ V _t	39,59	31,63	140,51	170,78
- C _t	33,94	27,72	122,60	155,25
- AM _t	1,12	0,99	3,62	3,80
= BA _{It}	4,53	2,92	14,30	11,73
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA _{Id} _t	3,24	2,09	10,22	8,39
+ AM _t	1,12	0,99	3,62	3,80
- IF _t	0,21	0,19	0,45	1,09
+ GF _{Ot}	4,15	2,89	13,39	11,09
+ RE _t	0,10	0,02	2,24	-1,24
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE _{Id} _t	0,07	0,01	1,60	-0,88
+ EF _t	0,15	0,17	2,25	1,03
+ GF _{Et}	0,22	0,18	3,85	0,14
+ ACN _{t-1}	16,07	16,44	34,97	31,60
- ACN _t	16,91	17,75	32,18	31,16
- ΔACN _t	0,84	1,31	-2,79	-0,44
- INV _t	2,24	1,25	26,92	2,89
+ TINV _t	1,30	0,52	-6,88	8,78
+ EF _{At} - AF _{At}	0,75	-0,15	-2,32	2,78
+ I _t	0,03	0,02	0,69	0,55
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	0,02	0,01	0,49	0,40
+ TF _{At}	0,73	-0,16	-2,81	2,38
+ TP _{Nt}	-2,03	-0,35	9,69	-11,16
= 0	0,00	31,63	0,00	170,78

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

136. koadroa Kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2018	2019	2018	2019
+ V _t	81,03	157,51	80,42	82,01
- C _t	69,04	128,95	71,01	69,97
- AM _t	4,26	8,81	3,12	3,84
= BA _{It}	7,73	19,75	6,30	8,21
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA _{Idt}	5,52	14,12	4,51	5,87
+ AM _t	4,26	8,81	3,12	3,84
- IF _t	0,24	0,52	0,55	0,23
+ GF _{Ot}	9,55	22,41	7,07	9,47
+ RE _t	-0,36	-2,22	-0,15	-0,25
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE _{Idt}	-0,26	-1,59	-0,11	-0,18
+ EF _t	1,87	4,95	0,49	0,76
+ GF _{Et}	1,61	3,36	0,39	0,58
+ ACN _{t-1}	12,62	15,79	13,54	12,44
- ACN _t	10,24	14,36	13,23	11,94
- ΔACN _t	-2,38	-1,43	-0,32	-0,50
- INV _t	2,41	23,50	2,77	5,81
+ TIN _{Vt}	11,13	3,70	5,01	4,75
+ EF _{At} - AF _{At}	2,23	7,73	0,09	0,48
+ I _t	0,17	0,29	0,26	0,29
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	0,12	0,21	0,18	0,21
+ TF _{At}	2,11	7,52	-0,10	0,27
+ TP _{Nt}	-13,24	-11,23	-4,91	-5,02
= 0	0,00	157,51	0,00	82,01

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

137. koadroa Metalurgia sektoreko (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa) iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2018	2019	2018	2019
+ V _t	193,98	212,86	248,14	239,29
- C _t	181,76	199,60	231,98	228,07
- AM _t	5,86	6,24	5,50	6,69
= BA _{It}	6,37	7,02	10,67	4,54
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA _{Idt}	4,55	5,02	7,63	3,24
+ AM _t	5,86	6,24	5,50	6,69
- IF _t	0,61	1,29	1,33	3,34
+ GF _{Ot}	9,81	9,97	11,80	6,59
+ RE _t	0,20	-3,83	-2,11	-1,25
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE _{Idt}	0,14	-2,73	-1,51	-0,89
+ EF _t	-0,21	-2,53	0,00	-0,94
+ GF _{Et}	-0,07	-5,27	-1,51	-1,84
+ ACN _{t-1}	36,29	37,08	54,37	52,39
- ACN _t	37,23	31,22	50,00	56,35
- ΔACN _t	0,94	-5,86	-4,37	3,96
- INV _t	5,52	1,58	4,66	8,14
+ TINV _t	3,27	8,99	10,00	-7,35
+ EF _{At} - AF _{At}	2,43	-4,41	-0,58	8,01
+ I _t	1,87	1,56	2,25	2,24
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	1,34	1,12	1,61	1,60
+ TF _{At}	1,09	-5,53	-2,18	6,40
+ TP _{Nt}	-4,36	-3,45	-7,82	0,94
= 0	0,00	212,86	0,00	239,29

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

138. koadroa Produktu metalikoen fabrikazioaren sektoreko (makineria eta ekipoa izan ezik) iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2018	2019	2018	2019
+ V _t	36,05	22,65	26,95	22,97
- C _t	32,99	21,25	24,12	20,29
- AM _t	1,08	0,80	0,79	0,80
= BA _{It}	1,98	0,61	2,04	1,87
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA _{Id_t}	1,42	0,44	1,46	1,34
+ AM _t	1,08	0,80	0,79	0,80
- IF _t	0,22	0,09	0,14	0,09
+ GFO _t	2,28	1,15	2,11	2,06
+ RE _t	-0,41	0,67	-0,27	-0,22
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE _{d_t}	-0,29	0,48	-0,19	-0,15
+ EF _t	0,48	0,07	0,14	0,05
+ GFET	0,19	0,55	-0,06	-0,11
+ ACN _{t-1}	12,24	3,69	8,01	5,30
- ACN _t	20,12	5,29	9,47	6,43
- ΔACN _t	7,87	1,59	1,45	1,13
- INV _t	1,60	0,61	1,03	0,32
+ TINV _t	-7,01	-0,51	-0,43	0,50
+ EFAT - AFAT	7,55	-0,09	1,23	0,56
+ It	0,27	0,14	0,27	0,31
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * It	0,20	0,10	0,20	0,22
+ TFAT	7,36	-0,18	1,04	0,34
+ TPN _t	-0,34	0,69	-0,61	-0,84
= 0	0,00	22,65	0,00	22,97

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

139. koadroa Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2018	2019	2018	2019
+ V _t	209,52	352,66	151,74	238,88
- C _t	191,27	347,80	141,80	227,53
- AM _t	14,09	17,14	5,39	6,24
= BAIt _t	4,16	-12,28	4,55	5,11
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BAIdI _t	2,98	-8,78	3,26	3,65
+ AM _t	14,09	17,14	5,39	6,24
- IF _t	4,71	7,00	1,06	1,48
+ GFO _t	12,36	1,36	7,59	8,41
+ RE _t	-4,99	-3,70	-2,58	0,21
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= REIdI _t	-3,57	-2,65	-1,84	0,15
+ EF _t	-1,30	-12,13	-0,62	-1,67
+ GFET	-4,87	-14,78	-2,46	-1,52
+ ACN _{t-1}	56,07	151,77	32,64	53,99
- ACN _t	89,79	88,80	42,22	40,44
- ΔACN _t	33,72	-62,97	9,58	-13,55
- INV _t	5,27	5,67	3,87	4,16
+ TINV _t	-31,51	43,88	-8,32	16,28
+ EFAT - AFAT	33,69	-42,61	0,85	-12,92
+ It	2,78	3,40	1,15	0,98
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * It	1,99	2,43	0,82	0,70
+ TFAT	31,70	-45,05	0,03	-13,62
+ TPN _t	-0,20	1,17	8,29	-2,66
= 0	0,00	352,66	0,00	238,88

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

140. koadroa Beste makineria eta ekipo batzuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2018	2019	2018	2019
+ V _t	69,85	71,04	40,15	44,07
- C _t	62,61	62,01	35,08	37,18
- AM _t	1,63	2,02	0,78	0,99
= BA _{It}	5,61	7,01	4,29	5,90
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA _{Idt}	4,01	5,01	3,07	4,22
+ AM _t	1,63	2,02	0,78	0,99
- IF _t	0,23	0,35	0,13	0,19
+ GF _{0t}	5,41	6,69	3,72	5,03
+ RE _t	-0,82	-0,19	-0,28	-0,58
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE _{Idt}	-0,59	-0,13	-0,20	-0,41
+ EF _t	0,94	1,49	0,39	0,62
+ GF _E t	0,35	1,36	0,19	0,21
+ ACN _{t-1}	28,90	34,09	11,92	10,53
- ACN _t	29,85	36,12	10,85	10,95
- ΔACN _t	0,95	2,04	-1,07	0,43
- INV _t	1,56	1,29	-0,98	0,93
+ TIN _V t	3,26	4,72	5,95	3,88
+ EF _A t - AF _A t	0,20	1,79	0,25	0,04
+ I _t	0,19	0,14	0,16	0,14
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	0,14	0,10	0,11	0,10
+ TF _A t	0,06	1,69	0,14	-0,06
+ TP _N t	-3,32	-6,41	-6,08	-3,82
= 0	0,00	71,04	0,00	44,07

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

141. koadroa Ibilgailu motordunen, atoiari eta erdi-atoiari fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2018	2019	2018	2019
+ V _t	346,10	529,84	582,72	926,93
- C _t	325,06	495,70	545,41	872,08
- AM _t	9,98	16,28	21,53	34,00
= BAIt _t	11,07	17,86	15,77	20,86
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BAIdI _t	7,92	12,77	11,28	14,91
+ AM _t	9,98	16,28	21,53	34,00
- IF _t	0,76	1,17	4,72	8,57
+ GFOT	17,14	27,88	28,08	40,34
+ RE _t	-1,80	-0,35	-5,38	-9,43
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= REIdI _t	-1,29	-0,25	-3,85	-6,74
+ EF _t	-0,10	2,12	0,46	-3,39
+ GFET	-1,39	1,87	-3,39	-10,13
+ ACN _{t-1}	12,44	8,98	2,31	-12,58
- ACN _t	12,77	16,90	-2,38	-20,22
- ΔACN _t	0,33	7,92	-4,69	-7,64
- INV _t	9,15	1,49	26,82	32,48
+ TINV _t	6,27	20,33	2,56	5,37
+ EFAT - AFAT	1,10	-2,52	4,17	2,64
+ It	0,47	0,74	0,88	1,21
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * It	0,34	0,53	0,63	0,86
+ TFAT	0,76	-3,05	3,54	1,78
+ TPN _t	-7,03	-17,29	-6,10	-7,15
= 0	0,00	529,84	0,00	926,93

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

142. koadroa Industria-sektore osoko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2018	2019	2018	2019
+ V _t	121,18	142,68	116,50	163,26
- C _t	110,59	132,03	105,75	150,02
- AM _t	4,26	5,09	3,73	5,26
= BA _{It}	6,33	5,56	7,02	7,98
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA _{Id_t}	4,52	3,97	5,02	5,70
+ AM _t	4,26	5,09	3,73	5,26
- IF _t	0,85	0,89	0,65	1,16
+ GF _{Ot}	7,94	8,18	8,10	9,80
+ RE _t	-1,44	-0,76	-0,26	-1,29
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE _{Id_t}	-1,03	-0,54	-0,19	-0,92
+ EF _t	0,31	-0,04	0,58	0,15
+ GF _{Et}	-0,72	-0,58	0,39	-0,77
+ AC _{Nt-1}	27,52	26,31	21,38	18,01
- AC _{Nt}	31,87	23,80	20,68	18,46
- ΔAC _{Nt}	4,36	-2,51	-0,71	0,45
- INV _t	5,20	3,50	6,36	5,19
+ TIN _{Vt}	-2,33	6,61	2,84	3,39
+ EF _{At} - AF _{At}	5,64	-1,94	-0,38	0,18
+ I _t	1,00	0,61	0,79	0,62
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	0,72	0,44	0,56	0,44
+ TF _{At}	4,93	-2,38	-0,94	-0,26
+ TP _{Nt}	-2,60	-4,23	-1,89	-3,13
= 0	0,00	142,68	0,00	163,26

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

12. EUSKAL ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA

12.1 SARRERA

Txosten honen aurreko edizioetan egindako lanari jarraipena emanez, kapitulu honek EAEko, Nafarroako eta Estatu osoko enpresa-ehunaren bilakaera eta egitura aztertzen ditu, denbora-ikuspegi zabal batetik (2014-2020 aldia), eta sektore ekonomikoak eta soldatapeko estratuak aintzat hartuta. Horrekin lotuta, kontuan izan behar da EINeko Enpresen Direktorio Nagusia (DIRCE) hartu dela informazio-iturri bakartzat, azterketa homogeneoagoa izateko.

Iturri horrek, EINeko Enpresen Direktorio Nagusiak (DIRCE), ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 1ean aktibo dauden enpresen kopurua hartzen du kontuan. Hortaz, 2020ko datuek ez dute Covid-19aren eragina jasotzen, urteko lehen egunari baitagozkio.

12.2 BILAKAERA OROKORRA

Azken urteetan zehar enpresa aktiboen bolumenaren bilakaera ezberdina izan da aztertutako hiru eremu geografikoetan (EAE, Nafarroa eta Estatu osoa). Hala, 2014 eta 2020 artean Estatu mailan bakarrik hazi da etenik gabe. Nafarroan, aldi horretako urte arteko aldakuntzak positiboak izan dira, 2019an izan ezik. EAEn, berriz, enpresa aktiboen kopuruak urte arteko hazkundeak eta beherakadak izan ditu aldi horretan, txandaka.


Zehazki, 2014an 149.245 enpresa aktibo zeuden EAEn, eta 2020an 143.028; hau da, -% 4,2ko jaitsiera metatua izan zen bi urte horien artean. Bestalde, Estatu mailan, enpresa aktiboen bolumenak % 9,1eko gorakada pilatu zuen. 2014an 3.119.310 enpresa aktibo zeuden Estatuan, eta 2020an 3.404.428. Gorakada erlatibo hori Nafarroan izandakoa baino handiagoa izan zen (%6,8), 2014an 41.582 enpresa aktibo izatetik 2020an 44.430 izatera pasatu baitziren han. Hortaz, aztertutako eremuen artean, EAEn baino ez zen jaitsi enpresa aktiboen kopurua 2014 eta 2020 artean.

Edonola ere, komeni da aintzat hartzea urte arteko aldakuntzak neurri desberdinekoak izan zirela aztertutako hiru geografia-eremuetan, eta, halaber, alde nabarmenak hauteman zirela eremu bakoitzari zegozkion urte arteko gorabeheren artean.

EAEn esparruan, enpresa aktiboen bolumenak 2017an pairatu zuen urte arteko beherakadarik handiena (-% 7,2, urtebete lehenago erregistratutako % 1,8ko gorakadaren ondoren). Urte arteko hazkunderik handiena, berriz, 2018an hauteman zen (% 2,9). Nafarroaren kasuan, atzerakada bakarra 2019an (-% 0,1) izan zen. Estatu mailan, berriz, ekitalditik ekitaldira gora egin du enpresa aktiboen kopuruak, eta 2015ean izan zen aldakuntzarik handiena (urte arteko % 2,2ko hazkundeak).

27. grafikoa Enpresa kopuruaren bilakaera


EAE



Nafarroa




Estatua



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).


2020ari dagokionez, enpresa aktiboen kopuruak % 1,2ko urte arteko hazkundera izan zuen Estatuan, % 0,6koa EAEn eta % 0,5ekoa Nafarroako Foru Erkidegoan.

28. grafikoa Enpresa kopuruaren urte arteko aldakuntza



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

29. grafikoa Pisuaren bilakaera Estatuko guztizkoarekiko (Estatua=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).


Hala, EAeko enpresa aktiboek Estatu mailako guztizkoarekiko duten pisu erlatiboa 2014an % 4,8koa izatetik 2020an % 4,2koa izatera jaitsi zen. Nafarroako enpresei dagokienez, aldiz, partaidetza ia ez zen aldatu (% 1,31 2020an, eta % 1,33 2014an).

12.3 SEKTORE EKONOMIKOAK

Sektore ekonomikoak honela banakatuko ditugu: industria, eraikuntza, merkataritza eta gainerako zerbitzuak. Azken talde horren kasuan izan ezik, gainerakoetan enpresa aktiboen kopuruak behera egin zuen 2014 eta 2020 artean EAEn. Bestetik, Estatuan eta Nafarroan industriako eta merkataritzako enpresen bolumena mantendu egin zen, eta eraikuntzakoak eta gainerako zerbitzuetakoak areagotu egin ziren.

EAEn, industria-sektoreko enpresen kopurua murriztu zen gehien 2014 eta 2020 artean (-% 13,7). Nafarroan eta Estatuan, berriz, merkataritzaren sektoreko enpresen kopurua murriztu zen gehien (-% 5 eta -% 4,2, hurrenez hurren). Bestalde, gainerako zerbitzuen taldeak izan zituen hazkunderik altuenak aztertutako hiru geografia-eremuetan (% 17,7koa Estatuan, % 14,7koa Nafarroan eta % 1,8koa EAEn).

30. grafikoa Enpresen bilakaera, sektore ekonomikoaren arabera (indizea 2014=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Azterketa 2014 eta 2020 ekitaldietara mugatuta, eta Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionaleko (EJSN-2009) banaketak aintzat hartuta, handizkako eta txikizkako merkataritza eta ibilgailu motordunen eta motoen konponketa dira partaidetza-kuotarik handiena duten jarduerak enpresa kopuruari dagokionez, bi ekitaldietan eta hiru geografia-eremuetan. Hala, EAEn 2020an jarduera hori burutzen zuten 30.706 enpresek autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 21,5 osatzen zuten (% 22,9 2014an). Datu hori

jarduera horretan Estatuan erregistratutako kuotaren oso antzekoa da (guztizko nazionalaren % 21,3 izan zen 2020an), eta Nafarroakoa baino pixka bat handiagoa (erkidegoko guztizkoaren % 20,7 izan zen 2020an).

143. koadroa Enpresak, atal ekonomikoaren arabera. 2014-2020ko konparazioa

Kontzeptua	EAE		Nafarroa		Estatua	
	2014	2020	2014	2020	2014	2020
Guztira	149.245	143.028	41.582	44.430	3.119.310	3.404.428
Erauzte-industriak	51	35	36	29	2.481	1.974
Manufaktura-industria	11.650	9.966	3.128	2.913	176.726	175.039
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura.	410	433	549	745	14.826	11.592
Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen eta deskontaminazioaren kudeaketa	290	266	145	146	6.802	7.010
Eraikuntza	22.168	19.745	6.146	6.282	408.089	420.118
Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motoen konponketa	34.230	30.706	9.692	9.208	758.483	726.573
Garraioa eta biltegiatzea	10.822	9.716	3.303	3.358	196.828	204.921
Ostalaritza	13.062	13.102	3.456	3.437	276.674	282.629
Informazioa eta komunikazioak	2.679	2.984	525	675	56.100	69.369
Finantza- eta aseguru-jarduerak	2.818	2.568	760	788	69.674	78.851
Higiezinekin lotutako jarduerak	2.875	2.636	1.206	1.534	137.245	186.023
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	19.597	19.857	4.800	5.408	367.153	428.306
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	5.513	5.018	2.114	2.482	173.439	204.763
Hezkuntza	3.629	4.666	922	1.460	84.917	112.749
Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetakoak	7.918	8.563	1.425	1.716	142.136	171.753
Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak	2.934	3.589	988	1.435	78.187	107.249
Bestelako zerbitzuak	8.599	9.178	2.387	2.814	169.550	215.509

Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

EAEko eta Estatu osoko 2020ko datuak alde batera utzita, aztertutako hiru geografia-eremuetan, handizkako eta txikizkako merkataritzaren eta ibilgailu motordunen eta motoen konponketaren ondoren, honako hauek nabarmendu behar dira hurrenez hurren: eraikuntza eta jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak. Zehazki, eraikuntza-sektoreko 19.745 enpresa zeuden 2020an EAEn, hau da, erkidegoko enpresen % 13,8 ziren arlo horretakoak (2014an % 14,9); Nafarroan 6.282 enpresa zeuden, guztizkoaren % 14,1; eta, Estatuan, 420.118, guztizkoaren % 12,3.

Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoei dagokienez, 2020an, 19.857 enpresa zeuden EAEn, hots, autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 13,9 (2014an % 13,1); Nafarroan 5.408 enpresa, foru-erkidegoko guztizkoaren % 12,2; eta Estatuan, 428.306 enpresa, guztizkoaren % 12,6.

12.4 SOLDATAPEKOEN ESTRATUAK


Soldatapekoen estratuak aztertuko ditugu orain. Lehenik eta behin, estratu ezberdinak multzokatuko ditugu datuak aztertzeko. 2014 eta 2020 artean bilakaera ezberdina izan zuten estratu horiek aztertutako hiru geografia-eremuetan, baina soldatapeko bat edo bi zituzten enpresen kopurua modu orokorrean jaitzi zen aldi horretan.

Hala, 2014 eta 2020 artean, EAEn % 2,7 hazi zen hiru eta bost soldatapeko artean zituzten enpresen kopurua, eta % 4,2 hazi zen hogeitaz gehiago zituztenen kopurua. Gainerako enpresen kopuruak, berriz, behera egin zuen kasu guztietan, eta soldatapeko bat edo bi zituzten enpresek izan zuten beherakadarik handiena (-% 9).

Nafarroan estratu guztietako enpresen kopurua hazi zen, soldatapeko bat edo bi zituztenena eta sei eta bederatzi soldatapeko artean zituztenena izan ezik (-% 2,2ko eta -% 2,6ko beherakadak, hurrenez hurren, 2014 eta 2020 artean). Hazkunderik handiena, berriz, soldatapeko langilerik ez zuten enpresek izan zuten (% 13ko hazkunderik handiena aipaturako aldirian).

Estatuan, soldatapeko bat edo bi zituzten enpresek baino ez zuten behera egin 2014 eta 2020 artean (-% 1,5). Gainerako kasuetan gora egin zuten, eta hogeitaz gehiago zituzten enpresek izan zuten hazkunderik handiena (% 20,4).

31. grafikoa Enpresen bilakaera, soldatapekoen tarteen arabera (indizea 2014=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Azterketa 2014 eta 2020 urteetara mugatuta, eta soldatapekoen estratuak modu banakatuagoan aztertuta, honako ondorioa atera dezakegu: soldatapekorik ez zuten enpresen kopurua izan zen handiena bi ekitaldietan, eta kontuan hartutako hiru eremuetan. Hala, EAEn mota horretako 72.132 enpresa zeuden 2020an, hau da, erkidegoko guztizkoaren % 50,4 (2014an % 49,9). Enpresa horien partaidetza handiagoa izan zen Estatuan (guztizkoaren % 56,2) eta Nafarroan (erkidegoko guztizkoaren % 56,5).

144. koadroa Enpresak, soldatapekoen estratuen arabera. 2014-2020ko konparazioa

	EAE		Nafarroa		Estatua	
	2014	2020	2014	2020	2014	2020
Guztira	149.245	143.028	41.582	44.430	3.119.310	3.404.428
Soldatapekorik gabe	74.425	72.132	22.235	25.118	1.672.483	1.912.010
1-2 soldatapeko	47.401	43.117	11.565	11.308	921.000	907.192
3-5 soldatapeko	13.442	13.811	3.851	3.960	284.612	305.986
6-9 soldatapeko	5.800	5.762	1.666	1.622	110.819	125.472
10-19 soldatapeko	4.221	4.085	1.133	1.195	70.226	81.298
20-49 soldatapeko	2.524	2.601	703	742	38.157	46.101
50-99 soldatapeko	766	781	210	230	11.223	13.275
100-199 soldatapeko	368	373	117	140	5.753	6.906
200-249 soldatapeko		96		28		1.362
250-999 soldatapeko	259	222	90	72	4.288	3.774
1.000-4.999 soldatapeko	36	42	12	12	646	880
5.000 soldatapeko edo gehiago	3	6	0	3	103	172

Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Kontuan hartutako hiru lurraldeetan, soldatapeko bat edo bi zituzten enpresak eta hiru eta bost soldatapeko artean zituztenak izan ziren hurrengoak, ordena horretan. Zehazki, soldatapeko bat edo bi zituzten 43.117 enpresa zeuden EAEn 2020an, autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 30,1 (2014an % 31,8). Estratu horren partaidetza txikiagoa izan zen Estatuan (% 26,6) eta Nafarroan (% 25,5). Bestetik, EAeko 13.811 enpresak, hau da, erkidegoko guztizkoaren % 9,7k (2014an % 9) hiru eta bost soldatapeko artean zituzten 2020an. Estratu horretako enpresek pisu erlatibo txikiagoa zuten Nafarroan (% 8,9) eta Estatuan (% 9).



4. LEHEN SEKTOREA

1. IKUSPEGI OROKORRA

1.1 BILAKAERA ESTATU MAILAN

Ikuspegi orokorra

Lehen sektorea izan da Estatuan 2020an Covid-19aren pandemiaren eragina gutxien jasan duen makrosektorea, gutxienez, ekoizpena gauzatzeari buruzko datuetan, eta urtearen zati handiengan jarduera orori traba egin dioten zailtasun logistikoetatik harago. Lehen mailakoak dira asetzen dituen beharrak ere, eta horregatik, barneko edo kanpoko merkatuak eginiko produktu nagusien eskaria ez dirudi ahuldu denik, nahiz eta salbuespen deigarriren bat badagoen.

Estatu mailan suspertze-urtea izan da ekoiztakoaren amaierako balioari dagokionez, datu hori % 2,4 igo baita 2019tik, eta alderantzikatu egin da joera; izan ere, urte hartan, nekazaritzaren adarreko ekoizpenak -% 0,9 egin zuen behera, eta hala, eten egin zen 2014tik 2018ra elkarren segidako igoerak izan zituen lau urteko joera. Antzekoa gertatu zen hamarkadaren lehen zatian: 2009an jaitsiera izan zen (finantza-krisi handiarekin), lau urte goranzkoak izan ziren (2009-2013) eta beheraldi txiki bat 2014an. Hazkundearen erritmoa eta goranzko joera argiak dira hamarkada osoan, eta oro har, egonkortasuna dago adarren eta produktu moten araberako osaeran.

Igoeren hamarkada da eta, batez ere, Espainiako hiru ekoizpen-kategoria nagusien igoera sendoa nabarmentzen da: txerriak, frutak eta barazkiak, eta % 16,4ko, % 18,7ko eta % 19,1eko pisua dute, hurrenez hurren, sektorearen guztizkoan.

2019ko beherakada, Espainian, batez ere, frutetan izan zen (-% 12,1), eta 2020an, kategoria horren jaitsiera ia erabat konpentsatu da (+% 12,2). Igoera horrek, zerealenarekin batera (+% 28,9, 2008tik izandako guztizko balio altuenera iritsita), konpentsatu egiten du barazkien gelditzea (-% 0,2) eta oliba-olioaren ekoizpenaren jaitsiera handia (-% 45,5). Jaitsiera horren arrazoi nagusia zera da, zenbait landare-espezieek uzta eskasa emateko joera dutela uzta oparoko aldi baten ondoren.

Guztira, landare-ekoizpenak animalienak baino gehiago egin du aurrera (+% 3,1 eta +% 1,6, hurrenez hurren). Deigarria da behikiak, goranzko joeran zegoenak, geldialdia izan duela (-% 5,6), eta haragi-espezia nagusia da, txerriak alegia, haragien artean gorantz egiten jarraitzen duena (% 3,3), nahiz eta gorakadaren erritmoa moteldu. Kontrastea egiten du horrek haragiarenak ez diren ekoizpen nagusien igoerarekin: esnea % 3,9 eta arrautzak % 19,8. Arrazoiak prezioak izan dira, jaitsi egin baitira haragi guztietan, ardikian eta ahuntz-haragian izan ezik; behikia prezioan eta kantitatean jaitsi da; esnea eta arrautzak, berriz, igo egin dira prezioan eta kantitatean.

Balio Erantsi Gordinak goranzko bidea hartu du (+% 4,4), hiru urteko aurrerakada handiaren ondoren bi urteko atzeraldia izan ostean. Nekazaritza-errenta, Balio Erantsi Gordinetik amortizazioak, dirulaguntzak eta zergak kendu ondoren, ehuneko berdinean dago. Nekazaritza-errentaren estatistikan, Lan Unitateka ere neurtzen da nekazaritza-errenta, eta neurri horren bilakaeran, deigarria da adierazleak mendeko segida historiko osotik urtetik urterako igoera handienetako bat izan duela, eta jauzi hori lehendik zetorren joera baten testuinguruan koka daiteke. Lotu liteke hori pandemiak produktuen eskaria pixka bat indartu izanarekin; eta horrez gain, presioa sortu du ekoizpena ahalik eta langile gutxienekin lortzeko ere.

Ministerioaren estatistikako prezio orokorren indizeek % 0,5eko aurrerapena ematen dute nekazaritzaren adarrerako 2020an; % 1,8koa landare-adarrerako eta -% 1,2 animalien adarrerako. Kantitateetan, estimatutako aldakuntza agregatuak % 1,9, % 1,3 eta % 2,9koak dira hurrenez hurren, eta hortik etorritako moneta-balioaren aldakuntzak % 2,4, % 3,1 eta % 1,6koak dira.

Urtetik urterako aldakuntza kateatuek aukera ematen dute, adibidez, azken bosturtekoaren alderaketa egiteko, eta hori horrela, prezioen aldakuntzak -% 1,4koak dira nekazaritzan, -% 4,7koak barazkietan eta % 3,5ekoak animalietan, 2020ko balioa 2015ekoarekin alderatuta. Kantitateetan, % 11,9ko, % 10,2ko eta % 15,8ko aurrerapenak estimatuko lirateke, eta horrek aurrerapen hauek ekarriko lituzten salmenten balioetan: % 12,6, % 7,9 eta % 21,2. Azken horien arrazoia, batez ere, txerriak da, aurrerakada handiena izan duen kategoria delako, eta neurri txikiagoan, barazkiak eta frutak nekazaritza arloan. Bost urteko aldi horren alderaketan, BEGk % 16,7 egin du aurrera, eta nekazaritza-errentak, % 15,9.

145. koadroa Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak

(M euro)

Kontzeptua	2019	2020*	% Δ 2020/2019		
	Balioa	Balioa	Balioa	Kopurua	Prezioa
A.- Nekazaritza-adarreko ekoizpena	51.668,7	52.919,4	2,4	1,9	0,5
• Landare-ekoizpena	29.993,3	30.921,0	3,1	1,3	1,8
• Animalia-ekoizpena	19.907,1	20.232,6	1,6	2,9	-1,2
• Zerbitzu-ekoizpena	557,8	554,0	-0,7	0,4	-1,1
• Bigarren mailako jarduerak, ez- nekazaritzakoak, ez-bereizgarriak	1.210,5	1.211,8	0,1	0,2	-0,1
B.- Bitarteko kontsumoak	23.603,0	23.631,4	0,1	2,0	-1,9
C.- (A-B) Balio erantsi gordina	28.065,7	29.288,0	4,4	1,7	2,6
D.- Amortizazioak	5.460,7	5.592,5	2,4	0,1	2,3
E.- Beste dirulaguntza batzuk	5.729,1	5.899,2	3,0	-	-
F.- Beste zerga batzuk	450,5	471,1	4,6	-	-
G.- (C-D+E-F) Nekazaritza-errenta	27.883,6	29.123,6	4,4	-	-

(*): 2021eko urtarrileko 2. estimazioa. Ekoizleak jasotako oinarritzko prezioen arabera.
Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

1.2 BILAKAERA EUSKAL HERRIAN

Sektorearen makromagnitudeak⁽¹⁾

Sektorearen bilakaera bananduta aztertu behar da Euskal Autonomia Erkidegorako eta Nafarroarako; izan ere, EAerako makromagnitude ekonomikoak daude produktu-kategoriak, ia baliokideak, eta Estaturako azaldutakoaren epe berdinetan argitaratuta, eta ez da hori gertatzen Nafarroaren kasuan.

Estatuan ez da asko nabaritu Covid-19aren inpaktua, baina EAeko makromagnitudeetan aurkakoa interpreta daiteke: nekazaritza eta abeltzaintzako agregatu ekonomikoaren joera hautsi izana oso agerikoa da, -% 10,9ko atzerakada izan du, lehenik, mahastizaintza eta ardogintza arloak izandako beherakada handiagatik (-% 29,9), eta beraz, nekazaritzako azpisektoreak ere izandakoagatik (-% 13,6), eta neurri txikiagoan, basogintzaren azpisektoreak izandako atzerakadarengatik (-% 22,6). Abeltzaintzako ekoizpenak askoz beherakada txikiagoa izan du (-% 2,9). *Grosso modo* azalduta, 60 milioi euroko jaitsieratik 20 milioi inguru basogintzaren arloan galdu dira, eta 40 milioi inguru nekazaritzaren arloan, eta azken agregatu horretatik 30 ardoaren arloan galdu dira, eta gainerakoak urtea ezohikoa izan dela adierazten duen seriea duten kategoriei lotuta daude. Hor daude sartuta patata eta frutak, eta bolumen handiagoko gainerako kategoriek (zerealak eta barazkiak) balioa handitzen jarraitu ahal izan dute.

Aipagarriak dira lehen sektorearen agregatuaren osaerari begiratuta, Estatuaren eta EAeren artean dauden desberdintasun batzuk: lehenengoan, askoz pisu handiagoa dute frutek eta txerrikiak Euskadin baino; bigarrenean, askoz kuota handiagoa mahastiek, egurrak eta behikiak. Hala, 3 azpisektoretatik 2tako funtsezko produktuek atzera egin dutenez, agregatu osoak eta BEGek jaitsiera nabarmena izan dute. BEG faktoreen kostura -% 14,4 jaitsi da, eta nekazaritza-errenta -% 18,2.

Kontraste deigarriena zera da, Estatuan, mahastizaintza eta ardogintzako ekoizpena ez dela jaitsi, baizik % 9,4 suspertu dela, nahiz eta salbuespen garrantzitsua izan datu horiek aurreko urtean izandako -% 31,7ko jaitsiera handiari lotuta daudela, eta beraz, ondoriozta daiteke konpentsaziozko ondorioa izan dela. EAEn, 2019ko jaitsiera antzekoa izan zen (-% 27), baina konpentsatu ordez, -% 29,9ko atzerakada horrek jaitsiera sakondu du. Jakina, alderatzen ari gara bere inguruabar bereziak dituen lurralde jakin batean (Arabako Errioxa) oso kontzentratuta dagoen ekoizpena eta Estatuko agregatua, askotariko ardogintza eremuek osatutakoa.

⁽¹⁾ EAeko nekazaritzako makromagnitudeen aurrerapena. Nafarroari buruzko informazio ofiziala beste denbora-eredu baten arabera argitaratzen da.

Prezio eta kantitatearen osagaiak ikusita, kontrastearen arrazoia, batez ere, tona edo litro kopuruaren bilakaeran dauden desberdintasun handia da; izan ere, EAEn -% 15,7koa izan da atzerakada ekoizpen materialean, eta Estatuan, berriz, % 21,7 egin du aurrera. Nafarroak antzeko igoera izan du tona kopuruan (+% 18,3). Sektoreko iturriek aipatu dute *mildiu* ondoak Arabako Errioxari gehiago eragin diola Errioxa jatorri-izeneko eremu errioxarrei baino, eta Errioxa Beherean eta Nafarroan –Errioxa eta Nafarroa jatorri-izenak txandakatuta dauden eremuan–, ez duela inpaktu nabarmenik izan.

Beraz, mahastizaintzako eta ardogintzako ekoizpena da urteko aldaketarik handiena, eta aurreko krisi handian ikusitakoaren oso antzekoa gertatu da berriro ere. Biurteko bakarrean (bai 2008-2010ean, bai 2018-2020an), amaierako balioa erdira jaitsi da. 2010etik 2018ra, neurritsua eta oso lineala izan zen igoera edo suspertzea, eta urte solte pare bateko gelditzea besterik ez zen izan.

Antzekoa gertatu da basozaintza-sektorearekin eta ekoizpenaren zatirik handiena hartzen duen produktuarekin, insignis pinuarekin alegia. Jaitsiera handia izan zuen 2006tik 2009ra eta pixkanaka, modu linealean, suspertu egin zen gero, eta 2020an, 2008tik lehen aldiz, beherakada nabarmena izan du. Landare-espeziearen gaixotasun batek eragin du beherakada. Kasu honetan, gaindituta dago jada arazoa, baina 2019an prebentziozko mozketak asko egin behar izan zirenez, 2020ko jardueraren zati bat aurreratu egin zen, eta orain, 2018ko mailara itzuli gara, azken hamarkadako segidarekin bat etorritz.

146. koadroa EAEko nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak*

Kontzeptua	2018	2019	2020*
Amaierako nekazaritza-ekoizpena	555,1	553,5	493,3
Nekazaritza	297,5	279,3	241,4
Abeltzaintza	179,0	177,0	171,9
Basozaintza-sektorea	57,8	76,5	59,2
Norbere konturako beste ekoizpen eta hobekuntza batzuk	20,7	20,7	20,7
- Sektoretik kanpoko gastuak	194,3	196,4	196,8
= Balio erantsi gordina (m.p.)	360,8	357,2	296,5
+ Saldoa: diru-laguntzak - zergak	66,5	65,3	65,0
= Balio erantsi gordina (f.k.)	427,3	422,5	361,4
- Amortizazioak	83,4	84,4	84,9
= Balio erantsi garbia (f.k.)= Nekazaritza	343,9	338,1	276,5
Errenta			

(*): Aurrerapen-datuak; baliteke gerora aldatzea.

Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako estatistikak. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila.

Abeltzaintzaren sektorean ez da inpaktu handirik sumatu produktu bakoitzak zekarren joeran, eta espezieen araberako balioen urtetik urterako aldaketak txikiak izan dira.


Prezioei begiratuta, aldaketa txikiak izan dira 2020an kategoriaka. Salbuespen gisa beherakadak ere izan dira: mahastizaintza eta ardogintzaren arloan (batez beste, -% 16,9koa) eta patatarenean (-% 25koa).

Kantitateetan, EAEko nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpen osoa -% 8,4 murriztu zen; nekazaritzakoa -% 9,3, abeltzaintzako -% 0,8 eta basogintzako -% 25. EAEn nekazaritzak hedadura txikiagoa du Nafarroan edo Estatuan baino. Horrek esan nahi du, ekoizpena ustiategi txikiagoen mende dagoela, ustiategi bakoitzeko langile gutxiago dituzten hornitzaile-kateen mende, uzta masiboari lotutako teknifikazioak pisu txikiagoa duela, eta eredu hau zaugarriagoa da zailtasun logistikoen aurrean; Covid-19ak sortutako aurrean adibidez. Beste alde batetik begiratuta, egoera zail batean, egitura arintzea errazagoa du. EAEn, nekazaritzak hain masiboak ez diren eta oinarrizko produktuekin hain lotuta ez dauden banaketa-kateekiko lotura handiagoa du; ekoizpen espezializatuek pisu handiagoa dute, eta egoera zailtan, pandemian adibidez, horiek galdu dute garrantzia funtsezkoen mesedetan. Mahastiekin batera, atzerakada handiena izan duten kantitateak frutenak, industria-laboreenak edo lekadunak izan dira.

Abeltzaintzaren arloan, ekoizpena arintzearekin egoera koiuntural batera egokitzea zailagoa da, animalien espezieek landareenak baino ziklo biologiko luzeagoak dituztelako; eta EAEko ekoizpenaren gehiengo lotuago dagoelako oinarrizko ekoizpenari eta funtsezko kontsumoari. Sektore honek, gainera, presio handia du ertzetan, eta ez du arintzeko aukera handirik. Euskadiko haragiaren edo esnearen zati handi batek gertuko kontsumobideak ditu, eta horien funtzionamenduak ez du beherakada nabarmenik izan. EAEn bereizgarri horiek guztiak egon daitezke nekazaritzako BEGak izandako atzerakadaren atzean; baita beste hau ere: hamarkada honetan lehen aldiz izan da urtetik urterako bilakaera Nafarroakoaren eta Estatukoaren oso desberdina. Ez du zerikusirik aurten EAEko -% 14,5ek Nafarroako -% 0,1ekin eta Estatuko +% 4,4rekin, eta horrek badu zerikusia Covid-19arekin eta nekazaritza-eredu desberdinak izatearekin, baina baita aipatutako patologia biologikoekin ere.

32. grafikoa Balio erantsi gordinaren bilakaera, nekazaritza-sektoreko faktoreen kostura

(M euro)



Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua. / Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako estatistikak. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila.

Nafarroako bilakaera

Nafarroan, Estatuari lotuta aipatu ditugun aldakuntzak ez dira eskuratu edo argitaratu maiztasun berdinarekin, eta ezin da, beraz, alderaketa zehatzik egin, baina egin daitezke hurbilketa batzuk beste bide batzuetatik. Prezioei dagokienez, Foru Erkidegoko Nekazaritza Koiunturaren Buletinak indize orokor bat kalkulaten du nekazaritza-sektorearentzat, eta bertan, nekazaritzako ustiatagietako titularrek "jasotako prezio orokorren" urtetik urterako aurrerapena % 1,6koa izan da 2020an, honako hauek osatuta: animalien ekoizpena merkatzea (-% 1,7), eta nekazaritzakoa garestitzea (% 4,2). Gainera, basozaintzan eta basogintzan % 4,5eko aurrerapena kalkulaten da.

Estaturako aipatu dugun bost urteko alderaketa osatzeko, Nafarroan, urtetik urterako indizeen kateatzeak 2015eko datua baino % 7,1 gorago kokatzen du jasotako prezioen datu orokorra 2020an, eta kasu honetan, barazkien arloko adierazlea nahiko gaintetik dago (+% 11,8koa 5 urtean, eta basogintzaren arloan izandako % 11ren oso antzekoa), eta askoz apalago animalien arlokoa (+% 1,3).

Jakina, lehen Estatuarekin lotuta aipatu dugunarekin dagoen alde horrek zerikusia du Nafarroan arrakasta gehien duten kategoriek, oro har, Estatukoekin berdina izatearekin, baina pisu desberdinekin; barazkiek garrantzi erlatibo handiagoa dute guztizkoan, eta txerriak pisu proportzional txikiagoa izateaz gain, azken urteetan Erkidegoan utzi egin zitzaion espezie hori hiltzeari.

Prezio-indize horiek kategoriaka eta produktuka ere eskaintzen dira, eta bi adarretarako aldakuntzekiko koherentziaz, ikusten dugu gehienak garestitu egin direla landareen arloan, eta merkatu, berriz, abeltzaintzaren arloan.

Garrantzitsuena fruten prezioek izandako gorakada handia da (% 30,3), eta horrekin batera, mahastizaintzak atzerakada handia (-% 18,7) izan du, 2019koari kateatuta. Bi urtetan, konpentsatu egin da mahastizaintzako eta ardogintzako indize honetan 2018an izandako % 50etik gorako igoera. Barazkiek ez dute fruten adinako gorakadarik izan, baina % 6,4 egin dute aurrera.

Bost urteko alderaketa aplikatuta ikusten da zerealak 2015eko prezioen batezbestekoaren % 3,1 gaintik leudekeela; lekaduna % 1,9 gaintik, eta patata, % 38,2. Aldiz, industria-laboreak -% 20,4 merkatu dira; % 17,7ko igoera izan da bazketan, % 42,8 artekoa frutetan (fruitu lehorretan, aldiz, -% 49,7), +% 21,6koa barazkietan eta -% 14ko atzerakada ardoan.

2020ko abeltzaintzako balantzea hau litzateke: -% 7,8 behikian, -% 4 ardikian, -% 17,6 ahuntzetan, -% 2,6 txerrikian, -% 4,7 untxian, eta -% 11 ganadu bizian; hegaztiak izan dira haragi-kategorian igoera izandako bakarrak (+% 0,6); eta aldiz, animalia-jatorriko beste produktuak garestitu dira: esnea (% 4,7) eta arrautzak (% 5,8). 2015etik 2020rako bost urte horien alderaketan -% 4,9 izango genuke behikian, -% 5,1 ardikian, -% 16,7 ahuntz-haragian, % 17,3ko igoera txerrikian, -% 19,1 hegaztietan, -% 3,6 esnean, -% 8,1 arrautzetan eta -% 1,1 ganadu bizian.

Nafarroako nekazaritzari eta abeltzaintzari buruzko kapituluetan jasotako 2020ko kantitateen adierazleek erakusten dute errendimendu adierazgarriak dituzten kultiboen tona kopuruaren agregatua -% 0,3 murriztu dela 2019tik; abeltzaintzaren atalean, hildako tona kopuruak -% 4,2 egin du behera haragi arloaren adierazle orokor gisa, eta esnearen ekoizpena % 1,6 igo da.

Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza

Bi erkidegoetako nekazaritzako inportazioetan eta esportazioan badira egiturazko aldeak; baita bilakaera desberdina ere pandemiaren egoera berezian. Aldakuntzak ez dira handiak izan, baina batzuk adierazgarriak dira. Landareen esportazioan eta inportazioan urte batzuetan igoera nabarmena izan ondoren, kapitulu honetan, EAeko jarduera areagotu egin da 2020an. Igoera apaldu egin da, berriz, Nafarroan. Elikadura-industriaren arloan, aldiz, EAEn geldialdia izan da, baina Nafarroan gora egiten jarraitzen du esportazioak. Abeltzaintzaren arloan, geldialdia izan da bi eremuetan, eta bietan nabarmentzen da gehiago inportazioaren jaitsiera esportazioarena baino. Hala ere, ondorioak handiagoak dira EAEn nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritzaren

kapitulu bakarrean, animaliarenean, Foru Erkidegoan baino jarduera ekonomiko handiagoa baitu.

Egiturazko alderdiari begiratuta, hamarkadako bilakaeretan ikusten da lehen sektorearen kanpo-merkataritzaren jarduerak gehiago jotzen duela inbertsio masiboetara Nafarroan EAEn baino, eta goranzko joera indartsu eta jarraitua nabari da hiru adarretan; EAEn, urtetik urterako gorabeherak adar guztietan dira ohikoagoak. Alde deigarrietako bat da askoz gehiago igo direla landareen inportazioak hamarkadan zehar, eta EAEn hirukoiztera iritsi dira. Igoera hori askoz apalagoa da Nafarroan, landareen barneko ekoizpen masiboak askoz presentzia handiagoa duen lekuan.

Nafarroako bilakaera

Nafarroako nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen eta elikagaien eskariak igoera handia izan du Estatutik kanpo azken hamarkada honetan, eta pandemiaren zero urtea ez da salbuespena izan. Balantza komertziala eurotan aztertzen badugu animalien, landareen eta elikadura-industriaren adarrean, arreta pizten duen lehen gauza da 2020an, balantza orokorraren grafikoak jarraitu egin duela indartsu igotzen, 2019ko norabide berdinean. 2019an % 15,3 zabaldu zen eta 2020an beste % 16,3 zabaldu da.

147. koadroa Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Euskal Herria

(M euro)

Muga-zergen atala	Eremua	Esportazioak		Inportazioak	
		2019	2020	2019	2020
Animalia biziak eta animalia-erreinuko produktuak	EAE	266,0	227,2	434,5	372,0
	Nafarroa	204,4	203,8	178,2	141,4
	Euskal Herria	470,4	431,0	612,7	513,4
Landare-erreinuko produktuak, gantzak eta olioak	EAE	220,1	257,9	530,6	609,5
	Nafarroa	504,2	520,7	261,2	260,5
	Euskal Herria	724,3	778,6	791,8	870,0
Elikagaien industrietako produktuak	EAE	644,8	644,2	359,9	317,9
	Nafarroa	616,1	631,3	259,6	226,4
	Euskal Herria	1.260,9	1.275,5	619,5	544,3
Nekazaritzako elikagaien sektorea	EAE	1.130,9	1.129,2	1.325,0	1.299,4
	Nafarroa	1.324,7	1.355,8	699,0	628,3
	Euskal Herria	2.455,6	2.485,0	2.024,0	1.927,7
Nekazaritzako elikagaien sektoreak esportazio-inportazioen guztizkoan duen partaidetzaren %	EAE	4,4	5,4	6,6	8,3
	Nafarroa	13,1	15,4	12,8	13,6
	Euskal Herria	6,9	8,4	7,9	9,5

Iturria: Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Baina arrazoi desberdinengatik izan da; izan ere, 2020aren salbuespenezko izaera nabaritzen da inportazioen jaitsieran. Aztertutako hiru azpisektoreetan hautsi egin da inportazioaren goranzko joera, edo gutxienez, aurrekaririk gabeko beherakada izan dugu aztertu dugun aurreko hamarkadako aldian. Orotara, -% 14,6ko jaitsiera izan da 2019tik, eta abeltzaintzaren sektorean, -% 20,7ra iritsi da jaitsiera. Hala, abeltzaintzaren adarra

indarrez sartu da balantza positiboaren eremuan, nahiz eta hamarkadaren lehen erdian balantza nuluan egon, inportazioak eta esportazioak oso berdinduta.

Bitartean, esportazioen arloan ere bilakaera berdina izan dute hiru adarrek, igoeraren baitan moteltzearena, alegia, aurreko urtetik. Salbuespena da abeltzaintzaren kasuan 2019ko datua errepikatu egiten dela (-% 0,3). Landareenak % 3,3 egin du aurrera, elikagaienak % 2,5 eta hiruren guztizkoak % 2,3. Hiru adarrak hamarkada bat lehenago zuten mailaren bikoitzean daude, eta balantza garbiak bikoitza gainditu du, adar berdinetako inportazioak herena igotzetik gertu baitaude aldi horretan bertan. Nekazaritzako elikagaien sektorearen pisua, ikus daiteken moduan, kanpoko trukeen merkatuan askoz handiagoa da lehen mailako jarduerak Nafarroako ekonomian duten pisua baino, eta lehen esan dugun moduan, % 3 inguruan dago.

Esportazioaren igoera sendo eta jarraituaren baitan, 2020ko igoerak ez du alde handirik 2018koarekin. Urte hartan ere, igoeraren erritmoa ez zen oso azkarra izan. Inportazioetan, 2020ko maila 4 urte lehenagokoaren antzekoa izan da.

Biztanleria okupatua

Lan-indarrari dagokionez, atzerakada nabarmena izan dute Nafarroak zein Estatuak, baina koherentzia izan du beherazko joera izandako azken fasearekin, hau da, Espainiaren kasuan azken 3 urteekin eta Nafarroaren kasuan azken 2 urteekin. Biztanleria Aktiboaren Inkestako zifrak dira. Probintzietako laginak txikiak izan daitezke eta nahiko aldakuntza handiak isla ditzakete urte bakoitzaren erdialdeko egoeraren "argazki" honetan. 2019an, BAIk estrapolatu zuen Nafarroan nekazaritzako lanetan aritzen zirenak 12.500 inguru zirela inkestan jasotako erantzunetan oinarrituta. 2020ko ekainerako, 9.500 ingurukoa zen zifra, askoz txikiagoa, baina Estatuan bezala, ez da oso desberdina hamarkada erdialdean lortutako "ibar" mailarekin, edo ez da hamarkadaren hasieran, krisialdi sakonagoan, izandako zifrak bezain baxua.

EAEri dagokionez, ez da gauza bera gertatu Bizkaiko datuaren eraginagatik (urteko azken hiruhilekoko, nahiz eta ez den taulan azaltzen), eta kontrastea egiten du datu horrek Gipuzkoako, Arabako, Nafarroako edo Estatuako datuekin, horietan jaitsierak izan baitira, eta hirutan, Araba kanpoan utzita, areagotu egin da beheranzko joera. Bizkaian, beherazko eragin berezia izan da 2020aren erdiko bi hiruhilekoetan, eta azkeneko hiruhilekoan, berriz, susperraldia. Nolanahi ere, Bizkaian, aurreko bost urteko aldiaren (2012-2017) erregistratutako datuen erdiaren inguruan dauden balioen patroiak jarraitu egiten du, 2017an bat-bateko atzerakada handi bat izan ondoren. Azken hiru urteetan izandako beherakada ez da handia izan Araban eta Gipuzkoan; aldiz, Estatuan eta Nafarroan adierazgarria izan da, baina ez du hasiera gogorra ardatz izan.


148. koadroa Enplegua lehen sektorean*

Urtea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Nafarroa	Euskal Herria	Espainia
2011	2,4	3,9	3,4	9,7	7,1	16,8	735,9
2012	2,2	7,7	2,2	12,1	8,6	20,7	722,3
2013	4,6	7,6	3,2	15,4	15,5	30,9	753,1
2014	3,0	6,2	4,4	13,6	13,4	27,0	739,3
2015	1,8	6,2	2,5	10,5	9,4	19,9	740,4
2016	3,7	5,4	1,9	11,0	9,8	20,8	760,2
2017	3,8	7,7	3,8	15,3	10,1	25,4	832,6
2018	3,2	2,9	2,8	8,9	14,2	23,1	822,5
2019	3,4	4,2	3,4	11,0	12,5	23,5	809,3
2020	3,6	2,2	2,6	8,4	9,6	18,0	763,4

(*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak eskaini ditugu, sektoreko enpleguaren urtarokako bilakaera aztertzeko adierazgarriagoak direla uste dugulako.

Iturria: EIN Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

33. grafikoa Enpleguaren bilakaera lehen sektorean*



(*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak eskaini ditugu, sektoreko enpleguaren urtarokako bilakaera aztertzeko adierazgarriagoak direla uste dugulako.

Iturria: EIN Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

Nolanahi ere, urtero ekainean jasotzen den datua denez, beti egon daiteke, lehen aipaturako laginen kontu horri lotuta ez ezik, hain urtarokoa den eta ustekabeko eragileek eta aldakuntza biologikoez hainbeste eragiten dioten jarduera bateko kanpaina zehatzen inpaktuari lotuta. Gainera, 2020an, baliteke pandemiak inpaktu handia sorrarazi izana, neurketa zein hilabetetan egin zen aintzat hartuta. Lehen esan dugun moduan, kalkulaturako datua badirudi bat datorrela joerarekin eta lehenagoko gutxienekoez, eta konfinamenduak hasi eta handik 3 hilabetera, erdietsia zen normalizazioaren lehen fasea.

Normaltasun hura ez zen inoiz erabat galdu nekazaritzan eta abeltzaintzan, uztek eta hazkuntzak aurrera jarraitu behar izan baitzuten, eta behar-beharrezko produktuen eskaera, ez jaisteaz gain, une batzuetan ere, produktuak pilatzeagatik, igo ere egin zen ohiko urteetako datuekin alderatuta.

2. NEKAZARITZA-AZPISEKTOREA

2.1 EKOIZPENAK, AZALERAK ETA ERRENDIMENDUAK

Pandemiak ez zuen eraginik izan Estatuko edo Nafarroako nekazaritza-azpi-sektorearen adierazle nagusietan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore espezifikoren batean izandako jaitsierek badirudi ez zutela zerikusirik izan Covid-19arekin, bestelako arrazoiren batekin baizik.

Nekazaritza-sektorea, orokorrean, oso egonkorra da epe luzean, epe motzean hainbat faktorek baldintzatzen badute ere. Nekazaritza-sektoreko kudeatzaileek, berriz, barneratuta dute etengabe egokitzeko ohitura. Gainera, oinarrizko beharrak asetzen dituzten produktuak ekoizten dituztenez, babestuta egon izan dira gorabehera ekonomikoen aurrean. Baratzezaintza sektore nagusia da eskualde batzuetan, hala nola Nafarroako Erriberan. Horri esker, inbertsio eta laguntza garrantzitsuak jasotzen jarraitu du. Aldi berean, sektore horren kalitateak lagundu egin diezaieke pandemiak gogor kaltetu dituen beste sektore batzuei, adibidez, ostalaritza gastronomikoari edo turismoari, oro har.

Barne-kontsumoa hazi egin zen kanpo-kontsumoaren aldean, eta baliteke horrek prezioei eragin izana, HORECA kanaletan marjina handiagoak ezarri baitziren. Dena den, adierazle talde bakar batean ere ez da nabari Covid-19aren eraginarekin lotu daitekeen anomaliarik, ez prezioetan, ez kopuruetan, ez etekinetan. Nolanahi ere, hemen monitorizatutako prezioak ez dira jatorrian jasotzen direnak.

Pandemiak egoera orokorrean eragin izanaren zantzurik ez izatearekin batera, beste urte batzuetan gertatu bezala, produktu ezberdinek joera eta aldakuntza oso anitzak eta independenteak izan zituzten. Ardoaren ekoizpena da urtekako patroia horren adibide garbi bat, baita urte arteko aldakuntza handien adibidea ere –aldakuntza horiek konpentsatu egiten dira epe ertainera–. Dena den, berritasun nabarmenena Nafarroako “baratzearena” da. Izan ere, aztertutako laginean kontuan hartutako baratzki nagusien ekoizpena hamarkadako handiena izan zen, tona kopuruari dagokionez.

Nolanahi ere, ikuspegi orokorraren atalean azaldu dugun moduan, EAEko ardogintzaren outputak izandako ia % 30eko jaitsiera gogorra izan zen urteko albiste nagusia. Laboreek izandako gaixotasun batek eragin zuen beherakada hori. Zenbateko materialari dagokionez, jaitsiera -% 15,7koa izan zen, eta prezioari dagokionez -% 16,9koa. EAEko nekazaritza-sektorearen azken ekoizpena aurreko urtean baino 40 milioi baxuagoa izan zen (ehunekotan, -% 9,3), eta galera horretatik 30 milioi ardogintzari lotuta egon ziren. Patatak (-% 25 egin zuen behera prezioak) edo fruta-arbolek ere atzera

egin zuten, eta lekadunen edo industria-laboreen kopuruek ere behera egin zuten. Barazkiek eta zerealek, bestalde, gora egin zuten.

Mahastietan “mildiu” onddoarekin izandako arazoa alde batera utzita, aurreko krisialdi handian gertatutakoa errepikatu zen EAEn. 2008-2010 alderaketan zein 2018-2020 alderaketan, azken balioak behera egin zuen eta kopuruaren erdia inguru galdu zuen. Bestalde, 2010 eta 2018 artean hazkundea nahiko jarraitua eta egonkorra izan zen.

Aipatzekoa da hemen, aurrez adierazi dugun moduan, EAeko eta Nafarroako nekazaritzaren balantzeak eta egiturak oso ezberdinak direla arrazoi historikoak eta habitatarekin lotutako arrazoiak medio. Hala, EAeko nekazaritzak, eremu batzuetan, joera handiagoa izan dezake pandemiaren gisako egoera batean ahultzeko. EAeko ustiapenak txikiagoak dira, pertsonen mendekotasun handiagoa dute –Nafarroan askoz gehiago erabiltzen dira makinak–, eta gehiago bideratzen dira kanal ez hain masiboetara eta kanal espezializatuagoetara. Haren logistika zaurgarriagoa da pandemiak ekonomiaren sektore guztiei aurrean jarri dizkien zailtasunen aurrean, eta haren ekoizpena ez dago hain bideratuta oinarritzko eta handizkako banaketa-kanaletara; kanal horiek kaltetu ditu gutxien krisiak.

EAeko nekazaritza-sektorearen izaera markatzen duten produktu batzuek jaitsierak izan zituzten –patata, ardoa, sagardoa, piperra...–. Dena den, orokorrean, sektorearen ohiko joera edo portaeren barruan koka daitezke, eta ez dago argi haien bilakaera Covid-19aren testuinguruaren eraginez izan zenik.

2.2 EKOIZPENAK, AZALERAK ETA ERRENDIMENDUAK

EAeko eta Nafarroako tona kopuruak batuz gero, ardogintza-sektorea ez zen jaitsi, % 18,3 hazi baizik. Izan ere, Nafarroako ekoizpenak ez zuen jasan aipatutako landare-gaixotasunaren eraginik. Gainera, arazo hori agertu izanak mesede ere egin zion, ziur aski, ordezkoko gisa. Izan ere, gaixotasunak ez zion Arabar Errioxari bakarrik eragin, baita Errioxako beste eremu batzuei ere.

Hain zuzen ere, kopuruari dagokionez, aztertutako lagineko urte arteko igoerarik nabarmenena izan zuen ardogintzak, barazkiak alde batera utzita: adibidez, tomateak, barazki nagusiak, % 15,7 egin zuen gora tona kopuruan; espinakak, azaloreak (% 31,3 hazi zen), letxugak edo lekak ere bi digituko hazkundeak izan zituzten guztizko masari dagokionez.

Zerealen artean bai, izan zen ekitaldi horretako gertakari propio bat. Garagarrak hautsi egin zuen hainbat urtetako beheranzko joera, eta % 16 hazi zen ekoizpena. 2020an ez

ziren askoz produktu gehiago izan ezohiko joera-aldaketa esanguratsuak izan zituztenak, eta azken hamarkadako fluktuazio-tartean mugitzen jarraitu zuten.

Hain zuzen ere, barazki ugarienek azken urteetako joera argiak jarraitu zituzten. Tomatea izan zen salbuespena, bi urtez hazi gabe egon ondoren suspertu egin baitzen, baina ohiko batezbestekoan kokatu zen. Piperrak eta brokoliak behera egiten jarraitu zuten, azken ekitaldietako joerari jarraituz. Azalorearen outputak, berriz, gora egiten jarraitu zuen. Tipulak, lekak edo ilar berdeak ere hazten jarraitu zuten.

149. koadroa Euskal Herriko nekazaritza-ekoizpen adierazgarrienak*

Produktua	2019	2020	% Δ 20/19	% Euskal Herria / Espainia 2020
<i>(m Tm)</i>				
Zerealak				
– Garia	568,9	566,2	-0,5	7,1
– Garagarra	389,0	451,2	16,0	4,1
– Oloa	93,9	79,4	-15,4	6,2
– Artoa	178,2	184,0	3,2	5,5
Bazka-laboreak				
– Artoa	247,5	219,3	-11,4	5,5
– Alpapa	270,6	274,5	1,4	2,8
Barazkiak				
– Zainzuria	6,8	8,0	17,9	11,7
– Letxuga	17,1	19,5	13,8	2,0
– Espinaka	12,8	15,5	20,6	18,1
– Tomatea	153,6	177,7	15,7	4,2
– Piperra	31,3	23,8	-23,9	1,5
– Orburua	16,4	15,2	-7,4	7,2
– Azalorea	38,2	50,2	31,3	23,4
– Brokolia	72,7	71,9	4,5	12,3
– Tipula	25,4	26,6	30,8	2,1
– Leka	12,9	16,9	30,8	10,7
– Ilar berdea	21,1	21,9	3,8	18,6
Fruta-arbolak				
– Sagardo-sagarra	10,3	7,0	-32,3	7,7
– Mahai-sagarra	15,1	10,9	-28,0	2,2
– Udarea	15,9	13,8	-13,5	4,3
– Mertzika	8,9	8,0	-9,7	1,0
– Arbendola	2,6	3,8	42,9	1,1
Ardoa eta muztioa (m HI)	1.244,9	1.472,2	18,3	3,2
Patata	60,6	63,1	4,0	2,9
Azukre-erremolatxa	128,6	128,6	125,3	5,0

(*): *Balioespenak.*

Iturria: Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren hileko buletina.

Fruta-arbolen kasuan ere, orokorrean, jarraipena eman zioten aurreko urteetako joerari, baina kasu honetan beheranzko bilakaera gailendu zen. Hala gertatu zen fruta-arbola nagusi guztiekin, udarearekin, sagarrarekin eta mertxikarekin. Dena den, aipamen berezia egin behar zaio sagarraren kasuari. Sagardotarako zein mahairako sagarrek epe luzeko joerarekin (behera) jarraitu zuten, baina eten egin zen aurreko biurtekoan izandako gorakada. Baliteke horretan eragin izana ostalaritzaren geldialdiak, baita sagardoari

irteera ematen dioten beste kanal batzuen geldialdiak ere. Baina, aipatu dugun moduan, mahaiko sagarrek ere ia proportzio berean egin zuten behera (-% 32,3 eta -% 28).

EAEk eta Nafarroak Estatuko ekoizpenaren gainean duten kuotak behera egin zuen kasu gehienetan, baina izan ziren salbuespenak, adibidez, azalorea. Barazki horrek izan zuen kuotarik nabarmenena, eta maximoetan kokatu zen, Estatuko guztizkoarekiko laurdenetik hurbil.

Azaleren gaineko koadroan ere ikus daiteke hori. Barazki batzuek kuota esanguratsuak eskuratu zituzten, batez ere, Nafarroako Erriberako barazkigintzaren pisuari esker.

150. koadroa Euskal Herriko produktu esanguratsuenekin landatutako azalera*

Produktua	2019	2020	% Δ 20/19	% Euskal Herria / Espainia 2020
(ha)				
Zerealak				
– Garia	103.514	97.804	-5,5	5,1
– Garagarra	90.845	94.898	4,5	3,4
– Oloa	18.108	16.397	-9,4	3,2
– Artoa	15.527	16.183	4,2	4,7
Bazka-laboreak				
– Bazka-artoa	5.506	5.597	1,7	5,2
– Alpapa	6.467	6.518	0,8	2,6
Barazkiak				
– Zainzuria	1.763	2.020	14,6	13,9
– Letxuga	765	804	5,1	2,3
– Espinaka	695	812	16,8	15,3
– Tomatea	2.284	2.406	5,3	4,2
– Piperra	1.148	1.036	-9,8	4,4
– Orburua	1.381	1.279	-7,4	8,1
– Azalorea	1.860	2.086	12,2	23,5
– Brokolia	5.330	4.895	-8,2	17,5
– Tipula	407	442	8,6	1,8
– Leka	956	1.279	33,8	16,2
– Ilar berdea	2.719	2.839	4,4	17,7
Patata	1.883	1.943	3,2	2,9
Azukre-erremolatxa	1.767	1.310	-25,9	4,9

(*): *Balioespenak.*

Oharra: Ez ditugu sartu mahastizaintzaren eta fruta-arbolen azalerei buruzko datuak, horien argitalpenaren nahitaezko maiztasun mugatuagatik (bost urtetik behin).

Iturria: Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren hileko buletina.

Azaloreaz gain, zainzuriari edo ilar berdeari bideratutako azalaren hazkunde jarraitua nabarmentzen da. Azaloren eta zainzuriaren kasuan, batez ere, azken hirurtekoan. Eta ilar berdearen kasuan, batez ere, 2013az geroztik. Piperraren, orburuaren eta brokoliaren kasuan behera egin zuen azalera, baina jaitsiera hori aurreko urteko murrizketa handien jarraipena izan zen. Gainerakoan, azalerrari dagokionez, urte arteko aldakuntzak ez ziren hain zakarrak izan eta adierazleak aukera ematen du epe luzeagoko ikuspegia izateko: zer landare-espeziek izango duten goranzko joera handiagoa etorkizunean eta zein geratuko

diren bigarren mailan. Azken horiek, orokorrean, egonkorragoak izan arren, badirudi ez dela desagertuko EAEko eta Nafarroako nekazaritzako produkturik.

Azaleraren gaineko datuak hektareatan izateak eta ekoizpenaren gaineko datuak tonatan izateak aukera ematen du urtero errendimenduaren bilakaera ezagutzeko, bai EAEn eta Nafarroan, bai Estatuan. Noski, askotariko kasuistikak izaten dira, eremu geografiko bakoitzean nekazaritza-eredu eta "mix" ezberdinak jarraitzen dituztelako; habitat batzuetan eta besteetan desberdina delako batez besteko azalera; faktore biologiko edo klimatikoen arabera ekoizpen bakoitzaren aldakortasuna handiagoa edo txikiagoa delako; landare bakoitzaren baldintza naturalak ezberdinak direlako, dentsitateari edo laborearen txandatzeko-maiztasunari dagokienez, etab.

151. koadroa Nekazaritza-produktu esanguratsuenek lortutako errendimenduak*

Produktua	Euskal Herria		Espainia	
	2019	2020	2019	2020
<i>(Tm/ha)</i>				
Zerealak				
– Garia	5,5	5,8	3,0	4,2
– Garagarra	4,3	4,8	2,8	4,0
– Oloa	5,2	4,8	1,8	2,5
– Artoa	11,5	11,4	11,7	11,9
Bazka-laboreak				
– Bazka-artoa	45,0	39,2	35,4	36,9
– Alpapa	41,8	42,1	36,6	38,4
Barazkiak				
– Zainzuria	3,8	4,0	4,7	4,7
– Letxuga	22,4	24,3	28,5	28,9
– Espinaka	18,5	19,0	14,5	16,2
– Tomatea	67,3	73,9	87,8	74,8
– Piperra	27,3	23,0	65,9	66,3
– Orburua	11,9	11,9	13,8	13,4
– Azalorea	20,6	24,1	23,7	24,2
– Brokolia	13,6	14,7	17,0	20,9
– Tipula	62,5	60,1	55,7	51,6
– Leka	13,5	13,2	19,0	19,9
– Ilar berdea	7,8	7,7	7,6	7,4
Patata	32,2	32,5	33,2	31,9
Azukre-erremolatxa	72,8	95,7	91,2	94,4

(*): Balioespenak.

Iturria: Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren hileko buletina.

Euskal Herrian, orokorrean, adierazle konposatu honen bilakaera egonkorra izan da hamarkada oso batean zehar, produktu batzuek gorabehera nabarmenak izan arren, hala nola tomateak edo erremolatxak. Bi horiek dute pisurik handiena lursailaren hedapenari dagokionez. 2020an, tipulak (behera) edo patatak (gora) lehengo joera hartu zuten berriro, 2019an ezohiko aldaketa bat izan ondoren.

Estatuko datuen arabera, labore gehienaren errendimendua oso egonkortuta dago. Izan ere, lagina handiagoa izateak eta lurralde gehiago kontuan hartzeak aukera gehiago ematen ditu tokiko muturreko datuak elkarren artean konpentsatzeko. Piperraren goranzko joera jarraitua nabarmendu daiteke, baina ez da halakorik gertatzen tomatearen kasuan; izan ere, tomateak ezohiko geldialdi gogorra izan zuen 2020an. Bazken kasuan ere beheranzko joera apala ikus daiteke. 2020ko urte arteko aldakuntzari dagokionez, tomatearekin batera, brokoliaren joera-aldaketa (gora) ere nabarmendu behar da; joera-aldaketa hori arraroa izan zen aurreko urteetako datuak kontuan hartuta.

2.3 NEKAZARITZAKO PREZIOAK

Nekazaritzaren gaineko Nafarroako estatistikak xehetasun handiz jasotzen ditu nekazariak jasotako prezioak. Datu horiek, tona kopuruari buruzko datuekin batera, aukera ematen dute bolumen ekonomikoak kalkulatzeko.

Prezioei dagokionez, zereal nagusiek antzeko balioak izan zituzten, epe luzean oso egonkortuak. Tuberkuluen kasuan, patata berantiarraren prezioak progresiboki gora egin zuela ikus daiteke, eta justu kontrakoa gertatu zen sasoi erdiko patatarekin. Esparragoak, Nafarroako labore bereizgarriak, ezohiko bilakaera izan zuen: kiloko 2,25 eurotik 3,25 eurora igo zen hamarkadaren lehen herenean, maila horretan egonkor mantendu zen 2016 eta 2018 artean, eta hasierako mailara jaitsi zen berriro ere azken biurtekoan. Orburuaren kurba ere antzekoa izan zen, baina ez hain nabarmena: 4 urtez prezioek gora egin ondoren, 3 urtez apurka behera egin zuten.

Piperraren prezioaren ibilbidea, berriz, gutxi gorabehera kontrakoa izan zen: hamarkadaren hasierako antzeko balioetara itzuli zen barazki garrantzitsu hori. Beste barazki batzuen portaera oso ezberdina izan zen, hala nola tomatearena edo arto gozoarena. Aztertutako aldian ez ziren apenas igo horien prezioak. 2020ko garestitzea (+% 11,9) ia salbuespen bat izan zen tomatearen kasuan, erkidegoan pisurik handiena duen barazkia.

Fruta nagusiek tona kopuruan izandako jaitsierak bat etorri ziren denboran prezioen epe luzeko goranzko joerarekin, nahiz eta joera horrek epe motzean gorabeherak izan. Zentzu horretan, 2020an mertxika garestitu zen gehien, % 69,1. Baina madariaren eta sagarraren garestitzeak ere hamarkadako handienetakoak izan ziren. Atal honetako kasurik bereziena arbendolarena da. Hamarkadaren lehen erdian hirukoiztu egin zen arbendolaren prezioa, eta azken bosturtekoan 2015ean eskuratutako gehieneko balioaren erdira jaitsi zen.

Hamarkada honetan zehar nabarmenak izan dira ardoaren prezioaren gorabeherak: 2 urtez behera egin ondoren, ardo gorriaren prezioak ezohiko hazkunde apala izan zuen

2020an. Ardo beltzaren prezioak, berriz, behera egiten jarraitu zuen, baina 2019an baino gutxiago.

152. koadroa Nekazaritza-produktu esanguratsuenen prezioak(*)

Produktua	Nekazariak jasotako prezioak (euro/100 kg)		
	2019	2020	% Δ 20/19
Zerealak			
– Garia	18,55	18,90	1,9
– Garagarra	17,36	16,69	-3,9
– Oloa	16,37	15,77	-3,7
– Artoa	18,04	19,21	6,5
Bazka-laboreak			
– Alpapa	11,76	12,24	4,1
Barazkiak			
– Aza (burua)	28,55	25,65	-10,2
– Zainzuria	267,75	224,95	-16,0
– Letxuga	55,41	60,46	9,1
– Espinaka	64,56	58,91	-8,8
– Tomatea	11,38	12,73	11,9
– Piperra	70,33	80,57	14,6
– Orburua	71,41	67,40	-5,6
– Azalorea	41,40	40,75	-1,6
– Brokolia	56,10	60,60	8,0
– Tipula	14,66	15,40	5,0
– Leka	45,42	42,61	-6,2
– Ilar berdea	25,40	25,49	0,4
Fruta-arbolak			
– Sagarra	45,52	56,71	24,6
– Udarea	55,65	66,42	19,4
– Mertzika	39,61	67,00	69,1
– Arbedola	119,30	86,25	-27,7
Ardoa (euro/Hl)			
– Ardo zuri berria	76,32	77,61	1,7
– Ardo beltz berria	64,88	51,64	-20,4
Patata (sasoi erdikoa)	38,13	35,40	-7,2
Patata (berantiarra)	25,18	27,38	8,7

(*): Balioespenak.

Iturria: Nekazal Koiunturaren buletina. Nafarroako Gobernuak. Landa Garapeneko, Toki Administrazioiko eta Ingurumeneko Departamentua.

3. ABELTZAINZA-AZPISEKTOREA

Lehen sektorearen eta elikadura-sektorearen beste zutabeetako bat da abeltzaintza-azpisektorea. Urte asko daramatza disrupzio-egoeran, aldaketa sozioekonomiko azkarrak direla eta. Aldaketa horien ondorioz, gizarte tradizionalaren enbor-jarduera bat izatetik (batez ere, EAE eta Nafarroako habitat atlantikoan) jarduera oso teknologizatua izatera pasatu da, lehiaren eta prezioen araberako presioen mende dagoena, kontzentrazio-prozesuekin, kuoten mende, etab.

Presio horien pean, sektorea industrializatzen ari da etengabe, eta horrek talka egiten du eredu nagusiaren aurkako ereduekin, zeinek honakoen aldeko apustua egiten duten etorkizunerako: kontsumo-ereduak aldatzea, animalien ongizate handiagoa, negutegi-efektuko gasen igorpena murriztea, lursailak eta larreak modu arrazionalen erabiltzea, negozioaren transferentzia modu ordenatuan egitea (belaunaldien artean edo jabetza duten abeltzainetatik kudeatzaile-papera betetzen dutenetara), etab.

Gero eta muturrekoagoa den aldaketa-agertoki honetan, sektoreak aldi berean egin behar die aurre disfuntzio berriei eta Covid-19aren pandemiari. Azpisektoreak pandemiaren eraginari eutsi ahal izan dio neurri handi batean, ustiapen motari esker: gero eta langile gutxiago dituzte, orokorrean bakartuta egoten dira eta gero eta babes-neurri sanitario sofistikatuagoak dituzte. Gainera, haien produktuak behar-beharrezkoak dira, batez ere, esnearen arlokoak.

Dena den, sektoreak laguntza behar izan du, ganaduaren elikadura-kostuak igo egin baitira. Igoera hori ongi ikusten da kapitulu honetan laburtuko ditugun emaitzen kontuen lagin batzuetan. Era berean, posible da pandemia presio-elementu gehigarri bat izatea haragiaren ekoizpen-jarduerarentzat. Haragi-ekoizpena krisian dago aztertu dugun habitateko negozio tradizionalenetan, hala nola behikiaren eta ardikiaren inguruko negozioetan. Beste espezie batzuekin lotutako negozioak egoera hobean daude, aurrerago ikusiko dugun moduan. Haragiak elikaduran duen paperaren edota ganaduak klima-aldaketaren gainean duen paperaren gaineko eztabaidek inoiz baino gaurkotasun handiagoa dute.

Nolanahi ere, 2020ari buruzko txosten honetan aurreko urteetako adierazle berdinak aztertuz gero, EAeko eta Nafarroako abeltzaintzaren gaineko datuetan ez dira Covid-19aren krisiaren eraginak modu zuzenean eta argian ikusten. Biztanleriaren edo ekonomiaren edozein sektoretan bezala, jarduerak zaildu egin dira pandemiaren ondorioz, baina azken hamarkadako joeraren araberakoak izan dira emaitzak aztertutako neurketa gehienetan. Egia da 2020an aldaketa berezi bat izan zela Nafarroako hiltegietan, baina aldaketa horrek ez du zertan loturarik izan gaixotasun birikoak eragindako krisiarekin eta krisi horretatik eratorritako alarma-egoera eta aldi baterako konfinamendurekin. Nafarroako hiltegietan hildako behi-aziendaren kopuruak ezohiko igoera izan zuen

2020an. Aldi berean, hegaztien hilketak joera-aldaketa nabarmena izan zuen, eta behera egin zuen bat-batean.

Nafarroako estatistiketan jasotako prezioen gaineko atalaren arabera, 2020an jasotako datuak nahiko ezberdinak dira aurreko urteetako portaerekin alderatuta. Prezioen adierazleak, hain sentikorra eta malgua izanik, ezohiko egoerak eragina izan zuela erakutsi dezake.

Gorabeherarik ez zen falta izan 2020an eta, adibidez, urtearen zati handi batean ostalaritzak asko murriztu behar izan zuen jarduera. Horrek, zalantzarik gabe, eragin egin zion ostalaritzaren bidez banatzen zen haragi-ekoizpenari. Ziur aski, gehiago eragin zion haragi-ekoizpenari, kanal beraren bidez banatzen diren beste batzuei baino: esnea, arrautzak, etab. Hala, marjina txikiagoa uzten duten kanalen bidez bideratu zen familien kontsumoa.

3.1 ABELTZAINZA-ERROLDA

EAEn habitat atlantikoa da nagusi, eta bertako paisaia ardi- eta behi-aziendak ikusi izan dira gehienbat tradizionalki. Dena den, egon litekeen uste orokorraren aurka, EAEn eta Nafarroako abeltzaintza-errolarik ugariena txerri-aziendarena da, alde handiarekin, eta batez ere Nafarroan daude kontzentratuta. Ardi-azienda gutxitzen ari da etengabe, eta Nafarroan ia behi-azienda gehiago dago EAEn baino, Nafarroako habitat atlantikoa mugatuagoa izan arren eta biztanle gutxiago bizi arren.

Nafarroan txerri-azienda da ugariena eta azken hamarkadan goranzko joera argia izan du. Horri esker, 2015ean ardi-azienda gaintitu zuen. Txerri-aziendaren hazkundea gorabehera batzuk izan baditu ere, ardi-aziendaren beherakada oso lineala izan da. Bilakaera horiek Estatuko bilakaeraren oso antzekoak dira. Dena den, Nafarroan baino hamarkada bat lehenago hasi zen Estatuan txerri-azienda gailentzen, abere kopuruari dagokionez.

2007az geroztik aztertutako behi- eta txerri-aziendaren inguruko datuei dagokienez, 2020an maximo historikoetara iritsi ziren. Behi-aziendaren kasuan, aurreko gehieneko kopurua 2017koa izan zen eta, txerri-aziendaren kasuan, 2010ekoa Nafarroan eta 2019koa Euskal Herrian. Behi-aziendaren kasuan, batez ere, urte jakin batzuetan gertatu da hazkundea, eta urte horietan aurreranzko jauzi esanguratsuak eman dira. Txerri-aziendaren kasuan, berriz, urte batetik bestera tartekatuta egin dira goranzko jauziak eta beherakadak. Aitzitik, ardi-aziendak behera egiten jarraitu zuen 2020an eta ondoz ondoko hamargarren urtez gutxieneko historikora iritsi zen. Ahuntz-aziendari dagokionez, Nafarroan behera egiten jarraitu zuen, baina EAEn gorakada bat izan zen, eta bi eremuak kontuan hartuta, 2016az geroztiko lehen hazkundea gertatu zen.

Nafarroan honakoak izan ziren 2020ko aldakuntzaren ehunekoak: % 2,7 behi-azienda, -% 1,7 ardi-azienda, -% 2 ahuntz-azienda eta % 5,5 txerri-azienda. Kasu honetan, aldakuntzaren zeinuak bat datoz Estatukoekin (% 0,5, -% 0,3, -% 0,3 eta % 4,6). EAEn kasuan, urte arteko datuek erakusten dutenez, aldaketa gutxi izan zen: % 0,3, -% 0,8, % 2,9 eta % 0,7. Hamar urteko tartean, Nafarroan honakoak izan ziren aldakuntza metatuak, hurrenez hurren: % 10,7, -% 27,8, % 14,9 eta % 4,1. Estatuan honakoak: % 9,2, -% 16,8, -% 8,7 eta % 27,1. EAEn, -% 9,2 behi-azienda, -% 33 ardi-azienda, % 1 ahuntz-azienda eta % 91,6 txerri-azienda (izan ere, 2010ean bat-bateko jaitziera bat izan zen, eta 6 urte behar izan ziren aurreko kopurua berreskuratzeko).

153. koadroa Abeltzaintza-errola (urte bakoitzeko azaroaren 30ean)

Eremua	Urtea	(abelburuak)			
		Behi-azienda	Ardi-azienda	Ahuntz-azienda	Txerri-azienda
EAE	2015	135.569	259.454	26.410	27.124
	2016	136.510	253.660	28.732	32.348
	2017	137.339	239.265	27.438	34.895
	2018	134.611	229.795	26.695	35.773
	2019	136.126	219.080	26.058	35.801
	2020	136.502	217.300	26.801	36.053
Nafarroa	2015	116.223	516.469	12.968	528.764
	2016	115.737	508.138	12.985	647.096
	2017	122.293	498.116	13.010	650.250
	2018	122.566	480.251	12.947	610.897
	2019	120.170	475.306	13.012	650.029
	2020	123.450	467.020	12.755	685.605
Euskal Herria	2015	259.454	775.923	39.378	516.469
	2016	252.247	761.798	41.717	679.444
	2017	259.632	737.381	40.448	685.145
	2018	257.177	710.046	39.642	646.670
	2019	256.296	694.386	39.070	685.830
	2020	259.952	684.320	39.556	721.658
Espainia	2015	6.182.908	16.522.956	3.009.582	28.367.335
	2016	6.257.057	15.962.892	3.088.035	29.231.595
	2017	6.465.747	15.963.106	3.059.731	29.971.357
	2018	6.510.592	15.852.525	2.764.790	30.804.102
	2019	6.600.333	15.478.615	2.659.112	31.246.043
	2020	6.636.428	15.439.218	2.651.041	32.676.652
Euskal Herria/Espainia %	2020	3,9	4,4	1,5	2,2

Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

Hortaz, hamarkadan zeharreko bilakaera ezberdina izan da erkidegoen arabera. Behi-aziendaren kasuan, EAEn behera egin du poliki-poliki. Nafarroan mantendu egin zen hasieran, baina 2016az geroztik gora egiten hasi zen eta hazkunde hori areagotu egin zen 2020an. Ardi-azienda erori egin da, eta jaitziera hori azkarragoa izan da EAEn. Txerri-azienda, berriz, hazi egin da, batez ere, Nafarroan. Ahuntz-aziendaren bilakaera egonkorragoa izan da EAEn, eta Nafarroan apur bat igo da. Estatuan egonkorragoak dira azizien gaineko zifrak, txerri-aziendaren kasuan izan ezik. 2020an, gainera, azkartu egin zen azienda horren hazkundea.

3.2 ABERE-EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK

Esne-ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

Esne-ekoizpenaren zatirik handiena behi-aziendari dagokio. Ardi-aziendaren eta, batez ere, ahuntz-aziendaren esne-ekoizpena txikiagoak dira. Pandemiaren zero urtean, kuoten mendeko jarduera hau ez zen asko aldatu. Dena den, testuinguru ezberdina izan zuten bi erkidegoetan: hamarkadaren hasieran handiagoa zen Nafarroako ekoizpena EAExoa baino; erdialdean, heren bat inguru hazi zen ekoizpena (behien zein ardien kasuan), eta ordutik nahiko egonkorak dira bi erkidegoetako zifrak.

Dena den, 2016az geroztiko aldakuntzarik handiena izan zen 2020an, % 1,7koa, gorantz. Nafarroan eta Gipuzkoan izan zuten 2016az geroztiko igoerarik handiena (% 1,7 eta % 1,4). Araban eta Bizkaian, ordea, ez zen halakorik gertatu eta +% 0,2 baino ez zen igo esne-ekoizpena.

EAExen kasuan, hamarkadaren hasieran apur bat murriztu zen ekoizpena, ondoren suspertze apal bat izan zuen, eta azken hirurtekoan, batez ere, egonkortu egin da. Gorabehera horiek Bizkaian gertatu dira gehienbat. Gipuzkoan (3ren artetik ekoizpen handiena duena) eta Araban, berriz, zifra egonkorragoa izan da.

Azken bost urteetan oso egonkorra izan da Nafarroako esne-ekoizpena, baina 2020an bi berezitasun izan ziren. Behi-esneak guztizkoaren % 94,3 hartu zuen, eta aurreko 3 ekitaldietan baino gehiago hazi zen (+% 1,7), hazkunde txikia izan arren.

154. koadroa Esne-ekoizpena

		<i>(m litro)</i>			
Urtea	Eremua	Behia	Ardia	Ahuntza	Guztira
2018	Araba	49.014	2.994	163	52.170
	Bizkaia	60.553	1.727	467	62.748
	Gipuzkoa	73.070	5.393	167	78.630
	EAE	182.637	10.114	797	193.548
	Nafarroa	241.712	15.752	274	257.738
	Euskal Herria	424.349	25.866	1.071	451.286
2019	Araba	50.957	2.931	162	54.050
	Bizkaia	58.499	1.696	506	60.701
	Gipuzkoa	71.458	5.428	175	77.060
	EAE	180.914	10.055	842	191.811
	Nafarroa	242.154	14.661	270	257.085
	Euskal Herria	423.068	24.716	1.112	448.896
2020	Araba	51.065	2.974	198	54.237
	Bizkaia	58.594	1.559	574	60.727
	Gipuzkoa	72.431	5.349	171	77.951
	EAE	182.090	9.882	943	192.916
	Nafarroa	246.329	14.564	200	261.093
	Euskal Herria	428.419	24.446	1.144	454.009

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiararen Garapen eta Azpiegitura Sailaren Sektoreen Estatistika eta Análisi Zerbitzua. Nafarroako Gobernua. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua.

Ardi-esnea izan zen jasotako litro guztien % 5,6, eta behera egin zuen apur bat (-% 0,7). Behi-esneak izandako antzeko bilakaera izan zuen ardi-esneak ere: pixkanakako igoera hamarkadaren lehen erdian, jauzi nabarmena erdialdean (bereziki, 2016an) eta maila horretan egonkortzea hurrengo urteetan. Ahuntz-esneak beheranzko joera izan du hamarkadan zehar, eta 2020an justu-justu iritsi zen guztizko ekoizpenaren % 0,7ra; gainera, -% 25,8 egin zuen atzera. EAEn ere jaitsi egin zen ardi-esnearen bolumena, batez ere, Bizkaian izandako beherakadaren (-% 8,1) ondorioz; Gipuzkoan -% 1,5 egin zuen behera, eta Araban % 1,5 igo zen. EAE eta Nafarroa kontuan hartuta, berriz, -% 1,1 jaitsi zen ekoizpena.

Ahuntz-esnearen kasuan, 2014an ekoizpenak egindako jauziaren ondoren, Bizkaian egonkor mantendu zen 2017ra arte eta ordutik hazkunde jarraitua izan du. Araban ekoizpena erori egin zen 2014an, eta gero egonkor mantendu zen (hain zuzen ere, ekoizpena Bizkaira pasatu zelako izan daiteke). Gipuzkoan ere ekoizpenak jauzi bat eman zuen 2014an, baina Bizkaian baino txikiagoa, eta ondoren ez zuen hazten jarraitu. Nafarroan ahuntz-esneak beheranzko bilakaera izan zuen hamarkada osoan zehar, eta 2020an ia-ia Araban baino gutxiago ekoitzi zen, lurralde horretan hazi egin baitzen ekoizpena.

Bestetik, EAeko ekoizpen-datuak ematen dituen iturri berak, esnearen kanalizazioaren eta erabileraren gaineko datuak ere ematen ditu. Behi-esnearen kasuan ez dago zalantzarik: mantendu egin ziren erabilera nagusiaren (zentralei saltzea, egonkortuta zegoen eta 2020an gora egin zuen) eta erabilera osagarrien (behera egin zuten guztiek:

hazkunderako erabilera abeltegietan, zuzeneko salmenta eta pertsonentzako erabilera abeltegietan) arteko joerak eta proportzioak. Ardi-esnearen kasuan, berriz, gazta egiteko erabiltzen da gehiena, baina azken biurtekoan gora egin du zuzenean zentraleri saltzen zaien esnearen bolumenak. Ondorioz, 2020an zentraleri saldutako esne kopurua gazta egiteko erabilitakoaren adinakoa izan zen ia-ia.

155. koadroa EAEn ekoiztiko esnearen erabilera

Erabilera	<i>(m litro)</i>			
	2018	2019	2020	% Δ 20/19
Behi-azienda	182.637	180.914	182.089	0,6
– Zekor-hazkuntza	4.850	4.794	4.662	-2,8
– Pertsonen kontsumoa ustiategian	1.315	1.184	1.140	-3,7
– Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei	3.627	3.565	3.469	-2,7
– Salmenta esne-zentraleri	172.845	171.371	172.818	0,8
Ardi-azienda	10.114	10.055	9.882	-1,7
– Gazta	5.857	5.248	4.715	-10,2
– Pertsonen kontsumoa ustiategian	42	38	34	-11,3
– Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei	499	486	456	-6,1
– Salmenta esne-zentraleri	3.716	4.282	4.678	9,2
Guztira	192.751	190.969	191.971	0,5
– Zekor-hazkuntza	4.850	4.794	4.662	-2,8
– Gazta	5.857	5.248	4.715	-10,2
– Pertsonen kontsumoa ustiategian	1.357	1.222	1.174	-4,0
– Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei	4.126	4.051	3.925	-3,1
– Salmenta esne-zentraleri	176.561	175.653	177.496	1,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ekologiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Sektoreen Estatistika eta Analisi Zerbitzua.

Abeltzaintza-negoziaren jarraipena egiteko tresnarik zehatzena ustiapenen laginketa da. Laginketa horretako datuen egitura ez da aldatzen eta, hortaz, datuak aldera daitezke. Erakunde hauek egiten dute: Gipuzkoan Lurgintzak, Bizkaian Lorrak, Araban Aberek eta Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutuko Berrikuntza, Teknologia eta Kudeaketa Sailak. Abeltegien emaitzen kontuak erregistratzen dituzte urtero, eta magnitude ekonomiko nagusien batezbestekoak eskaintzen dituzte.

Laginean jasotako behi-ustiategien kopuruak beheranzko joerarekin jarraitu zuen 2020an. Joera hori bat dator sektoreak duen beharrarekin: kontzentratzeko edo batzeko beharra, ustiategien batez besteko tamaina handiagoa izan dadin. Laginik egonkorrena Arabakoa izan zen, hamarkadan zehar ia ez baita murriztu. Ustiategi bakoitzeko behi kopuruari dagokionez ere egonkor mantendu zen Araba. Bestalde, Nafarroan eta, batez ere, Gipuzkoan areagotu egin zen goranzko joera. Bizkaiko zifra ere, egonkorra izanik, handitu egin zen 2020an, gainerakoak bezala.

156. koadroa Esnea ekoizten duten eliteko behi-ustiategi batzuek osatutako lagin baten emaitzak

Kontzeptua	Lurgintza (Gipuzkoa)		Lorra (Bizkaia)		Aberre (Araba)		INTIA-ITG (Nafarroa)	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020
Datu teknikoak								
- Lagineko ustiategi kopurua	35	33	58	53	40	39	44	41
- Behi kopurua	2.062	2.143	3.822	3.827	4.469	4.427	5.504	5.476
- Ha. NAE/ustiategi	23,9	25,8	35,0	33,9	73,3	73,1	49,8	58,7
- Behi/ustiategi	58,9	64,9	65,9	72,2	112	114	125,1	133,6
- Behi/ha.	2,4	2,5	1,9	2,1	1,5	1,5	2,5	2,3
- Ekoizpen- eta bazka-gastuak (euro/ha)	484,7	364,46	220,18	216,64	524,00	546,54	612,98	655,7
Prezioak eta etekinak								
- Esnearen prezioa (euro/1.000 litro)	348,30	352,88	355,19	358,31	345,00	349,00	337,01	342,17
- Esne-ekoizpena litro/behi	8.873	8.596	8.330	9.292	10.313	10.519	10.068	10.158

Iturria: EAEko lurralde bakoitzeko nekazaritzako eta abeltzaintzako zentro kooperatiboek eta Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua Elkarte Anonimoak (INTIA, ITG dibisioa) eskainitako estatistikak.

Lagin bakoitzeko behi kopuruak ere beheranzko joera du. Kasu honetan, Lurgintzak emandako Gipuzkoako lagina izan zen salbuespena: kopurua nahiko egonkortuta dago 2.000 animalia inguruan, baina kopuru hori gainerako lurraldeetako baina txikiagoa da, argi eta garbi. Bizkaiko eta Arabako laginak 5.000tik 4.000 ingurura jaitsi dira hamarkadan zehar (Arabakoa gora egiten ari den arren), eta Nafarroako guztizkoa 6.500 ingurutik 5.500 ingurura jaisten joan da. Ondorioz, hektarea bakoitzeko behien ratioak gora egin zuen apur bat Gipuzkoan, eta lehen postuan jarri zen 2020an. Gainerako lurraldeetan egonkorrago mantendu zen ratioa, batez ere, Araban, non ratioa oso egonkortuta dagoen eta gainerako lurraldeetan baina baxuagoa den, argi eta garbi. Ustiategi bakoitzeko hektarea kopuruari dagokionez, Arabako lagina oso ezberdina izan zen (73 inguru). 2020an, hala ere, Nafarroak gora egin zuen eta 50 hektareatik ia 60ra pasatu zen. Bizkaiko ustiategiek 35 hektarea inguruan jarraitu zuten egonkortuta, eta Gipuzkoan ez ziren 25 hektareara ere iristen, 2020an zenbateko hori hazi bazen ere.

Ekoizpen-gastuei eta pentsu-gastuei buruzko adierazlea esanguratsua da, pandemia garestitzeekin lotzen duten albisteak kontuan hartuta. Adierazle horren arabera, Nafarroan baina ez da nabaritu garestitzea, hektarea bakoitzeko euroei dagokienez. Hamarkadan zehar, adierazle horrek behera egin du Nafarroan, baina 2020an apur bat igo zen. Araban gutxiago igo zen, baina aurretik ere goranzko joera zuen. Gipuzkoan gertatu zen kontraesana: hamarkadako jaitsierarik handiena izan zuen ratioak. Zifrarik txikiena, berriz, Bizkaikoak jarraitu zuen izaten; apur bat jaitsi zen, epe luzean ia aldakuntzarik izan ez duen tarte baten barruan. Lau lurraldeetan eta azken lau urteetan erregistratutako esnearen prezioa antzekoa izan da egonkortu ondoren, litroko 35 zentimo ingurukoa (lagin guztiek igoera handi bat erregistratu zuten 2014an). Behi bakoitzak ekoiztutako litro kopurua ere oso antzekoa da, goranzko joera oso motelarekin, baina 2020an Bizkaiko datuak aurreko urteetan baino jauzi nabarmenagoa egin zuen gora.

Esnetarako behiei dagokienez, datu xeheagoak daude eskura INTIA-ITGren kasuan, eta datu horiek Nafarroari buruzko urtekarian azaltzen dira. Urtekarian ikus daitekeenez, ardi-esnearen ustiategi batek, batez beste, behi-esnearen ustiategi batek baino hiru aldiz animalia gehiago izaten ditu; animalia bakoitzeko ekoizpena 65 aldiz handiagoa da behi-esnearen kasuan, ardi-esnearen kasuan baino; ardi-esnearen prezioa, gutxi gorabehera, 5 aldiz handiagoa da behi-esnearena baino eta, hala ere, ustiategi bakoitzeko salmentak 5 aldiz baxuagoak dira; dirulaguntzak, proportzioan, handiagoak dira ardi-esnearen negozioan; eta animalia bakoitzeko marjina garbia 7 aldiz handiagoa behi-esnearen negozioan, baina 3 aldiz handiagoa baino ez lan-unitatetan neurtuz gero.

157. koadroa ABEREK eta INTIA-ITGk kudeatutako ardi-esne ustiategi batez besteko emaitza ekonomikoak

Kontzeptua	ABERE		INTIA-ITG	
	2019	2020	2019	2020
Datu tekniko-ekonomikoak				
– Ustiategi laginak	26	25	25	24
– Eskulana (GLU) ustiategiko	1,7	1,5	2,0	2,1
– Ardi kopurua ustiategiko	354	376	373	375
– Azalera Ha.	77,4	71,9	27,6	29,6
– Esne-ekoizpena (litro/ardi)	--	--	149	156
– Esnearen prezioa (euro/1.000 litro)	--	--	1.531,44	1.495,25
Ekoizpena eta emaitzak (euro)				
Produktu gordina	105.567	109.637	100.854	102.543
- Elikadura-gastuak	22.858	24.657	28.527	28.707
- Gastu aldakorrek	16.971	16.455	11.146	11.527
= Marjina gordina	65.738	68.524	67.332	68.488
+ Diru-laguntzak	24.063	25.990	6.151	6.179
+ Beste diru-sarrera batzuk	3.367	1.836	0	0
- Gastu finkoak eta langileenak	65.225	66.177	42.351	41.404
= Marjina garbia	27.493	30.173	24.981	27.084
Emaitza unitarioak (euro)				
– Marjina garbia / ardia	78,94	80,25	66,97	72,22
– Marjina garbia / GLU	16.437,06	19.466,74	12.366,78	13.211,53

Iturria: Abere eta Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua (INTIA, ITG dibisioa).

Batezbestekoen bilakaerak, ustiategi kopuruaren murrizketekin batera, kontzentrazio-prozesu bat ematen ari dela adieraz dezake. Behi-esnearen negozioarekin lotutako diru-sarrerek gorakada handia izan dute ondoz ondoko 4 urtetan, 400.000 euroko batezbestekotik gaur egungo 511.071 eurora arte. Preziora pasatu dute kostuen hazkunde ia osoa. Batez ere, kostu aldakorrek egin dute gora, baina kostu finkoak ere gora egiten ari dira pixkanaka. Marjina garbiak gorakada handia izan zuen 2017an –urte hartan hasi zen ustiategi bakoitzeko diru-sarreraren guztizkoaren goranzko joera indartsua–, eta gero hazkundea apaltzen joan da gutxika.

Esnetarako ardien kasuan konparaketa zehatzagoa egin daiteke institutuen eta lurraldeen artean, Arabako Aberek eta Nafarroako INTIA-ITGk ustiategien emaitzen urteko laginketak ematen baitituzte. Aberek esnetarako ardien eta haragitarako behien gaineko datuak ematen ditu, eta INTIA-ITGk esne-negozioaren eta haragi-negozioaren gaineko batezbestekoak ematen ditu, ardi- zein behi-azienden kasuan, eta txerri-haragiaren kasuan.

Nafarroako esnetarako ardiei dagokienez, diru-sarrereren guztizkoak bost urte daramatza ia mugitu gabe, urte arteko hazkunde oso txikiarekin; gastuen bilakaera ere antzekoa zen, baina 2019an asko hazi zen, diru-sarrereren guztizkoak prezioen bidez konpentsa zezakeena baino gehiago; hala, marjina, 2015 eta 2018 artean oso egonkortuta egon bazen ere, 2019an murriztu egin zen. 2020an normaldu egin zen gastuen hazkundera, eta dirulaguntzak 2015az geroztiko maila berdintsuan geratu ziren –2018a izan zen salbuespena, dirulaguntzen batezbestekoa zertxobait altuagoa izan baitzen–. Hala, marjina garbia suspertzen ari da arinki, baina ez da 2015-2018 arteko maila egonkorrera iristen.

Nafarroako esnetarako ardiekin alderatuta, Aberek emandako laginean ikus daitekeenez, Araban askoz altuagoak dira abeltegi bakoitzeko gastu finakoak. Aldea konstantea da, eta deigarria. Dena den, Araban dirulaguntza handiagoak dituzte eskura, eta gastu horien zati bat estaltzea ahalbidetzen die horrek. Dirulaguntzen aurreko marjina garbiak 4 urte zeramatzan etengabe jaisten, eta 2020an bide hori jarraitu izan balu balio negatiboa izango zukeen. Dena den, ez zen halakorik gertatu, apur bat handitu zirelako dirulaguntzak (aurretik ere hazten ari ziren pixkanaka) eta salmentak (beheranzko joerari buelta eman zioten 2020an).

Haragi-ekoizpena: emaitza ekonomikoak

Nafarroako haragi-ekoizpenaren laginari dagokionez, haragitarako behien ustiategien kopurua esnetarako behien ustiategiarena baino askoz txikiagoa dela ikus daiteke. Ardi-aziendaren kasuan alderantziz gertatzen da: haragi-ustiategiak apur bat gehiago dira. Haragi-ekoizpenari dagokionez, batez besteko bolumen ekonomikoa oso antzekoa da bi espezieen artean –esne-ekoizpenaren kasuan, ardi-esnearen bolumen ekonomikoa txikiagoa da–. Dena den, behi-haragiaren salmentagatiko diru-sarrerak % 16,5 altuagoak dira ardi-haragiarena baino. Era berean, behi-haragi kiloaren prezioa % 6,1 altuagoa da ardi-haragiarena baino. Azterketa honetan kontuan izan behar da ustiategi batzuek haragi-ekoizpena eta esne-ekoizpena konbinatzen dituztela, eta zenbaketa batzuk ezberdinak izan daitezke, abeltegi batzuetan eta besteetan irizpide ezberdinak erabiltzearen ondorioz; adibidez, elikadura-gastuei dagokienez, kasu askotan bi erabileratarako animaliei buruzko datuak izango baitira.

158. koadroa Abere eta INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden haragitarako behi- eta ardi-ustiatgien emaitzak

Kontzeptua	ABERE		INTIA-ITG			
	Haragitarako behiak		Haragitarako behiak		Haragitarako ardiak	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020
Datu tekniko-ekonomikoak						
- Ustiatgien laginak	71	72	24	26	29	27
- Eskulana (GLU)	0,9	0,9	1,0	1,0	1,2	1,2
- Behi/Ardi kopurua ustiatgiko	55	61,4	60	60	690	713
- Azalera Ha.	85,2	96,0	38,2	37,2	40,7	42,6
- Txahal/arkume ekoizpena, kg. behi/ardiko ^(*)	--	--	215,6	230,6	20,4	21,5
- Txahal/arkume salneurria kiloko	--	--	4,05	3,83	3,85	3,61
Ekoizpena eta emaitzak (euro)						
- Produktu gordina	40.852	41.223	64.176	64.396	55.385	55.266
- Elikadura-gastuak	19.476	22.142	32.627	10.007	36.459	12.668
- Gastu aldakorak	5.784	7.772	14.263	35.855	9.590	35.855
= Marjina gordina	11.858	11.308	27.512	13.093	21.885	9.818
+ Diru-laguntzak	25.278	26.890	10.227	24.615	12.548	24.615
- Gastu finkoak eta langileenak	27.069	27.615	31.282	29.569	24.282	24.852
= Marjina garbia	18.726	13.902	-3.769	-4.618	-2.398	-237
Emaitza unitarioak (euro)						
- Marjina garbia behia/ardia	339,92	226,24	-62,47	-76,53	-3,48	-0,33
- Marjina garbia GLU	21.040	21.041	-3.908	13.093	-2.302	-231

(*): Haragi kiloak: Behi-haragi kiloak, kanalean. Ardi-aziendaren kasuan, kiloak bizirik.

Iturria: Abere eta Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua, Elkarte Anonimoa (INTIA, ITG dibisioa).

Nafarroako 2020ko laginean ikus daitekeenez, behi-aziendaren negozioak ondoz ondoko 3 urte zeramatzan marjina garbi negatiboarekin, eta produktu gordinak beheranzko joerarekin jarraitzen zuen. Beheranzko joera hori argia zen, salmenta handiak izan ziren ezohiko urteak (2012 eta 2016) alde batera utzita. Dirulaguntzak nahiko egonkor mantendu ziren 2016az geroztik, baina ez negozioaren kontuak berdintzeko adina. Abeltegi askotan esne-jardueraren marjina erabili behar izaten dute kontuak berdintzeko. Batezbestekoen arabera, haragi-negozioak kontuak berdintzea lortu zuen 2014an, 2016an edota 2017an, baina ez du marjina garbi positibo esanguratsurik izan 2012az geroztik. Marjina garbiak izandako galerak 2019an baino apur bat okerragoak izan ziren 2020an, baina ez 2018an bezain txarrak.

Ardi-aziendaren kasuan, 2013an erregistratutako urte txarraren ondoren askoz hobea zen egoera, baina 2018an asko hazi ziren gastuak eta gero egonkortuta geratu ziren; urte hartan dirulaguntzen igoera batek konpondu zuen arazoa, baina 2019an jaitsi egin zen dirulaguntzen zenbatekoa, eta marjina gordina balio negatiboetan sartu zen. 2020an apur bat hobetu zen produktu gordina, eta kontuak berdintzea lortu zuten, ez ordea prezioak igotzearen bidez (prezioak jaitsi egin ziren), ustiatgien errendimendua beste bide batzuen bidez estutuz baizik.

Arabako haragitarako behien kasuan, haragitarako ardien kasuan bezala, alde handia dago Nafarroako kasuarekiko, aztertutako urte guztietan. Arabako jardueraren batez besteko bolumena txikiagoa da, argi eta garbi, baina gastu finkoak antzekoak dira Araban eta Nafarroan. Hala, Araban dirulaguntzen bidez egiten diete aurre gastu horiei, Nafarroan baino handiagoak baitira dirulaguntzak. Horri esker, marjina gordina proportzioan okerragoa izan arren, marjina garbiak galerarik ez izatea lortzen dute behin eta berriz; Nafarroan alderantziz gertatzen da. 2020an gora egin zuten elikadura-gastuek, baina ohiko tartearen barruan. Gainerako aldagaiak, berriz, beste urte batzuetan baino gehiago hazi ziren, eta gastu finkoak bigarren urtez murriztu baziren ere, marjina gordina okerragoa izan zen. Marjina gordina oso egonkorra izan zen 2014az geroztik, eta apur bat hazi ere egin zen, baina 2013az geroztiko daturik okerrera erregistratu zuten 2020an. Marjina garbia apur bat hobetu zen, dirulaguntzak handitu izanari esker.

159. koadroa INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-ustiategien emaitzak

Kontzeptua	Txerrikumeen ekoizpena ⁽¹⁾		Ziklo itxia ⁽²⁾	
	2019	2020	2019	2020
Ezaugarri tekniko-ekonomikoak				
– Aztertutako ustiategi kopurua	7	7	13	14
– Urdanga kopurua ustiategiko	200	189	319	517
– Urdanga bakoitzeko saldutako txerrikumeak	24	24	1	1
– Urdanga bakoitzeko saldutako txerri gizenduak	0,4	0,4	21	20
– Urdanga bakoitzeko saldutako txerriak, guztira	24	24	23	21
– Saldutako txerrikumeen batezbesteko pisua (kg)	21,8	23,6	10,8	14,9
– Saldutako txerri gizenduen batezbesteko pisua (kg)	113,6	114,3	111,9	111,3
– Saldutako txerrikume + txerri gizendu kopurua	4.831	4.551	7.184	10.907
– Txerrikumearen batezbesteko salneurria (euro)	51,69	50,17	35,91	37,02
– Txerri-kiloaren batezbesteko salneurria (euro)	1,30	1,27	1,31	1,29
– GLU guztira	1,2	1,3	2,8	3,6
Emitza ekonomikoak (euro)				
– Produktu gordina	272.845	256.920	1.050.726	1.585.985
• Gastu aldakorrak	157.166	166.486	649.110	1.036.733
– Marjina gordina	115.679	90.434	401.617	549.252
• Gastu finkoak	59.680	61.830	186.061	299.545
– Marjina garbia	55.999	28.604	215.556	249.706

(1): 3 ustiategik 26,04 kg-ko batezbesteko pisua duten txerrikumeak ekoizten dituzte, eta 4 ustiategik titia kendutako 7,56 kg-ko txerrikumeak saltzen dituzte.

(2): Ustiategi horiek saltzen duten % 80 baino gehiago txerri gizendua da.

Iturria: Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua, Elkarte Anonimoa (INTIA, ITG dibisioa).

Nafarroako txerri-ustiategiei dagokienez, behi-ustiategien bilakaera txarrarekiko aldea are nabarmenagoa izan zen 2020an, batez ere, abeltegi mota nagusien negozioa indarrez handitu zelako, ziklo osoko ekoizpeneko negozioa, hain zuzen ere. Jauzi kuantitatiboa izan zuen modalitate horrek, txerrikumeen hazkuntzaren modalitateak ez bezala.

2020an ziklo osoko abeltegi bat gehiago baino ez zen zenbatu, baina beste adierazle batzuek hazkunde nabarmena izan zuten, hala nola abeltegi bakoitzeko eme kopuruak,

eta saldutako txerrikume eta txerri gizendu kopuruak. Hazkunde horiek bat datoz diru-sarreraren hazkundearen proportzioarekin. Dena den, gastuak are gehiago hazi ziren, aurreko urtean ez bezala, orduan ezohiko jaitziera izan baitzuten gastuek. 2020ko igoerak konpentsatu egin zuen aurreko urteko jaitziera, eta guztiz gainditu zuen, ekoizpena handitu izanaren zantzu berriak eta argiak izan baitziren. Ustiategi bakoitzeko Gizakiaren Lan Unitateen adierazleak erakusten du hori: batezbestekoa 2,8koa izatetik 3,6koa izatera pasatu ziren. Hortaz, marjina ez zen diru-sarreraren proportzio berean hazi.

Hain zuzen ere, marjina ez zen ekoizpenaren proportziora hazi, eta ez zion jarraipenik eman aurreko urteetako goranzko joera orokorrari, 2015 edo 2018 bezalako urte txarretan gorabeherak izan arren lortutako goranzko joerari. Gainera, txerrikumeen salmenta-negoziaren marjina murriztu egin zen, 2015ean eta 2018an baino are gehiago. Marjina horrek goranzko ibilbidea izan zuen 2020ra arte, ziklo osoko marjinak izandakoaren oso antzera.

Abereen hilketa

Abereen hilketarekin lotutako adierazleek ere abeltzaintza-azpisektorearen egoera erakusten dute, zehazki, bi erkidegoetako hiltegietatik irteten diren kanaleko tona kopuruaren adierazleek. Abereak ez dira zertan hazi diren erkidegoan hil behar. Ondorioz, deskonexioak gertatzen dira, Nafarroako txerri-aziendaren kasuan bezala. Aurreko puntuan azaldu dugun moduan, txerri-produktuen kategoria hazten ari da Nafarroan zein Estatuan. Atxikitako koadroan ikus daiteke 2017an asko jaitzi zela hiltegietatik irteten zen txerri-haragiaren tona kopurua, Nafarroako txerri-hiltegi bat itxi izanaren ondorioz. EAEko txerri-hilketak jaitzierak izan zituen 2002an, 2004an eta 2010ean, eta azken hamarkadan gora egin du apur bat.

160. koadroa Euskal Herrian hildako aziendaren kanaleko pisua

Urtea	Behi- azienda	Ardi- azienda	Ahuntz- azienda	Txerri- azienda	Zaldi- azienda	Hegaztiak	Untxiak	Guztira
2011	25.741	4.339	30	41.043	2.264	88.144	4.207	165.769
2012	21.548	3.806	29	40.856	2.725	97.062	4.418	170.443
2013	21.067	4.217	30	37.607	2.596	102.444	4.323	172.284
2014	19.715	4.093	44	37.706	2.655	103.667	4.423	172.303
2015	12.461	3.868	44	34.827	3.359	103.518	4.612	162.689
2016	18.029	4.071	42	23.379	3.532	116.739	4.440	170.233
2017	17.808	3.741	63	3.318	3.765	112.612	4.105	145.412
2018	18.117	3.825	60	3.551	3.328	125.866	4.282	159.028
2019	19.438	3.575	54	3.291	3.775	118.535	3.681	152.349
2020	22.152	3.428	50	3.305	3.828	111.515	4.477	148.755
% Euskal Herria/Espania 2020	3,3	3,0	0,5	0,1	40,2	6,8	8,7	2,1


Iturria: Abeltzaintzako inkestak. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

2020an hauek izan ziren Euskal Herriko aldakuntza-ehunekoak, espezie askoren kasuan bi erkidegoetako zeinuak ezberdinak izan baziren ere: % 14 behi-azienda, -% 4,1 ardi-azienda, -% 7,9 ahuntz-azienda, % 0,4 txerri-azienda, % 1,4 zaldi-azienda, -% 5,9 hegaztiak eta -% 21,6 untxia.

Hori dela eta, txerri-hilketa, gaur egun, beste ekoizpen txikiago batzuen antzeko mailan dago (ardi-azienda, untxia, zaldi-azienda), hegaztien zifratik oso urrun. Hegaztien hilketak goranzko joera izan zuen aurreko urteetan Nafarroan, baina badirudi goia jo zuela eta behera egin zuen 2019an, eta are gehiago 2020an. Gainera, Nafarroako txerri-hilketak jarraipena eman zion 2019ko joerari (beheranzkoa). 2020an espezie guztien kasuan eman zitzaion jarraipena aurreko urteko joerari, untxien hilketaren kasuan izan ezik. Tona kopuru handieneko bi moten joera-aldaketak areagotu eta baieztatu egin ziren 2020an. Behi-aziendaren datua 2018koa baino % 74 handiagoa izan zen. Hegaztien kasuan, berriz, bat-batean gelditu zen 2018ra arte erregistratutako hazkunde handia, are modu argiagoan 2020an; hala, % 11,2ko jaitsiera metatua izan dute hegaztiak azken biurtekoan. Bigarren urtez jarraian, ardi-aziendak behera egin zuen, eta zaldi-aziendak gora. Dena den, bi kasuetan, orokorrean, askoz lehenago hasi ziren joera horiek. Ahuntz-aziendak behera egin zuen ondoko ondoko 3. urtez, eta untxi-aziendak gehieneko kopurura eskuratu zuen, 2019an jaitsiera bat izan ondoren.

34. grafikoa Euskal Herriko abere-ekoizpena, espezieen arabera bilakaera

(Indizea 1990=100)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azplegitura Sailaren Estatistika Organoa. Nafarroako Gobernu. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua.

EAEn ez zen halako berezitasunik izan 2020an, eta hamarkadako joerarekin bat etorri ziren zifrak. Hegaztiak ez zuten Nafarroan bezalako geldialdirik izan. Dena den, EAEn ere gora egin zuen ardi-aziendaren hilketak, eta igoera oso txikia izan arren, nabarmentzekoa

da, hamarkadan zehar adierazle hori ez baita apenas mugitu. EAEn ardi-aziendaren hilketa, eta are gehiago ahuntz-aziendarena, gainerako espezieena baino askoz ere txikiagoak izan arren, aipatzekoa da ardi-aziendaren kasuan 2010az geroztiko zifrarik altuena eskuratu zela 2020an, eta 2001az geroztiko altuena ahuntz-aziendaren kasuan. Untxiaren kasuan ere 2016az geroztiko zifrarik altuena eskuratu zen. Zaldi-aziendaren kasuan, bestalde, mende osoko zifrarik baxuena eskuratu zen, 2017ko gutxieneko zifra baino are baxuagoa.

4. BASOGINTZAREN AZPISEKTOREA

Basogintzaren azpisektoreak gero eta garrantzi ekonomiko handiagoa du Euskal Autonomia Erkidegoan, eta azpisektore horri dagokion estrategia birpentsatzen ari dira, estrategia hori bat etor dadin ingurumenaren eta lurraldearen jasangarritasunaren gaineko ikuspegi berriekin. Baso atlantikoa da Euskadin hedadura handiena duen habitat mota. Gainera, baso atlantikoaren hedadura hazten ari da, pixkanaka alde batera uzten ari baitira larreak eta laborantza-sailak. Hortaz, basogintzaren azpisektorea pisua irabazten ari da nekazaritza-sektorearen barruan.

Planteamendu estrategiko berriekin batera, sektorea astindu duen gertaera bat iritsi da: banda marroia izeneko gaixotasuna. Gaitzak inpakturik handiena 2018an izan bazuen ere, 2020an ere ikusi ziren ondorioak. Izan ere, aurreko ekitaldietan egur asko moztu zuten prebentzioz, eta moztutako egun hori guztia pilatu egin zen. 2020an, egur hori merkaturatzeari eman zioten lehentasuna, eta ez egur berria mozteari. Hain zuzen ere, egurraren mozketari egiten diote erreferentzia kapitulu honetan aztertutako adierazleek.

Ondorioz, 2020an jaitsi egin zen azken ekoizpenaren eurotako balioa (urtean zehar moztutako egurrari dagokiona). 2009az geroztik ez zen horrelako jaitsierarik izan; urte hartan ere kanpo faktoreek eragin zioten sektoreari, baina ez faktore biologikoez, baizik eta meteorologikoez (ekaitz handi baten ondorioz milaka zuhaitz erori ziren, eta horrek eragin handia izan zuen sektorean).

Aurreko urtearekin alderatuta, 2020an -% 22,6 jaitsi zen ekoizpena eurotan. Dena den, kontuan izan behar da aurreko urteetan hazkundeak izan zirela (bereziki 2019an, prebentzioz egindako mozketa horien ondorioz, hain zuzen ere). Hortaz, 2020ko jaitsierak, batez ere, aurreko hazkunde horiek konpentsatu zituen, eta ez du esan nahi epe luzera 2008-2009 urteetako krisialdiaz geroztiko goranzko joera argia aldatuko denik.

161. koadroa EAEn egurra mozteko lizentziak

(m3 a.g. = metro kubiko, azal eta guzti)

Urtea	Eremua	Koniferoak	Hostotsuak	Guztira
2018	Araba	133.725	4.361	138.086
	Bizkaia	1.308.300	159.934	1.468.234
	Gipuzkoa	1.098.824	13.885	1.112.709
	EAE	2.540.849	178.179	2.719.028
2019	Araba	110.487	11.799	122.285
	Bizkaia	1.070.210	198.776	1.268.987
	Gipuzkoa	1.117.938	10.552	1.128.490
	EAE	2.298.636	221.128	2.519.762
2020	Araba	53.095	22.162	75.257
	Bizkaia	869.151	140.527	1.009.678
	Gipuzkoa	689.583	6.974	696.557
	EAE	1.611.829	169.662	1.781.491

Iturria: Estadística eta Análisi Sektorialen Zerbitzua, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.

Moztutako metro kubikoei dagokienez (mozteko baimenaren emate-fasearen arabera zenbatuta), 2020ko zifra 2017koaren oso antzekoa da. Hain zuzen ere, 2017a izan zen banda marroiaren eragina jasan ez zuen azken ekitaldia.

Batez besteko prezioek, berriz, % 2,3 egin zuten gora. Azken urteetan gorabehera apalak izan dituzte prezioek, eta ez da epe luzeko aldaketa handirik izan. Dena den, insignis edo radiata pinuaren egurraren prezioak apur bat behera egin duela ikus daiteke, alde handiz ugariena delako eta azkarrago hazten delako. Gainerako espezieen prezioek, berriz, goranzko joera apala dute.

Bizkaian eta Gipuzkoan antzeko zifrak eta bilakaera izan ziren. Izan ere, bi lurralde horietako basoak antzekoak dira, eta insignis espezieak hartzen du sektore ia osoa. Insignis pinuak ez du horrenbesteko garrantzirik Araban. Sail publikoen proportzioa handiagoa da Araban, sail pribatuena baino, eta gehiago mozten dira zuhaitz hostotsuak, koniferoak baino. Lurralde honetan ez zen hainbeste jaitsi 2020ko ekoizpenaren edo mozketaren azken balioa. Gainerako lurraldeetan baino hiru aldiz txikiagoa izan zen jaitsiera, -% 7,3koa.

162. koadroa EAEn egurra mozteko lizentziak

(m3 a.g. = metro kubiko, azal eta guzti)

Espezia	2019	2020	% Δ 20/19
– Pinu gorria	2.798	954	-65,9
– Larizio pinua	36.355	86.068	136,7
– Pinaster pinua	15.379	17.471	13,6
– Halepensis pinua	0	17	-
– Radiata pinua (insignis)	2.188.389	1.432.560	-34,5
– Beste konifero batzuk	55.714	74.760	34,2
Koniferoak, guztira	2.298.636	1.611.829	-29,9
– Makala	350	10.485	2895,6
– Eukalptoak	205.398	132.662	-35,4
– <i>Quercus</i>	6.266	18.686	198,2
– Beste hostotsu batzuk	9.114	7.829	-14,1
Hostotsuak, guztira	221.128	169.662	-23,3
GUZTIRA	2.519.762	1.781.491	-29,3

Iturria: Estadística eta Análisi Sektorialen Zerbitzua, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.

Bizkaiak badu berezitasun bat: beste zuhaitz mota batek ere pisu handia du, kasu honetan zuhaitz hostotsu batek, eukalptoak. Espezia horren adierazleek ere radiata edo insignis pinuaren joera bera izan zuten 2020an. Izan ere, Bizkaian mozten da eukalpto gehien, eta lurralde horretan jaitsiera handia izan zuen, pinuak baino are handiagoa. Gutxiengoak diren gainerako espezieen kasuan bestelakoa izan zen bilakaera, egoera orokorraz gain beste alderdi batzuek ere eragina baitute espezie horien datuetan; izan ere, espezie horien mozketaren pisua ez da garrantzitsua izaten urtero, eta haien merkaturatzea (edo ez merkaturatzea) egur horiek eskuragarri dauden ustiategi zehatzetako faktore bereziagoen mende egoten da.

5. ARRANTZA-SEKTOREA

5.1 IKUSPEGI OROKORRA

Euskal arrantza-sektoreak pandemiaren eta Brexitaren ondorioei aurre egin behar izan ziren 2020an, urteroko ohiko erronka eta ziurgabetasun ugariari aurre egiteaz gain. Izan ere, ingurune naturala, teknologikoa eta nazioarteko egoera gero eta azkarrago ari dira aldatzen, eta arrantza-sektoreak, ezinbestean, azkar egokitu behar du aldaketa horietara, epe ertain eta luzean.

Alde batetik, pandemiaren ondorioz, Kantauri itsasoko antxoaren lehorreratzeak jaitsiera deigarria izan zuen, kapitulu honetan ikusiko dugun moduan. Hori ulertzeko, kontuan izan behar da nolakoa den euskal portuetako kofradien urteko plangintza. Batez ere, baxurako arrantza egiten dute, eta hori da Covid-19ak gehien kaltetu zuen modalitatea. Aitzitik, altura handiko arrantzaleek itsasoan denboraldi luzeak igarotzen dituztenez, birusari ihes egin eta lanean jarraitu ahal izan zuten kasu askotan.

Baxurako arrantza neguko geldialdiaren ondoren hasten da, eta bigarren mailako interesa duten espezieak arrantzatzen dituzte, hala nola sardina edo txitxarroa/txitxarro arrunta. Gero berdela arrantzatzen dute; tona kopuru handia arrantzatzen dute, baina errentagarritasun txikiagoa izaten du. Urtero, udaberrian, antxoaren arrantzari ekiten diote, euskal arrantzaren lehenengo “kostaldeko” deialdi edo kanpaina izarrari. Azken urteetan, gero eta ohikoagoa da EAEko antxoaren kuotaren arrantza atzeratu behar izatea, beste arrazoi batzuen artean, ziur aski, klima-aldaketaren ondorioz. Izan ere, kontserbetan erabili ahal izateko edo errentagarritasun eta prezio egokiak izateko adinako tamaina duten antxoak harrapatzea gero eta zailagoa da, eta gero eta beranduago lortzen da.

Bada, hain justu antxoaren kanpainaren hasieran egin behar izan zuten geldialdia kofradiek, Covid-19aren ondorioz biztanleria konfinatu baitzuten. Geldialdia hilabete ingurukoa izan zen, eta lanera itzultzeko modua izan zutenerako, ezohiko desplazamendu bat egin behar izan zuten mendebaldera antxoak arrantzatzeko, arrain-espezie horiek ordurako zuten fase biologikoaren eta geografikoaren ondorioz –sasoiko migrazioak egiten dituztelako–. Hainbat arrazoiengatik, lehorreratu eta arrantzaren zati handi bat Asturiaseko eta Kantabriako kofradiei saldu behar izan zieten azkenean. Hori dela eta, kapitulu honetan jasotako antxoaren gaineko zifrek zenbateko askoz ere txikiagoa islatzen dute; hau da, Euskadin lehorreratu zen antxoa kopuruarena. Bestalde, hegaluzearen arrantza-aldia laburtu egin behar izan zuten berriro ere, azken urteetan bezala, agintari eskudunen aginduen eta EBk ezarritako kuoten ondorioz. Urte gutxitan 4 hilabetetik 2 hilabetera pasatu da hegaluzearen arrantza-aldiaren iraupena, eta gero eta

lehenago amaitzen da, kasu honetan 2020ko abuztuaren. Gero, arrantzaleek ez dute sardina eta txitxarroa arrantzatu beste erremediorik, zikloaren hasieran bezala.

163. koadroa Euskal Herriko ontzidiaren egitura

Sektorea	Urtea	Unitate kopurua	Potentzia (ZP)	EGT*	Tripulatzaile kopurua
Altura	2017	39	107.308	36.365	713
	2018	44	148.008	52.928	1.093
	2019	44	146.618	53.794	1.019
	2020	44	147.340	55.066	950
Baxura	2017	157	48.772	11.070	1.153
	2018	156	48.494	10.017	1.131
	2019	154	48.858	10.030	1.126
	2020	153	48.220	9.904	1.118
Euskal Herria, guztira	2017	196	156.079	47.435	1.866
	2018	200	196.502	62.945	2.224
	2019	198	195.477	63.824	2.145
	2020	196	195.560	64.969	2.068

(*): Erregistro Gordineko Tonak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

Ontzidiaren egitura aztertzean, kontuan izan behar da baxurako arrantzari (azaldutako sasoikako zikloak eta pandemiaren eraginek gehien kaltetutako modalitateak) dagokiola enpleguaren erdia baino gehiago, baina euskal arrantzaren diru-sarreraren % 40 baino ez. Alde hori doitzen doa pixkanaka, eta ohikoa da urtero baxurako ontzi batzuk gutxiago izatea. Gainera, hala dagokionean, ontzi txikiak alde batera utzi eta ontzi handiagoak txertatzeko joera dago. Hori dela eta, azken hamarkadetan ez dira asko murriztu guztizko potentzia edo tona kopuruak, baina bai tripulazioa eta unitate kopurua. Ontzi handiagoak erabiltzeko joera dago orain, baina tripulazio txikiagoa. Izan ere, aurrerapen teknikoek esker, zeregin batzuetarako ez da hainbeste jende behar. Gainera, neurri batean, gero eta zailagoa da lan mota hau egiteko prest dagoen jendea topatzea, gero eta ziurgabetasun eta iragankortasun handiagoko lana baita.

Kalak kudeatzea gero eta zailagoa da, eta horregatik sortzen dira ziurgabetasunak. Gero eta eragile gehiagok parte hartzen dute, neurketa eta kontrol gehiago egiten dira espezieen eskubideak eta biziraupen jasagarria ziurtatzeko, etab. Ondorioz, kuotak gero eta murriztagoak dira. Gainera, ontziak gero eta hornituago daude teknikoki. Bi faktore horiek kontuan hartuta, gero eta azkarrago estaltzen da eskualde edo erkidego bakoitzeko kuota. Gorabehera horiek zaildu egiten dute plangintza eta, batzuetan, arrantzaleek ezin izaten dituzte harrapaketak optimizatu. Ezin izaten dute nahi duten espeziea gehien interesatzen zaien eremuan eta urteko momentuan bilatu, eta horrek eragina du prezioetan. Eskaintza aste gutxi batzuetan pilatzen bada, eskaria egokitu egiten da eta prezioak jaitsi egiten dira.

Alturako arrantza, aldi berean, bitan banatzen da: freskoko altura (hein batean baxurako arrantzaren baldintza berdinen mende dago, lehenago itzuli behar baitu portura) eta altura

handia, izozkailuekin. Alturako arrantzak itsasontzi gutxiago ditu, baina ekitaldi batzuetan igoerak izan dira, ontzi handi berri hauetakoren bat txertatu duten bakoitzean, batez ere, Bermeon.

Europako banaketan zuzeneko kuota propio bat izatearen alde egin izan du euskal ontzidiak, Estatuko banaketatik pasatu gabe. Denboran zehar hobeto ikusiko dira Brexitaren ondorioak, baina kuotei eragingo diete. Brexitaren inguruko akordiorik egon izan ez balitz, ezin da jakin zer ondorio izango zukeen, baina, zalantzarik gabe, egungo akordioak baino ondorio larriagoak ekarriko zituzkeen. Dena den, akordio honek ere baditu eraginak eta, batez ere, zalantzak jartzen ditu mahai gainean etorkizunerako. Trantsizioaldi bat egongo da 5 urtez, baina epe hori igarota Britainia Handiaren inguruko eremua askoz ere mugatuago egongo da, ontzi britainiarrek aprobeitza dezaten. Eremu horrek garrantzi biologiko handia du, baita hedadurarekin lotutako garrantzia ere. Proporzioan, arrantza britainiarrarekin lotutako ekonomiak baino askoz garrantzi handiagoa du. EBk partekatzen eta banatzen dituen jurisdikziopeko uretan britainiarren presentzia gutxitzeak ez du konpentsatzen eremu hori mugatzea. Herrialde hauen inguruan daude EBren jurisdikziopeko urak: Espainia, Portugal, Frantzia, Belgika, Irlanda, Herbehereak, Alemania, Danimarka, Faroeak edo Groenlandia.

5.2 BAXURAKO ARRANTZA

Baxurako ontzidia

Gipuzkoako baxurako ontzidiaren tamaina Bizkaikoaren bikoitza da, gutxi gorabehera, oinarrizko jarduera-adierazleei dagokienez. Orokorrean, Hondarribian eta Getarian azkarrago joan dira haien baxurako ontziak ugaritzen eta modernizatzen. Bermeon, berriz, altura handiko arrantzaren zati handi bat kontzentratzen da; Bermeoko eta Ondarroako –freskoko altura ere hartzen du barne– baxurako arrantzaren kasuan, modernizazioa baxuagoa izan da. Izan ere, jardueraren goranzko joera ez da jarraitua –jaitsierekin tartekatuta– eta, hortaz, ontzien batez besteko tamaina txikiagoa da, eta ontzidia ez da hain berria.

164. koadroa EAEko baxurako ontzidia, portuen arabera (2020)

Portua	Unitate kopurua	Potentzia (ZP)	EGT	Tripulatzaille kopurua
– Hondarribia	31	14.892	3.388	372
– Getaria	25	11.405	2.489	261
– Orio	4	3.110	565	61
– Pasaia	17	2.088	396	65
– Donostia	4	468	61	11
– Gipuzkoako beste batzuk	2	260	29	6
GIPUZKOA, GUZTIRA	83	31.963	6.898	770
– Bermeo	32	8.582	1.740	169
– Zierbena	5	864	175	27
– Armintza (Lemoiz)	5	291	37	11
– Lekeitio	8	1.591	232	35
– Ondarroa	8	3.205	529	58
– Santurtzi(*)	11	1.464	263	42
BIZKAIA, GUZTIRA	69	15.997	2.976	342
EAE, guztira	153	48.220	9.903	1.118

(*): *Estatistika-sekretua gordetzeko, Bilboko eta Plentziako itsasontzien datuak Santurtziko datuekin bateratu ditugu.*

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

Baxurako enpleguari dagokionez, Hondarribia eta Getaria daude buruan, argi eta garbi. Dena den, lehenengoa alde handiarekin dago postu horretan, eta hamarkadako balantzean haren joera goranzkoa izan da. Getariaren joera, berriz, beheranzkoa izan da. Azkeneko 3 ekitaldietan, orokorrean, adierazle hau egonkor mantendu da bi portu horietan. Hirugarrena Bermeo da, beheranzko joera argiarekin. 2020an hazi egin zen lehenengo bien tripulazioa, eta jaitsi egin zen hirugarrenarena. Laugarrena Orio izan da orain arte, baina 2020an, ondoz ondoko bigarren urtez, asko jaitsi zen bertako enplegua. Pasaian, berriz, 50 langiletik 65 langilera pasatu ziren, eta laugarren postua kendu zion Oriori.

Ontzi kopuruari dagokionez, lidergoa Gipuzkoarena izan arren, Bermeo buruan kokatu zen berriro ere, Hondarribiak ontzi bat galdu baitzuen 2020an. Datuen arabera, Bizkaiko beste portu batzuetako ontziak hartzen ari da Bermeo, portu horietako jarduerak desagertzeko joera baitu. Hortaz, Bermeoko ontziak ez dira erosketa berriak: ez dira hain berriak, ezta hain handiak ere –hortaz, adierazleen balioak ez dira hain altuak–.

165. koadroa EAEko baxurako ontzidia, modalitatearen arabera, 2020

Modalitatea	Unitate kopurua	Potentzia ZP	EGT	Tripulatuak kopurua
– Inguraketa, Beita bizia eta Xaxiangoa/Kazakoa(*)	46	28.513	6.376	676
– Arte xeheak, Artefaktuak eta Zapo-sarea(*)	29	2.655	374	77
– Tretza	8	1.055	177	23
GIPUZKOA, GUZTIRA	83	32.223	6.927	776
– Inguraketa, Beita bizia eta Xaxiangoa/Kazakoa(*)	17	6.997	1.350	134
– Arte xeheak, Artefaktuak eta Zapo-sarea(*)	42	5.691	1.048	148
– Tretza	10	3.309	578	60
BIZKAIA, GUZTIRA	69	15.997	2.976	342
EAE, guztira	152	48.220	9.903	1.118

(*): *Estatistika-sekretua gordetzeko, artefaktuekin eta zapo-sareekin aritzen diren ontziak arte xeheen modalitatean sartu dira. Halaber, beita bizia eta xaxiangoa/kazakoa erabiltzen dutenak inguraketaren modalitatean multzokatu dira.*

Iturria: *Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.*

Teknikeri dagokienez ere alde nabarmena dago bi lurraldeen artean. Dena den, estatistika-sekretua gordetzeko, lurraldeen gaineko datuak multzokatu egin ditugu. Inguraketa da pisu handiena duen teknika, batez ere, Gipuzkoan. Bizkaian askoz ere presentzia txikiagoa du. Bestalde, Bizkaian Gipuzkoan baino handiagoa da tretzaren eta arte xeheen presentzia; hori lotuta dago Bizkaiko ontzien batez besteko neurria txikiagoa izatearekin.

Espezieen araberrako portuen espezializazioak ere forma ugari hartzen ditu. Adibidez, gehien kontsumitzen den arraina, legatza, Pasaian kontzentratzen da, baina produktu honen negozioak egitura ezberdina du, eta portu bakoitzeko kofradiekin zerikusirik ez duten arrantzaleen eta merkaturatzaileen partaidetza handiagoa da. Hori dela eta, kofradiak eta haien lonjak kontuan hartzen dituzten euskal arrantzari buruzko azterketa gehienetan legatzaren protagonismoa baxuagoa izaten da. Txitxarroak, esaterako, presentzia handia du Ondarroan. Esan dugun moduan, alturako espezieek (hegalaburra, bakailaoa, legatza eta beste batzuk) pisu handia dute Ondarroan, Bermeon eta Pasaian, eta han kontzentratzen da haien jarduera. Dena den, espezie nagusia, hegalaburra, murrizketen mende dago duela urte askotatik, nazioartean haren zenbateko biologikoa berreskuratu nahi baitute ozeanoetan. Nolanahi ere, azaldu dugun moduan, baxurako arrantzan antxoaren eta hegaluzearen aldeko apustua egiten da. Ondoren, berdelarekin osatzen dute arrantza –tona-potentzialaren ondorioz– eta, bigarrenik, sardinarekin eta txitxarroarekin. Oinarrizko eredu horri, gero, portu bakoitzak bere ñabardurak gehitzen dizkio.


Baxuran lehorreratutako arrantza

Hamarkadaren lehenengo erdian jaitsierak izan ziren nagusi, eta bigarren erdian egonkortu egin ziren datuak. Ildo horretatik, 2020 urte arteko aldakuntza oso txikiak izan zituzten adierazleek. Arrainaren tona kopuruari dagokionez, 2019a hamarkadako baxuena izan zen,

eta 2020an are zifra baxuagoa eskuratu zen pandemiaren eraginez. Datuak portuen arabera aztertuta, 2019an Ondarroan eta Getarian izan ziren jaitsierarik handienak. 2020an ere jaitsi egin zen Ondarroako tona kopurua, eta apur bat gutxiago Pasaiakoa; gainerako portuetan txikiagoa izan zen eragina.

Espezieen arabera, 2019an, batez ere, berdelaren (espezierik ugariena da) eta sardinaren (urte normal batean izango lukeen pisuaren adinako galera izan zuen ia) tona kopuruak egin zuen behera. 2020an ohiko mailara itzuli ziren biak, eta antxoak ikaragarri egin zuen behera (proportzioan, sardinak 2019an izan zuen jaitsiera baino handiagoa); gainerako espezieek konpentsatu egin zuten jaitsiera horren zati bat.

35. grafikoa **Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa (mila €), espezieen eta portuen arabera, 2020**



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

Tona kopuruak 2018an jo zuen goia, eta 2019an behera egin zuen. Eurotako balioaren egoera, ordea, ezberdina da: 2013-2015 artean egonkortu egin zen, 2017an gehieneko balioa eskuratu zuen, eta gero behera egin zuen pixkanaka. 2020an areagotu egin zen beherakada. 2019an jaitsi egin zen sardinaren eta antxoaren balioa, eta 2020an ia guztiz erori zen antxoarena. Guztiz ezohikoa den gutxieneko balioa izan zuen, Euskadiz kanpoko portuetara mugitu behar izan baitzuten ustekabean, lehen azaldu dugun moduan; osasun-krisiaren ondorioz biztanleria orokorra konfinatu izanak ere eragina izan zuen.

Hala ere, hegaluzearen arrantza-aldia ona izan zen, hasieran zalantzak izan arren. Ondorioz, baxurako diru-sarreretan ezohiko gehieneko ehunekoa eskuratu zuen hegaluzeak. 2014an –ezohiko urtea izan zen hura ere– diru-sarreraren % 15 zegozkion hegaluzeari, eta 2020an % 47,5. Antxoa % 23ko pisua izatetik % 5etik behera pasatu zen, eta berdelak gora egiten jarraitu zuen % 20ra iritsi arte.

166. koadroa Baxurako ontzidiaren bidez lehorreratutako arrantza, guztira

Lurraldea	2019		2020		%Δ 20/19	
	Tm	(m euro)	Tm	(m euro)	Tm	(m euro)
Gipuzkoa	22.357	49.018	20.659	41.476	-7,6	-15,4
Bizkaia	17.238	26.368	14.411	19.153	-16,4	-27,4
EAE	39.595	75.386	35.071	60.629	-11,4	-19,6

Oharra: Kofradietako salmentak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

Egoerak Gipuzkoa baino gehiago kaltetu zuen Bizkaia, bai tona kopuruari dagokionez, bai balio ekonomikoari dagokionez. Bizkaiko portuei erreparatuta, Bermeon berdelaren arrantza ikaragarri hazi zela ikus dezakegu, antxoaren arrantza murriztearen ondorioz. Hala, berdelaren tona kopuruak gora egin zuen, baina haren arrantzaren balioa ez zen apenas aldatu, ezta beste espezie batzuen edo guztizkoarena ere; antxoa izan zen salbuespen bakarra. Oro har, hegaluzearen eta sardinaren balioak gora egin izanak arindu egin zuen antxoaren jaitsiera bortitzaren zati txiki bat. Gipuzkoan ezberdina izan zen balioaren bilakaera, argi eta garbi. Balio bateratuak 2019koen edo are 2018koen oso antzekoak izan ziren, eta antxoaren jaitsiera izan zen aldaketa nabarmen bakarra.

Ondarroan 2018ko tona kopuruaren erdia baino gutxiago lehorreratu zuten, eta eurotako aldea are handiagoa izan zen: 2017an 25 milioi eurotik gorako diru-sarrerak izan zituen, eta 2020an 11.900 milioi euro pasatxokoak. Berdelaren eta sardinaren aldeko apustua egin zuten, eta hegaluzearen balioa hobetu egin zen, baina horrek antxoaren jaitsieraren zati oso txiki bat baino ez zuen konpentsatu.

Oso deigarria da Lekeitioren kasua, alboko portuarekin eta Bizkaiko 2020ko balantzearekin alderatuta. Lekeition, bat batean, bikoiztu egin zen berdelaren tona kopurua eta jarduera sortu da hegaluzearen inguruan; portu honetan ez zegoen hegaluzearen inguruko jarduerarik duela 7 urtetik, espeziaren debekualdiaz geroztik.

Pasaia mendekotasun txikiagoa zuen antxoarekiko, baina portu horretan berdelarekin eskuratutako balioaren zati handi bat galdu zuten, eta sardinaren tona kopurua normaltasunera itzultzeak ere ez zuen galera hori ia konpentsatu. Legatza da Pasaiaiko portuko arrain bereizgarria, kofradien arrantzan pisu handia izan ez arren. 2020an legatzak ere behera egin zuen apur bat.

Hondarribiak berdel tona gehiago arrantzatuta konpentsatu zuen antxoaren jaitsieraren zatirik handiena, nahiz eta amaierako balioa antzekoa izan; eta, batez ere, saldutako hegaluzearen balioa errentagarriagoa izateak lagundu zion. Getarian, bestalde, lehorreratutako tona kopurua mantentzea lortu zuten berdel eta sardina gehiago arrantzatuta, baina balioa ez zen apenas igo, eta antxoaren jaitsierak kaltetu egin zuen, argi eta garbi. Nolanahi ere, antxoaren kuota gehien mantendu zuen portua izan zen. Izan

ere, Euskaditik kanpora lehorreratu behar izan zuten euskal ontzien tona kopuru apurra eskuratzeko orduan, gainerako portuek baino pisu handiagoa izan zuen, antza.

167. koadroa Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantza osoa, portuen arabera, 2020

(Tm)

Kontzeptua	Guztira	%	Espezie nagusiak						
			Antxoa	Hegaluzea	Txitxarroa	Legatza ⁽¹⁾	Sardina	Berdela ⁽²⁾	Beste batzuk ⁽³⁾
- Hondarribia	6.893	19,7	367	2.764	165	12	631	2.709	245
- Pasaia	5.208	14,8	101	204	190	394	1.517	1.596	1.207
- Getaria	8.559	24,4	1.118	3.130	255	-	1.520	2.461	76
- Ondarroa	9.767	27,8	870	838	1.104	19	2.867	3.527	543
- Lekeitio	489	1,4	-	42	1	4	-	422	19
- Bermeo	4.123	11,8	125	945	10	44	-	2.866	132
GIPUZKOA, GUZTIRA	20.659	58,9	1.586	6.098	610	405	3.667	6.765	1.528
BIZKAIA, GUZTIRA	14.411	41,1	998	1.826	1.116	70	2.867	6.831	703
EUSKAL HERRIA, GUZTIRA	35.071	100,0	2.584	7.924	1.726	475	6.533	13.596	2.231
<i>Gipuzkoako %</i>			<i>7,7</i>	<i>29,5</i>	<i>3,0</i>	<i>2,0</i>	<i>17,7</i>	<i>32,7</i>	<i>7,4</i>
<i>Bizkaiko %</i>			<i>6,9</i>	<i>12,7</i>	<i>7,7</i>	<i>0,5</i>	<i>19,9</i>	<i>47,4</i>	<i>4,9</i>
<i>Euskal Herriko %</i>			<i>7,4</i>	<i>22,6</i>	<i>4,9</i>	<i>1,4</i>	<i>18,6</i>	<i>38,8</i>	<i>6,4</i>

(1): Legatza, merlenka eta tarteko legatza sartzen dira hemen.

(2): Berdela eta betaundia sartzen dira hemen.

(3): Barne hartzen ditu hegalaburra eta gainerako espezieak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

Baxurako arrantzaren balio ekonomikoa ehunekotara ekarrita, Ondarroak % 30 inguruko pisua zuen duela 3 urte, eta 2020an % 20ra murriztu zen. Hamarkadan zehar, Getariak izan du tarteka adierazle honetako lidergoa; hala, 2020an pisu apur bat berreskuratu zuen eta % 27an geratu zen. Hondarribiak goranzko joera izan du hamarkada osoan zehar, eta krisiari hobeto aurre egin zionez, gehieneko kuota eskuratu zuen, % 22koa; hala, lehen aldiz bigarren postuan kokatu zen Ondarroari aurre hartuta. Pasaia goranzko joera zuen, baina 2020an pisua galdu zuen eta Ondarroaren parean geratu zen, % 20aren inguruan. Bermeok aurrera egin zuen berriz ere baxurako arrantzan, 2019an bezala, eta % 10tik gora geratu zen.

168. koadroa Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa, portuen arabera, 2020

(m euro)

Kontzeptua	Guztira	%	Espezie nagusiak						
			Antxoa	Hegaluzea	Txitxarroa	Legatza ⁽¹⁾	Sardina	Berdela ⁽²⁾	Beste batzuk ⁽³⁾
- Hondarribia	13.229	21,8	380	9.867	116	56	400	2.250	160
- Pasaia	12.028	19,8	166	761	190	2.199	1.267	1.496	5.949
- Getaria	16.219	26,8	1.255	11.409	242	-	1.040	2.077	196
- Ondarroa	11.908	19,6	993	3.049	1.091	72	2.062	3.555	1.085
- Lekeitio	573	0,9	-	144	-	9	-	329	91
- Bermeo	6.591	10,9	122	3.383	7	177	-	2.199	703
GIPUZKOA, GUZTIRA	41.476	68,4	1.801	22.036	548	2.255	2.708	5.823	6.305
BIZKAIA, GUZTIRA	19.153	31,6	1.117	6.582	1.100	272	2.062	6.096	1.924
EUSKAL HERRIA, GUZTIRA	60.629	100,0	2.918	28.619	1.648	2.527	4.770	11.919	8.229
<i>Gipuzkoako %</i>			<i>4,3</i>	<i>53,1</i>	<i>1,3</i>	<i>5,4</i>	<i>6,5</i>	<i>14,0</i>	<i>15,2</i>
<i>Bizkaiko %</i>			<i>5,8</i>	<i>34,4</i>	<i>5,7</i>	<i>1,4</i>	<i>10,8</i>	<i>31,8</i>	<i>10,0</i>
<i>Euskal Herriko %</i>			<i>4,8</i>	<i>47,2</i>	<i>2,7</i>	<i>4,2</i>	<i>7,9</i>	<i>19,7</i>	<i>13,6</i>

(1): Legatza, merlenka eta tarteko legatza sartzen dira hemen.

(2): Berdela eta betaundia sartzen dira hemen.

(3): Barne hartzen ditu hegalaburra eta gainerako espezieak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

Kofradiek eskuratutako tona kopuruaren eta balio ekonomikoaren arteko ratioa, naturalki, prezioa da. Kiloko 1,5 eta 2 euro artekoa izan ohi da batez besteko prezioa. Azken bost urteetan goranzko joera izan zuen, baina 2020ko gorabeherak medio, 1,90 €/kg-tik 1,73 €/kg-ra pasatu zen. Ratioa oso ezberdina izan zen Gipuzkoaren (1,91) edo Bizkaiaren (1,34) kasuan, azken hamarkadan etengabe gertatu den moduan.

“Gainerako espezieak” atala da alde hori ulertzeko giltzarrietako bat. Atal horrek osagai oso ezberdinak izan ditzake; izan ere, azaldu dugun moduan, arrantzatzeko teknikak ere oso ezberdinak dira Gipuzkoako eta Bizkaiko portuetan. Atal horretan, Gipuzkoako portuek kiloko 4,13 euro eskuratu zituzten, eta Bizkaiko portuek kiloko 2,74 euro baino ez. Legatzaren kasuan ere aldea nabarmena izan zen. Bi lurraldeetan, legatza izan zen kiloko prezio altuena zuen arraina: Bizkaiaren 3,85 euroan geratu zen, eta Gipuzkoan 5,57 eurora igo zen (2011an 2 euroz azpikoa zen). Gogoan izan behar da gehien kontsumitzen den arrain honen negozioan kofradiekin zerikusirik ez duten beste merkaturatzaile batzuek hartzen dutela parte. Hortaz, dinamika ezberdina du, eta posible da Pasaia (legatz gehien lehorreratzeko duen portua) kofradiek haien merkataritza-politikak edo kanak aldatu izana, haien kabuz banatzen duten kuotari dagokionez.

Bada portu guztietan antzekoa den gertakari bat: hamarkada osoan zehar, hegaluzea 3,5 euro inguruan kokatu da; aitzitik, beste arrantza-aldi nagusiko arrainaren prezioak, antxoarenak, behera egin du azken 7 urteetan. Horrek lotura du tamaina egokia duten arrainak eskuratzeko zailtasunekin eta aurrez azaldu ditugun beste zailtasun batzuekin.

2013an “gehieneko” prezioa izan ondoren, hondoa jo zuen 2020an eta erdira baino gutxiagora murriztu zen: kiloko 1,13 euro.

Legatzak, hegaluzeak eta “beste batzuek”, orokorrean, bilakaera ona izan zuten bitartean, eta antxoaren prezioak behea jo zuen artean, baliorik gutxien ematen zaien arrainak edo ordezeko arrainak mantendu egin ziren: sardina, txitxarroa eta berdela. Kiloko 1 euro baino apur bat beherago mugitzen dira horiek.

169. koadroa Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldien bilakaera

Kontzeptua	2016	2017	2018	2019	2020
Antxoa					
– Lehorreratzeak (Tm)	14.613	16.754	15.112	13.285	2.584
– Batez besteko prezioa (euro/kg)	1,58	1,62	1,29	1,30	1,13
– Balioa (mila euro)	23.090	27.059	19.427	17.231	2.918
Hegaluzea					
– Lehorreratzeak (Tm)	6.118	6.322	8.448	7.969	7.924
– Batez besteko prezioa (euro/kg)	3,78	3,97	3,58	3,51	3,61
– Balioa (mila euro)	23.131	25.082	30.282	27.944	28.619

Oharra: Kofradietako salmentak.


Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

Gutzizko balioaren bilakaerari dagokionez, deigarria da azken urteetan hegaluzea funtsezko euskarria bihurtu izana. 2014an izan zituen hegaluzeak gutxieneko diru-sarrerak, 10 milioikoak, eta 2018an gehienekoak, 30 milioikoak; 2020an apur bat beherago kokatu zen (28,6 milioi). Antxoak, nahiz eta hegaluzearekin batera ordezeko papera izan, azken hamarkadetako debekuen eta zailtasunen ondoren, hegaluzearen antzeko diru-sarrerak izan zituen azken urteetan, 2020ko ezohiko egoera iritsi zen arte. Berdela eta “gainerakoak” atalak negozioren zati bat salbatu zuten, eta urteko 10 milioiko zifraren inguruan mugitu ziren. Sardinak ere antzeko diru-sarrerak zituen, baina azken bost urteetan posizioak galtzen joan da eta diru-sarreraren erdiak izan zituen 2020an, gutxi gorabehera. Urte batzuetan txitxarroaren (hau ere maila baxuko arraina, eta ordezekoa) edo legatzaren (banaketarekin lotutako berezitasunekin) mailara ere jaitsi izan da sardina.

Aurreko hamarkadaren amaieran izandako debekua amaitu ostean, hamarkada honetan goranzko joera izan du antxoaren tona kopuruak, baina 2017an goia jo zuen eta ordutik behera egin du, hein handi batean tamainarekin lotutako arazoengatik, aipatu dugun moduan.

Bi arrantza-aldien jarraipena eginez gero, argi ikus daiteke bilakaera hori, baita 2020ko konfinamendu orokorrak antxoaren arrantza-aldiarekin bete-betean bat egin izanak eragindako haustura ere. Etenaldi horren ondorioz, kanpoko portuetan lehorreratu behar izan zuten arraina, ezohiko datetan, eta ohiko urte bateko zati bat baino ez zen lehorreratu EAEko lonjetan.

36. grafikoa Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldiak



Oharra: Kofradietako salmentak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

5.3 ALTURAKO ARRANTZA

Alturako arrantzak garrantzi ekonomiko handiagoa du baxurakoak baino –euskal arrantzaren diru-sarreraren bi heren baino gehiago–, baina jarraipenerako urteko estatistikak eskuratzea ez da hain erraza, datuak tarte luzeagoetan argitaratzen direlako.

Adibidez, aurrez aipatu dugu legatzaren banaketa-egitura ezberdina dela. Hain zuzen ere, freskoko altura da legatzaren tona kopuruaren % 97 arrantzatzeaz arduratzen dena, Ondarroan ainguratutako 16 itsasontziekin. Arrantzatutako legatza alturako ontzidiko kideak diren ekoizleen erakundeei saltzen diete zuzenean, hortaz, ustiapen-datuek beste ibilbide batzuk jarraitzen dituzte, eta ez erreferentziazko estatistikaren datu-iturri nagusiak (EAEko portuetako kofradiak) jarraitzen duen ibilbidea.

Baxurako ontzi kopurua hirukoitza den arren, alturako ontzidiaren potentzia hiru aldiz handiagoa da, tona kopurua 5,5 aldiz handiagoa, eta azpisektoreko enplegua baxurakoa adinakoa izan zen ia-ia 2018an, ontzi kopurua igo zenean, baina ordutik jaisten joan da pixkanaka, baxurako enplegua jaitsi dena baino apur bat gehiago.

170. koadroa Euskal Herriko alturako ontzidiaren egitura, 2020

	Unitate kopurua	Potentzia ZP	EGT	Tripulatazaile kopurua
- Altura handia - atunontzi izoztaileak	26	134.176	49.980	(*)
- Altura handia - bakailao-ontziak	2	3.805	1.650	(*)
- Altura handia, guztira	28	137.981	51.629	754
- Freskoko altura	16	9.359	3.437	196
Altura, guztira	44	147.340	55.066	950

(*): *Estatistika-sekretua gordetzeko, 2 bakailao-ontzien datua eta atunontzi izoztaileen datua freskoko alturaren guztizkoan sartu dira.*

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

Freskoko altura osoa Ondarroan kontzentratzen da. 2 bakailao-ontziak, berriz, Pasaiako portuari dagozkio, eta 26 atunontzi izoztaileak Bermeoko portuari. Atunontzi horiei dagokie sektoreko magnitudeen zatirik handiena, eta oso urrutiko lekuetan lan egiten dute, hala nola Indiako Ozeanoan.

2020an ez zen ontzi-galera garbirik izan azpisektore bakar batean ere, baina altura handiko arrantzan 66 lanpostu murriztu ziren; hala, 820tik 754ra jaitsi zen enplegu kopurua. Freskoko alturan, berriz, 3 enplegu gutxitu ziren, 196ra arte. Altura handian guztizko potentzia ez zen aldatu, baina tona kopurua handitu egin zen. Hortaz, ontziren bat berritu edo konpondu egin zutela pentsa daiteke. Aitzitik, freskoko alturan nabarmen igo zen potentzia, eta tona kopurua oso gutxi handitu zen. Hala, ordezkapenen bat edo hobekuntzaren bat izan zela adieraz dezake horrek, baina motorraren arloari lotuta.



5. ZERBITZUAK

1. IKUSPEGI OROKORRA

2020an -% 10,8 murriztu zen Estatuko BPGa. Testuinguru horretan, EAEn -% 9,5 eta Nafarroan -% 8,3 egin zuen behera.

Azterketa zerbitzuen sektorera ekarrita, 2020an -% 8,5 jaitsi zen EAEn, -% 7,9 Nafarroan eta -% 11,1 Estatuan (aurreko ekitaldian % 2,5, % 2,9 eta % 2,2ko igoerak, hurrenez hurren).

Horretara iritsita, txosten honen aurreko edizioetan bezala, komeni da gogora ekartzea sektorearen heterogeneotasunak zaildu egiten duela sektore osoa batera aztertzea. Hala ere, enplegua da adierazle egonkorrenetako bat. Horrekin lotuta, aipatzekoa da 2020an hirugarren sektoreko okupazio-tasa -% 2,1 jaitsi zela EAEn, -% 5,2 Nafarroan (-% 2,8 Euskal Herri osoan) eta -% 3 Estatuan.

2. HEZKUNTZA

2.1 UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN IKASLEEN BILAKAERA

2020/2021 ikasturteko azken datuen arabera, Euskal Herrian murriztu egin zen unibertsitatekoak ez diren ikasleen bolumena, baina ez asko (-% 1). Hala, 483.850 ikasle izan ziren guztira, aurreko ikasturtean baino 5.124 gutxiago. Aurreko urteetan bezala, Haur Hezkuntzan (-% 7,3) zein Lehen Hezkuntzan (-% 1,2) egin zuen behera ikasle kopuruak. Zentzu horretan, bi faktore izan daitezke Haur Hezkuntzako matrikulazioaren beherakada handi hori eragin zutenak. Lehenengoa lotuta dago jaiotza kopurua jaitsi izanarekin, horrek ezinbestean eragina baitu eskoletan. Eta bigarrenak pandemiak sortutako ziurgabetasunarekin izan dezake zerikusia, beharbada horrek txikienen matrikulazioa atzeratu duelako. Aitzitik, goragoko ikasmailetan hazi egin zen matrikulazio kopurua, eta aurreko ikasturteetan erregistratutako goranzko joera mantendu zuten DBHK (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza), Lanbide Heziketak eta Batxilergoak, % 1,1, % 3,8 eta % 4ko hazkundeekin, hurrenez hurren.

Haur Hezkuntza

Haur Hezkuntza aztertuz hasiko gara. 2020/2021 ikasturtean 101.000 ikasle matrikulatu ziren Euskal Herrian, aurreko ikasturtean baino 7.943 gutxiago. Ikastetxe motaren arabera, bi sareek galdu zituzten ikasleak, urte arteko % 7 inguruko jaitsierekin. Ikasleen % 55,9 sare publikoan matrikulatu zen, eta gainerako % 44,1a sare pribatuan.

171. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Haur Hezkuntza

Eremua	2019/ 2020 ikasturtea			2020/ 2021 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	8.609	5.508	14.117	7.909	5.083	12.992
Bizkaia	20.897	21.032	41.929	19.381	19.307	38.688
Gipuzkoa	14.677	13.604	28.281	13.716	12.649	26.365
EAE	44.183	40.144	84.327	41.006	37.039	78.045
Nafarroa	16.765	7.851	24.616	15.502	7.453	22.955
Euskal Herria	60.948	47.995	108.943	56.508	44.492	101.000

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua.

Informazioa lurraldeka aztertuko dugu, eta EA Erekin hasiko gara. Aurreko ikasturteetan bezala, hiru Lurralde Historikoetan asko jaitsi zen matrikulazioa. Bizkaian Haur Hezkuntzako ikasle gehiago galdu zituen sare pribatuak (-% 8,2) publikoak (-% 7,3) baino, ikasleen banaketa ia berdina izan arren. Gipuzkoan antzeko proportzioan jaitsi ziren matrikulazioak (-% 6,8), eta kasu honetan ere bi sareetan (-% 6,5 sare publikoan eta -% 7 pribatuan). Lurralde honetan ikastetxe publikoen pisua apur bat handiagoa izan zen (% 52 publikoak eta % 48 pribatuak). Halaber, Araban ere murriztu egin zen ikasle kopurua,

kasu honetan -% 8: sare publikoan -% 8,1 eta pribatuan -% 7,7. Ikastetxe publikoek pisu handiagoa izan zuten (% 60,9). Agertoki bera izan zuten Nafarroan, non matrikulazio kopurua % 6,7 gutxitu zen. Hala, % 5,1eko jaitsiera izan zuen irakaskuntza pribatuak eta % 7,5ekoa publikoak. Sare pribatuak jaso zuen ikasleen zatirik handiena (% 67,5).

Hortaz, 2020/2021 ikasturtean EAEn 78.045 ikasle matrikulatu ziren Haur Hezkuntzan, aurreko ikasturtean baino 6.282 gutxiago. Nafarroan, berriz, 22.955 ikasle matrikulatu ziren, 2019/2020 ikasturtean baino 1.661 gutxiago.

172. koadroa Euskalduntze maila Haur Hezkuntza

Eremua	2019/ 2020 ikasturtea					2020/ 2021 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	3,2	29,1	67,7	0,0	100	2,9	28,7	68,3	0,0	100
Bizkaia	2,8	20,3	75,9	1,0	100	2,3	19,9	76,9	1,0	100
Gipuzkoa	2,2	2,8	95,0	0,0	100	2,0	3,0	95,0	0,0	100
EAE	2,7	15,9	80,9	0,5	100	2,3	15,6	81,6	0,5	100
Nafarroa*	15,7	0,9	28,6	54,9	100	16,4	0,8	28,2	54,5	100
Euskal Herria	5,6	12,5	69,1	12,8	100	5,5	12,3	69,5	12,7	100
Pribatua	5,8	26,0	55,9	12,3	100	5,2	25,7	56,6	12,5	100
Publikoa	5,4	1,9	79,5	13,1	100	5,8	1,7	79,5	13,0	100

Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren arabera ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.

A: Hezkuntza gaztelaniaz; euskara beste irakasgai bat baino ez da.

B: Irakaskuntza elebiduna.

D: Hezkuntza euskaraz; gaztelania beste irakasgai bat baino ez da.

X: Euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza.

():* Nafarroaren kasuan, euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntzari ofizialki G deitzen zaio.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua.

Hizkuntza-ereduaren arabera ikasleen banaketari dagokionez, aurreko ikasturteetako portaera errepikatu zen. Beste behin ere, D eredu (euskarazko irakaskuntza, eta gaztelania ikasgai gisa) gailendu zen Haur Hezkuntzako ikasleen artean. Hizkuntza-eredu hori pixkanaka hazten ari da Haur Hezkuntzan, eta hiru lurralde historikoetan gailentzen da. Hala, Bizkaian D ereduak izan zuen ordezkari handiena (% 76,9), eta azken ikasturtean gora egin zuen (ehuneko +1 puntu). B eredu (irakaskuntza elebiduna) izan zen hurrengo ikasleen % 19,9ekin. A ereduak (gaztelaniazko irakaskuntza, eta euskara ikasgai gisa) eta X ereduak (euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza), berriz, hizkuntza-eskaintzaren % 2,3 eta % 1 baino ez zuten ordezkatu. Araban % 68,3ra igo zen D ereduaren partaidetza (ehuneko +0,6 puntu), B ereduaren partaidetza % 28,7koa izan zen eta A ereduaren pisua oso txikia izan zen (% 2,9). Gipuzkoan gehieneko baliora hurbildu zen D eredu (% 95), eta gainerako ereduak oso ordezkari ahula izan zuten. Nafarroan, aitzitik, oso ezberdina izan zen agertokia, X eredu matrikulatu baitziren ikasleen % 54,5. D eredu izan zen hurrengo (% 28,2), A eredu (% 16,4) gero eta, azkenik, B eredu, hondarreko partaidetzarekin (% 0,8).

Hala, euskalduntze maila (D eredua gehi B eredua) % 97,2koa izan zen EAEn. Nafarroan, berriz, % 29,1ekoa baino ez. Ondorioz, % 81,7koa izan zen Euskal Herriko tasa.

Lehen Hezkuntza

Lehen Hezkuntzako datuei dagokienez, azken ikasturtean 171.047 ikasle zenbatu ziren Euskal Herrian, hau da, aurreko ikasturtean baino 2.061 ikasle gutxiago. Termino erlatibotan, % 1,2koa izan zen jaitsiera. Ikasleen banaketa kontuan hartuta, sare publikoa (% 55,4) gailendu zitzaion pribatuari (% 44,6). Dena den, bi sareetan egin zuen behera matrikulazioak (-% 1,1 eta -% 1,3, hurrenez hurren).

173. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Lehen Hezkuntza

Eremua	2019/ 2020 ikasturtea			2020/ 2021 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	12.836	8.269	21.105	12.720	8.331	21.051
Bizkaia	32.148	32.973	65.121	31.810	32.533	64.343
Gipuzkoa	22.432	21.262	43.694	21.917	20.920	42.837
EAE	67.416	62.504	129.920	66.447	61.784	128.231
Nafarroa	28.352	14.836	43.188	28.271	14.545	42.816
Euskal Herria	95.768	77.340	173.108	94.718	76.329	171.047

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua.

Hezkuntza-ziklo horretako datuak lurraldeka aztertuta, argi ikus daiteke lurralde guztiek galdu zituztela ikasleak, baina Gipuzkoak neurri handiagoan, matrikulazioak % 2 murriztu baitziren han. Ikastetxe publikoetan, non ikasleen % 51,2 matrikulatu ziren, % 2,3 murriztu zen ikasle kopurua; pribatuetan, berriz, % 1,6ko jaitsiera izan zuten. Bizkaian bakarrik gailendu zen sare pribatua publikoaren aurretik, ikasle kopuruari dagokionez (% 50,6 eta % 49,4). Lurralde horretan antzekoa izan zen bilakaera (-% 1,3 eta -% 1,1, hurrenez hurren). Araban, bestalde, aldeak ikusten dira eskola-maparen osaeran. Ikastetxe publikoak kokatu ziren buruan (% 60,4, eta pribatuak % 39,6), eta matrikula kopurua ez zen asko mugitu bietan (-% 0,9 sare publikoan eta % 0,7 pribatuan). Nafarroan ere, azken ikasturtean, ikastetxe publikoetan matrikulatu ziren 10 ikasletik 6. Sare publikoko matrikulazio kopurua apur bat jaitsi zen (-% 0,3), eta sare pribatukoak jaitsiera handiagoa izan zuen (-% 2).

174. koadroa Euskalduntze maila Lehen Hezkuntza

(%)

Eremua	2019/ 2020 ikasturtea					2020/ 2021 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	4,8	35,3	59,9	0,0	100	4,7	33,7	61,6	0,0	100
Bizkaia	3,7	24,1	70,5	1,7	100	3,4	23,6	71,4	1,6	100
Gipuzkoa	2,4	6,3	91,3	0,0	100	2,5	5,5	92,0	0,0	100
EAE	3,5	19,9	75,8	0,8	100	3,3	19,2	76,7	0,8	100
Nafarroa	19,3	0,3	26,0	54,4	100	19,1	0,2	26,2	54,5	100
Euskal Herria	7,4	15,0	63,4	14,2	100	7,2	14,5	64,1	14,2	100
Pribatua	7,2	29,1	49,5	14,2	100	7,1	28,7	50,2	14,0	100
Publikoa	7,5	3,7	74,6	14,2	100	7,4	3,0	75,2	14,4	100

Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren arabera ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentua.

Lehen Hezkuntzako euskalduntze-mailari dagokionez, aurreko urteetan bezala, hazi egin zen D ereduari matrikulatu ziren ikasleen kopurua. Gora egin zuen eredu bakarra izan zen, eta garrantzi berezia izan zuen Gipuzkoan. Hain zuzen ere, Gipuzkoako ikasleen % 92,0 ereduak aukeratu zuten (ehuneko +0,7 puntu), eta gainerakoek B ereduak (% 5,5) eta A ereduak (% 2,5). Bizkaian antzeko bilakaera izan zuen D ereduak (ehuneko +0,9 puntu), eta hark izan zuen ordezkariarik handiena (% 71,4). B ereduak (% 23,6) izan zen hurrengoa, alde apur batekin, eta A ereduak (% 3,4) azkena. Dena den, Araban hazi zen gehien D ereduak (% 61,6; ehuneko +1,8 puntu), B ereduaren (% 33,7) eta A ereduaren (% 4,7) kaltetan; bi horiek pisua galdu zuten azken ikasturtean. Nafarroari dagokionez, aurreko urteetan bezala, X ereduak izan zuen presentziarik handiena Lehen Hezkuntzan (% 54,5), ondoren D ereduak (% 26,2) eta A ereduak (% 19,1) kokatu ziren eta, azkenik, hondarreko ekarpenarekin, B ereduak (% 0,2).

Hala, % 95,9koa izan zen EAEko euskalduntze-tasa, eta % 26,5koa baino ez Nafarroakoa. Lurralde guztiak kontuan izanda, Euskal Herriak % 78,5eko euskalduntze-tasa izan zuen.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari (DBH) dagokion informazioa aztertuko dugu jarraian. 2020/2021 ikasturtean Euskal Herrian 115.761 ikasle matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino 1.283 gehiago. Joan den ikasturtean bi sareetan igo zen matrikulazioa, baina sare publikoak (% 1,7) aurre hartu zion sare pribatuari (% 0,6), eta ikasleen % 50,2 jaso zituen.

175. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. DBH

Eremua	2019/ 2020 ikasturtea			2020/ 2021 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	6.565	6.713	13.278	6.740	6.858	13.598
Bizkaia	19.132	24.019	43.151	19.509	24.097	43.606
Gipuzkoa	14.527	15.491	30.018	14.593	15.613	30.206
EAE	40.224	46.223	86.447	40.842	46.568	87.410
Nafarroa	16.947	11.084	28.031	17.294	11.057	28.351
Euskal Herria	57.171	57.307	114.478	58.136	57.625	115.761

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Aztertutako hiru lurraldeek izan zuten urte arteko aldakuntza positiboa, neurri handiagoan edo txikiagoan. EAEko hiru Lurralde Historikoetan ikastetxe pribatuek izan zuten presentziarik handiena (% 50,4 Araban, % 51,7 Gipuzkoan eta % 55,3 Bizkaian). Nafarroan, berriz, eskola publikoetan matrikulatu ziren ikasle gehien (% 61, eta pribatuetan % 39). Ikasleen bilakaerari dagokionez, Araban eta Bizkaian gora egin zuten sare publikoko matrikulazioek (% 2,7 eta % 2, hurrenez hurren). Sare pribatuan ere gora egin zuten, baina apur bat gutxiago (% 2,2 eta % 0,3, hurrenez hurren). Gipuzkoan, berriz, matrikulazioa ez zen apenas igo, ez sare batean, ez bestean (% 0,5 eta % 0,8). Nafarroan, matrikulazio publikoak izandako igoerak (% 2) konpentsatu egin zuen ikastetxe pribatuetako matrikulazioen jaitsiera (-% 0,2). Hala, handitu egin ziren eskola-maparen osaeraren baitako aldeak (% 61, sare publikoa).

Hortaz, EAEn 87.410 ikasle matrikulatu ziren DBHn, aurreko ikasturtean baino 963 gehiago, eta Nafarroan 28.351 ikasle matrikulatu ziren, 320 gehiago.

176. koadroa Euskalduntze maila DBH

Eremua	2019/ 2020 ikasturtea					2020/ 2021 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	13,0	34,9	52,1	0,0	100	12,2	35,0	52,8	0,0	100
Bizkaia	7,5	26,8	64,5	1,3	100	6,8	26,5	65,4	1,3	100
Gipuzkoa	2,6	11,7	85,7	0,0	100	2,6	10,0	87,4	0,0	100
EAE	6,6	22,8	69,9	0,6	100	6,2	22,1	71,0	0,6	100
Nafarroa	8,5	0,0	24,8	66,7	100	8,2	0,0	25,0	66,8	100
Euskal Herria	7,1	17,2	58,9	16,8	100	6,7	16,7	59,8	16,8	100
Pribatua	9,3	30,9	44,3	15,6	100	8,7	30,4	45,5	15,5	100
Publikoa	4,9	3,5	73,5	18,1	100	4,6	3,2	73,9	18,2	100

Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren arabera ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.


Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

DBHko hizkuntza-eredu ezberdinei dagokienez, agertokia oso ezberdina izan zen EAEn eta Nafarroan. D ereduaren lehenengo postuan mantendu zen Araban (% 52,8), Bizkaian (% 65,4) eta, batez ere, Gipuzkoan (% 87,4). B ereduak nolabaiteko pisu erlatiboa mantendu

zuen Araban (% 35) eta Bizkaian (%26,5), eta ez zen hain esanguratsua izan Gipuzkoan (% 10). Bestetik, A ereduak presentzia txikiagoa izan zuen: ikasleen % 12,2k hautatu zuten Araban, % 6,8k Bizkaian eta % 2,6k Gipuzkoan. X ereduak Bizkaian baino ez zuen presentzia izan, oso pisu txikiarekin (% 1,3). Aitzitik, Nafarroan X ereduak izan zuen partaidetzarik handiena (% 66,8), D ereduak distantzia apur batera kokatu zen (% 25) eta A ereduak askoz ere kuota txikiagoa eskuratu zuen (% 8,2).

Horren guztiaren emaitza gisa, DBHko euskalduntze maila % 93,2koa izan zen EAEn, % 25ekoa Nafarroan eta % 76,5ekoa Euskal Herri osoan.

37. grafikoa Unibertsitatekoak ez diren ikasleen matrikulazioen bilakaera Euskal Herrian



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Erdi-mailako irakaskuntza

Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa.

Arreta erdi-mailako irakaskuntzan eta, zehazki, Lanbide Heziketan jarrita (Oinarrizkoa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa), aurreko ikasturteetako portaera errepikatu zen, eta nabarmen hazi zen matrikulazioa. Hala, 2020/2021 ikasturtean 54.441ekoa izan zen irakaskuntza maila horretako ikasle kopurua, aurreko ikasturtean baino 1.978 ikasle gehiagokoa. Bi sareetan igo zen ikasle kopurua; ikastetxe publikoetan % 4,6 hazi zen matrikulazio kopurua, eta % 2,5 jabetza pribatuko ikastetxeetan.

177. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera.
Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa

Eremua	2019/ 2020 ikasturtea			2020/ 2021 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	3.624	2.817	6.441	3.829	2.775	6.604
Bizkaia	9.868	10.086	19.954	10.283	10.509	20.792
Gipuzkoa	10.258	5.829	16.087	10.409	5.955	16.364
EAE	23.750	18.732	42.482	24.521	19.239	43.760
Nafarroa	7.303	2.678	9.981	7.972	2.709	10.681
Euskal Herria	31.053	21.410	52.463	32.493	21.948	54.441

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Lurralde-ikuspegiaren arabera, Nafarroa nabarmendu zen, aurreko ikasturteko erregistroak alde handiarekin gainditu baitzuten (% 7 inguru). Izan ere, ikastetxe publikoetan % 9,2 hazi zen matrikulazioa; gainera, 10 ikasletik 7 jaso zituen sare publikoak. Sare publikoak ere gora egin zuen, baina gutxiago (% 1,2), eta presentzia baxuagoa izan zuen. Bizkaiari dagokionez, sare publikoan zein pribatuan egin zuen gora matrikulazioak (% 4,2 bietan), eta bi sareen pisua orekatuagoa izan zen (% 49,5 sare publikoak eta % 50,5 pribatuak). Araban, ordea, bilakaera ezberdina izan zuten: ikastetxe publikoetan ugaritu egin ziren ikasleak (% 5,7), eta pribatuetan gutxitu (-% 1,5). Hala, areagotu egin zen bi sareen arteko aldea (% 58, sare publikoa). Gipuzkoan ikastetxe publikoak kokatu ziren lehen postuan (ikasleen % 63,6). Ikastetxe pribatuek, ordea, bilakaera hobea izan zuten 2020/2021 ikasturtean (% 2,2, eta publikoek % 1,5).

Ondorioz, EAEn 43.760 ikasle matrikulatu ziren Lanbide Heziketan, aurreko ikasturtean baino 1.278 gehiago. Nafarroan, berriz, 10.681 matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino 700 gehiago.

178. koadroa Euskalduntze maila
Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa

(%)

Eremua	2019/ 2020 ikasturtea					2020/ 2021 ikasturtea				
	A	B(*)	D	X	Guztira	A	B(*)	D	X	Guztira
Araba	74,8	17,3	7,9	0,0	100	73,0	18,6	8,4	0,0	100
Bizkaia	69,5	18,6	11,9	0,0	100	67,0	20,8	12,2	0,0	100
Gipuzkoa	43,9	18,5	37,7	0,0	100	41,5	19,8	38,7	0,0	100
EAE	60,6	18,3	21,1	0,0	100	58,4	20,1	21,5	0,0	100
Nafarroa	0,0	0,0	6,5	93,5	100	0,0	0,0	7,0	93,0	100
Euskal Herria	49,1	14,8	18,3	17,8	100	46,9	16,2	18,7	18,2	100
Pribatua	61,5	15,1	10,9	12,5	100	60,4	16,2	11,0	12,3	100
Publikoa	40,5	14,7	23,4	21,4	100	37,8	16,1	23,8	22,2	100

Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren arabera ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.

():* Batxilergorako eta Lanbide Heziketarako, A eta D ereduak baino ez daude legez, baina A ereduko talde batzuek irakasgai batzuk euskaraz ematen dituzte, eta modalitate hori, A eredu indartu gisa ezagutzen dena, B eredura hurbil daiteke.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Ereduen arabera banaketari dagokionez, alde esanguratsuak ikusten dira irakaskuntza-maila honetako hizkuntza-maparen osieran, beheragoko mailekin alderatuta. Hala, EAEko ikasleen % 58,4k A ereduari egin zituzten haien ikasketak, eta Nafarroan X ereduak jaso zituen ia ikasle guztiak (% 93). D ereduaren partaidetza oso txikia izan zen (% 7).

Lurralde Historikoen arabera, Araban eta Bizkaian A ereduak izan zuen presentziarik handiena (% 73 eta % 67, hurrenez hurren). B ereduak izan zen hurrengoa (% 18,6 eta % 20,8), eta, neurri txikiagoan, D ereduak (% 8,4 eta % 12,2). Aitzitik, Gipuzkoan homogeneoagoa izan zen banaketa, eta antzeko partaidetza izan zuten A ereduak (% 41,5) eta D ereduak (% 38,7); B ereduak ere izan zuen nolabaiteko presentzia (% 19,8).

Ondorioz, EAEko euskalduntze maila % 41,6koa izan zen, Nafarroakoa % 7koa eta, azkenik, Euskal Herrikoa % 34,8koa.

Batxilergoa

Azterketarekin jarraitzeko, Batxilergoko matrikulazioaren bilakaera aztertuko dugu orain. 2020/2021 ikasturtean 41.601 ikasle zenbatu ziren guztira, aurreko urtean baino % 4,0 gehiago (1.619 ikasle gehiago). Bi sareetan igo zen ikasle kopurua, baina irakaskuntza publikoan apur bat gehiago (% 4,3, eta pribatuan % 3,8). Halaber, informazioa sareen arabera banatuta, EAEn ikasleen banaketa berdina izan zela ikus daiteke (% 48,3 publikoan eta % 51,7 pribatuan), Nafarroan ez bezala. Foru Erkidegoan presentzia handiagoa izan zuen irakaskuntza publikoak, eta Batxilergoko 10 ikasletik 6 jaso zituen.

179. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Batxilergoa

Eremua	2019/ 2020 ikasturtea			2020/ 2021 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	2.410	2.393	4.803	2.646	2.428	5.074
Bizkaia	7.330	8.295	15.625	7.710	8.710	16.420
Gipuzkoa	5.180	5.572	10.752	5.412	5.763	11.175
EAE	14.920	16.260	31.180	15.768	16.901	32.669
Nafarroa	5.341	3.461	8.802	5.369	3.563	8.932
Euskal Herria	20.261	19.721	39.982	21.137	20.464	41.601

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Hori esanda, azterketak erakusten duenez, Araban nabarmen egin zuen gora Batxilergoko ikasle kopuruak azken ikasturtean (% 5,6), batez ere, matrikulazio publikoak izandako igoeraren ondorioz (% 9,8, eta pribatuak % 1,5). Era berean, ikastetxe publikoek jaso zuten ikasle gehien (% 52,1, eta pribatuak % 47,9). Bizkaian antzeko bilakaera izan zuten bi sareek (% 5 ingurukoa), eta sare pribatuak bildu zituen ikasle gehien (% 53). Gipuzkoan ere sare pribatuan matrikulatu ziren ikasle gehien (% 51,6), baina sare publikoak bilakaera hobea izan zuen (% 4,5ekoa, eta pribatuak % 3,4koa). Nafarroari dagokionez, ikastetxe publikoetan matrikulatu ziren ikasleen % 60,1, baina sare horretako matrikulazio kopurua ez zen apenas igo (% 0,5). Irakaskuntza pribatuan, ordea, % 2,9 igo zen matrikulazioa.

Hala, 2020/2021 ikasturtean 32.669 ikasle matrikulatu ziren EAEn Batxilergoan, aurreko ikasturtean baino 1.489 gehiago. Nafarroan, berriz, 8.932 ikasle matrikulatu ziren, 2019/2020 ikasturtean baino 130 gehiago.

180. koadroa Euskalduntze maila Batxilergoa

Eremua	2019/ 2020 ikasturtea					2020/ 2021 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	39,1	9,1	51,9	0,0	100	29,9	18,1	52,0	0,0	100
Bizkaia	33,5	4,4	60,6	1,5	100	31,6	4,9	61,9	1,6	100
Gipuzkoa	17,5	5,2	77,3	0,0	100	16,1	5,0	78,9	0,0	100
EAE	28,8	5,4	65,0	0,8	100	26,1	7,0	66,2	0,8	100
Nafarroa	3,9	0,0	25,8	70,3	100	3,8	0,0	25,6	70,6	100
Euskal Herria	23,3	4,2	56,4	16,1	100	21,3	5,5	57,5	15,8	100
Pribatua	33,7	7,4	42,9	16,0	100	33,2	7,6	43,0	16,2	100
Publikoa	13,3	1,0	69,5	16,1	100	9,8	3,4	71,4	15,4	100

Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Datuetan sakonduz eta euskalduntze-tasari dagokionez, beheragoko mailan bezalaxe, D ereduak nabarmendu zen EAEn eta X ereduak Nafarroan. Lurralde Historikoen arabera, Gipuzkoan % 78,9ko kuota eskuratu zuen D ereduak, eta distantzia handira kokatu zen pisu erlatibo handieneko bigarren ereduak, A ereduak (% 16,1). B ereduak osatu zuen

hizkuntza-mapa, % 5eko presentzia apalarekin. Bizkaian ere D ereduak gailendu zen (% 61,9), eta ikasleen herenak A ereduak hautatu zuten (% 31,6). Gainerako ereduak ordezkari oso txikia izan zuten (B ereduak % 4,9 eta X ereduak % 1,6). Araban ere D ereduak kokatu zen gainerakoen aurretik, ikasleen % 52arekin, eta A ereduaren (% 29,9) eta B ereduaren (% 18,1) balioetatik urrun. Bestetik, Nafarroan X ereduak jarraitu zuten ikasle gehien jasotzen (% 70,6), D ereduak izan zen hurrengoak % 25,6ko presentziarekin eta, azkenik, A ereduak, ordezkari oso txikiarekin (% 3,8).

Ondorioz, EAEko euskalduntze maila % 73,1ekoa izan zen, Nafarroakoa % 25,6koa eta Euskal Herrikoa % 62,9koa.

2.2 UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA

Arreta unibertsitateko matrikulazioaren bilakaeran jarrita, aurreko ikasturtean beharrezko bilakaera izan ostean, 2020/2021 ikasturtean berriro egin zuten gora ikasle kopuruak unibertsitate guztietan. Hala, Euskal Herrian 65.344 ikasle (% 1,9) matrikulatu ziren unibertsitateko hezkuntza-eskaintza osatzen duten bost unibertsitateetan. Horietatik hiru pribatuak dira: Nafarroako Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea. Beste biak, berriz, publikoak: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Datuak zehatzago aztertuko ditugu orain. EHUk –Euskal Herriko ikasleen erdiak baino gehiago jasotzen ditu (guztizkoaren % 53,7)– urte arteko gorakada txiki bat izan zuten matrikulazioan (% 0,1). Gainerako unibertsitateek hazkunde handiagoa izan zuten: % 2,5 Nafarroako Unibertsitateak (ikasleen % 13,7), % 3,5 Deustuko Unibertsitateak (% 13,4), % 4,6 Nafarroako Unibertsitate Publikoak (% 11,6) eta % 7,1 Mondragon Unibertsitateak (% 7,6). Lurren arabera, Bizkaia izan zen unibertsitate arloko erreferentziatzeko probintzia, ikasle guztien % 40,5 jaso baitzituen. Gipuzkoa (% 25,2) eta Nafarroa (% 23,7) izan ziren hurrengoak eta, azkenik, Araba (% 10,6).

181. koadroa Ikasleen eta irakasleen bilakaera Euskal Herriko unibertsitateetan

Unibertsitatea eta lurraldeak	Ikasleak		Irakasleak	
	19/ 20 ikasturtea	20/21 ikasturtea ^(*)	19/ 20 ikasturtea	20/21 ikasturtea ^(*)
Euskal Herriko Unibertsitatea	35.068	35.092	5.596	5.726
Araba	7.002	6.926	987	998
Bizkaia	19.267	19.479	3.220	3.295
Gipuzkoa	8.799	8.687	1.389	1.433
Nafarroako Unibertsitatea	8.705	8.924	1.033	1.057
Nafarroa	7.714	7.905	891	912
Gipuzkoa	991	1.019	142	145
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	7.237	7.567	966	1.001
Nafarroa	7.237	7.567	966	1.001
Deustuko Unibertsitatea	8.469	8.769	1.747	1.945
Bizkaia	6.771	6.983	1.453	1.639
Gipuzkoa	1.698	1.786	294	306
Mondragon Unibertsitatea	4.660	4.992	522	551
Gipuzkoa	4.660	4.992	522	551
Guztira	64.139	65.344	9.864	10.280
Araba	7.002	6.926	987	998
Bizkaia	26.038	26.462	4.673	4.934
Gipuzkoa	16.148	16.484	2.347	2.435
EAE	49.188	49.872	8.007	8.367
Nafarroa	14.951	15.472	1.857	1.913

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: EHU, Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta irakaskuntzaren estatistika.

Irakasle kopuruaren bilakaera ere positiboa izan zen. 2020/2021 ikasturtean % 4,2 hazi zen irakasle kopurua, hau da, aurreko ikasturtean baino 416 irakasle gehiago izan ziren: guztira, 10.280. Datuak unibertsitateen arabera banatuta, guztietan igo zen irakasle kopurua. Deustuko Unibertsitateko irakasleriaren bilakaera nabarmendu zen, aurreko ikasturtean baino 198 irakasle gehiagorekin (% 11,3) 1.747 irakasle izatetik 1.945 izatera pasatu baitzen. Euskal Herriko Unibertsitatean 5.726 irakasle izan zituzten, aurreko ikasturtean baino % 2,3 gehiago. Gainerako unibertsitateetan nabarmen igo zen irakasle kopurua. Mondragon Unibertsitateak aurreko ikasturtean baino 29 irakasle gehiago izan zituen, Nafarroako Unibertsitate Publikoak 35 gehiago eta, azkenik, Nafarroako Unibertsitateak 24 gehiago.

Jarraian, xeheago azalduko ditugu Euskal Herriko unibertsitateko ikasleen bilakaerari buruzko daturik esanguratsuenak, unibertsitate bakoitzaren bilakaera kontuan izanda.

182. koadroa Ikasleen banaketa UPV/EHU

Lurralde historikoa	19/ 20 ikasturtea	20/21 ikasturtea ^(*)	%	% Δ aurreko urtean
Araba	6.912	6.926	100,0	0,2
Farmazia Fakultatea	1.335	1.333	19,2	-0,1
Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea	2.119	2.131	30,8	0,6
Irakasleen UE	1.136	1.096	15,8	-3,5
Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	832	880	12,7	5,8
Gizarte Laneko UE	568	555	8,0	-2,3
Enpresa Zientzien UE	440	459	6,6	4,3
Jarduera Fiskoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea	482	472	6,8	-2,1
Bizkaia	19.560	19.479	100,0	-0,4
Zientziak eta Teknologia Fakultatea	2.616	2.636	13,5	0,8
Arte Ederren Fakultatea	1.210	1.191	6,1	-1,6
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	2.601	2.625	13,5	0,9
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	2.430	2.454	12,6	1,0
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	2.245	2.248	11,5	0,1
Industria Ingeniaritzako eta Telekomunikazioetako GET	1.761	1.705	8,8	-3,2
Enpresa Ikasketen UE	815	843	4,3	3,4
Erizaintzako UE (Leioa)	698	684	3,5	-2,0
Irakasleen UE	1.984	1.980	10,2	-0,2
Lan Harremanen E.	564	566	2,9	0,4
Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	1.622	1.588	8,2	-2,1
Meatzte Ingeniaritza Teknikoko UE	309	268	1,4	-13,3
Nautikako GET	188	192	1,0	2,1
Zuzenbide Fakultatea. Bizkaiko atala	517	499	2,6	-3,5
Gipuzkoa	8.596	8.687	100,0	1,1
Zientzia Kimikoen Fakultatea	313	329	3,8	5,1
Zuzenbide Fakultatea	847	839	9,7	-0,9
Informatika Fakultatea	607	627	7,2	3,3
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	958	1.011	11,6	5,5
Psikologia Fakultatea	1.108	1.097	12,6	-1,0
Arkitekturako GET	638	643	7,4	0,8
Enpresa Ikasketen UE	1.082	1.091	12,6	0,8
Irakasleen UE	1.128	1.113	12,8	-1,3
Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	276	297	3,4	7,6
Donostiako Unibertsitate Politekniko Erizaintzako UE	1.168	1.160	13,4	-0,7
471	480	5,5	1,9	
Guztira	35.068	35.092	100,0	0,1

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: UPV/EHU.

Ikasle gehien jasotzen dituen unibertsitatearekin hasiko dugu analisia, hau da, Euskal Herriko Unibertsitatearekin. 2020/2021 ikasturtean 35.092 ikasle jaso zituen, aurreko ikasturtean baino % 0,1 gehiago edo, beste era batera esanda, 2019/2020 ikasturtean baino 24 ikasle gehiago.

Bizkaiko campusak jasotzen ditu EHUen matrikulatutako ikasleen % 55,5. 2020/2021 ikasturtean % 0,4 ikasle gutxiago jaso zituen, hau da, 81 ikasle gutxiago. Gipuzkoako campusean, % 24,8ko pisu erlatiboa izanik, % 1,1 hazi zen ikasle kopurua (91 ikasle gehiago). Arabako campusean, berriz, campusik txikienean (% 19,7), ikasle kopuruak gora egin zuen apur bat (% 0,2). Halaber, fakultateen artean portaera ezberdinak hauteman ziren, eta ikur zein intentsitate ezberdineko bilakaerak izan zituzten.

Bizkaitik hasita, hura baita UPV/EHUren erreferentziazko campusa, eskaintza osatzen duten 14 fakultateetatik 7tan behera egin zuen matrikula kopuruak. Aurreko ikasturteetan bezala, jaitsiera handiena Meatze Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolak izan zuen (-% 13,3). Ikasleen % 1,4 jaso zituen. Zuzenbide Fakultateko (-% 3,5), Industria Ingeniaritza eta Telekomunikazioen GETeko (-% 3,2), Industria Ingeniaritza Teknikoko UEko (-% 2,1) eta Erizaintzako UEko (-% 2) matrikulazioek ere behera egin zuten, baina neurri txikiagoan. % 2,6, % 8,8, % 8,2 eta % 3,5eko partaidetzak izan zituzten, hurrenez hurren. Era berean, jaitsiera apala izan zuen Arte Ederren Fakultateko (ikasleen % 6,1) eta Irakasleen UEko (% 10,2) matrikula kopuruak (-% 1,6 eta -% 0,2, hurrenez hurren). Aitzitik, 7 fakultatek bilakaera positiboa izan zuten. Horien artean, Enpresa Zientzien UE nabarmendu zen, hark izan baitzuen urte arteko aldakuntzarik onena (% 3,4, eta % 4,3ko pisu erlatiboa). Gainerakoek kasuan gutxi igo zen matrikulazio kopurua. Hala, fakultate hauek % 0,1 eta % 1 arteko hazkundeak izan zituzten: Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (% 13,5eko partaidetza), Zientzia eta Teknologia Fakultatea (% 13,5), Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea (% 12,6), Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (% 11,5) eta Lan Harremanen Eskola (% 2,9).

Gipuzkoako campusari dagokionez, 11 fakultateetatik 7tan hazi zen matrikulazioa. Hala, fakultate guztiak kontuan hartuta, hazkundea % 1,1ekoa izan zen. Hauek nabarmendu ziren, izandako hazkundearengatik: Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE (% 7,6), Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (% 5,5) eta Zientzia Kimikoen Fakultatea (% 5,1). Hurrenez hurren, honako pisu espezifikoa izan zituzten: % 3,4, % 11,6 eta % 3,8. Enpresa Zientzien UEk, Gipuzkoako unibertsitate-ikasleen % 12,6 jasota, hazkunde txiki bat izan zuen (% 0,8). Bilakaera berbera izan zuen Arkitektura GETak, haren ekarpena askoz txikiagoa izanik (% 7,4). Aldi berean, % 3,3 eta % 1,9 hazi ziren Informatika Fakultateko eta Erizaintzako UEko matrikulazioak (% 7,2 eta % 5,5eko pisu erlatiboak). Bestalde, honakoek bilakaera negatiboa izan zuten: Donostiako Unibertsitate Politeknikoa (-% 0,7), Irakasleen UE (-% 1,3) eta Psikologia Fakultatea (-% 1); hiru horiek jaso zituzten ikasleen % 12-% 13 artean. Zuzenbide Fakultateak ere beheranzko bilakaera izan zuen: matrikuluen ia hamarren bat jaso zuen (% 9,7), aurreko ikasturtean baino % 0,9 gutxiago.

Azkenik, Arabako campusari dagokionez, Industria Ingeniaritza Teknikoko UEren (% 5,8) eta Enpresa Zientzien UEren (% 4,3) matrikulazioetan izandako igoerak nabarmendu ziren, eta Filologia, Geografia eta Historia Fakultatean % 0,6 igo ziren matrikulazioak. Hiru horien

artean jaso zituzten Arabako ikasleen ia erdiak. Beste muturrean kokatu ziren pisu erlatiborik handienetakoa duten bi fakultate, Irakasleen UE (% 15,8) eta Farmazia Fakultatea (% 19,2), % 3,5 eta % 0,1 murriztu baitzen haien ikasle kopurua, hurrenez hurren. Behera egin zuten Gizarte Laneko UEk (-% 2,3) eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateak (-% 2,1) ere, biak partaidetza txikiagoarekin (% 8 eta % 6,8, hurrenez hurren).

Nafarroako Unibertsitateko datuei dagokienez, 2020/2021 ikasturtean 8.924 matrikulatu ziren Nafarroako eta Gipuzkoako campusetan. Bi lurraldeetan goranzkoa izan zen matrikulazioen bilakaera.

183. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean

Lurralde historikoa	19/ 20 ikasturtea	20/21 ikasturtea ⁽¹⁾	%	% Δ aurreko urtean
Nafarroa	7.714	7.905	100,0	2,5
Zuzenbidea	734	781	9,9	6,4
Medikuntza	1.217	1.216	15,4	-0,1
Filosofia eta Letrak	403	439	5,6	8,9
Komunikazioa	886	902	11,4	1,8
Hezkuntza eta Psikologia	633	647	8,2	2,2
Zientziak	632	649	8,2	2,7
Farmazia eta Nutrizioa	695	697	8,8	0,3
Arkitektura	495	502	6,4	1,4
Teologia	161	145	1,8	-9,9
Ekonomia eta Enpresa Zientziak	1.161	1.207	15,3	4,0
Idazkaritza eta Administrazioa	182	195	2,5	7,1
Erizaintza	515	525	6,6	1,9
Gipuzkoa	991	1.019	100,0	2,8
Industria Ingeniaritza	991	1.019	100,0	2,8
Guztira ⁽²⁾	8.705	8.924	100,0	2,5

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Horiez gain, doktoregoko 1.060 ikasle eta masterreko 732 ikasle daude Nafarroan eta Gipuzkoan.

Iturria: Nafarroako Unibertsitatea.

Hala, campus handienarekin hasiko gara, Nafarroakoarekin (ikasleen % 88,6). 2020/2021 ikasturtean 7.905 ikasle jaso zituen, aurrekoan baino 191 gehiago (% 2,5eko urte arteko aldakuntza). Nafarroako campuseko ia fakultate guztietan egin zuen gora matrikulazioak; bi fakultatetan baino ez zuten beheranzko bilakaera izan.

Zehatzago esanda, goranzko bilakaera izan zuten fakultateen artean, hauek nabarmendu ziren, haien pisu espezifikoarengatik: Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea, % 15,3ko partaidetzarekin eta % 4,0ko matrikulazio-igoerarekin; Komunikazio Fakultatea, % 11,4ko partaidetzarekin eta % 1,8ko hazkundearekin; eta Zuzenbide Fakultatea, guztizkoaren gaineko % 9,9ko ekarpenarekin eta % 6,4ko hazkundearekin. Dena den, hauek izan zituzten urte arteko aldakuntzarik handienak: Filosofia eta Letren Fakultatea eta Administrazio Fakultatea (% 8,9 eta % 7,1eko hazkundera, hurrenez hurren). Bi horiek jaso zuten ikasleen bolumena, halere, txikiagoa izan zen (% 5,6 eta % 2,5, hurrenez hurren).

Zientzia Fakultatean (ikasleen % 8,2), Hezkuntza eta Psikologia Fakultatean (% 8,2), Erizaintza Fakultatean (% 6,6) eta Arkitektura Fakultatean (% 6,4) ere igo egin zen matrikulazio kopurua, baina gutxiago, % 1,4 eta % 2,7 artean. Aitzitik, Teologia Fakultatean berriro ere murriztu egin zen ikasle kopurua (-% 9,9, eta ikasleen % 1,8 jaso zituen). Bestalde, matrikulazioa ez zen apenas mugitu Farmazia eta Nutrizio Fakultatean (% 0,3; guztizkoaren % 8,8) eta Medikuntza Fakultatean (-% 0,1). Hain zuzen ere, Medikuntza Fakultateak jaso zituen Iruñeko campuseko ikasle gehien (% 15,4).

Gipuzkoan kokatutako campusean Ingeniaritza Eskola baino ez dago (Idazkaritza eta Administrazio Gradua Iruñera pasatu zuten), eta 2020/2021 ikasturtean 28 ikasle gehiago matrikulatu ziren bertan (% 2,8ko hazkundea). Hala, 1.019 ikasle jaso zituen guztira.

184. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (UPNA)

Fakultateak eta Unibertsitate Eskolak	19/20 ikasturtea	20/21 ikasturtea ⁽¹⁾	%	% Δ aurreko urtean
Nekazaritza Ingeniaritza GET	579	637	8,4	10,0
Industria Ingeniaritza eta Telekomunikazioen GET	1.965	2.050	27,1	4,3
Osasun Zientzien Fakultatea	784	912	12,1	16,3
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	1.168	1.157	15,3	-0,9
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea	1.864	1.926	25,5	3,3
Zientzia Juridikoen Fakultatea	636	638	8,4	0,3
Ekonomia eta Enpresa Zientzien/Zientzia Juridikoen Fakultatea ⁽²⁾	229	229	3,0	0,0
Nekazaritza Ingeniaritza/Ekonomia eta Enpresa zientzien GET ⁽³⁾	10	18	0,2	80,0
Guztira ⁽⁴⁾	7.235	7.567	100,0	4,6

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzaren eta Zuzenbidearen Gradu Bikoitzean matrikulatutako ikasleak jasotzen ditu.

(3): Datuen Zientzien eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzaren Gradu Bikoitzeko ikasleak jasotzen ditu.

(4): Horiez gain, masterreko 851 ikasle eta doktoregoko 423 ikasle daude Nafarroan.

Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Azterketa Nafarroako Unibertsitate Publikora (UPNA) ekarrita, 2020/2021ean % 4,6 hazi zen matrikula kopurua, eta 7.567 ikaslera iritsi ziren (aurreko ikasturtean baino 332 gehiago). Fakultate guztietan ugaritu ziren ikasleak, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean izan ezik (ikasleen % 15,3 jaso zuen); matrikulazioak apur bat jaitsi ziren azken horretan (-% 0,9). Hala, eta fakultate bakoitzaren pisu espezifikoak kontuan hartuta, honakoen hazkundeak nabarmendu ziren: Industria Ingeniaritza, Informatika eta Telekomunikazioen GET (% 4,3) eta Giza eta Gizarte Zientzien eta Hezkuntzaren Fakultatea (% 3,3). Bi horien artean UPNAko ikasleen erdiak baino gehiago hartu zituzten (% 27,1 eta % 25,5, hurrenez hurren). Distantzia apur batera, Osasun Zientzien Fakultatea kokatu zen, % 12,1eko pisu espezifikoarekin eta urte arteko aldakuntza positiboarekin (% 16,3). Bestetik, Nekazaritzako Ingeniaritzako eta Biozientzietako GETak ikasleen % 10,0ko hazkunde nabarmena izan zuen, eta Zientzia Juridikoen Fakultatean % 0,3 baino ez zen igo ikasle kopurua (biak % 8,4ko partaidetzarekin). Honakoek osatu zuten UPNAren

eskaintza: Ekonomia eta Enpresa Zientzien eta Zientzia Juridikoen Fakultatea, % 3ko partaidetzarekin eta aurreko ikasturteko ikasle kopuru berarekin; eta Nekazaritzako Ingeniaritzako eta Biozientzietako GET/Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea, non 18 ikasle izan zituzten fakultatearen ibilbideko bigarren urtean, aurreko ikasturtean baino 8 gehiago.

185. koadroa Ikasleen banaketa Deustuko Unibertsitatean

Lurralde historikoa	19/20 ikasturtea	20/21 ikasturtea ⁽¹⁾	%	% Δ aurreko urtean
Bizkaia	6.771	6.983	100,0	3,1
Zuzenbide Fakultatea	923	956	13,7	3,6
Teologia Fakultatea	118	97	1,4	-17,8
Ingeniaritza Fakultatea	933	1.067	15,4	14,4
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea	1.458	1.410	20,2	-3,3
Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea	1.712	1.795	25,7	4,8
EUMBAM (DUri atxikitako zentroa)	714	747	10,7	4,6
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	913	911	13,0	-0,2
Gipuzkoa	1.698	1.786	100,0	5,2
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea	608	584	32,7	-3,9
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	752	757	42,4	0,7
Zuzenbide Fakultatea	68	61	3,4	-9,0
Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea	271	384	21,5	41,7
Guztira ⁽²⁾	8.469	8.769	100,0	3,5

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Horiez gain, doktoregoko 373 ikasle eta masterreko 1.164 ikasle daude.

Iturria: Deustuko Unibertsitatea

Deustuko Unibertsitateari dagokionez, aurreko ikasturtean ez bezala, 2020/2021 ikasturtean % 3,5 hazi zen ikasle kopurua. Hala, 8.769 ikasle matrikulatu ziren (aurreko ikasturtean baino 300 gehiago).

Bizkaiko campusak ikasleen % 80 inguru hartu zituen, eta matrikulak % 3,1 hazi ziren. Bizkaiko eskaintza osatzen duten 7 fakultatetik 4tan egin zuen gora matrikulazioak. Hala, Ingeniaritza Fakultatean asko igo zen ikasle kopurua (% 14,4), eta % 15,4ko partaidetza izan zuen. Joera bera izan zuten hauek, baina neurri txikiagoan: Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea (% 4,8ko hazkundea eta % 25,7ko pisu erlatiboa), EUMBAM (% 4,6 eta % 10,7, hurrenez hurren) eta Zuzenbide Fakultatea (%3,6 eta % 13,7ko pisu espezifikoak). Aitzitik, Teologia Fakultateak izan zuen ikasle kopuruaren jaitsierarik handiena (-% 17,8), eta Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatearen jaitsiera askoz ere apalagoa izan zen (-% 3,3, eta % 20,2ko partaidetza). Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak (% 13ko ordezkaritza) izandako murrizketa, berriz, ia hautemanezina izan zen (2 ikasle gutxiago).

Gipuzkoako campusari dagokionez, matrikulazioak goranzko bilakaera izan zuen (% 5,2), eta 1.786 ikasle jaso zituen 2020/2021 ikasturtean. Hazkundeei erreparatuta, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak izan zuen ordezkaritzarik handiena (% 42,4) eta gora egin zuen, baina hamarren batzuk besterik ez (% 0,7). Psikologia eta Hezkuntza

Fakultatearen hazkundera, berriz, nabarmena izan zen (% 41,7, eta % 21,5eko partaidetza). Aitzitik, Zuzenbide Fakultatean (% 3,4ko ordezkartza) eta Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatean (Gipuzkoako ikasleen heren bat jaso zuten) jaitsi egin zen matrikulazioa (-% 9 eta -% 3,9, hurrenez hurren).

186. koadroa Ikasleen banaketa Mondragon Unibertsitatean

Fakultateak eta Unibertsitate Eskolak	19/20 ikasturtea	20/21 ikasturtea ⁽¹⁾	%	% Δ aurreko urtean
Goi Eskola Politeknikoa	1.674	1.836	100,0	9,7
Industria Antolaketako Ingeniaritza Gradua	185	209	11,4	13,0
Industria Elektronikoko Ingeniaritza Gradua	179	202	11,0	12,8
Informatikako Ingeniaritza Gradua	178	187	10,2	5,1
Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritza Gradua	21	14	0,8	-33,3
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	391	423	23,0	8,2
Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Gradua	264	283	15,4	7,2
Energiaren Ingeniaritza	107	102	5,6	-4,7
Ingeniaritza Mekatronikoa	117	170	9,3	45,3
Prozesu Industrialetako Ekoteknologiaren Ingeniaritza	74	94	5,1	27,0
Ingeniaritza Biomedikoa	158	152	8,3	-3,8
Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	1.146	1.166	100,0	1,7
Haur Hezkuntza Gradua	335	327	28,0	-2,4
Lehen Hezkuntza Gradua	616	650	55,7	5,5
Ikus-entzunezko Komunikazio Gradua	195	189	16,2	-3,1
Enpresa Zientzien Fakultatea	1.430	1.606	100,0	12,3
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua	460	495	30,8	7,6
Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua	928	1.028	64,0	10,8
Business Data Analytics Gradua	42	83	5,2	97,6
Gastronomia Zientzien Fakultatea	410	384	100,0	-6,3
Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak	410	384	100,0	-6,3
Guztira ⁽²⁾	4.660	4.992	100,0	7,1

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Horiez gain, masterreko 753 ikasle daude.

Iturria: Mondragon Unibertsitatea

Amaitzeko, Mondragon Unibertsitatean nabarmen igo zen ikasleen kopurua (% 7,1) 2020/2021 ikasturtean; hala, aurreko ikasturtean baino 332 ikasle gehiago matrikulatu ziren bertan, eta 4.992 ikasle izan ziren guztira.

Goi Eskola Politeknikoarekin hasita, eskaini zituen hamar gradutik hiruk baino ez zuten beharrezko bilakaera izan. Bilakaerarik onena izan zuten graduekin hasiko gara: Ingeniaritza Mekatronikoko Gradua (% 45,3ko hazkundera) eta Prozesu Industrialetako Ekoteknologiaren Ingeniaritza Gradua (% 27); % 9,3 eta % 5,1eko partaidetza izan zuten, hurrenez hurren. Industria Antolaketako Ingeniaritza Graduak eta Industria Elektronikoko Ingeniaritza Graduak antzeko pisu espezifikoak izan zuten (ia % 11), eta bilakaera ere antzekoa izan zuten (% 13 eta % 12,8). Ingeniaritza Mekanikoko Graduak (% 8,2), Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Graduak (% 7,2) eta Ingeniaritza Informatikoko Graduak (% 5,1) ere bilakaera positiboarekin amaitu zuten ikasturtea; hiru

horien artean Eskolako ikasleen ia erdia jaso zuten. Aitzitik, Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritza Graduan (% 0,8ko partaidetza), Energiaren Ingeniaritza Graduan (% 5,6) eta Ingeniaritza Biomedikoko Graduan (% 8,3) murriztu egin zen ikasle kopurua, neurri ezberdinetan (-% 33,3, -% 4,7 eta -% 3,8, hurrenez hurren). Dena den, jaitsiera horiek ez ziren nahikoa izan gainerako graduen bilakaera positiboa indargabetzeko.

Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultateari dagokionez, 1.166 ikasle jaso zituen eta matrikulazioak gora egin zuen (% 1,7), Lehen Hezkuntza Graduan izandako igoeraren eraginez; izan ere, % 5,5 hazi zen ikasleen erdiak hartzen dituen gradu horren matrikulazioa. Bestalde, Haur Hezkuntza Graduan (% 28) eta Ikus-entzunezko Komunikazio Graduan (% 16,2) % 3,1 eta % 2,4 murriztu zen ikasle kopurua, hurrenez hurren.

Enpresa Zientzien Fakultatean 1.606 ikasle matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino % 12,3 gehiago. Hortaz, oso bilakaera positiboa izan zuen, eta fakultateko gradu guztietan igo zen ikasle kopurua. Hala, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduak jaso zituen 10 ikasletik 6, eta % 10,8 igo zen matrikulazioa. Bilakaera bera izan zuen Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Graduak, % 7,6 hazi baitzen haren matrikulazioa (% 30,8ko partaidetza). Horiei Business Data Analytics Gradua gehitu behar zaie (% 97,6ko hazkundea eta % 5,2ko ordezkaritza), aurreko ikasturtean martxan jarri zutena.

Azkenik, Gastronomia Zientzien Fakultatean titulazio bakarra eskaini zuten, Gastronomia eta Sukaldaritza Arteen Gradua, eta haren matrikulazioak behera egin zuen (-% 6,3). Hala, 384ra jaitsi zen ikasle kopurua, eta gainerako graduetatik aldendu zen.

3. GARRAIOA

3.1 TRENBIDE BIDEZKO GARRAIOA

2020a ez zen ohiko ekitaldia izan, eta mugikortasunaren gaineko murrizketek ondorio garrantzitsuak izan zituzten garraioan, logikoa den moduan, pertsonen mugimendu-askatasunean oinarritzen baita jarduera. Dena den, aireko, treneko, errepideko edo itsasoko bidaiarien garraioa erori egin zen arren, merkantzien garraioaren bilakaera ez zen hain txarra izan, oinarritzko zerbitzutzat hartu baitzuten.

Garraioari buruzko kapitulua trenbide bidezko garraioarekin hasita, 2020an nabarmen jaitsi zen bidaiari kopurua, eta eten egin zen sektoreak azken urteetan izandako hazkunde jarraitua. Hala, EAEko trenbide-sarea osatzen duten erreferentziatzko bi enpresen –Renfe eta EuskoTren– balantzea 26.795 mila bidaiarikoa izan zen (2019an baino % 33,5 gutxiago).

187. koadroa Bidaiarien mugimendua*

Urtea	Bidaiariak (m)	%Δ
2016	31.959	-0,5
2017	35.483	11,0
2018	38.798	9,3
2019	40.288	3,8
2020	26.795	-33,5

(*): Renferen datuak Bilboko eta Donostiako aldirietako bidaiarien zifrari dagozkio.

Iturria: Renfe eta EuskoTren.

Datuetan sakonduta eta enpresa bakoitzaren bilakaerari erreparatuta, espero moduan, bidaiarien fluxua asko murriztu zela egiazta daiteke, Euskotrenen zein Renfen.

188. koadroa Bidaiarien mugimendua konpainien arabera

Kontzeptua	2018	2019	2020	%Δ 20/19
Renfe-Bilboko sarea	10.429	10.574	6.572	-37,8
Renfe-Donostiako sarea	5.886	5.858	4.095	-30,1
EuskoTren	22.484	23.857	16.128	-32,4
Guztira	38.798	40.288	26.795	-33,5

Iturria: Renfe eta EuskoTren.

Datuak enpresen arabera banatuta, Euskotrenek erabiltzaileen heren bat galdu zuen (-% 32,4), baina Euskal Herriko erreferentziatzko enpresa operatzailea izaten jarraitu zuen, bidaiarien % 60,2 jaso baitzituen. Hala, 2020an 16,1 miloi bidaiari izan zituen lan egiten duen bi lurraldeetan, Bizkaian (7,1 milioi) eta Gipuzkoan (9 milioi). Bizkaian, 3. linean (Kukullaga-Matiko) % 33,7 murriztu ziren bidaiariak, baina bidaiari gehien jaso zuen ibilbidea izan zen halere (3,5 milioi), hau da, desplazamenduen ia erdia (% 49,5). Gipuzkoako

sarean Lasarte-Hendaia linea kokatu zen lehen postuan; 5,1 bidaiari izan zituen Hendaia eta Donostia arteko tartean (urte arteko -% 31,2ko aldakuntza), eta 0,7 milioi Donostia eta Lasarte artean (-% 25,4).

Trenbide bidezko garraioari buruzko informazioaz harago, Euskotrenen tren-zerbitzuek 4.429.011 bidaiari zenbatu zituzten Gasteizen eta 1.503.114 Bilbon. Zifra horiek 2019koen erdiak dira, gutxi gorabehera.

Azterketa Renfera mugatuta, 2020an nabarmen murriztu ziren bidaiariak euskal sarea osatzen duten aldirietako bi lineatan, hau da, Bilboko Sarean eta Donostiako Sarean. Hala, Bizkaiko hiriburuko aldirietako sarean nabarmen egin zuten behera bidaiariek (-% 37,8), eta 6,6 milioi erabiltzaile erregistratu zituzten. Antzeko emaitza eskuratu zuten Gipuzkoako hiriburuan (-% 30,1), guztira 4,1 milioi bidaiarirekin. Guztira, Renfeko erabiltzaile kopurua 10,7 milioira jaitsi zen, 2019ko balioa baino % 35,1 baxuagoa eskuratuta.

189. koadroa Bidaiarien garraioagatiko diru-bilketa

Kontzeptua	(m euro)			
	2018	2019	2020	%Δ 20/19
Renfe*	15.322,7	14.934,8	5.124,9	-65,7
EuskoTren**	32.074,4	33.514,9	20.232,6	-39,6
Guztira	47.397,1	48.449,7	25.357,5	-47,7

(*): Renferen datuak aldirietako bidaiariak bakarrik dagozkie.

(**): Trenaren zein tranbia eta autobusen diru-bilketa hartzen ditu barne. BEZik gabeko datuak.

Iturria: Renfe eta EuskoTren.

Aurrez esandakoaren ildotik, bi tren-konpainien diru-bilketa nabarmen jaitsi zen (-% 47,7), eta 25.375,5 mila euro bildu zituzten guztira. Bi konpainiek izan zuten beheranzko bilakaera: % 39,6 murriztu zen Euskotrenen diru-bilketa, eta % 65,7 Renferena. Hala, euskal enpresak 20,2 milioi euro bildu zituen 2020an, eta Estatuko enpresak 5,1 milioi euro.

190. koadroa Jatorria eta/edo helmuga Euskal Herrian duten merkantzien bolumena(*)

Kontzeptua	(m Tm)			
	2018	2019	2020	%Δ 20/19
Renfe	2.082,9	1.781,3	1.946,5	9,3
EuskoTren	12,5	5,5	3,7	-33,1
Guztira	2.095,5	1.786,8	1.950,2	9,1

(*): Edukiontzia salbu.

Iturria: Renfe eta EuskoTren.

Jatorria eta/edo helmuga Euskal Herrian duten merkantzien-garraioari dagokionez, kontrako joerak izan zituzten konpainiek. Dena den, oro har, jarduerak gora egin zuen (% 9,1). Renferen bilakaera onak eragin zuen igoera hori. Merkantzien trafikoa osoa (guztizkoaren % 99,8) haren gain hartu zuen Renfek, eta ia 2.000 mila tona garraiatu zituen,

aurreko urtean baino % 9,3 gehiago. Euskotrenen ordezkari oso txikia izan zen (% 0,2), eta 3,7 mila tona garraiatu zituen, aurreko urtean baino % 33,1 gutxiago.

191. koadroa Trenbide bidezko garraioan enplegatutako langileak

Kontzeptua	2018	2019	2020	%Δ 20/19
Renfe	645	641	612	-4,5
EuskoTren	1.151	1.164	1.150	-1,2
Guztira	1.796	1.805	1.762	-2,4

Iturria: Renfe eta EuskoTren.

Trenbide bidezko garraioan enplegatutako langileei dagokienez, 2020an murriztu egin zen adierazle hori erreferentziazko bi konpainietan. Hala, Euskotrenenak izan ziren 10 lanpostutik 6; 14 lanpostu galdu zituen eta 1.150 pertsonako plantilla izan zuen. Renfek, berriz, 29 lanpostu galdu zituen eta 612 langilera murriztu zen haren plantilla.

Azkenik, "Euskal Y" sarearen azpiegiturei dagozkien inbertsioen gaineko jarduera nagusiak azalduko ditugu jarraian. Osasun-krisiaren agerpenak eta haren ondorioz funtsezkoak ez ziren jarduerak gelditu izanak eten egin zituzten ia 20 urteko lanak. 2026aren amaierarako edo 2027aren hasierarako amaitzea aurreikusten dute. Gainera, posible da gastu publikoaren partidak berriro esleitu behar izatea, "ezusteko" berri honek eragindako aurrekontu-behar berriei aurre egiteko. Dena den, Eusko Jaurlaritzaren arabera, erritmo onean ari dira lanean Hernani-Astigarraga tartean, Atotxako geltoki berriko jardueretan, Astigarragako geralekuan edota Bergarako korapiloan. Abiadura handiko trena lur azpian sartzeko lanek, ordea, atzeratuta jarraitzen dute Gasteizen eta Bilbon. Arabako hiriburuaren kasuan, azkenean berriro ekin ahal izan zieten lurperatutako sarrerako lanei eta Arkauteko korapiloko lanei; azken hori ingurumen-izapideen fasean zegoen. Bizkaiko hiriburuak ziurgabetasun handiari egin behar dio aurre, lanen hasiera behin eta berriz atzeratu baitute eta finantza-baliabideak ez baitira nahikoak.

Bilboko Metroa

Mugikortasunaren gaineko murrizketek erabat baldintzatu zuten 2020a eta, guztira, 55.987.465 bidaiari jaso zituen Bilboko Metroak, aurreko urtean baino % 38,9 gutxiago (2019an 91.570.001; 2020an 35.583 bidaiari gutxiago).

192. koadroa Bidaiarien mugimendua Bilboko Metroan

Urtea	Bidaiariak (m)	%Δ
2011	89.616	1,2
2012	87.615	-2,2
2013	87.133	-0,6
2014	87.397	0,3
2015	87.536	0,2
2016	87.105	-0,5
2017	88.172	1,2
2018	89.936	2,0
2019	91.570	1,8
2020	55.987	-38,9

Iturria: Bilboko Metroa.

Zalantzarik gabe, erabiltzaileen portaera-aldaketak (badaezpada ere, nahiago zuten garraio publikoa saihestu), etxeko konfinamenduak, kultur-ekitaldi eta jai-giroko ekitaldi ia guztiak bertan behera utzi izanak eta abarrek, bidaiari kopurua asko jaitea eragin zuten. Adierazle horrek zifra errekorrak eskuratu zituen aurreko urteetan. Hala, aurreko urteetan bidaiarien mugimendu handia sortzen zuten "Black Friday"-ren gisako gertakaririk edo San Tomas eguneko ospakizunik ez egoteak eta metroa egunero erabiltzen zuten erabiltzaileen kopurua erabat jaisteak aurrekaririk gabeko galera eragin zuten.

Bilboko Metroaren sarea osatzen duten 42 geltokietan erregistratutako bidaiarien mugimenduari dagokionez, Enbor Komunean 16.187.355 bidaia zenbatu ziren, aurreko urtean baino % 41,7 gutxiago. Zazpikaleak/Cascoviejo geltokian 4.257.786 bidaia baliozkotu zituzten, aurreko urtean baino % 41 gutxiago. Hala ere, bidaiari kopuru handiena jaso zuen geltokia izan zen. Antzeko bilakaera izan zuten bidaiarien mugimendu handiena jaso zuten hurrengo bi geltokiek ere, Indautxuk (-% 38,4) eta Moyuak (-% 43), 2.057.405 eta 1.803.305 baliozkotzerekin, hurrenez hurren. Era berean, 1. lineak (Etxebarri-Plentzia) eta 2. lineak (Basauri-Kabiezes) ere jaitsierak izan zituzten, % 36,1 eta % 64,1 artekoak. Jatorria eta helmuga Areetan-Algortan (288.699) eta Barakaldo-Gurutzetan (284.069) zuten tarteek jaso zituzten bidaiari gehien.

Bidaiatzeko bitartekoen erabilerari dagokionez, Bilboko Metroan Creditransek jarraitu zuen aukera zabalduena izaten (% 50) eta, gainera, gora egin zuen (% 5,5). Aldi baterako txartelek izan zuten bigarren pisu erlatiborik handiena (% 25), eta horien erabilerak ere gora egin zuen, baina maila apalagoan (% 3,1). Gizatransek, berriz, % 11,5eko presentziarekin, erabiltzaileak galdu zituen (-% 14,6). Urteko txartelek eta aldizkakoek osatu zuten eskaintza, oso partaidetza txikiarekin: bidaiarien % 4,6k eta % 1,7k aukeratu zituzten modalitate horiek, hurrenez hurren.

3.2 ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA

Arreta errepide bidezko garraioan jarrita eta ibilgailuen parkearekin hasita, Trafiko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) emandako datuen arabera, Estatuko ibilgailuen parkeak 34.768.347 unitate zituen 2020an, aurreko urtean baino % 1 gehiago (330.785 unitate gehiago). Euskal Herrian antzekoa izan zen bilakaera (% 0,9), eta aurreko ekitaldian baino 17.732 unitate gehiago izan ziren. Hala, 1.870.838 ibilgailuk osatu zuten ibilgailuen parkea 2020an.

Informazioa lurraldeka banatuta, 2020an aztertutako eremu guztietan hazi zen parke mugikorra, gutxi izan arren. Hala, Bizkaian (% 37,3ko ordezkartza) % 0,8 hazi zen ibilgailu kopurua. Hazkunde bera izan zuen Gipuzkoak, baina % 25 inguruko partaidetzarekin. Gipuzkoaren pisu espezifiko ia bera du Nafarroak, eta lurralde horretan handiagoa izan zen hazkundea (% 1,3). Azkenik, Arabak du ordezkartzarik baxuena (% 11,6) eta bertako ibilgailuen parkeak hazkunde txikia izan zuen (% 0,7). Hala, Euskal Herriak % 5,4ko partaidetza izan zuen Estatuko ibilgailuen parkean, aurreko ekitaldiko berbera.

Ibilgailuen parkeen zahartzeari dagokionez, aurreko ekitaldietako goranzko joerarekin jarraituz, Estatuko parke mugikorraren batez besteko adina 13,2 urtekoa izan zen, Euskal Herriko parkearena (12,5 urte) baino apur bat altuagoa. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzak Renove plan berria jarri du martxan 2021ean eta 5 milioi euro bideratu ditu plan horretara. 10 urtetik gorako ibilgailuak ordezkatzeari da helburua, flota eraginkorragoa izateko, gutxiagoko kontsumituko duena eta isurpen gutxiago sortuko dituen.

Ibilgailu motari dagokionez, aldaketa gutxi izan zituen parke mugikorraren osaerak. Estatuko datuekin hasita, turismoak mantendu ziren lehen postuan; mota horretakoak izan ziren 10 ibilgailutik 7, eta zertxobait hazi zen haien kopurua, aurreko ekitaldiarekin alderatuta (% 0,6). Kamioiak izan ziren hurrengoak, % 14,5eko pisu erlatiboarekin eta goranzko bilakaera apalarekin (% 0,3). Ondoren motozikletak, ia % 5eko kuotarekin eta urte arteko aldakuntzarik onenarekin (% 3,6). Azkenik, traktoreek eta autobusek oso ordezkartza txikia izan zuten (% 0,7 eta % 0,2, hurrenez hurren), eta zeinu ezberdineko bilakaerak izan zituzten: traktoreek gora egin zuten (% 1,2), eta autobusek behera (-% 3,1).

Euskal Herriari dagokionez, Bizkaia kokatu zen buruan aztertutako bost kategorietatik hirutan: kamioiak (guztizkoaren % 33,9), autobusak (% 49,6) eta turismoak (% 38,8). Gipuzkoa, berriz, motozikleta gehien zituen lurraldea izan zen (% 36), eta Nafarroa traktore industrial gehien zituen lurraldea (% 36,4). Parkearen bilakaerak urte arteko aldakuntza oso heterogeneoak izan zituen. Ekitaldia balantze negatiboarekin amaitu zuten traktore industrialek (-% 0,5), kamioiek (-% 0,4) eta autobusek (-% 0,1). Ugaritu egin ziren, ordea, automobilak (% 0,8) eta, batez ere, motozikletak (% 3,7).

193. koadroa Ibilgailuen parkea*

(unitate)

Eremua	Kamioiak ⁽¹⁾		Autobusak		Turismoak		Motozikletak		Traktore industrialak		Beste batzuk ⁽²⁾		Guztira	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020
Araba	28.848	28.762	532	481	159.032	159.840	16.438	17.006	1.421	1.482	8.468	8.709	214.739	216.280
Bizkaia	85.235	85.240	2.120	2.200	523.089	525.921	57.599	59.949	3.488	3.377	20.102	20.569	691.633	697.256
Gipuzkoa	61.713	61.025	969	944	329.815	332.331	62.695	64.648	3.363	3.289	18.157	18.593	476.712	480.830
EAE	175.796	175.027	3.621	3.625	1.011.936	1.018.092	136.732	141.603	8.272	8.148	46.727	47.871	1.383.084	1.394.366
Nafarroa	76.530	76.249	822	813	331.837	336.139	36.620	38.106	4.592	4.656	19.981	20.509	470.382	476.472
Euskal Herria	252.326	251.276	4.443	4.438	1.343.773	1.354.231	173.352	179.709	12.864	12.804	66.708	68.380	1.853.466	1.870.838
Espainia	5.018.134	5.033.212	65.473	63.414	24.558.839	24.717.557	3.607.174	3.736.030	232.825	235.721	955.117	982.413	34.437.562	34.768.347
Euskal Herria/ Espainia %	5,0	5,0	6,8	7,0	5,5	5,5	4,8	4,8	5,5	5,4	7,0	7,0	5,4	5,4

(*): Behin-behineko datuak.

(1): Kamioiak eta furgonetak barne hartzen ditu.

(2): Beste ibilgailu batzuk, atoiak eta erdi-atoiak barne hartzen ditu.

Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT)

Kamioien, traktore industrialen eta autobusen matrikulazio garbiari dagokionez, orokorrean, 2020ean baieztatu egin zen 2019an ikusitako joera. Hala, Estatuan goranzkoa izan zen bilakaera, eta Euskal Herrian beheranzkoa, Bizkaiko autobusen kasuan izan ezik. Hain zuzen ere, kamioiek eta traktore industrialek eragin zuten jaitsiera horren zatirik handiena, aurreko urtean baino 1.110 unitate gutxiago matrikulatu baitzituzten. Euskal Herriko eremu geografiko guztietan egin zuen behera, gutxiago edo gehiago, ibilgailu horien matrikulazioak. Estatuan, berriz, datu ona eskuratu zuten (17.974). Bestalde, autobusen matrikulazioaren joera aldatu egin zen bi eremuetan. Hala, saldo negatiboa izan zuen Euskal Herrian (-5), Bizkaian gora egin arren, eta Estatuan (-2.059), azken urteetan kopuruak gora egin ostean. Gauzak hala, Euskal Herriko lurralde guztietan jaitsi ziren matrikulazioak, batez ere, Gipuzkoan (-787) eta Nafarroan (-226). Jaitsiera txikiagoak izan zituzten Araban (-76) eta Bizkaian (-26), eta matrikulazio kopuruak gora egin zuen Estatuan (15.915).

194. koadroa Kamioi, traktore industrial eta autobusen matrikulazio garbia*

(unitate)

Eremua	Kamioiak eta traktore industrialak		Autobusak		Guztira	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020
Araba	-287	-25	-6	-51	-293	-76
Bizkaia	-621	-106	161	80	-460	-26
Gipuzkoa	-377	-762	-9	-25	-386	-787
EAE	-1.285	-893	146	4	-1.139	-889
Nafarroa	-299	-217	-27	-9	-326	-226
Euskal Herria	-1.584	-1.110	119	-5	-1.465	-1.115
Espainia	44.106	17.974	568	-2.059	44.674	15.915

(*): Parkearen urte arteko aldakuntza.

Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT)

Motorizazio-indizeen bilakaera aztertuko dugu orain, eta 1.000 biztanleko ibilgailu kopurua jakinarazten duen adierazlearekin hasiko gara. 2020an hazkundeak nagusitu ziren; hala, 1.000 biztanleko 649 ibilgailu zeuden Euskal Herrian, eta 1.000 biztanleko 733 ibilgailu Estatuan. Informazioa lurraldeka banatuta, Nafarroak izan zuen tasarik altuena (721 ibilgailu 1.000 biztanleko). Gipuzkoa eta Araba kokatu ziren ondoren, distantzia apur batera, 1.000 biztanleko 661 eta 648 ibilgailurekin, hurrenez hurren. Eta, azkenik, Bizkaia, 1.000 biztanleko 601 ibilgailurekin.

Aztertuko dugun bigarren adierazlea turismo bakoitzeko biztanle kopurua adierazten duena da. Ez zen alderik izan 2019arekin alderatuta. Hala, tasa hori turismoko 2,1 biztanletan mantendu zen Euskal Herrian, eta 1,9 biztanletan Estatuan. Halaber, Gipuzkoan eta Bizkaian errepikatu egin zen portaera, eta turismoko 2,2 biztanleko tasa izan zuten. Hala, Nafarroa (turismoko 2,1 biztanle) eta Araba (turismoko 2,0 biztanle) baino apur bat gorago kokatu ziren.

Eremua	195. koadroa		Motorizazio-indizeak	
	Ibilgailuak/1.000 biztanle		Biztanleak/Turismoa	
	2019	2020	2019	2020
Araba	648	648	2,1	2,1
Bizkaia	600	601	2,2	2,2
Gipuzkoa	659	661	2,2	2,2
EAE	626	628	2,2	2,2
Nafarroa	719	721	2,0	2,0
Euskal Herria	648	649	2,1	2,1
Espainia	732	733	1,9	1,9

Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT) eta guk geuk egina.

Informazioaren azterketarekin jarraituz, eta errepide bidezko merkantzien garraioari dagokionez, Merkantzien Errepide Bidezko Garraioari buruzko Inkesta Iraunkorraren gainean Sustapen Ministerioak emandako informazioaren arabera, jarduerak behera egin zuen Euskal Herrian zein Estatuan. EAEko datuetan sakonduta, 80.178 mila tona garraiatu zituzten –Euskal Herrian garraiatutako merkantziaren bi heren–, hau da, 2019an baino % 10,8 gutxiago. Eskualde barruko garraioak (-% 13) jaitsiera handiagoa izan zuen eskualdeen arteko garraioak baino (-% 9). Nafarroan 42.555 mila tona garraiatu zituzten, aurreko urtean baino apur bat gutxiago (-% 2,0). Batez ere, eskualde barruko garraioak izan zuen jaitsiera (-% 4,7), eta eskualdeen arteko garraioa nahiko egonkor mantendu zen (-% 0,7). Hala, 2020an % 7,9 murriztu zen Euskal Herriko trafikoa, eta 122.733 mila tonan kokatu zen. Estatuan, berriz, 1.151.483 mila tona garraiatu zituzten, 2019an baino % 4,1 gutxiago.

196. koadroa Garraiatutako merkantziak, autonomia-erkidegoaren arabera. Eskualde barruko garraioa eta eskualde arteko garraioa, jatorri eta/edo helmugako autonomia-erkidegoaren arabera.

(m Tm)

Eremua	EAE		Nafarroa		Euskal Herria		Estatua	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020
Eskualde barruko garraioa	40.649	35.372	14.890	14.217	55.539	49.589	851.346	800.956
Eskualde arteko garraioa	49.248	44.806	28.542	28.338	77.790	73.144	349.941	350.527
Guztira	89.897	80.178	43.432	42.555	133.329	122.733	1.201.287	1.151.483

Iturria: Sustapen Ministerioaren Estatistika Buletina.

Segmentu bakoitzaren bilakaeran sakonduta eta eskualde arteko garraioarekin hasita, 2020an % 9 murriztu zen EAEn garraiatutako bolumena; dena den, garraioaren guztizkoaren % 55,9 izan zen eskualde artekoa. Azterketa bera Nafarroara ekarrita, eskualde arteko garraioaren bilakaera ez zen ia mugitu (-% 0,7), baina guztizko trafikoaren zatirik handiena hartu zuen (% 66,6). Eskualde barruko garraioak behera egin zuen EAEn zein Nafarroan (-% 13 eta -% 4,5, hurrenez hurren), eta guztizkoaren % 44,1era eta % 33,4ra murriztu zen haien kuota, hurrenez hurren. Ondorioz, Euskal Herrian % 6 murriztu zen eskualdeen artean garraiatutako merkantzia eta % 10,7 eskualde barruan garraiatutakoa. Lehenengoak pisu erlatibo handiagoa izan zuen (% 59,6, eta eskualde barrukoak % 40,4).

Errepide bidezko garraioaren gaineko kapituluaren ondorio gisa, EAeko hiriburuetan lan egiten duten hiru konpainien adierazle nagusien bilakaera aurkeztuko dugu. Hauek dira hiru konpainia horiek: Bilbobus, DBUS eta Transportes Urbanos de Vitoria (TUVISA). Horrekin lotuta, aipatu beharrekoa da txosten hau egiteko unean (2021eko uztaila) TUVISAREN gaineko informazio partziala genuela eskura 2020ko ekitaldiari dagokionez.

197. koadroa Hiri-garraioa. Sektorearen oinarritzko datuak.

Kontzeptua	Bilbo		Donostia		Gasteiz	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020
Sareko lineak (*)	44	45	41	41	15	15
Luzera (km)	685,3	685,3	541,0	541,0	203,5	203,5
Autobusen parkea	141	141	136	139	85	--
Plantilla	646	606	531	529	345	--

(*): Eguneko eta gaueko lineak barne hartzen ditu.

(-): Txosten hau egitean datuak ez zeuden eskuragarri.

Iturria: Transportes Colectivos S.A.; Cia. Del Tranvía de San Sebastián, S.A.; Transportes Urbanos de Vitoria, S.A.

Hori argi utzita, Bilbobus garraio-enpresarekin hasiko gara. 2020a ezohiko urtea izan arren eta mugikortasunak kalte nabarmenak jasan arren, Bilbobusek linea berri bat txertatu zuen haren zerbitzuan, eta 44 linea izatetik 45 izatera pasatu zen: ohiko 36 zerbitzu, gaueko 8 zerbitzu eta 1 zerbitzu turistikoa –2019an martxan jarria–; sarearen luzera 685,3 kilometrotan mantendu zuen. Autobus kopurua 141 ibilgailutan mantendu zen; horietatik

11 elektrikoak ziren, eta 60 hibridoak. Langile kopuruan, ordea, nabaritu zen ezohiko egoera, jaitsiera handia izan baitzen; 646 langile izatetik 606 izatera pasatu ziren.

Dbusi dagokionez, egoera ezohikoa izan arren, zerbitzua 41 linearekin (32 egunekoak eta 9 gauekoak) mantentzea lortu zuen enpresak, eta sarearen luzera ere 541 kilometrotan mantendu zuen. Testuinguru horretan, 3 unitate batu zitzaizkion ibilgailuen parkeari, eta guztira 139 autobus izan zituzten; horietatik 53 elektrikoak edo hibridoak ziren. Enpleguari dagokionez, nahiko egonkor mantendu zen eta 2 langile gutxiago baino ez zituzten izan enpresan; guztira, 529 langile.

Transportes Urbanos de Vitoria (TUvisa) enpresari dagokionez, 2020an mantendu egin zen sareko linea kopurua: 15 linea, horietatik 10 egunekoak eta 5 gauekoak –azken hauek zerbitzurik gabe martxoaren 15az geroztik–. Sarearen luzera 203,5 kilometrokoa izan zen. 2019ko ekitaldiko parke mugikorraren eta plantillaren gaineko datuen arabera –ez dugu 2020ko daturik–, enpresak 85 autobus (horietatik 10 hibridoak) eta 345 langile zituen.

198. koadroa Hiri-garraioaren bilakaera

Kontzeptua	Bilbo		Donostia		Gasteiz	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020
Ibilitako km baliagarriak (m)	6.391	5.988	7.005	5.893	4.541	3.363
Garraiatutako bidaiariak (m)	24.805	15.900	29.584	17.818	16.208	3.365
Diru-bilketa (m euro)	11.073	7.166	20.750	12.148	7.099	--
Ustiapenaren emaitza (m euro)	--	--	-18.267	-25.263	--	--
Tarifak (euro)	1,35/0,66	1,35/0,66	1,80	1,85	1,4/0,6	1,4/0,6

(--): Txosten hau egitean datuak ez zeuden eskuragarri.

Iturria: Transportes Colectivos S.A.; Cía. del Tranvía de San Sebastián, S.A.; Transportes Urbanos de Vitoria, S.A.

Halaber, Bilbobusek 2020an 5.988 mila kilometro baliagarri egin zituen, 2019an baino 403 mila gutxiago (-% 6,3). Kilometro horietan 15.900 mila bidaiari garraiatu zituen, aurreko urtean baino % 35,9 gutxiago, eta 7.166 mila euro bildu zituen (-% 35,3).

Donostiako garraio-enpresak 5.893 mila kilometro egin zituen (-% 15,9), 16.208 bidaiari garraiatu zituen (-% 38,9), 12.148 mila euro bildu zituen (-% 41,5) eta ustiapenaren emaitza negatiboa izan zen (-25.263 mila euro), 2019ko zifretatik (-18.267 mila euro) oso urrun.

Amaitzeko, Gasteizko hiri-garraioaren adierazle nagusiek nabarmen egin zuten okerrera 2020an. Zehatzago esanda, ibilitako kilometro baliagarrien guztizkoak aldakuntza negatiboa izan zuen (-% 25,9) eta 3.363 mila kilometrotan kokatu zen. Garraiatutako bidaiari kopuruak are jaitsiera handiagoa izan zuen (-% 79,2), eta horrek, segurtasun osoz, enpresaren diru-sarrerak murriztuko zituen; dena den, ez dugu 2020ko diru-sarreraren gaineko daturik eskura.

3.3 ITSASO BIDEZKO GARRAIOA

Itsaso bidezko garraioari dagokionez, 2020an jarduerak behera egin zuen mundu mailan (-% 3,6), 2009ko finantza-krisialdiaz geroztik lehen aldiz. ANAVEK (Espainiako Ontzi Elkarteak) argitaratutako informazioaren arabera, 11.506 milioi tonakoa izan zen munduko merkataritza, aurreko urtekoa baino 432 milioi tona baxuagoa.

199. koadroa Itsaso bidezko munduko merkataritza

Merkantziak	(M Tm)			
	2018	2019	2020	% Δ 20/19
Solteko salgai solido nagusiak ⁽¹⁾	3.215	3.220	3.182	-1,2
Petrolio gordina eta produktuak	3.114	3.038	2.763	-9,1
Beste solteko salgai solido batzuk	2.009	2.023	1.959	-3,2
Edukiontzietako kargak	1.840	1.879	1.851	-1,5
Karga orokor konbentzionala	914	927	903	-2,6
Beste solteko salgai likido batzuk ⁽²⁾	785	834	832	-0,2
Guztira	11.892	11.938	11.506	-3,6

(1): Ikatza, burdin-mea, alea.

(2): Gas likidotuak eta produktu kimikoak.

Iturria: Anave, Clarkson.

Informazioa merkantzia motaren arabera banatuta, partida guztiak murriztu zirela ikus daiteke, baina neurri ezberdinetan egin zuten behera. Munduko sailkapenean ordezkariarik handiena (% 27,7) izan zuen produktuarekin hasiko gara, solteko salgai solido nagusiekin (burdin-mea, ikatzak eta aleak): haien garraioa apur bat jaitsi zen (-% 1,2). Petrolio gordinak eta petrolio-produktuek, berriz, % 24ko partaidetzarekin, taldeko jaitsierarik handiena izan zuten (-% 9,1). Behera egin zuten edukiontzietako kargek (-% 1,5) eta beste solteko salgai solido batzuek ere (-% 3,2), baina askoz ere gutxiago; % 17 inguruko partaidetza izan zuten biek. Karga orokor konbentzionalaren (% 7,8) eta beste solteko salgai likido batzuen (% 7,2) balioek ere behera egin zuten 2020an (-% 2,6 eta -% 0,2, hurrenez hurren).

200. koadroa Espainiako itsas merkataritza

Kontzeptua	(m Tm)		
	2019	2020	% Δ 20/19
Esportazioak	103.813	100.086	-3,6
Inportazioak	209.616	180.653	-13,8
Kabotajea	48.877	41.860	-14,4
Guztira	362.306	322.599	-11,0

Iturria: Anave, Estatuko Portuak.

Azterketa Estatura mugatuta, nazioartean gertatu bezala, itsaso bidezko merkataritzaren zifrak asko jaitsi ziren. Aurreko ekitaldian ere beheranzko joera izan zuen jarduerak, baina krisiak are gehiago murriztu zuen garraiatutako merkantzien bolumena (-% 11). Hala, 2020an 322.599 mila tona garraiatu zituzten guztira, eta aldagai guztiek behera egin zuten. Inportazioak, Estatuko trafikoaren % 56 izanik, % 13,8 murriztu ziren. Esportazioak,

berriaz, trafikoaren % 31 osatuta, % 3,6ko gutxitu ziren. Kabotajeak ere, askoz ere bolumen txikiagoarekin (guztizkoaren % 13), bilakaera negatiboarekin amaitu zuen ekitaldia (-% 14,4).

Euskal Herriko merkantzien bi portu nagusietako jardueraren balantzea egingo dugu jarraian, Bilboko portukoa (Bizkaia) eta Pasaiaiko portukoa (Gipuzkoa).

Datuetara lehen hurbilketa bat eginda, portuetako jarduera konplikatu izan zela ikus daiteke, funtsezkoak ez ziren jarduerak aldi baterako gelditu zituztelako, eragiketa asko bertan behera geratu zirelako eta mundu mailako dartsena nagusietako batzuk itxi egin zituztelako.

Bilboko portua aztertuz hasiko gara. 2020an nabarmen murriztu zuen jarduera (-% 16,6); 29.645,1 mila tona garraiatu zituen guztira. Dena den, Euskal Herriko erreferentziazko portua izan zen Bizkaikoa, eta Euskal Herriko portuetako jardueraren zatirik handiena jaso zuen (guztizko trafikoaren % 90). Hala, datuak produktuen arabera banatuta, bi partida nagusiak asko jaitsi zirela ikus daiteke: deskargak (% 65,7) eta kargak (% 34); bi digituko jaitsierak izan zituzten biek (-% 15,6 eta -% 18,6, hurrenez hurren). Zuzkidurak ere, hondarreko partaidetzarekin (% 0,3), beheranzko aldakuntza nabarmena izan zuen (-% 11,9).

201. koadroa Euskal Herriko portu nagusietako trafikoa

Kontzeptua	Bilbo			Pasaia		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020
Deskargak	22.314,2	23.062,9	19.466,2	1.733,2	1.829,9	1.792,7
Kargak	13.269,3	12.383,4	10.077,9	1.355,4	1.368,0	1.200,7
Zuzkidura	111,7	114,7	101,1	25,1	25,1	22,8
Tokiko trafikoa	0,2	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Arrantza	0,0	0,0	0,0	24,6	21,9	20,5
Guztira	35.695,4	35.561,0	29.645,1	3.138,3	3.244,9	3.036,6

Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaiaiko Portuko Agintaritza.

Pasaiaiko portuko informazioari dagokionez, 2020an eten egin zen aurreko biurtekoan izandako goranzko joera, eta 3.036,6 mila tonakoa izan zen garraioa (-% 6,4). Batez ere, kargek egin zuten behera (-% 12,2), pisu handieneko bigarren partidak (% 39,5). Deskargek, berriaz, trafikoaren erantzule nagusiak izanik (guztizkoaren % 59) behera egin zuten, baina askoz ere gutxiago (-% 2). Gainerako trafikoek ere beheranzko bilakaera izan zuten: zuzkidurak (% 0,8) eta arrantzak (% 0,7) (-% 9 eta -% 6,5, hurrenez hurren).

202. koadroa Merkantzien guztizko trafikoaren osaera

(m Tm)

Kontzeptua	Bilbo			Pasaia		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020
Petrolio-produktuak	16.367,3	14.644,3	12.563,8	--	--	--
Merkantzia orokorra	10.335,1	9.943,6	7.719,4	2.085,6	2.166,6	1.984,2
Solteko salgai solidoak	4.757,9	4.681,2	3.668,0	1.003,0	1.031,3	1.009,1
Beste solteko salgai likido batzuk (*)	4.123,2	6.177,2	5.592,9	--	--	--
Gainerakoak	111,9	114,7	101,1	49,7	47,0	43,3
Guztira	35.695,4	35.561,0	29.645,1	3.138,3	3.244,9	3.036,6

(*): Datua gas naturalaren eta beste solteko salgai batzuen baturari dagokio.
Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaia Portuko Agintaritza.

Bilboko portuko merkantzien trafikoaren osaerari buruzko datuetan sakonduta, urteko balantzea negatiboa izan zen, argi eta garbi. Petrolio-produktuen maila % 14,2 murriztu zen, erregaien eskari faltak eraginda; ordezkari handiena duen partida da (% 42,4). Merkantzia orokorrak eta solteko salgai solidoak ere, % 26ko eta % 12,4ko pisu espezifikoez, antzeko bilakaera izan zuten (-% 22,4 eta -% 21,6, hurrenez hurren). Beste solteko salgai likido batzuek ere, hirugarren partida garrantzitsuenak (% 18,9), jaitsiera esanguratsua izan zuten (-% 9,5).

Pasaia portuari dagokionez, merkantzia orokorraren trafikoa (guztizkoaren % 65,3) % 8,4 jaitsi zen. Solteko salgai solidoak, berriz, kargaren herena izanik (% 33,2), jaitsiera oso txikia izatea lortu zuten (-% 2,2). Partaidetza askoz ere txikiagoa duten gainerako merkantzien balioek behera egin zuten berriro ere 2020an.

203. koadroa Kanpoko trafikoa eta kabotajea

(m Tm)

Kontzeptua	Bilbo			Pasaia		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020
Inportazioa	21.778,5	22.415,6	19.024,4	1.675,2	1.751,3	1.763,4
Esportazioa	11.387,4	10.772,5	8.855,0	1.355,4	1.368,0	1.200,5
Kabotajea	2.417,7	2.258,2	1.664,7	58,0	78,6	29,4
Guztira	35.583,5	35.446,3	29.544,1	3.088,6	3.197,9	2.993,3

Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaia Portuko Agintaritza.

EAEko kanpo-merkataritzari eta kabotajeari dagokionez, eta bi portuetako balantze bateratua erreferentziatzen hartuta, jarduera asko jaitsi zen (-% 15,8); 32,5 mila tona garraiatu zituzten guztira, horietatik 29,5 mila tona Bilboko portuak. Bi portuetan inportazioen partidak izan zuten bolumenik handiena (% 63,9), baina % 14 egin zuten behera. Aurrez aipatu moduan, esportazioek ere behera egin zuten (-% 17,2), eta trafikoaren % 30,9 ordezkatu zuten. Kabotajeak, partaidetzarik txikiena izanik (% 5,2), taldeko urte arteko aldakuntzarik handiena izan zuten (-% 27,5).

Azterketarekin jarraituz, eta Bilboko portuko aldagaietara itzuliz, % 16,7 murriztu zen Bizkaiko dartsenako trafikoa, kanpo-merkataritzak oztopo handiak izan baitzituen. Hala,

behera egin zuten esportazioek (-% 17,8) zein inportazioek (-% 15,1). Halaber, kabotajeak izan zuen bilakaerarik okerrrena (-% 26,3), partaidetza oso txikia izan arren.

Pasaiaiko portuaren egoera hobea izan zen, baina ekitaldiaren balantzea negatiboa izan zen kasu honetan ere (-% 6,4). Izan ere, behera egin zuten esportazioek (-% 12,2) eta, batez ere, kabotajeak (-% 62,6). Inportazioek gora egin zuten apur bat (% 0,7), baina ez beste bien jaitsierak konpentsatzeko adina.

204. koadroa Bilboko Portuaren kanpoko trafikoaren osaera. 2020

Esportazioak		Inportazioak		(m Tm)
Gasolina	918,3	Petrolio gordina	7.673,5	
Produktu kimikoak	879,4	Gas naturala	3.769,6	
Beste mineral ez-metaliko batzuk	783,8	Produktu siderurgikoak	1.484,8	
Beste petrolio-produktu batzuk	620,5	Soja-babak	962,6	
Produktu siderurgikoak	585,8	Produktu kimikoak	723,7	
Zementua eta klinkerra	408,6	Edukiontzien tara	423,3	
Beste batzuk	4.658,5	Beste batzuk	3.986,8	
Guztira	8.855,0	Guztira	19.024,4	

Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Geuk egina.

Esportazioen eta inportazioen gaineko informazioa merkantzia motaren arabera banatuta, eta Bilboko portuari dagokionez, gasolina kokatu zen berriro ere lehenengo postuan (% 10,4ko pisu erlatiboa), produktu kimikoei (% 9,9ko partaidetza) aurre hartuta. Izan ere, jaitsiera txikia izan zuen lehenengoak (-% 4), eta askoz handiagoa bigarrenek (-% 26,5). Mineral ez-metalikoei % 10,8ko jaitsiera izan zuten, baina hirugarren lekuan mantendu ziren (% 8,9), beste petrolio-produktu batzuen eta produktu siderurgikoen aurretik. Bi horiek ia % 7ko partaidetzak izan zituzten, eta produktu siderurgikoen jaitsiera (-% 30,6) beste petrolio-produktu batzuenaren (-% 15,1) bikoitza izan zen. Azkenik, zementuak eta klinkerrak izan zuten galerarik handiena (-% 38,5), nahiz eta ordezkari txikiak izan (% 4,6).

Inportazioei dagokienez, petrolio gordinaren (% 40,3ko pisu espezifiko) bolumena % 19,4 murriztu zen. Gas naturalak (% 19,8ko partaidetza), berriz, % 10,2ko galera izan zuen. Distantzia apur batera kokatu ziren produktu siderurgikoak (% 7,8), taldeko bilakaerarik okerrarenekin (-% 24,3). Soja-babak izan ziren hurrengoak (% 5,1), % 7,1eko jaitsierarekin. Produktu kimikoak eta edukiontzien tarak osatu zuten mapa, % 2-3 inguruko ordezkariarekin; bi digituko jaitsierak izan zituzten biek.

205. koadroa Pasaiaiko Portuaren kanpoko trafikoaren osaera. 2020

Esportazioak		Inportazioak	
Produktu siderurgikoak	529,5	Produktu siderurgikoak	744,7
Ibilgailuak eta horien piezak	377,8	Papera eta orea	187,8
Eraikuntza-materialak	85,9	Pentsua eta bazkak	177,3
Zementua eta klinkerra	43,2	Ongarri naturalak eta artifizialak	143,3
Pentsua eta bazkak	32,2	Zerealak eta horien irinak	105,8
Beste salgai batzuk	131,8	Beste salgai batzuk	404,6
Guztira	1.200,5	Guztira	1.763,4

(m Tm)

Iturria: Pasaiaiko Portuko Agintaritza. Geuk egina.

Azterketa Pasaiaiko portuko kanpo-trafikora mugatuta, 2020an bi dinamika ezberdin izan ziren. Hala, esportazio-jarduerak behera egin zuen (-% 12,2), baina inportazioek % 0,7ko hazkunde apala izan zuten aurreko urtearekin alderatuta. Esportazioei dagokienez, berriz ere produktu siderurgikoak nabarmendu ziren bolumen handieneko osagai gisa (% 44,1), 2019arekin alderatuta haien balioak laurden bat murriztu ziren arren (-% 25,1). Ibilgailuek eta horien piezek (-% 10,7) eta zementuak eta klinkerrak (-% 42,1) ere beheranzko joera izan zuten, baina partaidetza oso ezberdinekin: % 31,5 lehenak eta % 3,6 bigarrenak. Aitzitik, eraikuntza-materialek % 7,2ko hazkundera izan zuten. Hazkunde bera izan zuten pentsuak eta bazkek ere, eta % 4,2ko ordezkaritza izan zuten esportazioen mapan.

Inportazioei dagokienez, esportazioen arloan gertatu bezala, produktu siderurgikoak kokatu ziren buruan (% 42,2) eta goranzko bilakaera izan zuten (% 4,8). Ia hazkunde bera izan zuten paperak eta oreak (% 4), partaidetza handieneko bigarren partidak (% 10,6). Pentsuak eta bazkek zein ongarri naturalek eta artifizialek ere goranzko bilakaera izan zuten (% 23,1 eta % 26), eta antzeko pisu erlatiboak (% 10,1 eta % 8,1). Gora egin zuten zerealek eta horien irinak ere (% 14), neurri apalagoan izan arren, eta % 6 inguruan kokatu zen haien pisu erlatiboa.

206. koadroa Bilboko Portua. Herrialdeen araberako trafikoa. 2020

Herrialdea	(m Tm)		
	Deskargak	Kargak	Guztira
Errusia	3.515,9	77,8	3.593,7
Mexiko	2.602,4	111,8	2.714,2
Erresuma Batua	1.160,5	1.535,3	2.695,8
Estatu Batuak	1.578,4	1.025,7	2.604,1
Espainia	441,8	1.222,9	1.664,7
Herbehereak	520,1	822,8	1.342,8
Brasil	649,9	444,7	1.094,5
Belgika	281,2	761,8	1.043,0
Trinidad eta Tobago	890,7	5,9	896,6
Frantzia	73,5	682,7	756,2
Norvegia	687,4	58,8	746,2
Nigeria	714,5	17,2	731,7
Txina	520,1	128,4	648,5
Beste batzuk	5.829,8	3.182,3	9.012,1
Guztira	19.466,2	10.077,9	29.544,1

Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Geuk egina.

Trafikoaren informazioa herrialdeen arabera banatuta eta Bilboko portuarekin hasita, kanpo-merkataritzaren egiturak aldaketa esanguratsuak izan zituen. Hala, Errusiak hartu zuen lehen postua, merkataritza-fluxuen guztizkoaren % 12,2arekin. Mexiko (% 9,2) eta Erresuma Batua (% 9,1) izan ziren hurrengoak, antzeko partaidetzekin, eta Estatu Batuak (% 8,8) eta Espainia (% 5,6) hurrengoak. Haien atzetik kokatu ziren Brasil (% 3,7), Belgika (% 3,5), Trinidad eta Tobago (% 3) eta Frantzia (% 2,6); horiek guztiek gora egin zuten mapan. Jaitsierarik handiena, berriz, Norvegiak (% 2,5) izan zuen, eta lau postu egin zituen atzera. Bestetik, nabarmentzekoa da Nigeria eta Txina ere rankingean sartu zirela, % 2 inguruko partaidetzekin.

207. koadroa Pasaiaiko Portua. Herrialdeen araberako trafikoa. 2020

Herrialdea	(m Tm)		
	Deskargak	Kargak	Guztira
Erresuma Batua	129,1	470,0	599,1
Belgika	210,7	190,2	400,9
Suedia	350,9	2,7	353,7
Alemania	234,5	31,9	266,5
Herbehereak	193,0	73,0	266,0
Irlanda	32,6	85,7	118,2
Finlandia	91,7	3,9	95,6
Polonia	70,1	0,0	70,1
Frantzia	24,8	44,3	69,1
Italia	68,4	0,0	68,4
Kanada	13,6	48,0	61,6
Errusia	61,4	0,0	61,4
Ukraina	54,9	0,0	54,9
Beste batzuk	256,9	250,9	507,8
Guztira	1.792,7	1.200,6	2.993,3

Iturria: Pasaiaiko Portuko Agintaritza. Geuk egina.

Pasaiaiko portuko merkataritzako bazkide nagusiei dagokienez, ia guztiak Europakoak izan ziren. Hala, Erresuma Batua kokatu zen lehen postuan, % 20ko ordezkariarekin

(aurreko ekitaldian baino ehuneko 1,5 puntu gutxiago). Belgika kokatu zen bigarren lekuan (% 13,4), eta haren atzetik Suedia (% 11,8), Herbehereak (% 8,9) eta Alemania (% 8,9). Irlanda (% 3,9) eta Finlandia (% 3,2) seigarren eta zazpigarren postuetan kokatu ziren, eta Polonia, Frantzia (% 2,3 biek), Kanada (% 2,1) eta Italia (% 2,3) ere Pasaiaiko portuko merkataritzako bazkide nagusien artean kokatu ziren. Errusiak eta Ukrainak osatu zuten zerrenda, % 2 inguruko pisu espezifikoekin.

208. koadroa Bilboko Portua. Magnitude ekonomikoak

Kontzeptua	(m euro)		
	2018	2019	2020
Zerbitzuengatiko diru-sarrerak eta kanonak	70.594	69.277	Daturik ez
Gastu arruntak	34.646	36.053	Daturik ez
Amortizazioak	29.841	28.744	Daturik ez
Ustiapenaren irabazia	5.925	8.382	Daturik ez
Ekitaldiaren emaitza	5.949	7.551	Daturik ez
Cash Flow	35.790	36.295	Daturik ez
Ibilgetu materiala	520.941	476.213	Daturik ez

ed: ez dago daturik.

Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza.

Bilboko Portuko 2019ko magnitude nagusiei dagokienez (txosten hau egitean eskuragarri zegoen azken informazioa), nabarmentzekoa da negozio-zifra apur bat jaitsi zela (-% 1,9), eta diru-sarrerak 70 milioi eurotik beherakoak izan ziren (69,3 milioi). Ustiapenaren irabazia, berriz, 8,4 milioi eurokoa izan zen, 2018an baino % 41,5 handiagoa, ibilgetuaren amortizazioen zenbatekoa murriztu egin zelako (-% 3,7; 28 milioi euro) eta, bereziki, ibilgetuen narriaduraren eta besterentzeen saldoaren zeinua aldatu egin zelako. Halaber, Portuko Agintaritzak zorpetze maila baxua mantendu zuen; banku-zor garbia 36,4 milioi eurokoa izan zen, eta beste 10 milioi euro gehiago jaso zituen Europako Inbertsio Bankutik, Espigoi Zentralaren lehen fasea finantzatzeko.


Inbertsioei dagokienez, Bilboko portuak 2020an bizi izandako egoera txarra izan zen arren, 60 milioi euro inguruko inbertsioa egiteko aurreikuspena dago, hainbat lanetara bideratuta: Espigoi Zentralaren lehen faseko urbanizazio-lanak (8,5 milioi euro); AZ1 nasa handitzea (29 milioi); ibilgailuentzako sarbide berria ZAD 2ra sartzeko (4,2 milioi euro); Larrialdietako nasa (1,17 milioi); N644 errepideko biaduktuaren egiturazko errefortzua (1,9 milioi); eta zoladuraren egiturazko egokitzapena A2 nasan (15 eta 20 milioi euro artean). 2020-2024 aldirako Enpresa Planaren baitan kokatzen dira inbertsio horiek. 285 milioi euroko hornidura du plan horrek.

38. grafikoa Merkantzien eta itsasontzien trafikoa Bilboko Portuan



Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza.

39. grafikoa Merkantzien eta itsasontzien trafikoa Pasaiaiko Portuan



Iturria: Pasaiaiko Portuko Agintaritza.

3.4 AIRE BIDEZKO GARRAIOA

Aire bidezko garraioaren azterketari dagokionez, euskal aireportuetako trafikoa oso murrizta izan zen 2020an osasun-krisiaren eraginez eta Estatuko mugikortasunari zein nazioarteko mugikortasunari ezarritako murrizketen eraginez, baita turismo-jarduera ia nulua izatearen ondorioz ere. Aenak argitaratutako datuen arabera, egindako eragiketen eta garraiatutako bidaiarien kopuruak behera jo zuen; jaitsiera ez zen hain gogorra izan merkantzien kasuan. Hala, sektoreak azken bost urteetan izandako goranzko ibilbide jarraitua eten egin zen.

209. koadroa Euskal Herriko aire bidezko garraioa*

Urtea	Aireontziak			Bidaiariak (m)			Merkantziak (m)		
	Guztira	% Δ	Euskal Herria/Espainia %	Guztira	% Δ	Euskal Herria/Espainia %	Guztira	% Δ	Euskal Herria/Espainia %
2014	59.996	-0,3	3,3	4.406,2	4,6	2,2	45.055,3	12,5	6,6
2015	63.211	5,4	3,3	4.659,0	5,7	2,3	49.255,0	9,3	6,9
2016	64.124	1,4	3,1	5.043,1	8,2	2,2	55.116,9	11,9	6,9
2017	68.033	6,1	3,1	5.505,5	9,2	2,2	62.445,9	13,3	6,8
2018	72.563	6,7	3,2	6.105,3	10,9	2,3	63.396,9	1,5	6,3
2019	74.998	3,4	3,2	6.643,8	8,8	2,4	65.473,1	3,3	6,1
2020	36.672	-51,1	3,3	1.903,3	-71,4	2,5	64.719,1	-1,2	8,2

(*): 2020ko behin-behineko datuak.

Iturria: AENA.

Hala, Euskal Herriko lau aireportuen jarduera modu bateratutan aztertuta, erreferentziazko hiru adierazleek okerrera egin zutela ikus daiteke. Loiu (Bilbo), Noain (Iruñea), Hondarribia (Donostia) eta Foronda (Gasteiz) dira lau aireportuak. Aireontzien trafikoak eta garraiatutako bidaiarien kopuruak jaitsiera historikoa izan zuten (-% 51,1 eta -% 71,4, hurrenez hurren). Merkantzien bolumenak ere behera egin zuen aurreko ekitaldiko balioekin alderatuta, baina askoz ere apalagoa izan zen jaitsiera (-% 1,2). Hala, 2020an 37.000 unitatekoa izan zen aireontzien kopurua (2019an 74.998), bidaiari kopurua ez zen 2 milioira heldu (2019an 6,6 milioi), eta 64.719,1 tona garraiatu zituzten (2019an 65.473).

Estatuan berbera izan zen portaera: aireontzien eta bidaiarien mugimenduak jaitsiera handia izan zuen, eta apur bat apalagoa garraiatutako merkantzien bolumenak. Hain zuzen ere, aireontzien trafikoak eta bidaiarien fluxuak % 53,4 eta % 72,4 egin zuten behera, hurrenez hurren, eta merkantzien kasuan txikiagoa izan zen beherakada (-% 26,3). Gauzak hala, Euskal Herriak Estatuko guztizkoaren gainean zuen partaidetza hazi egin zen merkantziei dagokienez. Beste bi adierazleek, berriz, aurreko ekitaldiko ekarpenak mantendu zituzten.

210. koadroa Aireportuko aireontzien trafikoa*

(unitate)

Kontzeptua	Bilbo		Iruñea		Donostia		Gasteiz		Euskal Herria		Euskal Herria/Espainia %	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020
Trafikoa, guztira	51.591	20.496	6.136	3.538	6.473	2.321	10.798	10.317	74.998	36.672	3,2	3,3
Barnekoa	29.559	14.722	5.006	3.262	5.543	2.077	4.202	4.450	44.310	24.511	4,0	3,7
Nazioartekoa	22.032	5.774	1.130	276	930	244	6.596	5.867	30.688	12.161	2,4	2,8

(*): 2020ko behin-behineko datuak.

Iturria: AENA.

Aireportu bakoitzean gertatutakoa modu xeheagoan aztertuko dugu orain, eta aireontzien trafikoarekin hasiko gara. 2020an bi digituko galerak izan zituzten aireportu guztietan, Forondan izan ezik. Zehatzago esanda, aireontzien bolumena % 60,3 murriztu zen Loiuko aireportuan, hau da, erreferentziazko aireportuan, jardueraren % 60 inguru jasotzen baitu. Jaitsiera handiagoa izan zen nazioarteko trafikoan (-% 73,8), barruko trafikoan baino (-% 50,2), turisten bolumena oso txikia izan baitzen. Gasteizko aireportuan (Foronda), % 28,1eko partaidetzarekin, nazioarteko eragiketak ez ziren hainbeste murriztu (-% 11,1), eta Estatu barruko trafikoa hazi egin zen (% 5,9). Hala, jarduera % 4,5 murriztu zen bere osotasunean. Noingo aireportuan (Nafarroa), % 9,6ko pisu erlatiboarekin, % 42,3 murriztu zen hegaldien kopurua. Batez ere, nazioarteko trafikoak egin zuen behera (-% 75,6), eta Estatuko trafikoak jaitsiera txikiagoa izan zuen (-% 34,8). Azkenik, Donostiako aireportua (Hondarribia) da aireontzien trafikorik txikiena duena (Euskal Herriko guztizko jardueraren % 6,3), eta hark izan zuen jaitsierarik handiena (-% 64,1), bi segmentuak % 60 eta % 70 artean murriztu baitziren.

211. koadroa Merkantzien trafikoa, aireportuen arabera*

(Tm)

Kontzeptua	Bilbo		Iruñea		Donostia		Gasteiz		Euskal Herria		Euskal Herria/Espainia %	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020
Trafikoa, guztira	980	384	22,2	0,0	0,4	0,0	64.471	64.335	65.473	64.719	6,1	8,2
Barnekoa	232	141	2,3	0,0	0,4	0,0	12.707	15.253	12.942	15.394	11,4	16,6
Nazioartekoa	748	244	19,9	0,0	0,0	0,0	51.763	49.081	52.531	49.325	5,5	7,1

(*): 2020ko behin-behineko datuak.

Iturria: AENA.

Merkantzien trafikoari buruzko informazioa aztertzen amaitzeko, aipatu beharrekoa da Foronda izan zela karga-aireportu nagusia, 2020ko ekitaldiko jarduera ia osoa jaso baitzuen (% 99,4). Dena den, erreferentziazko gainerako aireportuetan ez bezala, jaitsiera ia hautemanezina izan zen (-% 0,2), nazioarteko jarduerak behera egin arren (-% 5,2) Estatuko trafikoak bilakaera ona izan zuelako (% 20). Gainerako aerodromoek balio negatiboekin itxi zuten ekitaldia. Loiuko aireportuak % 60,8ko jaitsiera izan zuen,

behera egin baitzuten nazioarteko jarduerak (-% 67,4) zein barnekoak (-% 39,3). Bestalde, Noaingo eta Donostiako aireportuetan merkantzien garraioa ia desagertu egin zen, barneko eta kanpoko jardura % 90etik gora jaitسي baitzen bietan.

212. koadroa Bidaiarien trafikoa, aireportuen arabera*

Kontzeptua	Bilbo		Iruñea		Donostia		Gasteiz		Euskal Herria		Euskal Herria/Espainia %	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020
	Trafikoa, guztira	5.906	1.690	243	84	320	84	174	45	6.644	1.903	2,4
Barnekoa	3.355	1.227	188	78	318	83	110	35	3.972	1.424	4,6	4,2
Nazioartekoa	2.550	463	56	6	2	1	64	10	2.672	479	1,4	1,1

(*): 2020ko behin-behineko datuak.

Iturria: AENA.

Euskal Herriko aireportuetako bidaiarien joan-etorriari dagokienez, 2020an jaitsierea historikoa izan zuen garraiatutako bidaiarien bolumenak. Gaitasun handieneko aireportuarekin hasiko gara, Loiuako aireportuarekin –trafikoaren % 88,8–. 2020an bilakaera oso txarra izan zuen jarduerak (-% 71,4), behera egin baitzuten nazioarteko segmentuak (-% 81,9) zein Estatu barnekoak (-% 63,4). Gainerako aireportuetan ere beheranzkoa izan zen bilakaera, eta bidaiarien kopurua zitzu bizian jaitسي zen (% 60-% 70). Noaingo eta Forondako aireportuetan, batez ere, nazioarteko jarduerak egin zuen behera (-% 90,0 eta -% 84,1, hurrenez hurren). Donostiako aerodromoan, berriz, bidaiarien Estatu barneko mugimenduak izan zuen murrizketarik handiena (-% 73,9 barneko trafikoa, eta -% 61,5 nazioartekoak).

213. koadroa Aireportuko trafikoaren hazkundea (2020/2019)*

Aireportua	Bidaiariak		Aireontziak		Merkantziak	
	Mila	% Δ	Unitateak	% Δ	Tm	% Δ
Bilbo (Loiu)	-4.216	-71,4	-31.095	-60,3	-595	-60,8
Iruñea (Noain)	-159	-65,5	-2.598	-42,3	-22	-99,8
Donostia (Hondarribia)	-237	-73,8	-4.152	-64,1	0	-94,1
Gasteiz (Foronda)	-129	-73,9	-481	-4,5	-136	-0,2
Euskal Herria	-4.740	-71,4	-38.326	-51,1	-754	-1,2

(*): 2020ko behin-behineko datuak.

Iturria: AENA.

Kapituluekin amaitzeko, Euskal Herriko aireportuetako berritasun nagusiak azalduko ditugu jarraian. Aireportuetako jardura urtebetez ia guztiz geldirik egon ondoren, Loiuako aireportua ohiko jardura maila berreskuratzen ari da pixkanaka, Euskal Herrian eta Estatuan txertaketak aurrera egin ahala. Dena den, mugikortasunaren mugek eta Estatuko zein nazioarteko bidaien murrizketek baldintzatu egiten dute oraindik ere aireportuko jardura. Horrekin lotuta, Loiuako aireportuak akordio bat lortu zuen orain dela gutxi Eurofins Megalab laborategiarekin, PRC eta antigeno probak egiteko eremu bat martxan jartzeko, proba horiek azkarrago egin ahal izateko helburuz. Izan ere, helmugako

herrialde askok test negatiboa eskatzen dute oraindik ere haietara sartu ahal izateko. Gainera, aireko trafikoa kontrolatzeko sistemak berritzeko prozesua indartu egin da “Dorre Aurreratua” ziurtagiriarekin. Aireportuko Eragiketa Zentroaren, Kontrol Dorrearen eta Eurocontrolen –Europako aireko trafikoaren fluxuak monitorizatzen eta kudeatzen dituen erakundea– artean informazioa partekatzea ahalbidetzen du ziurtagiri horrek, eragiketen puntualtasuna hobetzeko eta aireko espazioa hobeto aprobetxatzeko.

Hondarribiko aireportuari dagokionez, Ortzibiaren (Hondarribia-Donostiako Aireportuaren Sozietate Sustatzailea) aurrekontua 125.000 eurora igotzea erabaki du Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako aerodromoko jarduera berreskuratzea bermatzeko helburuz. Izan ere, egoera oso konplikatu da, bidaiarien kopurua eta hegaldien eguneroko maiztasuna murriztu egin direlako. Halaber, aipatu beharrekoa da Voloteako hegazkinak hasi direla lanean Donostiako aireportuan, eta astean bi hegaldi egiten dituzte Palma Mallorcakoara eta Menorcara. Hala, Bilborekin batera, Volotea konpainiarekin lan egiten duen Euskal Herriko bigarren hiria bilakatu da.

Merkantzien mugimendurik handiena duen Estatuko laugarren aireportua da Foronda. Ondorioz, eragile giltzarria da Euskadin eta Estatuko iparraldeko beste eremu batzuetan Covidaren aurkako txertoak banatzeko. Zentzu horretan, Barne, Garraio eta Osasun Ministerioarekin lankidetzan, Pfizer eta Moderna txertoen hainbat sorta jaso ditu Arabako hiriburuko aireportuak, haien hornidura bermatzeko eta, hala, aurreikusitako immunizazio-epeak betetzeko. Bestetik, bidaiarien behin behineko terminalaren berritze-lanak amaitu dira: pasaporteen kontrolerako eta segurtasun kontroletarako eremua handitzea, kanpoko fatxadako irudia berritzea edo eremu komunak handitzea. Hori guztia, bidaiariei zerbitzu hobea emateko helburuarekin.

Iruñeari dagokionez, aireportuko hegaldi nagusiak berriro ere aktibatzeke ahaleginetan, 2021eko udan berriro ere jarri dituzte martxan Kanaria eta Balear uharteetarako hegaldiak, Binder eta Air Nostrum airelineen bidez, eta dagozkien tokiko gobernuekin elkarlanean. Noainen lan egiten duen beste konpainia nagusietako bat Lufthansa da, eta ez du aurreikusten epe laburrean Iruñea-Franfurt hegaldia (nazioarteko hegaldi nagusia) martxan jartzerik, Alemaniako Gobernuak birusaren intzidentzia-tasa altua duten herrialdeetara ez bidaiatzea gomendatu duelako.

Dena den, pandemiaren eraginek eta bilakaerak gogor kaltetutako agertokian egon arren, sektorea nahiko baikor ageri da, eta 2021eko bigarren erditik aurrera turismo-jarduera pixkanaka suspertzen joango dela uste dute. Aldi berean, AENA edo IATA gisako erakundeek ez dute uste 2024a baino lehen aireko trafikoa guztiz berreskuratuko denik.

4. TURISMOA

4.1 COVID-19A: AGERTOKI-ALDAKETA

2020an, Covid-19ak ekarritako osasun-larrialdiko egoerak eta pandemia kontrolatzeko hartutako neurri murriztaileek nabarmen baldintzatu dute turismoaren jarduera globala. Egia da pandemiaren hedatze-uhinak estutasunean jarri duela munduko ekonomiaren zati handi baten erresilientzia, baina astindua askoz larriagoa izan da turismo-sektorean, jarduera ondo garatzeko, nahitaez, mugimendua saihetsezina baita. Beraz, mugikortasunari jarri zaizkion murrizketak, etxeko konfinamenduak, itxiera perimetralak eta bidaiariak nahitaez bete beharreko beste neurri batzuk, hala nola berrogeialdiak, PCR probak egin beharra eta abar direla-eta, agertokia erabat eta bat-batean aldatu da, eta ondorio beldurgarriak ekarri dizkio turismo-sektoreari.

Hala, Turismoaren Mundu Erakundearen (TME) arabera, nazioarteko turismoak 2020an izandako diru-sarrerak % 64 jaitsi ziren termino errealetan (tokiko monetak, prezio jarraituak), eta hori 900.000 milioi dolar inguruko jaitsieraren parekoa da. Munduko esportazioen balio globala % 4 baino gehiago jaitsi zen 2020an.

Krisiaren ezohikotasuna dela eta, herrialdeek sektoreari laguntzeko laguntza eta neurri sortak ezarri dituzte eta lortu dute sektorearen zifrak zertxobait hobetzea eskaeraren susperraldia iritsi arte. Txosten hau egitean (2021eko ekaina) erabilgarri zeuden azken datuek erakusten dute, hala ere, munduko turismo-jarduera urruti dagoela oraindik desiratutako suspertzetik. 2021eko urtarriletik martxora arte, nazioarteko turistei erreparatuta, 2020ko lehen hiruhilekoan baino (pandemiaren aurretik) 180 milioi gutxiago iritsi dira. Beraz, sektorearen berraktibazioa, momentuz, 2021aren bigarren erdira atzeratu da, betiere, kontsumitzaileek konfiantza berreskuratu eta pilatutako eskaria azaleratzen bada. Zenbait faktorek ezarriko dute berraktibazioaren tempoak, eta horien artean daude, txertaketaren erritmoa, mugikortasunari lotuta hartutako murrizketak malgutzea, nazioarteko araudiak homogeneizatzea protokoloak bateratuz, eta nola ez, pandemia kontrolatzea.

4.2 NAZIOARTEKO EGOERA

Arreta 2020an turismo-jarduerak izandako bilakaerari jarrita, Munduko Turismoaren Barometroak (TME) argitaratutako datuek bidaiarien mugikortasunak izandako beherakada historikoa erakusten du, hamar urtean baino gehiagoan, intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin, gorantz aritu ondoren. Mundu osoko turismogoneek aurreko urtean baino nazioarteko mila milioi iritsiera gutxiago jaso zituzten 2020an, eta arriskuan jarri ziren zuzeneko 100-120 milioi turismo-enplegu.

Hala, ekitaldia nazioarteko 381 milioi turistaren iritsierarekin itxi da, eta zifra hori oso urruti dago (-% 73,9) aurreko ekitaldiko zifratik (1.461 milioi bidaiari 2019an). Zalantzarik gabe, nazio mailako turistek (konfinamenduak, itxiera perimetralak, etxeratze-aginduak...) eta atzerrikoek (PCRak nahitaez egin beharra, berrogeialdiak, mugak ixtea, herrialde jakin batzuetara bidaiatzeko debekua) mugikortasunerako jarri zaizkien murrizketek merkatu eta aldaera guztietan utzi dute turismo-jarduera jota.

Hala, eta 2020a ohikotik erabat kanpokoan izan den arren, Europak jarraitu du nazioarteko turismogune nagusi izaten, eta 221 milioi bidaiari hartu ditu (bidaiarien sarreraren % 58). Atzetik izan ditu Amerika (% 18,1), Asia eta Pazifikoa (% 15) eta Afrika eta Ekialde Ertaina (% 4,7 eta % 4,2, hurrenez hurren). Hala ere, urteko balantzea ez da ona, eta eremu geografiko guztiek partekatzen dute, batetik bestera alde handiekin: % 68,5 da Amerika kontinentearen datua eta % 84,1 Asia eta Pazifikoarena.

214. koadroa Nazioarteko turistak

Turistak, milioitan

Eremua	2018	2019	2020	2020ko merkatu-kuota (%)	% Δ 20/19
Guztira	1.407	1.461	381	100,0	-73,9
-Europa	716	746	221	58,0	-70,4
-Amerika	216	219	69	18,1	-68,5
-Asia eta Pazifikoa	347	360	57	15,0	-84,1
-Afrika	69	70	18	4,7	-74,6
-Ekialde Ertaina	60	65	16	4,2	-75,2
Europa*					
-Ipar Europa	81	84	21	5,4	-75,3
-Mendebaldeko Europa	200	205	74	19,4	-64,0
-Erdialdeko/Ekialdeko Europa	146	153	41	10,7	-73,4
-Hego Europa/Mediterraneoan	289	304	86	22,5	-71,8
-Horietatik EB-28	563	580	177	46,5	-69,4

(*): 2020ko behin-behineko datuak.

Iturria: Turismoaren Mundu Erakundea.

Eskualde mailara jaitsita eta Europari begiratuta, turismo-merkatuetako emaitzak oso antzekoak dira, antzeko mugak baitituzte denek. Hego Europa/Mediterraneoan, turismogune garrantzitsuak dituen eremuan, turisten etorrerak beherakada handia izan du (-% 71,8), eta 86 milioi zenbaturik dira (2019an 304 milioi). Antzeko bilakaera izan da gainerako eremu geografikoetan ere: 74 milioi turistak jo dute Mendebaldeko Europara (-% 64), 41 milioi Erdialdeko/Ekialdeko Europara (-% 73,4) eta 21 milioi Ipar Europara (-% 75,3).

4.3 TURISMOA ESPAINIAN

Turismo-sektorea da Espainiako ekonomiaren sektore handietako bat; bai BPGri egiten dion ekarpenari, bai enpleguari begiratuta. 2019an (hori da eskuragarri dagoen azken

datua¹⁾ turismo-jarduerak BPGren % 12,4 sortu zuen Espainian; alegia 154.487 milioi euroko ekarpena egin zuen, % 12,9ko ekarpena, berriz, enplegu osoari (2,72 milioi lanpostu). Hala ere, turismo-sektorea izan da Covid-19aren krisiaren kolpe gogorrena jaso duen sektoreetako bat, eta haren ekarpena duela bi hamarkada baino lehenagoko datuetara jaitsi da. Exceltur-en kalkuluen arabera, 2020an, 106 mila milioi euro jaitsi da jarduera (-% 69) 2019ko maila gorenetatik, eta turismoak Espainiako ekonomiari egindako ekarpena % 4,3ra jaitsi da.

Hala, turismo-jarduerak historian izandako urterik okerrenean, osasun-errealitatearen erritmoan ibili da. Espainian, urte hasiera ona izan ondoren, martxoaren erdialdean osasun-krisia lehertzeak herritarren konfinamendua ekarri zuen, eta hala, gelditu egin zen funtsezkoa ez den jarduera oro. Konfinamendua amaitzean, deskonfinamenduak murrizketa-neurriak malgutzea eta establezimenduak, pixkanaka, berriro zabaltzea ekarri zuen, baina nazioarteko turismoa oso urria izatearen eragozpenarekin. Udako hilabeteetan, arnasa pixka bat hartu zuen berriro sektoreak, baina urrian ziurgabetasunean murgildu zen berriro, kutsatzeak berriro asko igo zirelako. Laburbilduz, 2020an bi hiru hilabeteetan (bigarrenean eta laugarrenean) ez da ia jarduerarik izan, eta beste bietan hutsaren hurrengoak izan da sektoreak izan ohi dituen datuekin alderatuta. Horren guztiaren emaitza gisa, enpleguaren zifrak asko okertu dira, baina pixka bat arindu dute okertze hori ABEEE-ek (aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteak).

Eskari turistikoa

2020ko ekitaldiaren bereizgarriak nazioarteko turisten iritsierak beherakada handia izatea eta nazio mailako eskari urria izan dira, pandemia kontrolatzeko mugikortasunari ezarritako murrizketek baldintzatuta. Gainera, 2020an, aldatu egin dira bidaiarien kontsumo-ohiturak, eta igo egin da gertuko oporren eskaria, garraio publikoaren ordez nork bere ibilgailua erabiltzera gehiago jo da; ostatu hartzeko hotelen sarera jo beharrean, gehiago jo da familien edo lagunentzako etxetara, eta horrek guztiak sektorearen adierazle nagusiak okertzea ekarri du.

¹ EIN Espainiako Turismoaren Kontu Satelitea (CSTE) 2019ko estatistiken berrikusketa

215. koadroa Espainiara datozen bidaiariak¹, jatorriaren arabera

Eremua	2018	2019	2020*	% Δ 20/19
Frantzia	11.293.321	11.147.397	3.888.723	-65,1
Erresuma Batua	18.523.957	18.012.482	3.153.500	-82,5
Alemania	11.414.955	11.158.022	2.396.284	-78,5
Herrialde eskandinaviarrak	5.803.535	5.530.112	1.176.255	-78,7
Italia	4.389.454	4.534.513	948.384	-79,1
Herbehereak	3.855.270	3.684.260	917.173	-75,1
Portugal	2.344.322	2.428.789	760.256	-68,7
Belgika	2.505.146	2.525.887	746.215	-70,5
AEB	2.959.487	3.324.870	402.854	-87,9
Suitza	1.883.147	1.811.867	399.725	-77,9
Irlanda	2.053.386	2.177.592	328.963	-84,9
Errusia	1.227.530	1.314.079	137.915	-89,5
Europako gainerakoak	6.003.628	6.441.422	1.689.034	-73,8
Amerikako gainerakoak	3.411.060	3.767.276	897.965	-76,2
Munduko gainerakoak	5.140.214	5.650.584	1.039.955	-81,6
Guztira	82.808.412	83.509.152	18.883.201	-77,4

Iturria: EIN Herrialdeen arteko bidaiarien mugimenduen estatistika (Frontur).

(): 2020ko maiatzeko datuak eta ondorengoak behin-behinekoak dira.*

Hala eta guztiz ere, Espainiak 18.883.201 bisitari atzerritar jaso ditu 2020an, azken 50 urteetako zifrarik baxuena, eta oso urruti aurreko ekitaldian erregistratutako 84 milioi bidaiariren zifratik. Hiru herrialdeetakoak izan dira iritsiera gehienak: Frantziakoak (% 20,6; guztira 3,9 milioi turista, -% 65,1); Erresuma Batukoak, pandemia-aurreko garaietan bisitari gehien bidaltzen zuen herrialdekoak (pisu espezifikoak % 16,7; guztira 3,1 milioi bidaiari, -% 82,5); eta Alemaniakoak (% 12,7; guztira 2,4 milioi bisitari, -% 78,5). Gainerako herrialdeei dagokienez, bidaiarien kopuruak atzerakada orokortua izan du, eta honako hauek nabarmentzen dira, atzerakadaren neurriagatik, Errusia (-% 89,5), Estatu Batuak (-% 87,9) eta Irlanda (-% 79), guztiak ere aire bidezko garraioaren mendekoak.


Eskari turistikoaren azterketarekin jarraituz, eta Hoteletako okupazioaren galdetegiaren² (EIN) datuei erreferentzia eginez –bidaiariei eta bidaiari horiek ostatu turistikoetan hoteletan, apartamentu turistikoetan, landetxeetan eta kanpinetan egindako ostatu-gauei eskaintzen die arreta–, emaitza nagusiek erakusten dute eskariak beherakada handia izan duela (-% 66,3) eta 45,1 milioi bidaiaritarira iritsi dela. Joera hori ostatu-gauetara (-% 69,3) igaro da: 143,1 milioi izan dira. Hala ere, nabarmendu behar da hotelen sareak jarraitzen duela eskariaren zatirik handiena hartzen, 34,3 milioi bidaiari eta 91,6 milioi ostatu gau lortuta, eta batez besteko egonaldia hiru egun baino pixka bat laburragoa izan da (2,7 egun).

¹ Frontur-ek (Atzerritarren mugimendu turistikoaren estatistika), garraibideen eta bidaiatzeko motibazioaren arabera, Espainian bizi ez diren eta ostatu mota guztiak erabiltzen dituzten bidaiarien fluxua jasotzen du, honako hauek barne: bigarren etxebizitzak, etxebizitza partikularrak, eta horiez gain, hotel-sareak, landa-ostatuak, apartamentu turistikoak edota campingak. Horiek dira kapitulu honetako aztergai nagusia.

² Ez ditu plataformen bitartez (Airbnb, adibidez) eskainitako plazek eragindako mugimendua eta okupazioa kontuan hartzen, eskaintza hori legezko ostatu-sarean ez badago behintzat.

Azterketarekin jarraituz, eta bidaiarien jatorriari begiratuta, atzerritarren segmentuak bilakaera okerragoa izan du (-% 80,7) –pandemia kontrolatzeko izan ditugun mugak eta berrogeialdiak aintzat hartuta– nazio mailakoena baino (-% 55,3), nahiz eta nazio mailakoak ere ezohiko bilakaera izan. Ostatu-gauek ere antzeko jokabidea izan dute: gehiago jaitsi dira turista atzerritarrenak (-% 81,8) nazio mailakoena baino (-% 57,5). 2020an ezohikoa izan da nazio mailako turismoaren datuak hobekiak izan direla bi adierazleetan: ekarpena handiagoa izan da (% 68,5 eta % 55,5 bidaiarietan eta ostatu-gauean) atzerritarrena baino.

40. grafikoa Bidaiari kopuruaren bilakaera, hilabeteka (Espainia, 2018-2020). Hotel-establezimenduak



Iturria: EIN Hoteletako okupazioaren galdetegia.

Beraz, 2020an izan ditugun ezohiko inguruabarrek ohikoarekin alderatuta oso bestelakoa izan den turismo-jarduera ekarri dute. Hilabete batzuetan, jarduera ia hutsa izan da, eta hilabete batetik besterako gorabeherak handiak izan dira. Azken finean, grafikoan ikus daitekeen moduan, argi dago marraztuta zer erlazio dagoen pandemiaren bilakaeraren eta hotel-establezimenduen jardueraren artean.

216. koadroa Eskari turistikoaren bilakaera Espainian

Eremua	2018	2019	2020	% Δ 20/19
Bidaiariak (mila)	129.728	133.920	45.156	-66,3
-Hotelak	105.311	108.716	34.363	-68,4
-Landa-turismoa	4.261	4.421	2.074	-53,1
-Apartamentu turistikoak	12.289	12.479	4.193	-66,4
-Kanpinak	7.867	8.304	4.526	-45,5
Ostatu-gauak (mila)	464.035	466.826	143.140	-69,3
-Hotelak	339.981	342.996	91.572	-73,3
-Landa-turismoa	11.458	11.726	6.291	-46,4
-Apartamentu turistikoak	73.437	71.383	23.584	-67,0
-Kanpinak	39.159	40.721	21.693	-46,7
Batez besteko egonaldia				
-Hotelak	3,2	3,2	2,7	-0,5 pp
-Landa-turismoa	2,7	2,7	3,0	0,3 pp
-Apartamentu turistikoak	6,0	5,7	5,6	-0,1 pp
-Kanpinak	5,0	4,9	4,8	-0,1 pp

Iturria: EIN Hoteletako okupazioaren galdetegia.

Gainerako establezimenduei dagokienez, turismo-apartamentuetan 4,2 milioi bidaiari erregistratu dira (-% 66,4) eta 23,6 milioi ostatu-gau (-% 67); batez beste 6 eguneko egonaldiakin. Landa-turismoaren sareari dagokionez, 2 milioi bidaiari (-% 53,1) eta 6,3 milioi ostatu-gau izan dira (-% 46,4), eta batez besteko egonaldia 3 egunekoa izan da. Azkenik, kanpinak 4,5 milioi bidaiari izan dituzte guztira (-% 45,5), eta 21,7 milioi ostatu-gau (-% 46,7), beraz, batez besteko egonaldia 5 egun ingurukoa izan da.

Eskaintza turistikoa

Hotel-establezimenduetatik hasita, 2020an, 8.899 hotelek osatu dute eskaintza (urteko batezbestekoa), eta beraz, aurreko ekitaldian baino 6.000 establezimendu aktibo gutxiago izan dira. Datu horrek ere erakusten du krisiaren neurria. Agertoki hori gainerako kategorietara ere estrapola daiteke: landa-turismoko 12.779 ostatu egon dira zabalik (2019an baino 4.438 gutxiago) eta 524 kanpin (-250). Apartamentu turistikoei dagokienez, bidaiari zuhurragoentzako aukera erakargarriagoa izan arren, jardueraren jaitsiera besteetan bezain handia izan da: guztira, 76.498 apartamentu egon dira erabilgarri, aurreko ekitaldian baino 56.041 gutxiago.

Beraz, jarduerak 2020an hainbesterainoko jaitsiera izan duenez, eskaintako plaza kopuruak aztertutako establezimendu-kategoria guztietan egin du behera, eta jaitsierak % 27,3tik hasi (landa-turismoko establezimenduak) eta % 51,6ra artekoak (hotelak) izan dira.

Langileei erreparatuta, datuek baieztatu egiten dute pandemiak enpleguan izandako inpaktu historikoa, baina are larriagoa izango zen ABEEE-engatik izan ez balitz. Hala, 2020an, orotara, 124.782 enplegatu aritu dira sektorean lanean; 2019an baino % 55,5 gutxiago (155.937 pertsona gutxiago). Establezimendu bakoitzaren pisuari dagokionez,

aurreko ekitaldietan bezala, 10 enplegutatik 7 hotel-sareari egon dira lotuta: urtean, batez beste, 86.442 enplegu, % 60,6ko beherakada izan ondoren (133.033 enplegu gutxiago). Landa-ostatuetan (19.220 enplegu) eta apartamentu turistikoetan (14.472) izan dira sektoreari atxikitako enplegu guztiaren laurdena, eta 6.292 eta 14.027 lanpostu suntsitu dira 2020an. Azkenik, kanpinak 4.648 lanpostu sortu dituzte; 2019an baino 2.585 enplegu gutxiago.

217. koadroa Espainiako eskaintza turistikoaren bilakaera (urteko batez bestekoa)

Eremua	2018	2019	2020	% Δ 20/19
Establezimendu kopurua				
-Hotelak	14.742	14.897	8.899	-40,3
-Landa-turismoa	16.660	17.217	12.779	-25,8
-Apartamentu turistikoak	132.443	132.539	76.498	-42,3
-Kanpinak	768	774	524	-32,3
Eskainitako plaza kopurua				
-Hotelak	1.498.212	1.517.583	734.779	-51,6
-Landa-turismoa	160.659	165.949	120.566	-27,3
-Apartamentu turistikoak	508.498	507.816	302.227	-40,5
-Kanpinak (partzelaka)	501.734	502.002	339.088	-32,5
Langileak				
-Hotelak	214.379	219.475	86.442	-60,6
-Landa-turismoa	24.436	25.512	19.220	-24,7
-Apartamentu turistikoak	28.540	28.499	14.472	-49,2
-Kanpinak	6.937	7.233	4.648	-35,7

Iturria: EIN Hoteletako okupazioaren galdetegia.

Honi atxikitako koadroan daude jasota eskaintza turistikoari lotutako bi aldagaietatik abiatuta kalkulaturako ratioak: eskainitako plaza kopurua eta lanpostuak dira aldagai horiek, eta bietan haien neurria aintzat hartu da. Hala, kanpinen segmentuan izan da, berriro, dimentsiorik handiena eskainitako plaza kopurua (647,1), eta atzetik izan dituzte, urrutitik, hotelak (82,6), landa-ostatuak (9,4) eta apartamentu turistikoak (4,0). Azken horiek bakarrik izan dute goranzko mugimendua 2020an (% 3,1).

218. koadroa Espainiako eskaintza turistikoaren bilakaera (urteko batez bestekoa)

Eremua	2018	2019	2020	% Δ 20/19
Plazak establezimendu bakoitzean				
-Hotelak	101,6	101,9	82,6	-18,9
-Landa-turismoa	9,6	9,6	9,4	-2,1
-Apartamentu turistikoak	3,8	3,8	4,0	3,1
-Kanpinak	653,3	648,6	647,1	-0,2
Enplegua establezimendu bakoitzean				
-Hotelak	14,5	14,7	9,7	-34,1
-Landa-turismoa	1,5	1,5	1,5	1,5
-Apartamentu turistikoak	0,2	0,2	0,2	-12,0
-Kanpinak	9,0	9,3	8,9	-5,1

Iturria: EIN Hoteletako okupazioaren galdetegia.

Establezimenduetako enpleguaren ratioak aukera ematen du enpresaren dimentsioa neurtzeko, eta ratio horri dagokionez, adierazle horren postu gorenean hotelen sarea dago (9,7) urtetik urterako aldakuntza okerrean izan arren (-% 34,1), eta oso atzetik ditu kanpinak (8,9), pixka bat jaitsi ondoren (-% 5,1). Landa-ostatuek (1,5) eta apartamentu turistikoek (0,2), askoz dimentsio apalagoak izanik, kontrako bilakaera izan dute: landa-ostatuek neurria handitu dute (% 1,5) eta apartamentu turistikoek, berriz, murriztu (-% 12).

Okupazio maila eta prezioen bilakaera

Sektoreko zifra handiei begira jarrita, eta okupazio mailari erreferentzia eginez, kanpinek izan dute bilakaera onena: batez besteko okupazioa % 32,1ekoa izan da, baina zifra horrek 7 puntutik gorako jaitsiera izan du aurreko ekitaldiko zifrarekin alderatuta. Hotelei (% 26,5) eta apartamentu turistikoek (% 16,9) dagokienez, beherakada handia izan du okupazio mailak (ehuneko -31,9 puntu eta ehuneko -20,2 puntu), eta joera hori landa-ostatuetan, negatiboa izan arren, leunagoa da (ehuneko -5,3 puntu). Azken horiek % 13,4ko batez besteko okupazioarekin amaitu dute ekitaldia.

Prezio-indizeari dagokionez (2008ko oinarria=100), 2020an aldaketa nabarmenak izan dira sektorean. Partekatutako joera prezioen jaitsiera izan da, baina balio altuenak landa-ostatuei (140,9) eta kanpinei (140,4) dagozkie, eta baxuagoak dira apartamentu turistikoek (122,5) eta normalean adierazle honetan lehen postuan izaten diren hotelenak (103,0). Hala ere, eta 2020ko ekitaldian izan ditugun ezohiko inguruabarrak aintzat hartuta, prezioen jaitsiera ez da nahikoa izan beste aldagai eta/edo betebeharrak batzuek baldintzatu duten eskari turistikoa sustatzeko.

219. koadroa Okupazio mailaren eta prezio-indizeen bilakaera Espainiako turismo-ostatuen sareetan (urteko batezbestekoa)

Eremua	2018	2019	2020	Δ 20/19
Okupazio maila plaza kopuruko				
-Hotelak	58,5	58,4	26,5	-31,9 pp
-Landa-turismoa	18,9	18,7	13,4	-5,3 pp
-Apartamentu turistikoak	38,1	37,1	16,9	-20,2 pp
-Kanpinak (partzelaka)	39,0	39,7	32,1	-7,6 pp
Prezio-indizea				
-Hotelak	109,9	112,2	103,0	-9,2 pp
-Landa-turismoa	140,1	142,1	140,9	-1,2 pp
-Apartamentu turistikoak	140,4	142,1	122,5	-19,6 pp
-Kanpinak	146,7	150,4	140,4	-10,0 pp

pp: ehuneko puntuak..

Iturria: EIN Hoteletako okupazioaren galdetegia.

Azken finean, 2020ko ekitaldiko balantze beltzak sektorearen balio-kate osoa oso egoera zailean utzi du. Egoera etsigarri hori ikusita, sektoreak espero du 2021eko udatik aurrera nolabaiteko erritmo bat hartzea berriz ere, eta hori nahitaez egongo da lotuta txertaketaren erritmoarekin eta herrialde bakoitzak ezarriko dituen murrizketak

malgutzearekin. Horrez gain, krisiaren ondorio negargarriak arintzeko, Europar Batasuneko Next Generation suspertze-funtsetatik etorritako 3.400 milioi euro bideratuko ditu turismo-industria modernizatzerara, digitalizatzerara eta jasangarri bihurtzerara.

4.4 TURISMOA EAEN

Eustatek argitaratutako informazioaren arabera (Turismoaren Kontu Satelitea), 2019ari dagozkion datuek erakusten dute EAEn 5,1 milioi euroko gastu turistikoa izan zela, eta zifra horren arabera, BPGk, urtetik urtera, % 3,9ko eta % 6,4ko igoera izan du. Gipuzkoan du turismoak trakzio-efekturik handiena ekonomian, BPGren % 8 hartuta. Bizkaian eta Araban ehuneko hori % 5,5 ingurukoa da. Zifra horiek aukera ematen dute krisiak asko eragin dion sektorea dimentsionatzeko. 2020a historiako urterik okerrena izan du sektoreak.

Eskari turistikoa

Eskariaren azterketatik hasita, eta Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta (Eustat) aintzat hartuta, EAEn 2020an izandako bidaiarien bolumen osoak milioia gaintitzen du (1.351.804), eta ostatu-gauak, aldiz, 3 milioi inguru izan dira (2.820.063). Bi adierazleak % 60 inguru jaistearen emaitza dira datu horiek.

220. koadroa Jasotako bidaiari kopurua, ostatu-gauak eta batezbesteko egonaldia (EAE 2020).
Jatorriaren arabera

Eremua	Bidaiariak	%	%Δ 20/19	Ostatu-gauak	%	% Δ 20/19	Batez besteko egonaldia
GUZTIRA	1.351.804	100,0	-60,7	2.820.063	100,0	-59,8	2,09
Guztira Estatuan	975.372	72,2	-52,0	2.073.721	73,5	-50,0	2,13
--EAE	244.204	18,1	-34,9	494.904	17,5	-27,2	2,03
--Madril	199.019	14,7	-56,4	428.474	15,2	-54,0	2,15
--Katalunia	144.299	10,7	-51,3	302.148	10,7	-51,3	2,09
--Gaztela eta Leon	55.974	4,1	-55,6	121.547	4,3	-50,7	2,17
--Andaluzia	50.929	3,8	-62,5	130.444	4,6	-60,0	2,56
--Valentziako Erkidegoa	47.513	3,5	-58,0	109.183	3,9	-59,0	2,30
--Nafarroa	40.609	3,0	-44,0	68.517	2,4	-41,6	1,69
--Aragoi	38.989	2,9	-52,1	79.436	2,8	-50,9	2,04
--Galizia	35.847	2,7	-55,7	84.949	3,0	-51,0	2,37
--Asturias	25.067	1,9	-61,0	53.578	1,9	-56,5	2,14
--Gaztela-Mantxa	20.696	1,5	-59,1	46.068	1,6	-63,1	2,23
Beste autonomia- erkidego batzuk	72.227	5,3	-59,6	154.474	5,5	-58,8	2,14
Atzerrikoak guztira	376.431	27,8	-73,3	746.342	26,5	-74,0	1,98
--Frantzia	142.462	10,5	-50,6	228.149	8,1	-49,7	1,60
--Amerika	37.096	2,7	-85,8	87.861	3,1	-85,1	2,37
--Alemania	25.501	1,9	-80,4	58.797	2,1	-79,2	2,31
--Erresuma Batua	25.304	1,9	-80,4	44.504	1,6	-83,1	1,76
--Portugal	23.154	1,7	-56,2	54.515	1,9	-51,1	2,35
--Italia	16.080	1,2	-80,4	38.483	1,4	-78,3	2,39
--Belgika	13.774	1,0	-65,5	22.919	0,8	-71,1	1,66
-EBko gainerakoak ⁽¹⁾	49.292	3,6	-75,3	111.013	3,9	-74,8	2,25
-Europako gainerakoak ⁽²⁾	16.574	1,2	-79,1	37.972	1,3	-77,5	2,29
-Munduko gainerakoak	27.195	2,0	-81,7	62.128	2,2	-79,9	2,28

(1): EBko gainerakoak Austria, Bulgaria, Zipre, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Finlandia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Letonia, Lituania, Luxenburgoko, Malta, Polonia, Txekiar Errepublikak, Errumania, Suedia, Kroazia.

(2): Europako gainerakoak: EBkoak ez diren Europako herrialdeak.

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.

Bidaiarien iritsierak eta ostatu-gauak izandako atzerakada hori partekatua izan da, baina kalte handiagoa eragin du nazioarteko kolektiboan nazio mailakoan baino. Hala, nazio mailako bidaiarien kopurua eta ostatu-gauen kopurua erdira murriztu da (-% 52 eta -% 50, hurrenez hurren), eta handitu egin dira, berriz, bidaiari atzerritarrena kopuruak (-% 73,3) eta horien ostatu-gauen (-% 74) jaitsierak. Hala, batez besteko egonaldiak 2,13 eta 1,98 egunetakoak izan dituzte, hurrenez hurren. Ondorioz, nazio mailako segmentuari igo egin zaio erreferentziatzko adierazleetan duen parte-hartzea, eta iritsieren eta ostatu-gauen % 72,2 eta % 73,5 dagozkio (2019an, biak % 59).

Datuetan sakonduz eta bidaiarien jatorriari begiratuta, EAE (% 18,1) sendotu egin da lehen posizioan, eta atzetik ditu Madril (% 14,7) eta Katalunia (% 10,7), eta hiru erkidego horiek daude ostatu-gauen kopuruan ere goiko postuetan (guztizkotik % 17,5, % 15,2 eta % 10,7, hurrenez hurren). Datu horien bilakaerari dagokionez, bidaiari kopuruaren beherakada eskualde guztietara iritsi da, baina euskal turistek jaitsiera apalagoa izan dute gainerakoek baino; izan ere, 2020an, gertuko turismoa beste aukera batzuei gailendu zaie. Turista atzerritarrei dagokienez, Frantzia da turista igorle nagusia (% 10,5), eta urrutitik

jarraitzen diote, askoz pisu txikiagoarekin, gainerako herrialdeek (Amerika % 2,7 eta Alemania eta Erresuma batua, biek, % 1,9). Agertokia antzekoa da ostatu-gauetan ere. Frantzia dago lehen postuan (% 8,1), eta atzetik ditu Amerika (% 3,1), Alemania (% 2,1) eta Portugal (% 1,9), atzerakadak izan baitituzte (Frantziak -% 49,7 eta Amerikak -% 85,1).

Arreta hiru Lurralde Historikoei eskainita, EAEn buruz azaldutako egoeraren oso antzekoa dute horiek ere. Honi erantsitako grafikoak erakusten du erreferentziazko adierazleek (bidaiariak eta ostatu-gauak) izan dute dinamismo-galera, aurreko ekitaldietatik zetorren goranzko joera nagusia etenda.

41. grafikoa Bidaiarien eta ostatu-gauen bilakaera, EAEn eta Lurralde Historikoetan 2017-2020



Iturria: Eustat.

Lurralde bakoitzak EAEko turismo-jarduera osoari egiten dion ekarpenari dagokionez, aipagarria da, sektoreko zifra nagusiek deskalabrua izan arren, aldaketa gutxi izan dela lurraldeen ekarpenean, turista kopuruari eta ostatu-gauei dagokienez. Hala, Gipuzkoak 592.902 bidaiari eta 1.212.166 ostatu-gau izan ditu; hau da, EAEko guztizkoen % 43,9 eta % 43,0, hurrenez hurren. Bizkaiak 568.587 bidaiari eta 1.176.976 ostatu-gau izan ditu, guztizkoaren % 42,1 eta % 41,7; eta Arabak, berriz, dimentsio txikiagoa izanik, 190.314 bidaiari (% 14,1) eta 430.920 ostatu-gau (% 15,3).

Lurralde bakoitzaren datuei begiratuta, bidaiarien sarrerak izandako jaitsiera % 56,6koa izan da Gipuzkoan; % 58,7koa, Araban, eta % 64,8koa, Bizkaian. Ostatu-gauei dagokienez, balioak % 54,6, % 57,9 eta % 63,2 jaitsi dira. Arabak izan du bilakaera "onena", eta atzetik izan ditu Gipuzkoa eta Bizkaia. Batez besteko egonaldia bi egun pasatxokoa izan da Gipuzkoan eta Bizkaian (2,04 eta 2,07), eta adierazle hori pixka bat altuagoa izan da Araban (2,26), atzeritarren segmentuak jokabide hobea izan duelako (2,30 egun).


221. koadroa Eskaera turistikoen bilakaera EAEn

Kontzeptua	Bidaiariak			Ostatu-gauak			Batez besteko egonaldia	
	2020	%	% Δ 20/19	2020	%	% Δ 20/19	2020	% Δ 20/19
Araba	190.314	14,1	-58,7	430.920	15,3	-54,6	2,26	9,9
Estatuko egoiliarak	155.042	81,5	-53,6	357.126	82,9	-48,9	2,30	10,2
Atzerriko egoiliarak	35.272	18,5	-72,0	73.794	17,1	-70,4	2,09	5,7
Bizkaia	568.587	42,1	-64,8	1.176.976	41,7	-63,2	2,07	4,5
Estatuko egoiliarak	424.929	74,7	-55,7	880.964	74,8	-53,2	2,07	5,8
Atzerriko egoiliarak	143.658	25,3	-78,1	296.012	25,2	-77,5	2,06	3,0
Gipuzkoa	592.902	43,9	-56,6	1.212.166	43,0	-57,9	2,04	-3,1
Estatuko egoiliarak	395.401	66,7	-46,4	835.631	68,9	-46,7	2,11	-0,8
Atzerriko egoiliarak	197.501	33,3	-68,6	376.535	31,1	-71,3	1,91	-8,8
EAE	1.351.803	100,0	-60,7	2.820.062	100,0	-59,8	2,09	2,3
Estatuko egoiliarak	975.372	72,2	-52,0	2.073.721	73,5	-50,0	2,13	4,2
Atzerriko egoiliarak	376.431	27,8	-73,3	746.341	26,5	-74,0	1,98	-2,8

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.

Datuetan sakonduta, eta honi erantsitako grafikoak erakusten duen moduan, nazio mailako segmentuari dagokionez, Arabako ostatu-gauen pisua, guztizkotik, bidaiarien pisua baino handiagoa da; Gipuzkoan antzekoa da, eta Bizkaian txikiagoa. Bestalde, atzeritarren kolektiboan, Arabak eta Bizkaiak gainetik dute ostatu-gauen ekarpena, eta Gipuzkoak, berriz, alderantzizko jokabidea izan du.


42. grafikoa Bidaiariak eta ostatu-gauak, lurraldeen eta merkatu-segmentuen arabera (%) 2020



Iturria: Eustat.

Bidaiarien eta ostatu-gauen bilakaera denbora-ikuspegi zabalagotik aztertuta ikusten da Covid-19aren krisiak sorrarazitako inpaktu hondatzailea, suntsitu egin baitu sektorearen dinamika EAEn. Historikoki, EAEko eskari turistikoak sasoiko profil argia izan du: urte hasieran izan ohi du jarduera gutxien, gero hiletik hilera igo egiten da, eta udan iristen da balio gorenetara, eta gero, urte amaierara arte, pixkanaka, atzera egiten du. Ekitaldi honetan, martxo, apiril eta maiatzean erabateko geldialdia izan, eta urtearen azken zatian, kutsatzeen olatu berriak etorri ahala, jarduera geldialdian egon ondoren, uztailetik irailera arteko aldian kontzentratu da eskari turistikoaren zati handi bat (bidaiarien % 42,6 eta ostatu-gauen % 42,9), nahiz eta Covid-aurreko balioetatik urruti egon; izan ere, garai haietan, urteko batezbestekoa 500.000 bidaiari eta 250.000 ostatu-gauren ingurukoa izaten zen.

43. grafikoa Bidaiari kopuruaren bilakaera eta ostatu-gauak, hilabeteka (EAE, 2018-2020)



Iturria: Establezimendu turistikoko hartzaileen inkesta (EUSTAT).

Eskaintza turistikoa

2020an, EAEko eskaintza turistikoa¹ 2.196 establezimenduk osatu dute; hau da, aurreko urtean baino 404 gehiago izan dira (apartamentu turistikoen gorakadak sustatuta), baina beheranzko birdimentsionatze handia izan da plazen eguneroko eskaintzan (-% 30,3) eta langileetan (-% 37,7).

2020a oso ezohikoa izan arren, hotelen sareak jarraitu du eskaintza nagusi izaten (establezimendu guztien % 78,4), hotelez kanpoko gainerako establezimenduekin alderatuta (apartamentu turistikoa, landa-ostatuak, Airbnb, oporretako etxebizitzak, etab.).

Azterketa sakondu, eta informazioa ostatu motaka bereizita, hotel sarearen eskaintza 600 establezimenduk osatu dute 2020an, 2019an baino 3 gutxiagok. Horietatik 136 hiru izarrekoak edo gehiagokoak izan dira (aurreko ekitaldian baino 8 gehiago), eta 465 bi izarrekoak eta pentsioak (2019an baino 11 gutxiago).

¹ Garrantzitsua da zehaztea, eskaintza dimentsionatzeko garaian urtean, gutxienez, egun batez irekita egondako establezimendu guztiak hartzen direla aintzat, eta 2020a hain ezohikoa izanda, zuhurtziaz tratatu behar da informazio hori.

222. koadroa Hotel-establezimenduen eskaintzaren bilakaera EAEn eta lurraldeka 2018-2020

Kontzeptua	2018	2019	2020	%	% Δ 20/19
Araba	72	70	68		-2,9
-Hiru izar edo gehiago	18	18	18	26,5	0,0
-Izar bat edo bi eta pentsioak	54	52	50	73,5	-3,8
Bizkaia	225	231	233		0,9
-Hiru izar edo gehiago	53	58	59	25,3	1,7
-Izar bat edo bi eta pentsioak	174	173	174	74,7	0,6
Gipuzkoa	296	302	299		-1,0
-Hiru izar edo gehiago	51	52	59	19,6	13,5
-Izar bat edo bi eta pentsioak	247	251	241	80,4	-4,0
EAE	593	603	600		-0,5
-Hiru izar edo gehiago	122	128	136	22,6	6,3
-Izar bat edo bi eta pentsioak	475	476	465	77,4	-2,3

Oharra: Hotel-establezimenduen urteko totalak hautatutako urtean gutxienez egun batez irekita egon diren establezimenduen kopurua ematen du.
Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzailleen Inkesta.

Hori esanda, hiru izar edo gehiagoko hotelen kategorian, Gipuzkoak 7 establezimendu gehitu ditu kategoria horretara; Bizkaiak, 1. Hala, bi lurraldeek establezimendu kopuru berdinarekin amaitu dute (59), eta Arabak, berriz, 18 establezimendurekin, aldaketarik gabe eutsi dio eskaintzari.

Beheragoko kategoriari dagokionez, Bizkaiak bakarrik izan du saldo positiboa, eskaintzara beste 1 establezimendu gehituta (174 establezimendu). Arabak eta Gipuzkoak, berriz, beherantz berregituratu dute haien eskaintza (2 eta 10 unitate gutxiago, hurrenez hurren). Aipatu beharra dago Gipuzkoan daudela izar bat edo biko establezimenduen eta pentsioen erdiak baino gehiago (% 51,8).

Azkenik, aipagarria da, ez duela ia aldaketarik izan establezimenduen kategoriakako banaketak: banaketa ia berdina izan da Araban eta Bizkaiaren (% 26 eta % 74 goragoko eta beheragoko kategorietan, hurrenez hurren), eta Gipuzkoan, berriz, 10 establezimendutik 8 izar bat edo bikoak eta pentsioak dira.

Hotel-sarearen bilakaera aztertu ondoren, gainerako establezimenduei buruzko datuekin osatzen da informazioa, eta hor sartzen dira landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak. Hala, Arabak indartu egin du hotelen eskaintza, 101 landa-ostatu (+2) eta 251 apartamentu turistiko eskainita (-2); Gipuzkoak 183 landa-ostatu (+2) eta 620 apartamentu turistiko (+347) eskaini ditu; eta Bizkaiak 117 landa-ostatu (-5) eta 324 apartamentu turistiko (+63).

Lurralde bakoitzaren ekarpenari begiratuta, Arabak parte-hartze txikiagoa izan du erabilgarri jarritako establezimenduetan (EAEko guztizkotik % 19,1), egunero eskainitako plaza kopuruan (% 17,3) eta sektoreari lotutako enpleguan (% 13,4). Urruti dago Gipuzkoaren (% 50,2, % 39,2 eta % 43,5) eta Bizkaiaren (% 30,7, % 43,6 eta % 43,1) balioetatik. Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea hotel-sareak gainerako

establezimenduen aldean enplegua sortzeko duen gaitasuna; Araban, sektoreko enpleguaren % 71,7 dagokio; Bizkaian, % 87,9, eta Gipuzkoan, % 83,8.

Era berean, adierazleen bilakaerari begiratuta, ekitaldiko balantzea, aztertutako hiru adierazleetan, negatiboa da Araban. Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, negatiboa da hirutik bi adierazletan (eskainitako plaza kopurua eta enplegua), eta beherakada handiak izan dituzte, bi digitukoak.

223. koadroa EAEko eskaintza turistikoaren bilakaera. Urteko batezbestekoa

Kontzeptua	Hotel-establezimenduak*			Landa-ostatuak			Apartamentu turistikoak			GUZTIRA		
	2019	2020	% Δ 20/19	2019	2020	% Δ 20/19	2019	2020	% Δ 20/19	2019	2020	% Δ 20/19
Araba												
Establezimenduak	70	68	-2,9	99	101	2,0	253	251	-0,8	422	420	-0,5
Eskainitako plazak, egunetan	4.187	2.898	-30,8	969	715	-26,2	932	816	-12,4	6.088	4.429	-27,3
Langileak	489	302	-38,2	113	87	-23,0	37	32	-13,5	639	421	-34,1
Bizkaia												
Establezimenduak	231	233	0,9	122	117	-4,1	261	324	24,1	614	674	9,8
Eskainitako plazak, egunetan	14.217	9.381	-34,0	1.237	868	-29,8	923	917	-0,7	16.377	11.166	-31,8
Langileak	2.057	1.188	-42,2	140	106	-24,3	69	57	-17,4	2.266	1.351	-40,4
Gipuzkoa												
Establezimenduak	302	299	-1,0	181	183	1,1	273	620	127,1	756	1.102	45,8
Eskainitako plazak, egunetan	11.530	7.821	-32,2	1.931	1.462	-24,3	870	754	-13,3	14.331	10.037	-30,0
Langileak	1.842	1.142	-38,0	219	170	-22,4	61	50	-18,0	2.122	1.362	-35,8
EAE												
Establezimenduak	603	600	-0,5	402	401	-0,2	787	1.195	51,8	1.792	2.196	22,5
Eskainitako plazak, egunetan	29.933	20.101	-32,8	4.137	3.046	-26,4	2.724	2.486	-8,7	36.794	25.633	-30,3
Langileak	4.388	2.632	-40,0	471	362	-23,1	167	138	-17,4	5.026	3.132	-37,7

(*): Irekitako hotel-establezimenduak.

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta. Irekitako hotel-establezimenduak*.

Informazioan sakonduta, eta hotel-establezimenduen okupazioari dagokionez, adierazle hau Bizkaiko % 30,5aren eta Gipuzkoako % 35,8aren artean dabil. Hiriburuetan lurraldeko emaitzaren zertxobait gainerik daude. Zehatzago esanda, Donostia dago lehen postuan (% 38,7), eta atzetik ditu Gasteiz (% 32,5) eta Bilbo (% 31,4); guztiak ere ohiko okupazio-indizeetatik oso urruti.

224. koadroa Batez besteko egonaldia eta okupazio maila, establezimendu motaren eta zonalde geografikoaren arabera.

Kontzeptua	Hotel-establezimenduak			
	Batez besteko egonaldia		Okupazio maila (plazak)	
	2019	2020	2019	2020
Araba	1,89	1,96	51,6	31,9
Gasteiz	1,98	2,07	53,3	32,5
Arabar Errioxa	1,60	1,65	53,1	35,1
Arabako gainerako zonaldeak	1,75	1,76	42,2	27,4
Bizkaia	1,93	1,99	56,6	30,5
Bilbo	1,92	1,88	61,7	31,4
Bilboko metropoli-eremua (*)	1,84	2,17	50,9	29,1
Bizkaiko kostea	2,07	2,18	51,2	33,7
Bizkaiko barnealdea	2,14	2,28	44,2	24,0
Gipuzkoa	2,03	1,90	60,4	35,8
Donostia	2,06	1,87	67,3	38,7
Donostiako metropoli-eremua (*)	2,02	2,09	47,3	30,8
Gipuzkoako kostea (*)	1,74	1,73	60,4	41,4
Gipuzkoako barnealdea	2,57	2,46	45,9	22,6

(*): Hiriburuak ez dira sartzen.
Iturria: Eustat.

Hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldiari lurraldeka begiratuta, ratorik altuena Bizkaian dute (1,99), eta atzetik daude Araba (1,96) eta Gipuzkoa (1,90). Gasteiz izan da batez besteko egonaldi luzeenaren datua lortu duen hiriburua (2,07). Bilbok 1,88ko datua lortu du eta Donostiak 1,87koa, eta Gipuzkoa eta Bizkaiko barnealdeko lekuetan izan dira baliorik altuenak (2,46 eta 2,28, hurrenez hurren).

Azkenik, errentagarritasun-adierazle moduan kontuan hartu beharrekoa da, hoteletako bidaiarien inguruko informazioaz, ostatu-gauetz, establezimenduez, edukieraz eta okupazio mailaz gain, hileko batez besteko tarifa ere.

Garai arruntetan, ADR delakoaren gorabeherak eskariaren urtarokotasunari lotuta egoten dira, eta puntu gorena abuztuan, eta baxuena otsailean izaten dute. Hala ere, urtea ezohikoa izan denez, balio baxuenak apirilean eta maiatzean izan dira, herritarren konfinamenduaren eta jardueren gelditzearen garai gogorrean. Espero litekeen moduan, eskaria bultzatzeko, hiru Lurralde Historikoez doitu dituzte tarifak; baita establezimenduen kategoria guztiek ere. EAEn guztizko emaitzak aintzat hartuta, prezioetako doitzeek % 10 erraz gainditzen dute, izar bakarrekoen kategorian izan ezik (-% 8,0), eta jaitsiera handiena kategoria gorenak izan du; hau da, lau eta bost izarreko hotelek (-% 23,7).

225. koadroa Hileko batez besteko tarifa (ADR) EAEko hotel-establezimenduetan, lurralde historiko eta kategorien arabera. Euroak

Kontzeptua	Hotel-establezimenduak		
	2019	2020	% Δ 20/19
Araba	72,44	61,24	-15,5
Hiru izar edo gehiago	84,00	72,84	-13,3
Izar bat edo bi eta pentsioak	52,58	47,33	-10,0
Bizkaia	85,82	66,92	-22,0
Hiru izar edo gehiago	97,78	78,59	-19,6
Izar bat edo bi eta pentsioak	58,59	49,84	-14,9
Gipuzkoa	109,67	85,04	-22,5
Hiru izar edo gehiago	134,90	101,69	-24,6
Izar bat edo bi eta pentsioak	77,05	65,74	-14,7
EAE	93,44	72,62	-22,3
Lau eta bost izar	123,90	94,54	-23,7
Hiru izar	75,09	65,00	-13,4
Bi izar	73,80	61,95	-16,1
Izar bat	69,89	64,32	-8,0
Pentsioak	59,81	48,48	-18,9

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzalleen Inkesta.

Hala eta guztiz ere, sektoreak suspertzearen zain jarraitzen du. Hasieran, 2021eko bigarren erdirako espero zen, baina badirudi gehiago luza daitekeela. Pandemiaren aurreko mailetara itzultzeko, batetik, eskaria berreskuratu behar da, eta eskaria txertaketaren erritmoaren eta herrialde igorleek bidaiatzeko ezartzen dituzten murrizketen mende dago. Bestetik, administrazioen erabateko babesa ere beharrezkoa da, finantza-babesa eta babes estrategikoa, turismoa industria moderno eta jasangarri bihurtzeko.



6. FINANTZA SEKTOREA

1. IKUSPEGI OROKORRA

2020a berezia izan zen, eta hori islatuta geratu da herrialdeen eta pertsonen errealitate ekonomikoan, errealitate sozialean eta eguneroko bizitzan. Beste krisialdi batzuen kasuan ez bezala, pandemia honek (covid-19) sortutako krisiak ez zuen zerikusirik jarduera ekonomikoarekin eta finantzarioarekin, eta, zalantzarik gabe, krisi globala izan zen. Beste bi faktore espezifiko ere izan zituen krisialdiak. Batetik, egoeraren etengabeko jarraipena egin zen (ia) dimentsio guztietan. Bestetik, adostasuna lortu zuten politika ekonomikoko neurriak azkar hartzeko (neurri monetarioak, fiskalak eta finantzarioak), krisialdiaren eragin ekonomikoa eta enpleguan izandako eragina gutxitzeko.

Instituzioen arteko jarduerari eta finantza-merkatuei dagokienez, sistemari baliabide likidoak ematera bideratutako ekintzak nabarmendu behar dira, banku zentralak antolatuak. Erreserba Federala eta Europako Banku Zentrala nabarmentzen dira. Bestetik, ekintza horiez gain, ekonomia suspertzera bideratutako laguntza zuzenen pakete ezberdinak ere jarri zituzten martxan. Horien artean, Next Generation EU (GNEU) funtsak nabarmentzen dira, zenbatekoarengatik eta aplikatzeko gertutasunarengatik.

Zeharkako euskarri horrez gain, herrialde bakoitzak laguntzeko neurri zuzenak jarri zituen martxan, mugikortasunerako eta harreman sozialetarako murrizketen ondorioz jardueran izandako geldialdia konpentsatzeko. Espainian martxan jarritako neurrien artean, ABEEEak nabarmentzen dira, aurreko krisialdietan ez bezala. Izan ere, jarduera asko murriztu arren, pertsonen enpleguarekiko lotura mantentzea lortu zuten ABEEE-ek. Hain zuzen ere, jardueraren suspertze eraginkorra izan zen giltzarria. Apirilean 3,4 milioi pertsona zeuden ABEEE egoeran, eta abenduan 0,7 milioi pertsona. Dena den, inpaktua desberdina izan zen jardueraren arabera.

Pandemiaren eragina oso nabaria izan zen urtearen bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan. Kutsatzeek jarraitzen dutenez (olatuak), atzeratu egin da 2020ko laugarren hiruhilekorako espero zen suspertzea. Dena den, badirudi 2021eko apirilean baieztatzen ari dela suspertze hori. Testuinguru horretan, 2020an zehar etengabe doitu behar izan zituzten aurreikuspenak eta suspertzearen erritmoa eta maila (2021 eta 2022rako). Dena den, nolabaiteko adostasuna dago honen inguruan: BPGa eta enplegua 2022an iritsiko dira pandemiaren aurreko mailara, eta herritarrek immunizazioa lortzearen arabera (txertaketa-planak) izango da suspertze hori. Hain zuzen ere, immunizazioa da normaltasunera itzultzeko eta jarduera berreskuratzeko bermea.

Egoera horrek eragina izan zuen Espainiako gordailu-erakundearen ibilbidean. Kreditua oso lagungarria izan zen kreditu-erakundearen balantzea hobetzeko. Eremu pribatuak hazkunde apalagoa izan zuen (1,22 bilioi euro, +% 2,6), eta aurreko krisialdian baino zor-egoera hobea zuen krisi honi aurre egiteko (2008an 1,87 bilioi euro). Baina, batez ere, familien

aurrezki-tasak zifra historikoa lortu zuen¹. Ondorioz, hazi egin ziren sektore pribatuko kreditu-erakundeen gordailuak (+% 9,1 eta +% 5,2, Espainian eta EAEn).

44. grafikoa Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra*



(*): Eguneko batez besteko balioen batezbestekoa.
Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Covid gaitzaren pandemiaren ondorioz, 2020an ziurgabetasun eta aldakortasun maila handiak izan ziren, eta horrek guztiz baldintzatu zuen urte hartako burtsa-jarduera. Testuinguru horretan, 2020an joera ezberdinak izan zituzten burtsako indize nagusiek, baina, kasu guztietan, 2019an baino datu okerragoekin. Batetik, IBEX-35 (-% 15,5) eta Erresuma Batuko FTSE (-% 14,3) indizeek izandako jaitsierak nabarmentzen dira. CAC-40 (-% 7,1) eta Eurostoxx 50 (-% 5,1) indizeek ere behera egin zuten, baina apur bat gutxiago. Dax-Xetrak, berriz, bilakaera positiboarekin itxi zuen urtea (+% 3,5). Bestetik, Estatu Batuetako merkatuek hazkunde handia izan zuten, martxoko beherakadaren ondotik. Dow Jones (+% 7,2) eta Nasdaq Composite (+% 43,6) indizeek irabaziak izan zituzten, eta Japoniako Nikkei indizeak ere gora egin zuen (+% 16,0).

226. koadroa Burtsa-indize nagusien bilakaera

Urtea	Ibex-35 (Madril)	CAC-40 (Paris)	Dax-Xetra (Frankfurt)	FT-SE 100 (Londres)	Dow Jones (New York)	Nikkei (Tokio)	Eurostoxx 50	Nasdaq Composite
2018	8.539,9	4.730,7	10.559,0	6.728,1	23.327,5	20.014,8	3.001,4	6.635,3
2019	9.549,2	5.978,1	13.249,0	7.542,4	28.538,4	23.656,6	3.745,2	8.972,6
2020	8.073,7	5.551,4	13.718,8	6.460,5	30.606,5	27.444,2	3.552,6	12.888,3
<i>Urte batetik besterako aldakuntza (%)</i>								
2018	-15,0	-11,4	-18,7	-11,7	-6,1	-12,2	-14,8	-4,5
2019	11,8	26,4	25,5	12,1	22,3	18,2	24,8	35,2
2020	-15,5	-7,1	3,5	-14,3	7,2	16,0	-5,1	43,6

Oharra: Abenduaren 31n.

Iturria: Ekonomia Adierazleen datu-basea. Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

¹ Espainiako familien aurrezki-tasa –errenta gordin erabilgarriaren gainean– % 14,6koa izan zen 2020an. 2019an eta 2018an, berriz, % 6,3koa eta % 5,7koa (EIN). Kontsumoa murriztu zelako eta ziurgabetasunaren aurrean jendeak aurreikuspenaren alde egin zuelako hazi zen aurrezki-tasa.

Gizarte osoaren digitalizazioak izandako bizkortzea izan zen 2020ko gertakaririk esanguratsuenetakoa bat. Finantza-zerbitzu birtualek bultzada garrantzitsua jaso zuten. Horren ondorioz, eta bankuetan egindako berrantolaketen eraginez, behera egin zuen erakunde kopuruak, batez ere, banku-bulegoen kopuruak. Zehazki, 2015ean baino 26 gordailu-erakunde gutxiago zeuden 2020an Espainian; horietatik 4 azken ekitaldian itxi zituzten. Bestetik, aldi horretan 374, 117 eta 8.622 bulegoren galera garbia izan zuten EAEn, Nafarroan eta Espainian. Batez beste, urtean 75, 23 eta 1.724 bulego gutxiago, hurrenez hurren. 2020an 71, 7 eta 1.552 bulegokoa izan zen galera garbia, aurreko urteetako antzekoa.

227. koadroa Kreditu-erakundeak eta EFC

Kontzeptua	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Erakunde kopurua. Guztira	262	250	245	238	232	226
Gordailu-erakundeak	217	206	205	198	195	191
Espainiako gordailu-erakundeak	135	124	122	115	114	113
EFC/ECAOL	44	43	39	39	36	34

Oharra: Erakunde kopurua. Guztizkora arteko aldea atzerriko sukurtsalei (gordailu-erakundeak) eta kreditu ofizialari (1 erakunde) dagokie.

Iturria: Espainiako Bankua.

228. koadroa Gordailu-erakundeak. Bulego kopurua

Urtea	EAE	Nafarroa	Espainia
2015	1.522	569	30.921
2016	1.426	531	28.643
2017	1.361	508	27.320
2018	1.314	485	26.011
2019	1.219	459	23.851
2020	1.148	452	22.299

Iturria: Espainiako Bankua.

Azkenik, testuinguru horretan, eta gero eta digitalagoa den gizarte bati arreta emateko zerbitzu birtualak eskaintzearen erronkarekin lotuta, 2020an finantza-jarduerari lotutako enplegua doitzen jarraitu zuten, eta hala jarraituko dute 2021ean ere.

229. koadroa Afiliazioa finantza-jardueretan

Urtea	Finantza- eta aseguru-jarduerak			Finantza-jarduerak, aseguruak eta pentsio-funtsak izan ezik		
	EAE	Nafarroa	Espainia	EAE	Nafarroa	Espainia
2017	13.696	3.358	320.856	8.889	2.372	209.215
2018	13.715	3.374	322.402	8.891	2.401	207.022
2019	13.585	3.254	319.956	8.730	2.265	203.334
2020	13.258	3.302	318.834	8.521	2.307	201.961

Oharra: Afiliazioa, urte bakoitzeko abenduaren 31n. Erregimen orokorra.

Iturria: Gizarte Segurantzaren eta SEPE.

2. KREDITU-ERAKUNDEAK

2.1 KREDITUAREN BILAKAERA

Kredituaren bilakaera Estatuan

Kreditu-erakundeen balantzeak nabarmen handitu ziren 2020an, neurri handi batean, agintariek pandemiaren eraginei aurre egiteko martxan jarritako likidezia finantzarioko programen ondorioz. Hala, kreditu-erakundeen aktiboa 2,82 bilioi eurora igo zen Estatu mailan; igoera handia izan zen, 2019arekin alderatuta (+% 8,0) eta bilakaera horrek modu argian hautsi zuen 2008ko krisialdiaz geroztik gertatutako desapalankamendu-finantzarioko prozesua.

Kredituaren bilakaerari esker hazi zen, hein handi batean, kreditu-erakundeen balantzea. 2020aren itxieran 1,93 bilioi eurokoa zen haien saldoa, eta 2019an 1,74 bilioi eurokoa (+% 10,7). Eraitza horrek agerian uzten du kreditu berriek sortutako saldoa handiagoa izan zela emandako kredituen amaiera-eritmoa baino. Ondorioz, eragile ekonomikoen zorpetzea islatzen du. Joera hori 2019az geroztik ikus zitekeen, baina 2020an areagotu egin zen. Bestetik, akzioak eta partaidetzak ez diren baloreek ere urte arteko igoera izan zuten (+% 9,3), eta 0,35 bilioi euroko saldoa eskuratu zuten. Sektorizatu gabeko aktiboen (-% 1,8) eta akzioen eta partaidetzen (-% 0,5) partiden jarduera, berriz, jaitsi egin zen, eta 0,30 eta 0,25 bilioi eurotan kokatu ziren, hurrenez hurren.

Aktiboaren egitura egonkor mantendu zen aztertutako aldian. Kredituari dagokio jardueraren zatirik handiena (% 68,3); jarraian, akzioak eta partaidetzak ez diren baloreak (% 12,3), sektorizatu gabeko aktiboak (% 10,6) eta akzioak eta partaidetzak (% 8,9) izan ziren. 2019arekin alderatuta, kreditu-jardueraren pisua hazi egin zen (ehuneko +1,7 puntu), akzioak eta partaidetzak ez diren baloreen ekarpena mantendu (ehuneko +0,1 puntu), eta behera egin zuten sektorizatu gabeko aktiboaren pisuak (ehuneko -1,1 puntu) eta akzioen eta partaidetzen ekarpenak (ehuneko -0,8 puntu).

230. koadroa Kreditu-erakundearen aktiboaren osaera

Kontzeptua	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Guztira	2.760.089	2.646.981	2.652.154	2.575.633	2.612.781	2.822.237
Kredituak	1.767.655	1.718.815	1.766.467	1.726.181	1.740.034	1.926.952
Balioak, ez akzioak ez partaid.	415.493	365.826	329.531	326.042	316.424	345.785
Akzioak eta partaidetzak	246.274	243.811	259.266	236.416	252.012	250.781
Sektorizatu gabeko aktiboak	330.667	318.529	296.890	286.994	304.311	298.719

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Beste sektore egoiliar batzuei (BSE) dagokien saldoa izan zen kredituaren partida nagusia (% 63,5). 2020an 1,22 bilioi eurora igo zen partida hori, urte arteko hazkunde apal batekin (+% 2,6). Nolanahi ere, bolumen hori aurreko krisialdiko baina askoz txikiagoa da. Aldi hartan, familiei eta enpresei emandako kreditua 1,87 bilioi eurokoa izan zen (2008. urtean). Horrek erakusten duenez, enpresek eta familiek finantza-egoera hobea dute oraingo krisiari aurre egiteko. Era berean, kreditu-erakundeen kaudimena eta balantzeen kalitatea hobea dira. Dena den, enpresen eta familien diru-sarrerak murriztearen ondoriozko berankortasunaren hazkunde potentzialak eta luzamenduak eta abaldun mailegurik gabeko aldiak amaitzeak baldintzatu egin ditzakete kreditu-erakundeen balantzeak 2021ean.

Bestetik, sistemari berari bideratutako kredituak urte arteko hazkunde handia izan zuen (+% 72,3), eta 328.167 milioi euroko saldoarekin itxi zuen 2020a. Halaber, hazi egin zen administrazio publikoei emandako kreditua (+% 15,4), bai eta sektore ez-egoiliarrei bideratutakoa (+% 2,8), neurri txikiagoan bada ere. Guztira, 77.198 eta 297.154 milioi euroko saldoak izan zituzten, hurrenez hurren. Azken finean, eragile ekonomiko guztiek hedatu zuten haien kreditu-zorroa 2020an, eta kreditu-sistemaren beraren dinamismoa nabarmendu zen.

Kredituaren egiturari dagokionez, beste sektore egoiliar batzuen partidarena (edo sektore pribatuarena) izan zen jardueraren zatirik handiena (% 63,5). Kreditu-sistema (% 17,0), sektore ez-egoiliarra (% 15,4) eta Administrazio Publikoa (% 4,0) izan ziren hurrengoak. Dena den, sektore pribatuaren ekarpena murriztu egin zen 2019arekin alderatuta (ehuneko -5,0 puntu), baita kanpo-jardueraren ekarpena ere (ehuneko -1,2 puntu). Kreditu-sistemaren pisua (ehuneko +6,1 puntu), berriz, nabarmen handitu zen, eta sektore publikoarena (ehuneko +0,2 puntu) mantendu.

231. koadroa Kreditu-erakundeak. Kreditua agenteen arabera

Kontzeptua	(Meuro)					
	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Guztira	1.767.655	1.718.815	1.766.467	1.726.181	1.740.034	1.926.952
Kreditu-sistema	164.206	163.053	234.694	211.861	190.494	328.167
Administrazio Publikoa	89.972	88.471	78.110	68.956	66.922	77.198
Beste sekt. egoiliarrak	1.327.123	1.276.140	1.253.944	1.208.315	1.193.526	1.224.433
Beste ez-egoiliar batzuk	186.354	191.151	199.719	237.049	289.092	297.154

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Kredituaren jomuga Estatuan

Beste sektore egoiliar batzuei emandako kreditua hauen bidez bideratzen da: merkataritza-kreditua, eperako beste zordun batzuk¹ eta beste mailegu batzuk (ageriko zordunak, errentamendu finantzarioa eta kobrantza zalantzarriko kredituak).

2008az geroztik lehen aldiz, hazi egin zen eperako beste zordun batzuen kreditu-zorroa 2020an (+% 4,2), eta 1,08 bilioi eurora iritsi zen. Dena den, 2008ko zorpetze mailatik behera geratu zen (2008an 1,64 bilioi euro; 2020an % 34,2 gutxiago). Portaera horrek baieztatu egin zuen aldi horretan erregistratutako despalankamendu finantzarioaren prozesua. Bestetik, merkataritza-kredituak behera egin zuen, 2019arekin alderatuta (-% 16,6), baita beste mailegu batzuen partidak ere (-% 3,8). Nolanahi ere, eperako beste zordun batzuen hazkundeak (+% 4,2) konpentsatu egin zuen jaitsiera hori, eta, ondorioz, hazi egin zen sektore pribatura bideratutako kreditua (+% 2,6).

Hala, eperako beste zordun batzuen ekarpena indartu egin zen (guztizkoaren % 88,0), beste mailegu batzuen (% 8,6) eta merkataritza-kredituaren (% 3,4) aurrean.

232. koadroa Kreditu-erakundeak. Kredituak, motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

Kontzeptua	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Guztira	1.327.123	1.276.140	1.253.944	1.208.315	1.193.526	1.224.433
Merkataritza-kreditua	42.640	45.058	48.764	48.723	50.561	42.162
Eperako beste zordun batzuk	1.098.012	1.064.196	1.047.827	1.037.809	1.034.061	1.077.559
Beste mailegu batzuk	186.471	166.886	157.353	121.783	108.904	104.712

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Bestetik, gordailu-erakundeek² emandako kreditua 1,17 bilioi eurora iritsi zen 2020an, hau da, urte arteko bilakaera positiboa izan zuen (+% 3,5). Horrek hautsi egin zuen 2009az geroztiko beheranzko joera jarraitua. Hala ere, 2009an eskuratutako balio maximoa baino % 34,5 baxuagoa izan zen 2020ko bolumena. Horrek agerian uzten du aldi horretako despalankamendu finantzarioa.

Bilakaera ezberdina izan zen emandako kredituaren helburuaren arabera. Ekoizpen-jarduerak (+% 8,2) eta kontsumo iraunkorreko ondasunak (+% 16,6) finantzatzera bideratutako kreditu-eragiketa berriek gora egin zuten, baina murriztu egin zen etxebizitzak erosteko eta birgaitzeko (-% 1,3) eta beste helburu batzuetarako (-% 4,0) emandako kredituen saldoa. Hala, hauek izan zuten pisurik handiena: enpresa-

¹ 2017az geroztik, Espainiako Bankuak ez du informazio bereizirik eskaintzen eperako beste zordun batzuen inguruan, berme erreal batean oinarritzen diren kredituei dagokienez, eta, horien barruan, hipoteka modalitatearen pean sinatutakoak. Aldaketa hori Europar Batasuneko sailkapen-eredurako egokitzapena dela-eta gertatu da (Europako Banku Zentrala).

² Kreditu-erakundeen azpitaldea, bankuek, aurrezki-kutxek eta kreditu-kooperatibek osatua.

finantzazioa (% 47,2), etxebizitzak erostea eta birgaitzea (% 42,0), "beste batzuk" (% 6,6) eta kontsumo iraunkorreko ondasunei dagokien kreditua (% 4,2).


Dena den, aipatzekoa da aintzat hartutako jardueren kreditu-saldoa 2009koa baino baxuagoa izan zela. Kontsumo iraunkorreko ondasunen kreditu-saldoa baino ez zen igo 2009arekin alderatuta. Zehazki, ekoizpen-jardueretara, etxebizitzak erostera eta birgaitzera eta beste helburu batzuetara bideratutako kreditua 2009an baino % 42,9, % 23,6 eta % 42,2 baxuagoa izan zen, hurrenez hurren. Kontsumo iraunkorreko ondasunen saldoaren bolumena, berriz, 2009koa baino % 11,3 handiagoa izan zen.

233. koadroa Gordailu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

Kontzeptua	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Guztira	1.274.656	1.222.541	1.199.079	1.150.231	1.135.590	1.174.944
Ekoizpen-jarduerak	619.954	582.060	570.220	523.942	512.107	554.073
Etxebizitzak erostea eta birgaitzea	541.032	524.780	511.355	508.235	500.474	493.951
Kontsumo iraunkorreko ondasunak	20.576	24.464	30.975	35.418	42.635	49.727
Beste kreditu batzuk	93.094	91.237	86.529	82.636	80.374	77.193

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

45. grafikoa Gordailu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Kredituaren bilakaera EAEn eta Nafarroan

EAEko eta Nafarroako kreditu-jarduerak urte arteko hazkundea izan zuen 2020an (+% 2,4 eta +% 8,1, hurrenez hurren). Hala, Euskal Herriko kreditu-saldoak +% 3,5 egin zuen gora, eta 87.526 milioi eurora iritsi zen. EAEn kasuan, Bizkaiko eta Gipuzkoako kreditu-saldoek gora egin zuten (+% 1,7 eta +% 5,0, hurrenez hurren). Arabakoak, berriz, behera egin zuen apur bat (-% 0,3).

Estatu mailan ere hazi egin zen kreditu-jarduera (+% 4,2). Sektore publikoari emandako kreditu-saldoak (+% 16,6) zein sektore pribatuari emandakoak (+% 3,5) izan zuten eragina igoera horretan. Hain zuzen ere, sektore pribatuaren kreditu-saldoa izan zen kredituaren partida nagusia (guztizkoaren % 94,0). Hala, Estatuko kreditu-saldo bizia 1,25 bilioi eurokoa izatera iritsi zen 2020an. Euskal Herrian ere joera berdina izan zen, eta bi bezero-segmentuek –sektore publikoa eta pribatua– eragin zuten kreditu-jardueraren hazkundera (+% 10,2 eta +% 2,7, hurrenez hurren). Dena den, apur bat murriztu zen Euskal Herriak Estatuko kredituaren guztizkoari egindako ekarpena; % 7,0ra jaitsi zen ekarpen hori (2019an % 7,1ekoa izan zen). Izan ere, Estatuan baino gutxiago hazi zen kredituaren bolumena Euskal Herrian (Euskal Herrian +% 3,5 eta Estatuan +% 4,2). Portaera hori sektore publikoari zein pribatuari dagokio. Dena den, sektore publikoak Estatuari egindako ekarpena (% 12,7) nabarmen handiagoa izan zen sektore pribatuak egindakoa baino (% 6,6).

234. koadroa Gordailu-erakundeak. Kreditua, agenteen eta lurraldearen arabera


<i>(Meuro)</i>				
Lurraldea	Urtea	AP	BSE	GUZTIRA
Araba	2018	1.369	7.699	9.068
	2019	1.234	7.477	8.711
	2020	1.240	7.442	8.683
Bizkaia	2018	5.329	35.535	40.864
	2019	5.472	35.122	40.595
	2020	5.806	35.489	41.295
Gipuzkoa	2018	450	18.085	18.535
	2019	912	18.298	19.210
	2020	1.103	19.074	20.178
EAE	2018	7.148	61.319	68.467
	2019	7.618	60.897	68.515
	2020	8.149	62.005	70.154
Nafarroa	2018	1.100	15.052	16.152
	2019	982	15.082	16.063
	2020	1.327	16.044	17.372
Euskal Herria	2018	8.248	76.371	84.619
	2019	8.600	75.979	84.578
	2020	9.476	78.049	87.526
Espainia	2018	65.740	1.150.228	1.215.968
	2019	63.786	1.135.590	1.199.375
	2020	74.357	1.174.944	1.249.301

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

EAEn gora egin zuen kreditu-jarduerak (+% 2,4), sektore publikoaren zein pribatuaren kreditu-jarduera hazi baitzen (+% 7,0 eta +% 1,8). Kasu honetan ere sektore pribatuari dagokio jardueraren zatirik handiena (guztizkoaren % 88,4). Beste sektore egoiliar batzuei emandako kredituari dagokionez, zehazki, Gipuzkoan (+% 4,2) eta Bizkaian (+% 1,0) izandako gorakadak nabarmentzen dira; Araban, berriz, apur bat behera egin zuen (-% 0,5). Bestalde, sektore publikoak aldakuntza positibokoekin itxi zuen urtea hiru lurraldeetan: Gipuzkoa (+% 20,9), Bizkaia (+% 6,1) eta Araba (+% 0,5).

Lurralde bakoitzak EAEko kreditu-jarduerari egin zion ekarpenak¹ agerian uzten du Bizkaiaren garrantzia (% 58,9); Gipuzkoa da hurrengoa (% 28,8) eta Araba azkena (% 12,3). Banaketa hori mantendu egin zen sektore pribatuan ere. Bizkaiak egin zuen ekarpenik handiena (% 57,2), eta atzetik kokatu ziren Gipuzkoa (% 30,8) eta Araba (% 12,0). Sektore publikoan, ordea, Bizkaiaren nagusitasuna are handiagoa izan zen (% 71,2), eta Arabaren pisua (% 15,2) handiagoa izan zen Gipuzkoarena (% 13,5) baino.

Azkenik, beste sektore egoiliar batzuekin lotutako desapalankamendu finantzarioaren prozesua erakusten du atxikitako grafikoak. Ikus daitekeenez, 2013. urtera arte zifrak doitzen joan ziren, eta handik aurrera, pixkanaka, murriztu egin zen intentsitatea; 2020an positiboak izan ziren urte arteko aldakuntzak. Enpresak eta familiak zorpetze-egoeratik ateratzen ari direla erakusten du egoera horrek, eta 2008ko krisialdian hasitako desapalankamendu-prozesua amaitu dela iradokitzen du.



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Beste adierazle batzuk: hipoteken eraketa eta ibilgailuen matrikulazioa

Etxebizitza bat erosteko Estatu osoan gauzatutako hipoteken kopuruak nabarmen egin zuen behera 2020an. Zehazki, 333.721 hipoteka gauzatu ziren, 2019an baino askoz

¹ Ezin da zuzenean lurralde bakoitzeko agenteek emandako kreditu gisa hartu. Izan ere, entitateek lurralde bakoitzari egindako esleipenean oinarritzen da (bulegoen finkapenaren eta jardueraren araberakoa). Egoitzarekin lotura duten faktoreek ere eragina dute. Kredituaren lurraldekako banaketa honetan badirudi Bizkaiak neurritz kanpoko ordezkariak duela (% 58,9), BPGari egiten dion lurralde-ekarpina kontuan izanda (% 50,5). Gipuzkoak eta Arabak, berriz, kredituaren esleipen-kuota baxuagoak dituzte (% 28,8 eta % 12,3), BPGan duten partaidetzarekin alderatuta (% 33,7 eta % 15,8).

gutxiago (-% 7,6 eta 27.570 hipoteka gutxiago). Hala, 2014an hasitako hobekuntza-sekuentzia amaitu zen.

Dena den, EAEn hazi egin zen hipoteka berrien kopurua berriro ere, baina aurreko ekitaldian baino apalago. Hain zuzen ere, 2020an 19.254 hipoteka eratu zituzten, 2019an baino +% 1,5 gehiago. 2014 eta 2019 artean, berriz, urtean +% 8,1 egiten zuen gora hipoteka berrien kopuruak, batez beste. Bestetik, Nafarroan asko jaitsi zen hipoteka berrien kopurua 2020an (-% 15,6); 3.804 hipoteka berri eratu zituzten, guztira. Aurreko ekitaldian ere behera egin zuten hipotekek (-% 4,9).

Funtsean, jarduerak urte osoan zehar izandako geldialdia erakusten du adierazle honek. Hala, bigarren seihilekoko susperraldia ez zen nahikoa izan datuei buelta emateko Estatuan eta Nafarroan, baina bai EAEn.

Atzera begiratuta, hipoteka gehien eratu ziren urtearekin alderatua (2006), jaitsiera oso esanguratsua da kontuan hartutako hiru eremuetan. Zehazki, % 75,1 (Estatuan), % 55,6 (EAEn) eta % 71,4 (Nafarroan) jaitsi zen hipoteka berrien kopurua.

235. koadroa Etxebizitzaren gaineko hipoteka berrien eraketa

Kontzeptua	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Espainia						
Hipoteka kopurua	246.767	282.707	312.843	348.326	361.291	333.721
Zenbatekoa guztira (milioi €)	26.339	31.037	36.665	43.285	45.383	45.020
<i>Batez besteko zenbatekoa (mila €)</i>	<i>106,74</i>	<i>109,79</i>	<i>117,20</i>	<i>124,27</i>	<i>125,61</i>	<i>134,90</i>
EAE						
Hipoteka kopurua	14.283	15.574	16.799	18.169	18.961	19.254
Zenbatekoa guztira (milioi €)	1.852	2.049	2.231	2.555	2.734	2.836
<i>Batez besteko zenbatekoa (mila €)</i>	<i>129,65</i>	<i>131,59</i>	<i>132,83</i>	<i>140,63</i>	<i>144,20</i>	<i>147,31</i>
Nafarroa						
Hipoteka kopurua	3.769	3.990	4.069	4.739	4.508	3.804
Zenbatekoa guztira (milioi €)	389	405	430	514	519	451
<i>Batez besteko zenbatekoa (mila €)</i>	<i>103,11</i>	<i>101,45</i>	<i>105,72</i>	<i>108,46</i>	<i>115,22</i>	<i>118,68</i>

Iturria: Hipotekaren Estatistika. EIN. Geuk egina.

Estatuan eratutako hipotekaren zenbatekoa ere jaitsi egin zen 2020an, 45.020 milioi eurora arte (-% 0,8). Nolanahi ere, hipoteka kopurua (-% 7,6) baino gutxiago jaitsi zen hipotekaren zenbatekoa. Hortaz, hipoteka bakoitzaren batez besteko zenbatekoak gora egin zuen eta 134.904 euroan kokatu zen (+% 7,4). Halaber, nabarmentzekoa da zenbateko hori 2008ko zenbatekoaren (139.655 euro) oso antzekoa dela.

EAEn eratutako hipotekaren diru-balioa 2.836 milioi eurokoa izan zen 2020an, aurreko urtean baino % 3,7 altuagoa. 2015az geroztik mantendu egin da hobekuntza-joera. Gainera, eratutako hipotekaren diru-balioa gehiago hazi zen hipoteka kopurua baino. Hortaz,

hipoteken batez besteko zenbatekoa 147.307 eurora igo zen (+% 2,2). Azkenik, Nafarroan behera egin zuen eraturako hipoteken diru-balioa (-% 13,1), eta 451 milioi euroan geratu zen. Hala ere, galera hori txikiagoa izan zen eraturako hipoteka kopuruaren galera baino. Ondorioz, hazi egin zen hipoteka bakoitzaren diru-balioa (118.678; +% 3,0). Hala, kontuan hartutako hiru eremuetan gora egin zuen hipoteken batez besteko zenbatekoak. EAEn izan zen altuena (147.307 euro), jarraian Estatuan (134.904) eta, azkenik, Nafarroan (118.678).

Bestetik, notario aurrean moldatutako hipoteken kopuruak gora egin zuen¹. Zehazki, Estatuan ia bikoiztu egin zen zifra hori 2019ko datuekin alderatuta (+% 64,9). 2019an 39.543 hipoteka moldatu zituzten, eta 2020an, 65.224 (+25.681 hipoteka). Hala, hamarkada batez moldatutako hipoteken kopuruak beheranzko joera izan ondoren, aldagai horrek gora egin zuen berriro ere. EAEn eta Nafarroan ere gora egin zuten hipoteken moldaketek, baina neurri txikiagoan (+% 16,7 eta +% 3,3, hurrenez hurren). Guztira, 1.422 eta 190 hipoteka moldatu zituzten eremu horietan 2020an.

236. koadroa Aldaketa notarialak erregistratu dituzten etxebizitzaren gaineko hipotekak

Kontzeptua	(Hipoteka kopurua)								
	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Espainia	184.262	154.436	129.109	105.550	87.217	56.269	48.446	39.543	65.224
EAE	2.138	1.925	1.684	1.863	1.520	1.160	1.379	1.218	1.422
Nafarroa	882	681	583	616	477	371	305	184	190

Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.

Hipoteka betearazpenei² dagokienez, 2020an ohiko etxebizitzaren gaineko 9.407 prozedura hasi zituzten Estatu osoan, aurreko urtean baino askoz gehiago (+% 27,4). 2014an estatistika hori egiten hasi zirenetik izandako lehen gorakada izan zen. EAEn eta Nafarroan ere egoera bera izan zuten. 98 eta 54 ziurtagiri erregistratu zituzten, hurrenez hurren, 2020an (+% 36,1 eta +% 63,6; urte arteko tasa).

237. koadroa Hipoteka-betearazpena hasita duten etxebizitza partikularrak

Kontzeptua	(Etxebizitza kopurua)						
	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Espainia	44.939	39.151	27.189	14.422	9.041	7.382	9.407
EAE	267	261	193	170	89	72	98
Nafarroa	311	296	209	99	51	33	54

Oharra: 2014az geroztik egindako estatistika.

Iturria: Hipoteka Betearazpenen Estatistika. EIN. Geuk egina.

¹ Zehazki, hauei egiten die erreferentzia: nobazioa (hipoteka kontratatu ondoren egiten den eta kontratua berriro negoziatzeko aldean borondateen akordio berri bat eskatzen duen edozein aldaketa), hartzekodunaren subrogazioa (banketxez aldatzea, eta, beraz, kontratuak baldintza berriak izatea) eta zordunaren subrogazioa (hipotekaren titularra aldatzea, titular berriaren onarpenarekin; kontratuaren baldintzetan aldaketak egon daitezke edo ez). Hauek dira adierazitako aldaketen alderdi nagusiak: epea, zenbatekoa, erreferentzia mota eta/edo aplikatutako diferentziala.

²Hipoteka baten karga ezarrita duen ondasun higiezin baten salmenta agintzen duen prozedura exekutiboa, zordunak hipotekan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik.

Eta finantzatzen diren ondasunetan oinarritutako adierazleak errepasatzen amaitzeko, aipatzekoa da ibilgailuen matrikulazioan¹ ere erregistratutako jaitsiera nabarmena 2019arekin alderatuta. Estatu osoan 851.211 ibilgailu matrikulatu zituzten; 2019an, berriz, 1.258.251 ibilgailu matrikulatu zituzten (-% 32,3 eta 407.040 ibilgailu gutxiago). EAEn eta Nafarroan ere behera egin zuen matrikulazio kopuruak (-% 23,9 eta -% 26,8, hurrenez hurren). 30.261 eta 8.381 turismo matrikulatu zituzten 2020an eremu horietan.

238. koadroa Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera Turismoak

Kontzeptua	(Unitate kopurua)					
	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Espainia	1.034.232	1.147.007	1.234.932	1.321.437	1.258.251	851.211
EAE	37.601	38.547	39.622	41.701	39.763	30.261
Nafarroa	10.690	10.814	12.314	13.243	11.449	8.381

Iturria: Anfac. Geuk egina.

 Berankortasunaren bilakaera²

Pandemiak jarduera ekonomikoan izandako inpaktu negatiboak eragina izan zuen enpresen eta familien finantza-egoeran ere. Ondorioz, haien finantza-betebeharrak betetzeko zailtasunak izan zituzten, eta, hala, gordailu-erakundearen kreditu-kalitateak okerrera egin zuen. Dena den, agintariak martxan jarritako politikak arindu egin zuten eragin negatibo hori, eta zalantza-kreditua apur bat murriztu zen (-% 3,8). Hala ere, murrizketa hori aurreko ekitaldietakoa baino apalagoa izan zen; 2014tik 2019ra bi digituko urte arteko tasak izatera iritsi ziren. Bestetik, sektore pribatuari emandako kredituaren bolumena nabarmen hazi zen 2020an (+% 3,5). Hala, berankortasun-ratioa³ apur bat jaitsi zen, eta % 4,4an kokatu zen (ehuneko -0,4 puntu).

239. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantza-koen edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk

Urtea	Zalantza-kobrantzak	Kredituak	(Meuro)
			(Zalantza-kobrantzak/Kredituak) x100
2015	129.984	1.274.653	10,2
2016	112.275	1.222.511	9,2
2017	94.174	1.199.106	7,9
2018	67.196	1.150.228	5,8
2019	54.301	1.135.590	4,8
2020	52.224	1.174.937	4,4

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

¹ Hainbat faktorek baldintzatua, bizi izandako krisi-egoeraz gain. Izan ere, 2021eko urtarril-maiatzeko datu metatua 2019koa (pandemia aurrekoa) baino % 44,0, %35,2 eta % 35,9 txikiagoa da oraindik EAEn, Nafarroan eta Estatuan, hurrenez hurren.

² Ez dugu autonomia-erkidegoen arabera bereizitako informaziorik.

³ Ordaindu gabeko edo kobrantza zalantzarriko kredituen ehunekoa, emandako finantzaketa osoari dagokionez.

Dena den, emaitza hori kontuz hartu behar da. Izan ere, datozen hilabeteetan nabarmen haz daiteke ratio hori, honen ondorioz: *“Batetik, baliteke kreditua duen pertsonak haren diru-sarreraren fluxuan eragin negatiboa jasaten duen unea ez etortzea bat ez-ordaintzearen unearekin; eta, bestetik, laguntza-programak amaitzean ez-ordaintzeak pilatu egin daitezke, luzamenduak eta emandako abalik gabeko aldiak amaitzen diren unean”*. (Espainiako Bankua).

Testuinguru horretan, aipatzekoa da jarduera-segmentu guztietan eutsi ziotela berankortasun-tasari 2020an. Zehazki, ekoizpen-jardueren ratioa % 5,1era jaitsi zen (ehuneko -0,4 puntu), familien segmentuaren ratioa % 3,9ra (ehuneko -0,2 puntu) eta beste helburu batzuei dagokiena ia erdira, % 3,8ra (ehuneko -2,2 puntu). Ekoizpen-jardueren xehetasunei dagokienez, sektore handi guztietan egin zuen behera ratioak. Eraikuntza-sektorean¹ erregistratu zen jaitsierarik handiena (ehuneko -2,8 puntu), baina sektore horrek izan zuen berandutze-tasarik handiena ere (% 9,2). Halaber, lehen sektorea (% 5,5; ehuneko -0,5 puntu) eta industria (% 4,9; ehuneko -0,7 puntu) nabarmentzen dira, eta jarraian zerbitzuen sektorea (% 4,8; ehuneko -0,3 puntu). Sektore horietan berankortasunak beheranzko bilakaera izan zuen kontuan hartutako jarduera-adar guztietan. Dena den, bilakaera horrek okerrera egin dezake 2021ean. Izan ere, aurreikuspenen arabera berankortasunak gora egingo du², eta, ondorioz, kreditu-eskaintza gogortu egingo da.

240. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzakoen edo berankortasun-tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

Kontzeptua	(Guztizkoaren gaineko % zalantzaqarriak)					
	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Zalantzak guztira	10,2	9,2	7,9	5,8	4,8	4,4
Ekoizpen-jarduerak	14,9	13,3	10,4	7,0	5,5	5,1
Nekazaritza eta arrantza	10,2	9,1	7,5	6,3	6,0	5,5
Industria	11,2	9,1	8,8	6,3	5,6	4,9
Eraikuntza	30,9	29,7	24,5	14,4	12,0	9,2
Zerbitzuak	14,4	13,0	9,9	6,7	5,1	4,8
Higiezinak	27,4	25,4	18,2	8,9	5,2	4,9
Finantzak (ez banka)	2,1	2,1	0,3	0,2	0,2	0,3
Merkataritza eta konponk.	12,9	11,5	10,5	9,2	8,5	7,0
Garraioa eta biltegiak	13,2	8,3	6,4	5,3	4,8	4,3
Ostalaritza	17,2	14,6	10,8	7,9	5,8	5,4
Beste zerbitzu batzuk	9,9	8,8	8,7	7,2	5,3	5,8
Beste helburu batzuk/familiak	5,5	5,4	5,3	4,8	4,1	3,9
Etxebizitzak	4,7	4,6	4,6	4,0	3,3	3,0
erostea/birgaitzea						
Beste batzuk	10,1	10,0	9,2	8,9	8,0	7,8
Gainerakoak	16,6	7,0	13,2	7,5	6,0	3,8

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

¹ Kalte handia jasan zuen krisialdiaren aurreko kreditu-hedapenagatik eta jarduera horren ondorengo gainbeheragatik (aktiboen balio-galera, salmenten beherakada, enpresa-likidazioak, etab.).

² Espainiako Bankua, Espainiako banku-mailegulari buruzko inkesta: 2021eko urtarrila.

Bestetik, familien kasuan ere behera egin zuen etxebizitzak erosteko eta birgaitzeko kredituen berandutze-tasak (% 3,0; ehuneko -0,3 puntu), baita beste helburu batzuetarako kredituenak ere (% 7,8; ehuneko -0,2 puntu). Dena den, enpresen finantzaketaren kasuan ez bezala (+% 8,2), behera egin zuen familiei emandako kredituen bolumenak¹ (-% 0,5). Dena den, zalantzazko kreditua (-% 6,1) baino gutxiago jaitsi zenez, familien berankortasun-tasak behera egin zuen (% 3,9 2020an).

241. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzazko kredituaren bilakaera, helburuen arabera.
Beste sektore egoiliar batzuk

Kontzeptua	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Zalantzazkoak guztira	129.984	112.275	94.175	67.196	54.301	52.224
Ekoizpen-jarduerak	92.186	77.335	59.493	36.725	28.302	27.986
Nekazaritza eta arrantza	1.824	1.706	1.506	1.310	1.275	1.217
Industria	11.773	9.407	9.121	6.397	5.473	5.169
Eraikuntza	12.947	11.304	8.053	3.932	2.914	2.408
Zerbitzuak	65.641	54.918	40.813	25.086	18.640	19.192
Higiezinak	36.670	30.275	19.759	8.299	4.559	4.023
Finantzak (ez banka)	2.067	1.690	274	162	136	185
Merkataritza eta konponk.	8.659	7.768	7.506	6.657	6.366	5.829
Garraioa eta biltegiak	3.652	2.278	1.920	1.582	1.432	1.513
Ostalaritza	4.612	3.881	2.889	2.014	1.545	1.885
Beste zerbitzu batzuk	9.981	9.026	8.465	6.373	4.601	5.757
Beste helburu batzuk/familiak	34.720	33.652	32.712	29.505	25.337	23.804
Etxebizitzak	25.188	23.930	23.274	20.127	16.374	14.789
erostea/birgaitzea						
Beste batzuk	9.532	9.722	9.438	9.378	8.963	9.015
Gainerakoak	3.078	1.288	1.970	966	662	434

Iturria: *Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Azkenik, zalantzazko kredituaren saldoak hobera egin zuen nabarmen, aurreko urtearekin alderatuta. 2019an 54.301 milioi eurokoa izatetik, 2020an 52.224 milioi eurokoa izatera pasatu zen (-% 3,8). Dena den, zalantzazko kredituaren beheranzko bilakaeraren abiadura moteldu egin zen. Izan ere, 2014an behera egiten hasi zenetik, % 10etik gorako urte arteko jaitsierak izan zituen zalantzazko kredituak. Bestetik, orokorrean, kontuan izandako segmentu guztietan egin zuen behera zalantzazko kredituaren saldoak, baina zerbitzuen sektorearen kasuan gora egin zuen (+% 3,0), adar hauetan erregistratutako igoeren ondorioz: ostalaritza (+% 22,0), beste zerbitzu batzuk (+% 25,1), garraioa eta biltegiatzea (+% 5,7) eta finantzak (ez banka) (+% 36,0). Hala, jarduera horien kasuan 2020an gora egin zuen emandako kredituen² eta zalantzazko kredituen saldoak, eta, ondorioz, behera egin zuen berankortasun-tasak. Dena den, bilakaera hori aldatu egin daiteke, kredituak emateko irizpideak gogortu izanaren ondorioz.

¹ Kontsumo pribatuaren beherakadaren (hasieran, konfinamenduaren ondorioz; gero, familien etorkizuneko egoera ekonomikoaren gaineko ziurgabetasunagatik) eta etxebizitzak erostearekin lotutako jardueraren beherakadaren ondorioz (Espainiako Bankua).

² Batez ere, ICO abalen bidez.

2.2 GORDAILUEN BILAKAERA

Estatuko kreditu-erakundeetako gordailuak

Kreditu-erakundeen pasiboen posizioak asko igo ziren 2020an, eta gordailuetako saldoa¹ 2,06 bilioi eurora igo zen (+% 11,4). Emaitza horrek jardueraren suspertzea baieztatzen du. Izan ere, 2008an erregistratutako balio gorenera (2,37 bilioi euro) hurbildu zen. Gordailuko saldoak gora egin zuen sektore pribatuko (+% 8,7), kreditu-sistemako (+% 45,6) eta Administrazio Publikoetako (+% 16,3) eragile ekonomiko guztien kasuan, baina behera kanpo-sektorearen kasuan (-% 9,7). Oro har, kreditu-erakundeen pasiboaren bi herenak (% 66,5) beste sektore egoiliar batzuenak dira, % 18,0 kreditu-sistema berarenak, % 11,6 sektore ez-egoiliarrarenak eta % 3,9 sektore publikoarenak. Kreditu-sistemaren ekarpenak izandako igoera (ehuneko +4,2 puntu) nabarmendu behar da, gainerako osagaien kaltetzearen aurrean.

242. koadroa Kreditu-erakundeak. Gordailua, eragileen arabera

Kontzeptua	(M euro)					
	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Guztira	1.940.297	1.866.552	1.866.973	1.836.493	1.848.536	2.059.616
• Kreditu-sistema	302.810	288.158	327.483	287.838	253.978	369.743
• AP	77.058	54.371	61.722	71.785	69.445	80.754
• Beste sektore egoiliar batzuk	1.261.388	1.242.580	1.202.893	1.212.837	1.259.938	1.369.547
• Beste ez-egoiliar batzuk	299.061	281.444	274.874	264.033	265.174	239.571

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Beste sektore egoiliar batzuek egindako gordailuak, batez ere, aurrezki erako edo ageriko posizioen bidez egin zituzten (guztizkoaren % 85,0); 1,16 bilioi eurora iritsi ziren azken ekitaldian. Gainera, beste sektore egoiliar batzuen gordailuen gorakadak (urte arteko % 14,0ko igoera) baldintzatu zuen hein handi batean jarduerak orokorrean izandako igoera (% 8,7). Gainerako posizioen pisua txikia izan zen: eperako gordailuek % 11,7 eta gainerako osagaiek² % 3,3; eta portaera oso ezberdinak izan zituzten (-% 18,4 eta +% 6,2, hurrenez hurren). Emaitza horrek argi uzten du ageriko gordailuen eta eperako gordailuen arteko aldea. Izan ere, azken horiek erakargarritasuna galdu dute –errentagarritasun eskasa eta/edo ia errentagarritasunik ez dutelako–, eta lehentasuna ematen zaio baliabideak eskuragarri izateari. Halaber, aipatzekoa da “beste batzuk” motako gordailuen ekarpena jaitsi egin zela (2007an % 20,1 eta 2020an % 3,3).

¹ Kontuan izan behar da ez dagoela pasibo-posizioetako aurrezkiaren neurri osorik; hortaz, gordailu-figuretarantz bideratzeaz gain, beste inbertsio-xede batzuetara lekualdatu ahal izan dira, hala nola funtsetara, baloreetara edo beste forma batzuetara (higiezinak, esaterako).

² Barne hartzen ditu aktiboen aldi baterako lagapena, aktiboen transferentziagatik eratutako pasiboak, finantza-pasibo hibridoak eta mendeko gordailuak.

243. koadroa Kreditu-erakundeak. Gordailua, moten arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

Kontzeptua	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Guztira	1.261.388	1.242.580	1.202.893	1.212.837	1.259.938	1.369.547
• Agerikoa edo aurrezkoa	650.098	753.624	857.135	931.257	1.021.213	1.164.410
• Eperakoa	508.753	403.567	286.365	231.450	196.656	160.440
• Beste batzuk	102.537	85.389	59.393	50.130	42.069	44.697

(M euro)

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Gordailuen bilakaera EAEn eta Nafarroan

2020an Euskal Herriko gordailuetako saldoak gora egin zuen, eta 111.915 milioi eurora iritsi zen (+% 6,3), EAEk (+% 5,7) eta Nafarroak (+% 9,1) izandako igoeren ondorioz. Lurralde Historiko guztietan asko hazi ziren gordailuak: Araban +% 9,6, Gipuzkoan +% 6,6 eta Bizkaian +% 4,2. Horrek eragin zuen EAEko gordailua ere haztea. Halaber, Estatuan ere goranzko bilakaera izan zuten gordailuek, eta gordailu-erakundeen jardueraren bolumena 1,41 bilioi eurora iritsi zen (+% 9,4). Hala ere, Euskal Herriak Estatuko gordailuei egindako ekarpena apur bat jaitsi zen 2020an, % 7,9ra (2019an % 8,2), Estatuan baino igoera txikiagoa izan baitzen Euskal Herrian (+% 6,3, eta Estatuan +% 9,4).

244. koadroa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta administrazio publikoen gordailuak.

Lurraldea	Urtea	AP	BSE	GUZTIRA
Araba	2018	967	10.234	11.202
	2019	916	10.756	11.672
	2020	1.321	11.468	12.789
Bizkaia	2018	2.902	42.102	45.005
	2019	3.250	44.589	47.838
	2020	4.145	45.685	49.830
Gipuzkoa	2018	537	24.774	25.311
	2019	634	26.790	27.425
	2020	636	28.606	29.243
EAE	2018	4.406	77.110	81.518
	2019	4.800	82.135	86.935
	2020	6.102	85.759	91.862
Nafarroa	2018	931	16.440	17.371
	2019	867	17.519	18.386
	2020	986	19.067	20.053
Euskal Herria	2018	5.337	93.550	98.889
	2019	5.667	99.654	105.321
	2020	7.088	104.826	111.915
Espainia	2018	70.862	1.165.030	1.235.892
	2019	68.817	1.218.981	1.287.798
	2020	79.416	1.329.870	1.409.286


(M euro)

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Aintzat hartutako eremuetan, beste sektore egoiliar batzuk dira gordailuen bezero-segmentu nagusiak. Zehazki, 2020an Euskal Herrian 104.826 milioi euro (guztizkoaren

% 93,7) zegozkion sektore horri, urte arteko hazkunde handiarekin (+% 5,2). EAEn eta Nafarroan ere agerikoa da sektore pribatuaren garrantzia (guztizkoaren % 93,4 eta % 95,1, hurrenez hurren), eta bietan egin zuen gora 2019arekin alderatuta (+% 4,4 eta +% 8,8). Hiru Lurralde Historikoetan erregistratutako igoerek eragin zuten EAEn bilakaera: Araban +% 6,6, Bizkaian +% 2,5 eta Gipuzkoan +% 6,8. Lurralde bakoitzak EAEko gordailuen saldoari egindako ekarpenak¹, berriz, honakoak izan ziren: % 53,3 Bizkaiak, % 33,4 Gipuzkoak eta % 13,4 Arabak. Estatu mailako bilakaerak erakusten duenez, jarduerak gora egin zuen 2019arekin alderatuta (+% 9,1), eta gordailuen bolumena 1,33 bilioi eurora igo zen 2020an. Orokorrean, Estatuko sektore pribatuaren gordailuen guztizkoaren gainean, Euskal Herriaren sarrera-tasa % 7,9koa izan zen (2019an % 8,2koa).

47. grafikoa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuen bilakaera
(Urte arteko aldakuntza-tasa)



Iturria: *Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Bestetik, Administrazio Publikoari dagokion bezero-segmentuaren pisua oso txikia da aintzat hartutako lurralde eremuetan (% 10etik beherakoa), baina nabarmentzekoa da 2020an izandako igoera nabarmena, sektore pribatuak baino urte arteko aldakuntza handiagoekin. Zehazki, gordailuetako saldoak gora egin zuen Euskal Herrian (+% 25,1), EAEn (+% 27,1) eta Nafarroan (+% 13,7) izandako bilakaeraren ondorioz, baita jarduerak Estatuan (+% 15,4) izandako gorakadaren ondorioz ere. Lurraldeen arabera, Araba (+% 44,2) eta Bizkaia (+% 27,5) nabarmendu ziren; Gipuzkoa, berriz, egonkor mantendu zen (+% 0,3). Azkenik, Euskal Herriak Estatuko sektore publikoaren gordailuen guztizkoari egindako ekarpena % 8,9ra igo zen (2019an % 8,2koa izan zen).

¹ Ikusi kredituari buruzko atalean jasotako azalpen-oharra.

Aurrezkiaren beste adierazle batzuk¹

Familien aurrezki asko igo zen 2020an, eta familien errenta gordin erabilgarriaren % 14,7 izatera iritsi zen Estatuan. Aurreko urteko tasa (% 6,3; ehuneko +8,5 puntu) baino askoz altuagoa zen hori, eta aurreko krisialdian erregistratutakoa baino altuagoa ere bai; 2009an % 11,3koa izan zen aurrezki-tasa. Emaitza hori bat dator finantza-erakundeetako gordailuei buruzko emaitzarekin.

Aurrezki-tasaren igoera horrek Covid-19aren eragina erakusten du. *“Kontsumo pribatua asko jaitsi da, errentak baino askoz gehiago; izan ere, mugikortasuna eta hainbat jarduera (adibidez, aisialdia) mugatu dituzte, eta ziurgabetasunez betetako osasun-egoeraren eta egoera ekonomikoaren aurrean, familiek zuhurtzia handiz jokatu dute, eta aurrezki-bolumen handia sortu dute, ezinbestean”* (Espainiako Bankua). Zehazki, familien errenta gordin erabilgarria apur bat jaitsi zen 2019arekin alderatuta (-% 3,3), baina aurrezki gordina asko igo zen (+% 126,6). Urtean zehar kontsumoari ezarritako mugen eta ziurgabetasunak bultzatutako badaezpadako aurrezkien ondorioz egin zuen gora aurrezki gordinak.

245. koadroa Familien errenta gordin erabilgarria eta aurrezkiak

Kontzeptua	<i>(Meuro)</i>					
	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Errenta gordin erabilgarria	682.172	700.591	722.935	744.939	764.593	739.585
Aurrezki gordina	48.990	49.249	41.767	41.798	48.037	108.844
<i>Aurrezki-tasa (%)</i>	<i>7,2</i>	<i>7,1</i>	<i>5,8</i>	<i>5,7</i>	<i>6,3</i>	<i>14,7</i>

Iturria: Espainiako Kontabilitate Nazionala. Kontu ez-finantzarioak. Geuk egina.

Interes-tasaren, kostuaren eta ordainketaren bilakaera


Europako Banku Zentralak (EBZ) aldaketarik gabe mantendu ditu finantzaketa-eragiketetarako erreferentziazko interes-tasak, % 0an, pandemiak ekonomian izandako eragina konpentsatzeko. Maila horretan daude 2016az geroztik. Gainera, ez dute tasak aldatzerik aurreikusten, inflazioaren aurreikuspenak modu irmoan % 2ra gerturatzen direla ikusi arte, kopuru hori gainditu gabe.

Interes-tasak baxuak izateak eragina du kreditu-erakundearen eragiketen emaitzetan. Izan ere, bezero-segmentu ezberdinen kredituen eta gordailuen kobrantzaren eta ordainketaren arteko bitartekaritza-marjina murriztu egiten da. Ondorioz, bitartekaritza-marjina hori hobetzeko helburuz, erakundeek beste diru-iturri batzuetara jotzen dute, esaterako, komisioetara.

¹ Ez dugu autonomia-erkidegoen arabera bereizitako informaziorik.

48. grafikoa Birfinantzaketako interes-tasaren bilakaera. Europako Banku Zentrala

(%)



Iturria: Europako Banku Zentrala. Geuk egina.

246. koadroa Kreditu-erakundeak. Familietarako⁽²⁾ eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berriei aplikatutako interes-tasak (TEDR)⁽¹⁾

(%)

	2017	2018	2019	2020
FAMILIETARAKO MAILEGUAK ETA KREDITUAK⁽²⁾				
– Etxebizitza ⁽³⁾	1,83	1,99	1,69	1,51
– Kontsumoa ⁽³⁾⁽⁴⁾	7,24	6,92	6,66	6,32
– Beste helburu batzuk ⁽³⁾	3,36	3,27	3,04	2,77
SOZIETATE EZ-FINANTZARIOETARAKO MAILEGUAK ETA KREDITUAK				
– Zorpekoak	1,55	1,74	1,56	1,44
– 250.000 €-ra arteko kredituak ⁽³⁾	2,33	2,05	1,87	1,87
– 250.000 eta 1.000.000 € arteko kredituak ⁽³⁾	1,68	1,50	1,40	1,51
– 1.000.000 € baino gehiagoko kredituak ⁽³⁾	1,51	1,53	1,23	1,37
FAMILIEN GORDAILUAK⁽²⁾				
– Agerikoak	0,04	0,03	0,03	0,01
– Eperakoak ⁽³⁾	0,08	0,05	0,04	0,02
• 1 urte arte	0,07	0,05	0,02	0,01
• 2 urte baino gehiago	0,08	0,17	0,18	0,15
SOZIETATE EZ-FINANTZARIOEN GORDAILUAK				
– Agerikoak	0,10	0,08	0,07	0,01
– Eperakoak ⁽³⁾	0,16	0,37	0,38	0,01
• 1 urte arte	0,17	0,39	0,36	0,01
• 2 urte baino gehiago	0,33	0,74	0,92	0,13

(1) TEDR: Definizio mugatuko tasa efektiboa, hau da, komisorik gabeko UTB.

(2) Familiak eta familien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

(3) Batez besteko tasa haztatua, produktu desberdinei dagokienez, epearen arabera. Abenduaren 31n.

(4) 2010eko maiatzetik, kreditu-txartelen bidez emandako kreditua ere sartzen da.

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Familientzako eta enpresentzako finantza-eragiketa berrietan aplikatzen diren interes-tasak jasotzen ditu atxikitako koadroak. Zehazki, emandako kredituei dagokienez, behera

egin zuten etxebizitzetara, kontsumora eta beste helburu batzuetara bideratutako maileguen interes-tasek. Enpresa-finantzaketa, berriz, garestitu egin zen, batez ere, zenbateko altuko kredituen kasuan. Bestetik, gordailuen ordainketen interes-tasak askoz ere baxuagoak izan ziren –ia nuluak, % 0 ingurukoak–. Interes-tasa horiek agerian uzten dute familien zein sozietate ez-finantzarioen aurrezkien errentagarritasun eskasa¹. Sozietate ez-finantzarioen kasuan, interes-tasak asko jaitsi ziren aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

¹ Egoera horri esker, inbertsio finantzarioaren edo ez-finantzarioaren beste modalitate batzuen aldeko apustua egiten da (bigarren etxebizitzako inbertsioa eta/edo etxebizitza inbertsio gisa, adibidez).

3. INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEAK

2020an Inbertsio Kolektiboko 4.018 Erakunde (IKE) zeuden erregistratuta Espainiako merkatuan, aurreko urtean baino gutxiago (-% 5,1), eta 2008ko zifra maximoetatik (6.354 erakunde) urrun. Erakundeak gutxitu baziren ere, ondarearen saldoak ez zuen bilakaera hori izan. Hortaz, eskuratutako baliabideen bolumena ez zen ia murriztu (-% 0,4), eta 310.170 milioi euroan kokatu zen.

IKE-en figura nagusiak Higigarrietako Inbertsio Funtsak (HIF) dira, eta haien ondarearen bolumena (guztizkoaren % 90,2) 279.668 milioi eurora igo zen 2020an (+% 0,1). Bestetik, Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietateen (SICAV) ekarpena txikiagoa da (% 8,7), eta azken urtean bilakaera negatiboa izan zuten (-% 6,4). Horrek eragin zuen IKE-en ondareak behera egitea (-% 0,4). Inbertsio libreko IKE-ek (sinpleek eta konposatuek), berriz, goranzko joera mantendu zuten (+% 2,8 eta +% 15,2, hurrenez hurren), baina haien ekarpena oso txikia da (% 0,9 eta % 0,2).

Espainiako merkatuan erregistratutako IKE erakundeen bi heren SICAVei dagozkie (% 60,4), eta heren bat HIFak dira (% 37,7). Dena den, 2019arekin alderatuta, bi modalitateetan murriztu zen erakunde kopurua 2020an (-% 5,5 eta -% 5,0, hurrenez hurren). Bestalde, inbertsio libreko IKE-ek eta IKE-en IKE-ek bilakaera positiboa izan zuten (+% 11,3 eta % 0,0), baina ez zuten IKE-en beste bi figuren bilakaera negatiboari buelta ematerik izan.

Hala, IKE erakundeen batez besteko ondarea 77,2 milioi eurora igo zen, urte arteko hazkundearekin (+% 4,9). Izan ere, ondarearen balioa gutxiago jaitzi zen inskribatutako erakundeen kopurua baino. HIFen ondarearen balioa ere igo egin zen (+% 5,4). HIF erakundeek (184,6 milioi euro) eta IKE-en IKE-ek (93,3 milioi euro; +% 15,2) erregistratu zuten erakunde bakoitzeko ondarearen bolumen handiena. Bestetik, SICAV-en eta inbertsio libreko IKE-en kasuan behera egin zuen ondarearen batez besteko saldoak (-% 1,0 eta -% 7,6), eta 11,1 eta 42,2 milioi euroan kokatu zen, hurrenez hurren.

247. koadroa Finantza arloko Inbertsio Kolektiboko Erakundeen ondarea eta kopurua

Kontzeptua	Ondarea (M euro)		Erakunde kopurua	
	2019	2020	2019	2020
Inbertsio-funtsak ¹ (HIF)	279.377	279.668	1.595	1.515
Inbertsio-sozietateak (SICAV)	28.793	26.936	2.569	2.427
Inbertsio libreko IKE (ILIKE)	2.832	2.913	62	69
Inbertsio libreko IKE-en IKE	567	653	7	7
Guztira	311.569	310.170	4.233	4.018

¹ Kudeatzaileraren finantza arloko beste inbertsio funts batzuetan inbertitutako inbertsio-funtsen ondarea 7.771,9 milioi euro ingurukoa zen 2020ko abenduan.

Iturria: CNMV. Urteko txostena.

HIF eta SICAVen ondarearen banaketa

Higigarrietako Inbertsio Funtzen (HIF) ondarearen egitura mantendu egin zen: finantza-inbertsioen zorroa gailendu zen (guztizkoaren % 91,6), diruzaintza izan zen hurrengoa (% 7,9), eta, azkenik, zordunen eta hartzekodunen saldo garbia (% 0,4).

Atxikitako koadroak erakusten duen moduan, HIFen ondarearen bolumenak gora egin zuen (+% 0,1). Izan ere, diruzaintzak (+% 2,1) eta zordunen eta hartzekodunen saldo garbiak (+% 38,4) gora egin zuten, eta horrek orekatu egin zuen finantza-inbertsioen zorroak (-% 0,2) izandako jaitsiera apala. Jaitsiera horretan eragina izan zuen barne-zorroaren beherakadak (-% 17,9), kanpo-zorroaren hazkundera (+% 6,0) baino handiagoa izan baitzen. Hala, kanpo-zorroak HIFen ondareari egindako ekarpena (% 72,1) indartu egin zen, eta zorro nazionalak (% 19,5) pisua galtzen jarraitu zuen.¹

Inbertsio-zorro nazionala osatzen duten posizio guztiek murrizketak izan zituzten: zorraren balio adierazgarriak (-% 13,9), ondare-tresnak (-% 31,6), kreditu-erakundeetako gordailuak (-% 66,5), eratorriak (-% 39,8) eta IKE-ak (-% 0,8). Bestetik, kanpo-inbertsioen zorroa hazi egin zen. Kasu honetan, zorraren balio adierazgarriek (+% 2,7), ondare-tresnek (+% 2,3), IKE-ek (+% 11,3) eta eratorriek (+% 15,9) gora egin zuten, eta kreditu-erakundeetako gordailuek (-% 97,8) eta gainerako tresnek (-% 11,1), aldiz, behera.

¹ Kontuan izan behar da bi zorro horien ekarpena aldatzen joan dela pixkanaka. Izan ere, 2011n inbertsio-zorro nazionalari zegozkion HIFen ondarearen bi heren, eta atzerriko osagaiak garrantzi txikiagoa zuen (% 68,3 eta % 27,2).

248. koadroa Higarrietako inbertsio-sozietateen eta -funtsen ondare-banaketa, balio eraginkorren arabera

(Meuro)

Kontzeptua	Inbertsio-funtsak ^(*)			Inbertsio-sozietateak		
	2019	2020	%Δ 20/19	2019	2020	%Δ 20/19
Ondarea	279.377	279.668	0,1	28.793	26.936	-6,4
Finantza-inbertsioen zorroa	256.751	256.232	-0,2	25.940	24.523	-5,5
Barne-zorroa	66.520	54.630	-17,9	4.588	3.417	-25,5
Zorraren balio adierazgarriak	44.638	38.431	-13,9	1.217	734	-39,7
Ondare-tresnak	9.048	6.185	-31,6	1.983	1.601	-19,2
Inbertsio kolektiboko erakundeak	8.582	8.517	-0,8	1.232	968	-21,5
Kreditu-erakundeetako gordailuak	4.005	1.342	-66,5	99	45	-54,7
Eratorkiak	234	141	-39,8	1	3	300,0
Bestelakoak	5	15	198,0	57	66	16,2
Kanpo-zorroa	190.225	201.597	6,0	21.348	21.103	-1,1
Zorraren balio adierazgarriak	83.818	86.110	2,7	4.618	3.243	-29,8
Ondare-tresnak	33.116	33.886	2,3	6.134	6.548	6,8
Inbertsio kolektiboko erakundeak	73.054	81.332	11,3	10.549	11.276	6,9
Kreditu-erakundeetako gordailuak	5	0	-97,8	1	0	2,0
Eratorkiak	231	268	15,9	34	24	-30,2
Bestelakoak	1	1	-11,1	13	13	0,8
Zalantza inbertsioa, inbertsio berankorra edo auzipeko inbertsioa	6	5	-20,7	4	3	-15,8
Diruzaintza	21.735	22.202	2,1	2.660	2.222	-16,4
Zordun/hartzekodun garbiak	892	1.234	38,4	192	191	-0,7

(*) Hortik kanpo daude inbertsio libreko IKEak (ILF eta ILIKEF).

Iturria: CNMV. Urteko txostena.

SIVACen ondareak behera egin zuen (-% 6,4), eta hala egin zuten ondare-bolumen hori osatzen duten hiru posizioek ere: finantza-inbertsioen zorroa (-% 5,5), diruzaintza (-% 16,4) eta zordunen eta hartzekodunen saldo garbia (-% 0,7). Dena den, hiru osagai horien ekarpena ezberdina da, eta finantza-inbertsioen zorroaren pisua gailentzen da (% 91,0), diruzaintzaren (% 8,3) eta zordunen eta hartzekodunen saldo garbiaren (% 0,7) aurrean.

Inbertsio-zorro nazionalak (-% 25,5) eta nazioarteko inbertsio-zorroak (-% 1,1) behera egin zuten, eta horrek eragina izan zuen SIVACen ondarearen bolumenaren jaitsieran (-% 6,4). Bi osagai horiek pisu ezberdina izan zuten (% 12,7 eta % 78,3). Dena den, pisuaren banaketa aurreko ekitaldietako banaketatik urrundu zen, aurreko ekitaldietan zorro nazionala gailendu baitzen. Bestetik, zorro nazionalaren osaerari dagokionez, posizio nagusiek izandako beherakada nabarmendu zen: zorraren balio adierazgarriak (-% 39,7), ondare-tresnak (-% 19,2), IKEak (-% 21,5) eta kreditu-erakundeetako gordailuak (-% 54,7). Kanpo-zorroaren bilakaera apur bat ezberdina izan zen, baina kasu honetan ere behera egin zuten zorraren balio adierazgarriak (-% 29,8). Honakoek, berriz, gora egin zuten: ondare-tresnak (+% 6,8), IKEak (+% 6,9) eta kreditu-erakundeetako gordailuak (+% 2,0).

HIFen tipologia

HIFen zorroa bost bloketan edo finantza-produktu motatan egituratzen da –monetarioa, errenta finkoa, errenta aldakorra, beste funts batzuk (inbertsioaren itzulketaren gaineko berme mailaren arabera) eta funts globalak–, eta bloke horiek 15 aldaeratan banatzen dira, inbertsio-funtsen nolakotasunaren arabera. Halaber, funtsen kopuruaren, partaideen eta ondarearen bilakaera aztertzen da.

2020aren itxieran 1.643 funts zeuden erregistratuta (-% 3,9), 12.659.943 partaiderekin (+% 7,8) eta 279.668 milioi euroko ondarearekin (+% 0,1). Funts gehienak errenta aldakorren eta finkoaren segmentuari dagozkie. Bien artean, HIFen guztizkoaren ia bi heren osatzen dituzte (1.014 funts; guztizkoaren % 61,7). Beste funts batzuen ekarpena % 23,0koa da, osagai globalarena % 15,0ekoa eta monetarioarena % 0,1ekoa. Errenta aldakorreko funtsak gora egin bazuten ere (+% 0,9), gainerako ia posizio guztiek egin zuten behera, eta, ondorioz, HIFen kopurua jaitsi egin zen (-% 3,9). Hala, orokorrean, ondoz ondoko lau ekitalditan murriztu dira funtsak.

Partaide kopuruak, ordea, gora egin zuen (+% 7,8), eta horrek sendotu egin zuen azken ekitaldietako goranzko joera. Joera positibo horretan eragina izan zuten errenta finkoaren segmentuan (+% 12,7), errenta aldakorrean (+% 9,0) eta funts globaletan (+% 3,7) izandako igoerek, zeinek konpentsatu egin baitzituzten beste funts batzuen (-% 4,2) eta monetarioen taldearen (-% 7,1) jaitsierak; orokorrean, zenbateko txikiagoa izaten dute horiek. Bestetik, HIFen ondarearen bilakaera egonkor mantendu zen (+% 0,1), baina kontuan hartutako kategoriek joera ezberdinak izan zituzten. Errenta finkoko (+% 3,5) eta aldakorreko (+% 3,1) figuren ondarearen bolumenak gora egin zuen; hain zuzen ere, horiek dira HIFen ondarearen partidarik garrantzitsuenak (% 42,8 eta % 26,9, hurrenez hurren). Funts monetarioen segmentuak ere gora egin zuen (+% 20,7). Funts globalen (-% 4,9) eta gainerako osagaien (-% 10,6) saldoak, berriz, behera egin zuen. Hortaz, beherakadek gorakadak konpentsatu zituzten.

Laburtuz, funts kopuruak behera egin zuen, partaide kopuruak gora, eta eskuratutako baliabideak (ondarea) mantendu egin ziren. Hala, erakunde bakoitzeko batez besteko ondarea 170 milioi eurora igo zen (+% 4,2), eta partaide bakoitzeko batez besteko ondarea 22.091 eurora jaitsi zen (-% 7,2).


249. koadroa Higigarrietako Inbertsio Funtsen (HIF)¹, partaideen eta ondarearen banaketa, zorroaren osaeraren arabera

Kontzeptua	Funts kopurua		Parte-hartzaile kopurua		Ondarea (M €)	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020
Monetarioa	2	2	103.734	96.349	3.788	4.572
Errenta finkoa (euro)	221	213	2.830.528	3.079.553	66.203	65.214
Errenta finkoa (nazioartekoa)	58	61	734.062	959.392	8.592	11.230
Errenta finko mistoa (euro)	75	70	453.625	496.523	15.833	16.523
Errenta finko mistoa (nazioartekoa)	98	104	634.256	706.757	24.987	26.678
Errenta aldakor mistoa (euro)	42	40	103.027	87.674	3.145	2.821
Errenta aldakor mistoa (nazioartekoa)	143	146	604.132	657.438	25.631	27.611
Errenta aldakorra (euro)	113	104	598.901	530.107	10.145	7.091
Errenta aldakorra (nazioartekoa)	263	276	2.655.123	3.043.542	34.079	37.723
Kudeaketa pasiboa	133	118	429.428	511.251	14.074	14.014
Errendimendu finko bermatua	66	55	154.980	135.320	4.809	4.177
Errendimendu aldakor bermatua	146	128	422.200	354.315	13.003	10.959
Berre partziala	9	5	6.270	2.124	226	78
Itzulketa absolutua	84	72	646.042	587.040	11.818	10.057
Globalak	255	247	1.359.915	1.409.599	43.042	40.918
Bokaziorik gabe	2	2	2.960	2.959	2	2
FIM, guztira	1.710	1.643	11.739.183	12.659.943	279.377	279.668

Iturria: CNMV. Urteko txostena.

49. grafikoa Higigarrietako Inbertsio Funtsen lau taldeak bereizten dituzten hiru aldagaien urte arteko bilakaera

(urte arteko aldakuntza-tasa, 2020/2019)



Iturria: CNMV. Urteko txostena. Geuk egina.

¹ 2019ko bigarren hiru hilabetez geroztik, 1/2019 Zirkularrak ezarritako definizio berrietara egokitzen dira deierak. "Monetario" kategoriak Merkatu Monetarioko Funtsen (FMM) lau mota hartzen ditu barne, aipatutako zirkularrak definitzen dituenak; gaur egun, "Likidazio-balio aldakorreko merkatu monetarioko funts estandarria" motako funtsak bakarrik daude erregistratuta. "Errenta Finkoa Euro" kategoriak barne hartzen ditu Errenta Finkoa Euro berria eta Epe Motzerako Errenta Finkoa Euro; eta "Kudeaketa Pasiboko IKE" kategoriak barne hartzen ditu indize bati erantzuten dioten IKEak eta bermatu gabeko errentagarritasun-helburuak dituzten IKEak.

4. BURTSA-MERKATUA

Covid gaitzaren pandemiaren ondorioz, 2020an ziurgabetasun eta lurrunkortasun maila handiak izan ziren, eta horrek guztiz baldintzatu zuen urte hartako burtsa-jarduera. Testuinguru horretan, 2020an joera ezberdinak izan zituzten burtsako indize nagusiek, baina, kasu guztietan, 2019an baino datu okerragoekin. Batetik, IBEX-35 (-% 15,5) eta Erresuma Batuko FTSE (-% 14,3) indizeek izandako jaitsiera handiak nabarmentzen dira. CAC-40 (-% 7,1) eta Eurostoxx 50 (-% 5,1) indizeek ere behera egin zuten, baina apur bat gutxiago. Dax-Xetrak, berriz, bilakaera positiboarekin itxi zuen urtea (+% 3,5). Bestetik, Estatu Batuetako merkatuek hazkunde handia izan zuten, martxoko beherakadaren ondotik. Dow Jones (+% 7,2) eta Nasdaq Composite (+% 43,6) indizeek irabaziak izan zituzten, eta Japoniako Nikkei indizeak ere gora egin zuen (+% 16,0).

250. koadroa Burtsa-indize nagusien bilakaera

Urtea	Ibex-35 (Madril)	CAC-40 (Paris)	Dax-Xetra (Frankfurt)	FT-SE 100 (Londres)	Dow Jones (New York)	Nikkei (Tokio)	Eurostoxx 50	Nasdaq Composite
2018	8.539,9	4.730,7	10.559,0	6.728,1	23.327,5	20.014,8	3.001,4	6.635,3
2019	9.549,2	5.978,1	13.249,0	7.542,4	28.538,4	23.656,6	3.745,2	8.972,6
2020	8.073,7	5.551,4	13.718,8	6.460,5	30.606,5	27.444,2	3.552,6	12.888,3
<i>Urte batetik besterako aldakuntza (%)</i>								
2018	-15,0	-11,4	-18,7	-11,7	-6,1	-12,2	-14,8	-4,5
2019	11,8	26,4	25,5	12,1	22,3	18,2	24,8	35,2
2020	-15,5	-7,1	3,5	-14,3	7,2	16,0	-5,1	43,6


Oharra: Abenduaren 31n.

Iturria: Ekonomia Adierazleen datu-basea. Ekonomia eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioa.

Burtsako indizeek 2020an izandako bilakaerak agerian uzten du pandemia honen eragina. Martxoan, aurrekaririk gabeko beherakada izan zuten mundu mailako burtsek. Pixkanaka, eta jarduera ekonomikoak nolabaiteko dinamismoa berreskuratu zuen heinean¹, indizeen balioak asko handitu ziren. Pandemiaren bigarren olatuak, ordea, eten egin zuen prozesu hori. Izan ere, bigarren olatuak nabarmen eragin zien burtsan presentzia handia duten negozio-segmentuei (airelineak, hotelak, etab.). Baina, batez ere, 2020aren barruan suspertze ekonomiko "azkar" bat izateko itxaropena aldendu zuen olatuak. Dena den, azarotik aurrera burtsako indizeak indarrez hasi ziren gora egiten, arrazoi hauengatik: txertoaren garapenean izandako aurrerapenak, txertoaren eraginkortasun altua, eta ekonomia normaltasunera modu eraginkorrean itzultzea ahalbidetuko duen herritarren immunizazio-prozesuarekiko igurikimenak, baita AEBko hauteskundeen emaitza ere. Portaera hori apaldu egin zen urtearen itxieran, Brexitaren akordioaren inguruko ziurgabetasunarengatik eta birusaren intzidentzia gora egiten hasi zelako. Ondorioz, pandemia kontrolatzeko neurriak gogortu behar izan zituzten, eta 2021era edo 2022ra atzeratu behar izan zituzten suspertze ekonomikorako igurikimenak.

¹ Nabarmentzekoa da EBK Europako suspertze-funtsa sortzeko lortutako akordioa ere.

50. grafikoa Europako indize nagusien bilakaera (Oinarria 100 = 2019/12/31)



Iturria: *Ekonomia Adierazleen datu-basea. Ekonomia eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioa.*

Zentzu horretan, nabarmentzekoa da merkatuek 2020an zehar izandako lurrunkortasun handia, pandemiaren bilakaeraren gaineko ziurgabetasun handiak eraginda. IBEX-35 indizeak inoizko eguneko beherakadarik handiena erregistratu zuen (-% 14,4 martxoan), eta inoizko hileko gorakadarik handiena (+% 25,2 azaroan).

4.1 IKUSPEGI OROKORRA

Lehen mailako eta jaulkipeneko merkatuak

2020an nabarmen handitu zen baloreen lehen mailako merkatuaren jardura. Ia hirukoiztu egin zuen 2019an egindako jaulkipen garbien eta SEP-en bolumena. Zehazki, 2019an 55.122 milioi eurokoa izatetik 2020an 141.513 milioi eurokoa izatera pasatu zen (+86.391 milioi euro), baina hazkunde hori akzioak ez diren baloreen bilakaeraren (+91.698 milioi euro) ondorioa izan zen; 135.877 milioi euroko saldoarekin itxi zuten 2020a. Bestetik, kotizatutako eta kotizatu gabeko akzioen osagaiak behera egin zuen 2019arekin alderatuta (-5.307 milioi euro), eta 5.636 milioi euroan kokatu zen, 2019ko bilakaera positiboa etenda.

Akzioak ez diren baloreen xehetasunei dagokienez, aipatzekoa da Administrazio Publikoaren segmentuak igoera handia izan zuela (+79.196 milioi euro); 2020aren itxieran 97.958 milioi euroko saldoa zuen segmentu horrek, eta, neurri handi batean, horren ondorioz hazi zen jardura ere. Sektore publikoak egindako jaulkipenen partida nagusiak hau da, Administrazio Zentralaren saldoak, ere gora egin zuen (+83.601 milioi euro), eta

horrek eragina izan zuen Administrazio Publikoek izandako emaitza positiboan. Autonomia erkidegoen segmentuak, berriz, behera egin zuen (-4.458 milioi euro). Dena den, nabarmen txikiagoa da segmentu horren pisu erlatiboa, baita tokiko korporazioena ere.

251. koadroa Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik.
Inbertsio-funtsetako partaidetzak eta akzioak.
Jaulkipen garbiak eta salmenta-eskaintza publikoak

Kontzeptua	2018	2019	2020	(M euro)	
				Urte batetik besterako aldakuntza	
				Aldakuntza 19/18	Aldakuntza 20/19
Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik. Balore nominalak	31.690	44.179	135.877	12.489	91.698
– Finantza-erakundeak	-11.943	11.309	26.552	23.252	15.243
• Finantza-erakunde monetarioak	12.720	19.341	17.941	6.621	-1.400
• Bestelako finantza-bitartekariak	-24.662	-8.033	8.611	16.629	16.644
– Administrazio Publikoak	37.929	18.762	97.958	-19.167	79.196
• Administrazio zentrala	41.684	17.117	100.718	-24.567	83.601
• Autonomia-erkidegoak	-3.621	1.698	-2.760	5.319	-4.458
• Tokiko udalbatzak	-134	-53	0	81	53
– Sozietate ez-finantzarioak	5.704	14.108	11.367	8.404	-2.741
Akzio kotizatuak eta ez-kotizatuak	-555	10.943	5.636	11.498	-5.307
– Kapitala zabaltzea. Funtsen ekarpena	-1.802	10.234	4.668	12.036	-5.566
• Finantza-erakundeak	1.199	2.480	1.094	1.281	-1.386
• Sozietate ez-finantzarioak	-3.000	7.754	3.612	10.754	-4.142
– Salmenta-eskaintza publikoak	1.247	709	968	-538	259
Jaulkipen garbien eta salmenta-eskaintza publikoen guztizkoa	31.135	55.122	141.513	23.987	86.391

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Bestetik, finantza-erakundeen saldoa ere hazi egin zen 2019arekin alderatuta (+15.243 milioi euro), eta 26.552 milioi eurora iritsi zen 2020an. Bestelako finantza-bitartekarien partida¹ 8.611 milioi eurora igo zen azken urtean (+16.644 milioi euro), eta horrek azaltzen du finantza-erakundeen saldoaren hazkundera. Taldearen epigrafe nagusiak, finantza-erakunde monetarioek², berriz, behera egin zuten (-1.400 milioi euro). Azkenik, sozietate ez-finantzarioen jaulkipenak 11.367 milioi eurora jaitsi ziren 2020an (-2.741 milioi euro).

Akzio kotizatuak eta ez-kotizatuak beheranzko bilakaera kapitalaren zabaltzeetan izandako beherakadak (-5.566 milioi euro) eragin zuen, bai sozietate ez-finantzarioen kasuan (-4.142 milioi euro), bai finantza-erakundeen kasuan (-1.386 milioi euro). Salmenta-

¹ Nagusiki, aseguru-konpainiak, pentsio-funtzak edo mutualitateak, higiezin inbertsio-sozietateak, inbertsio-funtzak, hipoteka-kredituen sozietateak, leasing-erakundeak, factoring-ekoak, diru-merkatuko sozietate bitartekariak eta elkarrenganako bermeko sozietateak.

² Barne hartzen ditu kreditu-erakundeak eta egoitza eremuan duten finantza-erakunde guztiak. Horien jardura honako hau da: FEMak ez diren erakundeen gordailuak eta etorriko diren gordailuen ordezkotza jasotzea, eta kredituak ematea edo balioetan inbertitzea beren kabuz —gutxienez, termino ekonomikoetan—. Azken talde hori, funtsean, merkatu monetarioko funtsek osatzen dute.

eskaintza publikoak, berriz, apur bat hazi ziren 2019arekin alderatuta (+259 milioi euro), horiek duten pisua nabarmen txikiagoa izan arren (% 17,2).

Emaitza horiek agerian uzten dituzte ekitaldiko zailtasunak, eta irakurketa ezberdinak egin daitezke eragileen finantzaketa-beharren inguruan: batetik, hazi egin zen eragile publikoen funts-eskaria –nabarmen hazi ziren haien jaulkipenak, pandemiaren eragin ekonomikoak arintzeko laguntza-paketeak finantzatzeko beharrezkoak–; baina, bestetik, gelditu egin ziren eragile pribatuen estrategiak, haien negozio-emaitzek asko baldintzatu zituztelako.

Bigarren mailako merkatuak: Burtsak

Estatuan Errenta Aldakorreko bigarren mailako merkatuan negoziatutako bolumena 429.838 milioi eurokoa izan zen 2020an, hau da, asko jaitsi zen 2019arekin alderatuta (-% 8,6). Hala, ondoz ondoko bost urtetan egin zuen behera bolumen horrek. BMBNk¹ akzioen epe laburreko eragiketen gainean ezarritako mugek eragina izan zuten jardueraren beherakadan. Era berean, jarduerak behera egitearen ondorioz, enpresa kotizatuen kapitalizazioak ere behera egin zuen (-% 14,2), eta haien merkatuko balioa 948.209 milioi eurora jaitsi zen (2019an 1.105.662 milioi eurokoa zen).

Testuinguru horretan, IBEX-35 indizeak 8.073,70 punturekin amaitu zuen 2020ko ekitaldia, aurreko urteetako ia 10.000 puntuko kotizazioetatik oso urrun (2019an 9.549,20 puntu). Europako gainerako indizeek ere balioa galdu zuten, baina Espainiako hautaketan izandako eragina handiagoa izan zen, Espainian bankuen sektoreak duen garrantzia eta turismo-sektorearekin lotutako baloreetan izandako inpaktua kontuan izanda.

Zehazki, bankuen sektoreak beherakada handia izan zuen akziotan negoziatutako bolumenari dagokionez (-% 32,8); segmentu horri egozten zaio jarduerak erregistratutako galeraren zatirik handiena. Dena den, komunikazioaren segmentuak (-% 2,3) eta beste sektore batzuek (-% 0,2) ere egin zuten behera. Elektrikoen sektoreak (+% 11,1) eta eraikuntzak (+% 5,6), berriz, urte arteko hazkundea izan zuten negoziatutako bolumenean, baina horrek ez zuen konpentsatu gainerako osagaien eragin negatiboa. Hortaz, SIBEren jarduera 429.358 milioi eurora jaitsi zen 2020an (urteko arteko -% 8,6ko tasa).

¹ BMBNk akzioen epe laburreko salmentak debekatu zituen 2020ko martxoaren 17aren eta maiatzaren 17aren artean.

252. koadroa Burtsa-merkatua. Negoziatutako bolumenen balio efektiboa (akzioak)

Tituluak	2018	2019	2020	(Meuro) % Δ20/19
Akzioak (SIBE, Espainiako Burtsa arteko Lotura Sistema)	586.723	469.635	429.358	-8,6
• Bankuak	197.428	146.427	98.390	-32,8
• Elektriakoak	71.043	71.272	79.190	11,1
• Eraikuntza	22.936	25.194	26.595	5,6
• Komunikazioa	58.069	51.040	49.846	-2,3
• Gainerakoak	237.247	175.702	175.337	-0,2
Gainerako akzioak (Korro Sist. Kont.)	480	480	480	0,0
• Madrilgo burtsa	360	360	360	0,0
• Bartzelonako burtsa	120	120	120	0,0
• Bilboko burtsa	0	0	0	0,0
• Valentziako burtsa	0	0	0	0,0
Akzioak, guztira	587.203	470.115	429.838	-8,6

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Aipatu dugun moduan, 2020an lurrunkortasun handia izan zuen burtsako jarduerak, pandemiaren bilakaeraren inguruan zegoen ziurgabetasunaren ondorioz. Hala, bikoiztu egin zen aurreko urteko indizearen datua. Zehazki, VIBEX adierazlea % 25,5era igo zen (eguneko batezbestekoa) 2020an; 2019an % 13,7koa zen. Dena den, lurrunkortasun horrek martxoan izan zuen mailarik gorena¹, pandemia lehertu zenean, eta 2008 krisian izandako balioetatik gertu kokatu zen. Dena den, ondorengo hilabeteetan jaitsi egin zen intzidentzia, baina oraindik ere Covid-19aren aurreko mailatik gora zegoen.

51. grafikoa VIBEXen lurrunkortasun-indizea



Iturria: Espainiako Burtsak eta Merkatuak (BME)

¹ Martxoaren 16an batez besteko lurrunkortasun inplizitua (% 76,6) maximo historikoetatik gertu kokatu zen. 2008ko krisian baino ez zen gainditu maila hori (% 79,2, 2008ko urriaren 27an).

Bigarren mailako merkatuak: Errenta Finkoa

Covid-19ak sortutako krisiaren eragina arintzen lagundu dute banku zentral nagusiek aplikatutako moneta-politika moldakorrek, likidezia-ekarpenek eta zorraren erosketek. Orokorrean, Errenta Finko publikoko bigarren mailako merkatuan negoziatutako bolumena 87.529 milioi eurora igo zen 2020an, hau da, asko hazi zen aurreko urtetik (+% 10,8). Bonu eta obligazio ez-bereziak (guztizkoaren % 84,1) nahiz bereziak hazi ziren (+% 16,4 eta +% 9,1, hurrenez hurren), eta, hortaz, biek eragin zuten negoziazio-bolumenaren hazkundera. Altxorren Letren jaulkipenak, berriz, behera egin zuen 2019arekin alderatuta (-% 18,4).

253. koadroa Errenta finko publikoaren bigarren mailako merkatuan negoziatutako bolumenak: Estatuaren zorra ⁽¹⁾

(M euro)

Kontzeptua	2018	2019	2020	% Δ20/19
CADE sistema - ARCO sistema ⁽²⁾	65.252	78.999	87.529	10,8
– Bonu eta obligazio ez-bereziak	54.982	63.212	73.574	16,4
– Bonu eta obligazio bereziak	1.840	3.887	4.240	9,1
– Altxorren Letrak	8.430	11.900	9.715	-18,4

(1): Eskurako, eperako eta berrerosteko eragiketa-negoziazioen eguneroko zifren batez bestekoa. 2017az geroztik, araudi-aldaketa dela-eta, errenta finko pribatuko merkatuek ez dituzte argitaratu negoziazioaren gehiengoaren datuak (sistemako erabiltzaileen arteko salerosketa zuzenak).

(2): 2017an, Espainiako Bankuaren Idazpenen Zentralaren (CADE) lehengo sistemaren kudeaketa Espainiako Burtsa eta Merkatuen Taldearen esku geratu zen, ARCO izenarekin, eta Europako T2S sistemarekin homologatu zen.

Iturria: Altxor Publikoaren hileroko estatistikak. Ekonomia eta Enpresa Ministerioa.

254. koadroa Geroko Finantzarioen eta Aukera Finantzarioen Espainiako Merkatua

(mila kontratu)

Kontzeptua	2018	2019	2020	% Δ20/19
Geroko finantzarioak, guztira	17.045	21.264	16.874	-20,6
– Indizeen gaineko gerokoak (IBEX)	6.342	5.966	5.906	-1,0
– Akzioen gaineko gerokoak	10.703	15.298	10.968	-28,3
Aukera finantzarioak, guztira	24.421	21.298	21.830	2,5
– Indizeen gaineko aukerak (IBEX)	4.183	3.806	2.437	-36,0
– Akzioen gaineko aukerak	20.238	17.492	19.393	10,9
MEFF, guztira	41.466	42.562	38.704	-9,1

(*): Egindako eragiketak

Iturria: BME (Espainiako Burtsak eta Merkatuak)


Azkenik, finantza-eratorrien merkatuak (MEFF) nabarmen murriztu zuen kontratazioa 2020an, 38,7milioi kontratura arte (-% 9,1). Geroko finantzarioen bilakaerak (-% 20,6) eragin zuen emaitza hori. Geroko finantzarioen beherakada, berriz, akzioen gaineko gerokoak jaitsierak (-% 28,3) eta IBEX indizearekin lotutako gerokoak jaitsierak (-% 1,0) eragin zuten. Azken finean, jarduera "gelditu" egin zen, epe laburreko etorkizunaren gaineko ziurgabetasunaren aurrean. Aitzitik, aukeren kontratazioa hazi egin zen

2019arekin alderatuta (+% 2,5), akzioen gaineko aukerek gora egin baitzuten (+% 10,9), eta horrek konpentsatu egin zuen IBEX indizeen gaineko aukeren jaitsiera (-% 36,0).

4.2 BILBOKO BURTTSA

Bilboko Burtsaren indizearen balioa asko handitu zen 2019aren itxieran, baina 2020an behera egin zuen, eta 1.062,54 puntura arte jaitsi zen aipatutako hilabetean¹. Pixkanaka, eta jarduera ekonomikoa suspertzen zihoan heinean, indizea apur bat hobetu zen (apirilaren eta uztailaren artean), baina burtsako jarduerak berriro ere a tzera egitea eragin zuten birusaren intzidentziaren agertokiak, pandemia kontrolatzeko neurri murriztaileak gogortzeak eta, azken finean, suspertzearen sendotasunaren eta azkartasunaren gaineko zalantzek. Dena den, azaroan balioak berriro ere handitu ziren (1.286,83 puntu). Izan ere, txertoak etorriko ziren iragarpenak eta txertoen eraginkortasunak igurikimenak hobetu zituzten, eta hobekuntza horrek ekitaldiaren amaierara arte iraun zuen.

52. grafikoa Kotizazio Indize Orokorra Bilboko burtsa



Iturria: Bilboko Burtsa.

Hala, Bilboko Burtsaren indizeak 1.291,18 puntuko balioarekin itxi zuen 2020a, ekitaldiko aldirik konplikatuen zehar erregistratutako balio minimoetatik oso gora, baina oraindik ere Covid-19aren aurretik eskuratutako balioetatik oso urrun. Zehazki, urte arteko jaitsiera % 13,1ekoa izan zen, eta horrek aurreko ekitaldiko bilakaera positiboa hautsi zuen. Gainera, 2002az geroztik Bilboko Burtsan erregistratutako daturik baxuena izan zen; urte hartan 1.090,10 puntuko balioa eskuratu zuen Bilboko Burtsako indizeak.

¹ Nolanahi ere, indizeak balio minimoa eskuratu zuen martxoaren 16an, 947,32 punturekin.

255. koadroa Bilboko Bursaren Indize Orokorra (2000 indizea). Azken balioa, maximoa eta minimoa

Urtea	Azkena	Maximoa	Minimoa
2012	1.331,00	1.443,33	974,81
2013	1.658,57	1.660,80	1.231,66
2014	1.668,99	1.849,71	1.601,52
2015	1.578,45	1.941,39	1.530,92
2016	1.489,50	1.542,97	1.283,77
2017	1.577,50	1.748,99	1.479,05
2018	1.330,08	1.337,44	1.323,12
2019	1.485,36	1.488,93	1.481,62
2020	1.291,18	1.297,27	1.298,11


Oharra: Oinarria 2000, 1999ko abenduaren 31koa.

Iturria: Bilboko Burtsa.

Azkenik, Bilboko Bursan negoziatutako bolumena 96.625 milioi eurora igo zen 2020an, urte arteko hazkunde handiarekin (+% 9,7). Hala, azken bi hamarkadetako bilakaera negatiboa eten zuen, tarte horretan, 100.000 milioi eurotik behera jaitsi baitzen jardueraren maila. Azken ekitaldian ez zen maila hori berreskuratu oraindik. Halaber, gaur egungo kontratazioaren bolumena 2011-2015 aldiko bolumena baino askoz baxuagoa dela nabarmendu behar da; aldi hartan ia 200.000 milioi eurokoa zen. Bestetik, kontratazio osoa errenta aldakorraren merkatuari dagokio eta, zehazki, SIBE merkatu jarraiarri¹. Errenta finkoaren merkatuaren jarduera, berriz, nulua da 2017az geroztik.

53. grafikoa Bilboko Bursako kontratazio-bolumena. Balio efektiboak*

(milioi euro)



(*): Erosketak + salmentak.

Iturria: Bilboko Burtsa.

¹ Espainiako Burtsa arteko Lotura Sistema.

